Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala





2024ko

# Memoria aurkibidea

Iruñeko Udala

IRUÑEKO UDALA

# Indize

## Antolamendua


**1 / Politika - eta administrazio - antolamendua** 4
- 1.1 Udalbatza 5
- 1.2 Udal antolamendua 6

**2 / Biztanleria** 9

**3 / Gobernu organoen jarduera** 13


## Udal-alorrak


**1 / Alkatetza** 17
- 1.1 Ekitaldi instituzionalak eta protokoloa 18
- 1.2 Komunikazio zerbitzua 19
- 1.3 Herritarrendako arreta zerbitzua 22
- 1.4 Aholkularitza juridikoa 25
- 1.5 Udal artxiboa 26

**2 / Ogasuna eta Kontratazio Publiko Arduratsua** 29

**3 / Giza baliabideak** 34

**4 / Gobernu Estrategikoa, Hirigintza, Etxebizitza eta 2030 Agenda** 41
- 4.1 Gobernu estrategikoa 42
- 4.2 Hirigintza eta etxebizitza 49
- 4.3 Hirigintza gerentzia 58

**5 / Kultura, Jaiak, Hezkuntza eta Kirola** 72
- 5.1 Kultura 73
- 5.2 Hezkuntza 88
- 5.3 Kirola 93

**6 / Herritarren segurtasuna eta bizikidetza** 100
- 6.1 Bide publikoaren kudeaketa 101
- 6.2 Herritarren segurtasuna 102
- 6.3 Bide-segurtasuna 105
- 6.4 Trafikoa eta mugikortasuna 107

**7 / Hiri Bizigarria eta Jasangarria** 112
- 7.1 Proiektu estrategikoak eta mugikortasuna 113
- 7.2 Hiri kontserbazioa 123
- 7.3 Osasuna 136

**8 / Berdintasuna, Ekintza Komunitarioa, Auzoak, Herritarren Partaidetza eta Euskara** 147
- 8.1 Berdintasuna 148
- 8.2 Ekintza Komunitarioa 163
- 8.3 Herritarren partaidetza 179

**9 / Sustapen Ekonomikoa, Europar Proiekzioa, Berrikuntza, Gazteria eta Garapenerako Lankidetza** 191
- 9.1 Merkataritza 192
- 9.2 Turismoa 201
- 9.3 Gazteria 207
- 9.4 Garapenerako Nazioarteko Lankidetza 216

**10 / Gizarte Ekintza** 221




Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

# Antolaketa



Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

# 01

# Politika - eta administrazio - antolamendua



Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

# 1.1
# Udalbatza

## Zinegotziak

### Unión del Pueblo Navarro Udal Taldea

- Cristina Ibarrola Guillén
- Carlos Salvador Armendáriz
- María Caballero Martínez
- María Echávarri Miñano (uko egin zion PLE 4-SEP-24 (2/AL))
- Aitor Silgado Goicoechea
- Izaskun Zozaya Yunta
- Raúl Armendáriz Lezáun
- Javier Labairu Elizalde
- Clara García-Valiño Abós (uko egin zion PLE 8-ENE-24 (3/AL))
- Fernando Aranguren Reta (PLE 12-SEP-24 (1/CP) María Echávarri Miñanoren ordez)
- Juan José Echeverría Iriarte (PLE 11 ENE 24 (2/CP) Clara García-Valino Abósen ordez)

### EH Bildu Udal Taldea

- Joseba Asiron Saez
- Garbiñe Bueno Zabalza
- Joxe Abaurrea San Juan
- Maider Beloki Unzu
- Endika Alonso Irisarri
- Aitziber Campion Gamboa
- Borja Izaguirre Larrañaga
- Zaloa Basabe Gutiérrez

### Iruñeko PSN/PSOE Sozialistak Udal Taldea

- Xabier Sagardoy Ortega
- Marina Curiel García
- Eloy del Pozo Cano
- Nuria Medina Santos
- Miguel Javier Matellanes Muruzábal (PLE 11 ENE 24 (1/CP) Elma Saiz Delgadoren ordez)

### Partido Popular de Navarra Udal Taldea

- Carlos García Adanero
- Carmen Alba Orduña

### Geroa Bai Udal Taldea

- Koldo Martínez Urionabarrenetxea (uko egin zion PLE 3 OCT 24 (19/CP))
- Mikel Armendáriz Barnechea
- Javier Leoz Sanz (PLE 14 OCT 24 (2/AL) (PLE 14 OCT 24 (2/AL) Koldo Martínez Urionabarrenetxearen ordez)

### Contigo Zurekin Udal Taldea

- Txema Mauleón Echeverría

# 1.2 Udal-antolamendua

## 1. ALKATETZA ETA ARDURA-ALORRAK

**Alkatea**

Joseba Asiron Saez

**Alkateordeak**

Garbiñe Bueno Zabalza, lehen alkateordea

Joxe Martin Abaurrea San Juan, bigarren alkateordea

Maider Beloki Unzu, hirugarren alkateordea

### Ardura-alorrak (2024ko urtarrilaren 21era arte)

| Alkatetza eta zinegotzi ordezkariak | Ardura-alorra |
|---|---|
| **Joseba Asiron Saez** | Alkatetza, Erakundeekiko eta Kanpoko Harremanak eta Gerentzia |
| **Zaloa Basabe Gutierrez** | Herritarrekiko Harremana, Partaidetza eta Adinekoak<br>Hezkuntza, Berdintasuna eta Kultur Aniztasuna |
| **Joxe Martin Abaurrea San Juan** | Gobernu Estrategikoa eta Kontserbazioa |
| **Garbiñe Bueno Zabalza** | Ogasuna Pertsonen Kudeaketa |
| **Joxe Martin Abaurrea San Juan** | Hirigintza eta Etxebizitza |
| **Txema Mauleón Echeverría** | Gizarte Zerbitzuak, Kirola eta Osasuna |
| **Maider Beloki Unzu** | Kultura |
| **Koldo Martínez Urionabarrenetxea** | Turismo eta Merkataritza Sustapena |
| **Endika Alonso Irisarri** | Herritarren Segurtasuna |
| **Borja Izaguirre Larrañaga** | Garapen Jasangarria eta Proiektu Estrategikoak |

### Ardura-alorrak (2024ko urtarrilaren 22tik aurrera)

| Zinegotzi ordezkariak | Ardura-alorra |
|---|---|
| **Zaloa Basabe Gutierrez** | Berdintasuna, Ekintza Komunitarioa, Auzoak, Herritarren Partaidetza eta Euskara |
| **Joxe Martin Abaurrea San Juan** | Gobernu Estrategikoa, Hirigintza, Etxebizitza eta 2030 Agenda |
| **Garbiñe Bueno Zabalza** | Ogasun, Kontratazio Publiko Arduratsua eta Giza Baliabideak |
| **Txema Mauleón Echeverría** | Gizarte Ekintza |
| **Maider Beloki Unzu** | Kultura, Jaiak, Hezkuntza eta Kirola |
| **Koldo Martínez Urionabarrenetxea** (1) | Sustapen Ekonomikoa, Europar Proiekzioa, Berrikuntza, Gazteria eta Garapenerako Lankidetza |
| **Endika Alonso Irisarri** | Herritarren Segurtasuna eta Bizikidetza |
| **Borja Izaguirre Larrañaga** | Hiri Bizigarria eta Jasangarria. |

(1) Uko egin ondoren, Mikel Armendarizek ordeztua

| Zinegotzi bereziak | Ardura-alorra |
|---|---|
| **Aitziber Campion Gamboa** | Herritarren Partaidetza eta Euskara |
| **Mikel Armendariz Barnechea** (2) | Berrikuntza, Gazteria eta Garapenerako Lankidetza |

(2) Koldo Martínezek uko egin ondoren, zinegotzigo berezi hori desagertu zen

**Alkatetza Kabinetea, Protokoloa eta Komunikazioa (Alkatetza)**

**Alkatetza Kabinetea:** Olaia Aldaz

**Protokoloa:** Leire Onieva Iturgaitz

**Komunikazioa:** Alberto Gil Pérez Nievas

**Alkatetzako goi-mailako tituluduna:** Sandra Parra Guillen

**Gerentzia**

**Gerentea:** Iñigo Anaut Peña

**Idazkaritza teknikoa:** Andoni Quesada Arraiz/Arantxa Campo Mayo

**Aholkularitza Juridikoa**

**Zuzendaria:** Mª Victoria Borja Etayo

**Idazkaritza teknikoa:** Andoni Quesada Arraiz/Arantxa Campo Mayo

**Ogasuna eta kontratazio publiko arduratsua**

**Alorreko zuzendaria:** Aitor Navarro Aristorena

**Secretaría técnica:** Andoni Quesada Arraiz

**Giza baliabideak**

**Alorreko zuzendaria:** Xabier Burgui Vergara

**Idazkaritza teknikoa:** Arantxa Campo Mayo

**Gobernu Estrategikoa, Hirigintza, Etxebizitza eta 2030 Agenda**

**Alorreko zuzendaria:** Uxua Domblas Ibañez

**Idazkaritza teknikoa:** Fermin Bacaicoa Barnó

**Kultura, Jaiak, Hezkuntza eta Kirola**

**Alorreko zuzendaria:** Iñigo Gomez Eguiluz

**Idazkaritza teknikoa:** Victor Piñero Larrasoaña

**Herritarren Segurtasuna eta Bizikidetza**

**Udaltzainburua:** Antonio José Sánchez López

**Alorreko zuzendaria:** Juan Miguel Gil Larequi

**Idazkaritza teknikoa:** Eva Echarri Osinaga

**Berdintasuna, Ekintza Komunitarioa, Auzoak, Herritarren Partaidetza eta Euskara**

**Alorreko zuzendaria:** Elian Peña Guerrero

**Idazkaritza teknikoa:** Amaya Valls Esparza

**Hiri Kontserbazioa eta Osasuna**

**Alorreko zuzendaria:** Francisco Iriarte Echenique

**Hiri Kontserbazioko idazkaritza teknikoa:** Mónica Lana Elola

**Osasuneko idazkaritza teknikoa:** Carlos Eguizabal Villanueva

**Proiektu Estrategikoak eta Mugikortasuna**

**Alorreko zuzendaria**: Maialen Ariz Sarasketa

**Idazkaritza teknikoa:** Miguel Angel Sanchez Diez de Ulzurrun

**Gizarte Ekintza**

**Alorreko zuzendaria:** Ruben Unanua Ruiz

**Idazkaritza teknikoa:** Margarita Moreno Fernandez

**Sustapen Ekonomikoa, Europar Proiekzioa, Berrikuntza, Gazteria eta Garapenerako Lankidetza**

**Alorreko zuzendaria:** Carlos Andres Uranga

**Idazkaritza teknikoa:** Benita Soteras Ramirez

**Hirigintza Gerentzia**

**Zuzendari- Kudeatzailea:** Pilar Pardo Solano

**Birgaitzeko Bulegoa**

**Zuzendaria:** Alberto Calvo Azagra

**Haur Eskolen Erakunde Autonomoa**

**Gerentea:** Alfredo Hoyuelos Planillo

**ANIMSA**

**Gerentea:** Txema Aguinaga Pérez

**Pamplona Centro Histórico - Iruña Biziberritzen**

**Gerentea:** María Idoya Madariaga López

**Mercairuña**

**Gerentea:** Miriam Mendívil Barandalla

**SAD Pamplona SLU: (2024ko martxoaren 31n desegin zen)**

Gerentea: Íñigo Huarte Huarte

| Auzo-zinegotzigoak | Erantzukizun-arloa |
|---|---|
| Endika Alonso Irisarri | Arrotxapea |
| Borja Izaguirre Larrañaga | Sanduzelai |
| Joxe Martin Abaurrea San Juan | Txantrea |
| Maider Beloki Unzu | Erripagaña – Beloso |
| Txema Mauleón Echeverría | Mendillorri |
| Zaloa Basabe Gutierrez | Alde Zaharra |
| Garbiñe Bueno Zabalza | Donibane |
| Garbiñe Bueno Zabalza | Ermitagaña – Mendebaldea |

| Auzo-zinegotzigoak | Erantzukizun-arloa |
|---|---|
| Joxe Martin Abaurrea San Juan | Arrosadia eta Azpilagaña |
| Koldo Martínez Urionabarrenetxea (1) | Iturrama |
| Borja Izaguirre Larrañaga | Buztintxuri |
| Aitziber Campion Gamboa | Lezkairu – Santa María la Real |
| Endika Alonso Irisarri | Etxabakoitz |
| Mikel Armendáriz Barnechea | Zabalguneak |

(1) Uko egin ondoren, Javier Leozek ordeztua

## 2. TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Joseba Asiron Saez (Udalburua)
Garbiñe Bueno Zabalza (Zinegotzi-idazkaria)
Joxe Martin Abaurrea San Juan
Maider Beloki Unzu
Endika Alonso Irisarri (Aitziber Campion Gamboak ordeztua DAL 26 ABR 24(1/AL))
Borja Izaguirre Larrañaga
Zaloa Basabe Gutierrez
Mikel Armendáriz Barnechea
Koldo Martínez Urionabarrenetxea (Javier Leoz Sanzek ordeztua DAL 15 OCT 24 (1/AL))
Txema Mauleón Echeverría

## 3. BATZORDEAK

| Izena | Izaera |
|---|---|
| **Lehendakaritza** | Arrunta |
| **Herritarren Aferak** | Arrunta |
| **Hirigintza** | Arrunta |
| **Kontuak** | Berezia |
| **Kontratazioak zaintzekoa** | Berezia |
| **Iradokizunak eta erreklamazioak** | Berezia |
| **Next Generation funtsak** | |

## 4. UDAL ERAKUNDE AUTONOMOAK

**Hirigintza Gerentzia**
**Haur Eskolak**

## 5. UDAL PARTAIDETZAKO ENPRESAK

| MENDEKO SOZIETATEAK (Udal-partaidetzakoak) | |
|---|---|
| **Comiruña S.A.** | 100% |
| **Pamplona Centro Histórico SA. - Iruña Biziberritzen** | 100% |
| **SAD Pamplona SLU (2024ko martxoaren 31n desegina)** | 100% |
| **Asociación Navarra de Informática Municipal S.A. – ANIMSA** | 78% |
| **Mercairuña S.A.** | 51% |

| UDAL-FUNDAZIOAK (estatutu juridiko berezi baten menpekoak) |
|---|
| **Gayarre Antzokia Fundazioa** |
| **Erruki Etxea** |

# 02 Biztanleria



Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

## Iruñeko biztanleria osoa

2024ko abenduaren 31ko datuak

| Adina | Gizonak | % | Emakumeak | % | Guztira | % |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 0tik 4ra | 3.702 | 3,7 | 3.553 | 3,2 | 7.255 | 3,4 |
| 5etik 9ra | 4.256 | 4,2 | 4.176 | 3,8 | 8.432 | 4 |
| 10etik 14ra | 4.961 | 4,9 | 4.830 | 4,3 | 9.791 | 4,6 |
| 15etik 19ra | 5.711 | 5,7 | 5.465 | 4,9 | 11.176 | 5,3 |
| 20tik 24ra | 6.656 | 6,6 | 6.565 | 5,9 | 13.221 | 6,2 |
| 25etik 29ra | 6.405 | 6,4 | 6.377 | 5,7 | 12.782 | 6 |
| 30etik 34ra | 6.325 | 6,3 | 6.140 | 5,5 | 12.465 | 5,9 |
| 35etik 39ra | 6.138 | 6,1 | 6.387 | 5,7 | 12.525 | 5,9 |
| 40tik 44ra | 6.740 | 6,7 | 7.152 | 6,4 | 13.892 | 6,6 |
| 45etik 49ra | 7.741 | 7,7 | 7.972 | 7,2 | 15.713 | 7,4 |
| 50etik 54ra | 7.690 | 7,7 | 8.226 | 7,4 | 15.916 | 7,5 |
| 55etik 59ra | 7.237 | 7,2 | 8.024 | 7,2 | 15.261 | 7,2 |
| 60tik 64ra | 6.542 | 6,5 | 7.433 | 6,7 | 13.975 | 6,6 |
| 65etik 69ra | 5.440 | 5,4 | 6.643 | 6 | 12.083 | 5,7 |
| 70etik 74ra | 4.545 | 4,5 | 6.017 | 5,4 | 10.562 | 5 |
| 75etik 79ra | 4.415 | 4,4 | 5.945 | 5,3 | 10.360 | 4,9 |
| 80tik 84ra | 3.075 | 3,1 | 4.539 | 4,1 | 7.614 | 3,6 |
| 85etik 89ra | 1.734 | 1,7 | 3.022 | 2,7 | 4.756 | 2,2 |
| 90etik 94ra | 784 | 0,8 | 2.045 | 1,8 | 2.829 | 1,3 |
| 95etik 99ra | 180 | 0,2 | 631 | 0,6 | 811 | 0,4 |
| 99 baino gehiago | 25 | 0 | 107 | 0,1 | 132 | 0,1 |
| **GUZTIRA** | **100.302** | **100** | **111.249** | **100** | **211.551** | **100** |

## Iruñeko populazio-piramidea guztira

2024ko abenduaren 31ko datuak




Totales: 211.551

Gizonak: 100.302

Emakumeak: 111.249

## Iruñeko etorkinak

2024ko abenduaren 31ko datuak

| Adina | Gizonak | % | Emakumeak | % | Guztira | % |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 0tik 4ra | 586 | 3,7 | 557 | 3,5 | 1.143 | 3,6 |
| 5etik 9ra | 680 | 4,3 | 641 | 4 | 1.321 | 4,2 |
| 10etik 14ra | 761 | 4,8 | 740 | 4,7 | 1.501 | 4,7 |
| 15etik 19ra | 948 | 5,9 | 921 | 5,8 | 1.869 | 5,9 |
| 20tik 24ra | 1.654 | 10,4 | 1.569 | 9,9 | 3.223 | 10,1 |
| 25etik 29ra | 1.747 | 11 | 1.511 | 9,5 | 3.258 | 10,2 |
| 30etik 34ra | 1.923 | 12,1 | 1.728 | 10,9 | 3.651 | 11,5 |
| 35etik 39ra | 1.789 | 11,2 | 1.769 | 11,1 | 3.558 | 11,2 |
| 40tik 44ra | 1.624 | 10,2 | 1.623 | 10,2 | 3.247 | 10,2 |
| 45etik 49ra | 1.354 | 8,5 | 1.260 | 7,9 | 2.614 | 8,2 |
| 50etik 54ra | 1.029 | 6,5 | 1.019 | 6,4 | 2.048 | 6,4 |
| 55etik 59ra | 690 | 4,3 | 862 | 5,4 | 1.552 | 4,9 |
| 60tik 64ra | 487 | 3,1 | 597 | 3,8 | 1.084 | 3,4 |
| 65etik 69ra | 312 | 2 | 476 | 3 | 788 | 2,5 |
| 70etik 74ra | 190 | 1,2 | 291 | 1,8 | 481 | 1,5 |
| 75etik 79ra | 86 | 0,5 | 161 | 1 | 247 | 0,8 |
| 80tik 84ra | 54 | 0,3 | 86 | 0,5 | 140 | 0,4 |
| 85etik 89ra | 30 | 0,2 | 38 | 0,2 | 68 | 0,2 |
| 90etik 94ra | 8 | 0,1 | 20 | 0,1 | 28 | 0,1 |
| 95etik 99ra | 1 | 0 | 2 | 0 | 3 | 0 |
| 99 baino gehiago | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **GUZTIRA** | **15.953** | **100** | **15.871** | **100** | **31.824** | **100** |

## Iruñeko populazio-piramidea guztira

2024ko abenduaren 31ko datuak



## Iruñeko biztanleria osoa

2024ko abenduaren 31ko datuak

| Biztanleria | Guztira | % |
|---|---|---|
| Gizonak | 100.302 | 47,40% |
| Emakumeak | 111.249 | 52,60% |
| 0-14 urte bitarteko biztanleak | 25.478 | 12,04% |
| 15-64 urte bitarteko biztanleak | 136.926 | 64,70% |
| 65 urte eta gehiagoko biztanleak | 49.147 | 23,23% |
| Gazteria-tasa * | | 17,57% |
| Mendekotasun-tasa ** | | 54,50% |
| Zahartze-indizea *** | | 192,89% |
| Atzerritarrak | 31.824 | 15,04% |
| **BIZTANLEAK, GUZTIRA** | **15.953** | **100** |

* 15 eta 29 urte bitarteko biztanleak, biztanleria osoan
** 65 urtetik gorakoak + 0-14 urte bitartekoak / 15-64 urtekoak
*** 65 urtetik gorakoak / 0-14 urte bitartekoak

## Iruñeko biztanleria osoa, auzoz auzo

2024ko abenduaren 31ko datuak

| AUZOA | Gizonak | Emakumeak | Guztira |
|---|---|---|---|
| Azpilagaña | 3.331 | 3.732 | 7.063 |
| Buztintxuri - Euntzetxiki | 4.593 | 4.790 | 9.383 |
| Alde Zaharra | 5.589 | 6.137 | 11.726 |
| Zabalgunea | 9.603 | 11.388 | 20.991 |
| Ermitagaña - Mendebaldea | 7.561 | 8.756 | 16.317 |
| Etxabakoitz | 2.622 | 2.853 | 5.475 |
| Iturrama | 9.938 | 11.959 | 21.897 |
| Lezkairu | 4.700 | 5.045 | 9.745 |
| Mendillorri | 6.724 | 7.163 | 13.887 |
| Arrosadia | 7.842 | 8.275 | 16.117 |
| Arrotxapea | 13.025 | 13.794 | 26.819 |
| Sanduzelai | 6.301 | 6.379 | 12.680 |
| Donibane | 8.704 | 10.606 | 19.310 |
| Txantrea | 9.769 | 10.372 | 20.141 |
| **GUZTIRA** | **100.302** | **111.249** | **211.551** |

## Iruñeko etorkinak, auzoz auzo

2024ko abenduaren 31ko datuak

| AUZOA | Gizonak | Emakumeak | Guztira |
|---|---|---|---|
| Azpilagaña | 544 | 572 | 1.116 |
| Buztintxuri - Euntzetxiki | 1.085 | 1.035 | 2.120 |
| Alde Zaharra | 1.114 | 1.097 | 2.211 |
| Zabalgunea | 1.162 | 1.075 | 2.237 |
| Ermitagaña - Mendebaldea | 959 | 1.062 | 2.021 |
| Etxabakoitz | 618 | 639 | 1.257 |
| Iturrama | 1.278 | 1.509 | 2.787 |
| Lezkairu | 399 | 449 | 848 |
| Mendillorri | 582 | 615 | 1.197 |
| Arrosadia | 2.098 | 1.801 | 3.899 |
| Arrotxapea | 2.176 | 2.140 | 4.316 |
| Sanduzelai | 1.437 | 1.299 | 2.736 |
| Donibane | 1.203 | 1.333 | 2.536 |
| Txantrea | 1.298 | 1.245 | 2.543 |
| **GUZTIRA** | **15.953** | **15.871** | **31.824** |

# 03

# Gobernu organoen jarduera

## OSOKO BILKURA

Iruñeko Udalaren Osoko Bilkura hiriko alkateak eta 26 zinegotzi hautetsiek osatzen dute. Alkatea da bilkuraburua. Udalaren ohiko osoko bilkurak hil bakoitzeko lehen ostegunean egiten dira, 16:30ean. Abuztuan ez da osoko bilkurarik egiten.

Osoko bilkurak jendaurrekoak dira; horrenbestez, nahi duen jende oro joan daiteke bilkuretara. Osoko bilkurak, gainera, Iruñeko Udalaren webgunearen bidez ematen dira, eta aurreko bilkurak kontsultatzeko aukera ere badago. Zuzenean ikus daitezke edozein ordenagailu edo gailu mugikorretatik, Youtube bideo plataformaren bitartez.

| Bilkurak | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ohikoak | 11 | 10 | 9 | 13 | 11 | 10 | 8 | 11 |
| Bereziak | 6 | 5 | 14 | 1 | 5 | 3 | 10 | 5 |
| Bereziak eta Presazkoak | | | | | | 5 | 6 | 4 |
| Eratzaileak | | | 1 | | | | 1 | |
| **GUZTIRA** | **17** | **15** | **23** | **14** | **16** | **18** | **25** | **20** |
| Hartutako erabakiak | 157 | 123 | 233 | 108 | 166 | 115 | 133 | 185 |

## ALKATETZA

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ebazpenak | 748 | 796 | 957 | 722 | 734 | 968 | 1.018 | 1.052 |
| Dekretuak eta xedapenak | 37 | 74 | 85 | 32 | 27 | 26 | 103 | 102 |
| Bandoak | 1 | 1 | 1 | 1 | - | 2 | 1 | 1 |
| **GUZTIRA** | **786** | **871** | **1.043** | **755** | **761** | **996** | **1.122** | **1.155** |

## GOBERNU BATZARRA

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ohiko bilkurak | 42 | 39 | 40 | 39 | 44 | 37 | 35 | 41 |
| Bilkura bereziak | 1 | - | - | 20 | - | 1 | 1 | 1 |
| Presazko bilkura bereziak | 29 | 42 | 51 | 7 | 38 | 24 | 47 | 47 |
| **GUZTIRA** | **72** | **81** | **91** | **66** | **82** | **62** | **83** | **89** |
| Hartutako erabakiak | 594 | 690 | 857 | 686 | 840 | 822 | 860 | 1.101 |

## ZINEGOTZIGO ORDEZKARIAK

### Ebazpenak (2024ko urtarrilaren 1etik 21era)

| Zinegotzi ordezkariak | | |
|---|---|---|
| RED | Hezkuntza, Berdintasuna eta Kultur Aniztasuna | 45 |
| REU | Gobernu Estrategikoa eta Hiri Kontserbazioa | 52 |
| RCP | Herritarrekiko Harremana, Partaidetza eta Adinekoak | 56 |
| RSS | Gizarte Zerbitzuak, Kirola eta Osasuna | 76 |
| RUV | Hirigintza eta Etxebizitzako Zinegotzi Ordezkaria | 154 |
| **OROTARA** | | **383** |

### Ebazpenak (2024ko urtarrilaren 22tik abenduaren 31ra arte)

| Zinegotzi ordezkariak | | |
|---|---|---|
| RAS | Gizarte Ekintza | 537 |
| RHS | Hiri Bizigarria eta Jasangarria | 1.523 |
| RCD | Kultura, Jaiak, Hezkuntza eta Kirola | 1.199 |
| RHH | Ogasuna, Kontratazio Publiko Arduratsua eta Giza Baliabideak | 311 |
| RIB | Berdintasuna, Ekintza Komunitarioa, Auzoak, Herritarren Partaidetza eta Euskara | 588 |
| RPC | Sustapen Ekonomikoa, Europar Proiekzioa, Berrikuntza, Gazteria eta Garapenerako Lankidetza | 304 |
| REV | Gobernu Estrategikoa, Hirigintza, Etxebizitza eta 2030 Agenda | 2.282 |
| RSC | Herritarren Segurtasuna eta Bizikidetza | 8.972 |
| **OROTARA** | | **15.716** |

### Ebazpenak (2024ko urtarrilaren 1etik 21era)

| Alorretako zuzendariak | | |
|---|---|---|
| SAL | Alkatetza | 16 |
| SGP | Pertsonen Kudeaketa | 167 |
| SHA | Ogasuna | 117 |
| SAJ | Aholkularitza Juridikoa | 1 |
| SGM | Udal Gerentzia | 122 |
| **OROTARA** | | **423** |

### Ebazpenak (2024ko urtarrilaren 22tik abenduaren 31ra arte)

| Alorretako zuzendariak | | |
|---|---|---|
| SAL | Alkatetza Kabinetea | 42 |
| SIT | Komunikazio Instituzionala eta Gardentasuna | 90 |
| SCS | Hiri Kontserbazioa eta Osasuna | 37 |
| SHC | Ogasuna eta kontratazio publiko arduratsua | 2.545 |
| SAJ | Aholkularitza Juridikoa | 20 |
| SPC | Sustapen Ekonomikoa, Europar Proiekzioa, Berrikuntza, Gazteria eta Garapenerako Lankidetza | 336 |
| SRH | Giza Baliabideak | 2.112 |
| SGM | Udal Gerentzia | 2.107 |
| **OROTARA** | | **7.289** |

# Udal-alorrak

# 01 Alkatetza



Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

# 1.1 ekitaldi instituzionalak eta protokoloa

2024an, urtero bezala, Udalaren Hiri Gorpuztuak honako ekitaldi instituzional hauetan parte hartu zuen:

| | |
|---|---|
| Bost Zaurien Botoa berritzea (Ostegun Santua) | San Ferminen Zortziurrena (uztailak 14) |
| Sanferminetako Bezperetako Martxa (uztailak 6) | Batasunaren Pribilegioa (irailak 8) |
| San Ferminen prozesioa (uztailak 7) | Done Saturdiren prozesioa (azaroak 29) |

Gauza berri bat ere izan zen. Izan ere, Done Saturdi arratsaldean, Eguberrietako argien ohiko piztean, Argiluna proiektua estreinatu zen, Zentralekin elkarlanean, argi-ikuskizuna musika-emanaldiekin uztarturik.

### HARRERA-EKITALDIAK

2024an, alkatea buru izan duten harrera-ekitaldiak honako hauek izan dira, haietan ere Udalbatzak parte harturik:

| Urtea | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Harrera-ekitaldi kop. | 26 | 22 | 15 | 17 | 17 | 13 | 36 |

### BESTELAKO EKITALDIAK

Harrera-ekitaldiez gain, alkatea eta Udalbatzako kide batzuk hainbat edukitako beste 25 ekitalditara ere joan ziren (sari-banaketak, jardunaldiak, etab). Haien artean nabarmentzekoak dira Urrezko Baba ASPACEri eman izana; Iruñeko Zapia, Mariví Esparza Muguetari; eta Txondorra saria, Ortzadar taldeari.

### BISITA GIDATUAK UDALETXERA

Urtean zehar, 175 taldek bisitatu zuten udaletxea; hori horrela, urte osoan zehar, modu egonkorrean eta doan eskainitako zerbitzu horren bitartez, 4.643 pertsonak bisitatu zituzten udaletxeko aretoak. Udalak kalitatea neurtzeko sistema bat ezarria du, gogobetetzeari buruzko inkesten bidez, bisitaren edukia, erreserba-sistemaren funtzionamendua eta jasotako tratua neurtzeko, besteak beste.

| Urtea | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Talde kop. | 147 | 172 | 63 | 40 | 107 | 97 | 175 |
| **Pertsonak, guztira** | **3.700** | **4.547** | **1.413** | **748** | **2.225** | **2.107** | **4.643** |

* Bisitak 2024ko batasunaren pribilegioan: 22 talde eta, guztira, 613 pertsona

# 1.2 Komunikazio Zerbitua

## PRENTSA-OHARRAK ETA DEIALDIAK KOMUNIKABIDEEI

Iruñeko Udaleko Komunikazio Zerbitzuak **1.682 prentsa-ohar** igorri zituen 2024an komunikabideetara, aurreko urtean baino % 3,7 gehiago, 2023an 1.621 udal-informazio igorri baitzituen. Ohar gehien bidali ziren hilabeteak urria (173), maiatza (159), uztaila (154) eta ekaina (152) izan ziren. Abuztuan, arazoan, abenduan eta apirilean, 130 prentsa-ohar baino gutxiago igorri ziren.

2024an, **246 deialdi egin zitzaizkien komunikabideei**, besteak beste ekitaldi, irekiera, bisita, erakusketa eta prentsaurrekoetarako.

| Urte | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|
| Prentsa-oharrak | 1.549 | 1.641 | 1.547 | 1.621 | 1.682 |
| Hedabide-deialdiak | 106* | 243 | 226 | 217 | 246 |

## WEBGUNEA

Iruñeko Udalaren webguneak, www.pamplona.es, 2.955.475 erabiltzaile izan zituen guztira 2024n. Erabiltzaileak 4.618.295 orrialdetara sartu ziren, 4.618.295 saio sortuta. Erabiltzaile kopurua % 169 igo zen aurreko urtearen aldean, eta igoerak ere izan ziren orrialde kopuruan eta hasitako saioetan.

Atarian sartzeko erabiliz ziren gailuei dagokienez, sareren % 61,90 mugikorraren bidez egin zen, % 36,6 ordenagailu bidez, eta % 1,5, tablet bidez. Beraz, sarbide mugikorra da nagusi, baina zertxobait jaitsita, 2023aren aldean.

Google Analytics analisirako tresnaren datuen arabera, saio bakoitzean 1,24 orrialde bisitatu ziren bana beste eta bisiten batez besteko iraupena minutu bat eta 37 segundokoa izan zen. Bisitari gehienak bilaketa organikoaren bidez (% 60,62) sartzen dira webean; gero, zuzeneko trafikoaren bidez (% 37,01) eta sare sozialen bidez (% 1,37).

Edukirik kontsultatuenei dagokienez, aurreko urteetan bezala, atalik bisitatuena hasierako orrialdea izan zen, sarbideen % 10,35ekin; gero, udal agenda (% 6,61), eskaintza publikoko eskaintzen orrialdea (% 2,48) eta aparkatze arautuko eremuak (% 1,77).

## SARE SOZIALAK

2024an, Udaletako sare sozialek igoera jarraitua izan dute hala irismenean nola herritarren partaidetzan. Era berean, zuzeneko komunikazio-estrategiari eutsi zaio WhatsApp kanalen bidez, udal albisteen laburpena bidaliz egunero herritarrei, zerbitzuen gaineko informazioaz gainera.

Facebooken, 20.348 jarraitzaile dira, guztira; bereziki, 35 eta 44 urte artekoak nabarmenduta (% 27,1) eta, gero, 45 eta 54 urte artekoak (% 25,9). 40.000 elkarrekintza baino gehiago izan ziren, barne direla erreakzioak, iruzkinak, edukiarendako erantzunak, gorde edo partekatu zen aldiez gainera.

Instagramen, edukiaren irismena % 6 igo zen aurreko urtearen aldean, 308.217 kontura iritsita. Audientziari dagokionez, adin-tarterik ohikoena 25 eta 44 urte artekoa da: % 59,3 emakumeak dira, eta % 40,7, gizonak.

YouTuberi dagokionez, Iruñeko Udalaren kanal ofizialak 248 harpidedun berri izan zituen; guztira, 174.216 ikustaldi izan ziren eta 3.658,2 erreprodukzio-ordu.

Bereziki aipatu behar da 2024ko sanferminen eta une adierazgarrien gaineko komunikazioa @SanferminesPamplona-ren bitartez. Jaietan, eduki partekatua 3.642.604 kontutara iritsi zen; hau da, aurreko urtean baino % 274 gehiagotara. Zehazki, 2023ko uztailaren lehen hamabostaldian, 1.330.735 kontu izan ziren Facebooken eta Instagramen, eta 2024an, aldiz, tarte berean, 3.642.604. Igoera horren ondorioz, 15.000 jarraitzailetan baino gehiagotan hazi da @SanferminesPamplona.

Guztira, 600 argitalpen baino gehiago egin dira @SanferminesPamplona profiletan, jaietan. Ekitaldi nagusiak nabarmentzen dira, hala nola, Txupinazoa, entzierroak, Gaixoa Ni, kontzertuak, bai eta agendari eta udal kanpainei buruzko informazioa ere. Instagramen bakarrik, reelek 9.000.000 erreprodukzio baino gehiago izan dituzte. Txupinazoak eztanda egin ostean, gaiteroak Udaletxe plazatik ateratzen diren unea da une nabarmenetako bat bat. Aurtengo reelik biralenak, hots, plaza gaiteroen ikuspegi ezezagunetik erakusten duenak, 3.300.000 ikustaldi baino gehiago izan ditu Instagramen. Beste bi reelek 381.000 eta 117.000 ikustaldi izan dituzte, hurrenez hurren.

Horrenbestez, 2024ak emaitza onak izan ditu hazkundean, irismenean eta partaidetzan, audientziaren jokaeraren aldaketaren adierazgarri, gehiago kontsumitu baita ikus-entzunezko edukia; Instagramen, bereziki.

## IRUDI KORPORATIBOA

### IRUÑA MARKA

2024an egindako hainbat lanen ondorioz, Iruña hiriari buruzko marka berria bat sortu eta zabaldu da.

**Marka diseinatzeko lanak**

Martxoan eta apirilean, sei mahai tekniko eta sektorial izan ziren: turismoa, kultura, ekonomi,a hiria, herritarrak, eta turismo talde eragilea. Haietan guztietan, udal funtzionarioek eta sektoreen nahiz aztergaien ordezkariek esku hartu zuten.

Maiatzean, 1.700 talde eta elkarte baino gehiago gonbidatu zituzten dinamizatutako jardunaldi partizipatiboetara; apirilean egin ziren, Kondestable Civivoxean. Azkenean, 27 kolektiboren ordezkariek parte hartu zuten.

Horrez gain, 57 elkarrizketa kualitativo eta 115 galdetegi bidali ziren enpresa, ikerketa, kultura edo gastronomia munduko jende adierazgarriari.

Horren guztiaren emaitza gisa, lehen diagnostiko-txosten bat aurkeztu zen ekainean, eta uztailaren erdialdean, bigarren txosten bat, Estrategia-txostena, hain zuzen. Azken horretan jasota zeuden hala marka berria, nola Iruña marka berria aurkezteko "tagline" edo eslogana, hiriaren kontakizunaren adierazle dena: **Pamplona, de verdad / Iruña, bagara.**

**Aurkezpena**

Udazkenean, ordura arte egindako lan guztia aurkeztu zitzaien udal-talde politikoei eta sektore sozioekonomiko estrategikoetako hainbat eragileri. Udazkenenean, baita ere, hiriaren eta markaren ordezkariak izanen diren enbaxadoreak izendatu ziren.

Iruña marka berria, azkenean, azaroaren 12an aurkeztu zen Gayarre Antzokian, hiriko esparru guztietako 500etik gora pertsonaren aurrean. Ekitaldian, Joseba Asiron alkateak markaren balioak aletu, huraxe erakutsi eta aurkezpen ofiziala egin zuen.

**Irteera-kanpaina**

Markaren aurkezpena irteera-kanpaina baten bidez indartu zen, 2024ko azaroan eta abenduan. Kanpaina barnean, honako jarduketak egin ziren:

- **Kanpoaldeko publizitatea.** Iruña markaren gaineko publizitatea billabesetan, edikuluetan, mupietan.
- **Erakusketa.** Erakusketa bat sortu, ekoiztu eta garatu zen marka nola sartu zen eta haren osagairik garrantzitsuenak azaltzeko. Erakusketa ikusgai egon zen Kondestablen, 2024ko azaroaren 19tik abenduaren 19ra arte, Iruñean auzoz auzo aurkeztu baino lehen.
- **Publizitatea hedabideetan.** Publizitatea egin zen ikus-entzunezko hedabideetan eta inprimatuetan.
- **Marketin digitaleko kanpain**a. Markaren presentzia hedabide digitaletan eta plataformetan (Youtube, Spotify edoo Google).

Iruña Markaren diseinua PSTD Iruña SF365 proiektuaren baitako jarduketa da, eta Europako Next Generation funtsak finantzatzen du Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez. Funts horiek Espainiako Gobernuaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren C14.I1 inbertsioaren finantza tresna dira. Testuinguru horretan, Iruñeak 5.492.500 euroko laguntza jaso du hiru urtean "Iruña SF365" Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Plana hedatu eta garatzen erabiltzeko.

### UDAL-MEMORIA

Zerbitzuaren 2024ko lanaren barruan, instituzioaren irudi korporatiboari dagokionez, urtero bezala, aurreko urteko (2023) udal-memoria egin da; nabigagarria da online eta pdf. euskarrian deskargatu daiteke. Hala, 2008az geroztik, Komunikazio Zerbitzuak zentralizatu eta laburbiltzen du Iruñeko Udaleko alor guztiek urte horretan egindako lana, herritarrei modu irisgarrian eskainiz erakundearen ikuspegi orokorra.

### BESTE KANPAINA BATZUK

- Eguberrietako kanpaina. 2024ko eguberri-programazioak 200 ekitaldi baino gehiago izan zituen eta haren gaineko publizitate-kanpaina egin zen, udalaren euskarri eta bitarteko guztiak, weba eta sare sozialak erabiliz, hedabideez gainera. Eguberriak kalean dira, Eguberriak zure auzoan dira goiburu harturik, kanpainak eguneroko udal-agendaren berri eman zien herritarrei, bai eta haien partaidetza sustatu ere.

## ARGAZKIGINTZA- ETA BIDEOGRAFIA-ZERBITZUAK

Iruñeko Udalak argazki-kontratua lizitatu eta esleitu zuen, 2024an. Kontratu horrek xede du Udalak bere proiektu, jarduketa eta ekitaldiei buruz agindutako argazki-lanak egitea, udal-kanaletan hedatzeko eta komunikabideen eskura jartzeko. Kontratuak 45.000 euroko aurrekontua du urteko eta Cristina Núñez Baquedano eta Gorka Beunza profesionalek osatutako taldeari adjudikatu zaio Kontratua urtebeterako da eta lau urtez da luzagarria.

Iruñeko Udalak, gainera, indarrean du bideo-albisteak egiteko kontratua, herritarrei udal-jardunaren berri emateko zenbait euskarriren bidez. Kontratuaren aurrekontua 52.937,40 euro da urteko, eta Javier Noáin Sanzi eta Ignacio Martínez Martínezi adjudikatu zaie. 250 bideo egin behar dituzte, astelehenetik ostiralera bitarte argitaratu ohi direnak urteko lanegunetan, udal-informazioak ikus-entzunezkoen bidez osatzeko. Hainbat bertsio egiten dira bideo bakoitzari buruz, idazkunak gaztelaniaz eta euskaraz jarrita. Eduki horiek udal mupietan, Iruñeko Udalaren Youtube kanalean eta udalaren web eta sare sozialetan daude ikusgai.

## PUBLIZITATE INSTITUZIONALA

Horrela, jarraipena eman zaio **esparru-akordioari publizitatea eta komunikazio-materialak diseinatzeko**, hau da, publizitatea, kartelak, liburuxkak, etab. sortzearekin zerikusia duen guztia, ahalik eta kalitaterik onena lortzeko prezio lehiakorretan, eta irudi korporatiboaren batasuna lortzeko. Kontratuak publizitate instituzionaleko kanpainak eta ekintzak kontratatzea arautzen du urtebetez, bai eta jardueren eta zerbitzuen irudi, sustapen eta hedapenerako materialak eta euskarriak diseinatzea ere. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 484.000 eurokoa da. Bi sorta ditu. Lehena 4.000tik gorako lanetarako eta publizitate instituzionalerako egiten diren lan guztietarako (La Llorona-Hasitagori esleitua). Bigarrena, berriz, zenbateko horren azpitik dauden lanetarako; horrela, 11 enpresa aukeratu dira txandaka lan egiteko.

2024ko azaroan, esparru-akordio berria atera zen lizitaziora gehienez hamar enpresa edo profesional aukeratzeko, publizitatea eta komunikazio-materialak diseinatze aldera. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua da 484.000 euro da urteko. Kontratuak urtebeteko iraupena du eta hiru urtez da luzagarria.

Ekainean, bestalde, **akordio-esparrua atera zen lizitaziora, tokiko hedabide pribatuetan publizitate-esparruak erosteko,** hedabideak beren tipologiaren arabera sorta ezberdinetan elkartuta. Kontratuak, gehienez, 600.000 euroko aurrekontua ezarria du publizitatea egiteko, urtebeteko iraupena duela. Dirutza hartatik, 120.000 euro euskara erabat edo zati batean erabiltzen duten hedabideen artean banatzen da. Akordio-esparrua urrian esleitu zen. Haren arabera, Udalak 15 hedabidetan eginen du publizitatea bai prentsa idatzian eta digitalean, bai irratian eta telebistan.

Komunikazio Zerbitzua arduratzen da udal-kanpaina kudeatzeaz **56 euskarri bertikaletan (mupiak)** eta **lurpeko aparkalekuetako 18 edikuluetan**. Kudeaketa administrazio-emakidaren bidez egiten da; zehazki, JC Decaux España SLU enpresari esleitu zitzaion, 2022ko abenduan. Kontratuarekin bat, altzari horiek informazio- eta publizitate-gune gisa kudeatu eta ustiatzen dira. Kontratuaren bidez, gainera, elementu horien modernizazioa bultzatu zen, MUPI analogikoen ordez (56tik 52) MUPI digitalak jarriz Enpresak, halaber, ordua eta tenperatura ematen dituzten 39 erlojuen ordez elementu digitalak jartzeko konpromisoa hartu zuen bere eskaintzan, hiri-altzariak osorik berrituta. 2024an, mupi analogikoen parke guztiaren berrikuntza eraman da bururaino; beraz, orain, 56 mupi digital daude hirian.

# 1.3 Herritarrendako arreta zerbitzua

## AURREZ AURREKO ARRETA

Iruñeko Udalaren Herritarrendako Arreta Bulegoak erroldari lotutako 34.828 arreta egin zituen guztira 2024an, hau da, aurreko urtean baino gutxixeago.

| Arreta jaso duten herritarrak | 2024 | 2023 | 2022 | 2021 |
|---|---|---|---|---|
| Errolda | **34.828** | 35.617 | 35.477 | 30.222 |
| Erregistroa | **3.131** | 2.743 | 2.636 | 2.375 |
| Artatutako hitzorduak | **37.959** | 38.360 | 38.113 | 32.597 |

| Itxarote-denbora | 2024 | 2023 | 2022 | 2021 |
|---|---|---|---|---|
| Batez besteko itxarote-denbora Kondestablen. | **6' 31"** | 3' 36" | 2' 09" | 3' 30" |
| 10'-an baino gutxiagoan artatutako herritarrak Kondestablen | **77,8%** | 89,5% | 97,0% | 91,7 % |

Erroldarekin zerikusia duten izapide nagusiak dira, Herritarrendako Arreta Bulegoak kudeatuta. Kontuan hartu behar da arreta bakarrean izapide horietako batzuk egin daitezkeela.

| Errolda datuak | 2024 | 2023 | 2022 | 2021 |
|---|---|---|---|---|
| Erroldako altak | **14.422** | 13.652 | 13.930 | 13.316 |
| Helbide aldaketak | **10.713** | 10.729 | 11.250 | 11.236 |
| Atzerritarren berritzea/berrespena | **4.099** | 3.752 | 3.071 | 3.153 |
| Ibilgailuen helbide-aldaketa eskaerak | **2.559** | 2.663 | 2.697 | 2.966 |
| Errolda-helbidearen altak/aldaketak telematikoki eskatuak | **3.967** | 3.622 | 3.066 | 2.721 |
| Emandako Agiriak/Ziurtagiriak | **65.189** | 70.816 | 70.709 | 58.254 |
| Errolda bulegorako erregistroak | **1.200** | 1.256 | 1.185 | 995 |

Erregistro elektronikoa da oraindik ere herritarrek gehien erabiltzen duten bitartekoa Udalarekin harremanetan sartzeko.

| Erregistro datuak | 2024 | 2023 | 2022 | 2021 |
|---|---|---|---|---|
| Aurrez aurreko erregistroak | **36.621** | 40.178 | 43.909 | 40.741 |
| Erregistro elektronikoak | **62.060** | 63.369 | 58.633 | 52.571 |
| Posta-erregistroak | **3.317** | 3.633 | 3.568 | 2.987 |
| **Sarrerak udalean, guztira** | **103.231** | **106.655** | **106.110** | **96.299** |

Azkenik, honako taula honetan ageri dira kudeatu diren ezkontza zibilak:

| Ezkontza zibilak | 2024 | 2023 | 2022 | 2021 |
|---|---|---|---|---|
| Ezkontza zibilak | **258** | 214 | 236 | 177 |

## TELEFONO BIDEZKO ARRETA (010)

### Guztira egindako kontatuak:

**1.030.741** kontatu egin dira guztira, hau da, 2023an kudeatutakoak (964.099) baino % 7 gehiago. Honako datu hauek agertzen dira:

- 010 telefonoan 278.348 **dei jaso** ziren, hau da, 2023an baino % 1,7 gehiago.
- 231. 967 **dei artatu** ziren, hau da, aurreko urtearen oso antzera.
- 55.796 dei artatu ziren **voicebot** bidez (50.211 dei 2023an). Haietariko 22.988 erabat automatikoki artatu ziren eta, zenbait datu galdetu eta gero, 29.428 agente batengana bideratu ziren. Horri esker, 010 zerbitzuko agenteek dei gutxiago artatu behar izan dituzte, hots, 232.798tik 231.967ra jaitsi baitira. Horren ondorioz, hobetu egin da bai eraginkortasuna, bai zerbitzuaren arreta gaitasuna bere osoan (agenteak + bot).
- Jasotako posta elektronikoen bidez 010ean kudeatu diren **kontaktuak** 7.467 izan dira.
- 2023an baino **SMS eta mail masibo** gehiago **bidali** dira (% 9,1 gehiago). Udalak, guztira, 740.760 bidalketa egin ditu.

- Eta egunean **bana beste jasotako deiei** dagokienez: lanegunetan, astelehenetik ostiralera, batez beste 1.104 dei jaso dira; larunbatetan, berriz, 49.

## Kudeatutako jarduera

**Dei artatuak:**

- **231.967 (2024an zehar jasotako 278.348 deien gaineko % 83,34ko arreta**). Arreta-ehunekoa 1,16 puntuan jaitsi da, aurreko urtearen aldean. Inolako kudeaketarik egin aurretik eskegitzen duten deiak bereiziz, ehuneko hori %92,90 izanen litzateke. 2023ko martxotik, laguntzaile birtual bat dago (voicebot), eta, horri esker, herritarrei arreta hobea eman zaie; urteko lehen hiru hilabeteetan, % 98tik gorako arreta kopurua ere lortu baita.
- Deiaren **batez besteko iraupena**: 2:03 minutu (aurreko urteko deien batez besteko iraupena baino 4 segundo gehiago).
- Tipologiaren arabera, deiak honela sailkatu dira:

| Sailkapena | Deien % |
|---|---|
| AQS (Abisuak, Kexak eta Iradokizunak) | 3,90% |
| Telefonogunea | 22,26% |
| Kudeaketa | 30,90% |
| Hizkuntzak | 1,04% |
| Informazioa | 41,90% |

**Izapide kudeatuak:** 81.584.

| Izapide-mota | Izapide kop | Ehunekoa izapide guztien gainean |
|---|---|---|
| Aurretiazko hitzordua (altak eta ezabaketak) | 36.263 | 44,44 |
| Errolda-agiriak | 24.657 | 30,22 |
| Web postontziaren bidez izapidetutako posta elektronikoak | 7.467 | 9,37 |
| Galdutako objektuak | 5.141 | 6,30 |
| ZAC unean unekoak | 2.768 | 3,39 |
| Kontribuzio-zergaren ordainagiriaren kopia | 941 | 1,15 |
| ZAC kontsultak | 849 | 1,04 |
| Hautesle-errolda kontsultak | 549 | 0,67 |
| Zirkulazio-kopia | 529 | 0,64 |
| Bestelakoak (16 izapide) | 2.420 | 2,96 |

**Beste kontaktu batzuk:**

- 010ek kudeatutako e-mailak 7.467.
- Guztira bidalitako SMSak/e-mailak: 740.405. Haietariko 389.149 010 zerbitzutik igorri ziren.

**Udal alorrek eskatutako kanpainen kudeaketa (SBD):**

**146** (jarduera horri gehitu beharko litzaioke urte osoan zehar emandako zerbitzua, Civivoxeko ikastaro eta jardueretarako izen-emateak kudeatze aldera).

- ·Kudeatutako 146 kanpaina haietatik, 71ek izen-emateak eragin dituzte, eta 75etan, SMS-mail masiboak bidali dira.
- Izen-emateak kudeatzeko **71 kanpainetatik**, guztira **44.099** izen-emate sortu dira, hau da, 2023an baino ia 10.000 gehiago (34.697 izen-emate).

**Abisu, kexa eta iradokizunen erregistroa eta kudeaketa (AQS)**

- **AQS: 9.614** (2022an baino % 4 gutxiago). 5 egunean baino gutxiagoan erantzun zaie datuak utzitako herritarren % 95,58ri.
- AQS: **alorrek erantzundakoen ehunekoa: % 95,53.**
- AQS: **batez besteko izapidetze-denbora** (ziklo osoa, 010 edo webgunearen bidez abisuak jasotzen direnetik, alorrek kudeaketa egin eta herritarrei erantzuna eman arte): **17,12 egun** (2023an, 18 izan zen).

**Informazioa mantentzea:**

.727 fitxa kudeatu dira; haietatik 2.184 informazio-fitxa sortu eta 3.543 eguneratu dira.

**Urtean zehar garatutako beste proiektu/zerbitzu batzuk**

- **Bi laguntzaile birtual (voicebot eta chatbot)** txertatu dira Herritarren Arreta modernizatzeko proiektuetan. Horrenbestez, zerbitzuaren irisgarritasuna hobetu da, kudeaketa errepikakorrak eta ohikoak automatizatuz, hala nola errolda-ziurtagiria eta aldez aurreko hitzordua. Lanek segida izan dute aurten, hala lehendik zeuden tramiteen hobekuntzan eta mantentze-lanetan, nola 2025ean txertatu beharreko tramite berrien azterketan.

  Chatboti dagokionez, 010 zerbitzuak ez du parte-hartze aktiborik haren entrenamenduan, baina formulak bilatu dira haren erantzun-gaitasuna hobetzeko eta, 2024an, adimen artifiziala erabiltzen duen bilaketa motor bat txertatu da herritarren kontsultei erantzun hobea emateko.

- **Civivoxetan izena emateko tresna**: aplikazio berri bat txertatu da Civivoxerako (Nubapp), 2924ko irailetik aurrera. (urteko azken lauhilekoko izen-emateak, tresna horren bidez).

- **Aldez aurreko hitzordua** Arrotxapeko eta Arrosadiko Bulego Berdeetarako ezarri da. Hitzordu horiek udal webaren, telefono-kanalaren eta voiceboten hitzorduen katalogoan sartu dira

## Konparazio-taula. 010 jarduera (2018-2024 urteak)

| | 2024 | 2023 | 2022 | 2021 | 2020 | 2019 | 2018 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| KONTAKTU ARTATUAK (GUZTIRA) | 285.776 | 281.558 | 259.994 | 253.404 | 228.496 | 246.330 | 237.247 |
| **jasotako deiak** | 231.967 | 232.798 | 215.302 | 225.749 | 201408 | 193183 | 190.008 |
| Tramiteak, guztira | 81.584 | 86.086 | 85.735 | 88.246 | 80.835 | 79.741 | 82.438 |
| Aurretiazko hitzordua (altak eta ezabapenak) 010 | 33.696 | 34.896 | 36.140 | 36.048 | 26.049 | 39.571 | 41.828 |
| Aurretiazko hitzordua (altak eta ezabapenak) weba | 27.317 | 22.696 | 21.173 | 18.571 | 18.531 | 15.444 | 12.815 |
| Aurretiazko hitzordua (altak eta ezabapenak) barnekoak | 6.760 | 7.013 | 6.052 | 5.750 | 4.191 | 444 | 1.391 |
| Izen-emateak, guztira | 44.747 | 34.697 | 38.942 | 19.917 | 8.621 | 42.165 | 39.543 |
| AQS guztira | 9.939 | 9.688 | 10.161 | 10.407 | 8747 | 8524 | 7.867 |
| BOT | 55.796 | 50.211 | | | | | |
| Mail kudeatuak | 7.467 | 7.560 | 8.715 | 7.812 | 10.242 | 4.651 | 3.654 |
| Web tramiteak eta baliozkotzeak | 21.711 | 23.295 | 15.145 | 16.209 | 13.580 | 20.314 | 18.004 |
| Web izen-emateak | 21.853 | 15.142 | 18.202 | 1110 | 1142 | 26.214 | 23.608 |
| AQS weba | 2.778 | 2.763 | 2.630 | 2.524 | 2.124 | 1.968 | 1.973 |
| Irteerako kontaktuak (guztira) | 744.965 | 682.541 | 662505 | 880997 | 571461 | 459462 | 583.215 |
| AQS erantzunak herritarrei | 4.149 | 3.769 | 3.987 | 4.134 | 3.530 | 3.081 | 2.444 |
| txioak | 0 | 167 | 2.549 | 2.740 | 2.936 | 3.236 | 2.960 |
| Irteerako deiak | 56 | 47 | 88 | 53 | 148 | 46 | 253 |
| SMS/mail bidalketa | 740.760 | 678.558 | 655.881 | 874.070 | 564.847 | 453.099 | 577.558 |
| **Kontaktuak, guztira** | **1.030.741** | **964.099** | **922.499** | **1.134.401** | **799.957** | **705.792** | **820.462** |

# 1.4 aholkularitza juridikoa

2024. urtean, zerbitzu juridikoak administrazio-fasean zeuden honako errekurtso hauen defentsaz arduratu ziren.

**Berraztertze-errekurtsoak.** Guztira, 2.247 errekurtso jarri ziren, eta 2.103 ebatzi.

- Ebatzitako errekurtsoen emaitzei dagokienez: 54 ez dira onartu (% 2,40), 1.183 ezetsi dira (% 52,64), 855 baietsi dira (% 38,05), eta 17 partzialki baietsi dira (% 0,75).
- 141 daude ebazteko (% 6,27).

**Gora jotzeko errekurtsoak,** Nafarroako Administrazio Auzitegian aurkeztuak eta 2024. urtean Udal honetara igorriak, errekurtsoa jaso duen Administrazioa izateagatik; 1.555 jaso dira.

**Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenei dagokienez,** Administrazio hartatik 1.651 ebazpen igorri eta Iruñeko Udalean erregistratu dira 2024an; 2024ko eta 2023ko errekurtsoei dagozkienak. Hona hemen haien emaitza:

- 96tan (% 5,81) jarduketak artxibatu dira
- 1ean (% 0,06) jarduketak artxibatu dira eta hein batean baietsi da
- 1ean (% 0,06) okerrak zuzendu dira
- 992 (% 60,08) ezetsi dira
- 2 (% 0,12) boto partikularrekin ezetsi dira
- 6 (% 0,36) hein batean ezetsi dira eta beste bat baietsi
- 5 (% 0,30) ez dira onartu eta ezetsi dira
- 6tan (% 0,36) atzera egin dute
- 134 (% 8,12) baietsi dira
- 67 (% 4,06) hein batean baietsi dira
- 3 (% 0,18) ezetsi dira uziak aitortzeagatik
- 2 (% 0,12) baietsi dira eta parte bat ez da onartu
- 51 (% 3,09) ez dira onartu
- 107tan (% 6,48) uziak aitortu dira
- 176 errekurtso daude ebazteko (% 6,48).

**Administrazioarekiko auzien errekurtsoei dagokienez,** zerbitzu juridikoak Iruñeko Udala eta haren erakunde autonomoak defendatzeaz arduratu ziren 440 prozeduratan (277 nagusi eta 163 intzidental), hots, administrazioarekiko auzien ordenako, ordena zibileko,merkataritza-ordenako, zigor-ordenako eta lan-ordenako epaitegi eta auzitegietan garatuak. Prozedura motaren arabera, auto nagusi eta intzidentaletako defentsa egin zen administrazioarekiko 272 auzitan, ordena zibileko 34tan, zigor-ordenako 28tan eta lan arloko 106tan. Halaber, legelari-laguntza ere eman zitzaien udal-langileei, zigor-prozeduretan kaltetu edo ikertu
gisa emandako deklarazioetan.

Defendatutako 440 prozeduretatik (administrazioarekiko auziak, prozedura zibilak, zigor-prozedurak eta lan arlokoak) 303k zenbateko zehaztugabea zuten, eta 137k, berriz, zenbateko zehaztua; orotara, 10.150.644,88 euro.

**Administrazioarekiko auzien** arloan hasitako 272etatik 187 amaitu ziren (% 68,75):

- 96 (% 60,76) amaitu ziren, izapidetutako 167 prozedura nagusietatik; haietariko 59 (% 61,46) udal interesen aldekoak izan ziren eta 37 (% 38,54) aurkakoak.
- 91 (% 86,6) amaitu ziren, izapidetutako 105 prozedura intzidentaletatik (jarduketak baliorik gabe uztea, titulu judizialen exekuzioa, apelazio-errekurtsoak, kostuen tasazioen inpugnazioak...); haietariko 39 (% 42,85) udal interesen aldekoak izan ziren eta 52 (% 57,14) aurkakoak.

**Arlo zibilean,** izapidetutako 34etatik 11 amaitu ziren (% 32,35):

- 2 (% 20) amaitu ziren, izapidetutako 10 prozedura nagusietatik, 2ak ere udal interesen aldekoak.
- 9 (% 37,50) amaitu ziren, izapidetutako 24 prozedura intzidentaletatik; haietariko 7 (% 77,78) udal interesen aldekoak eta 2 (% 22,22) aurkakoak.

**Zigor arloan,** izapidetutako 28etatik 13 amaitu ziren (% 46,43):

- 5 (% 33,33) amaitu ziren, izapidetutako 15 prozedura nagusietatik; haietariko 4 (% 80) udal interesen aldekoak eta 1 (% 20) aurkakoa.
- 8 (% 61,54) amaitu ziren, izapidetutako 13 prozedura intzidentaletatik; haietariko 6 (% 75) udal interesen aldekoak eta 2 (% 25) aurkakoak.

**Lan arloan,** izapidetutako 106etatik 59 amaitu ziren (% 55,66):

- 46 (% 71,74) amaitu ziren, izapidetutako 85 prozedura nagusietatik; haietariko 33 (% 35,42) udal interesen aldekoak eta 13 (% 28,26) aurkakoak.
- 13 (% 61,90) amaitu ziren, izapidetutako 21 prozedura intzidentaletatik; haietariko 11 (% 84,61) udal interesen aldekoak eta 2 (% 15,39) aurkakoak.

**Kostuei dagokienez,** Iruñeko Udalak eta haren erakunde autonomoek 29.013,78 euro eskuratu eta 164.339,82 euro ordaindu dituzte.

# 1.5
# Udal-artxiboa

## 1.5.1
## artxibo-prozesuak

### DIRU-SARRERAK

Udal-bulegoen artean, Gizarte Orokorreko Alorrak bakarrik egin dio dokumentazio-transferentziarik Udal Artxiboari; Akten Departamentuak, hain zuzen ere:

- Osoko bilkuren akta-liburuak, 2023koak: 3 liburuki.
- Tokiko Gobernu Batzarraren eta Eledunen Batzarraren akten liburuak, bai eta alkatearen, zinegotzi ordezkarien eta alorretako zuzendaritzen 2023ko ebazpenak ere, eta 2019-2023ko udalbatzari dagozkionak ere bai (lehen seihilekoa): 28 liburuki.
- Kontratazioak Zaintzeko Batzordearen akten liburua, 2022. urtekoa.
- Informazio-batzordeen 2023ko akten liburuak (lehen seihilekoa): 8 liburuki.
- Osoko Bilkuraren saioen 2023ko 14 espediente (lehen seihilekoa).
- Katastro Batzordea, haien artean osoko bilkuren akten hainbat liburu (1921-1982), eta sailkatzeko dauden beste liburu eta karpeta batzuk.

2024an, halaber, 2023ko sanferminetako kartel-lehiaketaren proposamen irabazlea bidali zuten (Instante, Raúl Lópezek ondua) eta Sanferminetako kartel-bilduman sartu zen.

2024an, hainbat **dohaintza** jaso dira; haien artean hauek dira nabarmentzekoak:

- Duguna folklore- eta antzerki-ikuskizunean (1951) interpretatutako lanen 13 partitura, Francisco Arrarásek, Iruñeko Udaleko Dantza Taldearen zuzendariak, transkribatuak eta kopiatuak. Dohaintza gisa sartu baziren ere, udal-funtsera sartu ziren berriro, horixe baitzen dokumentazioaren egiazko titularitatea.
- Eusebio Minaren funtsaren bigarren entrega, 2023an hasitakoa: 1.002 argazki, gehienak Mina bilduma gisa sartutakoak, hainbat egileren lanek osatuak baitaude.

### IRTEERA: FUNTSEN GORDAILUA

Urrian eta azaroan, honako material hau gordailatu zen Nafarroako Filmotekan, hobeki tratatzeko eta kontserbatzeko:

- 1953. Urteko NO-DOa. San Fermin, jai folklorikoak. San Fermin, Fraga Iribarne Informazio eta Turismo ministroaren oparia. Paso 35 mm.
- Arrazaren desfileari buruzko informazio-filma New Yorken, 1965eko urria, eta Espainiako Pabiloia (hainbat talderen emanaldi folklorikoak). Paso 16 mm.
- Dantzarien bidaia Italiara. Paso Super8 mm.
- Sanferminak 1972- V. Galbete. Paso Super8 mm.
- Radio TVEk oparitutako filma, jaietako entzierro gorabeheratsu bati buruz. Paso 16 mm.
- San Frantzisko Xabierri buruzko filma, Japoniako Yamaguchi hiriko alkateak Udalari dohaintzan emana, 1979ko urtarrileko bisitaldian.
- Francisco Javier González Salvatierrak sanferminetako hainbat jai-ekitaldiren inguruan 1977tik 1980ra egindako filma. Paso 16 mm.
- 118 zinta VHS formatuan, 11 zinta VHS-C formatuan, 8 zinta U.Matic formatuan, 3 zinta Beta formatuan, bobina irekiko 4 audio-karrete, 8 audio-karrete txiki eta 7 audio kasete-zinta.

### DESKRIBAPENA

Urte hasieran, Iruñeko Erregimentuaren Errege Hiletetako Hieroglifoen bildumaren identifikazioa amaitu zen, 9a alez osatua.

Era berean, eta erabiltzaileek gehien eskatzen duten dokumentazioa non dagoen gordeta errazago jakiteko, administrariek deskribapen-lanetan lagundu dute. Batetik, hainbat ataletatik (hala nola, Dibertsio Publikoak eta Hirigintza) etorritako paper-sorten edukien aurkibidea prestatu da. Bestetik, aurrez zeuden aurkibideak digitalizatu dira, errazago kontrolatu eta kontsultatzeko.

Era berean, irekiera-, obra- eta lehen erabilerako espedienteei dagozkien datu-baseak landu dira, 2023an hasitako lanari segida emanez.

Halaber, plano, mapa eta marrazkien Bildumako 86 agiri katalogatu dira.

### FOTOTEKA

Fototekan, lanaren funtsa izan da Eusebio Minaren argazki-funtsa digitalizatu, deskribatu eta jendaurrean jartzea. Guztira, 1.104 deskribapen-erregistro sartu dira, funtsaren deskribapena, instalazioa eta digitalizazioa bururaino eramanda.

Fototekan, guztira, 11.728 erregistro sartu dira; horrenbestez, 16.493 pieza daude sarean kontsultagai.

## EBALUAZIOA / EZABAKETA

Nafarroako Gobernuko Dokumentuen Ebaluaziorako Batzordeak hartutako balorazio-akordioen berrikuspenari eman zaio jarraipena, Toki Entitateei dagozkienak edo haiei aplika dakizkienak.

## SARBIDEA

### a) Kontsultak aretoan

Urtean zehar, 1.569 erabiltzailek kontsultatu zituzten funtsak han bertan: 1.524 kanpoko erabiltzaileak izan ziren (herritarrak) eta 45 barnekoak (Udalekoak). Erabiltzaileotatik, 281 Fototekarenak dira. Aurreko urteko antzeko kopuruak dira.

| Aurrez aurreko erabiltzaileak Udal Artxiboan | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|
| Kanpokoak | 1225 | 1545 | 1524 |
| Barnekoak | 149 | 140 | 45 |
| **Orotara** | **1374** | **1685** | **1569** |

Funtsik kontsultatuenak Fototekari dagozkionak izan ziren; gero, Eraikuntza Lizentzien espediente-serieak, biztanleen udal-erroldakoak, bilduma hemerografikoa eta katastroa.

Aurrez aurreko kontsulta-datuoi gehitu beharko litzaizkieke Novadoc aplikazioaren bidezko sarrerak, dela Fototekako funtsetara, dela Hemerotekako eta Liburutegiko bildumara, egindakoak. Programak ez digu hori kuantifikatzeko aukera ematen.

### b) Maileguak

Urtean zehar, dokumentazioaren barne-maileguko 86 eskari artatu dira. Era berean, 161 itzuli dira. Gehienak, Hirigintzako alorretik datoz.

Artxiboa, halaber, Udalak berak antolatutako zabalkunde-jardueretan eta erakusketetan aritu da lankidetzan. Horrela, Protokoloko alorrak eskaturik, irailaren 2tik 7ra, honako dokumentu eta liburuak mailegatu ziren eta, Artxiboko langileek teknikoki gainbegiraturik, udaletxeko harrera-aretoan jarri ziren ikusgai:

- Pergaminoen bilduma, R 205: Batasunaren Pribilegioa, Iruñeko hiru jurisdikzioak administrazio bakar batean elkartu zituena. 1423
- Kodexak, 7. zk.: Batasunaren Pribilegioaren kopia, eskuz idatzia, Fernando Ilarreguik egina. 1533
- Batasunaren Pribilegioaren 3 ale inprimatu (1619, 1731 eta 1773)
- Concepción Martínez Pasamar, El Privilegio de la Unión (1423) de Carlos III el Noble de Navarra. Edición, estudio filológico y vocabulario. Iruñeko Udala. 1995.
- Nafarroako Karlos III.a Nobleak emandako Batasunaren Pribilegioaren argitalpenaren V. mendeurrena / Leandro Olivier Insausti. Iruña, Iruñeko Udala, 1923.
- A vida de paz et concordia, 1423-2023. Iruñeko Udala, 2023.
- 1423. Batasunaren Pribilegioa: urte bat, hiri bat, erresuma bat Iruñeko Udala, 2023.

Era berean, Artxiboak sanferminetako 29 programa mailegatu zizkion Kulturako Alorrari, Musika sanferminetako karteletan izenburuko erakusketan ikusgai jartzeko, Pedro Luis Lozano Úrizek komisariatua. Erakusketa 2024ko ekainaren 28tik abuztuaren 18ra bitarte egon zen zabalik, Iruñeko Kondestable Jauregian.

Dokumentazio-mailegu bakarra egin zen kanpora, hots, Duguna Iruñeko Dantzariak taldeari, haren sorreraren 75. urtemuga ospatzeko erakusketan ikusgai jartze aldera. Erakusketa 2024ko martxoaren 24tik apirilaren 14ra bitarte egon zen zabalik Kondestable Civivoxean:

- Fernando Remachak konposatutako En la Ermita de Muskilda partituren kopiak, 22 musika-instrumenturi dagozkionak. Francisco Arrarás Sotok egindakoak Duguna, 1951-1953, folklore- eta antzerki-ikuskizunean interpretatzeko.
- Osoko bilkuraren akten liburua (1948ko abuztuaren 4tik 1949ko abenduaren 29ra) 208. zk.
- Iruñeko dantzarien jantziak diseinatzeko zirriborroak. 1949. Pedro Lozano de Sotés. Paper gaineko teknika mistoa. Mapen, planoen eta marrazkien bilduma.
- Udaleko Osoko bilkurak Udal Dantzari Taldearen erregelamendua onesteko espedientea eta Francisco Arrarás zuzendari izendatzea. Harremanak eta Kultura, Dantzariak eta Txistulariak, 1949, 1. espedientea.
- Sanferminetako kartela. Pedro Lozano de Sotés. 1950.
- Iruñeko dantzariak diseinuko seilu sorta, Iruñeko Udalak 1950ean argitaratuak sanfermin jaiak sustatzeko. Emanaldiak eta Jaiak, 1950, 17. espedientea.
- Duguna Nafarroako folklore- eta antzerki-ikuskizunaren kartela. 1951-1953. 21.

### c) Erreprodukzioa

Artxiboak eskaintzen dituen zerbitzuen artean, bertako funtsen erreprodukzioa dago. 2024an, Hemerotekako 17 eskaera bideratu ziren eta, Fototekako 67 (746 irudi). Halaber, 239 plano digitalizatu ziren Repronet enpresaren bidez, hainbat erabiltzailek eskaturik.

**ZABALKUNDEA**

### a) Proposamen didaktikoa Lehen Hezkuntzako ikasleentzat

Urtean zehar, proposamen didaktiko baten prestaketa landu da Lehen Hezkuntzako ikasleentzat.

### b) Elkarlana ikastetxeekin

Urtean zehar, ikastetxeen 7 bisita jaso dira: 3, unibertsitate-mailakoak; 1, bigarren hezkuntzakoa; 1, lanbide heziketakoa, eta 2, hizkuntzetakoak.

### c) Beste talde batzuek artxibora egindako bisitak

Bi bisita gidatu Udal Artxibora, udal funtsetan interesa duten taldeekin.

**KONTSERBAZIOA**

### Kontserbazioa / Zaharberritzea

Aurten, Iruñeko San Fermin jaietako 1846ko kartel baten inprenta-proba zaharberritzeko enkargua egin da.

Era berean, Pergaminoen Bilduma eta Mapen, Planoen eta Marrazkien Bilduma plano-armairuan berrezartzeko proiektua hasi da. Guztira, 64 pergamino eta 91plano ezarri dira, aipatu armairuko 7 tiraderatan.

### Digitalizazioa

Aurrera jo da *Navarra Hoy* egunkariaren digitalizazioan 1989ko ekainera arte, aipatu zerbitzuen kanpo-kontratazioaren bitartez.

## 1.5.2 Proiektuak

**KUDEAKETA-SISTEMA**

2023an, ekoizpen dokumental elektronikoaren tresna arautzaileak eguneratzeko enkargua eman zitzaion AGTIC Consulting enpresari, tresnak 2016an onetsi baitziren eta zaharkituak baitzeuden. Ziurtagiri digitalaren erabilera eta sinadura elektronikoa arautzeko politika, dokumentu elektronikoa kudeatzeko politika eta dokumentu elektronikoaren plan zuzentzailea. Behin aipatu dokumentuen lehen bertsioak jasotakoan, 2024an zehar aurrerapausoak eman dira aurkeztutako proposamenak berrikusteko, Administrazioaren, Prozedura Elektronikoaren eta Dokumentu Elektronikoak Kudeatzeko Batzorde Teknikoaren hainbat bileratan.

Era berean, otsailean kudeaketa-sistemaren kanpo-ikuskaritza bat hasi zen, aipatu AGTIC Consulting enpresaren eskutik.

**ARTXIBO ADMINISTRATIBOA**

2024an, proiektu bat abiatu zen, Iruñeko Udalaren artxibo administratiboaren bolumenaz, egoeraz eta kokapenaz diagnostikoa egiteko, ondotik udal kudeaketa dokumentalerako sistema bat diseinatu eta ezartze aldera.

Azkenik, aipatu behar da 2024 honetan Turismoko alorrak kontratu bat atera duela lizitaziora Udaleko argazki- eta ikus-entzunezko funtsen artxibo-tratamendurako, Next Generation funtsek finantzatua. Kontratuaren xedea Turismoko, Kulturako eta Komunikazioko alorrei dagokie. Artxiboa lankidetzan aritu da proiektuan. Proiektuak 2025eko urrira arte iraunen du.

## 1.5.3 Ondare historiko-artistikoan esku hartzea

**ESKU-HARTZEAK GARBIKETAN ETA ZAHARBERRITZEAN**

Aurten, marfilezko kalbario bateko markoa zaharberritu da, Iruñeko Udaleko batzar aretoan dagoena. Halaber, Eustaquio Ilundain apezpikuaren bular-gurutzearen azaleko garbiketa enkargatu da (AMP: 000.207), San Lorentzo parrokiara aldi baterako lagako delakoan.

**INBENTARIOA**

Ondare historiko eta artistikoko objektuen inbentarioa egiten jarraitu da. Aurten, 115 objekturi alta eman eta argazkiak atera zaizkie.

# 02

# Ogasuna eta kontratazio publiko arduratsua



Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

## 2024KO AURREKONTUA

Iruñeko Udalak 2024ko martxoaren 27an onetsi zuen 2024ko ekitaldirako aurrekontua. Hona hemen Udalaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontuak:

| Erakundea | Gastuak | Diru-sarrerak |
|---|---|---|
| Iruñeko Udalaren aurrekontua | 266.909.922,79 € | 266.909.922,79 € |
| Hirigintza Gerentziaren erakunde autonomoaren aurrekontua | 10.222.600,00 € | 10.222.600,00 € |
| Udaleko haur-eskolen erakunde autonomoaren aurrekontua | 13.913.000,00 € | 13.913.000,00 € |

### GASTUAK

| | Zenbatekoa (eurotan) | | |
|---|---|---|---|
| **Kapitulua eta izena** | **Udala** | **Hirigintza gerentzia** | **Haur-eskolak** |
| **eragiketa arruntak** | | | |
| Langileen gastuak | 112.700.000,00 | 1.744.000,00 | 10.352.411,00 |
| Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak | 89.184.318,93 | 878.600,00 | 1.602.589,00 |
| Finantza-gastuak | 876.000,00 | 75.000,00 | |
| Transferentzia arruntak | 27.404.440,00 | 1.000,00 | |
| **Kontingentzia-funtsa** | 322,00 | | |
| **Kapital-eragiketak** | | | |
| Inbertsio errealak | 20.726.244,39 | 6.248.000,00 | 1.958.000,00 |
| Kapital-transferentziak | 9.694.597,47 | 1.000,00 | |
| Aktibo finantzarioak | 376.000,00 | | |
| Pasibo finantzarioak | 5.948.000,00 | 1.275.000,00 | |
| **Gastuen aurrekontua, guztira** | **266.909.922,79** | **10.222.600,00** | **13.913.000,00** |

### DIRU-SARRERAK

| | Zenbatekoa (eurotan) | | |
|---|---|---|---|
| **Kapitulua eta izena** | **Udala** | **Hirigintza gerentzia** | **Haur-eskolak** |
| **A) eragiketa arruntak** | | | |
| Zuzeneko zergak | 58.518.000,00 | | |
| Zeharkako zergak | 9.500.000,00 | | |
| Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak | 39.976.538,00 | 668.600,00 | 805.000,00 |
| Transferentzia arruntak | 124.337.860,00 | 2.000.000,00 | 11.150.000,00 |
| Ondare-sarrerak | 4.755.100,00 | 30.000,00 | |
| **kapital-eragiketak** | | | |
| Inbertsio errealak besterentzea | 15.717.472,79 | | |
| Kapital-transferentziak | 5.737.452,00 | 7.524.000,00 | 1.958.000,00 |
| Aktibo finantzarioak | 376.000,00 | | |
| Pasibo finantzarioak | 7.991.500,00 | | |
| **Diru-sarreren aurrekontua, guztira** | **266.909.922,79** | **10.222.600,00** | **13.913.000,00** |

## BERTSIOAK 2024ko AURREKONTUAN

| Kode ekonomikoa - partida | Zenbatekoa |
|---|---|
| 609000 - Azpiegit. Erabilera publikoko azpieg. Eta ondas. | 2.586.568,74 |
| 619000 - Inberts. Konponketak erabilera publikoko azpieg. Eta ondas. | 5.972.804,56 |
| 619080 - Inb.Konponk. Ondare-ondasunak | 194.717,83 |
| 622040 - Irakaskuntza-eraikinak | 100.000,00 |
| 622050 - Kirol instalazioak | 2.324.704,29 |
| 622060 - Kultur / gizarte instalazioak | 3.256.221,36 |
| 623000 - Makineria eta tresnak | 85.000,00 |
| 623010 - Semaforo-instalazioak | 263.600,00 |
| 623090.- Beste instalazio batzuk | 1.250.904,73 |
| 625000 - Altzariak eta ekipamenduak | 55.000,00 |
| 626000 - Informazio-prozesurako ekipoak | 25.000,00 |
| 629090 - Beste material ibilgetua | 750.000,00 |
| 632020 - Inberts. Konponketak etxebizitza | 1.576.536,71 |
| 632040 - Inberts. Konponketak irakaskuntza-eraikinak | 519.326,25 |
| 632050 - Inberts. Konponketak kirol instalazioak | 100.000,00 |
| 632060 - Inberts. Konponketak instal. | 200.000,00 |
| 640000.- Azterlan orokorrak | 652.850,00 |
| 641000 - Informatika aplikazioak | 813.009,92 |

Urtean barna, zenbait aurrekontu-aldaketa onetsi ziren, urte honetako udal-aurrekontuko partidak igotzea eragin zutenak. Iruñeko Udalaren Osoko Bilkurak 49,22 milioi euroren aldaketak onartu ditu; hori horrela, 2024ko behin betiko aurrekontu bateratua 320,2 milioi eurokoa izan da.

## BEHIN BETIKO AURREKONTU BATERATUAREN BILAKAERA

| 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 211,1 | 219,0 | 221,7 | 220,8 | 221,0 | 226,2 | 281,1 | 272,1 | 284,2 | 320,2 |

(milioi eurotan)

## 2023KO KONTU OROKORRA ETA AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

2024an, 2023ko aurrekontu-likidazioa eta ekitaldi horretako kontu orokorra onetsi dira. Iruñeko Udalaren tokiko sektore publikoak (Udala, Hirigintza Gerentzia, Haur Eskolak, Iruña Biziberritzen, ANIMSA, SAD Pamplona eta Gayarre Antzokia Fundazioa) **24,72 milioi euroko aurrekontu-superabitarekin** itxi zuen 2023. urtea, kontabilitate nazionalaren balioen arabera. 2023. urtearen amaieran gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 41,1 milioi eurokoa zen, hau da, 5,5 milioi euro inguru gehiagokoa 2022an baino (35,6).

## ORDAINKETA ALDIA BANA BESTE

Udalak, 2024an, 21,98 eguneko epean ordaindu zien Iruñeko Udaleko tokiko sektore publikoaren hornitzaileei batez beste, hau da, 2023an baino epe laburragoan (23,51 egun). Hona hemen hiruhilabetekoaren arabera banakatua:

| Hiruhilekoa | Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea |
|---|---|
| Lehenengoa | 26,75 |
| Bigarrena | 22,02 |
| Hirugarrena | 20,89 |
| Laugarrena | 18,26 |

## GASTUAK, BIZTANLEKO

| Kontzeptua | AG | Behin betiko aurreikuspena | Betebehar aitortuak | Zenbatekoa biztanleko |
|---|---|---|---|---|
| Zor publikoa | 0 | 8.104.000,00 | 8.006.646,68 | 38,45 |
| Oinarrizko zerbitzu publikoak | 1 | 132.677.789,72 | 119.170.678,08 | 572,27 |
| Gizarte-babeseko eta -sustapeneko jarduketak | 2 | 63.455.478,80 | 62.481.067,59 | 300,04 |
| Ondasun publikoen ekoizp. Lehenetsiak | 3 | 71.688.363,92 | 67.964.137,79 | 326,37 |
| Jarduketa ekonomikoak | 4 | 13.412.525,28 | 9.436.421,84 | 45,31 |
| Jarduketa orokorrak | 9 | 30.856.394,71 | 29.318.077,87 | 140,79 |
| **Gastuak, guztira** | | **320.194.552,43** | **296.377.029,85** | **1.423,23** |

## DIRU-SARRERAK, BIZTANLEKO

| Kontzeptua | Kap. | Behin betiko aurreikuspena | Eskubide aitortuak | Zenbatekoa biztanleko |
|---|---|---|---|---|
| Zuzeneko zergak | 1 | 58.518.000,00 | 54.592.177,27 | 262,16 |
| Zeharkako zergak | 2 | 9.500.000,00 | 10.792.982,21 | 51,83 |
| Tasak eta bestelako diru-sarrerak | 3 | 41.450.138,00 | 45.848.138,57 | 220,17 |
| Transferentzia arruntak | 4 | 124.337.860,00 | 129.048.968,07 | 619,70 |
| Ondareko diru-sarrerak | 5 | 4.785.100,00 | 5.556.064,02 | 26,68 |
| Inbertsio errealak besterentzea | 6 | 15.717.472,79 | 10.915.981,35 | 52,42 |
| Kapital-transferentziak | 7 | 9.288.245,52 | 5.101.789,61 | 24,50 |
| Aktibo finantzarioak | 8 | 48.606.236,12 | 239.284,28 | 1,15 |
| Pasibo finantzarioak | 9 | 7.991.500,00 | 0,00 | 0,00 |
| **Diru-sarrerak, guztira** | | **320.194.552,43** | **262.095.385,38** | **1.258,60** |

## ORDENANTZA FISKALAK ETA PREZIO PUBLIKOAK

Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak, 2023ko urriaren 3an, hasiera batez onetsi zituen Ordenantza Fiskalen eta Prezio Publikoak arautzen dituzten Arauen artikuluen eta tarifa-eranskinen aldaketak. Behin aurkeztutako alegazioa ebatzirik, eta behar diren argitalpenak eginik, 2025eko urtarrilaren 1ean sartuko dira indarrean.

Honako hauek dira Ordenantza Fiskaletan eta Prezio Publikoak arautzen dituzten Arauetan aldatu diren artikuluak eta tarifa-eranskinak, 2025eko urtarrilaren 1ean indarra hartu dutenak:

| | |
|---|---|
| **0. ordenantza** | 85. artikulua berridatzi da. |
| **1. ordenantza** | Artikulua berridatzi da; 2. 3. eta 4. artikuluak erantsi zaizkio. Xedapen gehigarria berridatzi da. |
| **2. ordenantza** | I. puntua berridatzi da. |
| **4. ordenantza** | Tarifen eranskina aldatu da, karga-tasa murriztu da. |
| **19. ordenantza** | Tarifen eranskineko I. eta II. epigrafeak berridatzi dira. |
| **20. ordenantza** | Tarifen Eranskineko I. eta III. epigrafeak berridatzi dira. |
| **21. ordenantza** | Ordenantzaren izenburua aldatu da. |
| **2. araua** | Tarifen eranskineko II.2 epigrafea aldatu da. |
| **6. araua** | 3. artikulua berridatzi da. "Ahalko" hitza gehitu da 5. artikuluko lehenengo paragrafoan. 6. artikulua berridatzi da. |
| **9. araua** | Xedapen iragankorra berridatzi da. |
| **10. araua** | Tarifen eranskineko I.2 epigrafea aldatu da. |

Ordenantza Fiskalen eta Prezio Publikoak arautzen dituzten arau guztien testu osoa eta eguneratua hemen dago kontsultagai: www.pamplona.es.

## INBENTARIOA

### INBENTARIOAREN BALIOA, GUZTIRA

| | |
|---|---|
| 2014. urtea | 799.380.216,96€ |
| Udalbatza aldaketa (2015/06/12) | 793.784.739,44€ |
| 2015. urtea | 809.318.719,81€ |
| 2016. urtea | 814.241.335,51€ |
| 2017. urtea | 820.921.246,90€ |
| 2018. urtea | 808.202.331,85€ |
| Udalbatza aldaketa (2019/06/14) | 812.427.328,98€ |
| 2019. urtea | 829.719.852,45€ |
| 2020. urtea | 835.551.657,90 € |
| 2021. urtea | 847.846.335,14 € |
| 2022. urtea | 866.565.639,81 € |
| Udalbatza aldaketa (2023/06/16) | 861.910.625,82 € |
| 2023. urtea | 863.960.306,57 € |
| 2024. urtea | 872.204.976,83 € |

### UDAL-ERAIKIN ETA -LOKALEN GUZTIZKO BALIOA

| | 31/12/2018 | 14/06/2019 | 31/12/2019 | 31/12/2020 | 31/12/2021 | 31/12/2022 | 31/12/2023 | 31/12/2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Bulego-eraikina | 13.621.922,76 | 13.621.922,76 | 13.627.773,36 | 13.629.110,13 | 13.700.127,69 | 13.713.249,69 | 13.713.249,69 | 13.761.627,15 |
| Merkataritza-eraikinak | 6.772.371,57 | 6.772.371,57 | 6.772.371,57 | 6.772.371,57 | 6.780.212,37 | 6.780.212,37 | 6.780.212,37 | 6.791.745,24 |
| Kultur eta/edo Gizarte instal. | 56.423.940,89 | 56.423.940,89 | 57.366.006,60 | 57.687.136,54 | 58.209.902,38 | 58.314.129,28 | 59.024.125,53 | 59.443.093,01 |
| Irakaskuntza-eraikina | 92.524.181,60 | 92.666.886,68 | 97.978.949,73 | 98.464.780,73 | 99.603.101,34 | 104.986.284,98 | 112.119.681,97 | 113.312.075,09 |
| Kirol-instalazioak | 42.970545,44 | 43.065.345,27 | 43.443.707,77 | 43.947.812,06 | 44.509.114,37 | 46.638.749,22 | 47.133.360,58 | 48.172.870,28 |
| Osasun-eraikinak | 11.542.723,00 | 11.542.723,00 | 11.655.393,40 | 11.721.539,00 | 12.034.641,51 | 12.596.727,05 | 12.698.917,87 | 12.978.361,37 |
| Beste zerbitzu batzuk | 20.687.862,24 | 20.699.115,24 | 21.269.714,85 | 21.302.411,83 | 21.684.680,84 | 21.781.556,67 | 21.952.483,95 | 22.227.132,39 |
| Zerbitzu Galeria | 14.602.340,36 | 14.602.340,36 | 14.602.340,36 | 14.602.340,36 | 14.602.340,36 | 14.602.340,36 | 14.602.340,36 | 14.602.340,36 |
| Etxebizitzak | 33.736.782,29 | 33.742.281,90 | 34.459.708,91 | 33.884.110,16 | 34.506.185,80 | 35.388.752,22 | 35.566.240,79 | 35.000.129,00 |
| Lokala | 21.326.426,65 | 21.326.426,65 | 21.778.909,42 | 21.866.303,48 | 22.300.923,23 | 22.736.725,28 | 23.184.343,40 | 23.415.073,69 |
| Trastelekuak | 383.507,35 | 383.507,35 | 383.507,35 | 383.507,35 | 383.507,35 | 383.507,35 | 383.507,35 | 383.507,35 |
| Garajeak | 2.207.868,77 | 2.207.868,77 | 2.207.868,77 | 2.207.868,77 | 2.207.868,77 | 2.207.868,77 | 2.207.868,77 | 2.207.868,77 |
| Kioskoak | 21.629,37 | 21.629,37 | 21.629,37 | 20.727,85 | 64.282,97 | 64.282,97 | 68.271,40 | 160.048,53 |
| Beste eraikin batzuk | 6.375.836.54 | 6.375.836.54 | 6.375.836.54 | 6.474.360,09 | 6.520.999,20 | 6.569.365,20 | 6.569.365,20 | 6.569.365,20 |
| Eraik. historiko-artistikoak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 434.138,26 | 687.028,26 |
| **Eraikuntzak, guztira** | **323.197.938,83** | **323.452.196,35** | **331.943.718,00** | **332.964.379,92** | **337.107.888,18** | **346.763.751,41** | **356.438.107,49** | **359.712.265,69** |

# 03 Giza baliabideak



Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

## UDAL PLANTILLA

| | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **IRUÑEKO UDALA** | | | | | | |
| Funtzionarioak | 863 | 818 | 794 | 810 | 789 | 962 |
| Kontratu administratiboa duten langileak | 378 | 373 | 413 | 499 | 491 | 518 |
| Langile kontratudunak. | 182 | 180 | 14 | 545 | 442 | 457 |
| **OROTARA** | **1.423** | **1.371** | **1.221** | **1.854** | **1.722** | **1.937** |
| **HAUR ESKOLAK** | | | | | | |
| Funtzionarioak | 36 | 34 | 28 | 22 | 53 | 53 |
| Kontratu administratiboa duten langileak | 81 | 93 | 55 | 46 | 73 | 73 |
| Langile kontratudunak | 70 | 75 | 99 | 133 | 82 | 82 |
| **GUZTIRA** | **187** | **202** | **182** | **201** | **208** | **208** |
| **HIRIGINTZA GERENTZIA** | | | | | | |
| Funtzionarioak | 18 | 20 | 19 | 18 | 18 | 17 |
| Kontratu administratiboa duten langileak | 8 | 6 | 8 | 7 | 8 | 4 |
| Langile kontratudunak. | | | | | | 1 |
| **OROTARA** | **26** | **26** | **27** | **25** | **26** | **22** |

2024an, 786 kontratu sinatu ziren Iruñeko Udalean, 48 langilek erretiroa hartu zuten eta ezintasun iraunkorreko 6 prozesu izan ziren.

Hirigintza Gerentzian kontratu bat sinatu eta langile batek erretiroa hartu zuen.

Haur Eskoletan, 435 kontratu sinatu ziren eta 3 langilek erretiroa hartu zuten (2 arruntak eta erretiro partzial bat txanda-kontratuaren bidez), eta ezintasun iraunkorreko prozesu bat izan zen.

Iruñeko Udaleko 2024ko hautapen-prozesuei dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira: batetik, aparteko egonkortze-prozesuari lotutako 92 hautapen-prozesuak bururaino eraman zirela:

**Merezimendu-lehiaketa:**
- Arkitektoa
- Eraikuntzako lantegi-eskolako zuzendaria
- Ekonomialaria
- Farmazialari kudeatzailea
- Udaleko kontu-hartzailea
- Zuzenbidean lizentziaduna
- Psikologoa
- Teknologia berrietako teknikaria, webgunearen arduraduna
- Kulturako goi-mailako tituluduna
- Arkitekto teknikoa
- Industria-ingeniari teknikoa
- Lan publikoetako Ingeniari teknikoa
- Kimikako Ingeniari Teknikoa
- Tributu ikuskatzailea
- Arte eta lanbideetako irakaslea (marrazketa)
- Musika Eskola Bereziko kontrabaxu-irakaslea (lp)
- Musika Eskola Bereziko baxu elektrikoko irakaslea
- Musika Eskola Bereziko bateria-irakaslea
- Musika Eskola Bereziko klarinete-irakaslea
- Musika Eskola Bereziko koru-taldeko irakaslea
- Musika Eskola Bereziko gitarra-irakaslea
- Musika Eskola Bereziko gitarra elektrikoko irakaslea
- Musika Eskola Bereziko irakaslea (musika-hizkuntza)
- Musika Eskola Bereziko piano-irakaslea
- Lantegi-eskolako irakaslea
- Enplegu-teknikaria
- Turismo-enpresa eta -jardueren teknikaria
- Laneko Arriskuen Prebentzioko teknikaria
- Gizarte-laneko erdi-mailako tituluduna, osagarriduna
- Erdi-mailako tituluduna bateraezintasunarekin
- Laborategiko laguntzaile teknikoa
- Gizarte-enpleguko arduraduna (jantoki soziala)
- Gizarte-enpleguko arduraduna (jantzigintza)
- Gizarte-enpleguko arduraduna (koadernaketa)
- Gizarte-enpleguko arduraduna (garbiketa)
- Gizarte-enpleguko arduraduna (obrak)

- Gizarte-enpleguko arduraduna (ibaiak eta mintegiak)
- Gizarte-enpleguko arduraduna (soldadura)
- Gizarte-enpleguko arduraduna (tapizgintza)
- Desinfekzio- eta mantentze-lanetako arduraduna
- Lantegi-eskolako monitorea (lorezaintza)
- Lantegi-eskolako monitorea (soldadura)
- Ofizial administraria - Ofizial administraria, osagarriduna
- Ofizial ikuskatzailea (hirigintza)
- Gizarteratzeko goi-mailako teknikaria
- Administrari laguntzailea - Administrari laguntzailea, osagarriduna
- Zoonosi-laguntzailea
- Udal-instalazioetako funtzionamenduko laguntzailea
- Hiri Kontserbazioko mantentze-lanetako laguntzailea
- Ehorzle laguntzailea
- Ikuskatzaile laguntzailea (eraikinetako mantentze-lanak)
- Ikuskatzaile laguntzailea (ibilgailuen parkea)
- Lantegi-eskolako monitorea (igeltserotza)
- Lantegi-eskolako monitorea (biltegia eta harria)
- Lantegi-eskolako monitorea (arotzeria)
- Lantegi-eskolako monitorea (askotariko mantentze-lanak)
- Gizarte-enpleguko ofiziala (jantoki soziala)
- Gizarte-enpleguko ofiziala (elektrizitatea)
- Gizarte-enpleguko ofiziala (koadernaketa)
- Gizarte-enpleguko ofiziala (iturgintza)
- Gizarte-enpleguko ofiziala (garbiketa)
- Gizarte-enpleguko ofiziala (obrak)
- Gizarte-enpleguko ofiziala (pintura)
- Gizarte-enpleguko ofiziala (ibaiak)
- Gizarte-enpleguko ofiziala (soldadura)
- Desinfekzio- eta mantentze-lanetako ofizial profesionala
- Erreprografiako mandataria
- Udal bulegoetako mandataria
- Familia-langilea eta familia-langile lanaldi partzialean
- Laborategiko zerbitzu anitzeko peoia
- Zerbitzu anitzeko peoia, hilerriko atezaina

**Oposizio-lehiaketa:**
- Mugikortasuneko koordinatzailea
- Zuzenbidean lizentziaduna
- Estrategia eta proiektuetako goi-mailako teknikaria
- Giza Baliabideetako eta antolamenduko goi-mailako teknikaria
- Hezkuntza-programen koordinatzailea (ingurumen-hezkuntza)
- Lantegi-eskolako zuzendaria (lorezaintza)
- Kimikako ingeniari teknikoa
- Aparkalekuetako zerbitzuburua
- Turismoko zerbitzuburua
- Mugikortasuneko teknikaria
- Erdi-mailako tituluduna (lorezaintza)
- Ingurumen hezkuntzako erdi-mailako tituluduna
- Ofizial administraria
- Gizarteratzeko goi-mailako teknikaria
- Administrari laguntzailea
- Udal-instalazioetako funtzionamenduko laguntzailea
- Hiri Kontserbazioko mantentze-lanetako laguntzailea
- Ehorzle laguntzailea
- Gizarte-enpleguko ofiziala (ibaiak)
- Familia-langilea eta familia-langile lanaldi partzialean
- Psikologoa

2024an, gainera, honako hautapen-prozesu hauek amaitu dira:

**Egonkortze-prozesuari lotutako lekualdaketa-lehiaketak**
- Arkitekto teknikoa
- Industria-ingeniari teknikoa
- Kontu-hartzaile ordezkaria
- Arkitektoa
- Psikologoa
- Erdi-mailako tituluduna bateraezintasunarekin
- Gizarte-laneko erdi-mailako tituluduna, osagarriduna
- Ofizial administraria
- Administrari laguntzailea
- Udal bulegoetako mandataria
- Udal-instalazioetako funtzionamenduko laguntzailea
- Hiri Kontserbazioko mantentze-lanetako laguntzailea

**Beste deialdi batzuk:**
- Ibilgailu-parkeko mekanikaria. - Kontratazio-zerrenda, Nafar Lansarerekin elkarlanean.
- Zuzenbidean lizentziaduna Lekualdaketa
- Ofizial administraria Kontratazio-zerrendak.
- Elektrizitateko industria-ingeniari teknikoa - Kontratazio-zerrenda, Nafar Lansarerekin elkarlanean.
- Udal-instalazioetako funtzionamenduko ofiziala, euskararekin. - Kontratazio-zerrenda, Nafar Lansarerekin elkarlanean.
- Lankidetzako teknikaria. Kontratazio-zerrendak.
- Lan publikoetako Ingeniari teknikoa Kontratazio-zerrenda, Nafar Lansarerekin elkarlanean.
- Arkitekto teknikoa Kontratazio-zerrenda, Nafar Lansarerekin elkarlanean.
- EEAL gorabehera-kudeatzailea Barne-zerrenda
- Gizarte-langilea Kontratazio-zerrendak.
- Inspektoreordea, agente lehenak eta agenteak. Lekualdaketa
- Berdintasuna eta parte-hartzea, erdi-mailako tituluduna Kontratazio-zerrendak.
- Ganbera-musikako irakaslea. Kontratazio-zerrendak.
- Perkusioko irakaslea. Kontratazio-zerrendak.
- Tronpa irakaslea. Kontratazio-zerrendak.
- Tronpetako irakaslea. Kontratazio-zerrendak.
- Biolineko irakaslea. Kontratazio-zerrendak.
- Pianoko irakaslea Kontratazio-zerrendak.
- Klarineteko irakaslea. Kontratazio-zerrenda, Nafar Lansarerekin elkarlanean.
- Pianoko irakaslea Lekualdaketa
- Ogasuneko alorra, erdi-mailako tituluduna bateraezintasunarekin Kontratazio-zerrendak, Nafar Lansarerekin elkarlanean.

## LAN-ESKAINTZA PUBLIKOA

2024. urtean, Udalak eta haren erakunde autonomoek lan-eskaintza publikoa onetsi zuten, honako lanpostu hauek sartuta:

**Iruñeko Udala. Lanpostuak berritzea**
- Udaltzaingoko inspektoreordeak, 9 lanpostu
- Udaltzaingoko agente lehenak, 13 lanpostu
- Funtzionamenduko laguntzaileen 3 lanpostu
- Ofizial administraria, 3 lanpostu
- Ofizial administraria, 1 lanpostu
- Gizarte-laneko erdi-mailako tituluduna, osagarriduna, 10 lanpostu
- Ofizial administraria, osagarriduna, 1 lanpostu
- Administrari-laguntzailea, osagarriduna, 5 lanpostu
- Administrari-laguntzailea, 1 lanpostu
- Laneko Medikuntza Unitateko burua, 1 lanpostu
- Turismo Zerbitzuko burua, 1 lanpostu
- Bide Publikoko Obretako Zerbitzuko burua, 1 lanpostu
- Zerbitzuko burua, 1 lanpostu
- Giza Baliabideetako eta Antolamenduko goi-mailako teknikaria, 1 lanpostu.
- Euskara itzultzailea, 1 lanpostu
- Gizarte-enpleguko ofiziala (koadernaketa), 1 lanpostu
- Familia-langilea, 14 lanpostu.
- Familia-langilea lanaldi partzialean, 7 lanpostu
- Udaltzaingoko agente lehenak, 13 lanpostu
- Administrari-laguntzailea, 1 lanpostu
- Zerbitzuko burua, 1 lanpostu
- Ikastetxe Zerbitzuko burua, 1 lanpostu

**Iruñeko Udala. LEP osagarria.**
- Kulturako goi-mailako tituluduna, 1 lanpostu
- Azpiegitura Zerbitzuko burua, 1 lanpostu
- Albaitaria, 1 lanpostu
- Erdi-mailako tituluduna, 1 lanpostu
- Desinfekzio Zerbitzuko burua, 1 lanpostu
- Ehorzle-laguntzailea, 2 lanpostu
- Hiri Kontserbazioko Mantentze-lanetako laguntzailea, 1 lanpostu
- Arkitektoa, 1 lanpostu
- Erdi-mailako tituluduna, bateraezintasunarekin, 2 lanpostu
- Gizarte-hezitzailea, 4 lanpostu.

**Hirigintza Gerentzia. Lanpostuak berritzea**
- Goi-mailako arkitektoa, 1 lanpostu

## PRESTAKUNTZA

2024. urtean zehar, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin elkarlanean, prebentzio-prestakuntzarako hainbat ikastaro eman dira, bai eta hainbat udal alorretako langileendako ikastaro berariazkoak ere.

2024an, segurtasun informatikoaren arloko sentsibilizazioan egin zen aurrera, Nafarroako Toki Erakundeetan Segurtasun Eskema Nazionala ezartzeari lotutakoa; zehazki, beste 2 prestakuntza-ekintza egin ziren, ANIMSAk emanak.

Prestakuntza hori antolatuko da, harik eta datuak eta informazioa bistaratzeko eta tratatzeko tresnekin lan egiten duten udal langile guztiek esparru horretan nahitaez jakin beharrekoak ikasi arte.

Prebentzioaren arloan, honako prestakuntza-ekintzak eman ziren:

- Jendea artatzeko teknikak: ekintzaren xedea da langileek jendeari arreta emateko zenbait trebetasun eskuratzea, udal-zerbitzuen erabiltzaileekin izan beharreko harremana kudeatzeko eta eraginkortasunez komunikatzeko, osasun psikosoziala zainduta.
- Emozioen kudeaketan eta ongizate psikologikoan trebatzea: berariazko ekintza Udaltzaingorako.
- Gizarte-trebeziak osasun mentaleko patologia duten pertsonendako tratuan eta arretan: ekintza bat Iruñeko Udalaren etxez etxeko arreta lantaldeko (EEAL) familia-langileei dago zuzendua, eta beste bat, udaltzaingoari. Prestakuntzak oinarrizko ezagutzak eskuratzeko aukera ematen du artatzen dituzten pertsonek izan ditzaketen buru patologia motei buruz eta, era berean, jarraibideak eskuratzea aipatu pertsonekiko gatazkak kudeatzeko.
- Suteen prebentzio eta su-itzalgailuak maneiatzea: ekintza Udaleko alor guztietako langileei dago zuzendua.
- Koordinazioa eta prebentzioa hiriguneetako suteetan: Udaltzainendako ekintza.
- Motozerra erabiltzea: berdeguneetako alorrerako ekintza.
- Prebentziozko arriskuak eta neurriak lanean: teknikariei, ikuskaritza-langileei eta berdeguneetako administrariei dago ekintza zuzendua.
- Oinarrizko ikastaroa Laneko Arriskuen Prebentzioari buruz: ekintza EEALko autonomia-programako gizarte-langileentzat eta koordinatzaileentzat da.
- Oinarrizko ikastaroa Laneko Arriskuen Prebentzioari buruz. Prebentzio-baliabidea: ekintza berdeguneetako alorreko langileentzat da, prebentzio-baliabideko lanak egitera bideratua.
- Gorputz jarreraren higienea eta gihar eta hezurren nahasmenduen prebentzioa: bi ekintza, bata PVDko erabiltzaileentzat eta, bestea, honakoak eskuz manipulatzea eragin dezaketen zereginak egiten diren lanpostuetarako: kargak, makinak edo tresnak, hala nola lorezaintza, gizarte-enpleguko ofizialak eta arduradunak, ikastetxeak eta kiroldegiak mantentzeko laguntzaileak, eta udal-instalazioak mantentzeko lanak.
- Gorputz jarreraren higienea eta gihar eta hezurren nahasmenduen prebentzioa, berariaz pertsonak mugitzeari dagokiona: ekintza EEALko familia-langileentzat da laguntza teknikoen erabileran.
- Lan-inguruneko gatazkak konpontzea: lantegia udaltzaingoko ikerketa-taldearentzat da.
- Suizidioaren inguruko prebentzioa, esku-hartzea eta beste jarraibide batzuk: ekintza laneko arriskuen prebentziorako zerbitzurako da.
- Lan-giroa hobetzea. Estresa kudeatzea eta gatazkak prebenitzea: ekintza udal-langile guztientzat da.
- Lidergoa talde-burutzetarako: ekintza Hiri Kontserbazioko alorreko burutzetarako da.

Prebentzio zerbitzuak zuzenean egindako beste ikastaro batzuk:

- Oinarrizko prestakuntza laneko arriskuen prebentzioan familia-lanean. 11 familia-langile aritu dira.
- Larrialdi eta Ebakuazio Plana Iratxeko Monasterioa 6ko instalazioetan, bi ordukoa.

2024an, guztira, 383 pertsonak parte hartu dute, 232 emakumek eta 151 gizonek.

### Sentsibilizazio-ekintzak

Mutua Navarrak sentsibilizazio-ekintzak eskaintzen dizkie udal-langileei, laneko osasuna sustatzeko helburuarekin.

Hona hemen zer ekintza eskaini diren 2024an:
- Ongizate mentala zure taldearekiko harremanean
- Gorputz Jarrera lantzeko eskola, bereizita egin daitezkeen hiru ekintzetan zehaztua: 1) Bizkarra zaintzeko eskola, 2) Hobetu zure sasoi fisikoa, eta 3) Hobetu zure indarra
- Emozioak kudeatzeko eta maneiatzeko tresna praktikoak
- Ondoez emozionala duten zure taldeko pertsonak detektatzea eta babestea
- Alkohola/drogak kontsumitzea eta joko mendekotasuna
- Une osasungarrien metodologiaren aurkezpena
- Bide-segurtasuna
- Iktusa prebenitzea
- Komunikaziorako trebetasunak, zure taldearekiko harremanetan
- Erdi mailako arduradunendako sentsibilizazioa
- Sentsibilizazioa, Enpresa-jardueren Koordinaziorako
- Gidatze-simulatzailea.

Ekintza horietan, guztira 87 lanpostu erabili dira.

## LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

### UDAL-LANGILEENDAKO INFORMAZIOA

2024an, 345 laguni eman zaie informazioa: 148 emakumeri eta 197 gizoni.

Gehienak lan-kontratudunak izan dira, Udalarekin lehen aldiz kontratua sinatu dutenak edota lanpostuz aldatutakoak.

Halaber, informazio hori eman zaie Udaleko hainbat zerbitzutan praktikak egin dituzten ikasleei.

2024 honetan, informazioa eman zaie egonkortzearen bidez lanpostuan sartu diren langileei, baldin eta lan-arriskuak aldatu bazaizkie, 2023an eta aurretik zituztenen aldean.

Gizarte Enplegu Babestuaren programen bidez kontratatutako pertsonei era programatuan ematen zaie informazioa lehen kontratu-egunean, 2 orduko saioan, eta arrisku eta prebentzio-neurriei buruzko azalpenak emateaz gain, oinarrizko nozioak ematen zaizkie Laneko Arriskuen Prebentzioaz:

2024an: informazioa eman zaie Gizarte Enplegu Babestuaren programen bidez kontratatutako 109 pertsonei (106 pertsona, gizarte enpleguko lantaldeetan: 45 emakume eta 61 gizon), eta Elkarkide (8 pertsona: emakume bat eta 7 gizon).

### ARRISKU-MAPAK

2024an zehar, honako alor eta/edo zerbitzu hauetako arriskuen ebaluazioa eguneratu da:

- Osasuneko Alorra - Hilerria Zarata lanpostuetan - Ingurumen Ingeniaritzako Ikuskaritza

### ISTRIPUEN IKERKETA

2024an zehar, Iruñeko Udalean 142 lan-istripu gertatu dira, baja medikoa behar izan dutenak, eta 102 lan-istripu, baja medikorik gabeak.

### OSASUN-ZAINTZA

2024An, Iruñeko udaleko Zerbitzu Medikoak, guztira, 1.371 osasun-jarduketa egin ditu, honako taula honetan laburbildurik ageri bezala:

| Jarduketa mota | Gizonak | Emakumeak | Orotara | % |
|---|---|---|---|---|
| Azterketa medikoak (Osasun-zaintza) | 424 | 351 | 775 | 58,8 |
| Azterketak ezintasun luzearen ondotik | 12 | 16 | 28 | 2,1 |
| Kontsulta medikoak | 59 | 46 | 105 | 8,0 |
| Batzorderako balorazioak birkokapenak | 1 | 25 | 26 | 2,0 |
| Txertoak | 229 | 154 | 383 | 29,1 |
| **Orotara** | **725** | **592** | **1.371** | |

### TERKETA MEDIKOAK

2024an, osasun-azterketa egiteko 943 hitzordu egin zitzaizkien udal-langileei, eta 775 langile joan ziren; hau da, deitutakoen % 82,15.

2024an, ez da lanbide-gaixotasuneko kasurik izan.

## ANTOLAKETA ETA GIZA BALIABIDEAK

2024an, 92 hautapen-prozesu amaitu dira, bai eta horiei lotutako lekualdaketa-deialdiak ere, guztiak ere Lanpostuak Egonkortzeko Prozesu Bereziari lotuak. Dena den, prozesua 2024ko abenduaren 31n amaitu bazen ere, ez da izendapen guztiak egiterik izan, proposatutako pertsonen ezinbesteko arrazoiek eraginda edota borondatezko eszedentziak eman direlako, izendatuek beren lanpostuaz jabetu direnetik indarrean sartuak; horrenbestez, ziendapen berriak egin behar dira. Alde horretatik, Nafarroako Gobernuak luzamendua ezarri du behar diren izendapen osagarriak egin daitezen.

Bestalde, 2024an zehar, beste hautapen-prozesu batzuk gauzatu eta Lan Eskaintza Publikoaren prestaketa landu da, bai eta plantilla organikorako proiektua ere. Horrez gain, lanpostu batzuen deskribapenak lantzen hasi dira.

2024ko maiatzean, bestalde, ordutegia malgutzeko sistema jarri zen abian, Enplegatuaren Atariko programa berri bati lotutako fitxatze-metodo bat ezarriz. Horri esker, hobeki kudeatzen dira lan-denbora, lizentzia- eta opor-eskaerak, eta langile bakoitzaren gaineko informazioa.

Neurriok Udalean lan egiten duten pertsonen bizitza, lana eta familia bateragarri egitea sustatu dute

Halaber, herritarrek enplegu publikorako deialdiei buruz egindako informazio-eskaerei erantzun zaie; eskaria nabarmen handitu da, enplegu publikoa egonkortzeko eta administrazio publikoetako behin-behinekotasuna murrizteko prozesua garatzearen ondorioz.

## ERREGISTROAK

| Erregistroak | 2024 | 2023 | 2022 | 2021 | 2020 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Aurrez aurrekoa | 36.621 | 40.178 | 43.909 | 41.223 | 41.411 | 48.003 |
| Elektronikoa | 62.060 | 63.369 | 58.633 | 51.628 | 32.726 | 14.390 |
| Postala | 3.317 | 3.633 | 3.568 | 3.668 | 5.380 | 7.208 |
| **Sarrerak guztira** | **103.231** | **107.180** | **106.110** | **96.519** | **79.517** | **69.601** |

# 04

# Gobernu Estrategikoa, Hirigintza, Etxebizitza eta 2030 Agenda



Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

# 4.1
# Gobernu Estrategikoa

Bulego Estrategikoak Hiri Plan Estrategiko bat diseinatu, landu, kudeatu eta haren jarraipena egitearekin lotutako eginkizun guztiak ditu bere gain, bai eta horrek dakartzan lan guztiak egitea ere. Ardura horien emaitza da Iruñeko 2030 Hiri Agenda, 2021ean onetsia, gaur egun garapen fase honetan edo hartan dauden 57 proiektu barne harturik.

Bulego Estrategikoak, gainera, beste zeregin batzuk ere baditu, hala nola Europako funtsak hartzea deialdi lehiakorren bidez; zeharkako proiektuak bultzatzea; ikerketa soziologikoa egitea eta Iruñeko behatokia; eta kanpoaldeko lankidetza kudeatzea.

Horrenbestez, Bulego Estrategikoaren barnean, honako lan-esparru hauek daude:

1. Iruñeko 2030 Hiri Agendaren kudeaketa eta bultzada
2. Europako proiektuak
3. Next Generation EU Suspertze Funtsak
4. GIS eta Udal Kartografia.
5. Iruñeko Hiri Behatokia.

## 4.1.1 Iruñeko 2030 hiri agenda

2023aren bukaeran, Iruñeko 2030 Hiri Agendako Ekintza Plana eta proiektuak berrikusteko beharra antzeman zen, programa operatiboak denboraldi mugatuagoetarako eta zehatzetarako eskura izate aldera, eta abaguneari edo aukerari begira, eragiteko eta eraldatzeko gaitasun handiagoa duten proiektuak bultzatzeko, 2030erako Estrategia Esparruan zehaztutako Iruñera hurbiltze aldera.

Horrela, 2024an, proiektuak berrikusteko prozesua burutu da udal-alorrekin batera, Programa Operatibo 2025-2027 bat prestatze aldera eta garrantzi handieneko proiektuak lehenestea aldera; hartara, 5 saio egiteko deia egin zitzaien identifikatutako teknikariei eta zuzendariei; bat, alderdi bakoitzeko.

Programa operatiboa Iruñeko 2030 Hiri Agendaren gobernantza osatzen duten organoekin bateratu zen: 2030 Biltzarra (udal-talde guztien ordezkaritza-organoa), 2030 batzordea (hiriko eragile sozial, ekonomiko eta instituzional nagusien ordezkaritza-organoa) eta Alorren arteko Batzordea. Halaber, bost lantalde tematiko antolatu ziren (Agendako bost alderdien arabera), udal-teknikariek osatuak. Horri esker, 2024 amaieran, Programa Operatiboa 2025-2027 izeneko dokumentua egin zen eta, dokumentuaren bidez, honako helburu hauek lortu dira edota erdietsi nahi dira:

- Iruñeko 2030 Hiri Agenda osatzen duten 57 proiektuetako 14 lehenestea
- Lan-plan bat egitea 2025-2027 aldirako
- Lana bost alderdietako bakoitzera egokitzea
- Lehenetsi ez diren proiektuen jarraipena egitea
- Gobernantza-eredu bat egitea, herritarrek parte hartzeko udal-erregelamenduak biltzen duen esparruarekin bat
- Adierazleek jarraipena egiteko protokoloa ezartzea eta Garapen Jasangarriko Helburuei egiten zaien ekarpenaren jarraipen-prozesu bat eratzea
- Komunikazio-eredu bat ezartzea

Halaber, **Iruñeko 2030 Hiri Agenda**, webgunearekin lan egin da, abian jartzen diren ekimen berriekin eguneratua mantentzeko.

Urriaren 31n, gainera, Bulego Estrategikoak IRUÑEKO 2030 HIRI AGENDAREN IV. JARDUNALDIAK antolatu zituen Ziudadelan, Tokiko eragileen eginkizuna Energia Trantsizioan izenburupean, horrela urteroko hitzordua errotuta. Jardunaldien bidez jakinarazten da zer aurrerapauso eman diren Iruñeko 2030 Hiri Agendan eta gako-eragileen arteko truke-gunea eskaintzen du. Aipatu jardunaldietan, honako arlo honetan aurkeztu ziren ekimen berritzaileak:

- Hiri-berrikuntzarako ekimen berritzaileak
- Mahai ingurua. Izenburua: erakunde publikoen bultzada energia-trantsiziorako: oztopoak eta aukerak
- Living lab, gizarte-berrikuntza eta tokiko ekintza energia-trantsizioan
- Bisita gidatua: Arrotxapea: energia positiboko auzoa.

## 4.1.2 Europako proiektuak

Bulego Estrategikoak Europako proiektuen kudeaketan espezializatutako langileak ditu eta Europar Batasunaren finantza-ingurunea ezagutzen dute. Hiri Agendaren helburuak eta bertan jasotako proiektuak beti kontuan harturik, Bulego Estrategikoak Europako funtsak erakartzeko ardura dauka, proiektuetan parte hartuz.

2024an, honako proiektu hauetan lan egin da:

### 1 / STARDUST

**STARDUST**proiektuak –H2020 SCC1 Europako programarekin batera finantzatua– barne hartzen du Smart Cities direlakoei buruzko hiru proiektu pilotu egitea Europako hiru hiritan (Iruña, Trento eta Tampere), eta bertan parte hartzen dute, halaber, emaitzak transferi behar zaizkien beste hiri batzuk (follower cities). Iruñeko Udalaren zeregin nagusia da askotariko erakundeak biltzen dituen tokiko partzuergoaren buruan jardutea, Iruñeko pilotua garatzeko.

Proiektua 2024ko martxoan amaitu zen. Otsailaren 28an eta 29an, proiektuaren azken ekitaldia egin zen Iruñean, CENERek antolaturik. Bertan, proiektuko bazkide guztien ordezkariek parte hartu zuten, bai eta kanpo-adituek ere. Iruñeko Udalak rol instituzionala izan zuen, alkateak egin baitzuen irekiera, bai eta rol teknikoa ere, udal-langileek aurkezpenak egin baitzituzten hainbat saiotan.

Bulego Estrategikoak, gainera, tokiko partzuergoaren bilerak antolatzen jarraitu zuen (urtarrilean eta otsailean), eta Iruñeko pilotuaren azken txosten teknikoa prestatu zen. Halaber, azken gastu-adierazpena egin zen eta, era berean, proiektuaren gaineko auditoretza eta Europako Batzordearen errekerimenduei erantzun zitzaien. Abenduan, proiektuaren azken ordainketa jaso zen.

### 2 / OPEN LAB

**oPEN Lab** proiektua EBk finantzatzen du H2020 programaren bidez eta 2021eko urrian abiarazi zen. Proiektuak errepikatu daitezkeen eta komertzialki bideragarriak diren irtenbide-sortak identifikatu nahi ditu, energetikoki positiboak diren auzoak lortzeko asmoarekin, egungo hiri-testuinguruen baitan, eta tokiko energia-sisteman guztiz txertaturik. Proiektuan teknologia eta sorta horiek ari dira testatzen auzo mailako irtenbide integratu gisa. Erakusle horiek Iruñean egin dira, baita Genk (Belgika) eta Tartu (Estonia) hirietan ere. Iruñean Arrotxapea auzoan ari dira jarduketak egiten.

Proiektu honetan, Bulego Estrategikoak proiektuaren koordinatzailearen eta Udalaren arteko harreman-gunearen eginkizuna du (SPOC- Single Point of Contact) .

2024an, San Pedro multzoko 11-12 atariei dagokien eraikina berritzeko lan nagusiak egin ziren (Proiektu eta Obretako alorra). Halaber, Arrotxapeko energia-bulegoaren zerbitzuak zabaldu ziren, langilez hornitu baitzen (bi arkitekto, oPEN Lab-en kontura), eta kanpaina baten bidez Bulego Berde gisa identifikatu zen, Bulego Berdeen udal-sare baten barnean. Iruñeko Udalaren Energia Agentziak, gainera, Arrotxa-E auzoko energia-komunitateari laguntza ematen jarraitu eta, PRTR bidez, energia emanen dion estalki fotovoltaikoa gauzatu du; era berean, Xahutze Energetikoaren Aurkako Ekintza programa gauzatzen jarraitu da Patxi Larrainzar ikastetxean (ingurumen-hezkuntza).

Aldi berean, gizarte-proiektu berri bat landu da San Pedron birgaitu den eraikinerako, mendekotasuna duten pertsonak eta NUPeko ikasleak bizi daitezen. Energia Agentzia eta Gizarte Zerbitzuetako Alorra bi hitzarmen hasi ziren lantzen, pertsona horien aipatu etxebizitzetarako sarrera arautzeko.

2024an, bestalde, Udalak proiektu honetan esleitua duen entregagai bakarra prestatu zuen Bulego Estrategikoak auzoek energia positiboko jardunbide egokietan parte hartzearen inguruan, tokiko eta Europako bazkideen inputekin.

Aurten ere Smart Iruña Lab programaren hirugarren edizioa abiarazi da, zeinetan Bulego Estrategikoak laguntza ematen baitio Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiekzioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorrari, alor horrek gidatzen baitu programaren hirugarren edizioa. 2024an, Bulego Estrategikoak laguntza eman zuen programa koordinatzen duen aholkularitza-enpresaren lizitazioan, proiektuak hautatzeko prozesuan, etab. Alor horrek Smart Cities proiektuaren Esparru Hitzarmena berritu, eta proiektu hautatuekiko hitzarmenak prestatzen hasi zen. Bulego Estrategikoak proiektu hautatuak aurkezteko jardunaldia hasi zen prestatzen, 2025eko otsailaren 5ean egitekoa.

Komunikazioari dagokionez, nabarmendu behar da Bulego Estrategikoak oPEN Lab-en erdietsitako lorpenei eskaini ziela bere urteroko jardunaldia. Zehazki, Ziudadelan egin zen eta, hartan, udal-langileak eta oPEN Lab proiektuko bazkideak aritu ziren hizlari, bai eta koordinazio-taldeko ordezkari bat ere (Belgikako VITO I+G zentrokoa).

Bulego Estrategikoak, halaber, oPEN Lab-eko bi toki-buletin prestatu zituen, tokiko bazkide guztien inputekin. Era berean, hainbat prentsa-ohar eta haien hedapena koordinatu, **udal-webeko oPEN Lab atala** eta **europar proiektuaren weba** elikatu, eta auzoan hainbat ekitaldi egin dira.

Bulego Estrategikoak, halaber, proiektuaren bigarren gastu-adierazpena egin zuen, eta Europako Batzordearen erantzunaren zain daude.

Aldi berean, Bulego Estrategikoak proiektuaren hainbat bileratan parte hartu du aldizka:

- Udal barneko bilerak.
- Tokiko bazkideen bilerak, hala osoko bilerak (hamabostean behin) nola.tematikoak lan-sorten arabera.
- Proiektuko lan-sorta bakoitzaren bilerak, ekintza-burua den bazkide europarrak deituak (online).
- Batzarrak, proiektuan dauden bazkide guztiekin (seihilekoan behin), bat online eta, bestea, aurrez aurre (Tartun, urrian).

- Aldebiko bilerak koordinatzailearekin (hilekoak).

2024ko abenduan, pertsona bat kontratatu zen oPEN Lab-en kontura, Energia Agentziaren mendean. Espero da, arian-arian, bere gain hartzen joatea proiektu honetako OEk egin izan dituen eginkizun gehienak.

## 3 / PLAN4CET

Plan4CET proiektua 2023an hasi eta helburu du Europako eskualde eta hiriei laguntzea, beren behar eta aukeren arabera energia garbi bateranzko trantsizio-planak diseinatu, garatu eta aplika ditzaten.

Horretarako, proiektua hainbat produktu (metodologiak, tresnak eta laguntza teknikoa) sortuko dituen ekimen gisa sortu zen, EBko eskualdeei (bereziki, gaitasun falta duten udalerri ertain eta txikiei) eta hiriei Energia Trantsizio Garbiaren plangintzan laguntzeko (CET, ingelesezko siglak).

Proiektuak EBko 3 eskualderi laguntzen die Klima eta Energia Jasangarrirako Ekintza Planak hobetzen, Nafarroan, Skänen (Suedia) eta Emilia Romagnan (Italia) eginen diren proiektu pilotuetan. Eskualde horiek EBko hainbat eskualde mota irudikatzen dituzte, eta eredu izanen dira ikaskuntza eta praktika onenak transferitzeko.

2024an, Bulego Estrategikoak jarraipena egin eta proiektuaren bileretan parte hartu du, eta laguntza eman dio Udal Energia Agentziari, proiektu honen kontura pertsona bat kontratatzeko. Abuztuan sartu zenetik, Bulego Estrategikoak laguntza eman du behar izan den orotan (bilera batzuk, gastu justifikazioa, etab.). Puntu honetatik aurrera, Bulego Estrategikoak proiektuaren jarraipena egitea du eginkizun, proiektuak erantzuna ematen baitio Udaleko 2030erako Energia Trantsizio eta Klima Aldaketarako Estrategiari, hori izaki Iruñeko 2030 Hiri Agendako Plan Operatibo 2025-2027n lehenetsitako proiektuetako bat.

## 4 / IRUHBI PILOTA

2024ko urtarrilaz geroztik, Bulego Estrategikoa POCTEFA IRUHBI Pilota proiektua gidatzeaz arduratu da. POCTEFA 2021-2027ren lehen deialdian onetsirik, proiektua urtarrilean abiatu zen Iruña Euskal Pilotaren Munduko Hiriburu gisa duen eginkizuna sendotzeko. Ekimen hori Iruñeko 2030 Hiri Agendan sartua dago.

Azken ekitaldian, Udala proiektuaren gidaritzaz eta koordinazioaz arduratu da, IRUHBI Pilota abiarazteko eta haren jarraipena egiteko bilerak antolatuz. Horrez gain, proiektuaren kudeaketari eta komunikazioari dagozkien lizitazioak abiarazi dira.

Oroitarazi behar da, Iruñeko Udala proiektuaren gidaria izateaz gain, Miarritzeko eta Uharteko Udalak direla partaide, bai eta Nafarroako Euskal Pilota Federakuntza, Iparraldeko Pilota Batzordea eta Biarritz Athletic Club ere.

## 5/ PROIEKTU-HAUTAGAITZA BERRIEN AURKEZPENA

Bulego Estrategikoak laguntza ematen die udal alorrei proiektu-proposamen berriak prestatzeko.

2024ko maiatzean, **Col3Natur** proiektua aurkeztu zen SUDOE programan (2023ko deialdian aurkeztua, baina ez zuten hautatu huraxe finantzatzea). Nafarroako Unibertsitateak gidaturik, Espainiako, Portugaleko eta Frantziako bazkideak dira partaide. Bulego Estrategikoak Udalaren jarduketen prestaketak koordinatu zituen. Proposamenak lehen fasea igaro zuen, eta 2024ko azken hiruhilekoan proposamen zehatzago bat prestatu zen, 2025eko urtarrilean aurkeztua.

Horrez gain, Energia Agentziarekin batera, Bulego Estrategikoak hautagaitza baten prestaketan parte hartu zuen Horizonte Europa programako proiektu baterako. Proiektua onesten bada, biki digital bat garatuko da Arrotxapea auzorako, hiria berritu eta berroneratzeko arloan erabakiak hartzen laguntze aldera. Hautagaitzak aurkezteko epea 2025eko otsailean itxiko da.

## 6 / 2023AN AITORTUTAKO ORDAINKETAK, EUROPAKO FINANTZAKETAREN ERAGINPEAN DAUDENAK

Europako finantzaketak ukitutako ordainketa aitortuen txostenean adierazten den bezalaxe, kalkulatu da 950.000 € inguru jasoko direla Europako finantzaketaren bidez Bulego Estrategikoak kudeatzen dituen proiektuetarako, hots, atal honetan deskribatu eta PRTR ez diren haietarako.

Ondoren ageri da 2024an aitortutako ordainketen laburpena, hots, Europako finantzaketak ukitutakoak, PRTRz bestelako proiektu europarrei dagokienez.

| Proyecto de gasto | Gasto real, excepto personal e indirectos, IVA incluido | Gasto elegible | | | | Financiación UE** | | Comprobación (cuantía que figura en proyecto de gasto) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Directo excepto personal* | Personal | Indirecto | Total | % | Financiación máxima | |
| 2017 09 STARDUST | 4.864,20 | 4.788,22 | 5.262,87 | 2.512,77 | 12.563,87 | 100,00 % | 12.563,87 | 10.127,07 |
| 2021 60 OPEN LAB | 602.893,14 | 593.002,89 | 111.248,57 | 132.361,77 | 836.613,92 | 100,00 % | 836.613,92 | 744.177,71 |
| 2023 73 Plan4CET | 1.489,71 | 1.488,39 | 23.146,23 | 1.724,42 | 26.359,04 | 95,00 % | 25.041,09 | 24.635,94 |
| 2024 09 IRUHB! Pilota | 8.926,05 | 8.895,07 | 44.318,00 | 9.306,78 | 62.519,85 | 65,00 % | 40.637,90 | 53.244,05 |
| | | | | | **968.092,08** | | **944.892,18** | **832.184,77** |

* Corresponde al gasto total, incluido IVA (excepto el 2% de IVA recuperable) y algún otro posible gasto que no se haya podido incluir en la justificación (en el caso de oPEN Lab hay incluidos gastos que no son elegibles, porque está toda la certificación de la obra). Debe tenerse en cuenta uqe no todos los gastos tienen IVA asociado.
** Corresponde al % de financiación sobre el gasto elegible.

**2021 60 OPEN LAB:** Este proyecto de gasto, en la contabilidad, se incluye todo el gasto de las obras de San Pedro (portales 11 y 12), pero el proyecto sólo financia los elementos innovadores, de ahí la diferencia entre el gasto real y el elegible.

## 4.1.3 Next Generation EU susperstze funtsak

2024an, jarraipena egin zaio Espainiako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren garapenari, plan horren bidez bideratzen baitira Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren eta Next Generation EU programaren Europako laguntzak. Horrela, argitaratzen joan diren laguntza-deialdi guztien analisia egin da eta hainbat deialditarako laguntza-eskarien aurkezpena koordinatu eta/edo lagundu da. Halaber, laguntza eman da jarraipen-txostenak aurkezteko eta amaitutako proiektuak justifikatzeko, dirulaguntzak ematen dituzten erakundeen aurrean.

Bulego estrategikoak **Coffee** tresnaren ezarpena koordinatzen du ministerio, organismo eta administrazioen eta udal alor eta zerbitzuen artean, PRTR proiektuen jarraipena egiteko. Bulegoa da, halaber, dirulaguntzen deialdia egiten duten erakundeen eta Iruñeko Udalaren arteko harreman gunea, proiektuen jarraipena eta balizko zuzenketak egiteko.

2024an zehar, laguntza berriak eskatu dira. Honatx nabarmentzekoak:

- Instalazio termikoak: 1,3 milioi € baino gehiago eskatuak
- Moves III: 743.000 € eskatu dira ibilgailu elektrikoak (74) eta karga-guneak erosteko.
- Uholdeak: 226.000 €-tik gora eskatu dira.
- Jasangarritasunerako laguntzak Donejakue Bidean: 447.000 €-tik gora eskatu dira.
- RDTI plataforma digitalak: 1,22 milioi € eskatu dira.

**GUZTIRA: 4 milioi € inguru eskatu dira**

Honatx proiektu guztien egoera urte amaieran:

| Datu ekonomikoak | € | % |
|---|---|---|
| 1. Udal-aurrekontua | | |
| 1.1. Orotara | 72.085.905,81 | |
| 1.2. Aurrekontu onartua | 61.537.499,85 | 85,4% |
| 1.3. Onartzeke | 5.551.148,55 | 7,7% |
| 1.4. Ukatua | 4.210.660,41 | 5,8% |
| 1.5. Ukoa | 786.597,00 | 1,1% |
| 2. Emandako laguntza | 43.728.549,46 | |
| 3. Gastu gauzatua | 41.070.158,57 | |
| 4. Jasotako diru-sarrera | 27.629.065,51 | |

| Indizeak | € | % |
|---|---|---|
| 1. % Emandako laguntza/Aurrekontu erabakia | 71,1% | |
| 2. % Gastu gauzatua/Aurrekontu erabakia | 66,7% | |
| 3. . % Jasotako diru-sarrera/Aurrekontu erabakia | 44,9% | |
| 4. . % Jasotako diru-sarrera/ Gastu gauzatua | 67,3% | |
| 5. % Jasotako diru-sarrera/Emandako laguntza | 63,2% | |
| 6. Proiektu kop. Erabakiaren egoera | | |
| 6.1. Orotara | 46 | |
| 6.2. Onartua | 38 | 82,6% |
| 6.3. Onartzeke guztiz edo zati batean | 5 | 10,9% |
| 6.4. Ukatua | 2 | 4,3% |
| 6.5. Ukoa | 1 | 2,2% |
| 7. Proiektu kop. Gauzapenaren egoera | | |
| 7.1. Orotara | 46 | |
| 7.1. Guztiz amaituak | 21 | 45,7% |
| 7.2. Hasiak | 16 | 34,8% |
| 7.3. Hasi gabeak | 9 | 19,6% |
| 8. Jarduketa kop. | 224 | |

**1 / RUNA**

2024an zehar, Estrategia Bulegoak proiektuaren koordinazio orokorreko lanak egiten jarraitu du, bai kanpora begira Biodibertsitatea Fundazioarekin, bai Udalaren barnean ekintzetako baten ardura duten zerbitzu guztiekin.

Animsak lagundurik, gainera, tresna bat garatu da langileek proiektuari eskainitako orduak eta horren langile-kostua biltzeko (beste proiektu batzuetarako ere balio duena), Hiberus enpresak garatua.

Proiektuaren komunikazio arloan egindako jarduera nagusiak:

- Azpiegitura Berde eta Urdinaren eta Drainatze Jasangarriaren Planaren proposamena aurkezteko jardunaldia, A1 eta A2 ekintzak, ekainaren 12an Kondestable Civivoxean egina.
- Azpiegitura Berde eta Urdinaren eta Drainatze Jasangarriaren Planaren proposamena itzultzeko jardunaldia, A1 eta A2 ekintzak, urriaren 28an Kondestable Civivoxean egina.
- Ilundaingo Errotaren Ibai Erreserba aurkezteko jardunaldia, B8 ekintza, 2024ko urriaren 17an Kondestable Civivoxean egina.
- Hiriak, Ingurumena eta Generoa Foru Biltzarrean parte hartzea, 2024ko urrian Sevillan, bi udal-teknikarik parte harturik.
- ·Sadar errekako ingurumen-boluntariotzari buruzko jardunaldia, urriaren 19an.

**2 / RETECH**

2024an, Iruñeak proiektu barnean izan behar duen parte-hartzearen zehaztapena bururatu da, Nafarroako Gobernuarekiko hitzarmena sinatuz.

Era berean, biki digitalen plataforma lizitaziora ateratze aldera, hainbat bilera eta bisita egin dira beste hiri batzuetara beste hiri-plataforma batzuk aztertzeko, eta beste udalerri batzuetan nola kudeatzen dituzten jakiteko.

Bulego Estrategikoak koordinazio-bileretan parte hartu zuen Nafarroako Gobernuarekin eta Tracasarekin, bai eta enpresekin ere.

**3 / ISURI APALEKO EREMUAK 2021**

Proiektua 2023an amaitu zen eta, 2024an, erantzunak eman zaizkie Ministerioak egindako errekerimenduei; bereziki, jarduketetan egindako lanei lotutako aspektuengatik eta aipatu proiektuaren justifikazioagatik.

**4 / ISURI APALEKO EREMUAK 2022**

2024an zehar, Estrategia Bulegoak proiektuaren koordinazio orokorreko lanak egiten jarraitu du, bai kanpora begira Biodibertsitatea Fundazioarekin, bai Udalaren barnean ekintzetako baten ardura duten zerbitzu guztiekin.
Proiektua 2024ko abenduaren 31n bukatu zen; dena dela, luzapena eskatu zaio Ministerioari eta 2025eko ekainaren 30era arte eman du.

**5 / HIRI AGENDAKO PLANEN PROIEKTU PILOTUAK**

Proiektua 2022an amaitu zen eta 2023an justifikatu zen; 2024an, erantzunak eman zaizkie Ministerioak egindako errekerimenduei; bereziki, jarduketetan egindako lanei lotutako aspektuengatik eta aipatu proiektuaren justifikazioagatik. Halaber, proiektuaren justifikazio-kontua aurkeztu zen.

## 4.1.4 Gis eta kartografia

**Informazio Geografikoko Sistemak** (SIG, edo GIS ingelesezko sigletan) Iruñeko Udalaren jabetzako informazio kantitate handia aurkezteko beharra asetzea ahalbidetzen du, era geoerreferentziatuan eta normalizatuan, web zerbitzuen bitartez. SIG datuak prozesatzeko sistema bat da, informazio geografikoa (elementuen kokapen espaziala) eta alfanumerikoa (elementu horien deskribapena) modu integratuan tratatzeko gai dena, eta barne hartzen du datuak atzematea, biltegiratzea, editatzea, aztertzea eta irudikatzea. Gardentasuna bultzatzen du, Open Data nabarmen areagotuta.

2024an, are gehiago erabili zen SIG, datu irekiak prozesatzeko udal tresna gisa, Trabajos Catastrales S.A. (TRACASA) enpresarekiko kontratua eginez, laguntza teknikoa jasotze aldera. Datu espazialen barne-sistema finkatu da, QGIS tresnaren bidez. Barnealdeko QGIS tresnaren bidez, eskura diren geruza guztiei ematen zaie sarbidea, hala publikoei nola pribatuei, informazio geoerreferentziatuarekin zuzenean lan egiteko eskaintzen duen funtzionaltasun guztiarekin. Aurreko urtean bezala, informazio-geruzen datu historikoak gorde eta geruza berriak txertatzen joan ziren.

Hainbat lan egin dira; besteak beste, honakoak dira nabarmentzekoak:

**- Kudeaketa**
**- Azpiegitura**
  · Geruzak eguneratzea· Integración IDENA
  · IDENA integrazioa· API y evolución funcional visores

- Barne gordailua
- API eta bisoreen bilakaera funtzionala
- BTU kartografia-lanak

**- Pilotiak**

- Hiri-pilotu inbentarioak
- Pilotua pasaguneak
- Pilotua herritarren parte-hartzea
- Pilotuak euskarria

**-Prestakutza**

2024an, bultzada handia eman zaio udal-langileen prestakuntzari, hainbat prestakuntza-ikastaro antolatuz:

- Ikastaroa: Geo Iruña WEB ataria 25 ikasle.
- QGIS Korporatiboa: 29 ikasle.
- QGIS: 30 ikasle.
- QGIS eta Iruñeko BTU Kartografia 1:500: 22 ikasle.

**2024an 69.986,22 €-ko aurrekontua gauzatu da GISen (BEZa barne).**

Kartografiari dagokionez, 2024an zehar, Nafarroako Gobernuarekin eta Tracasarekin lanean jarraitu genuen Lankidetza Hitzarmena egiteko, zehaztasunezko BTU kartografia berritze aldera, Iruñeko udal-mugartea 1:500 eskalan hartzeko, 1989tik hona erabat baitago eguneratu gabe. Lantzen ere jarraitu genuen Hiriko Topografia Oinarri Harmonizatu bat, Nafarroako gainerako udalerrien kartografiarako oinarria izanen dena.

Aurrera egin dute proiektu hori kudeatzeko lanek eta kartografia 2024ko abenduaren 5arekin eguneratu da; 2025eko urtarrilean ematekoa da argitara behin betiko.

Aipatu behar da hitzarmenaren jarraipena egiteko batzordeak 2024ko kontuak onetsi zituela, eta etorkizuneko mantentze-lanen eta eguneratzeen beharra eta garrantzia partekatu zela, bai eta udaleko beste proiektu batzuekin duen lotura ere, hala nola RETECH-biki digitalak proiektuarekin, hori ere Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan egina, Tracasa Instrumental-ek parte harturik. Atzeman da udal-mugartearen azalera osoa eguneratu beharra dagoela eta, halaber, rolak esleitzeko proposamen bat egin zen (teknikariak, ekoizpenekoak eta erabiltzaileak), informazioaren ustiapena optimizatze aldera.

## 4.1.5 Iruñeko hiri behatokia

Bulego Estrategikoaren eginkizunetako bat da izaera soziologikoa duten ikerketak garatzea, bai eta hiriari buruzko informazio garrantzitsua biltzea, aztertzea eta argitaratzea ere, Iruñeko 2030 Hiri Agendaren diagnosiak eta jarraipena egin ahal izateko.

.2024an, honako jarduketa hauek egin dira:

### 1 / ADIERAZLE SOZIODEMOGRAFIKOAK EGUNERATZEA IRUÑERAKO ETA AUZOETARAKO

Urtero bezala, eguneratu dira Hiri Behatokian jasotako **adierazle soziodemografikoak** , hiri osoan eta auzo bakoitzean egoera hori zertan den adierazteko.

### 2 / GIZARTE-AZTERLANAK ETA POLITIKA PUBLIKOEN EBALUAZIOA

Bulego Estrategikoak honako azterlan soziologikoak egin ditu 2024an:

**• Herritarrendako Arreta Zerbitzuaren ebaluazioa:**
El objetivo que ha perseguido el estudio ha sido el de conocer la opinión y valoración que los usuarios y usuarias del Servicio de Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Pamplona tienen sobre el mismo, en sus dos vertientes, 010 y OAC. En ese sentido, también se ha buscado conocer el nivel de satisfacción con el sistema de cita previa (para ser atendido en la OAC) y el nivel de satisfacción con el asistente virtual en el 010.

**• Txantreako Aparkatze Mugatuko Eremuaren gaineko ebaluazioa:**
Azterlanaren helburua izan da Aparkatze Mugatuko Eremuaren ezarpenak Txantrea auzoan izan duen eragina ebaluatzea, eta zer ondorio izan dituen aparkatzeko tokien eskuragarritasunean, mugikortasunean, trafikoan eta bizilagunen bizi-kalitatean.

Horretarako, berariazko helburuak ezarri dira, herritarren aparkatze- eta mugikortasun-ohiturak jakiteko, herritarrek arauketarekin duten gogobetetze-maila neurtzeko, eta mugikortasunean nahiz trafikoan sumatzen diren aldaketak ebaluatzeko. Datuak ere bildu dira Aparkatze Mugatuko Eremuak bizi-kalitatean izandako efektuen pertzepzioari buruz, hainbat aspektu barne harturik, hala nola trafikoaren, zarataren eta kutsaduraren murrizketa.

Azterlanak funtsezko beste alderdi bat jorratu du, bizilagunen iradokizunak jaso baitira aparkatzearen arauketa hobetzeko, hartu diren neurriak auzoaren beharretara egokitzen direla bermatuta. Horrela, azterlanak egungo egoeraren gaineko diagnosia emateaz gain, informazio garrantzitsua ere eman du Txantreako aparkatzearen kudeaketa etorkizunean hobetzeko.

## 3 / UDAL-ALORREKIN LANKIDETZAN ARITZEA, DATU-SERIEAK ETA ADIERAZLEAK LANTZEKO, ANALISI ETA DIAGNOSTIKO PARTEKATURAKO TRESNA IZAN DAITEZEN

- Arrosadia, Azpilagaña, Santa María La Real eta Lezkairuko adierazle soziodemografikoak, Arrosadiko Energia Komunitatea sortzeko.

- Iruñeko adinekoez eginak diren diagnostikoak eguneratzen laguntzea..

## 4 / IRUÑEKO 2030 HIRI AGENDAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA TXERTATZEKO GIDA. IRIZPIDEAK, GALDERAK, NEURRIAK ETA JARRAIBIDEAK.

Udaleko Berdintasun Zerbitzuarekin lankidetzan, gidak udal-langileen eta kanpo-eragile publikoen zein pribatuen zerbitzuko tresna izan nahi du, proiektuen diseinuan, plangintzan, kudeaketan eta ebaluazioan genero-ikuspegia txertatzea errazteko.

# 4.2
# Hirigintza eta etxebizitza

Hirigintzak eta Etxebizitzak helburu dute hiria lurraldean sortzea: horretarako, hiri-antolamendua planifikatu eta kudeatzen du, etxebizitza duina eduki ahal izatea errazten du, naturaguneak hobetzen ditu, historia-ondarea zaintzen du eta ahalegina egiten du hiri- eta gizarte-ingurua osasungarria izan dadin, osasun-, higiene- eta ikuskaritza-baliabideen bitartez.

Halaber, laguntza eskaintzen du herritar orok etxebizitza duin eta egokia eduki dezan.

## 4.2.1
## Hirigitza eta etxebizitza

2024an zehar, honako obra-espedienteak izapidetu dira Alorrean:

| Mota | 2024 |
|---|---|
| Lanak | 501 |
| Laburtuak | 792 |
| Komunikatuak | 947 |
| EEZB Obrak | 225 |
| EEZB Laburtuak | 106 |
| EEZB Komunikatuak | 280 |
| **Orotara** | **2.851** |

En relación con años anteriores:

| Mota | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Obrak | 349 | 387 | 406 | 437 | 473 | 518 | 568 | 503 | 454 | 501 |
| Laburtuak | 764 | 765 | 781 | 709 | 649 | 560 | 717 | 798 | 816 | 792 |
| Komunikatuak | 651 | 805 | 762 | 914 | 918 | 779 | 903 | 1.345 | 1.501 | 947 |
| EEZB obrak | 134 | 197 | 237 | 244 | 256 | 258 | 300 | 342 | 313 | 225 |
| EEZB laburtuak | 128 | 30 | 73 | 56 | 58 | 39 | 66 | 97 | 120 | 106 |
| EEZB komunikatuak | 52 | 76 | 210 | 210 | 186 | 168 | 176 | 194 | 210 | 280 |
| **Orotara** | **2.084** | **2.260** | **2.469** | **2.570** | **2.540** | **2.322** | **2.730** | **3.279** | **3.414** | **2.851** |

Horrek esan nahi du obra-espediente gutxiago (% 17) izapidetu direla 2022an baino eta % 13 gutxiago 2022an baino. Taulan ageri denez, urtean joera aldatu da obra-espedienteen kopuruaren igoerarekiko, aurreko urteen aldean.

2024an, gainera, guztira 67 hirigintza-kontsulta, lehentasunez birgaitu beharreko etxebizitzen 51 txosten eta bizigarritasun-agirietarako 159 txosten izapidetu dira.

Bizitzeko eraikinetan izapidetu den etxebizitza kopuruari dagokionez, 718 etxebizitzatarako lizentziak izapidetu dira (271 BOE eta 447 libreak), honela banaturik:

| Hego Txantrea | Arrosadia/Lezkairu | Sanduzelai |
|---|---|---|
| 168 | 460 | 90 |

En relación con años anteriores:

| | Hego Txantrea | Arrosadia Lezkairu | Ipar Etxabakoitz | Zabalgunea | Buztintxuri | Erripagaña | Arrotxapea | Beloso | Iturrama | Sanduzelai | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **2020** | 79 | 467 | 51 | 92 | 24 | 93 | | | | | **806** |
| **2021** | 59 | 246 | 23 | 156 | 138 | 72 | 16 | 6 | | | **716** |
| **2022** | 105 | 519 | | 53 | | | | | 24 | | **701** |
| **2023** | 137 | 120 | 24 | | 53 | | 48 | | | | **382** |
| **2024** | 168 | 460 | | | | | | | | 90 | **718** |

Horrenbestez, nabarmen igo da espediente izapidetuen kopurua eta, horren ondorioz, etxebizitza kopurua, ia halako bi baita 2023aren aldean eta aurreko urteetako mailetara iritsi da.

Merkataritza-lokalak behe solairuan etxebizitzetan eraldatzeari dagokionez, 2024an 57 espediente izapidetu dira 99 etxebizitzatarako:

| Arrotxapea | Sanduzelai | Arrosadia | Mendebaldea | Txantrea | Buztintxuri | Azpilagaña | Etxabakoitz | Iturrama | Donibane | Mendillorri | Lezkairu |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 33 | 5 | 16 | 2 | 7 | 4 | 2 | 1 | 11 | 2 | 3 | 13 |

Aurreko urteekin alderatuta:

| | Arrotxapea | Arrosadia | Azpilagaña | Etxabakoitz | Donibane | Lezkairu | Sanduzelai | Buztintxuri | Iturrama | Mendillorri | Mendebaldea | Txantrea | Ermitagaña | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **2020** | 79 | 467 | 51 | 92 | 24 | 93 | | | 93 | | | | | **806** |
| **2021** | 59 | 246 | 23 | 156 | 138 | 72 | 16 | 6 | 72 | 16 | 6 | | | **716** |
| **2022** | 105 | 519 | | 53 | | | | | | | | 24 | | **701** |
| **2023** | 137 | 120 | 24 | | 53 | | 48 | | | 48 | | | | **382** |
| **2024** | 168 | 460 | | | | | | | | | | | 90 | **718** |

Joera aldatu da aurreko urteen aldean, hala espediente kopuruan, nola etxebizitza kopuruan; izan ere, % 23 espediente gutxiago izapidetu dira eta % 35 etxebizitza gutxiago, 2023. urtearekin alderatuta.

Irekiera-espedienteei dagokienez, 2012tik hona, irekiera-espediente gehienak erantzukizunpeko adierazpen bidez izapidetzen dira, eraikinen lehen erabilerak eta erabilera-aldaketak izan ezik. Erantzukizunpeko adierazpenak (12/2012 Legean aratua) jarduera kaltegabeak eta sailkatuak irekitzeko izapideak errazten ditu. Jarduera horiek Geroko Kontrolari buruzko Ordenantzarekin bat kontrolatzen dira.

2024an, 1.165 irekiera-espediente izapidetu dira (2023an baino % 9 gehiago). Haietatik 126 etxebizitzen lehen erabilerako lizentziak izan dira, eta 97, apartamentu turistikoetarako lizentziak (11, ukatuak).

Aurreko urteekin alderatuta:

| | GUZTIRA | 1. ERABILERA | APARTAMENTU TURISTIKOAK |
|---|---|---|---|
| **2018** | 917 | | |
| **2019** | 829 | | |
| **2020** | 964 | 87 | 199 (42 UKATUAK) |
| **2021** | 950 | 112 | 74 (14 UKATUAK) |
| **2022** | 1.068 | 118 | 47 (7 UKATUAK) |
| **2023** | 1.065 | 114 | 79 (11 UKATUAK) |
| **2024** | 1.165 | 126 | 97 (14 UKATUAK) |

## ETXEBIZITZAREN GAINEKO UDAL JARDUKETAK

### ETXEBIZITZA-BULEGOA

2024ko abenduaren 31ra arte, guztira 195 etxebizitza artatu dira Etxebizitza Bulegoan,eta horietatik 179 maizterrek okupatuak zeuden. Etxebizitzak jendearen eskura jartzeko esku-hartzeak bi bideren bitartez egiten dira. Batetik, Proiektu Estrategikoetako eta Mugikortasuneko alorrak koordinatzen dituen etxebizitzetan, eraikinetan eta beste ondasun higiezin batzuetan konponketak eta berrikuntzak egite aldera. Bestetik, esku-hartzea Gizarte Ekintzako alorraren Gizarte Enpleguko eta Gazte Langabetuen Laneratze programen bidez egiten da.

Bulegoaren erabiltzaileen profila 3 edo 4 kideko familia-unitatea da, adingabeak ardurapean dituena, eta diru-sarrera prekarioak. 2020an, beste 33 etxebizitza batu ziren Bulegora, haien kudeaketa egiteko; 2022an, beste 11 etxebizitza. 2023an, 12 etxebizitza batu ziren. 2024an, beste 5 etxebizitza batu dira.

### HIPOTEKA-BITARTEKARITZAKO BULEGOA

2023An, hipoteka-bitartekaritzarako 56 eskabide jaso ziren (ia iazkoan halako bi). Horrenbestez, espedienteak abiarazi, eta emaitza honakoa izan zen.

## 4.2.2 Hiria birgaitzeko bulegoa (HBB)

Iruñeko Udalaren Hiria Birgaitzeko Bulegoa 1984an hasi zen lanean, MOPUren, Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren arteko hitzarmen baten babesean, hiriaren erdigune historikoko hainbat eraikin birgaitzeko asmoz. Udaleko Plan Orokorraren eskakizunekin bat, une hartan bulego bat sortu zen, udalaren mendean soilik, aipatu Planak hiriaren erdigune historikorako aurreikusten duen hirigintza-garapena kudeatzeko eginkizunak bere gain hartuta. Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak 1986ko urrian sinatutako hitzarmenarekin bat, bulegoak halaber bere gain hartu zuen Nafarroako Gobernuak foru-lurraldean Eraikinak eta Etxebizitzak Birgaitzeko ezarri zuen Bulego haietako baten eginkizuna.

2024an, MRR programetako birgaitze-laguntzetarako deialdien behin-behineko kalifikazioen fasean parte hartu da kudeaketan (ERAIKINAK 2023 eta AUZOAK), Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren funtsetatik datozenak, urriaren 5eko 8583/2021 Errege Dekretuak arautuak.

### EGINKIZUNAK

Iruñeko Udalak eta Nafarroako Gobernuak ezartzen dituzten birgaitze-politikek sortutako lan arlo guztiek gidatzen dute Iruñeko Udalaren Hiria Birgaitzeko Bulegoaren jarduera. Praktikan, Bulegoaren jardueraren zati garrantzitsu bat birgaitze babestuko espedienteen tramitazioan datza, leihatila bakarreko kontzeptura hurbiltzen den kontzeptuarekin bat, Bulegoak bere gain hartuak dituen eginkizunetariko batzuk batera egin nahirik, betiere birgaitze-jarduketekin lotutakoak (hirigintza-legeari eta legeria teknikoari buruzko informazioa, Jabetza Horizontalari buruzko Legea; aholkularitza laguntzei buruz, hirigintza-lizentziak izapidetzeari buruz, Gobernuaren eta udalen laguntzak izapidetzeari buruz, eta MRR funtsetarako deialdiak...).

Informazio-lan orokorrak egiten dituzten administrariez gain, teknikariak daude bulegoa zabalik dagoen ordutegi guztian (arkitektoa edo arkitekto teknikoa) eraikinen birgaitzearekin lotutako informazioa eskatzen duten herritarren eskura, bai eta eta zuzenbideko bi lizentziadun ere. Zehazki, birgaitzeen sustatzaileari eta laguntzen eskatzaileari arreta eman nahi zaie, modu pertsonalizatuan eta berariazkoan, eraikinak birgaitzeko prozesuak sortutako edozein informaziori buruz (kontratazioak, erabakiak hartzea, laguntzak jasotzeko aukera...).

HBBko teknikariek ere, 2024an, 274 ikuskapen-bisita tekniko egin dituzte HBBn izapidetzen diren hainbat espediente motarekin lotutako eraikinetara.

### LEHENTASUNEZ BIRGAITU BEHARREKO EREMUETAKO HIRIGINTZA-ARAUDIA

2024an, 16 hirigintza-kontsultaren ebazpena izapidetu da indarrean den araudiaren aplikazioari buruz hiri guztiko hainbat birgaitze-proiektutan.

Hiriko birgaitze-jarduerak gero eta jarduera profesional handiagoa dakar berarekin; izan ere, gehienbat, teknikari pribatuek edo beste administrazio batzuek denetariko espediente amaituak kontsultatu eta aztertzeko beharra eskatzen dute, HBBko artxiboan gordeak daudenak: 2024an, HBBko artxiboko 107 espediente eskatu dira, hainbat azterlan mota, txosten, analisi eta kontsulta egiteko.

### HIRIGINTZA-DIZIPLINA

Etxebizitzak Birgaitzeko Bulegoak hainbat hirigintza-izapide egiten ditu, guztiak ere hiriaren erdigune historikoko birgaitze-jarduketei eta jarduketak kontrolatzeari lotuak.

- Iruñea osoan birgaitzeko laguntzen espedienteei lotutako obra-lizentziak
- Hiriko Hirigune Historikoaren eremuan obrak egiteko lizentziak.
- HBBk izapidetutako lizentzia duten obren azken berrikuspena.
- Aurreko jarduketa guztiei buruzko hirigintza-aholkularitza.
- HBBn ematen diren lizentziekin lotutako espediente osagarriak (zigor-diziplina, bide publikoa okupatzeko baimenak, zangak irekitzea...).

2024an, HBBk honako espediente hauek ebatzi ditu:

- 579 lhirigintza-lizentzia obretarako
- Obra-amaierako 409 espediente (obra-amaierako eta lehen erabilerako azterketak).

### ERAIKINEN KONTSERBAZIOA - OBRAK GAUZATZEKO AGINDUAK ETA ERAIKINAK EBALUATZEKO TXOSTENEN AURKEZPENA

Birgaitze Bulegoko teknikariek eta langile juridikoek hiriaren alde zaharrean kokatutako eraikinak kontserbatzeko betebeharrekin lotuta dauden obren gauzapenerako txosten teknikoak egiten dituzte (aurriak, gauzapen-aginduak), bai eta Hirigintzako Alorrak izapidetzen dituen espedientetan diren hirigintza arloko arau-hausteei buruzko txostenak ere.

Arestian aipatutako txostenak egiteaz gain, berariaz arduratzen da aurri-espediente jakin batzuk izapidetzeaz eta hirigintza-betebeharrak urratzeari lotutako zehapen-espedienteez.

108/2014 Foru Dekretuak eraikin-jabeendako betebehar berriak ezarri dituen neurrian (Eraikinak Ebaluatzeko Txostenak egin eta aurkeztearekin lotutakoak), Hiria Birgaitzeko Udal Bulegoak bere gain hartu ditu aipatu txostenak hartu, erregistratu eta aurkezteko lanak.

- Eraikinak ebaluatzeko 144 txosten hartu eta erregistratzea (124, hasiera batean aurkeztuak eta aurreko ekitaldietan aurkeztutako txostenen 20 eguneratze).

- Eraikuntza pribatuan aurri-adierazpenaren 3 espedienteren tramitazioan esku-hartzea, eta hiriko Alde Zaharrean hirigintza-betebeharrak ez betetzeagatik abiarazitako 10 erreklamazio-espediente, gauzapen-agindu eta zehapenetan.

## IRISGARRITASUN PLAN BEREZIAK

Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko 10/2010 Foru Legearen 55. artikuluan ezarritakoarekin bat, Hiria Birgaitzeko Bulegoak bere gain hartzen du Irisgarritasun Plan berezien tramitazioa partikularrek eskatuta, zeinen bidez etorkizunean desjabetzeak ahalbidetuko baitira eraikinetan oztopo arkitektonikoak kendu ahal izateko.

2024an, Iruñean Irisgarritasunerako 4 Plan Berezi izapidetzen jarraitu dugu (desjabetze-espedienteak).

## ERAIKINAK BIRGAITZEKO LAGUNTZEN KUDEAKETA

### NAFARROAKO GOBERNUAREN LAGUNTZAK

Hona hemen Nafarroako Gobernuak 2024an hitzemandako laguntzak, Iruñean onetsitako jarduketei dagozkienak (behin-behineko kalifikazioa 2023):

- 4.506 etxebizitzak jaso dituzte Nafarroako Gobernuaren laguntzak (% 28,82 igo da, 2023aren aldean).
- Sustatzaileen inbertsio pribatua: 55.891.640€ (%52,62 igo da, 2023rekin alderatuta).
- 17.699.198€ dirulaguntzatan, Nafarroako Gobernuak emanik (%30,88 igo da, 2023ren aldean).

Aipatzekoa da, halaber, Alde Zaharreko birgaitze-jarduketei laguntzeko neurri gisa, Hiria Birgaitzeko Bulegoak txostena egiten duela inguruko etxebizitzetan bizigarritasun-baldintzak betetzearen gainean. Etxebizitzen jabeek egindako aurrez aurreko kontsultei erantzuteaz gainera, Nafarroako Gobernuak eskatuta, 159 txosten egin ditu, bizigarritasun-zedulen eskaerei loturik.

2024an, HBBko zerbitzu teknikoek Esku-hartze Globaleko 3 proiekturen partaidetza-prozesutan esku hartu dute hainbat bizitegi-multzotan (778 etxebizitza). Haietariko 2k HBBren aldeko txostena jaso zuten eta Nafarroako Gobernuko Etxebizitza Zerbitzura igorri dira, onar ditzan.

Horrez gain, Iruñeko Udalaren HBBn behar diren gestioak egin dira Arrosadia auzoan Lehentasunez Birgaitu beharreko Eremuaren Adierazpena lortzeko (hiri-jarduketarako plan bereziaren esparrua). 169E/2024 FORU AGINDUA, irailaren 4koa, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak emana.

### MRR LAGUNTZAK 2023 (853/2021 Errege Dekretua)

2021eko urriaren 6an, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretua argitaratu zen 239. EAOn, bizitegi-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren arloko laguntza-programak arautzen dituena PRTR planaren baitan. Dekretuak autonomia-erkidegoei zuzeneko dirulaguntzak emateko mekanismo bat ezartzen du MRR funtsak kudeatzeko, bizitegi-eraikinen birgaitze energetikorako laguntza-programetara bideratuak.

Iruñeko Udaleko Birgaitze Bulegoa Nafarroako Gobernuarekin ari da elkarlanean, honako laguntza-deialdi hauek izapidetzeko:

#### MRR ERAIKINAK PROGRAMA 2023

901/2022 EBAZPENA, abenduaren 19koa, Etxebizitzako zuzendari nagusiak emana, lehendik dauden eraikinetan birgaitze energetikoko jarduketak egiteko dirulaguntzen deialdia eta dirulaguntza horien oinarri arautzaileak onesten dituena.
2023ko 4. NAOn, urtarrilaren 5ekoan, argitaratua.

#### AUZOAK PROGRAMA

349/2022 EBAZPENA, maiatzaren 25ekoa, Etxebizitzako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez onesten baita aldez aurretik Birgaitze Programatuko Bizitegi Ingurune gisa deklaratutako eremuetan dauden eraikinetan birgaitze energetikoko jarduketak egiteko dirulaguntzen deialdia, baita dirulaguntza horien oinarri arautzaileak ere.
2022ko 121. NAOn, ekainaren 20koan, argitaratua

Bi deialdietarako (eraikinak eta auzoak) eskabideak aurkezteko epea 2023ko abenduaren 31n bukatu zen. Bi deialdien indarraldia amaiturik, Iruñean guztira espediente kopuru hau dago: 149 eskaera ERAIKINAK programan, eta 11 eskaera, AUZOAK programan. Eskaera horiek 2.875 etxebizitza ukitu dituzte ERAIKINAK programan, eta 144 etxebizitza, AUZOAK programan.

2024an zehar, HBBk proiektu aurkeztuen txostenak egin ditu, Nafarroako Gobernuak Behin-behineko Kalifikazioak onesteko lehen fasea amaitu dezan.

ERAIKINAk 2023 deialdian, Iruñean kokaturiko MRR 49 espediente ebatzi dira. Hiriko gainerako 100 espedienteak itxaron-zerrendan daude.

AUZOAK deialdian aurkeztutako espediente guztiak onetsi dira; 11, hain zuzen ere.

Hiria Birgaitzeko Bulegoak espedienteak izapidetzen lagundu du. Honatx taula honetan 2024ko abenduaren 31ra arte egindakoa, MRR deialdiari dagokionez:

| | ERAIKINAK 2023 | AUZOAK |
|---|---|---|
| **Esp. berrikusiak dokumentazio guztia** | 149 expedientes | 11 expedientes |
| **N.G. bidalitako espedienteak HBBk txostena egindakoak** | 114 expedientes | 11 expedientes |

**UDAL LAGUNTZAK**

**Eraikinak zaharberritzeko Udalaren laguntzak arautzen dituen ordenantza.**

Eraikinak birgaitzeko laguntzen udal lerroa ERAIKINAK ZAHARBERRITZEKO UDALAREN LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAn dago zehaztua, berrikitan aldatua Osoko bilkurak hartutako erabakiz onetsia: PLE 05-OCT-23 (13/CU). 2023ko 251. NAOn, abenduaren 5ekoan, argitaratua. 2023ko Ordenantza indarrean dagoenaren (2007) ordezkoa da, onetsi arte, zeinak soil-soilik Hiriko Lehentasunez Birgaitu beharreko Eremuetan baitziharduen (Alde Zaharra eta Zabalguneak).

Aldaketa horrek aldaketa garrantzitsuak eragin ditu aurrekoaren aldean. Honatx onetsitako aldaketaren ezaugarri nagusiak:

- Hiri osoan ematen du 50 urtetik gorako eraikinetan birgaitze-jarduerak diruz laguntzeko aukera, ez bakarrik lehentasunez birgaitu beharreko eremuetan.
- Jabekideen erkidegoei emanen zaizkien zuzeneko dirulaguntzak izanen dira oinarri, elementu komunetan obrak egiteko.
- Diruz laguntzen dira eraikinaren birgaitze orokorreko espedienteari lotutako etxebizitza-jarduerak (bizigarritasuna eta irisgarritasuna).
- Diruz lagungarria den jarduketa berariazkoa izanen da eraikinen energia-eraginkortasuna hobetzeko jarduera.
- Aurreko ordenantzan bezala, laguntzak eskuratuko badira, ezinbestekoa da eraikin osoan gutxieneko egokitzapen-maila egokia lortzea, egiturari, funtzionaltasunari eta estetikari dagokienez.

Ordenantza horri lotutako lehen laguntza-deialdia 2024ko ekitaldian egin da.

- Laguntza-deialdia banakako ebaluazio-araubidean, Iruñean eraikinen birgaitze integralari begira, 2024. urterako..
  - Onetsia, 2024ko abuztuaren 19ko ebazpenez.
  - 191. NAOn, 2024ko irailaren 19koan, argitaratua.

Aipatu deialdiaren garapenaren ondorioz, 1.500.000 euroko dirulaguntzak ordaindu zaizkie 12 jabekide-erkidegori.

2024ko ekitaldian, HBBk Birgaitze Babestuko 53 kontsulta ebatzi ditu aurrez hiri osoko eraikinetan. Haien bidez, birgaitze-lanak abiarazi nahi dituztenei jakinarazi nahi zaie zer behar zehatz dauden eta eraikinean egin beharreko obrek noraino egokitu beharko duten araudira, OMARen aurreikusitako laguntzak lortuko badira.

2024ko ekitaldian, hiri osoko 31 eraikin birgaitzeko proiektuak kalifikatu dira hasiera batez udal laguntzak jasotzeko modukotzat. Espedienteok, guztira, 337 etxebizitza ukitu dituzte, eta 7.010,298 euroko inbertsio partikularra eragin dute. Iruñeko Udalak 2.880,586 euroko dirulaguntza emanen die.

## HIRIA BERRONERATZEKO JARDUKETAK – EREMU KALTEBERAK

2012. urteaz geroztik, hiriko eremu hondatuenetako hiri-kalteberatasunari buruz aurrez egindako azterlanetatik abiatuta, Hiria Berroneratzeko jarduerak garatzen eta ezartzen ari dira eremu kalteberetan, Esku-hartze Orokorreko proiektuen erredakzioa Esparru Hitzarmenen onespenari lotuz. Hala, hitzarmen horiei esker, eragindako eremuetan informazio- eta kudeaketa-laguntzak eta -neurriak ezartzen ahal dira.

2024an, honela gauzatu dira:

- Laguntza-lerroa hasi zenetik, hainbat esparru-hitzarmeni lotutako jarduketak amaitu dira Lezkairuko, Agur Maria zeharkaleko, San Migel koloniako eta Trenbide kaleko etxeetan.
- 2024an, lanak funtsean Oscoz multzoko eraikinetan egin dira bere osoan, Sanduzelain eta Sarrigurengo Errepidean.
- Halaber, 2 eraikinen proiektuak aurkeztu dira Santa Engrazia aldean.
- 5 hitzarmen onartu dira jabekideen erkidegoekin, birgaitze-jarduerak diruz laguntzeko (irisgarritasuna eta inguratzaile termikoa hobetzea).
- Jabekide-erkidegoekin egindako hitzarmen-aldaketa bat onetsi da aipatu eremu kalteberetan, dirulaguntzen ordainketa obren gauzapen erritmora doitzeko.

Aurreko ekintzen garapenak eraginda, eremu kalteberatako 6 erkidegori ordaindu zaizkie laguntzak 2024an; 274.476,68 €, guztira.

## ESTE LAGUNTZA DEIALDI BATZUK, HALA NOLA BIRGAITZETARAKO PIZGARRIA

2024an, Iruñeko Udalak 2 laguntza-deialdi argitaratu ditu Hiria Birgaitzeko Bulegoaren bidez, hiriko eraikinetan birgaitze-jarduketak laguntzen bidez sustatzeko.

- Deialdia, dirulaguntzak emateko, 2024an diruz laguntzeko esku-hartze orokorreko proiektuak idatzi eta kudeatzeko lansari teknikoak, banakako ebaluazioaren araubidean, 61/2013 Foru Dekretuaren VI. kapituluaren laugarren atalaren arabera..
  - Onespena: REV 04-JUL-24 (16/EV)
  - NAOn argitaratua: 2024ko 160. NAOn, abuztuaren 6koan, argitaratua

  Jabekide-erkidego bati 17.999,96 euro ordaindu zaizkio.
- Deialdia, dirulaguntzak emateko 2024. urtean Alde Zaharreko eraikinak zaharberritzeko aurreproiektuak egiteko lansarietarako, banakako ebaluazioaren araubidean.
  - Onespena: REV 30-JUN-24 (30/EV)
  - NAOn argitaratua: 2024ko 154. NAOn, uztailaren 30ean, argitaratua.

  Jabekide-erkidego bati 21.075,16 euro ordaindu zaizkio.

### BIRGAITZEA SUSTATZEKO BESTE UDAL-JARDUKETA BATZUK

Udalak babestutako birgaitze-jarduketen ondorioz, halaber, aldamioak laga dira Lehentasunez Birgaitu beharreko Eremuetako eta Auzo Kalteberetako fatxadetan eta estalkietan esku hartzeko. 2024an, 16 eraikinek jaso dute aldamioak lagatzeko laguntza, 172.874,38 euro guztira.

Hiria Birgaitzeko Bulegoak hirigintza-jarduketei lotutako alokairuak kudeatzen jarraitzen du, hiriko Alde Zaharrean berrostatatzeak eskainiz. 2024an, 4 etxebizitzaren alokairua mantendu du berrostatatzeetarako.

Era berean, eraikinak birgaitzeko bere laguntza-lerroei lotuta, Hiria Birgaitzeko Bulegoak maileguak izapidetzen ditu} diru-sarrera apaleko jendearentzat. Laguntzaren bidez, honako zenbateko hau duen mailegu bat ematen da: laguntzek estaltzen ez duten inbertsioaren zatia, 10 urtean itzultzekoa, interesik gabe. 2024an, 14 mailegu mantendu dira diru-sarrera apaleko jendearentzat.

## DIRULAGUNTZA-ESPEDIENTEEN IZAPIDETZEA 2024an, LABURPENA

### ETXEBIZITZAK ETA ERAIKINAK BIRGAITZEKO LAGUNTZAK. NAFARROAKO GOBERNUA

| HASIERAKO KALIFIKAZIOA | |
|---|---|
| Espediente izapidetuen kop. | 418 espediente |
| Ukitutako etxebizitza kop. | 4.506 etxebizitza |

| BEHIN BETIKO KALIFIKAZIOA | |
|---|---|
| Espediente izapidetuen kop. | 409 espediente |
| Ukitutako etxebizitza kop. | 3080 etxebizitza |
| Aurrekontu babesgarria, guztira | 38.615.064 € |
| Emandako Dirulaguntza, guztira | 12.212.580 € |
| Batez besteko dirulaguntza % | 31,61% |

### ERAIKINAK BIRGAITZAKO LAGUNTZAK LEHENTASUNEZ BIRGAITU BEHARREKO EREMUETAN ETA AUZO KALTEBERETAN IRUÑEKO UDALA

| HASIERAKO KALIFIKAZIOA | |
|---|---|
| Espediente izapidetuen kop. | 31 espediente |
| Ukitutako etxebizitza kop. | 337 etxebizitza |

| BEHIN BETIKO KALIFIKAZIOA | |
|---|---|
| Espediente izapidetuen kop. | 18 espediente |
| Ukitutako etxebizitza kop. | 166 etxebizitza |
| Aurrekontu babesgarria, guztira | 5.703.853 € |
| Emandako Dirulaguntza, guztira | 1.203.864 € |
| Batez besteko dirulaguntza % | 21,16% |

## 4.2.3 Pamplona Centro Histórico SA (PCH) - Iruña Biziberritzen

PCH-IBk abiaraziak ziren sustapenetako 5 burutu ditu, eta ia bere osoan eman dira eraiki diren 52 etxebizitzetako gehienak: Descalzos 23 - 25 - 27 (8 etxebizitza + 2 lokal Udalari lagata); Descalzos 47 – 53 (17 etxebizitza + 1 lokal – 20 garaje-leku + 8 trasteleku); Descalzos 24 (6 etxebizitza + 2 lokal Udalari lagatzeko prozesuan), Carmen 25 (14 etxebizitza eta Udalari lagatako lokal 1) eta Descalzos 33-35 (7 etxebizitza eta lokal 1 Udalari lagatzeko prozesuan).

Gainerako sustapenetan, 2024a trantsizio-ekitaldia izan da, eta jabetzak erosteko eta proiektuak kontratatzeko kudeaketa-lanak egin dira. Honako sustapen hauek dira: Descalzos 55-61, Eslava 26- Jarauta 58, Jarauta (7tik 21era), Descalzos 42 – 48 eta Jarauta 84 – 86.

PCH-IB, SA, halaber, Iruñeko Udalaren bitarteko instrumentala eta zerbitzu teknikoa da, 150/2003 Foru Dekretuan ezarritako ondorioetarako, kalte egin gabe bere estatutuen arabera egokituak dituen jarduerei.

Iruñeko Udalak, zenbaitetan, dela zuzenean, dela beraren mendean dauden beste entitate batzuen bidez, PCH-IB, SAren gizarte-xedeari berez dagozkion jarduerak egiteko enkargua ematen dio PCH-IB, SAri, hala nola:

- Aurretiazko azterlanak, birgaitzeko premia berezia duten eremuetako hiri-kalteberatasunari buruz.
- Udal-obren eta toki-administrazioaren mendeko beste erakunde batzuen jarraipena eta ikuskapena.
- Lan teknikoa eta toki-administrazioaren mendeko beste erakunde batzuei enkargatutako obren jarraipena kudeatzea
- Txosten teknikoak idaztea
- Plangintzako figuren idazketan esku hartzea

Era berean, Iruñeko Udalarekin aritzen da lankidetzan hiriko Alde Zaharreko zerbitzu eta ekipamenduen sarea osatzeko, bere jabetzako 2 eraikin Udalak berak ematen dituen zerbitzuetarako baliatuz. Aquavox San Agustin eta Ansoleaga 17ko apartamentu babestuen eraikina dira.

### 2024ko JARDUERA

2023ko abenduaren 16an egindako bileran, enpresaren Administrazio Kontseiluak 2024ko ekitaldirako aurrekontua eta Jarduera Plana onetsi zituen. Onetsitako dokumentua erabili da udal-enpresak ekitaldi horretan eginen dituen jardueren programazio gisa. Jarduerek lau lan-ildo nagusi dituzte ardatz, enpresaren kudeaketa ekonomiko eta finantzariaz eta administrazioaz gainera.

Honatz- ildo angusiak: Alde Zaharreko Etxebizitza Plana garatzea, Arrosadiko, Azpilagañako eta Santa Maria la Real auzoko Bulego Berdearen ezarpena, hurbiltasunezko bulego-eredu berri baten hasiera gisa Iruñeko auzoen hiri-berroneratzerako eta energia-trantsiziorako, eraikin propioak kudeatzeko eta mantentzeko, eta udal-enkarguak egiteko, sozietate instrumentala den aldetik.

### ALDE ZAHARREKO ETXEBIZITZA-PLANA. JARDUKETAK

2024an, Alde Zaharreko Etxebizitza Planean hasiak diren sustapenak garatzearekin lotutako jarduketa hauek garatu dira.

- **DESCALZOS 55-61eko ERAIKINA.** 2024an, udal-lizentzia sustapen honetarako kudeatzeko lanei eman zaie segida. Azkenean, 2025eko urtarrilaren 15ean jaso da.

- **JARAUTA 58ko ESLAVA 26ko ERAIKINA** Aurreko eraikinen azken jabetza pribatuak lortzeko lanak egin dira, eta Eslava 26ko azken etxebizitzaren jabetza erosi da 2024ko azaroan, eta akordioa aurreratu da Jarauta 58ko lokalarekin. Sustapenari berreldu zaio, aurrez emandako obra-lizentziaren eguneratzea eskatuz.

- **DESCALZOS 42-48, JARAUTA 84-86:** Ez da jabetzarik erosi eta trukatu. Sustapen-bide berriak aztertzen ari dira.

- **JARAUTA 7-21.** Jabeekiko negoziazioek jarraitu dute, harik eta ingurune guztiaren sustapen antolatua ahalbidetuko duten jabetza guztiak erosi arte. 2024ko amaieran, .PCH-IB, SA Jarauta 11 eta Jarauta 13 eraikin guztiaren jabea da. Jarauta 7ko eraikinaren jabea udala da eta, gainerako eraikinetan, 3 lokal eta 4 etxebizitza daude erosteko.

- **JARAUTA 84-86**. Jarauta 84ko jabetzen % 62 erostea lortu da eta Jarauta 86ko eraikinaren jabetza lortzeko tasazioa abiarazi da.

2024. urtearen amaieran, PCH-IBk 15 lokal eta 95 etxebizitzaren jabea zen PIG eraikinetan, eta bulego-lokal bat eta hiru etxebizitza PCH-IBk gauzatutako sustapen berrietan. Aurreko ekitaldietan.

Alde Zaharreko Babeserako eta Barne Berrikuntzarako Plan bereziaren ingurunean esparru publikoa berroneratzeko jarduketei dagokienez, 2024an Santa Ana plaza urbanizatzeko parte-hartze prozesua hasi da. Izan ere, 2024ko maiatz eta ekainean, parte-hartze prozesuaren lehen fasea egin da. Hori barne sarturik egon da Santa Ana plaza berrurbanizatzeko Proiektu Lehiaketaren oinarri administratibo eta teknikoetan (epaimahaiak esku harturik), Sozietatearen Administrazio Kontseiluak 2024ko urriaren 24an onetsia.

2024an, halaber, Iruñeko Alde Zaharreko jabekide-erkidegoei laguntzeko jarduera-ildo berri bat abiarazi da, PCH-IB SAk bere eraikinen bidez lagundurik eta aholkaturik, eskura dagoena errekerimenduak edo indarrean diren araudiak betetzeko berritu behar diren eraikinetarako.

## ARROSADIKO BULEGO BERDEA, JARDUKETAK

2022az geroztik, Iruñeko Udala, PCH-IB SAren bidez, hurbiltasunezko bulego bat abian jartzeko lanetan aritu da, hiria berroneratzeko, eraikinak birgaitzeko eta energia-trantsiziorako, Iruñeko Arrosadia auzoan.

2023ko urtarrilaren 13an, Iruñeko Udaleko osoko bilkurak behin betiko onetsi zuen Arrosadiko Hiri Jarduketarako Plan Berezia.

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak emandako irailaren 4ko 169E/2024 Foru Aginduaren bidez, Arrosadiko Hiri Jarduketarako Plan Berezian sartutako eremua jo da lehentasunez birgaitu beharreko eremutzat.

2024ko irailaren 18an, lokala berritu ondoren eta langileak kontratatu eta gero, Arrosadia, Azpilagaña eta Santa Maria la Real auzoko Bulego Berdea zabaldu zen, Oficina Verde Milagrosa- Arrosadia Bulego Berdea esaten zaiona.

Bulego berri horien bidez, Iruñeko Udalak hiria birgaitzeko eredu egonkorrago eta irisgarriagoaren alde egin nahi du, jasangarritasunaren eta energia-trantsizioaren alde ere lan eginen duten doako bulego berdeen sare baten bitartez.

Arrosadiko Bulego Berdearen lanak Arrosadiko Hiri Jarduketarako Plan Bereziaren ezarpena izanen du ardatz eta, era berean, hainbat ekintza eginen ditu, auzoan eraikinak birgaitzeko eta hiria berroneratzeko prozesuak bultzatze eta laguntze aldera; nagusiki, jarduketen energia-eraginkortasunari lotutakoak.

Bulegoan, funtsezko zerbitzu batzuk eskaintzen dira, auzoak eta etxebizitzak hobetzeko eredu jasangarri bat sustatzeko. Hurbiltasunezko eta administrazioa sinpletzeko gune bat da, gizabanakoen eta taldeen kontsultak eta izapideak leihatila bakarraren bidez artatzeko. Era berean, informazio eguneratua ematen dute ekitaldi bakoitzean eskura diren laguntza publikoen gainean.

Zabaldu zenetik eta 2024ko amaieraraino, Arrosadiko Bulego Berdean herritarren 60 kontsulta inguru artatu ziren eta 9 jabekide-erkidegori (124 etxebizitza) laguntzen ari zaie esku-hartze globaleko edo eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko proiektuak garatzeko.

## ENPRESAREN JABETZAKO ERAIKINEN KUDEAKETA ETA MANTENTZEA, UDAL EKIPAMENDUETARAKO EDO ALDE ZAHARREKO ETXEBIZITZA PLANERA BIDERATUAK

Enpresa arduratzen da, halaber, Alde Zaharreko ekipamendu-sarearen esku jarritako eraikinak kontserbatzeaz eta mantentzeaz, bere jabetzakoak baitira. (Aquavox San Agustín eta Ansoleaga kalearen 17ko apartamentu babestuak). Descalzos 47-53eko eraikineko sotoan dagoen aparkalekua ere kudeatzen du. Bertan, Alde Zaharrean bizi direnei alokairuan lagatako 20 aparkaleku daude, BOE prezioetan.

Era berean, Alde Zaharreko PIG esparruetan sartutako 96 etxebizitzen eta 15 lokalen mantentze-lanak kudeatzen dira, kasuan kasuko jabekide-erkidegoen kudeaketa eginez.

## UDAL ENKARGUAK

PCH-IB SAk, halaber, Iruñeko Udalaren bitarteko instrumentalaren eta zerbitzu teknikoaren izaera du. Berezko bitarteko instrumentala denez, Iruñeko Udalak 2 enkargu egin dizkio PCH-IB SAri 2024an.

### ENKARGUA, KONDESTABLEAREN JAUREGIKO ERAIKINA KONPONTZEKO ETA KONTSERBATZEKO OBREN LIZITAZIORAKO, ETA LAGUNTZA ETA JARRAIPEN TEKNIKOA EGITEKO

Hiri Kontserbazioko Alorreko Eraikinak Mantentzeko Zerbitzuak txosten bat egin du Kondestablearen Jauregiak dituen patologiei buruz. Jauregia 2009. urtetik jendearendako irekita dago.

Txostenean bigarren solairuko habeen akatsak, erroldaren arreta-guneko habeen deformazioak eta oso prezipitazio handiekin lotutako ur-filtrazioak jaso dira, batez ere erdiko sabai-leihoa husteko sarean.

Ohiko mantentze-lanak gainditzen dituzten eta berehalako esku-hartzea eskatzen duten patologia horien aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak erabakia hartu zuen 2024ko irailaren 24an, Pamplona Centro Histórico – Iruña Biziberritzen SA erakunde instrumentalari Kondestablearen Jauregia konpontzeko eta kontserbatzeko lanak ikuskatzeko lizitazioa, laguntza eta jarraipen teknikoa enkargatzeko, eta esku-hartzearen ondoriozko beste edozein gorabehera konpontzeko proposamena egin dezan.

Enpresaren Administrazio Kontseiluak 2024ko irailaren 26an onartu zuen enkargua. 2024an, talde teknikoa kontratatu da, bigarren solairuko aretoan esku hartzeko proiektua kontratatzeko, aurrez Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea Erakundeak on-ikusia emanik, teilatu-hodietan, estalkian eta argi-zuloetan diren iragazpenak konpontzeko.

### ENKARGUA, HIRIGINTZA-LIZENTZIETAKO ALORREAN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENEN AURRE-TXOSTENAK EGITEKO

Iruñeko Udalaren Hirigintza Izapideen Administrazio Eraginkortasuneko Planaren baitan,presako neurriak identifikatu dira lizentziak eta erantzukizunpeko adierazpenak tramitatzeko epeak murrizte aldera. Planaren elburua da administrazio-prozeduren eraginkortasuna hobetzea eta herritarrendako zerbitzu arinagoa eta eraginkorragoa bermatzea.

Planaren ekintza estrategikoetako bat erantzukizunpeko adierazpenen aurre-xostenak egitea da, Udaleko talde teknikoaren lan karga arintzeko. Lan hori egiteko, 2024ko urriaren 21eko Tokiko Gobernu Batzordean erabaki zen PCH-IB SAri enkargu bat egitea, enpresak bere helburu sozialaren baitan duen gaitasun operatiboa baliatuz.

Enpresaren Administrazio Kontseiluak 2024ko urriaren 24an onartu zuen enkargua.

## COMIRUÑA, S.A.ren MANDATUAK

Udalak berak egindako enkarguez gain, PCH-IB Sako teknikariek lanean jarraitu dute Comiruña Udal Sozietateak entitateari egindako gomendioetan.

Honatx enkarguak:

### II. Zabalguneko merkatua:

2017ko abenduaren 22an, PCH-IB SAko Administrazio Kontseiluak Comiruña SAren mandatua onartu zuen, hots, xedapen tekniko eta administratiboen agiria idaztea, Zabalguneko Merkatuko proiektua idazteko eta, hala bada, obraren zuzendaritza egiteko eta, halaber, zuzendaritza- eta obra-kontratuen gauzapena gainbegiratzeko behar den laguntza teknikoa emateko. Lan horiek (txostena eta laguntza teknikoa) 2024ko ekainean bukatu ziren, eta PCH-IB, SA enpresako langileek egin zituzten.

### Ermitagañako merkatua:

2023ko maiatzaren 10ean, PCH-IB, SAren Administrazio Kontseiluak COMIRUÑA, SAk PCH-IB, SAri egindako mandatua onetsi zuen, hots, txosten baloratu bat egitea Ermitagañako merkatuko merkataritza-galeriako lokaletan mantentze-lanak egiteko, eta obra eginen duen enpresa hautatze aldera eta obraren gauzapena gainbegiratze aldera behar den laguntza teknikoa emateko. Lan horiek 2024ko apirilean bukatu ziren, eta PCH-IB, SA enpresako langileek egin zituzten

### San Domingoko merkatua:

2023ko martxoaren 25ean, PCH-IB, SAren Administrazio Kontseiluak COMIRUÑA, SAk PCH-IB, SAri egindako mandatua onetsi zuen, hots, txosten baloratu bat egitea San Domingoko merkatuko postu batean egokitzapen-lanak egiteko, bertan harakintzako erakustaldi eta prestakuntza ikasgela paratzeko, eta halaber, obra eginen duen enpresa hautatze aldera eta obraren gauzapena gainbegiratze aldera behar den laguntza teknikoa emateko. Mandatua indarrean dago, eta txosten baloratua Udalak obra-lizentzia noiz emanen duen zain dago. Kalkulatzen da, ezustekorik ez bada, obrak 2025ean gauzatuko direla, urtea amaitu baino lehen bukatzeko.

# 4.3 Hirigintza gerentzia

## 4.3.1 Urbanizazioa

### → IRUÑEKO UDAL PLANEKO U.I.XIX ARS-4 BANAKETA-EREMUA URBANIZATZEKO 2. FASEAREN OBRA

**Obraren likidazio-aurrekontua:** 929.066,00 € (BEZa kanpo).
**Kontratista:** Excavaciones Fermín Osés
**Proiektugilea:** Sertecna
**Obra-zuzendaritza:** MKR Ingeniería

Arrosadiko ARS-4 banaketa-eremua ukitzen duen Udal Planaren Aldaketaren garapenean, esparru bereko plan partziala formulatu da, 2022ko martxoan behin betikoz onetsia, eta birpartzelazio-proiektua garatzen da, 2022ko maiatzean behin betikoz onetsia.

Esparrua urbanizatzeko lehen fasea 2015etik 2017ra egin zen, urbanizazioaren bigarren fasea garatzeko geldituta. Esparru horretako urbanizazioari segida ematen aldera, 2014an idatzitako urbanizazio-proiektuaren eguneratzea enkargatu zen.

Urbanizazioaren bigarren fasea hasi aurreko lanen artean, eraitsi egin ziren 2502. lurzati zaharreko eraikinak (abeltzaintza-ustiategia).

Behin eraikinak eraitsitakoan, egiteko zegoen urbanizazioa bururaino eraman zen, esparruaren antolamendu berrira doituta. Bigarren faseko lanetan, honako jarduketa hauek daude:

- ARS-4 banaketa-eremuko S2 sektoreko bideen urbanizazioa, amaitu gabe baitzeuden (1. eta 5. Ardatzak, funtsean).
- S2 sektoreari zerbitzuak emateko falta eta behar ziren azpiegitura guztiak egitea ARS$ banaketa-eremua), antolamendu berria garatzeko behar direnak barne.
- Esparruak Zaragozako etorbidearekin duen mugaren urbanizazioa egitea, egungo biribilgunetik dagoen espaloiari segida emanez, esparrua bukatzen den alderaino.

Bigarren faseko urbanizazio-lanak 2023an zehar egin eta Iruñeko Udalak 2024ko urtarrilaren 29ko JOBen erabakiz hartu zituen.

### → HORMA, LUBETA ETA OINEZKOENDAKO PASABIDEA EGITEKO OBRAK BUZTINTXURIKO M. MARTINEZ DE UBAGO KALEAN

**Obrak likidatzeko aurrekontua:** 120.061,97 € (BEZa kanpo).
**Kontratista:** Excavaciones Tolosa.
**Proiektugilea:** Pedro Ángel Villuela García
**Obra-zuzendaria:** Pedro Angel Villuela García.

Buztintxuriko eremua urbanizatzeko obrak hainbat fasetan egin dira. Obrak, izan ere, lursailak eskura izatera, aurretik zeuden lursailetara eta lurzatien urbanizazio-beharretara egokitu dira. Urbanizazioa ia 2011. urtean amaitu zen.

Urteak igaro ahala, agerian geratu da perimetroko ezpondetako bat urbanizaziora egokitu beharra, horrek kaltea eragiten baitio Martinez de Ubago kalean dagoen bidegorriari eta oinezkoendako bideari. Lan hori gauzatzea ez zen beharrezkotzat jo eremu horretako urbanizazio-fasea egitean, une hartan ezponda egonkorra baitzen, baina urteen poderioz, huraxe osatzen duen tuparriaren degradazioak urbanizazioaren erabilerari eragiten dion luizi bat eragin du, eta konpondu beharra dago.

Horretarako, proiektu tekniko bat idaztea kontratatu da, Pa-34ren perimetroko ezponda egokitzea proposatuta. Horretarako, lubeta bat eta hormigoi armatuzko horma bat eraikiko dira tarte batean ezpondaren oinarrian, eta oinezkoendako pasabide bat beste maila batean, inguruaren erabiltzaileendako irisgarritasuna eta bide-segurtasuna hobetzeko.

Funtsean, hona zer obra eginen diren: PA-34ren perimetroko ezponda egokitzea, ezpondaren oinarriko tarte batean lubeta bat eta hormigoi armatuzko horma bat eraikiz, eta oinezkoendako pasabide bat egitea beste maila batean, bidegorrira materialik ez erortzeko; halaber, erabiltzaile guztien irisgarritasuna eta bide-segurtasuna hobetzea, oinezkoendako pasabide berri bat eraikiz.

2023an, proiektuari zegokion atala idatzi, urbanizazio-obrak lizitatu eta Excavaciones Tolosa SL kontratistari esleitu zitzaizkion 121.274,72 euroan (BEZa kanpo). Obrak 2024ko urtarrilaren 26an hasi dira. Obrak 2024ko urtarrilaren 26an hasi, eta Iruñeko Udalak 2024ko ekainaren 17ko JOB erabakiz hartu zituen.

### → EFIDISTRICT TXANTREA ZENTRAL TERMIKOAREN KANPOALDEA URBANIZATZEKO PROIEKTUKO LANAK ITURRONDO INDUSTRIALDEAN. BURLATAKO ETA IRUÑEKO UDAL MUGARTEA (NAFARROA)

2019ko maiatzaren 24an, Iruñeko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak Kudeaketa Hitzarmena onetsi zuen behin betikoz, birpartzelazio efektua duena Iruña-Burlata plan bateratua garatzeko (Efidistrict proiektua). Aipatu hitzarmena onetsi zen, hirigintza-planeamenduan egin beharreko aldaketak egite aldera, beroa ekoizteko zentrala jartzeari begira, Efidistrict-Fwd izeneko europar proiektuko bero-sare berriaren baitan. Data hartan berean, JOBek halaber behin betiko onetsi zuen Iruña-Burlata plan bateratuko UE-1 urbanizatzeko proiektua (EFIDISTRICT-TXANTREA proiektua), 2019ko ekainaren 25eko NAOn argitaratua.

Efidistrict -Txantrea zentral termikoa Iturrondoko 234. lurzatian eraikitzeko lanen lizentzia gisa, urbanizazio-lanak zentral termikoaren lehen erabilerarako lizentzia lortu baino lehen bukatu behar ziren.

Emakida-hartzaileak (Districalor Renovable de Pamplona S.L.) IPS Ingeniería, Proyectos y Servicios Industriales S.L enpresari esleitu dizkio urbanizazio-lanen zuzendaritza eta eraikuntza, eta urbanizazioa eraikitzeko lanak, berriz, Obras Especiales Edificación e Infraestructuras, S.A.U (OBENASA) enpresari. Aipatu lanen kontrataren zenbatekoa 999.808 € da, (BEZa kanpo). Zuinketa akta eta obren hasierakoa 2021eko abenduaren 9an sinatu zen, eta harrera-akta, 2023ko irailaren 27an.

Iruñeko udal mugarteari dagozkion urbanizazio-lanak Iruñeko Udaleko JOBen 2024ko urtarrilaren 29ko erabaki bidez hartu ziren.

Urbanizazio-lanek plan bateratuan aurreikusiak zeuden baldintzak garatu dituzte:

- Egungo hiri-bilbean egokitzea, hartan era kaltegarrian eragin gabe, San Francisco Javier zentroko barne-bideak errespetatuta.

- Egungo erabilera bereizgarria mantentzea: zuzkidura publikoa.

- PA-30 ipar ingurabidetik dagoen errepiderako sarbidea hobetzea (biribilgune irekia), bai eta Burlatako Iturrondo industrialdearekin duen lotura ere, eta San Francisco Javier zentroaren barne-bideekiko lotura ere bai (PERIn aurreikusia). Horretarako, egungo dezelerazio-erreia zabaldu da eta ziurtatu da alde horretako trafiko-konexioa ongi egituratua egotea industrialdearen gainerakoarekin.

- Konexioa industrialdearen gainerakoarekin errepide berri baten bidez (Ezkabako bide zaharra) (Psikogeriatrikoko PERI planaren 2. lagapena). Sekzio horretako zabalera aldakorra da bide berrien beharrak Psikogeriatrikoko barrutiko barneko bideekin bateragarri egiteko eta Iturrondo industrialderako sarbide berriarekin.

- Ingurabidean egun oinezko eta txirrindularientzat dagoen pasealekua finkatzea, ipar aldean San Francisco Javier barrutiaren 5 metroko zabalera duen zerrenda bat lagaz. Horrela, oinezko-bidearen konexioa ahalbidetuko baita (saihesbidearen ondotik doana), eta gutxienez 8 metroko zabalera izanen du zuhaitzak landatzeko.

- Oinezko-bide bat sortuko da ingurabideko pasealekua Iturrondo industrialdearekin lotzeko, paraleloa San Francisco Javier zentroan sartzeko bide berriarekin, Iturrondo industrialdearekin lotzeko oinezko-bideari lotua.

### → ARROTXAPEAN DIREN UHOLDEAK KOLEKTOREEN BIDEZ ZUZENTZEKO LANAK

**Obra esleitzeko aurrekontua:** 166.122,78 € (BEZa kanpo). Next Generation funtsek finantzatua.
**Kontratista:** Construcciones Mariezcurrena.
**Proiektugilea eta obra-zuzendaria:** Benito Sada Lacalle.

Lanen xedea da uraren sarrera-kontrola egitea kolektore, soto eta kaleetan, Arga ibaiaren uhaldi handietan, Arrotxapea eta Sanduzelai auzoetan, azken deskargako atxikipen-balbulak jarriz oraindik halakorik ez duten kolektoreetan, Arrotxapea auzoko ekialdean eta hegoaldean, eta Sanduzelai auzoko hego-mendebaldean, erregistro- eta gainezkabide-putzu handi bat kokatu eta berreraikitzea Arrotxapeko faroaren aldean, kolektore-tarte berri bat beste gainezkabide bat ibaira ateratzeko, erregistro-putzu berriak Arrotxapean eta erregistro-tapa berriak Arrotxapean.

Horretarako, honako jarduketak egin dira, guztiak ere Iruñerriko Mankomunitateak on-ikusirik:

- Putzu ezkutatua: erregistroa eta berranditzea. Obraren bidez, egungo urbanizazio kenduko da, putzua estalia baitago hiru metro inguruko sakoneran; gero, putzua birjarri eta erregistro-tapa erantsiko zaio.

- Erregistratzen den putzuaren gainezkabidearen lotura, Iruñerriko Mankomunitateak emandako datuekin bat; izan ere, datu-basearen arabera, aipatu gainezkabidea ez dago lotua.

- Kolektorearen euri-uren irteera zuzentzea, 500mm-ko diametrokoa, erregistratzen den putzuaren iparraldean kokatua. Egungo gainezkabidea Arga ibaiaren urlasterraren kontrako norabidean dago kokatua, eta hori dela eta, ura aise sartzen da ibaitik kolektorerantz. Gainezkabidea aldatu da, ibaiaren urlasterraren norabidean kokatu baita.

- Itzulketaren aurkako balbulak jarri dira hasieran proiektuan aurreikusitako kolektoreetan, eta Sanduzelaikoak erantsita.

Proiektuari dagozkion jarduketa batzuk Ibai Plangintzako Ereduan aurreikusi ziren, Iruñeko Udalaren osoko bilkurak 2023ko maiatzaren 4an onetsia, eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak aldeko txostena eman zuen.

2025eko urtarrilaren 10ean, obraren zuinketa akta sinatu zen, hiru hilabeteetan gauzatzeko. Obra bukatua dago eta, aurreikuspenen arabera, zuinketa akta martxo bukaeran sinatuko da.

### → HITZARMENA, IRUÑEKO UDAL PLANEKO HEGO TXANTREAKO U.I.Vren S1 SEKTOREKO 4. ETXADIKO 4B ETA 4C LURZATIETAN GARAJE-SABAIAREN GAINEKO URBANIZAZIOA EGITEKO.

**Obra esleitzeko aurrekontua:** 118.480,84 € (BEZa kanpo).

Iruñeko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren erabaki bidez, 2024ko otsailaren 19an hirigintza-hitzarmena onetsi zen behin betiko lurzatien jabearen (ISGA INMUEBLES S.A.U.) eta Iruñeko Udalaren artean, Hego Txantreako U.I.Vren S1 sektoreko 4B eta 4C lurzatietan garaje-sabaiaren gaineko urbanizazioa egiteko.

Obren barnean dago 4B eta 4C lurzatietako garajeko sabaiari dagokion zatiaren urbanizazioa, bai eta hiru metroko zabalera duen tarte bat, aipatu lurzatien ondoan kokatua. Horrela, behin betikoz onetsitako urbanizazio-proiektuarekin bat urbanizatu da 4. eta 5. etxadien artean dagoen oinezko-kalea, barne daudela zoladura, argi- eta euri-sareak, bai eta egonleku txikiak ere.

Hego Txantreako 4B eta 4C lurzatien hirigintza-hitzarmenari dagozkion urbanizazio-lanak 2024ko apirilaren 16an bukatu ziren. Eta obra 2024ko uztailaren 1eko JOB erabakiaren bidez hartu ziren.

### → DONEJAKUE BIDEA PARKEAREN BIGARREN FASEKO OBRAK (IRUÑEKO UDAL PLANEKO U.I.Veko ARS-1 ETA ARS-3 BANAKETA-EREMUETAKO GSA-2 SISTEMA OROKOR ATXIKIA)

**Obrak likidatzeko aurrekontua:** 1.785.264,84 € (BEZa kanpo).
**Kontratista:** Excavaciones Fermín Osés.
**Idazketa eta obra-zuzendaria:** Alinea Ingeniería.

Obrek Txantreako U.I.V.eko GSA-2 sistema orokor atxikia urbanizatzeko bigarren fasea garatu dute, Donejakue Bidea Parkeko ARS-1 eta ARS-3 banaketa-eremuetan kokatua. Arga ibaia, Donejakue Bidea, Burlatako muga eta Txantreako hego-ertza ditu mugakide, eta 101.628 metro karratuko luze-zabalera. Proiektuak ertzetan diren paisaien arteko trantsizioak moldatu, lotu eta egituratu nahi ditu, parke berriaren bitartez.

Behin obraren lehen fasea bukatuta, hots, nagusiki Txantrea auzoa Magdalenako zubiarekin eta Arga ibaiarekin lotzeko lanak, bai eta Irubideko parke zaharra Josefinen baratze zaharrerantz zabaltzeko lanak ere, parkearen garapenaren segida proposatu da, bigarren fasea eginez. Zehazki, ipar pasealekua osorik gauzatzea (V/S-1 sektoreko urbanizazioaren ondoko eremua), eta era berean, aldameneko aisia eta jolas eremuak gauzatzea, kirol-eremuari eskainiko zaizkion espazioak izan ezik. Fase honetan, halaber, behar diren loturak eginen dira urbanizazioaren eta parkearen artean kokaturiko ertzeko pasealekuaren, eta Burlatako bidearen artean, eta halaber, hobekuntza- eta egokitzapen-lan jakin batzuk egitea, gauzatutako lehen faseko eremu batzuetan.

Obren zuinketa eta hasiera akta 2023ko ekainaren 28an sinatu zen, eta haien harrera-akta, 2024ko uztailaren 19an. 2024ko irailaren 2ko JOB erabaki bidez, Iruñeko Udalak obrak hartu zituen.

### → “SOTO ETXEA” ESPARRUKO BARATZE-EREMUEN PROIEKTUKO OBRAK, ARANTZADIKO MEANDROAREN PARKEAN

**Obra esleitzeko aurrekontua:** 281.264,42 € (BEZa kanpo).
**Kontratista:** Lacunza Hermanos.
**Idazketa eta obra-zuzendaria:** Valeriano Zabalza San Martín.

2024ko urriaren 16an, Hirigintza Gerentziako Kontseiluak “Soto etxea” esparruko baratzeen eremuari dagozkion obren lizitaziorako deialdia onetsi zuen, Arantzadiko meandroaren parkearen barnean, eta obren kontratua Lacunza Hermanos S.L. Enpresari esleitu zitzaizkion, 2024ko abenduaren 11n.

Obren helburu nagusia da Etxezuria (Soto etxea) izeneko finkan lehenago zegoen nekazaritza-jarduera berreskuratzea, Arantzadiko meandroaren parkean, bertako ureztapen-instalazioak modernizatzeko, baliabide gutxiago kontsumitze aldera eta prozesuak gehiago automatizatze aldera. Gainerako instalazioak ere aldatu dira, modernizatzeko. Berotegiak berriz ere eraiki dira, bandalizatuak baitzeuden, bai eta lanabesak gordetzeko etxola bat ere. Horrez gain, itxitura berria egin zaio finkari, bideo-zaintza sistema ere jarrita.

Ez da jardun finkako etxean, eta proiektu independente bat izapidetzen ari da aipatu etxea birgaitzeko.

Baratzeak prestatzeko lanak 2025eko urtarrilaren 27an hasi (egun hartan hasiera akta sinatu baitzen), eta lau hilabetean gauzatu beharko dira.

### → TXANTREA-ARANTZADI LOTZEKO ZALDAINERAKO PROIEKTUA IDAZTEA ETA VERGEL KALEA BERRURBANIZATZEKO PROIEKTUA, ETA HALA BADA, OBRA-ZUZENDARITZA

**Esleipen-aurrekontua:** 136.017,00 € (BEZa kanpo).
**Proiektugileak:** Raúl Escribá Peyró e Iriarte Mariñelarena Arquitectos.

Iruñeko Udal Planaren aldaketa garatzeko, Arantzadi IV. Unitate Integratuaren (IV/G.Z.-2 Sistema Orokorra) hegoaldeko espazio librea eta bide-eremua proiektatu eta berrurbanizatzea dago aurreikusia kontratu honen bidez. Helburua da hego Txantreako eta Arrotxapeko fronteen arteko komunikazioa bermatzea ibilgailuendako eta oinezkoendako, ukitzen diren finken mugak erregularizatuta. Lotura hori oinezkoendako eta bizikletendako zaldain baten bidez egitea proposatu da. Era berean, zaldain berri hori egiteaz gain, beharrezkoa da Vergel kalea berrurbanizatu beharra dago, Txantrea, Arantzadi eta Arrotxapea eremuen arteko lotura hobetuta.

2024ko maiatzaren 8an, proiektua idazteko lanak aipatu talde teknikoari esleitu zitzaizkion. 2024an zehar, taldeak urbanizazio-obren oinarrizko proiektua idatzi du, bai eta Udal Planaren egiturazko aldaketarako agiria ere, hori beharrezkoa baita sistema orokorren mugak txantrea-Arantzadi lotzeko zaldainaren trazatu berria egokitzeko.

Kontratuan honako agiri hauek idatzi dira:

1. Txantrea-Aranzadi lotzeko zaldainaren oinarrizko eta gauzapen proiektua idaztea, barnean harturik sartzeko eta irteerako espazioak, errotako ubidea abian jarrita, ibaian behera dagoen uhartearen tratamendua eta horrek dakartzan lanak (kontuan hartuko da inguruak ibaiaren uhaldien aurrean duen arazoa), eta Vergel kalearen oinarrizko eta gauzapen proiektua idaztea, zaldainaren bukaeratik Vergeleko zubiarekiko lotura arte.

2. Indarrean dagoen planeamendua aldatzea, zaldainaren, Vergel kalearen eta kale hori zaldainarekin lotzeko tartearen etorkizuneko diseinura egokitzeko.

Proiektuaren bidez, lotura arinagoa lortu nahi da Arrotxapea-Arantzadiren eta Txantrearen artean, bai oinez bai bizikletaz. Lotura hori zaldain baten bidez moldatuko da, El Molino zentroaren ondotik abiaturik eta Hego Txantrean gauzatu berri den biribilgune berriraino.

Proiektatu beharreko obrek azpiegitura egokia emanen diote Vergel kaleari, bai eta zaldainari ere, oinez eta bizikletaz ibiltzeko, Arrotxapeko egungo txirrindularitza-azpiegitura lotuta bai Txantreako urbanizazio berrikoarekin, bai Labrit aldapan egin berri den azpiegiturarekin, hiriaren erdigune historikoarekin lotura duena.

Horrek berekin dakar egungo Vergeleko zubiaren kontzeptua aldatzea. Zehazki lehen neurria da haren ipar erdi guztia eraldatzea oinezkoendako izateko, ibilgailu motordunendako egungo lau erreiak murriztuz, bi bakarrik izateko (bat, norabide bakoitzean). Oinez eta bizikletaz ibiltzeko ibilbide guztian Vergel kalearen iparralderako proposatu da, egungo eraikinak sustatuz eta errematatuz. Gainera, korapilo edo plaza guztiek zirkulazio guztiak egituratzen dituzte: nagusia Vergel zubiaren amaieran (han elkartzen baitira alde zaharretik datorren bidea, Arantzadiko instalazioetarako sarbideak eta beste); bigarren espazio bat zaldainaren lotura jasotzeko izanen da, bai eta El Molinora joateko sarbide berria egituratzeko eta, azkenik, Labrit kalearekiko bidegurutze berriaren inguruko oinezko-eremua birmoldatu da.

Zaldain berriaren diseinuan, soluzio tenkatuaren alde egin da, corten altzairuzko bi mastaren bidez, eta altzairu galvanizatuzko kableak; horri esker, kantoia murriztu fa ur maila gainditzeko.

### → ERREGINAREN ALDAPA KALEA BIRRURBANIZATZEKO PROIEKTUA IDAZTEA ETA, KASUA BADA, OBRA-ZUZENDARITZA

**Esleipen-aurrekontua:** 65.000 € (BEZa kanpo): 37.916,65 € proiektua idazteko eta 27.083,35 € obra-zuzendaritzarako.

Esleipen-aurrekontua: 65.000 € (BEZa kanpo): 37.916,65 € proiektua idazteko eta 27.083,35 € obra-zuzendaritzarako.
2024ko irailaren 2an, Kontseiluko presidentearen erabaki bidez, "Erreginaren aldapa kalea birrurbanizatzeko proiektua idaztea eta, kasua bada, obra-zuzendaritza" kontratua esleitu zitzaion Alinea Ingeniería y Territorio SL. enpresari.

2024an, taldeak oinarrizko proiektua idatzi, eta Hirigintza Gerentziako Kontseiluak 2025eko urtarrilean onetsi zuen.
Trinitarios parkea Taconera parkearekin eta Donibane auzoarekin oinez eta ibilgailuz lotzeko, Trinitarios parkeko igogailu berriaz gain, antzinako Erreginaren Aldapa kalea dago.

Kale horren erabileraren intentsitateari dagokionez (oinezkoena zein ibilgailuena), hiriaren iparraldea eta mendebaldea erdigunearekin lotzeko ardatz garrantzitsua da, eta Gipuzkoa etorbidetik hirira sartzeko bide nagusietako bat da.

Horrenbestez, Erreginaren aldapa kalea oinezkoen eta ibilgailuen egungo beharretara egokitze aldera, indarrean dagoen araudia betetze aldera eta hiri-tratamendu homogeneoa emate aldera, ibilbide guztia osorik berrurbanizatu beharra dago, eta hain zuzen, oinarrizko proiektu onetsiak berrurbanizazio hori proposatzen du.

Hona hemen oinarrizko proiektuaren antolamendu-proposamena:

Joan XXIII.a San Roke kaleraino: Tarte horretan bi norabideko bidegorri bat eginen da Antoniutti parkeko espaloiaren ondoan; horrenbestez, Gipuzkoako etorbiderantz doazen zirkulazio-erreiak murriztu eta bat bakarra eginen da, zabalera aldakorrekoa. Tartearen beste ertzean, oinezko-pasabideak aurreratzea proiektatzen da. San Roke kalearen irteeran, noranzko bakarrean antolatuko da Klubean sartzeko eta ateratzeko zirkulazioa.

San Roke kalea: Bidegurutzea berrantolatuko da, eskuinaldeko galtzadaren eta espaloiaren lerrokadura hobetzeko, egungo mozketak saihestuta eta egungo zuhaitzak txertatuta. Oinezkoen konektibitatea oinezko-pasabide goratuaren bitartez eginen da, kalearen hasieran kokatua.

San Roke kalea Larraina Multzoa kaleraino: Ibilgailuak ibiltzeko egungo galtzadaren gainean, bidegorri bat eta oinezkoendako espaloi bat proiektatu da, Larrainako kirol-instalazioak inguratzeko. Soluzio horri esker, zuhaitzak eta egungo areka berdea mantenduko dira. Antzinako espetxearen lurretan, bi erreiko errepide-tarte bat egitea proiektatu da noranzko bakoitzean, bai eta espaloia ere. Eremuko drainatzea moldatze aldera, euri-uretarako drainatze-sare txiki bat jarriko da, hiri-drainatze jasangarriko sistemarekin konbinatuta, euri-lorategiak eginez eta egungo areka berdea egokituz.

Larraina Multzoa kalea eta Larraina Kluberako sarbidea: Erreginaren aldapa kalearen eta Larraina etxebizitza multzoko zaku-hondo formako kalearen arteko bidegurutzea espaloien maila berean moldatuko da, bi ertzen arteko konektibitate ate iragazkortasuna hobetuta.

Larraina Multzoa kalea Iratxeko monasterioaren kaleraino: Tarte honetarako, bidegorri batek eta ibilgailuendako bi erreik osatzen dute sekzioa, ezkerraldean esku hartu gabe, inguru berrikitan berrurbanizatu baita. Eskuinaldean, Larraina Kluberako sarbidetik, Taconerako parkea zeharkatzen duen bide bat proiektatu da, eta oinezko-pasabidearekin lotzen da masustondoen bidearen ondoan.

Iratxeko monasterioaren kalea Gipuzkoako etorbideko biribilguneraino: Tarte honetan, bide-plataforma berrantolatuko da, errei bakarra izanen baita noranzko bakoitzean, igoeraren azken zatian izan ezik, bertan errei gehigarri bat moldatuko baita eskuinaldera biratzeko. Bidegorria igoerako noranzkoaren ezkerraldean garatuko da, egungo arekatik abiatuta, Taconerako ezponda hartu gabe; kontrako aldean, espaloi bat proiektatu da egungo ezpondaren mugan.

Gipuzkoako etorbideko biribilgunea: Proiektuaren helburua da egungo bidegorria lotzea biribilgunearen iparraldean dagoen bidegorriarekin. Horretarako, biribilguneko galtzadaren zabalera murriztea proposatu da, kanpoaldean bidegorri bat moldatuta.

Oro har, proiektatu den txirrindularitza-azpiegiturak bo noranzko bidegorri bat izanen du, 3 metro zabal, Juan XXIII.a plaza gurutzatzen duen bidegorri tartea lotzeko Gipuzkoako etorbidearen hegoaldean garatuko den tartearekin; eta gainera, Taconera kaleko eta Kosterapeko pasealekuko bidegorriarekin lotzeko. Proposatu den trazatua egungo galtzadaren maila berean garatzen da, nagusiki, galtzadarekin paraleloa garatuko baita trazatuaren zati handi batean.

Azpiegiturei dagokienez, oinarrizko proiektuak behar diren azpiegiturak proposatu ditu Erreginaren aldapako errepidearen sekzio berrirako eta, gainera, instalazioen harguneak aurreikusi ditu U.I XII/Z-2ko etorkizuneko ekipamendu-eraikinetarako.

### → TXANTREAKO U.I.Vko ARS1en BARNEALDEKO PLAZEI DAGOZKIEN ATALAK IDAZTEA ETA, KASUA BADA, OBRA-ZUZENDARITZA.

**Idazketa eta obra-zuzendaritza esleitzeko aurrekontua:** 38.750,00 € (BEZa kanpo).

Txantreako U.I.Vko ARS1en barnealdeko plazei dagozkien atalak idazteko kontratua MKR Ingeniería y Arquitectura S.L. Enpresari esleitu zitzaion, Hirigintza Gerentziako Kontseiluak 2024ko maiatzaren 29an hartutako erabaki bidez.

Magdalenako (Hego Txantrea) ARS-1 banaketa-eremuaren urbanizazioa osatze aldera, urbanizazioaren hirugarren faseari dagozkion atalak idazteko beharra planteatzen da, eraikuntza-etxadien barnealdeak amaitzeko, bai eta aurreko faseekin lotzeko gelditzen diren lan txikiak ere. Halaber, hiru esparru libre publiko handi garatzeari emanen zaio jarraipena:

- Plaza nagusi publiko bat, hegoaldera irekia, eta parke bat Torralba, Cascante eta Corella kaleen segidan, M-2 etxadiaren ondoan.

- Toki-izaera handiagoko bi berdegune, biak ere egonguneak, M-3 eta M-4 etxadien ondoan.

2023an, hirugarren urbanizazio-faseko atalak idazteko zerbitzu-kontratuaren lizitaziorako deialdia onartu zen (jada deskribatua), bai eta obren zuzendaritza fakultatiboa ere. Proiektua 2024an zehar garatu da, eta atala Kontseiluak 2024ko abenduaren 18an hartutako erabaki bidez onetsi zen.

### → PROIEKTU-LEHIAKETARAKO DEIALDIA, EPAIMAHAIAK ESKU HARTUTA, SANDUZELAI AUZOA ERALDATZEKO

Hirigintza Gerentziako Kontseiluak 2024ko apirilaren 12an hartutako erabaki bidez, proiektu-lehiaketarako deialdia onetsi da, epaimahaiak esku hartuta, Sanduzelai auzoa eraldatzeko. Deialdia 2024ko apirilaren 29an argitaratu zen Nafarroako Kontratazio Atarian eta, 2024ko apirilaren 26an, Europako Kontratazio Atarian.

2024ko urriaren 30ean, Hirigintza gerentziako Kontseiluak, ikusirik bai proiektu-lehiaketako oinarriak, bai lehiaketako epaimahaikideek egindako saioaren akta, 2024ko urriaren 3koa, zeinean proposamen loteslea egiten baita hiru sariak emateko, 25.000 euroko sari bana ematea erabaki zen honako goiburu hauen pean aukeratutako hiru proposamenei:

| Verdeando | Tres en raya | Más barrio y menos barreras |
|---|---|---|

Proiektu-lehiaketa garatzearekin batera, Udalak laguntza teknikoko lanak kontratatzeko beharra ikusi zuen, herritarren partaidetza-prozesua gauzatzeko, lehiaketari dagokionez. Xedea zen herritarren artean sentsibilizazioa, zabalkundea eta partaidetza bultzatzeko prozesu bat gauzatzea Sanduzelai auzoan, sentsibilizazio-jarduketak eginez eta, behin epaimahaiak proposamenak aukeratutakoan, zabalkunderako eta ekarpenak zein iradokizunak biltzeko jarduketak egitea.

Horretarako, 2024ko martxoaren 22an, aurrekontuak eskatu zizkion hainbat talderi, eta esleipen-hartzailea Colectivo de Arquitectes EL TINGLADO izan zen. 2024ko irailaren 11n, alkatetzaren ebazpen bidez, “Sanduzelai auzoa eraldatzeko proiektu-lehiaketa, epaimahaiak esku harturik” onetsi zen , Iruñeko Udalaren Herritarren Partaidetzarako erregelamenduaren 34. artikuluarekin bat.

2024ko urriaren 15ean, on-ikusia eman eta honako agiri hau ordaintzea proposatu zen: “Herritarren partaidetzari buruzko txostena diagnostiko eta sentsibilizaziorako 1. Fasean egindako jarduketen gainean”. 2025eko urtarrilaren 16an, on-ikusia eman eta honako hauei dagozkien lanak ordaintzea proposatu zen: “2. FASEA. EKARPEN ETA IRADOKIZUN BILKETA” eta “3. FASEA. EBALUAZIOA”ri dagokion “Partaidetza txostena”. Horrela, herritarren partaidetza-prozesua gauzatzeko laguntza teknikoa jo zen amaitutzat, Sanduzelai auzoa eraldatzeko proiektu-lehiaketari dagokionez.

Honatx ideia-lehiaketaren prozeduraren helburua:

- **Gehienez hiru proposamen aukeratzea,** haietan oinarriturik, plegu bat egin ahal izateko, etorkizuneko kontratazio-prozedura posible baterako. Horren xedea izanen da proiektu tekniko bat egitea Sanduzelai esparrua eraldatu eta berrurbanizatzeko, bai eta irisgarritasuna nahiz oinezkoen, ibilgailuen eta txirrindularien mugikortasuna hobetzeko ere.

- **Aukeratzen diren proposamen-aurkezleak aurre-aukeratzea** etorkizuneko prozedura negoziatu bateko parte-hartzaile posible gisa, bazterrean utzi gabe proiektuaren prestaketa prozedura ireki bidez esleitzeko aukera, horrela egitea gomendatzen duen inguruabarrik izanez gero.

Bete eginda lehiaketaren lehen helburua. Bigarren helburua, berriz, hots, proiektu tekniko bat prestatzea Sanduzelaiko esparrua eraldatu eta berrurbanizatzeko, prozedura negoziatu bat lizitaziora ateratzea dago aurreikusia 2025ean, lehiaketan aukeratzen diren hiru proposamenekin, talde tekniko batek aipatu proiektua presta dezan.

### → "SOTO ETXEA" ESPARRUKO BARATZEEN EREMUKO PROIEKTU IDAZTEA, ARANTZADIKO MEANDROAREN PARKEAN

**Proiektua idazteko eta obra-zuzendaritzako esleipen-aurrekontua:** 14.500 € (BEZa kanpo).
**Idazketa eta obra-zuzendaria:** Valeriano Zabalza San Martín

2024ko urriaren 16an, dagokion proiektua onetsi zuen Hirigintza gerentziako Kontseiluak.

Proiektuaren helburu nagusia da lehenago zegoen nekazaritza-jarduera berreskuratzea, bertako ureztapen-instalazioak modernizatzeko, baliabide gutxiago kontsumitze aldera eta prozesuak gehiago automatizatze aldera. Gainerako instalazioak ere aldatu dira, modernizatzeko. Berotegiak berriz ere eraiki dira, bandalizatuak baitzeuden, bai eta lanabesak gordetzeko etxola bat ere. Horrez gain, itxitura berria egin zaio finkari, bideo-zaintza sistema ere jarrita.

Finkako etxea ez dago egungo proietkuan, eta proiektu independente bat izapidetzen ari da aipatu etxea birgaitzeko.

### → MAGDALENAKO 3.1. FASEARI DAGOKION ATALA

**Atala idazteko aurrekontua:** 8.470 € (BEZa barne)
**Proiektugileak:** Alinea Ingeniería.

2024ko abenduaren 11n, Hirigintza Gerentziako Kontseiluak Magdalena Parkeko 3.1 faseari dagokion atala onetsi zuen.

Magdalenako parkearen 1. eta 2. faseei segida emate aldera, honatx 3.1 faseko proiektuaren esparruaren mugak: iparraldean, V./S-1 Sektoreak zedarritutako eremuaren urbanizazio-proiektuari dagozkion urbanizazio-obrak (ARS-1 banaketa-eremuan txertatua eta 2. Faseko jarduketak, berrikitan bukatuak); mendebaldean, etorkizuneko 3.2 faseari dagozkion lurrak; ekialdean, Burlatako udal barrutiko nekazaritza-finkak (Iturriapurria erreka aldean), eta hegoaldean, Burlatako bidea (Magdalena).

Honatx parkeko fase honetako jarduketa nabarmenak: berdegune handiak egitea, hezegunea eta Iturriapurria erreka lehengoratzea, xurgatze-basoa eta barne bideak, parkea Burlatako bidearekin lotzeko bideak eta sarbideak, piknik eremu bat sortzea, kirol-guneak egiteaz gain, hala nola kirol anitzeko pista eta belaunaldiarteko jolas-gune bat sortzea.

## 4.3.2 Planeamendua

**EKIMEN PUBLIKOA**

### IRUÑEKO UDAL PLANAREN ETA DONAPEA PLAN PARTZIALAREN ALDAKETA EGITURATZAILEAREN IDAZKETA

2024an jarraipena eman zaio 2022an Iruñeko udal plana aldatzeko hasi zen prozesuari, behar diren hirigintza-zehaztapenak ezartze aldera, Iruñeko eta Galar Zendeako udal barrutietako muga aldatuz txertatutako lurzoruan etxebizitzen antolamendua egiteko, Donapea eta Gariton esparruetan..

2024an, honakoak amaitu dira:

- **1. Fasea,** hau da, agiri hau idazteko prozesua abiarazi da: informazioa, analisia eta diagnosia, eta aurrerapena antolamendu-alternatiba posibleekin. Era berean, herritarren partaidetzarako prozesua planifikatu eta idatzi da.

- **2. Fasea,** hau da, Donapea udal planaren aldaketa egituratzailerako herritar partaidetza eta ingurumen-lehiaketa.

Partaidetza-prozesuari dagokionez, 3 partaidetza-saio egin dira:

- **Lehen saioa**, otsailaren 20an egina, 103 pertsonak parte harturik, herritarrei esparruaren hirigintza eta administrazio arloko aurrekariak azaltzeko, lurralde-ukipenak jakinarazteko eta alternatiben berri emateko hainbat aspektutan, hala nola lurzoruaren erabilerak (bizitzeko eta zerbitzuak), ekipamenduen banaketa eta berdeguneak. Hitzordu hartan bereziki azpimarratu zen auzo berriaren eta hiriaren arteko lotura, bai eta auzoaren ingurunearekin ere, hainbat aukeraren bidez: ibilgailu motordunendako errepideak, bidegorriak, espaloiak eta oinezko-zaldainak.

Udalk, gero, hilabeteko epea ireki zuen Decide Pamplona webaren bidez, proposatutako alternatibez ekarpenak egiteko, galdetegi baten bidez.

- **Itzulketa saio** bat egin zen, maiatzaren 15ean, informazio-saioan eta ekarpenen aldian herritarrengandik bildutako iradokizunei buruzko txostena aurkezteko, eta haien gaineko balorazioa ere azaldu zen.

- **Bigarren itzulketa saioa**, abenduaren 16an egina, herritarrei Donapea esparrua antolatzeko eskema azaltzeko, kontuan harturik Gerentziak egindako lurralde-azterketa, bai eta partaidetza-prozesuaren ondorioak ere.

2024an ere hirugarren fasea hasi da, hau da, zehaztapen egituratzaileen aldaketa jakin baterako agiri tramitagarri bat prestatzea.

Ingurumeneko tramiteari dagokionez, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak kontsulta-aldia hasi zuen administrazio publiko ukituei eta interesdunei, eta bi erantzun jaso zituen; eta irailaren 18an, Ingurumen Azterlan Estrategikoaren Irismena agiria plazaratu zuen.

### ALDAKETA XEHATUA, VS-1 SEKTOREAREN PLAN PARTZIALEAN ETA V/GSA2 SISTEMA OROKOR ATXIKIAN, IRUÑEKO UDAL PLANEKO ARS-1 BANAKETA-EREMUAN HIRIGINTZA-ARAUDIAREN 5. ARTIKULUAREN ALDAKETA: BEHE-SOLAIRUETAKO ERABILERA XEHATUAK (ZEHAZTUAK).

Aldaketa prestatu eta izapidetzen da, Hego Txantreako Plan Partzialaren memoriaren 3. Idatz-zatian ezarritakoa arau bihurtzeko, hots, behe-solairuen erabilera xehatuei dagokiena, eremu jakin batzuetan merkataritza- eta/edo zerbitzu-erabilera babestearren, eremu horietako behe-solairuetan etxebizitzak eragozte aldera.

Agiria hasiera batez onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko irailaren 23an eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean (206.) argitaratu, 2024ko urriaren 10ean; aldi berean, alegazio-agiria lantzen jarraitu da, bai eta behin betiko onespena emateko agiria ere.

### UNEKO ALDAKETA ALDE ZAHARRAREN BABES ETA BARNE BERRIKUNTZARAKO PLAN BEREZIAN, ETA BEREZIKI, ERABILERA-ARAU OROKORRAK" II. KAPITULUAREN 87. ETA 88. ARTIKULUETAN EZARRITAKO ERABILEREN ARAUBIDEA.

Iruñeko Udalak behin betiko onespena eman zion 2024ko abenduaren 12ko osoko bilkuran, eta xedea da apartamentu turistiko berrien ezarpena debekatzea eta egoitza-erabileraren degradazioa prebenitzea Alde Zaharrean, ikusirik apartamentu turistikoek eta haien gaineko gero eta eskari handiagoak sortzen duten mehatxua.

### I/S1, IV/S1, XVI/S1, XIX/S1 SEKTOREAREN PLAN PARTZIALAREN L23 OINARRIZKO UNITATEA, ETA ARS3 SISTEMA OROKORRAK (U.I.-XVI/S.O.-1)

Partaidetza-prozesurako deia egin da Hiri Jarduketarako Plan Berezi bat idatzi eta izapidetu baino lehen, Lezkairuko Maravillas Lamberto plazak osatutako hiri-espazioa antolatzeko asmoz. Honatx helburua:

- Plazan saltokiak eta ostalaritza-establezimenduak ezar daitezela sustatzea. Horretarako, honakoa proposatu da:

- Debekatzea hirugarren sektoreko erabilerak etxebizitza bihurtzea behe-solairuan.
- Behe-solairuko merkataritza-espazioek arkupeak izan ditzatela, Lezkairu auzoko ibilbidean dagoen bilbearekin bat.
- Tipologia eta azalera askotarikoak eskaintzea hirugarren erabileretarako espazioetan.

• Kokalekurik onena bilatzea zentro zibikorako plan, multzoan kalitatezko espazio publikoa eraginda, zabu-eremua, berdeguneak eta terrazetarako guneak txertatuta.

• Etxebizitzen baldintzak hobetzea, kalitatezko etxebizitzak, hormarte bakarreko blokeetan orientazio bikoitza eta terraza zabalak ahalbidetuta.

• Multzoaren irudi bateratua ziurtatzea, egoitza-blokeetako fatxadak aztertuz.

Bi partaidetza-saio egin ziren. Lehena, azaroaren 27an egina, eta itzulketa saioa, abenduaren 19an egina.

### BIGARREN ZABALGUNEKO HIRI JARDUKETARAKO PLAN BEREZIA

HJPBk bere gain hartu ditu I. eta II. Zabalguneko BBPB planaren helburu orokorrak, Europako lurralde-politiketan jasotako, 2019ko Espainiako Hiri Agendaren (2019AUE) helburu estrategikoetan jasotako eta Garapen Jasangarriko 2030 Agendaren helmugetan txertatutako helburuak osatuta eta haietara egokituta.

2022ko uztailaren 4an hasierako onespena emanik, agiria 2024an berrikusi eta honela birbideratu da:

• Araudi orokorra aldatu da, kontserbazio eta berrikuntza araubideen definizio zehatza sartuz, eta artikuluen hurrenkera era koherenteagoan eta ulergarriagoan berregituratuz, segurtasun juridiko handiagorako.

• Printzipio berri bat erantsi zaio II. Zabalguneko HJPBri, hots, besteak beste altueretan, eraikigarritasunean edo erabileran dagoen aldaketa oro egun dagoenetik neurtu beharko da, eta ez, indarrean dagoen Babes eta Barne Berrikuntzarako Plan Bereziak aurreikusitakotik.

• Aukera-eremu gisa identifikatutako jarduketa batzuk aldatu dira, bai eta haien garapena ere.

• Aldatu da ekipamenduen eta etxebizitza babestuen orekaren justifikazioa ekipamendu-jarduketetan era globalean HJPBren esparruan; horrenbestez, jarduketa bakoitzak berez ebatzi behar du, bai eta egoki denean ere, bai aprobetxamenduaren igoeraren % 10en lagapena, tokiko ekipamendu-lagapenak eta etxebizitza babesturako erreserba.

• Hasieran aurreikusitako gauzapen.unitateei dagokienez, proposatu da, batetik, Seminarioko lurzatiaren antolamendua aldatzea, aurreikusitako merkataritza-erabilera nagusia aldatuz, egoitza kolektiborako erabilera izan dezan. Era berean, aipatu behar da ezabatu egin dela hasieran Emakumeen Etxean aurreikusia zegoen antolamendu alternatiboa, telefonikaren eraikinarekin batera.

• Mugikortasunari dagokionez, hiri-zelulen edo super-etxadien mugaketa berrikusi eta oinarrizko errepideak identifikatu dira, Zabalgunea ez dadin izan pasaera-eremua ibilgailu pribatuarentzat. Era berean, nabarmendu behar da proposatutako lurpeko aparkaleku batzuk ezabatu direla (Gurutzeko plaza, Karlos III.eko azken tartea, autobus-geltoki zaharra).

### HIRI JARDUKETARAKO PLAN BEREZIA IRUÑEKO UDAL PLANEKO U.I. XIIIKO Z-2 EREMUAN (DONIBANE)

Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko abenduaren 17an hasiera batez onetsirik, espetxe zaharraren lurzatiaren antolamendua ezartzea du helburu, Justizia Jauregiaren berranditzea eta udal-ekipamendu bat zehazteko.

### ZEHAZTAPEN EGITURATZAILEEN ALDAKETA ARANTZADIKO UDAL PLANEAN (UI-IV/GZ-2)

2024an, hirigintza-agiria prestatzen hasi zen, sistema orokorra Udal Planean aurreikusitako zaldainaren eta urbanizazioaren trazatura egokitzeko, ibilgailuen eta oinezkoen komunikazioa bermatze aldera Txantreako eta Arrotxapeko hego aurrealdeen artean; hau da, Gerentziako Kontseiluak 2022ko azaroaren 8an erabakitako prozedura irekirako deialdiaren talde adjudikaziodunaren proposamenera egokitze aldera.

### IRUÑEKO UDAL PLANEKO ZEHAZTAPEN XEHETU BATZUEN UNEKO ALDAKETA KATALOGOA

2024An, “Iruña, Media Luna parkearen inguruneko baranda-modeloaren ezaugarriak eta apaingarriak” hirigintza-agiria hasi zen prestatzen. Baranda hori udalerriko hirigintzaren ezaugarria da eta balio du bai Arga ibaiaren ibilgua babesteko, bai hiriko beste leku batzuetan dauden desnibelak babesteko.

## EKIMEN PRIBATUA

**2024an tramitatzen amaitutako espedienteen zerrenda:**

- Xehetasun-azterlana Arrosadia-Lezkairuko plan partzialaren A.11 lurzatian.
- Plan Berezia, Agur Maria zeharkaleko 2, eta 4n irisgarritasuna hobetzeko.

- Xehetasun-azterlana, ARS-3 banaketa-eremuko plan partzialaren A1 unitatean (Arrosadia-Lezkairu).
- Xehetasun-azterlana, igogailua jartzeko eta oztopo arkitektonikoak kentzeko Concepción Benítez, 15n
- Xehetasun-azterlana Sanduzelaiko U.O.D.ko plan bereziaren 6.1., 6.2. eta 7. lurzatietan.
- Xehetasun-azterlana, S-1 sektoreko 2. lurzatian eta U.I. Vko GSA-2 sistema orokorrean (Txantrea).

**2024an izapidetzen ari diren espedienteen zerrenda:**

- Hasierako onespena, xehetasun-azterlana Landabengo 7/Z-1 UI X industrialdeko 2564 lurzatian, Mutua Navarra ondoko eraikina handitzeko.
- Hasierako onespena, xehetasun-azterlana, Arrosadia-Lezkairuko Ars-3 banaketa-eremuaren plan partzialeko A3 unitatean.
- Udal Planaren aldaketa egituratzailea Iruñeko A-1, A-2, A-4 eta ZNO-1 eremuetan. Amaya KH
- Alde Zaharreko katalogoa eta BBBPB planaren aldaketa puntuala Zapateria 35eko eraikinerako.

## 4.3.3 Beste espediente batzuk

### IRUÑEKO UDAL PLANEKO ARS-4 BANAKETA-EREMUAREN BIRPARTZELAZIO PROIEKTUKO M2-A.2 LURZATIAREN UDAL JABETZAKO % 23,50 ZUZENEAN BESTERENTZEA.

Iruñeko ARS-4 banaketa-eremuko S-2 sektoreko M2-A2 eta M3 lurzatien udal ehunekoen enkante espedientea izapidetu ondoren, JOBek M3 lurzatia besterendu zuen 2023/12/18an, M2-A2 lurzatia eman gabe utzita.

Parte batek eskaturik, JOBek 24/2/26an erabaki zuen (3/UV) udal ehunekoa besterentzea zuzenean M2-A2 lurzatian (% 23,50) lurzatiaren jabekideei enkantearen oinarrizko prezioan (372.508,68 euro gehi BEZa), salerosketa eskritura publikoan emanik, 2024ko martxoaren 19an.

### ARZ-6 BANAKETA-EREMUAREN BIRPARTZELAZIO PROIEKTUAREN BEHIN BETIKO LIKIDAZIO-KONTUA (ZN-10 U.I XIX/GZA-3, GZA-4 ETA GZA-5)

2023ko martxoaren 13an Tokiko Gobernu Batzarrak hasiera batez onetsi zuen Iruñeko Udal Planeko UI XIXko (Arrosadia) ARZ-6 ZN-10aren eta UI VII (Trinitarios) GZ-3 eta GZ-4ko kanpo lurzoruen Birpartzelazioaren Behin Betiko Likidazio Kontua. Horretarako, dokumentu bat idatzi zen Behin Betiko Likidazio Txostena eta Kontua biltzeko, eta interesdun guztiei jakinarazi zitzaien. Erabaki hori 2023ko martxoaren 30eko 64. NAOn argitaratu zen. Ez zen alegaziorik aurkeztu erabakiaren aurka.

2024ko martxoaren 11n, Tokiko Gobernu Batzordeak behin betiko onetsi zuen Iruñeko Udal Planeko ARZ-6 banaketa-eremuaren (SG VII/GZA-3, SG VII/GZA-4 eta XIX/ZN-10 eremua) Birpartzelazio Proiektuaren Behin Betiko Likidazio Kontua. Guztira, 6.179.245,92 euro dira (BEZik gabe).

Hirigintza Gerentziako Kontseiluak 2024ko maiatzaren 29an erabakirik, onetsi da diru-sarrerak itzultzea jabeei, 2024ko martxoaren 11n onetsitako behin betikoz likidazio kontuarekin bat.

### IRUÑEKO UDAL PLANEKO BUZTINTXURI-EUNTZETXIKI-SANTA ENGRAZIA SEKTOREKO PA ETA PB UNITATEEN BEHIN BETIKO LIKIDAZIO KONTUA.

Administrazioarekiko Auzien Iruñeko 1. Epaitegian egindako jarduketen ondorioz (prozedura arrunteko 10/2023 autoetan), 78. epaia eman zen 2023/06/5ean, eta adierazi zuen Iruñeko Udalak Buztintxuri sektoreko PA eta PB poligonoen behin betiko likidazio kontua egiteko tramiteak hasi behar zituela, bai eta horiek tramitatu ere, behin betiko onetsi arte.

2024ko martxoaren 25eko Tokiko Gobernu Batzarrak (5/UV) hasiera batez onetsi zuen Iruñeko Udal Planeko Buztintxuri-Euntzetxiki-Santa Engrazia sektoreko PA eta PB unitateen behin betiko likidazio kontuaren agiria. Jendaurrean jartzeko epea igarotakoan, organo berak Behin Betiko Likidazio Kontua onetsi zuen behin betiko 2024ko ekainaren 24an: 60.442.325,83 € PA unitatean eta 7.687.353,84 € PB unitatean.

Hirigintza Gerentziako Kontseiluak 2024ko irailaren 18an onetsi zuen diru-sarrerak itzultzea jabeei, bai eta zor zitzaiena ordaintzea ere.

### IKERKETA ZIENTIFIKOETARAKO GOI KONTSEILUAREN (CSIC) ETA IRUÑEKO UDALAREN ARTEKO JARDUERA PROTOKOLO OROKORRAREN GEHIGARRIA, LEZKAIRUKO LC2-4 LURZATIA LAGATZEKO ETA ARANTZADIKO SOTO ETXEAN KONTZESIO DEMANIALERAKO BALDINTZAK EZARTZE ALDERA.

2023ko azaroaren 30ean, Iruñeko Udalak eta CSICek Jarduketetarako Protokolo Orokorra sinatu zuten, parteek egin beharreko jarduketak ezartze aldera, CSICek behar diren lurzatiak izan ditzan egoitza berria ezartzeko Iruñean, bai eta saiakuntza-zentro bat ere, nekazaritzarekin, ekologiarekin eta ingurumenarekin lotutako ikerketa sustatze aldera.

Protokoloan baldintzak daude ezarrita Lezkairuko LC2-4 lurzatia lagatzeko, CSICek egoitza berria eraiki dezan Iruñean eta, era berean, Arantzadiko Soto Etxean kontzesio demaniala egiteko, bere ikerketa zientifiko eta teknologikoa egin dezan. Ikusirik presazkoa zela Lezkairuko lurzatia lagatzea egoitza berria eraikitzeko, beharrezkotzat jo da Protokoloa aldatzea, bi espedienteak aldi berean izapidetu behar ez izateko.

2024Ko martxoaren 14an, alkatetzaren ebazpenez, onetsi egin da jarduketetarako protokolo orokorraren gehigarria.

### LEZKAIRUKO LC2-4 LURZATIAREN PARTZELAZIOA ETA ADMINISTRAZIO-EMAKIDA, AGROBIOTEKNOLOGIA INSTITUTURAKO (CSIC).

CSICek LC2-1 lurzatiaren zati bat lagatzeko eskatu zuen 2024ko apirilaren 29an, eta Tokiko Gobernu Batzordeak LC2-1 lurzatiaren partzelazioa onartu zuen. Ondorioz, LC2-4 eta LC2-1 lurzatiak atera ziren; eta, ondoren, Lezkairuko LC2-4 lurzatiaren erabileraren administrazio-emakida (zuzkidura publikorako lurzatia), Ikerketa Zientifikoetarako Goi Kontseiluari (aurrerantzean, CSIC), Agrobioteknologia Institutuaren egoitza bertan eraiki dezan. Emakidaren epea 75 urte da. Emakida horrekin bat, CSIC behartuta dago Agrobioteknologia Institutu baten egoitza hartuko duen eraikin bat eraikitzera, erabiltzera eta egoera onean mantentzera. Lursaila eta eraikina ezin izanen dira beste ezertarako erabili, Iruñeko Udalaren berariazko baimenik gabe.

### ARROSADIA LEZKAIRUKO ARS-3ren LC2-1 UDAL LURZATIAREN ZATI BAT ERABILTZEKO BAIMENA (KATASTROKO 363. POL.5), CSICen JARDUERAREKIN LOTUTAKO XEDEETARAKO LC2-4 LURZATIAN.

2024ko irailean, CSICek LC2-1 udal lurzatiaren zati bat erabiltzeko eskatu zuen, CSICek Udalarekin duen hitzarmenaren arabera LC2-4 lurzatian eraikiko duen eraikina ikerketa agrobioteknologikorako erabiltzeko. Baimen hori 2024ko abenduaren 22an eman zen, gutxienez 10 urteko erabilera lizentziaren indarraldian, eta epe hori mugarik gabe luzatuko da, Iruñeko Udalak gutxienez sei hilabete lehenago lurzatiaren erabilera berreskuratzeko eskaera fede-emailea egiten ez duen bitartean, beste behar batzuei erantzuteko.

### ENKARGU ALDAKETA, "IRUÑEKO UDALEKO HIRIGINTZA GERENTZIARI INFORMATIKA-ZERBITZUAK EMATEKO"

**Enkarguaren aurrekontua:** 14.000 euro urtero

ANIMSAri Hirigintza Gerentziaren informatika-zerbitzuak emateko enkargua justifikatuta dago, erakunde autonomo hori Udalaren aplikazio orokorretan sartua dagoelako, zertarako eta espedienteak, erregistroa, kontabilitatea eta gainerako udal tresna informatikoak kudeatzeko; izan ere, izapidetzen dituen espediente asko udal organoen erabakiekin amaitzen dira. Horregatik, Iruñeko Udalak erabiltzen dituen eta ANIMSAk kudeatzen dituen tresna informatiko berberak erabili behar dira. Hirigintza Gerentziak, bestalde, ez du baliabide teknikorik eta giza baliabiderik informatika-lan horiek egiteko. Enkargua, hasiera batean, 2023rako onartu zen, 3.500 euroan (BEZa kanpo), hiru urtez luzagarria, eta baldintza berberetan luzatu zen 2024rako.

Ondoren, jatorrizko enkarguan aurreikusitako zenbatekoak handitzeko beharra ikusi zen. Enkarguaren aldaketaren arabera, zenbateko handiagoa aurreikusi da urtero zerbitzurako (14.000 euro), aurreko 3.500 euroen aldean. Bestalde, hiru hilean behin diru gehiago ordainduko da (3.500 euro), aurreko 875 euroen aldean.

### ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HITZARMENA, LANKIDETZAN ARITZEKO U.O. BIRPARTZELATZEAREN ONDORIOZKO I (C-1) LURZATI PUBLIKOAREN KONTZESIORAKO PROZEDURAN LANKIDETZAN ARITZEKO, "SENIOR" KOOPERATIBEN ARTEKO LIZITAZIOAREN BIDEZ. DONIBANE.

2024ko ekainaren 26an, Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak eta Iruñeko Udalak sinatutako hitzarmen hau onetsi zen, adinekoen beharrei buruzko etxebizitza-politika modu koordinatuan gauzatzeko, elkarlaneko bizitokien modalitatearen bidez. Kasu honetan, jarduketaren xedea da Udalaren zuzkidura publiko baten kontzesio demaniala egitea, elkarlaneko bizitokiak sustatzeko, eta Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak lagunduko du pleguak egiten eta ondorengo jarraipena egiten.

### LEHIAKETA PUBLIKOA, U.Oko I(C)-1ren LURZATIAREN ONDORIOZKO I(C)-1-2 LURZATIA EMATEKO. DONIBANE (3. POLIGONOKO 1350. KATASTRO-LURZATIAREN ZATI BAT), ADINEKOEN ELKARLANEKO BIZITOKIAK EZARTZEKO.

Iruñeko Udalak eta Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako Departamentuak 2024/07/01ean sinatutako administrazio arteko hitzarmenaren bidez, bi aldeek hitzartu zuten lankidetzan aritzea Iruñean elkarlaneko etxebizitza ekimenak sustatzeko, mendekotasunari eta bakardadeari aurrea hartzeko laguntza-zerbitzu gisa eta pertsonen autonomia sustatzeko; zehazki, Iruñeko Udal Planeko Donibaneko U.O.ko I(c) -1-2 lurzatian.

Horretarako, eta talde interesdunen eskariari erantzunez, partzelatu baino lehen, lehiaketaren deialdia egin zen, lurzati hori administrazio-emakida bidez esleitzeko, adinekoen elkarlaneko bizitokiak ezartze aldera. Espedientea izapidetu ondoren, ETXEKONAK BAT S.COOP. kooperatibari esleitu zitzaion lehiaketa, JOBek 2014/12/16an hartutako erabakiaren bidez.

### LEHIAKETA PUBLIKOA, ARANTZADIN LURZORU PUBLIKOAREN KONTZESIO DEMANIALA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ EGITEKO, "ETXEZURIA ETXEA" ETA ONDOKO BARATZEAK KUDEATU ETA USTIATZEKO.

2024/10/14ko JOBen erabaki bidez, onartu egion zen Arantzadiko "Etxezuria etxea" (eskuarki, Soto etxea) izeneko finka ustiatzeko lehiaketa publikorako deialdia, aurreko nekazaritza-erabilerari eusteko, balio ekologiko eta irakaskuntzakoa

gehituta; horren indarra hartuko du, Udalak gaur egun abandonatuta dauden berotegi, baratze eta eraikuntzan lehiaketa publikoko beste prozedura baten bidez eginen dituen egokitzapen-lanak amaitzen direnean,

Esleipena JOBek 2024ko abenduaren 9an erabakita egin zaio EKOLOGIAREKIN LOTUTAKO GAIEN ELKARTEA (LANDARE) erakundeari, proposamena aurkeztu duen bakarrari.

### NAFARROAKO GOBERNUAREN ETA IRUÑEKO UDALAREN ARTEKO JARDUERA PROTOKOLO OROKORRA, ALOKAIRU BABESTUKO ETXEBIZITZAK SUSTATZEKO JARDUKETAK GAUZATZEKO ADMINISTRAZIOEN ARTEKO LANKIDETZA BULTZATZE ALDERA, ETXEBIZITZA ESKURAGARRIRAKO UDAL PLANEAN (2024-20230) AURREIKUSITAKOAREN ARABERA.

2024ko urriaren 22an, Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren arteko jarduera protokolo orokor bat onetsi zen, Etxebizitza Eskuragarrirako Udal Planean aurreikusi zen bezala, alokairu babestuko etxebizitzak sustatzeko jarduketak gauzatzeko administrazioen arteko lankidetzan aritze aldera, eta NASUVINSA sozietate instrumentala berariaz izendatu zen, Iruñeko Udalaren jabetzako zuzkidura-lurzoruen kontzesio demanialaren bidez, eta, kasu honetan, honako lurzati hauek emanik: ARS-3 (Arrosadia-Lezkairu) birpartzelaziotik datorren AC-6 lurzatia, ARS-3 birpartzelaziotik datorren C1-01 lurzatia (Arrosadia-Lezkairu) eta Arrosadiko HJPB eta ARS-1 birpartzelaziotik datorren AP (SU) 2 eta AP-1 lurzatiak emanez.

### JESUSEN ETA MARIAREN BIHOTZ SANTUAREN MISIOLARIEN KONGREGAZIOA: 5. POLIGONOKO 529. KATASTROKO LURZATIAREN ZATI BAT LAGATZEA, JOAN PAULO II. KALEKO ESPALOIAK OSATZEN DUEN ESPAZIOA BANATU ONDOREN.

Iruñeko I eta II. Zabalguneko BBPB planeko 528.oinarrizko unitaterako Hiri Jarduketarako Plan Bereziak (Jesusen Bihotzaren Misiolariak), zeina Iruñeko Udalaren Osoko bilkurak onetsi baitzuen behin betiko 202ko martxoaren 3n (2022ko martxoaren 25eko NAO), ezarritako erabilera publikoko azaleren lagapena eta urbanizazioa ezarri zituen, baldin eta egungo egoitza-ikastetxea Jesusen eta Mariaren Bihotzaren Misiolarien Kongregazioaren egoitza komunitario berriarekin ordezten bazen.

2024ko uztailaren 4an, Gobernu Batzordeak lur zerrenda bat lagatzeko akta onetsi zuen, Joan Paulo II.a etorbideko espaloia handitzeko eta bide gisa erabiltzeko.

### IRUÑEKO UDAL PLANEKO BUZTINTXURI-EUNTZETXIKI-SANTA ENGRAZIA SEKTOREKO PA ETA PB UNITATEEN BEHIN BETIKO LIKIDAZIO KONTUA.

Administrazioarekiko Auzien Iruñeko 1. Epaitegian egindako jarduketen ondorioz (prozedura arrunteko 10/2023 autoetan), 78. epaia eman zen 2023/06/5ean, eta adierazi zuen Iruñeko Udalak Buztintxuri sektoreko PA eta PB poligonoen behin betiko likidazio kontua egiteko tramiteak hasi behar zituela, bai eta horiek tramitatu ere, behin betiko onetsi arte.

2024ko martxoaren 25eko Tokiko Gobernu Batzarrak (5/UV) hasiera batez onetsi zuen Iruñeko Udal Planeko Buztintxuri-Euntzetxiki-Santa Engrazia sektoreko PA eta PB unitateen behin betiko likidazio kontuaren agiria. Jendaurrean jartzeko epea igarotakoan, organo berak Behin Betiko Likidazio Kontua onetsi zuen behin betiko 2024ko ekainaren 24an: 60.442.325,83 € PA unitatean eta 7.687.353,84 € PB unitatean.

### IRUÑEKO UDALAREN JABETZAKO ARROSADIKO A13-A LURZATIAREN (ARS-3 ARROSADIA-LEZKAIRU) ENKANTE PUBLIKOAREN ESLEIPENA, PROZEDURA IREKIA.

Udal aurrekontuan 2024ko diru-sarreren helburuan aurrera egite aldera eta merkatuan etxebizitza sustatzeko lurzorua jartze aldera, jada entregatu diren hainbat sustapen eta garatzen ari diren beste batzuk dituen egoitza-eremu batean, Arrosadia-Lezkairuko ARS-3aren birpartzelaziotik heldu den A13-A udal lurzatia besterentzeko enkante-prozedura hastea erabaki zen.

Enkante-espedientea izapidetu ondoren, 24/11/25eko (5/UV) JOBen erabaki bidez, NAVARRA DE INVERSIÓN Y GESTIÓN INMOBILIARIA, SAU enpesari esleitu zitzaion lurzatia, 9.302.140 euroan (gehi BEZa), eta salerosketa 2024ko abenduaren 20an eman zen eskritura publiko bidez.

### HITZARMENA, IRUÑEKO UDAL PLANEKO U.I. XIXko ARS-4 BANAKETAEREMUKO M2B ETA M3 LURZATIETAN LURZATIETAN GARAJE-SABAIAREN GAINEKO URBANIZAZIOA EGITEKO. HASIERAKO ONESPENA

2023ko abenduaren 16an, eremu horretan aurreikusitako obra guztiak amaitu ziren, eta lurzatietako garaje-sabaiak baizik ez daude egiteko, aurreikusitako eraikuntzekin batera eginen baitira.

M2B eta M3 lurzatiaren jabeek Hirigintza Gerentziarekin hitzarmen bat onartzeko eskatu zioten udalari, lurzatietako garajearen estalkien gainean dagoen azalerako erabilera publikoko eremuaren urbanizazioa egiteko mandatua emate aldera.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko apirilaren 22an, hasieran batez onetsi zuen Iruñeko Udal Planeko XIX. I.U.ko ARS-4 banaketa-eremuko M2B eta M3 lurzatietan garaje-sabaiaren gaineko urbanizazioa egiteko hitzarmena, eta 2024ko ekainaren 24an hura behin betiko onetsi zen.

### HITZARMENA, NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN CAMPUSEKO UDALEZ GAINDIKO PLAN SEKTORIALAREN ETA IRUÑEKO UDAL PLAN OROKORRAREN ARTEKO HIRIGINTZA-KOORDINAZIORAKO.

2024. urtearen amaieran, hasierako onespena eman zitzaion Nafarroako Unibertsitate Publikoko Udalez Gaindiko Plan Sektorialaren eta Iruñeko Udal Plan Orokorraren arteko hirigintza-koordinaziorako hitzarmenari. Izaera bikoitzeko hitzarmena da; alde batetik, planeamenduari buruzko hitzarmena, eta, bestetik, hirigintza-kudeaketari buruzkoa.
Hitzarmenaren helburua da Unibertsitate Publikoaren UGPSren eremua berrikustea, hiri-koherentzia eta kalitate handiagoa ahalbidetzeko, campuseko perimetroko-espazioak mugakide diren hiri-bilbeekin hobeki egituratzeko; azken buruan, hiriaren eta campusaren arteko topaketa berrantolatzeko, bi helbururekin: batetik, Arrosadiko etxebizitzen garapena Unibertsitatearen erdialdeko kontaktu-eremuraino zabaltzea, eta, bestetik, Hiri Azpiegitura Berdearen sistema sustatzea, Arga ibaiaren hegoaldean berdeguneak sortuz, irisgarriak eta ibaiko igarobidera lotuak, klima-aldaketara egokitzeko irizpideekin bat.

### IRUÑEKO UDAL PLANEKO U.I. X/ZN-1 "BAPISA S.L.U" EGIKARITZE UNITATEAREN BORONDATEZKO BIRPARTZELAZIO PROIEKTUA.

BAPI SOCIEDAD DE ALQUILERES SLU enpresak U.E. U.I. X/ZN-1 egikaritze-unitatearen borondatezko birpartzelazio-proiektua aurkeztu du, proiektu horren xede den lurzatiaren jabe bakarra den aldetik. 2024ko urtarrilaren 22ko Tokiko Gobernu Batzarrak hasierako onespena eman zion UE U.I. X/ZN-1 egikaritze unitatearen Borondatezko Birpartzelazio Proiektuari, eta alegaziorik aurkeztu ez denen jednaurrean egon denean, proiektua behin betiko onetsi zen 2024ko martxoaren 18an.

### IRUÑEKO UDAL PLANAREN "TXANTREA" UI Vko ARS-1 BANAKETA-EREMUAREN V/S1 SEKTOREAREN ETA V/GSA-2 SISTEMA OROKOR ATXIKIAREN BIRPARTZELAZIO PROIEKTUAREN ALDAKETA (BEHIN-BEHINEKO LIKIDAZIO KONTUA)

Administrazioarekiko Auzien Epaimahaiaren 2023ko abenduaren 26ko 000166/2023 epaia betetze aldera, zeinak jarduketak atzera eramatea proposatzen baitu, Magdalenako ARS-1eko S-1 unitatea eta lehen faseko atala urbanizatzeko proiektuaren eguneraketa berri bat idazteko eta izapidetzeko, 2019ko abenduaren 11n onartutakoa ordezkatuko duen behin-behineko likidazio kontu bat finkatze aldera.

2024ko otsailaren 19an, Tokiko Gobernu Batzordeak hasierako onespena eman zion Iruñeko Udal Planeko "Txantrea" UI Vko ARS-1 banaketa-eremuaren V/S1 sektorearen eta V/Gsa-2 sistema orokor atxikiaren birpartzelazio proiektua aldatzeko agiriari (Behin-behineko Likidazio Kontua), eta 2024ko ekainaren 17an organo berak behin betiko onetsi zuen, aurkeztutako alegazioak ezetsi ondoren.

### IRUÑEKO UDAL PLANAREN ARS-4 EREMUKO S2 SEKTOREA (U.I. XIX) BIRPARTZELATZEKO PROIEKTUAREN ALDAKETA.

| Urria | 90% | 78% | - | - | - | - | 82% | - | 84% | 18 |
| Azaroa | 96% | 86% | 98% | 65% | 50% | - | - | 89% | 88% | 33 |
| Abendua | 84% | 79% | 99% | 99% | 49% | 90% | - | 71% | 82% | 22 |
| **GUZTIRA** | **87%** | **76%** | **92%** | **81%** | **56%** | **79%** | **89%** | **77%** | **84%** | **227** |

P: Programazioa
A: Alokairuak
UA: Udal Emanaldiak
I: Ikastetxeak
IA: Interprete Handiak
FA: Familia Antzerkia
UU: Udako Umore
PL: Plate

# 5.2 Hekuntza

## 5.2.1 Udal ikastetxeak

### UDAL IKASTETXEAK

| | 2024/25 ikasturteko matrikula |
|---|---|
| Udalaren haur-eskolak | 1.062 |
| Joaquín Maya musika-eskola | 1.032 |
| Catalina de Oscáriz Udaleko Arte eta Lanbide Eskola | 385 |

### HAUR ESKOLETAKO MATRIKULA. 2024/2025 IKASTURTEA

| | |
|---|---|
| Printzearen Harresi haur-eskola | 102 niños y niñas |
| Donibane haur-eskola | 102 niño y niñas |
| Hello Egunsenti haur-eskola | 58 niños y niñas |
| Izartegi haur-eskola | 82 niños y niñas |
| Mendebaldea haur-eskola | 82 niños y niñas |
| Haurtzaro haur-eskola | 82 niños y niñas |
| Mendillorri haur-eskola | 102 niños y niñas |
| Goiz Eder haur-eskola | 96 niños y niñas |
| Hello Azpilagaña haur-eskola | 120 niños y niñas |
| José María Huarte haur-eskola (egonaldi murriztua) | 44 niños y niñas |
| Hello Buztintxuri haur-eskola | 82 niños y niñas |
| Lezkairuko haur-eskola | 110 niños y niñas |

Guztira, 0-3 urteko 1.032 haur daude matrikulaturik udalaren 11 haur-eskoletan.

## 5.2.2 Udalaren lan-ildoak

### IRUÑA, HIRI HEZITZAILEA. GIDA

Iruña hiri hezitzaileen nazioarteko sarean dago sarturik. Premisa horren pean, zeharkako udal-gida bat prestatu zen, hezkuntza ardatz harturik. Gidan bildu, antolatu eta sailkatu dira Iruñeko Udalak ikastetxeei eta herritarrei oro har eskaintzen dizkien munta handieneko ekintzak eta baliabideak, Iruñeko herritar guztien prestakuntza handitze aldera. Bi sailkapen daude: ikaskuntza-eremuen araberakoa eta programak zer biztanleria-sektorerendako diren kontuan hartzen duena. Tresna erabilgarri bat eskaini nahi da, hiriko herritar edo talde orok ezagutu eta parte har dezaten Iruñeko Udalak bere herritarren eskura jartzen dituen hezkuntza-programa askotariko eta zabalean.

Gida formatu digitalean dago pamplonaciudadeducadora.es helbidean eta aldizka eguneratzen da.

**Datuak: 20 ikaskuntza-eremu:** Eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak; ikaskuntza eta zerbitzua (APS); artea; zientzia; bide-hezkuntza; enplegagarritasuna; euskara; familia; genero-berdintasuna eta sexu-aniztasuna; gizarteratzea; kulturartekotasuna; irakurketa eta literatura; ingurumena eta jasangarritasuna; musika; parte-hartzea; ondare historiko eta artistikoa; prebentzioa eta hezkuntza zibikoa; osasuna eta kirola; antzerkia; IKTak. **70 programa edo ekintza**. Munta handieneko **9 baliabide**: civivox; Joaquín Maya Musika Eskola; Catalina de Oscáriz Arte Eskola; Gazteria Etxea; haur-eskolak; liburutegiak; kiroldegiak; Ingurumen Heziketarako Museoa; haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoak.

Nabarmentzekoa da ikaskuntza- eta zerbitzu-programak garapen berezia izan duela, unitate pedagogikoak eman nahi dion bultzadaren ondorioz.

**21 biztanleria-sektoreri** dago zuzendua, bi atal handitan elkartuak: ikastetxeak (haur-hezkuntzatik unibertsitatera bitarte) eta herritarrak, oro har (0-6 urte; 6-12; 12-18; 18-30; gurasoak; herritarrak, oro har; emakumeak; LGTBI biztanleak; adinekoak; gizarteratzeko programaren erabiltzaileak; langabeak; espetxean dauden pertsonak; irabazi-asmorik gabeko erakundeak).

2024an zehar, pamplonaciudadeducadora.es weba **7.491 erabiltzaile desberdinek** bisitatu dute eta, guztira, **8.265 bisitaldi** egin dituzte.

## IKASLEEK INGURUNEA EZAGUTZEKO PROGRAMAK

**IRUÑA EZAGUTU** Ikasleek gure hiria ezagutzea bultzatzen du, Iruñearen historia eta hiri-bilakaera aztertuz. Ikastetxe publikoetako eta itunduetako Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleei dago zuzendua.

**Parte-hartzea:** 30 ikastetxetako **1.625** ikaslek parte hartu dute, 68 taldetan banaturik.

**Bisita gidatu irekiak**: programaren osagarri, beste talde batzuei irekita dauden bisita gidatuak egiten dira. 2024an, 1.200 lagunek parte hartu dute, 33 taldetan banaturik. Taldeek ibilbide hauek dituzte aukeratzeko: Donejakue Bidea, Arga bazterreko bizitza, Harresietako sekretuak, Ibilbide historikoa eta Entzierroaren ibilbidea.

Abuztuaren 8an, JOBek programa kudeatzeko kontratu berri bat esleitu zion COLECTIVO IÑIGO ARISTA, S.L. enpresari, 2024ko azaroaren 11tik 2025eko ekainaren 30era arte gauzatzeko.

## ARTE-JARDUERAK SUSTATZEKO ETA IRAKURMENA HOBETZEKO PROGRAMAK

**ANTZERKI-LANTEGIAK.** Haurrek dituzten adierazpen- eta antzezpen-baliabideak aberasteko programa da. Hartara, teknikak ere irakasten zaizkie, besteekiko komunikazioa eta harremana errazteko, eta, era berean, beste curriculum-arlo batzuekin zerikusia duten ikaskuntza-prozesuak finkatzeko. Programa Lehen Hezkuntzako 1. mailako ikasleentzat da, dramatizazioa eta jolas dramatikoa landu ditzaten; halaber, Lehen Hezkuntzako 5. mailakoentzat da, txotxongiloen bidezko dramatizazioa landu dezaten. Saioak astean behin egiten dira, ikasturte osoan zehar.

**Parte-hartzea**: 23 ikastetxetako **1.455 ikaslek** parte hartu dute, 85 taldetan banaturik.

Nafarroako Antzerki Eskolak kudeatzen du programa.

**IRAKUR DEZAGUN.** Irakurzaletasuna bultzatzeko programa da, hiriko ikastetxe publiko eta itunduek idazleekiko topaketak eta ahozko narrazioei buruzko programak txerta ditzaten, ikastetxeetako irakasleei aholkularitza emateaz gainera.

**Parte-hartzea**: 2024an, **277** jarduera egin dira. Guztira, 9.179 parte-hartzaile izan dira, Haur eta Lehen Hezkuntzako 41 ikastetxetakoak, Bigarren Hezkuntzako **26** ikastetxetakoak, Hezkuntza Bereziko **2** ikastetxekoak eta Helduen Hezkuntzako **2** ikastetxetakoak. Programan hiru jarduera mota garatzen dira: irakasleendako mintegiak, oso egokiak liburuei buruzko aipamen eguneratuak emateko (**71** orientazio bilera egin ziren); ahozko narrazio-saioak, hau da, munduko hainbat herrialdetako herri-ipuinak kontatzen dira (**117** narrazio), eta topaketak haur-literaturako idazleekin, eta horren baitan, egile horien kontakizunak irakurtzen dira ikastetxera bisitan joan aurretik (**89** topaketa).

Programa FOMENTO DE INICIATIVAS RECREATRIVAS Y ARTÍSTICAS enpresak kudeatzen du.

**LECXIT.** Hezkuntza-arrakastarako irakurketa programa Lehen hezkuntzako ikasleen irakurmena hobetzeko programa da, boluntarioengan oinarriturik. Boluntarioak, izan ere, astean ordubetez aritzen dira irakurtzen programan izena emandako ikastetxeek aukeratzen dituzten ikasleekin. Hala, Lehen Hezkuntzako 4. mailatik 6.era bitarteko ikasleek elkarrizketa- eta irakurketa-aldiak partekatzen dituzte boluntarioekin, eta horrek ikasitakoa errotzen eta irakurmena hobetzen laguntzen die.

**Parte-hartzea**: Programa berriz ere jarri da abian 2023-2024 ikasturtean, Iruñeko ikastetxeetan. 7 ikastetxe izan dira, eta 15 boluntario.

**“EN MUDANZA-IBILTARI”:** Programa honek arte garaikidea eramaten du Iruñeko ikastetxeetara, hau da, ikasleen bizi- eta ikas-lekura, beraientzat pentsatutako arte- eta hezkuntza-proposamen baten bidez.

Horrela, honatx programaren helburuak:
- Ikasleei arte garaikidera modu sentsorial eta intelektual batetik zuzenean hurbiltzeko aukera ahalbidetzea.
- Adierazpen-, dialektika- eta sormen-trebetasunak estimulatzea.
- Diziplina anitzeko ikuspegitik lantzen ahal diren edukiak irakasleei proposatzea (arte plastikoak, hizkuntza, zientziak...).

Ekimen honen bidez diziplina anitzeko erakusketa txiki eta kolektiboak egiten dira, Iruñeko Udalaren Arte Garaikideko bildumaren jatorrizko lanak erabiliz; erakusketa horiek ikastetxez ikastetxe doaz ikasturtean zehar; zehazki, bi aste egiten dute ikastetxe bakoitzean.

Aurten, bost lan aukeratu dira, guztiak ere Nire begi kritikoa erakusketaren izenburupean bilduak. Horrela, ikasleek Let the wind blow bideoa ikusi dute, Johanna Domke artistak ondua; Set constructions argazkiak, Miriam Bäckströmek eginak; Environment IV argazkia, Carlos Irijalbak egina; Agujero teknika mistoko margolana, Myriam Camerosek margotua; eta De regreso a casa eskultura, Elena Urdacik ondua. Guztiak ere estimulagarriak dira irudi bat nola eraikitzen den ikusteko, hark fikziotik duen aldea identifikatzeko eta haren esanahia interpretatzeko. Horregatik aukeratu dira. Irudiaren funtzioak zein diren ulertzeko eta irudiaren adierazpenaren indarraz jabetzeko ere balio dute.

2023-2024 ikasturtean, erakusketa ibiltaria Idazten dudan hitzari soinua dario izan da eta hiriko 10 ikastetxetan jarri da ikusgai: Plaza de la Cruz BHI, Eskolapioen ikastetxea, N. Sra. Del Huerto ikastetxea, García Galdeano IP, Cardenal Ilundain IP, Doña Mayor IP, San Frantzisko IP, Hegoalde ikastola, Caro Baroja BHI eta Biurdana BHI.
Alexandra Baurés eta Jyotima Barrenetxea arduratzen dira programa kudeatzeaz.

**LANTEGIAK NAFARROAKO UNIBERTSITATEAREN ARTE GARAIKIDEKO ARTE MUSEOAN** Nafarroako Unibertsitatearen Museoak eskaintzen dituen lantegietako bat egitea proposatzen die programak Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, LHko eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe guztiei.

Xedea da Arte Garaikidea Iruñeko ikasleengana hurbiltzea, museoan bertan esperimentatuz, integraltasunaren eta diziplina artekotasunaren aldeko apustu garbia eginez, sormena sustatuz eta Pentsatzen ikastea gaitasunaren garapena bultzatuz.

**Parte-hartzea**: 2023-2024 ikasturtean, Iruñeko ikastetxe publiko eta itunduetako 1.818 ikaslek parte hartu dute, guztira, lantegi horietan.

**IRUÑEKO ERRALDOI ETA BURUHANDIAK IKUSTEKO BISITA GIDATUAK:** Bisiten bidez, Iruñeko Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa osatzen duten irudien gaineko azalpenak ematen zaizkie haurrei: haien historia, ohiturak, bidaiak, etab.

Nafarroako ikastetxeetako haur eta lehen hezkuntzako haurrei daude zuzenduak.

**Parte-hartzea**: 2023-2024 ikasturtean 95 bisita gidatu egin dira eta, guztira, 2.185 ikaslek parte hartu dute.

### GAITASUN ZIENTIFIKOA HOBETZEKO PROGRAMAK (STEAM)

**MALETA PERIODIKOA ZURE IKASTETXEAN BISITAN** Zientzia, zehazki kimika, modu atsegin eta bisualean hurbildu eta metodo zientifikoa esperimentatzeko programa da, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasleentzat. Ordubeteko saio batean, doktoretza egiten ari diren bi ikaslek 12 esperimentutatik 3 edo 4 aukeratu eta kimikako hainbat kontzeptu lantzen dituzte. Ikasleek talde txikietan egiten dituzte esperimentuak, metodo zientifikoari jarraituz.

**Parte-hartzea:** 2024an, 27 saio egin dira eta lehen hezkuntzako **10 ikastetxetako 350 ikaslek** parte hartu dute.

**MANYAREN SEKRETUA.** Programa DBHko 4. mailako ikasleei dago zuzendua kontzeptu kimikoetan sakontzeko, emakumeek zientzian duten garrantzia ikusarazteko eta bokazio zientifikoak sustatzeko. Ordu eta erdiko saioan, ikasleek, taldeetan banaturik, asmakizun teoriko eta praktiko batzuen emaitzak bilatu beharko dituzte, jarduera interaktiboak errealitate areagotuarekin eta esperimentazioarekin txandakatuz. Jokoaren haria Marie Curieren bizitza da.

**Parte-hartzea:** 2024an, bigarren hezkuntzako **25** ikastetxetako **1.005** ikaslek parte hartu dute eta, guztira, 54 saio egin dira.

**IBILBIDE MATEMATIKOAK IRUÑEAN ZEHAR. KALEMATH.** Matematiken ikaskuntza ikasleengan sustatzeko baliabidea da, zeinen erabilgarriak diren ikasiz ikasleen beraien auzoan edo hirian. 2022an, NUPeko talde batek sei ibilbide diseinatu zituen hiriko auzo hauetan: Iturraman, Donibane-Ermitagañan, Mendillorrin, Txantrean, Sanduzelai-Buztintxurin eta Arrotxapean. Beraz, Alde Zaharrekoarekin batera (aurrez egina), hiria osatuko lukete. Ibilbideetan hainbat matematika-problema daude, eta Lehen Hezkuntzako 6. mailako nahiz Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleek lekuan bertan ebatzi behar dituzte. Problemek auzo bakoitzeko kokaleku interesgarri jakin batzuekin dute zerikusia. Informazioa edo pistak ematen dira, bai grafikoak, bai testualak, problemak ebazteko. Materialak gaztelaniaz eta euskaraz daude. Honatx: ikasleendako koadernoa eta irakasleendako gida, 6. Mailako ikasleendako, hala formatu digitalean nola fisikoan; eta ibilbideak Mathcitymaps mugikorrendako APPean, DBHko 2. mailarako prestatuak. Era berean, tutorial bat prestatu da, irakasleek APP nola erabili jakin dezaten. Guztira, jarduera-koadernoaren 2.200 ale eta irakasleendako gidaren 700 argitaratu ziren, betiere Iturramako, Donibane-Ermitagañako, Mendillorriko eta Txantreako ibilbideei dagozkienak.

Material hori Iruñeko ikastetxeek eskatu ahala banatzen da. 2024an, Iruñeko hainbat auzotako 200 koadernotxo banatu dira.

## 5.2.3 Lehiaketak

### XXXI LITERATUR LEHIAKETA

Gaztelaniaz eta euskaraz, Lehen Hezkuntzako eta DBHko lehen eta bigarren mailako ikasleentzat. Ipuina modalitatea, Lehen Hezkuntzako 1. mailatik DBHko bigarren mailara bitarteko ikasleentzat, lau kategoriatan banaturik, ikasmailen arabera; eta, Komikia modalitatea, Lehen Hezkuntzako 5. mailatik DBHko bigarren mailara bitarteko ikasleendako, bi kategoriatan ere banaturik adinen arabera. 2024an, **814** lan aurkeztu dira gaztelaniaz eta **195** euskaraz.

### APS

**IKASKUNTZA ETA ZERBITZUKO PROIEKTU DIDAKTIKOEN SARIETARAKO DEIALDIA (APS):**

Iruñeko ikastetxe publikoetan eta itunduetan ikaskuntza eta zerbitzuko hezkuntza-proiektuak egin eta ezartzeko, eta hiri osoan ikastetxeen konpromiso solidario eta zibikoa ikusarazteko, Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorrak ikaskuntza-zerbitzuko proiektuetarako lehiaketaren hirugarren deialdia egin zuen Iruñeko unibertsitatez kanpoko irakaskuntza publiko eta itunpeko ikastetxeendako eta Iruñeko herritarren elkarteendako.

Hezkuntza-etapa guztietan curriculum-eskakizun berak ez daudenez, eta proiektuak curriculuma ikastea eta elkartasunezko zerbitzua lotu behar dituela kontuan harturik, parte hartzeko kategoria hauek ezarri ziren euskaraz edo gaztelaniaz egin eta ezarritako proiektuetarako, ikastetxearen hizkuntza-ereduaren arabera:

**Kategoría 1:** Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako proiektuak
**Kategoría 2:** DBH eta Batxilergoko ikastetxeetako proiektuak
**Kategoría 3:** Lanbide Heziketako ikastetxeetako proiektuak
**Kategoría 4:** Irabazi-asmorik gabeko Erakundeen edo Elkarteen proiektuak.

Lehiaketako kategoria bakoitzerako, sari hauek ezarri ziren, proiektua hirian ezartzea ahalbidetzeko:

**Lehen saria:** 2.000 €
**Bigarren saria:** 1.500 €

Aurtengo edizioan 15 proiektu aurkeztu dira; 5, Haur eta Lehen Hezkuntzako kategorian; 5, DBH eta Batxilergoko kategorian; 1, irabazi-asmorik gabeko Erakunde eta Elkarteen kategorian, eta 4, Lanbide Heziketakoan.

Honatx proiektu sarituak:

**1. modalitatea: Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako proiektuetarako.**

**Lehen saria:** Proiektua: Diversión sin barreras: ¿Do you want jugar avec moi, lagun?, Calasanz-Escolapios ikastetxeak aurkeztua, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek egina.

Proiektuaren bidez, ikasleek Iruñeko parkeak eta jolas eremuak ikertu nahi dituzte, haien ezaugarriak eta auzo bakoitzeko irisgarritasuna aztertuz, eta, ondoren, jolas inklusiboen proposamena barne hartuko duen ekintza-plan bat diseinatu, jolas horitan Iruñeko parkeetan aritzeko, familiekin, hezitzaileekin eta irakasleekin batera. Halaber, parke bakoitzean informazio panel bat paratuko dute, jokoen azalpen zehatzak emateko eta, QR kodeetarako estekak, erakusketa-bideoetara bideratzeko.

**Bigarren saria:** Sonrisas y Recuerdos: Un Viaje por el tiempo con Nuestros Mayores, Sagrado Corazón ikastetxeak aurkeztua (Sofía Barat Fundazioa), Lehen Hezkuntzako 2. mailako ikasleek egina, Santa María la Real belaunaldi arteko zentroak eta Iruñeko Udaleko Arrosadiko Auzo Unitateak lagundurik. Proiektuaren bidez, ikasle protagonistek topaketa eragin nahi dute Iruñeko Sagrado Corazón FESB ikastetxeko Lehen Hezkuntzako ikasleen eta Iruñeko Santa Maria la Real auzoko adineko aktiboen artean, adinekoei bizitza aktiboa errazteko, adinekoek ere beren esperientzia partekatzeko eta bakardadea arintzeko. Horretarako, lehenik, erronka bati helduko diote: Dibertitu al gaitezke pantailarik gabe?

**2. modalitatea: DBH eta Batxilergoko ikastetxeetako proiektuak**

**Lehen saria:** Tu sanidad: un regalo que debes cuidar proiektua, Claret-Larraona ikastetxeak aurkeztua, DBHko 3. mailako ikasleek egina, nafar herritarrak gure osasun-sistema publikoaren balio handiaz eta hura zaindu beharraz sentsibilizatzeko. Hori guztia, halaber, ikuspegi globaletik ikusita, gure sistema eta beste herrialde batzuetakoa alderatuz: bereziki, pobretuenetakoak.

**Bigarren saria:** Proyecto Caminos Solidarios: Ayer, Hoy y Mañana, Nuestra Señora del Huerto ikastetxeak aurkeztua, ikastetxeko DBHko 2. mailako 52 neska-mutilek eta DBHko 3. mailako 65ek garatua, Erruki Etxeko adinekoen gizarte-isolamendua murrizteko eta gaitasun digitalak hobetzeko, eta desgaitasun intelektuala duten ANFASko pertsonei ere zuzendua, belaunaldien arteko eta kulturarteko trukearen bidez inklusioa sustatuz. DBHko 2. eta 3. mailako ikasleek Kit Digital Inklusibo bat garatuko dute beren bazkide europarrekin elkarlanean (Italia, Portugal eta Errumania), kolektibo horien artean informazio digitala eta komunikazioa hobeki eskuratzeko.

**3. modalitatea: Lanbide Heziketako eta arte irakaskuntza arautuetako ikastetxeetako proiektuak**

**Lehen saria**: Desconectando para conectar con la vida proiektua, Maria Ana Sanz ikastetxe integratuak aurkeztua, Informatika Oinarria Lanbide Heziketako 2. mailako 9 ikaslek garatua, Doña Mayor ikastetxe publikoarekin eta García Galdeano ikastetxearekin elkarlanean. Bi ikastetxe publiko horietako ikasleak eta familiak sentsibilizatu nahi dira, beharrezkoa baita helduak eta gazteak heztea teknologia modu arduratsuan erabil dezaten, arriskuak ezagutu eta prebenitzeko, eta teknologiatik kanpoko harreman-, bizitza- eta bizikidetza-moduei balioa emateko

**Bigarren saria:** Cultivando mentes inclusivas: Sembrando oportunidades para todos en la huerta escolar proiektua, Nekazaritza eta Basogintzako ikastetxe integratuak aurkeztua, desgaitasuna duten LH bereziko 4 ikaslek eta Nekazaritza-Abeltzaintza Jardueretako oinarrizko 2. graduko 7 neska-mutilek garatua, Iruñeko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako irakas-jardueretara egokitutako baratzeak diseinatu eta egiteko, Bigarren Hezkuntzako irakasleak eskola-baratzearen erabilera hezigarriak trebatzeko, eta azkenik, eskola-baratzeak mantentzeak dituen arazoak konpontzeko, hurbileko adinekoen zentroek lagundurik.

L.H.ko modalitate honetan, ikusirik oinarrietan bi sari bakarrik daudela aurreikusiak, epaimahaiak "ikastetxe finalista" diploma San Juan Donibane ikastetxe integratuak aurkeztutako Ogibide bat ikasiz Txantreako jantzilekuari laguntzen diot proiektuari ematea proposatu du. Ehungintzako Oinarrizko LHko 2. mailako eta Zurgintza eta Altzariak oinarrizko LHko 1. mailako ikasleek garatua, sustatu eta aintzat hartu nahi dute Txantreako jantzitegiak duela hogei urtetik baino gehiagotik hona egin duen lana. Ehungintza taldeak jantzitegira iritsi eta gordetzen den arropa saltzeko eta antolatzeko lanak eginen ditu unean-unean, ikasleek duten berariazko prestakuntzaren araberako sailkapena proposatuta. Zurgintza taldeak hainbat armairu egiten lagunduko du, jantzitegiko arropa-biltegietako antolamendua errazteko; halaber, salmenta-eremuetan bereizleak paratzen lagunduko du.

**4. modalitatea: Nortasun juridikoa duten irabazi-asmorik gabeko Entitate edo Elkarteen proiektuetarako, baldin eta beren estatutuen arabera helburuen artean badute hezkuntza izaerako proiektuak egitea.**

**Lehen saria**: Umami-papilas inclusivas proiektua, Ciganda Ferrer Fundazioak- El Molino ikastetxeak aurkeztua, Lantxotegui Elkarteko oinarrizko Lanbide Heziketako ikastetxeko ikasleekin elkarlanean egina. Proiektuak antzeko topagune bat sortu nahi du egoerak dituzten bi kolektiboren artean, baina modu naturalean nekez sartuko liratekeenak harremanetan: alde batetik, El Molino ikastetxera joaten den eta desgaitasuna duten gazteak, eta, bestetik, Lantxoteguik artatzen dituen gazte migratuak. Egoera desberdinak, baina bizi izandako errealitateari buruzko alderdi komun asko.

### GABON TXARTELAK

Lan plastikoen lehiaketa, gai librekoa eta txartel-formatukoa, Iruñeko Eguberrien ospakizunari buruzko motibo erlijioso edo laikoekin. Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendua. 2024ko edizioan **708** lan aurkeztu dira.

## 5.2.4 Dirulaguntzarteko deialdiak

**ESKOLA-LIBURUTEGIAK ETA IKASMATERIAL SUNTSIKORRAREN GASTUAK** Hiriko Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetarako laguntzen urteko deialdia, liburutegien funtsa handitzeko eta ikastetxeek egoera ekonomiko txarrean dauden ikasleei familiek eman ezin dieten materiala eman ahal izateko. Ikastetxe publikoetan guztira **8.250** ikasle egon dira matrikulatuta 2023/2024 ikasturtean, hau da, aurreko ikasturtean baino % 4 gutxiago (beheranzko joera baieztatuta), eta banaturiko dirulaguntzen zenbatekoa **110.330** eurokoa izan da guztira: **38.175 euro**, eskola-liburutegietarako, eta **72.155** euro, ikasmaterialerako.

| ADIERAZLEA | |
|---|---|
| 2.1. ikastetxe eskatzaileen %, deialdiaren xede diren ikastetxe guztien aldean. Gutxieneko betetze-maila: % 95etik gora. | 100% |

Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunduetako **eskolaz kanpoko jarduera eta jarduera osagarrietarako** dirulaguntzak, eskola-eskaintzaren kalitatea hobetzen laguntze aldera**. 175.760 euro** bideratu ziren. 2024an, eskolaz kanpoko jarduerengatik, 165.981,71 euro eman dira dirulaguntzetan, eta 40 ikastetxeren artean banatu dira. Deialdia Haur eta Lehen Hezkuntzako 41 ikastetxeei zuzendua dago eta, haietan, Iruñeko **17.225** ikasle ari dira Haur eta Lehen Hezkuntzan, hau da, aurreko ikasturtean baino % 2,21 gutxiago; horiei Hezkuntza Bereziko **2** ikastetxe eta helduendako oinarrizko hezkuntzako **1** gehitu behar zaizkie.

| ADIERAZLEA | |
|---|---|
| 1.1. ikastetxe eskatzaileen %, deialdiaren xede diren ikastetxe guztien aldean. Helburua: % 90etik gora. | 97,56% |
| | 41 |
| 1.2. Egindako gastuaren %, deialdiaren zenbatekoaren aldean. Helburua: % 85etik gora | 95,11% |
| | 167.162,46 |
| 1.3. Emandako gastuaren %, berdintasunerako zuzkidura ekonomiko partzialaren aldean. Gutxieneko betetze-maila: % 40tik gora | 100% |
| | 8.788,00 |
| 1.4. Emandako gastuaren %, APSrako zuzkidura ekonomiko partzialaren aldean. | 15,72 |
| | 1.382,46 |

Halaber, 2024ko azken hiruhilekoan dirulaguntzetarako deialdia onetsi zen 2024-2025 ikasturterako, tramitazioa hiruhileko bat aurreratuta, dirulaguntzaren erritmoa haren xede diren jardueren benetako gauzapenera egokitze aldera.

**GURASOEN ELKARTEETARAKO DIRULAGUNTZAK** gurasoek Haur eta Lehen Hezkuntzan antolatutako programa eta jarduerak gara daitezen errazteko. 2023-24ko ikasturteko deialdira 38 entitate aurkeztu ziren (33 elkarte eta 5 federazio), eta hasierako 80.000 euroetatik 68.231,05 euro eman zitzaizkien guztira.

| ADIERAZLEA | |
|---|---|
| 3.1. Erakunde eskatzaileen %, deialdiaren xede diren erakunde guztien aldean. Gutxieneko betetze-maila: % 60tik gora | 75% |
| | 36 |
| 3.2. Egindako gastuaren %, deialdiaren zenbatekoaren aldean. Gutxienezko betetze-maila: % 80tik gora. | 80.000,00 |
| | 100% |

# 5.3 Kirola

Kiroleko Udal Unitateak honako langile hauek ditu bere kudeaketa-lan guztiak egiteko: gradudun bat Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan, kiroldegien zerbitzuburu bat, erdi-mailako teknikari tituludun bat, administrari laguntzaile bat eta udal-kiroldegiei atxikitako 28 funtzionamendu-laguntzaile. Unitatea Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorrari dago atxikia.

Arantzadiko kirolgunearen, Sanduzelaiko kirol-hiriaren (Aquavox) eta Mendillorriko kiroldegi-trinketaren funtzionamendua hiru zerbitzu-kontraturen bidez egiten da: Arantzadi eta Mendillorri enpresa berari esleitu zitzaizkion, eta Sanduzelai, beste bati. San Agustingo Aquavox, azkenik, Pamplona Centro Histórico S.A-Iruña Biziberritzen udal-enpresak kudeatzen du beste enpresa baten bidez.

Labrit pilotalekuaren funtzionamendua Nafarroako Euskal Pilota Federazioaren esku dago, zerbitzuak emateko kontratu baten bidez. Bestalde,Caparrosoren Errota eraikina Club Piragüismo Pamplona klubak kudeatzen du piraguismo-zentro gisa eta taberna-jatetxe gisa, administrazio-emakida baten bidez. Modu berean, Etxabakoizko atletismo-modulua Kirol Elkarteak kudeatzen du, formula horrekin berarekin.

Gimnastika aerobikoa modernoa, Yoga 50 urtetik gorakoendako, eskolako areto-futbolaren udal-liga, eta kirol- eta gizarte-errezeta (Citius, Longaevus, Fortius programa) kirol arloko enpresa espezializatuen bidez kudeatzen dira, zerbitzu-kontratuen bitartez.

Aranzadi kirolguneko eta Sanduzelaiko kirol-hiriko (Aquavox) taberna-jatetxeak, berriz, zerbitzuak emateko bi kontraturen bidez kudeatzen dira.

2024ko hasierako aurrekontuaren arabera (osoko bilkuraren 2024ko martxoaren 27ko erabaki bidez onetsia), Kiroleko Udal Unitateak bi azpiprograma ditu eta, guztira, 8.909.672,21 euro dituzte: 1.807.864,92 euro programetarako, hitzarmenetarako eta kirol dirulaguntzetarako; eta 7.101.807,29 euro udalaren kirol instalazioetarako; bertan unitateko langileen gastu guztiak daude sartuak.

## 5.3.1 Udal programak

Kirolaren sustapena eta biztanleria-sektore guztien jarduera fisikoa bultzatuko duten proiektuak abian jartzea dira Udalak kirolaren arloan darabiltzan bi jarduketa-ildoak.

### GIMNASTIKA AEROBIKO MODERNOA

Programan eskola zuzenduak ematen dira, bai oinarri erritmikoko ariketa aerobikoak, bai indarra lantzeko ariketak gorputz-pisuaren bidez, bai GAP eta malgutasuna lantzekoak, besteak beste. Adin ertaineko biztanleendako da, eta eragin terapeutikoa indartzeko estrategiak erabiltzen dira. 2023-2024 denboraldian, 1.006 lagunek parte hartu zuten (ez dugu sexuaren arabera banatutako datua). Zerbitzua ematen duen enpresak bere borondatez onartutako eskakizun gisa, 2024ko martxoan, monitoreak prestatzeko ikastaro bat antolatu zen, 20 ordukoa, Pilatesa eta Indarra lantzeko, haien irakas-trebetasunak hobetze aldera, eskolen ondorio terapeutikoak hartzaileengan hobeagoak izateko.

### YOGA, 50 URTETIK GORAKOENDAKO

Programak Yoga eskolak barne hartzen ditu, batez ere Hatha-Yoga adarrekoak, eta eragin terapeutikoa indartzeko estrategia berariazkoak erabiltzen dira. 2023-2024 denboraldian, 716 lagunek parte hartu zuten (ez dugu sexuaren arabera banatutako datua). Zerbitzua ematen duen enpresak bere borondatez onartutako eskakizun gisa, 2024ko martxoan, monitoreak prestatzeko ikastaro bat antolatu zen, 20 ordukoa, Bizkar Osasuntsua eta Pelbis Zorua/Abdomena lantzeko, haien irakas-trebetasunak hobetze aldera, eskolen ondorio terapeutikoak hartzaileengan hobeagoak izateko.

### ARETO-FUTBOLEKO HAURREN UDAL LIGA

Areto-futboleko txapelketa da, funtsean jostagarria, lehiakorra ez dena, joko-arauak egokituta, hiriko 7 urtetik 11ra bitarteko ikasleei zuzendua. 2023-2024 denboraldian, 1.155 mutikok eta 119 neskatok parte hartu zuten.

### KIROL- ETA GIZARTE-ERREZETA

Programak ariketa fisikoa eta beste gizarte-jarduera batzuk agintzen ditu, hiriko osasun-etxeak pazienteak bideratzeko ardatz gisa hartuta. 50 urtetik gorakoendako da (lehenago, 45 urte ziren), baldin eta arazo hauetakoren bat badute: nahi ez den bakardadea, hauskortasun-sindromea, sedentarismoa eta jarduera fisikorik eza. Programa 2022an hasi zen egiten, modu pilotuan, Iturrama eta Txantrea auzoetan. 2023an, beste auzo bat sartu da: II. Zabalgunea, hain zuzen. 2024an zehar, hiru osasun etxe gehiago gehitu dira: Azpilagaña, Donibane eta Etxabakoitz. 2024ko azaroan, 245 errezeta eman ziren emakumeen artean, eta 87, gizonen artean.

### MINUTUAK ZURE KONTAGAILURAKO

Programa 2021eko ekainean hasi zen eta jarraibideak nahiz baliabide aukeratuak eskaintzen ditu, ariketa fisikoa nork bere kasa egin dezan, edonoiz eta edonon. Adin guztiendako da. Barne dauka bideo-joko aktiboen ranking bat, bai eta ariketa fisikoa egiteko aplikazio mugikorrak ere. Weba: http://minutosatucontador.pamplona.es/ Edukiak urtero eguneratzen dira.

### KIROLARI / SPORTKIDS

Sanferminen barruan, aisialdiko programazio berariazko bat egin zen 8 eta 14 urte bitarteko neska-mutilentzat, Kirol eta Kultura eta Jaietako unitateek batera bultzatuta eta Nafarroako kirol-federazioek lagunduta. Helburua zen kirol-jarduera sustatzea festa-giroan, diskriminaziorik gabe, eta parte-hartzaileek, jokoaren bidez, eskaintzen ziren kirol-modalitateekin kontaktua izatea. Jarduera Media Lunako lubanarroetan garatu zen, uztailaren 7tik 14ra, 11:00etatik 13:30era eta 18:00etatik 20:30era.

Padela, eskubaloia, xakea, taekwondo, esgrima, gimnastika erritmikoa, arku-tiroa, kirol egokituak, errugbia, beisbola, atletismoa, hipika, saskibaloia, futbola, boleibola, golfa eta euskal pilota (Jito)programatu zen, eta, halaber, paseoak Arga ibaian Caparrosoren Errotako Piraguismo Zentrotik abiatuta.

Parte-hartzeari dagokionez, 21.8680 parte-hartzaile inguru izan dira aurtengo edizioan; aurreko edizioan, berriz, 30.000.

## 5.3.2 Laguntzak eta dirulaguntzak

2024an, 2023-2024 denboraldiko kirol-erakundeen gastuak estaltzeari dagokionez, kirolerako udal-dirulaguntzetarako bost deialdi kudeatu ziren, 1.270.500,00 euroko aurreikuspenarekin. Honatx deialdiak: eliteko lehiaketa ofizial nazionalak ez-profesionaletan; kirol-jarduera iraunkorrak (gehienbat, aisialdikoak), kirol-ekitaldiak, kirol afizionatua eta kirol-eskolak.

#### LAGUNTZAK ELITEKO LEHIAKETA OFIZIAL NAZIONALETAN PARTE HARTZEKO (2023-2024 denboraldia)

Udalak 436.000,00 euro eman dizkie estatuko elite-lehiaketa ofizial ez-profesionaletan parte hartu duten 34 kirol-talderi (lehenengo hiru kategoria absolutuetan). Taldeak 20 erakunderen mende daude eta 15 kirol-modalitatetan ari dira

| Entitatea | Dirulaguntza |
|---|---|
| CD XOTA F.S. - LEHEN MAILA GIZ. ARET-FUT. | 90.000,00 € |
| SCDR ANAITASUNA KKAE - OHOREZKO DIBISIOA ASOBAL LIGA GIZ. ESKUBALOIA | 90.000,00 € |
| AD SAN JUAN KE- BIGARREN RFEF GIZ. FUTBOLA | 26.369,99 € |
| AD SAN JUAN ke-KLUBEN LIGA NAZIONALA EMAK. IRRISTAKETA | 2.645,84 € |
| CAD IRABIA - OHOREZKO MAILA EMAK. SOFBOLA | 12.690,00 € |
| CAD IRABIA - OHOREZKO MAILA GIZ. BEISBOLA | 10.383,00 € |
| LARRAINAKO KIROL ZELAIA - OHOREZKO MAILA ERREMINTA 36M GIZ. PILOTA | 1.270,33 € |
| CD ARGA - OHOREZKO MAILA EMAK. SOFBOLA | 12.690,00 € |
| CD ARGA - OHOREZKO MAILA GIZ. BEISBOLA | 13.267,90 € |
| CD ORVINA KE - BIGARREN MAILA EMAK. ARET-FUT. | 10.358,27 € |
| CD SAN IGNACIO - OHOREZKO ZILAR MAILA EMAK. ESKUBALOIA | 6.769,00 € |
| CD TRIKIDEAK - LEHEN MAILA. EMAK. DUATLOIA-TRIATLOIA | 13.927,40 € |
| CD TRIKIDEAK - LEHEN MAILA. GIZ. DUATLOIA-TRIATLOIA | 11.745,27 € |
| CD WATERPOLO NAVARRA - LEHEN MAILA GIZ. WATERPOLOA | 27.687,00 € |
| AMAYA KIROL HIRIA - OHOREZKO MAILA ERREMINTA 36M GIZ. PILOTA | 500,12 € |
| AMAYA KIROL HIRIA-KLUBEN LIGA NAZIONALA EMAK. IRRISTAKETA | 917,99 € |
| AMAYA KIROL HIRIA-KLUBEN LIGA NAZIONALA GIZ. IRRISTAKETA | 663,68 € |
| CLUB BEISBOL SOFBOL TOROS - OHOREZKO MAILA GIZ. BEISBOLA | 13.844,00 € |
| IRUÑEKO TENIS KLUBA - OHOREZKO MAILA ERREMINTA 36M GIZ. PILOTA | 1.716,36 € |
| CLUB DEPORTIVO WATERPOLO 9802 - LEHEN MAILA EMAK. WATERPOLOA | 16.920,00 € |
| CLUB NATACION PAMPLONA - LEHEN MAILA GIZ. MAHAI-TENISA | 470,13 € |
| CLUB NAVARRO DE ESGRIMA - LEHEN MAILA. GIZ. ESGRIMA | 844,33 € |
| CLUB PAMPLONA ATLETICO - OHOREZKO MAILA EMAK. ATLETISMOA | 16.497,82 € |
| CLUB PAMPLONA ATLETICO - OHOREZKO MAILA GIZ. ATLETISMOA | 12.726,89 € |
| OBERENA ERAKUNDEA - OHOREZKO MAILA ERREMINTA 36M GIZ. PILOTA | 2.954,00 € |
| OBERENA ERAKUNDEA - OHOREZKO MAILA ESKUA 36M GIZ. PILOTA | 2.954,00 € |
| SCDR ANAITASUNA KKAE - ESPAINIAKO 1. MAILAKO KLUBEN KOPA GIZ. IGERIKETA | 1.320,93 € |
| SCDR ANAITASUNA KKAE - OHOREZKO ZILAR MAILA EMAK. ESKUBALOIA | 16.065,08 € |
| SCDR ANAITASUNA KKAE - LEHEN MAILA GIZ. MAHAI-TENISA | 563,96 € |
| UDC ROCHAPEA KKE - OK LIGA ZILARRA EMAK. PATIN HOCKEYA | 3.296,62 € |

| | |
|---|---|
| UDC ROCHAPEA KKE - OK LIGA ZILARRA GIZ. PATIN HOCKEYA | 2.021,45 € |
| UDC ROCHAPEA KKE -KLUBEN LIGA NAZIONALA EMAK. IRRISTAKETA | 2.860,91 € |
| UDC TXANTREA KKE - LIKLUBEN LIGA NAZIONALA GIZ. IRRISTAKETA | 2.288,73 € |
| UDC TXANTREA KKE - BIGARREN MAILA EMAK. ARET-FUT. | 6.769,00 € |

## JARDUERA IRAUNKORRAK ANTOLATZEKO LAGUNTZAK (2023-2024 denboraldia)

Horrelako jarduerak garatzeko, 2023/2024 denboraldian 267.094,22 euro banatu dira (308.000,00 euroko kreditu erabilgarriaren gainean) hiriko 7 kirol-erakunderen artean, guztira 6 jarduera iraunkor garatzeko.

| Entitatea | Dirulaguntza |
|---|---|
| ANEFIDE (Kirol Zerbitzuetako Enpresaburuen Nafarroako Elkartea) | 49.000,00 € |
| KIROLA SUSTATZEKO ENTITATEA BOSCOS TROFEOA ("Boscos Futbol Trofeoa") | 22.089,40 € |
| Nafarroako Saskibaloia Federazioa (Zaindu zure gorputza, zaindu zure burua) | 2.137,50 € |
| Nafarroako Kirol Egokituetako Federazioa (Kirol Egokituetako Kirol Eskolak) | 15.418,93 € |
| Nafarroako Igeriketa Federazioa (Igeriketa Aldia Eskolan) | 140.872,00 € |
| Nafarroako Igeriketa Federazioa (Helduentzako Igeriketa Aldia) | 40.279,00 € |
| Osasuna Fundazioa (Oinarrizko Futbola) | 30.000,00 € |
| SDC Echavacoiz (Kirol jarduerak) | 2.250,00 € |

## UNEAN UNEKO KIROL-EKITALDIAK (2023ko abendutik 2024ko azarora)

Kirol eta jarduera fisikoaren arloko hogeita zazpi erakundek jaso dute udal-laguntza, 2023ko abendutik 2024ko azarora 38 kirol-ekitaldi antolatzeko. Guztira, 160.000 euro aurreikusi eta 126.386.14 euro banatu ziren.

| Entitatea eta ekitaldia | Dirulaguntza |
|---|---|
| Iruñeko Tenis Kluba (Urdaiazpikoaren LII. Pilota Txapelketa) | 5.612,50 |
| Club Pamplona Atlético (IX José Luis Hernández Memoriala-Pamplona Challenger-) | 5.126,25 |
| Club Deportivo Trikideak (IX Half Triatlón Iruña) | 25.000,00 |
| CD Berriro Ere (XV P2P Skate Race Iruña- Gares) | 17.100,00 |
| Euskal Pilotaren Nafarroako Federazioa (Nazioarteko LII. San Fermin Txiki Erreminta Txapelketa) | 3.160,25 |
| Gurpil Aulkiko Saskibaloi Kirol Kluba (Final Four, ohorezko saskibaloia maila gurpil-aulkian) | 1.542,15 |
| Nafarroako Atletismo Federazioa (Iruñeko Ziudadela, Martxa Atletikoko V. Sari Handia) | 1.838,43 |
| Nafarroako Kirol Egokituetako Nafarroako Federazioa (Espainiako Ekitazio Txapelketa) | 2.863,96 |
| Euskal Pilotaren Nafarroako Federazioa (Espainiako Iberdrola Kluben arteko txapelketa rtnketan gizonezkoak eta emakumezkoak) | 1.500,88 |
| Nafarroako Taekwondo Federazioa (Iruñeko XVI. Taekwondo Txapelketa Irekia) (SENIOR kategoria) | 8.339,29 |
| Donibane Kirol Elkartea (Espainiako Irristaketa Zirkuituko Txapelketa) (SENIOR kategoria) | 799,61 |
| Iruñeko Kirol Ehiztari eta Arrantzaleen Elkartea (San Fermin - Arrantza Lehiaketa 2024) | 240,30 |
| Club Natación Pamplona (LII. Piraguismo trofeoa <Club Natación Pamplona>) | 1.123,50 |
| Nafarroako Saskibaloi Federazioa (Plaza 3 x 3 Streetball <Iruñeko Udala>) | 1.950,00 |
| La Jarana Kirol Taldea (entzierroaren lasterketa) | 1.136,94 |
| Nafarroako Taekwondo Federazioa (Iruñeko XVI. Taekwondo Txapelketa Irekia) (ADINGABEEN kategoria) | 2.001,43 |
| Lapeluso Bihaizpe Kirol Kluba (Txirrindularen XXVII. Eguna) | 3.066,67 |
| Amaya Kirol Hiria (Igeriketa Artistikoko I. txapelketa <Amaya kirol hiria>). | 246,05 |
| Ermitagaña Txirrindulari Taldea (Iruñeko XXXVIII. Txirrindularitza Itzulia, juniorra gizonezkoak) | 8.000,00 |
| Ermitagaña Txirrindulari Taldea (Iruñeko IV. Txirrindularitza Itzulia, juniorra emakumezkoak) | 5.400,00 |
| Nafarroako Unibertsitatea Kirol Kluba elkartea (Kirolaren Astea) | 1.809,90 |
| Donibane Kirol Elkartea (Espainiako Irristaketa Zirkuituko Abiadura Txapelketa) (ADINGABEEN kategoria) | 416,40 |
| Txantrea KKE (Inter Pyrénées Kopa-Abiadura Irristaketako II. Nafarroako Foru Komunitatea Trofeoa) | 59,67 |
| Nafarroako Judo Txapelketa eta DA (Espainiako XIII. Superkopa Kadetea 2023) | 6.405,44 |
| CAD Irabia (15 urtez azpikoen Espainiako Sofbol Txapelketa, emakumezkoak). | 707,36 |
| CAD Irabia (18 urtez azpikoen Espainiako Beisbol Txapelketa, gizonezkoak). | 1.111,39 |
| CAD Irabia (15 urtez azpikoen Espainiako Beisbol Txapelketa, emakumezkoak). | 837,81 |
| Nafarroako Halterofilia Txapelketa (Nafarroako IV. Halterofilia Master Txapelketa) | 244,20 |
| Nafarroako Xake Federazioa (III. Xake Torneoa, emakumezkoak) | 1.076,48 |

| | |
|---|---|
| Anaitasuna KKAE (Espainiako Eskubaloi Txapelketa, sektore fasea, kadeteak, emakumezkoak). | 1.063,34 |
| Anaitasuna KKAE (udako III. eskubaloi torneoa, gizonezkoak) | 255,00 |
| Anaitasuna KKAE (XXXVII. Anaitasuna Trofeoa eta San Saturnino LI. Igeriketa Trofeoa) | 216,62 |
| Anaitasuna KKAE (Aste Santuko Oinarrizko Eskubaloiko X. Torneo Nazionala) | 8.000,00 |
| Nafarroako Irristakte federazioa (Espainiako Hockeu txapelketa juniorra, sektore fasea) | 1.044,93 |
| Txantrea KKE (Espainiako Haur eta Gazte Txapelketa eta Espainiako Kopa, kimuak, abiadurako irristaketa pistan). | 1.155,53 |
| Nafarroako Beisbol eta Sofbol Federazioa (21 urtez azpikoen Espainiako beisbol eta sofbol txapelketa) | 1.851,15 |
| Iruñeko Irristaketa Artistikoko Kirol Kluba (Espainiako LXXIII. Txapelketa kimuetan eta infantiletan, gurpil gaineko irristaketa artistikoa). | 1.950,00 |
| Iruñeko Tenis Kluba (XXVI. Taekwondo Txapelketa haurrentzat) | 307,84 |
| Iruñeko Tenis Kluba (XXIX. Tenis Txapelketa <Iruñeko Tenis Kluba> ) | 1.037,86 |
| Donibane Kirol Elkartea (II. Karate Trofeo Nazionala) | 787,01 |

## KIROL ESKOLAK (2023-2024 denboraldia)

Nafarroako Kirol Federazioek –edo, halakorik ezean, kirol-erakunde jakin batzuek– kirol-eskolak antolatzen dituzte 6 urtetik 14ra bitarteko (edo 15 urtera bitarteko) ikasleendako.

Eskolek udal-dirulaguntza jasotzen dute, eta 2023-2024 denboraldian, 212.978, 67 eurokoa izan zen, 216.000,00 euroko kreditu aurreikusiaren gainean. Deialdiaren bidez, hamabi kiroletan ari diren hamalau erakundek jaso zituzten laguntzak.

| Entitatea | Dirulaguntza |
|---|---|
| Nafarroako Saskibaloi Federazioa | 46.412,38 |
| Nafarroako Padel Federazioa | 5.587,40 |
| Nafarroako Eskubaloi Federazioa | 16.404,54 |
| Oberena erakundea (futbol-eskolak) | 59.685,46 |
| Nafarroako Xake Federazioa | 25.349,68 |
| Club Deportivo Badminton Pamplona (badminton-eskolak) | 6.809,00 |
| Clubes Pamploneses de Atletismo elkartea | 9.261,47 |
| Nafarroako Errugbi Federazioa | 4.359,40 |
| Nafarroako Mahai Tenis Federazioa | 6.438,00 |
| Nafarroako Piraguismo Federazioa | 3.377,00 |
| Club Deportivo Patinaje Artístico, Iruña (irristaketa artistikoko eskolak) | 4.437,00 |
| Nafarroako Pilota Federazioa | 24.857,34 |

## KIROL AFIZONATUA (2023-2024 denboraldia)

Kirol federatu afizionaturako laguntza-deialdiaren bidez, 150.000,00 euro banatu dira 2023-2024 denboraldian. 32 erakundek jaso dituzte laguntzak kirol-instalazioak erabiltzeko gastuetarako, Espainiako Txapelketa/Kopa ofizialetan parte hartzeko eta, oro har, kirol-talde federatuen kudeaketan ohikoa izaten den beste edozein gastutarako.

| Entitatea | Dirulaguntza |
|---|---|
| Nafarroako Atletismo Taldea | 3.451,73 |
| Beste Iruña | 813,59 |
| Club Deportivo La Única Rugby Taldea | 4.274,41 |
| Anaitasuna KKAE | 15.691,92 |
| Irrintzi Kirol Kluba | 383,09 |
| Club Deportivo de Atletismo Ederki | 907,54 |
| Buztintxuri IPko Guraso Elkartea | 39,51 |
| Navarvoley Kirol Kluba | 5.528,56 |
| San Cernin Kirol Kluba | 7.596,71 |
| Iruñeko Piraguismo Kirol Kluba | 2.691,97 |
| Iruña Rugby Club | 3.699,44 |
| Club Pamplona Atlético | 8.536,53 |
| Club Náutico de Navarra | 217,60 |
| Donibane KE | 10.537,75 |
| Txantrea Herri Kirol Taldea | 747,70 |
| Nafarroako Unibertsitatea Kirol Kluba elkartea | 5.711,64 |

| | |
|---|---|
| El Molino Kirol Kluba | 3.397,43 |
| Club Natación Pamplona | 7.042,02 |
| Los Sauces Kirol Kluba | 415,42 |
| Desgaitasuna duten Pertsonen Aldeko Nafarroako Elkartea (ANFAS) | 2.413,53 |
| Iruñeko Tenis Kluba | 9.905,80 |
| Liceo Monjardín Kirol Kluba | 8.719,62 |
| Waterpolo 9802 Kirol Kluba | 3.491,06 |
| Pamplona Irristaketa Artistikoko Kirol Kluba | 1.415,15 |
| Orvina Kirol Elkartea | 837,04 |
| Oberena erakundea | 11.389,01 |
| Larraona Claret Kluba | 2.306,02 |
| UDC Txantrea KKE | 7.046,04 |
| Amaya Kirol Hiria | 12.192,91 |
| Rochapea KKE | 1.150,45 |
| Trikideak Kirol Kluba | 3.769,96 |
| Club Atlético Deportivo Irabia-Izaga | 3.678,85 |

## 5.3.3 Kirol instalazioak

### UDAL KIROLEGIAK

Udalak bederatzi udal-kiroldegi ditu, eta 2023-2024 denboraldian zehar % 70,5eko okupazioa izan dute, batez beste. Udal-kiroldegiek astean irekita ematen dituzten 761 orduetatik 650 erreserbatuta egoten dira klub, ikastetxe edo kirol-programentzat, erabil ditzaten. Honatx Udal-instalazioak: Arantzadiko kirol anitzeko pista estalia, Arrosadia, Azpilagaña, Ermitagaña, Ezkaba, Jose Maria Iribarren, Arrotxapea, Mendillorri eta Sanduzelai.

Klub, ikastetxe edo kirol-programen erreserbei dagokienez, okupazio handiena duten kiroldegiak Ermitagañakoa (bere 88 orduen % 90 erreserbatuak), Azpilagañakoa (bere ordutegiaren % 89 erreserbatua) eta Mendillorrikoa (erabilgarri dituen 88 orduen % 81) dira, hain zuzen. Sanduzelaiko kiroldegian eskura dauden orduen % 75 daude okupatuak; Ezkabakoan, % 65; Arrotxapekoan, % 70; Arrosadikoan, % 8, José María Iribarrenen, % 60, eta Arantzadiko kiroldegi estaliko okupazioa % 20 da. Zortzi kiroldegiak astelehenetik ostiralera daude zabalik, 08:30etik 22:30era, eta larunbatetan, 08:30etik 21:30era. Hala ere, Arantzadiko kiroldegia da ordutegi desberdina duen pista bakarra, egokiagoa kirolguneko instalazioetarako. Astelehenetik larunbatera dago zabalik, 09:00etatik 21:00etara. Igandean Arrosadia, Ezkaba, Arrotxapea, Sanduzelai eta Mendillorri baino ez daude zabalik, 08:30etik 14:00etara.

Erreserben esleipendunak honako hauek dira: ikastetxeak, gorputz-hezkuntzako irakasgaiaren curriculuma garatzeko eta eskolaz kanpoko kirol-jarduerak egiteko; kirol-taldeak, beren entrenamendu eta partidu ofizialetarako; eta elkarteak, kirol-jarduerak egiteko. Normala denez, erabileraren ehuneko handiena duten kiroldegiek hartzen dituzte, goizez, ikastetxeetako gorputz-hezkuntzako eskolak.

Instalazio horietako inbertsioei dagokienez, kirol-ekipamenduaren hainbat konponketa edo aldaketa egin ohi dira.

Irailean, hamargarren kiroldegia inauguratu zen; Buztintxuri auzoan, hain zuzen. Kiroldegia 8.867m2-ko lurzati batean dago. Hementxe: E1 Antolamenduko Oinarrizko Unitatea, E1.4 azpiunitatea (2912 hiri-lurzatia, 7. poligonoa, Buztintuxi-Euntzetxiki II unitate integratua). Kiroldegiak 1.701,30 m2-ko areto handi bat dauka, eta era berean, 2 m-ko zabalerako eta 180 m-ko zirkuitu zirkularreko paseo/lasterketa leunerako zirkuitu bat; eta kirol-jarduerarako 2 areto espezializatu (A: 219,35m2 eta B: 220,35m2). Baditu, gainera, aldageletako espazio osagarriak (6, ekipoetakoak; 2, ostegunekoak/irakasleak, eta 2, gelei erantsiak) eta biltegietakoak. Sarrera kontrolatzeko atezaindegi bat ere badu, ekipamendurako panel domotizatu batez hornitua (gortinak, berokuntza, argiztapena...), instalazioetarako gela bat, eta racka, langileen aldagelak eta bi langela. Azkenik, kiroldegian instalazio modernoenak eta inguratzaile termikoa jarri dira, CTEren DB-HE1en arabera.

Inaugurazioarekin batera, kiroldegia bulegoetako materialaz, makinez eta kirol-ekipamenduez hornitzeko kontratazioak egin behar izan dira, bai eta kardio-entrenamenduko makinak erosteko kontratu bat ere, 35.751,39 euroan.

## ARANTZADIKO ETA SANDUZELAIKO KIROLGUNEAK

Arantzadiko kirolguneak eta Sanduzelaiko kirol-hiriak 66.831 sarrera eman zituzten urte osoan, 2024an. Urteko abonamenduei dagokienez, herritarrek 1.307 eskuratu zituzten. 12 hilabeteetarako dira, udaldirako barne) Bestalde, udako abonamenduek ekainaren 15etik irailaren 15era bitarteko hilabete eta 2.536 izan dira. Neguko abonamendu bat ere saltzen da; horien iraupena urtarrilaren 1etik ekainaren 15era eta irailaren 16tik abenduaren 31ra bitartekoa da. Azkenik, seihileko 912 abonamendu, hiruhileko 559 eta hileko 1.314 eta 10 erabilera-saioko 2.385 eman ziren.

| | Arantzadi | Sanduzelai |
|---|---|---|
| Sarrerak: | 41.027 | 25.804 |
| Abonamenduak: | Arantzadi | Sanduzelai |
| Urtekoak | 541 | 766 |
| Negukoak | 0 | 1 |
| Udakoak | 1.724 | 812 |
| 180 egunekoak | 491 | 421 |
| 90 días | 257 | 302 |
| 30 días | 583 | 731 |
| 10 pases | 1.238 | 1.147 |

Inbertsioetan, nabarmendu behar da aurten Sanduzelaiko Kirol Hiria - Aquavoxeko hondartzak hobetu direla 48.400,00 euroan, irakaskuntzarako igerileku klimatizatuko paretak birgaitu direla Arantzadiko Kirol Hirian (21.614,67€), eta klimatizazioa eta ur bero sanitarioa ekoiztu eta banatzeko sistemak aldatu direla Arantzadiko Kirol Guneko eraikin bakoitzean, 36.298,79 euroan eraikin bakoitzeko.

## LABRIT PILOTALEKUA

2024an, Nafarroako Euskal Pilota Federazioak udal-jabetzako Labrit pilotalekua kontratu baten bidez kudeatu eta ustiatu zuen; kontratu horren barnean ondasunak, makinak eta instalazioak garbitu, mantendu, kontserbatu eta zaintzeko lanak ere badaude jasota. Kontratuak 181.354,80 euroko kostua izan zuen.

Eskuzko eta erremintako modalitateak sustatzeko kirol-eskolak, pilota-selekzioen entrenamenduak eta afizionatuen lehiaketa ofizialak programatu zituen federazioak. Nafarroako, Espainiako eta Herriarteko Txapelketako finalak ere jokatu ziren bertan, bai eta pilota profesionaleko jaialdiak ere. Noiz edo noiz, jarduera sozial edo kulturalak ospatzeko ere erabili zen pilotalekua.

Abuztuan, gainera, 36 metroko Munduko Txapelketa jokatu zen 22 urtez azpikoentzat Labriten, pala motzean, larruzkoan, emakumezkoen eta gizonezkoen zesta-puntan, eskuz binakakoan eta eskuz banakakoan, Espainia, Frantzia, Argentina, Kuba, Mexiko, Peru eta Boliviako selekzioek parte harturik.

Kirol Unitatearen bidez, Udalak pilotalekua erabili zuen, lehentasunezko erabilerei buruzko kontratuak emaniko ahalmena baliatuz, kontratuan xedatutako hamaika alditan: 7 jaialdi Erremonte Fundazioaren alde, 2 jaialdi Ados Pilotaren alde, jaialdi bat Zaker Kirol Zerbitzuen alde, eta jaialdi bat, Yala elkartearen alde. Pilotalekua, gainera, alokatu egin zen Iruñeko Peñek eta Ados Pilota-k antolatutako ongintzazko jaialdi baterako.

Inbertsioei dagokienez, 2024an zehar, pilotalekua modernizatzeko lanak amaitu ziren, nazioarteko lehiaketak egin ahal izateko. Alde batetik, aireztapen- eta klimatizazio-sistema bat jarri zen frontoiko bulegoetan 151.027,61 euroan, eta halaber, aireztagailu eta ate eta leiho automatizatuen sistema bat, barrutiko aireztapena hobetzeko 203.432,51 euroan.

## BESTE GUNE BATZUK

**CAPARROSOREN ERROTA.** Club Piragüismo Pamplona-k Caparrosoren Errota izeneko udal-lokala kudeatu eta ustiatu zuen piraguismorako gune eta jatetxe-taberna gisa. Udalak 63.373,75 euro ordaintzen ditu zerbitzu horrengatik, eta denetariko jarduerak egiten dira, hala aisialdikoak nola entrenamendukoak eta kirol-errendimendukoak. 60-70 lagunek erabiltzen dute eskuarki pilotalekua, eta 5.575ek, berriz, jardueraren edo alokairuen bidez erabili dute.

**BELAR ARTIFIZIALEKO UDAL FUTBOL-ZELAIAK**. Halaber, Sanduzelai, Lezkairu eta Arrotxapea auzoetako belar sintetikoko futbol-zelaiak ere kudeatu ziren. Oinarri-kiroleko futbol-taldeen entrenamenduak eta partidak egiteko erabili ziren batez ere; ordutegi hauetan okupatu ziren: astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 21:30era bitartean; larunbatetan, 09:30etik 14:30era eta 14:00etatik 21:30era bitartean, eta igande eta jaiegunetan, 09:30etik 14:00etara. Denboraldi honetan, 150 taldek eta 2.500 jokalari inguru erabiltzen ari dira aldizka hiru futbol-zelaiak, astelehenetik ostiralera (partidak eta lehiaketak kontuan hartu gabe).

**SOFTBOL-ZELAIA.** Sarrera libreko kirol-lekua da aisia-erabilerarako, softbolean aritzeko; ez, ordea, lehiarako. Arrotxapea auzoan dago, Artika eta Ximenez de Rada kaleen artean. Argiak ditu eta 5.000 m2 inguruko joko-zelaia. Hiru erakundek izan dute joko-zelaia erabiltzeko erreserba beren jarduerak garatzeko.

## 5.3.4 Udaleren publizitazte-babesletza duten kirol-ekitaldiak

Unean uneko kirol-ekitaldi hauek jaso dute publizitate-babesletza, Iruñeko Udalaren logoaren/irudiaren publizitatea egiteko eta, oro har, hiriko kultura-, arte- eta turismo-baliabideak indartzeko.

**PUBLIZITATE-BABESLETZARAKO KONTRATUAK KIROL-EKITALDIETAN 2024**

| | |
|---|---|
| Iruñeko Alde Zaharreko X. Erremonte Txapelketa | 7.260,00 euros |
| Erremonte Profesionaleko III. San Fermin txapelketa | 2.000,00 euros |
| "ADOS PILOTA" Binakako III. Pilota Txapelketako finalerdia (apirila) - 1. itzulia- | 2.662,00 euros |
| Club Atlético Osasuna (*) | 100.000,00 euros |
| Emakumezkoen futboleko III. 'Sentimendu Kopa | 3.025,00 euros |
| I. La Fuga Mendi Lasterketa | 1.210,00 euros |
| XI. Munduko Euskal Pilota Txapelketa 22 urtez azpikoentzat | 40.000,00 euros |
| Navarra Womens Elite Classic 2024 | 27.000,00 euros |
| "ADOS PILOTA" Binakako III. Pilota Txapelketako finala (sanferminetan) - 2. itzulia- | 4.840,00 euros |
| Munduko FIM X-Trial Txapelketa 2024 (munduko txapelketarako azken proba puntuagarria) | 18.150,00 euros |
| Sanferminetako La Media lasterketa 2024 | 4.000,00 euros |
| Zubiri-Iruña 2024 maratoi erdia | 6.000,00 euros |
| San Fermin emakumezkoen eskupilotako txapelketa. Emakume Master Cup zirkuitua | 4.840,00 euros |

(*): 2022ko uztailaren 1etik aurrera, publizitate-babesletzarako kontratu bat sinatu zen Club Atlético Osasunarekin, hiriaren irudia sustatzeko eta, horrekin batera, kirol-jarduera eta haren balioak gure hiriko herritar guztien gainean sustatzeko. Kontratuak 300.000,00 euroko balioa du (BEZa barne) 2022/2023, 2023/2024 eta 2024/2025 kirol-denboraldietarako.

### IGERILEKU PRIBATUETAKO ABONAMENDUEN ZOZKETA

Duela bi hamarkadatatik hona, Iruñeko Udalak mugikortasunari buruzko azterketa- eta plangintza-ahalegin nabarmena egin du eta, bide horretan, bada erreferentziazko mugarri bat, hots, Iruñeko Mugikortasunari buruzko Udal Ordenantza berria, 2019an onetsia. Ordenantzak jokabide-arau batzuk ezarri ditu ibilgailuen zirkulazioan eta oinezkoen ibilian; halaber, espazio publikoaren eraldakuntza bideratu du desplazamendu-bide jasangarriagoen alde, oraindik ere indarrean den 2005eko Mugikortasun Jasangarrirako Toki Itunean bermatua. Hasiak diren eta agendan dauden arauketa, proposamen eta planen multzoa lehentasunez gauzatu behar da, bai eta jarduketa-estrategia bat ere, bereziki 2020-2023 epealdia ardatz harturik, mugikortasun-ereduaren eraldakuntza sakonaren oinarriak ezarri behar baitira Nafarroan, estatuan eta nazioartean diren erronkei eta konpromisoei erantzuteko.

Esparru horren baitan sartua dago jarduketa hau, udal-zerbitzuen koordinazioaren emaitza dena. Bada, jarduketa horren barnean, Iruñeko Udalak hainbat lan egin ditu Abejeras kalearen irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko.

### LANDABENGO BIDEGORRIA

- **Egoera:** amaitua
- **PROIEKTUA IDATZI DUEN TALDEA:** Proyectos de Obra Civil y Auditorías de Seguridad Viaria, S.L.
- **Proiektua idazteko eta obra-zuzendaritzako ordainsariak:** 14.181,20 €, BEZa barne
- **Eraikuntza-enpresa:** ABLE Urbanismo Táctico Pamplona.
- **Obraren aurrekontua:** 1.741.035,04 euro
- **Dirulaguntza eta diruz lagundutako zenbatekoa:** Next Generation 913.000 euro (BEZa kanpo)

Iruñeko Udalak garapen-eredu jasangarriagoa lortzea du xede honako oinarri hauek dituen mugikortasun-eredu baten diseinua sustatuz: sistemaren jasangarritasuna, irisgarritasuna, segurtasuna eta eraginkortasuna, bizi-kalitatearen hobekuntza, bizitasun ekonomikoa, eta talde eta pertsona guztien integrazioa.

Helburu ditu Iruñeko mugikortasuna sustatzea, garraio ez-motordunak sustatuz eta lehenetsiz (oinez eta bizikleta), bai eta garraio publikoa ere.

Hori guztia dela eta, Iruñeko Udalak finantzazioa eskatu eta erdietsi du Landabengo industrialdeko bidegorri horretako lanak egiteko, Miluze kaleko eta Juaristi doktorearen kaleko ardatz jasangarriko bidegorriak lotuta, Sanduzelaiko etorbidean amaitzen baitira, Sanduzelai ikastetxe publikoaren parean, eta barne dago, halaber, bidegorriari adar bat egitea Volkswagen Navarra fabrikaraino joateko.

### PIO XII.eko IGAROBIDE JASANGARRIA

- **Egoera:** obra-amaiera 2025ean aurreikusia
- **PROIEKTUA IDATZI DUEN TALDEA:** ALBERTO HERMOSO DE MENDOZA DOMÍNGUEZ DE VIDAURRETA
- **Idazketa-ordainsariak:** 14.680€ + BEZa
- **Eraikuntza-enpresa:** Construcciones Oses.
- **Aurrekontu zenbatetsia, guztira: 1**.875.313,59 euro
- **2024an inbertitutako aurrekontua:** 725.580,99 euro

Pio XII.eko igarobide jasangarria Iruñeko Udalaren Azpiegitura Berde eta Urdinen Udal Planaren parte da: igarobide berde bat sortzea da helburua, hiri-paisaien eta giro erdinaturalen bidez oinezkoen eta bizikleten joan-etorriak sustatu eta lehenesteko. Izan ere, gune horiek guztiek Azpiegitura Berdeekin bat egiten dute, Ziudadelaren eta Nafarroako Unibertsitatearen artean ibilbide berdeak sortzen dituzte, eta Donejakue bidea sustatzen dute.

Esku-hartzeak ardatz ditu bai zerrenda funtzional anitza, bai hondarrezko oinezko-espazioak (txorkoen arteko espazio gisa); horrela, 2.446m2 baino gehiago txertatuko dira berdeguneetan Pio XII.era. Beraz, halako hiri-drainatze jasangarriko sistema bat osatuko dute ahalik eta euri-urik gehiena xurgatzeko eta lur azpian sartzeko. Txorko berri zabalak sartu dira, espaloian daudenen artean eta, haietan, zuhaixka eta bizikor loredunak landatuko dira. Hala, oinezkoek beren ohiko ibilbideetan gutxi erabiltzen dituzten guneak aprobetxatuko dira, aukera paregabea baitira gune naturalak sortzeko. Gainera, hiri-drainatze jasangarria garrantzitsua da, hiriaren irudi atsegina sortze aldera.

Berdegune berriez gain, hobekuntzak egin dira garraio publikoan bi geraleku aurreratu ezarri baitira Iturrama kalean; hobekuntzak ere txirrindulariendako azpiegituran, bidegorria 2 metrora arte zabaldu baita eta bidegorriaren babesa finkatu, babesgune zolatuaren bidez bidegurutze guztietan; hobekuntzak ere oinezkoen mugikortasunean, beste espazio batzuk txertatu baitira, hala nola Pio XII.eko 15eko aparkatze-poltsaren sarreran edo Pintor Asenjo kalekoaren sarreran, bertan espaloi jarraitua egin baita, edo oinez ibiltzeko baldintzak hobetu, egonleku eta itzalgune berriak ezarriz; Iturrama kaleko bidegurutzean, adibidez

### BELOSOKO IBILBIDEA OINEZKOENDAKO ETA BIZIKLETENDAKO

- **Egoera:** obra-amaiera 2025ean aurreikusia
- **Obra-zuzendaritza:** DH Proyectos de Ingeniería SLP
- **Obra-zuzendaritzako ordainsariak:** 7.740 euro
- **Eraikuntza-enpresa:** Construcciones Oses.

- **Aurrekontu zenbatetsia, guztira:** 4.033.332,93 euro
- **Dirulaguntza eta diruz lagundutako zenbatekoa:** PRTR NEXT GEN. EU 3.186.333,01 euro
- **2024an inbertitutako aurrekontua:** 3.655.602,88 euro

Honatx Iruña eta Burlata Belosoko aldapatik lotzeko oinezkoendako eta bizikletendako ibilbidea egiteko proiektuaren nondik norakoa:

- Bi norabideko bidegorri bat egitea, galtzadatik bereizia, 1.188 metroko luzerakoa.
- Bi metro baino gehiagoko zabalera duen hegal bat eraikitzea, ezpondari eusteko egungo hormaren gainean.
- Ibilgailuen zirkulazio-erreien kopurua mantendu da, baina erdibitzailea murriztuta.

Proiektuak, gainera, ingurumena hobetzeko hobekuntzak aurreikusi ditu Belosoko aldapako igarobide jasangarriko ingurunea birnaturalizatzeko, eta ingurumen eta paisaia arloko neurriak ere hartuko dira, Iruña eta Burlata lotzen dituen oinezkoendako eta bizikletendako ibilbidea jartzeko espaloiaren zabaltzea konpentsatze aldera.

Belosoko aldaparen ondoko zuhaitz-bidean apaindura-balio handiko 112 zuhaitz berri landatu dituzte, hala nola Prunus serrulata amanogawa: zuhaitz handiagoekin batera landatu dituzte, besteak beste Gingko biloba eta Freeman astigarrarekin batera. Gingko bilobek 5 metro baino gehiagoko altuera izan dezakete, eta Freeman astigarrek, ia 20 metrokoa. Bi familietako zuhaitzak dagoeneko prestatuta dauden 112 txorkoetan landatuko dituzte, eta horri esker, itzalpeko ibilbide bat sortuko da galtzada osoan.

Planaren baitan ere erripan hazten diren espezie inbaditzaileak garbitu eta kontrolatu dira. Hasieran landatu eta ureztatu ondoren, monitorizazioa bat eginen da urtero, landareak errotu direla egiaztatzeko. Lan horiei guztiei amaiera emateko, habia-kutxak jarriko dituzte, gune horretako biodibertsitatea aberasteko.

### BERRURBANIZAZIOA ETA SAREEN BERRIKUNTZA TXANTREAKO AUZOAN (IV. FASEA)

- **Egoera:** obra-amaiera 2025ean aurreikusia
- **PROIEKTUA IDATZI DUEN TALDEA:** udal-langileak
- **Eraikuntza-enpresa:** ABLE CONSTRUCCIONES MARIEZCURRENA S.L. y EXCAVACIONES FERMÍN OSÉS S.L.
- **Aurrekontu zenbatetsia, guztira:** 6.566.794,16
    - **Udala** 5.153.412,97
    - **Iruñerriko Mankomunitatea 1**.413.381,19
- **Dirulaguntza eta diruz lagundutako zenbatekoa:** 1.675.792,30
    - **2023an ordaindua** 1.089.265,00
    - **205ean ordaintzekoa** 586.527,30
- **2024an inbertitutako aurrekontua:** 480.338,69

Txantrea auzoa 1950eko hamarkadaren hasiera sortu zen. Azkenaldi honetan, hainbat jarduketa egin dira, ingurua hondatu samarra baitago eta ez da egokia, erabiltzearen eta antzinatasunaren ondorioz. Obaren bidez, inguru osoko sareak berrituko dira eta, gainera, Artaxoa, Caseda, Cintruénigo, Etxalar, Etxarri Aranatz kaleak eta Esprontzedako zeharkalea eraldatu eta oinezkoek lehentasuna izanen dute, bizilagunek aparkatzen ahalko dutela. Asmo horrekin eta espazioaren kalitatea hobetzeko eta trafikoa baretzea eragiteko (beharrezkoa baita), kale-bidegurutzeak plataforma bakarrean proiektatu dira, espaloiak zabalduta eta biraketa txikiak sortuta, kaleen linealtasun luzea ekialde-mendebalde noranzkoan hausteko. Halaber, Ezkaba, San Kristobal, Erloju plazan eta Euskararen plazan esku hartu da, espazio publikoa hobetzeko hainbat lanen bidez.

## KULTUR ZENTROAK

### BERRIKUNTZA ZIUDADELAKO MISTOEN ERAIKINAREN IRISGARRITASUNERAKO

- **Egoera:** amaitua
- **PROIEKTUA IDATZI DUEN TALDEA:** udal-langileak
- **Eraikuntza-enpresa:** CONSTRUCCIONES LEACHE, S.L.
- **Obraren aurrekontua:** 175.246,04 euro
- **Dirulaguntza eta diruz lagundutako zenbatekoa:** Nafarroako Gobernua-Tokiko Inbertsio Plana, 8/2022 FL, martxoaren 22koa, 85.013,80 (% 43,66).

Mistoen eraikina bizigai-biltegi eta upategi zaharra da, XVII. Mendearen amaieran Ziudadelaren barnealde pentagonalean eraikia. 1971tik hona, erakusketa-aretoa da, eta hiriko erreferentziazko kultur-aretoetako bat da.

Obrei esker, eraikineko behe-solairura eta lehen solairura joateko oztopo arkitektonikoak kendu dira.

### BIGARREN ZABALGUNEKO CIVIVOXAREN ERAIKUNTZA

- **Egoera:** obra-amaiera 2025ean aurreikusia
- **Proiektua idatzi duen taldea:** OFS office for sustainability
- **Eraikuntza-enpresa:** CONSTRUCCIONES MARIEZCURRENA, S.L.
- **Aurrekontu zenbatetsia, guztira:** 9.707.551,29 euro
- **2024an inbertitutako aurrekontua:** 6.886.798,89 euro

Iruñeko Udalak, Civivox sarearen bidez, kultura eskuratzeko eskubide unibertsala bermatzea du xede, herritarrek hiriko kultur bizitzan sartu eta parte har dezaten sustatuz. Espazio horien eginkizun nagusia da gizabanakoa nahiz kultur eta gizarte-eragileak sustatzea kulturaren, partaidetzaren eta gizarte-harremanen bidez.

Zentroak kultura eta gizartea garatzeko ekipamendu erabilera anitzak dira eta topaketarako, prestakuntzarako, sorkuntzarako, erakusketarako eta informaziorako guneak jartzen dituzte herritarren eskura, haien ekintza-esparruen bitan balio eta interes kulturalak sustatzen laguntzeko. Horretarako, Iruñeko Udalak programazioa antolatzen du aldizka zentro horietan, hots, ikastaroak, lantegiak eta jarduera soziokulturalak; hitz batez, hiriko kultur programazioaren zatirik handiena.

II. Zabalguneak ez zegoen orain arte horrelako ekipamendurik; gainera, Civivox sareko ohiko jarduerak garatzeko guneez gain, 1.200m2-ko erakusketa-azalera dauka, hiru aretoetan banatuta, eta 400 jarleku dituen ekitaldi-areto handi bat ere bai.

## IKASTETXEAK

### SAN JORGE HLHIP, ITURRAMA HLHIP eta AMAIUR IKASTOLAKO JOSTALEKUAK BIRNATURALIZATZEA. 1. FASEA

- **Egoera:** amaitua
- **Proiektua idatzi duen taldea:** Fermín González Blanco, Estudio Eslava eta Tejada arquitectos
- **Eraikuntza-enpresa:** Lacunza Hermanos S.L.
- **Obraren aurrekontua:** 438.673,27 euro

Ikastetxeetako jostalekuak, haurrek jostatzen eta harremanetan sartzen ikasteko guneak izateaz gain, hiri-espazioak ere badira. Horrenbestez, XXI. Mendeko hirien beharretara egokitu behar dute eta haien erronka nagusietako bat klima-aldaketara egokitzea da. Hirigintza-ikuspegi horrek sare berde eta urdin batekin lotu nahi du hiri-azpiegitura, natur espazioetarako irisgarritasuna eskubide bermatua izan dadin, herritar guztien osasunari, ongizateari eta bizi-kalitateari onura ekarrita. Jostalekuen birnaturalizazioa berdeguneak demokratizatzearen aldeko apustua da, naturarako irisgarritasuna bermatuz eta hauspo berde txikiak auzo guztietan txertatuz, hiri osoan sarea bat sortuta.

Jolasguneetan elementu naturalak sartzea da lanen helburua, baina ez hori bakarrik: patioen diseinua eta funtzionamendua moldatu nahi dute, hainbat motatakoak sortu, ikastetxeen heziketa-helburuetara, helburu sozialetara eta ingurumenarekin lotutako helburuetara egokitzeko. Jostalekuak naturalizatzeaz gain, lanen bidez inklusiboagoak egin nahi dira, kanpo-espazioen erabilera dibertsifikatzea baita xedea, jolas librerako, egoteko eta solaserako espazio ugari sortuz, jolas arautuaren okupazio neurrigabea amaituz; gehienbat, kirolen inguruan egituratua baitago; futbolaren inguruan, bereziki. Baloiari lotutako dinamika hori gizarte- eta genero-egitura bat da, agur egun.

Prozesu hori guztiak baditu berariazko helburuak, ikuspegi ekologikoa, soziala eta pedagogikoa uztartzeko, hezkuntza- eta hiri-ingurunea eraldatze aldera.

## BERRIKUNTZAK IKASTETXEETAN

Udalerriko Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko gehienak duela hainbat hamarkada eraiki ziren eta hainbat premia dituzte berritzeko eta birgaitzeko. Lan horiei urtero ekiten zaie.

### HAUR HEZKUNTZAKO IKASGELETAKO ZOLADURAK ALDATZEA, BAI ETA ESTOREAK ERE, SAN FRANTZISKO IPn.

- **Egoera:** amaitua
- **PROIEKTUA IDATZI DUEN TALDEA:** udal-langileak
- **Eraikuntza-enpresa:** INNOMAT, S.L.
- **Aurrekontua, guztira:** 41.374,18 euro

### HAINBAT JARDUKETA SAN FRANTZISKO IKASTETXE PUBLIKOAN

- **Egoera:** amaitua
- **PROIEKTUA IDATZI DUEN TALDEA:** udal-langileak
- **Eraikuntza-enpresa:** AGUASER SUMINISTROS Y SERVICIOS S.L.
- **Aurrekontua, guztira:** 33.577,02 euro

### NICASIO LANDA HLHIPko GIMNASIOKO ESTALKIAREN AZTERKETA

- **Egoera:** amaitua
- **Txostengilea:** César García-Fresca Frías
- **Aurrekontua, guztira:** 2.541,00 euro

### NICASIO LANDA HLHIPKO KANPO ZURAJE BATZUK ALDATZEA

- **Egoera:** amaitua
- **PROIEKTUA IDATZI DUEN TALDEA:** udal-langileak
- **Eraikuntza-enpresa:** AGUASER SUMINISTROS Y SERVICIOS S.L.
- **Aurrekontua, guztira:** 46.709,63 euro

### HEGOALDE IKASTOLAKO KANPO ZURAJEAK ALDATZEA

- **Egoera:** amaitua
- **PROIEKTUA IDATZI DUEN TALDEA:** udal-langileak
- **Eraikuntza-enpresa:** ERKI CONSTRUCCIÓN SOSTENIBLE, S.L.
- **Aurrekontua, guztira:** 346.850,83 euro

## HAUR ESKOLAK

### DONIBANE HAUR ESKOLAREN BERRIKUNTZA

- **Egoera:** amaitua
- **PROIEKTUA IDATZI DUEN TALDEA:** udal-langileak
- **Eraikuntza-enpresa:** GUILLÉN, OBRAS Y PROYECTOS, S.L.,
- **Aurrekontua, guztira:** 2.875.256,6 euro
- **2024an inbertitutako aurrekontua:** 2.196.493,37 euro
- **Dirulaguntza eta diruz lagundutako zenbatekoa:** Next funtsak, 780.000 euro

Ez dakigu noiz eraiki zen zehazki Donibaneko Haur Eskola, baina agirietan gutxienez 1982tik hona dago jasoa.

Hasierako eskola eraberritu behar izan da, orduz geroztik onetsitako araudi aplikagarriak betetzeko eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak xede horretarako egindako errekerimenduari erantzuteko.

## KIROL-INSTALAZIOAK

### BUZTINTXURIKO KIROLDEGIA ERAIKITZEA

- **Egoera:** amaitua
- **Proiektua idatzi duen taldea:** OM arquitectura y urbanismo + NAVEN ingenieros
- **Eraikuntza-enpresa:** GUILLEN OBRAS Y PROYECTOS S.L.
- **Aurrekontua, guztira:** 8.518.487,36 euro
- **2024an inbertitutako aurrekontua:** 2.258.426,69 euro

Buztintxuriko kiroldegia kirol-instalazio berria da auzorako eta hirirako. Guztira, 4.096 metro karratu erabilgarri dira, behe-solairuan eta lehen solairuan banatuta. Pista nagusia 53x32x9 metrokoa da, eta paseo-lasterketa leunerako zirkuitu bat du inguruz inguru, 2 metrokoa zabaleran eta 180 metrokoa zirkuitu zirkularrean. Behe-solairuan badira erabilera anitzeko 2 areto, bai eta aldagelak eta kirol-ekipamendua gordetzeko biltegiak ere. Harmailak finkoak dira eta 288 jarleku ditu.

## ETXEBIZITZAK

### SAN PEDRO MULTZOKO 11 eta 12. ETXEBIZITZAK BERRITZEA – OPEN LAB PROIEKTUA

- **Egoera:** amaitua
- **PROIEKTUA IDATZI DUEN TALDEA:** udal-langileak
- **Eraikuntza-enpresa:** CONSTRUCCIONES JOSE MIGUEL IBAÑEZ SLU
- **Aurrekontua, guztira:** 2.247.205,52 €
- **Dirulaguntza eta diruz lagundutako zenbatekoa:** Horizonte 2020 oPEN Lab: Europar Batasunaren Ikerketa eta Berrikuntzako Programa. Diruz lagundutako zenbatekoa zehazteko
- **2024an inbertitutako aurrekontua:** 1.748.186,63 €

San Pedro multzoko 11 eta 12 etxebizitzen berrikuntza apustu berritzailea da etxebizitza publikoaren birgaitzean. Europako Horizon 2020 - oPEN Lab estrategian dago txertatua, Arrotxapea Espainiako lehenetariko auzo bat izan dadin energia positiboan, energia-eredu eskalagarri eta errepikagarria ezartzeko.

San Pedro Multzoak 200 udal-etxebizitza baino gehiago ditu; beraz, proiektua ernamuina da etorkizunean birgaitzeak eskala handian egiteko. Hiria berroneratzeko estrategiarekin dator bat, auzoko eraginkortasun energetikoa, irisgarritasuna eta gizarte-kohesioa hobetzeko, eta oinarri errepikagarriak ezarrita Iruñerako eta beste hiri batzuetarako. Hiri-ikuspuntutik, auzoaren identitatea indartzen du, bai eta energia-trantsiziorako udal-estrategia ere, eta bat dator isuriak murrizteko eta hiri jasangarriagoetarako Europako jarraibideekin. Frogatzen du etxebizitza publikoa sistema global jasangarrietan txerta daitekeela, klimaren inguruko erronkekin konprometitua dagoen hiri berritzailearen alde eginik.

Proiektua eraikina birgaitze hutsaz haratago doa eta eredu sozialki berritzailea bultzatzen du. 4 etxebizitzatan, Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleak biziko dira, gizarte zientzien eta ingeniaritza adarretakoak. Ereduak elkarri laguntzeko dinamikak sustatzen ditu, eta aukera ematen du birgaitzearen, irisgarritasunaren eta autonomia pertsonalaren arteko lotura aztertzeko. Bizilagunek, gainera, teknologia domotikoen eta energetikoen eragina ebaluatzen dute, funtsezko datuak emanda etorkizuneko ezarpenetarako. Bizikidetzak etxebizitzaren eraginkortasuna hobetzeaz gain, ikaskuntzarako eta

saiakuntza sozialerako ingurune bat sortzen du, teknologiaren, konfortaren eta ongizatearen arteko elkarrekintzak aztertzeko. Profilen aniztasunak funtsezko azterketa ahalbidetzen du esku-hartzea eta errepikagarria ote den ebaluatzeko.

## MEMORIA ETA ONDAREA

### FUSILATUTAKO ETA IDENTIFIKATU GABEKO PERTSONA DESOBIRATUEN GORPUZKINEN PANTEOIA HANDITZEA

- **Egoera:** obra-amaiera 2025ean aurreikusia
- **PROIEKTUA IDATZI DUEN TALDEA:** udal-langileak
- **Eraikuntza-enpresa:** AGUASER SUMINISTROS Y SERVICIOS SL
- **Aurrekontu zenbatetsia, guztira:** 278.106,40
    - **Udala** 153.106,40
    - **Nafarroako Gobernua** 125.000,00
- **2024an inbertitutako aurrekontua:** 150.000,00

Elkarte memorialisten eskaera historikoetako bat izan da biktimak aitortu eta gogoratzeko gune bat izatea, eta 33/2013 Foru Legean, azaroaren 26koan, dagoeneko jaso zen horrelako gune bat sortzea, 1936ko estatu-kolpe militarraren ondoren erail zituzten eta errepresioa jasan zuten nafarrak aitortu eta erreparazio morala bultzatzeko.
Lan horiei esker, panteoiak biktima mota gehiago hartzen ahalko ditu: Nafarroako hobiren batean aurkitutako gorpuzkiak, identifikatu badira ere familiari eman ezin izan zaizkionak edo familiak hartu ezin izan dituenak ere sartzen ahalko dira. Halaber, Iruñean bizi zirela fusilatutako eta dagoeneko identifikatutako biktimen gorpuzkiak ere hor bertan ehorzten ahalko dira familiak hala eskatzen badu. Eta azkenik, Espainiako hobiren batean aurkitutako Nafarroako biktimen gorpuzkiak ere hartzen ahalko ditu panteoiak, gorpuzkiak identifikatu badira baina familiari ezin izan badizkiote eman edo familiak ezin izan baditu hartu. Kasu horiek hasieran aurreikusitakoa osatzen dituzte: Gerra Zibilean edo frankismo garaian desagertu eta foru-araudiaren arabera desobiratutako biktimak, eta Nafarroako hobiren batean aurkitu baina identifikatu ezin izan direnak.

### ERREKOLETEN PLAZAKO KIOSKOA BERRITZEA

- **Egoera:** amaitua
- **Proiektua idatzi duen taldea:** Miguel Monreal Vidal
- **Eraikuntza-enpresa:** CONSTRUCCIONES LEACHE S.L
- **Aurrekontua, guztira:** 64.163,88
- **Dirulaguntza eta diruz lagundutako zenbatekoa:** NEXT GENERATION FUNTSAK, % 66,12 - 35.062,11

Errekoleten plazako kioskoa birgaitu da. Udala da haren jabea 2023tik hona eta ez du jarduerarik izan azken urteotan. Birgaitzearekin batera, orain turismo eta merkataritza arloko informazio-gunea da, pantailen bidezkoa, eta ez da beharrezkoa bertan arreta pertsonalik ematea. .

### HARRESIAK MANTENTZEKO LANAK

- **Egoera:** amaitua
- **Aurrekontua, guztira:** 750.000 euro
- **2024an inbertitutako aurrekontua:** 146.392,31

2020ko urriaz geroztik, Ziudadelako kanpoaldeko elementu harresitu guztietan jardun da. Harresi-ataletako eta bastioietako 11.600 m2-tan kendu da landaretza, kontramalkarretako eta rebellinetako 1.585 m2-tan; horrez gain, silarrien arteko 230 m2 juntura pikatu eta berrelkartu, eta erakusketa-gelatzat erabiltzen diren barnealdeko eraikinetako, guardia-gorputzeko eta ate isilen aurrealdeko landaretza ere kendu da.

## BESTE JARDUKETA BATZUK

### MERCADERES 11ko ARETOA BERRITZEA, MERKATARIEN ELKARTEAK ERABILTZEKO

- **Egoera:** amaitua
- **PROIEKTUA IDATZI DUEN TALDEA:** udal-langileak
- **Eraikuntza-enpresa:** BELATE SERVICIOS INTEGRALES S.L.,
- **Aurrekontua, guztira:** 188.331,02
- **Dirulaguntza eta diruz lagundutako zenbatekoa:** % 100 Nafarroako Gobernuaren LEKUKO proiektua 7.180,03 NEXT GENERATION funtsak 131.150,99
- **2024an inbertitutako aurrekontua:** 188.217,16

### UDALTZAINGOAREN ERAIKINEKO SARRERA BERRITZEA

- **Egoera:** obra-amaiera 2025ean aurreikusia
- **PROIEKTUA IDATZI DUEN TALDEA:** udal-langileak
- **Eraikuntza-enpresa:** ERKI CONSTRUCCION SOSTENIBLE SL.
- **Aurrekontu zenbatetsia, guztira:** 68.551,65
- **2024an inbertitutako aurrekontua:** 34.277,11

### APARKATZE-POLTSA BERRIA NAFARROAKO UNIBERTSITATE-OSPITALEAN

- **Egoera:** amaitua
- **PROIEKTUA IDATZI DUEN TALDEA:** udal-langileak
- **Eraikuntza-enpresa:** ABLE Urbanismo Táctico Pamplona.
- **Aurrekontua, guztira:** 204.557,64

### GARBIKETA AUTOMATIKOKO KOMUNA JARTZEA JULIO CARO BAROJAN

- **Egoera:** amaitua
- **PROIEKTUA IDATZI DUEN TALDEA:** udal-langileak
- **Eraikuntza-enpresa:** Lacunza Hermanos S.L.
- **Aurrekontua, guztira:** 32.334,18 euro
- **2024an inbertitutako aurrekontua:** 31.387,53 euro

### IRUÑERRIKO HIRI-GARRAIOAREN GERALEKUAK AURRERATZEA

- **Egoera:** amaitua
- **Proiektua idatzi duen taldea:** Udal-langileak.
- **Proiektua idazteko eta obra-zuzendaritzako ordainsariak:** Udal-langileak.
- **Eraikuntza-enpresa:** ABLE Urbanismo Táctico Pamplona.
- **Obraren aurrekontua:** 144.830,97 euros

### HAUR ETA HELDUENDAKO BIZIESKOLA

- **2024an inbertitutako aurrekontua:** 81.619,84 euro

### ESKOLA BIDEAK AMAIUR, PATXI LARRAINZAR ETA BUZTINTXURI IKASTETXEETAN

- **Egoera:** amaitua
- **Eraikuntza-enpresa:** Goyo Señalizaciones, S.L.
- **Obraren aurrekontua:** 61.569,70 €

Udalaren Eskola Bide Seguruen udal proiektuak eskolara oinez, patinetez edo bizikletaz haur gehiago joan daitezen sustatu nahi du, horrela txikitatik barnera ditzaten ohitura osasungarriak. Hala ere, ekimen horren helburuak ez dira horretara mugatzen. Oinez ibiltzeko ibilbideak bultzatuz, ibilgailuen zirkulazioa ere murriztu egiten da ikastetxe-inguruetan, karbono dioxido isuriak murriztu eta ikastetxeetako sarbideetan auto-ilarak eta arrisku-egoerak ezabatzen dira. Eta, gainera, autonomia eta erantzukizuna bultzatzen da, eta, aldi berean, harreman sozialak eta adiskidetasunezkoak sortzen dira ibilbidea elkarrekin egiten duten haurren artean. Horrek adiskidetasuna eta autonomia sustatzen ditu, eta ikasleen egoera fisikoa eta psikikoa hobetzen ditu.

Eskolarako bide seguruak abian jartzeko erabakia hartzeko harreman estua izaten da hezkuntza-komunitatearekin. Izan ere, ikastetxeak berak hartu behar du erabakia, haren inplikaziorik gabe ezinezkoa baita eskola-bideek arrakasta izatea. Beraz, haiek dira ekimenari bultzada ematen dioten “talde eragileak”. Beharra antzeman eta lankidetza planteatuta, ikastetxe bakoitzaren beharretara hobekien egokitzen diren bideak aztertzen dira. Ibilbide horiek seguruak izan behar dute oinezkoendako, oinez ibiltzeko leku atseginak, eta ikastetxera ibilbide zuzenena egin.

### OINEZ DABILTZANEN HIRIEN SAREAREN BILTZARRA.

- **Aurrekontua, guztira:** 15.409,77 euro
- **2024an inbertitutako aurrekontua:** 15.409,77 euro

Bizi, biziberritu, elkarrekin bizi, ongi bizi goiburu harturik, Oinez Dabiltzanen Hirien XI. Biltzarra egin zen Iruñean, irailaren 28an, larunbatarekin. Hiru egunez hitzaldiak, txostenak, solasaldiak eta bisita gidatuak egin ziren, hirietako kaleek eta plazek bizitasun-espazio gisa eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko duten garrantzia aldarrikatzeko, bai eta horiek optimizatzeari begira espazioak berreskuratzeak duen garrantzia ere.

### MUGIKORTASUNAREN ASTEA

- **Aurrekontua, guztira:** 32.188,49 €
- **2024an inbertitutako aurrekontua:** 32.188,49 €

Europako Mugikortasunaren Astea irailaren 16tik 22ra egin zen, eta hainbat aukera baliatzearen alde egin zuen joan-etorriak egiteko, mugikortasun jasangarria sustatze aldera, eta espazio publiko partekatuaz hausnartu zen. Konbinatu eta mugi zaitez lelopean, Udalak askotariko jarduera-programa bat eskaini zuen urrira bitartean, energia aurreztu, berotegi-efektuko gasen isurpena murriztu eta hiriko haizearen kalitateari eta bizi-kalitateari eusteko asmoz.

# 7.2
# Hiri-kontserbazioa

2024an, Hiri Kontserbazioko zerbitzuek 6.100 abisuri baino gehiagori eta 400 eskabideri eman zieten arreta. Horrek esan nahi du harrera-, ikuskapen-, jarraipen- eta erantzun-lanak egin direla, eta, egokitzat jotzen den kasuetan, jarduketak egin behar direla edo zerbitzuaren programazioan ere sartu behar direla.

Gainera, Herritarren Segurtasuneko alorrak baimendutako 196 jarduera eta ekitaldi kudeatu eta gainbegiratu ziren eremu publikoan, hirian.

## 7.2.1 Garbiteka zerbitua

- Urtea hasteko, ikusten da guztiz normaldu dela herritarren jarduera, eguneroko bide-garbiketak urteberria ospatzeko jai-inguruneetan bildutako hondakin kopuruari erreparatuz agerikoa den bezala.

- 2023ko hostoa biltzeko kanpaina zertxobait atzeratu da, azaroan hasi baitzen jarduera nabarmena izaten; gero, azaro bukaeran eta abendu hasieran azkartu zen, eurien eta hotzaren ondorioz. Kanpainan, ekorketa mistoko zerbitzuak sendotu dira (hosto-haizagailua + arrastelua + erratz-makina) 2024ko kanpaina, udazkenean hasitakoa, azaroan hasi zen, berariazko bitartekoak erabiliz, berriz ere ekorketa mistoa baliatuz, gure ustez eraginkorragoa baita.

- Ontziak eta plastikoa biltzeko paperontzi horiak jartzeari dagokienez, aurten Ermitagaña auzoan paratu dira, eta Mendebaldea eta Donibaneko alderik zaharrena bukatu.

- Sanferminak eta Eguberriak etorri baino lehen, pintaketa bertikalak ezabatzeko kanpainak egin dira Alde Zaharrean eta I. Zabalguneko zati txiki batean.

- Aurreko urteetan bezala, sanferminetan errespetu handia erakutsi diete herritarrek garbiketa-zerbitzuko langileei. Nabarmendu behar da pintaketa asko egin eta pankarta ugari jarri zirela jaien aurreko eta hasierako egunetan, eta pixkanaka kendu zirela. Nabarmentzekoa da, halaber, zabor eta hondakin kopuru handi-handia zegoela hiriko festa-eremuan eta zabalguneetan, lehen asteburuan (uztailak 6 eta 7). Horretarako, makina eta langile gehiago aritu ziren lanean eta, azkenetan, baina aurreikusitako jarduera guztiak normaltasunez egin ziren. Galtzadako 9 erratz-makina eta espaloiko 11 ere aritu ziren lanean. Ahaleginoi esker, garbiketa goizeko 7ak baino lehen egin zen astez entzierroaren ibilbidean eta 7:30ak baino lehen Gazteluko plazan. Aurreko urteetan bezala, eskerrak eman behar zaizkio poliziari segurtasun-hesiak jartzegatik entzierroaren ibilbidea garbitzen zen bitartean.

- Urte osoko “gune beltz” bat nabarmendu da, Burguen plaza, askotan Alde Zaharreko garbiketa hankaz gora jartzen duelako. Gaueko jarduerarekin, ia kontrolik gabe gelditu da eremu publikoan, terrazetan, eskaileretan eta gainerakoetan sortu den zikinkeria; horrek lana atzeratzen du, eta ez daiteke lehen orduan egin, are gehiago eremu horretara garbiketa-ibilgailuek sartzerik ez dutenean. Arkupean egunero garbitu dira, eskailerak bezala, ura botatzen da plazara ostiral, larunbat eta igandeetan, eskatu ahala, baina eskuz egin beharra dago.

- Auzoko jaiak gero eta handiagoak dira bai egunetan bai kokalekuetan; horrek berarekin dakar garbiketa-bitarteko gehiago baliatu beharra egun horietako garbiketa egiteko.

- Iruñerriko Mankomunitateak hondakinak biltzeko sistema berria jarri zuen urrian Landabengo industrialdean, edukiontziak eremu publikotik kenduta eta enpresetako hondakin motak “atez ate” bilduta. Landabenen, garbiketa hobetu da, baina ikusten da lehenago leku horretan legez kontra botatzen ziren obra-hondarrak eta hondakinak ugaritzen ari direla Agustinoen industrialdean, Artikaberriko bideetan eta inguruetan.

- Urtean zehar ikusi da zikinkeria handia dagoela tabernetako terrazetan; bereziki, itxitura fisikorik ez dagoenean, hau da, terraza desmuntagarrietan eta upelak eta aulkian dauden tokietan.

- Gero eta poltsa gehiago uzten dira edukiontzi-guneetan eta, gainera, tamaina handiko hondakinak uzten dira. Iaz esandakoa errepikatuko dugu; gure iritziz, edukiontzia irekitzeko sistemaren nolabaiteko deserotasunarekin batera, hori zor zaio edukiontzien edukiera txikiagoari; ostalaritza-establezimendu eta terraza gehiago izateari, bai eta praxis txar horren inpunitateari ere. Hori igandeetan areagotzen da, ez baitago bilketa-zerbitzurik eta edukiontzi asko kolapsatzen direlako.

- Udalak espaloietarako erratz-makina berri bat erosi du.

- 202aan, guztira, 132 bidaia egin dira material trinkotua Gongorako zabortegira eramateko, eta hartan, 1.255,04 TN isuri dira.

- Horrez gain, 010 zenbakiaren eta eskabideen abisuak gehitu behar dira.

## 7.2.2 Berdeguneen zerbiruta

- Parke historikoetako berdeguneetan zuzenean mantentze-lanak kudeatzeko eta egiteko lanak: Taconera parkea eta Media Luna parkea.

- Miluzeko udal mintegiaren zuzeneko kudeaketa, hiriko berdeguneak mantentzeko erabili diren hornidurak koordinatzeko eta material begetala mintegian lantzeko. Mintegiaren instalazioak mantentzea.

- Zuhaitzak mantentzeko lanak, hiriko zuhaitzak mantentzeko udal brigadaren bidez. Zuhaitz arriskutsuak kudeatzeko lanak eta zuhaitzak mantentzeko lan arruntak.

- Udalaren berdeguneak mantentzeko lanak gainbegiratzea, mantentze-lanak egiteko hiru kanpo-kontratek egindakoak. Esleitutako zenbatekoa: 5.717.339,94 € (BEZa barne).

- Beste udal alor batzuek eta kanpo-kontratek egindako lanak ikuskatzea, mantentzen diren berdeguneei eragiten dieten eraikuntza- eta urbanizazio-lanei dagozkienak.

- Hiriko iturri apaingarriak mantendu eta hobetzeko lanak.

- Mantentze-lanen koordinazioa egin da, Iruñeko Udalaren gizarte-enpleguko ibai eta mintegiko lantaldearekin eta Arantzadiko Lantegi Eskolarekin, ibai-bazterretako berdeguneak mantentzeko.

- 110 balorazio-txosten egin dira hirian egitekoak diren ekitaldietarako, mantentzen diren berdeguneei eragiten ahal ote dieten ikusteko.

- Hirian gauzatu diren urbanizazio-proiektuen eta obren gaineko 26 txosten prestatu dira, mantentzen diren berdeguneei eragiten dietelako, Proiektu Estrategikoetako eta Mugikortasuneko Alorrak eta Hirigintzako Gerentziak sustatuak. .

- Obra-lizentziekin eta irekiera-lizentziekin lotutako 22 txosten prestatu dira, mantentzen diren berdeguneei eragiten dietelako.

- 65 txosten egin dira Udal Ondare Zerbitzuak kalteen gainean egindako balorazio eskaerei buruz.

- Berdeguneen Zerbitzuko Ikuskaritzak 010 deien erantzunak eta jasotako eskabideak berrikusi eta prestatu ditu.

- Yamaguchi parkeko aintziraren uholde-eremua aldatzeko obrak. Lurra kentzea, uholde-eremuaren mugak eta aintzira erdiguneko uhartea aldatuz, Hiri Altzarietako Zerbitzuak zaldain berriak paratu baino lehen. 14.872,82 € (BEZa barne).

- Zaldain berriak Yamaguchi parkeko aintziraren uholde-eremuan paratzeko obra, Hiri Altzarietako Zerbitzuarekin koordinaturik. Zuhaixka eta landare bizikor berriak erdiguneko uhartean landatzea: 10.281,98 € (BEZa barne).

- Yamaguchi parkeko gortina-iturria konpondu eta funtzionamenduan jartzea. Ingurunea lehengoratzea. Bultzada hidraulikoko sistema konpontzea, ihesak aurkitu eta konpontzea, aintzirako zola iragazgaiztea, instalazioko bi urguneen bolumena murriztea, egitura margotu eta hobetzea, inguruneko altzariak margotzea. 64.541,82 € (BEZa barne).

- Hobekuntzak Galaxiaren lorategian. Barne bideen egokitzapena eta zoladura berria erabilera eta irisgarritasuna hobetzeko, punpa-sistema berria konpondu eta martxan jartzeko eta erdiguneko iturria birzirkulatzeko. 48.759,10 € (BEZa barne).

- Martxan jartzea: Divertimentos Mendillorri. Elizako kontzejua kaleko berdegunearen erdialdeko iturri-ubide apaingarria konpondu eta martxan jartzea. Ihesak kopondu, sakon garbitu, aktibatu eta funtzionamenduan jartzea. 2.490,93 € (BEZa barne).

- Trinitariozko Tren Parkerako sarbideetako berdeguneak hobetzea. Egungo zorua kentzea, substratu berria eramatea eta landaketa berriak egitea. Ureztapen-sistema jartzea, Tren Parkerako sarbide-eremuaren paisaia eta erosotasuna hobetzeko. 30.398,36 € (BEZa barne).

- Landare-ontziak eta jarlekuak paratzea Queiles Errekaren kalean, Obretako Zerbitzuak espaloiak eta zebra-bideak egokitu eta hobetzeko lanak egin ondoren. Corten altzairuzko landare-ontzietako egiturak fabrikatu eta paratzea, bai eta zur teknikoko jarlekuak, landaketak eta ureztapen-sistemak ere. 24.767,44 € (BEZa barne).

- Mendaur mendia kaleko erdibitzaileak hobetzea. Dagoen lurra hobetu eta medeatu, elementu berriak landatu eta tantaz tantako ureztapen-sistema berria jartzea. Udal Mintegitik datorren landare xehatuak ekartzea. 18.533,56 € (BEZa barne).

- Eguesibar kaleko erdibitzailea hobetzea. Lurra hobetu eta medeatu, elementu berriak landatu eta tantaz tantako ureztapen-sistema berria jartzea. Udal Mintegitik datorren landare xehatuak ekartzea. 19.293,16 € (BEZa barne).

- Katalunia etorbideko erdibitzailea hobetzea. Lurra hobetu eta medeatzea, zuhaixka berriak landatzea diseinu berriarekin bat, eta tantaz tantako ureztapen-sistema berria jartzea. Udal Mintegitik datorren landare xehatuak ekartzea eta disuasio-hesi bat paratzea aldi baterako. 48.199,60 € (BEZa barne).

- Zuhaitzak Landabengo bidegorrian landatzea. Zuhaitzak landatzeko lanak, Sanduzelai - Landabeno bidegorria hobetzeko, bidegorri berriaren trazatuarekin bat, txorko berrietan landatutako zuhaitz berriekin. 12.652,04 € (BEZa barne).

- Zuhaitzak landatu eta drainatze jasangarriko hiri-sistemak jartzea Etxabakoitzen eta Urdanoz Multzoan. Obretako Zerbitzuak Urdanoz Multzoan espaloiak eta aparkaleku-eremuak hobetzeko lanak egin ondoren, zuhaitzak landatu eta sortu den drainatze jasangarriko hiri-sistema lorategi bihurtu da. 2.611,33 € (BEZa barne).

- Zuhaitzak San Joan Bosco plazan landatzea. Zuhaitz berriak Obretako Zerbitzuak sortu dituen kokaleku berrietan landatu dira, kaleetako espaloiak eta zebra-bideak hobetu eta handitzeko lanetan. Guztira bederatzi zuhaitz berri landatu dira. 4.211,71 € (BEZa barne).

- Sasien hautazko garbiketa, hondakinak kentzea eta gaizki dauden zuhaitzak botatzea Curtidores aldeko ezpondetan. 10.655,26 (BEZa barne).

- Monjardin kaleko erdibitzailea egokitzea. 1. Fasea. Lurzorua hobetzea, zuhaitzak landatzea eta ureztapen-sistema berritzea. 6.399,45 € (BEZa barne).

- Berdegune berriak Taconera parkean - Vistabella parkean sortzea. Vistabella parkeko barne bide berria egiteko obrekin koordinaturik, parterre berriak diseinatu eta sortu dira Taconera eta Vistabella parkeak elkartzen diren inguruan. Vistabellako orubean zurezko langetekin egindako txorko goratuaren ordez, txorko babesgarri berria jarri da, gabioiekin egina, goialdean zur teknikoa daramana, jarleku gisa. Aurreko guztia Berdeguneetako Zerbitzuko langileek egin zuten. Horniduretan eta materialetan, guztira, 28.150,06 euroko inbertsioa egin da (BEZa barne).

- Otsagabia kaleko lorategia hobetzea. Erabat berritu da Otsagabia kalean Soldadurako Lantegi Eskolaren parean kokaturiko berdegunea. eremu hondatua izatetik lorategi-egonleku izatera pasatu da. Lurra hobetu, ureztapen-sistema egokitu, zuhaitzak landatu eta barne bide bat sortu da. Altzarietako Zerbitzuarekin koordinaturik, jarleku berriak jarri dira, eta Soldadurako Lantegi Eskolarekin, corten altzairuzko ertzak egin eta paratzea sortu diren parterre berrietan. 14.272,12 € (BEZa barne).

- Taconeran Vista Bellako lorategien bidez sartzeko bidea zolatu da. Vista Bella parkean barne bide bat sortzeko txosten tekniko baloratua prestatu eta obra gauzatu da, inguruaren irisgarritasunik eza moldatzeko. Obrak Obretako Zerbitzuaren Esparru Akordioaren bidez gauzatu dira, guztira 212.704,73 euroko inbertsioa eraginda (BEZa barne).

- Landaketa-guneen hobekuntza eta egokitzapena, Gipuzkoako etorbideak zuhaitzak jartzeko. Zuhaitz-errei bat egin da Santos Ochandategui eta Santa Luzia kaleen artean, zuhaitzak behar bezalako baldintzetan landatzeko. Hainbat lan dira, hala nola zoladura irekitzea, sakon hondeatu eta ingurua urbanizatzeko obretan erabilitako zoru txarra kentzea, zoru berria ekartzea, drainatze-sistema sortzea, ureztapen-sistema jartzea, azaletik zolatzea eta zuhaitzak, zuhaixkak eta landare bizikorrak landatzea. Gauzapen kostua 222.694,56 € da (BEZa barne).

- Erdibitzaile zolatua aldatu eta berdegune natural berria da, Blas de la Serna kalean. Txosten tekniko baloratua prestatu eta lanak egin dira, hots, zoladura erabat kentzea, hondeatu eta egiturazko zoru berria ekartzea, drainatze-sistema sortzea euri-uren sareei lotua, zuhaitzak eta zuhaixkak landatzea, eta ureztapen-sistema jartzea. 252.519,62 € (BEZa barne).

- Arrotxapea auzoko Joakin Lizarraga plaza eta Garde kalea eraldatu eta berdegune berriak eta zuhaitzak landatzeko gune berriak sortzeko, zoladura handiegiko eta landaretzarik ez duten eremuetan. Lanak baliatzen dira eremuko drainatze guztia hobetzeko, berdeguneetan drainatze-sare berria sortuta (euri-urei lotuta), ureztapen-sistema berriak jarri eta zuhaitzak eta zuhaixkak landatu dira. 234.696,39 € (BEZa barne).

- Karlos III.a - Orreaga etorbidea eta Tafalla kalea merkataritza-ardatzeko berdeguneak hobetzea. (“Pamplona puede” merkataritza proiektua. 26. Neurria. ms_010000_2021_163). Zuhaixkaz eta garaiko lorez osatutako parterre berriak sortu dira Karlos III.eko eta Orreaga etorbideko berdeguneetan eta Tafalla kaleko landare-ontzien diseinua hobetu da. 47.976,50 € (BEZa barne).

- RUNA 2025 Planaren B6 ekintzako lanen proiektua idatzi eta gauzatu da: “Landaretza sendotzea Trinitarios parkeko ibia-eremuan”. Ibaiertzeko basotxo bat landatu da ibaiertzetik hurbil dagoen eremuetako batean inguru hori eraldatzeko eta naturalizatzeko, bai eta egungo mantentze-jarraibideak aldatzeko ere. 18.896,80 € (BEZa barne).

- RUNA 2025 Planaren B14 ekintzako lanen proiektua idatzi eta lanak kontratatu dira: “Hiri-hondakin solidoak garbitzea hiru ibaiek Iruña barnean egin duten ibilbide guztiak zehar eta gaizki dauden zuhaitzak bota eta bertatik eramatea”.103.844,51 € (BEZa barne

## 7.2.3 Obra zerbitua

### EREMU PUBLIKOA MANTENTZEKO LANAK

5 lantalde ari dira etengabe hiriko zoladurak mantentzeko-lanetan, 1.482.000 €-ko kostuarekin. Eremu publikoko espazio guztien kontserbazioa dute eginkizun nagusi (bai oinezkoendako espazioak bai ibilgailu motordunendako espazioak). Honatx lana nabarmenenak:

- Galtzadako zuloak berdintzeko lanak hiriko hainbat tokitan, bai eta premiazko hainbat lan ere, oinezko-eremuen erabiltzaileek arriskurik ez izateko: 326.000 €
- Arekak lurretan garbitzea: 32.000 € eta arekak erregularizatzea ongi drainatzeko: 8.000 €.
- Obrak-hondarrak edo legez kontrako isuriak edo bestelako isuriak garbitzea: 5000 €
- Neguko bideei dagozkien lanak: 8500 €

## INBERTSIOAK KONTSERBAZIO-KONTRATUAREN BARNEAN

Une jakin batzuetan, dela nabarmen hondatua dagoelako, dela hasieran mantentze-lan erraza denak espazioa hobetzea iradokitzen duelako, edo dela eremu publikoa bere bizitza erabilgarrira iritsi delako, inbertsioak behar dira, bizitza erabilgarria hobetzeko, aldatzeko edo luzatzeko, eta ikusmolde horretatik, hona hemen egindako inbertsio-lan nagusiak:

- Galtzadetako lanak, unean uneko hondoratzeak konpontzea, leku zehatzetako hoindatze konpondu eta hobetzea; nagusiki, bus geralekuetan: 288.000 €

- Espazioa irisgarritasun arloko araudira egokitzea, hobekuntzak oinezko-pasabideetan nagusiki (II. Zabalgunea eta Beloso auzoak). 44000 €

- Urdanoz Multzoko espaloiak birgaitzea: 200000 €

- Aralar kaleko eskultura-ingurunea hobetzea eta lan osagarriak: 14000 €

- Mendillorri auzoko lorategien drainatze-gaitasuna hobetzea: 53000 €

- Kaia kaleko pasabidea iragazgaizteko sistema birgaitzea: 74000 €

- Arantzadiko parkearen zati bat birgaitzea, Alemanes alderanzko zaldainaren sarbidean: 44000 €

## INBERTSIOAK KONTSERBAZIO-KONTRATURIK KANPO

- Taconeratik Discosako biribilgunerantz izandako ur-iragazpenak moldatzea: 31.000 €.

- Oinezko-pasabideen inguruneak hobetzea, espaloiak zabalduz eta espazioaren segurtasuna eta irisgarritasuna hobetuz Iturrama auzoko hainbat tokitan: 425.000 €.

- Oinezko-pasabideen inguruneak hobetzea, espaloiak zabalduz eta espazioaren segurtasuna eta irisgarritasuna hobetuz Donibane auzoko hainbat tokitan: 69.000 €.

- Autobus-geralekuen inguruneak hobetzea, espaloiak zabalduz eta espazioaren segurtasuna eta irisgarritasuna hobetuz Iturrama auzoko hainbat tokitan: 110.000 €.

- Autobus-geralekuen inguruneak hobetzea, espaloiak zabalduz eta espazioaren segurtasuna eta irisgarritasuna hobetuz Donibane auzoko hainbat tokitan: 30.000 €.

- Queiles Errekaren kaleko espaloiak zabaltzea, hiri-garraiorako sarbidea eta oinezkoen ibilbideak hobetuta, oinezko-pasabide berri baten bidez: 132.000 €.

- Elortz ibaiko hiru presa ezabatzea eta Urdanoz Multzoaren aldeko oinezkoen hiru zaldain zaharren arrastoak kentzea. 85.000 €.

- Proiektuak, txosten baloratuak eta laguntza teknikoak, zerbitzuaren lan batzuen kontrol kualitatibo, kuantitatibo eta segurtasunekoari lotutako obrak gauzatzeko: 44.500 €.
    - Galtzadetako zoladurak hobetzea, egungo zola sendotuz eta birgaituz:
    - Atarrabiako etorbidea: 121000 €
    - Barañaingo etorbidea eta bertako bidegorria: 222000 €
    - Zaragozako etorbidea: 186000 €
    - Foruen plaza: 196000 €
    - Eneko Aritza eta aldameneko aparkaleku-poltsak. 228000 €
    - Ezkirotz eta aldameneko aparkaleku-poltsak: 240000 €
    - San Joan Bosco eta Serafín Olave: 221000 €
    - Abejeras, bidegorria eta aldameneko aparkaleku-poltsa: 250000 €
    - Alfontso Borrokalaria eta aldameneko aparkaleku-poltsak: 152500 €
    - Azpilagañako ingurabidea. 85000 €
    - Oinezko-pasabide batzuk berriro zolatzea Arrotxapean eta Agoitz kalean: 76000 €

**BESTE ZERBITZU BATZUEK ETA/EDO ALORREK SUSTATURIKO INBERTSIOAK EDO BEHARRAK**

- Kabalgataren ibilera ahalbidetzeko arrapalak: 3000 €
- Barañaingo etorbideko hondoratzea konpontzea: 5000 €
- Zanga Manuel de Falla udal-eraikinerako: 3000 €
- Obra zibila, komun publikoetako hodietarako edo beste udal-hodi batzuk konpontzeko: 2000 €
- Obra zibila, Merkataritzako alorrak totemak jar ditzan: 29000 €
- Harea San Domingoko ukuiluetan zabaltzea sanferminetarako: 5500 €
- Sanferminei dagozkion beste lan batzuk, hala nola txorkoak aldi baterako estaltzea, entzierroko arketak soldatzea, behin-behineko arrapalak... 21000 €
- Kalte konponketa (hirugarrenek udal ondasunei eragindakoak): 3000 €
- Foruen plazako mastaren torlojuak egiaztatu eta zimenduak berrikustea: 7000 €
- Sagrado Corazón ikastetxearen eskola-ingurunea hobetzea, Agoitz Kalea eta Media Luna: 46500 €
- Doña María ikastetxearen eskola-ingurunea hobetzea, Odol-emaileen kalea: 48000 €
- Cardenal Ilundáin HLHIPren eskola-ingurenea hobetzea, Juan de Goyeneche kalea: 12000 €
- Juslarrochako Civivoxaren ingurune sentikorra hobetzea, Santa Nunila eta Santa Alodia kalea: 36500 €
- Materialak biltegiratzeko zelaia zolatzea Miluzen: 41500 €
- Arrapalak desgaitasuna dutenendako lekuetan egitea: 26000 €

Aurten, Zerbitzu zehatz honetan jasotako abisu eta eskabideen kudeaketa integrala egiteaz gain, udalari ez dagozkion 290 lizentzia ere kudeatu dira, zangak egiteko edo zoladurak kentzeko. Lizentzia horiek presakoak, laburtuak edo normalak izan daitezke, edo zoladurak aldatzekoak, bai ibiak egiteko lizentzia berriengatik, bai justifikatutako beste arrazoi batzuengatik. Kudeaketa horren barnean dago ez soilik lizentzia dokumentu bidez ematea, baizik eta, era berean, jarduteko lekua egiaztatu behar izatea, leku bakoitzaren berezko baldintzak ezarri ahal izateko. Ondoren, hirugarrenek egindako jardunaren jarraipena egiten da, eta lanak behar bezala amaitu direla egiaztatzeaz gain, behin berme-aldia igarota, lanak behar bezala funtzionatzen duela ere egiaztatzen da.

Era berean, hainbat txosten egin dira udal departamentuetarako; beraz, aldez aurretik gainbegiratu behar dira txosten horien xede izan daitezkeen espazioak edo dokumentuak. Honatx txostenak:

- Hainbat udal alorri egindako 40 txosten, haiek esku hartutako eremuko zolak etorkizunean kontserbatzeari lotutakoak (Hirigintzako Gerentzia, Hirigintzako Alorra).
- 10 txosten eremu publikoaren okupazioaz o haren gaineko jarduketaz, zangen lizentzien antzekoak, baina hainbat arrazoi direla medio, ez daude behartuak lizentzia eskatzera.
- 6 txosten ondareari egin zaizkio, nagusiki eremu publikoa okupatzeko eskabideen gainean, udal obren ondorioz.
- 68 txosten Ondareari egin zaizkio, kalteen eraginez Udalari egindako erreklamazioen ondorioz (B kalteak).
- 5 txosten Ondareari egin zaizkio, udal-jabetzan izaniko kalteen ondorioz Udalak hirugarrenei egindako erreklamazioengatik (A Kalteak).
- Herritarren Segurtasunari egindako txostenak, eremu publikoan egindako ekitaldi eta jarduera askotarikoen ondorioz.

## 7.2.4 Eraikinak Mantentzeko Zerbitua

- UDAL BULEGOETAKO GALDARAK ALDATZEA Kondentsazio-galdarez ordez gas bidezkoak jartzea udal bulegoetan, Auzo Unitateetakoak eta Gizarteratzeko Zentro Komunitarioetakoak. Zenbatekoak: 12.377,21 euro, BEZa barne.

- ABEJERASKO ARRAPALA AUTOMATIKOAK: Aldatzea eskudelak, arraste-kateak eta marruskadura-gurpilak eskudelaren trakziorako, ekipo eta materialen aldaketa programatuaren ondorioz. Zenbatekoa: 19.222,25 euro, BEZa barne.

- DESCALZOSKO IGOGAILUA: Plan inklinatuen gela barnealdeko sabai aizuna konpontzea, gortina-horma desmuntatuz barnera sartzeko. Zenbatekoa: 49.147,99 euro, BEZa barne.

- GALDERA-GELA BERRITZEA ELORRI I.P. - Mendillorri: Galdara-gela erabat berritu da, galderak, erregailuak, tximiniak eta landa-elementuak aldatuta, aerotermia-instalazioa barne ur bero sanitarioa (UBS) sortzeko. Zenbatekoa: 170.973,19 euro, BEZa barne.

- SAN FRANTZISKO IKASTETXEKO GALDERA-GELA BERRITZEA Galdara-gela erabat berritu da, galderak, erregailua, tximinia eta landa-elementuak aldatuta, eta gasa banatzeko eta zenbateko instalazioa jartzea, aerotermia-instalazioa barne ur bero sanitarioa (UBS) sortzeko, eraginkortasun energetikoa hobetze aldera. Zenbatekoa: 96.314,55 euro, BEZa barne.

- GALDARA-GELAK BERRITZEKO PROIEKTU TEKNIKOAK: Azterlana eta proiektuak gauzatzea udal eraikinetako galdara-gelak berritzeko (Mendigoiti El Lago I.P., San Juan de la Cadena I.P., Iturrama I.P. eta Iturramako ap. Babestuak) ondoko urteetan gauzatzeko. 31.518,49 euro, BEZa barne.

- TELEKUDEAKETARAKO SISTEMAK EZARTZEA. INSTALAZIO TERMIKOAK: Galdara-gelen urrutiko telekudeaketa sistemak diseinatu eta ezartzea eta berokuntza jartzea hainbat udal eraikinetan (Iturramako, Mendillorriko eta Sanduzelaiko Civivoxa; Mendigoiti eta Nicasio Landa I.P.; Landaben Lantegi Eskola). 118.559,34 euro, BEZa barne.

- LEGIONELLA KONTROLA - 487/2022 ED BERRIA Udal eraikin guztietan Legionella Kontrolatzeko Plan berriak prestatzea, eta bete beharreko protokoloak ezartzea, legionella prebenitzeko eta kontrolatzeko araudi berriaren arabera, 487/2022 EDrekin bat. Zenbatekoa: 16.014,83 euro, BEZa barne.

- ATE GOGOR BERRIAK - LEZKAIRUKO ZALDUKO IGOGAILUAREN SARRERA Sarbide ateak aldatzea, bai gelakoak, bai goitik eta behetik sartzekoak Lezkairuko Zalduko hiri-igogailuan, altzairu herdoilezinezko zurajea paratuz, igogailuaren izaera panoramikoari eragin gabe, etengabe egiten zaizkion bandalismoak eragozte aldera. Zenbatekoa: 20.532,28 euro, BEZa barne.

- EGUZKI-INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOA - ANIMALIAK ARTATZEKO ZENTROA Energia elektrikoa eguzki-atzitze fotovoltaikoaren bidez sortzeko instalazioa, 36 kwp potentziakoa, Animaliak Artatzeko Zentroan, bai eta konpainia banatzailearen sareari konektatzeko kudeaketa ere, udal eraikinetarako autokontsumo partekatua ezartze aldera. Zenbatekoa: 62.313,43 euro, BEZa barne.

- SARBIDEA ESTALI IBILGARRIAN - KONDESTABEL CIVIVOXA: Estalki bisitagarrian sarbide-eskailerak ezartzea Kondestable Eraikinean, babes eta segurtasun neurriak barne, eta estalki hori ondotik iragazgaiztea. Zenbatekoa: 6.681,41 € euro, BEZa barne.

- DESCALZOSKO HIRI-IGOGAILUA: 1. igogailuko motor guztia erosi eta aldatzea, Descalzosko hiri-igogailuetan. Zenbatekoa: 43.443,32 euro, BEZa barne.

- CLUB NATACION HIRI-IGOGAILUA: Club Natación klubeko hiri-igogailuko aldagailu eta motor guztia erosi eta aldatzea. Zenbatekoa: 12.905,26 € euro, BEZa barne.

## 7.2.5 Argiteria publikoko zerbitua

### IRUÑEKO ARGITERIA PUBLIKOKO INSTALAZIOAK MANTENDU ETA KONTSERBATZEKO LANEN KONTRATAZIOA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko ekainaren 24an hartutako erabakiz, Sociedad Española de Construcciones Eléctricas S.A. Enpresari esleitu zaio Iruñeko argiteria publikoko instalazioak mantendu eta kontserbatzeko lanen kontratua.

Kontratuak 3 urteko iraupena du, 2024ko abuztuaren 1etik 2027ko uztailaren 31ra arte; hortik aurrera, 2 urtez luzatzeko aukera dago.

Kontratuaren kostua 6.832.950 € da (BEZa barne).

### INBERTSIOAK

**Hadasa M-400 argiak VSAP lanparak kendu eta, haien ordez, Led teknologiako argiak jartzea Amaya kaleko merkataritza-ardatzean eta haren sarbideetan..**

Proiektuaren bidez, egun VSAP lanparaz hornitutako Hadasa M-400 argiak kendu eta, haien ordez, LED teknologiako argi eraginkorragoak eta prestazio hobeak ematen dituztenak jarri dira, ezarpen-eremu zehatz bakoitzeko beharretara egokituak bai potentzietan, bai optiketan. Schreder markako Izylum modeloko luminariak paratu dira.

Kaleotan jardun da: Amaya, Nafarroako Gorteak, Emilio Arrieta, Leire, Teobaldoak, Amaiurko Gaztelua, Iturralde y Suit, Erriberri eta Nafarroako Blanca plazan. Guztira, 92 luminaria aldatu dira 67.634,64 euroan.

Behar besteko dirulaguntza eman dute Next Generation EU funtsek obra guztia ordaintzeko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia planaren baitan.

**Argiteria publikoa Gazteluko plazan berritzeko proiektua**

Alde Zaharreko gainerako eremuetan gauzatu den antzeko soluzioa proposatu da “arrantzale” motako argien gainean, kit retrofit bat jarriz, egungo VSAP bloke optikoaren ordez LED teknologiako bloke berri bat paratzeko, egungo karkasa mantenduta, bai eta argien diseinu estetikoa ere, hots, San Andres gurutzeek eta San Ferminen makuluek eutsiak, galdaketaz eginak.

Guztira, 74 argi aldatu dira eta jarduketaren zenbatekoa 44.808, 42 € izan da.

**Argiteria publikoa Karlos III.a etorbidean berritzeko proiektua**

Gazteluko plazaren eta Nafarroako Gorteak kalearen arteko tartean, Alde Zaharrean gauzatu den antzeko irtenbidea proposatu da, kit retrofit bat jarriz, egungo VSAP bloke optikoaren ordez LED teknologiako bloke berri bat paratzeko, egungo karkasa mantenduta, bai eta argien diseinu estetikoa ere, hots, San Andres gurutzeek eutsiak eta galdaketaz eginak. 42 argi aldatu dira.

Nafarroako Gorteak kalearen eta Askatasun plazaren arteko tartean, ATP Metrópoli markako 149 LED argi jarri dira. LED teknologiako argiek kaleak argitzeko berez dituzten ezaugarriez gain, RGBW atzera-argiztapeneko aukera dute, oso potentzia apalekoa, eta komunikazio-elementua dira ekitaldi edo egun seinalatuetarako.

Guztira, 191 argi-gune aldatu dira, eta jarduketaren zenbateko osoa 167.432,92 € izan da.

**Argiteria publikoa Orreaga etorbideko, eta Gartzia Ximenez eta Tutera kaleetako merkataritza-ardatzean berritzeko proiektua**

70 eta 150 w-teko ATP markako argien ordez, hainbat potentziatako LED teknologiako argiak paratu dira, ATP Evolución markakoak, egungo euskarrietara egokituak, propio diseinatu den beso baten bidez, lekuaren estetikari eusteko.

Guztira, 48 argi aldatu dira Orreaga etorbidean; 36, Gartzia Ximenez kalean, eta 48, Tutera kalean.
Jarduketaren osagarri, aldameneko kaleetan ere argiak berritu dira, proiektuaren xede izan den ardatzean ezarritako irtenbideari segida emateko. Zehazki, 2 unitate berritu dira Paulino Caballero kalean, eta 4, Francisco Bergamín kalean.

Guztira, 138 argi-gune aldatu dira eta jarduketaren zenbatekoa 122.221,82 euro izan da.

**VSAP argiak kendu eta LED teknologiakoak paratzea Iturrama auzoko CM S036n**

Proiektuaren bidez, 250 w-teko VSAP lanparaz hornitutako Hadasa M-400 argiak kendu eta, haien ordez, prestazio hobeak dituzten LED teknologiakoak jarri dira, eraginkorragoak, ezarpen-eremu zehatz bakoitzeko beharretara egokituak bai potentzietan, bai optiketan.

Proiektua baliatu da, oinezko-pasabideen berariazko argiztapena berritzeko.
Kaleotan jardun da: Fuente del Hierro, Eneko Aritza, Ezkirotz, Serafín Olave eta Iturrama.
Schreder Teceo, ATP Cónica eta Carandini Veka marketako argiak paratu dira.

Kalkuluen arabera, proiektua gauzatuz, urtero 182.345, 04 Kwh-ko energia aurreztu da eta Nafarroako Gobernuak 30.000 €-ko dirulaguntza eman dio.

Guztira, 218 argi-gune aldatu dira eta jarduketaren zenbatekoa 207.999 € izan da.

**Argiteria publikoa Santa María la Real auzoan berritzeko proiektua**

Proiektuaren bidez, 165 argi-gune aldatu dira Santa María la Real auzoan, guztiak ere CM S030ek gobernatuak. Obra kaleotan egin da: Alaitz Mendia, Ibañeta Mendia, Mendaur Mendia, Astobizkar Mendia, Ori Mendia, Ori Mendiaren zeharkalea, Lakartxela Mendia, Errege Bardea, Mutiloabeiti eta Taxoare.

Proiektuaren bidez, 250, 150 eta 100 w-teko VSAP lanparaz hornitutako Hadasa M-400 argiak kendu eta, haien ordez, prestazio hobeak dituzten LED teknologiakoak jarri dira, eraginkorragoak, ezarpen-eremu zehatz bakoitzeko beharretara egokituak bai potentzietan, bai optiketan.

Schreder, Teceo eta Hapiled markako argiak paratu dira, bai eta ATP Cónica markakoak ere, Taxoaren kaleko oinezko-espaloian.

Guztira, 166 argi-gune aldatu dira eta jarduketaren zenbatekoa 124.751 € izan da.

**Argiteria publikoa Orvina auzoan berritzeko proiektua**

Proiektuaren bidez, 25, 150 eta 100 w-teko VSAP lanparaz hornitutako Hadasa M-400 argiak kendu eta, haien ordez, prestazio hobeak dituzten LED teknologiakoak jarri dira, eraginkorragoak, ezarpen-eremu zehatz bakoitzeko beharretara egokituak bai potentzietan, bai optiketan.

Kaleotan jardun da: Miravalles, Fermín Daoiz, Zildotz, Azotz, Mugazuri, eta Ezkaba (zati batean).

Simón Lighting (Nath modeloa) eta ATP (Cónica modeloa) markako argiak aldatu dira.

Guztira, 107 argi aldatu dira eta jarduketaren zenbatekoa 94.235,09 € izan da.

**Argiteria publikoa Azpilagaña eta Sadar auzoetan berritzeko proiektua**

Proiektuaren bidez, 100 argi-gune aldatu dira Azpilagaña eta Sadar auzoetan, S025, S035 eta S070 aginte-zentroek gobernatuak. Kaleotan jardun da: Joaquín Maya, José María Beobide, Altzania erreka, Salado erreka, Dámaso Zabalza, Ega ibaia, Labiano, Zolina eta Hontzaren plaza.

Proiektuaren bidez, 250, 150 eta 100 w-teko VSAP lanparaz hornitutako argiak kendu eta, haien ordez, prestazio hobeak dituzten LED teknologiakoak jarri dira, eraginkorragoak, ezarpen-eremu zehatz bakoitzeko beharretara egokituak bai potentzietan, bai optiketan.

Schreder (Izylum modeloa) eta ATP (Alameda eta Evolución) argiak paratu dira parke eta oinezko-eremuetan.

Jarduketaren zenbatekoa 70.767,04 € izan da (BEZa barne)..

**Argiteria publikoa Sanduzelai auzoan berritzeko proiektua**

Proiektuaren bidez, giro eta bide motako 191 argi berritu dira N068, N084 eta N100 aginte-zentroek gobernatutako kale, plaza eta parkeetan. Kaleotan jardun da: Alexander Fleming Doktorea, Irigaray Doktorea, Miguel Servet Doktorea, José Alfonso Doktorea, Anselmo Goñi Doktorea, Santa Bizenta María eta Sanduzelai.

Proiektuaren bidez, 250, 150 eta 100 w-teko VSAP lanparaz hornitutako argiak kendu eta, haien ordez, prestazio hobeak dituzten LED teknologiakoak jarri dira, eraginkorragoak, ezarpen-eremu zehatz bakoitzeko beharretara egokituak bai potentzietan, bai optiketan.

Thorn (Isaro Pro eta Volupto modeloak eta ATP (Evolución eta Cónica modeloka) markako argiak jarri dira..

Jarduketaren zenbatekoa 130.562,40 € izan da (BEZa barne).

**Etxabakoitz auzoan VSAP argiak kendu eta, haien ordez, LED teknologiako argiak jartzeko proiektua**

Proiektuaren bidez, 171 argi berritu dira, S013 eta CM S050 aginte-zentroek gobernatuak. Kaleotan jardun da: Etxabakoitz, San Raimundo eta Virgen el Soto, bai eta Urdanoz Multzoan eta Elortz ibaiko ibai-pasealekuan ere.

Proiektuaren bidez, 250, 150 eta 100 w-teko VSAP lanparaz hornitutako argiak kendu eta, haien ordez, prestazio hobeak dituzten LED teknologiakoak jarri dira, eraginkorragoak, ezarpen-eremu zehatz bakoitzeko beharretara egokituak bai potentzietan, bai optiketan.

ATP markako argiak jarri dira, Enur, Pescador, Cónica eta Ronda modelokoak.

Jarduketaren zenbatekoa 157.488,49 € izan da (BEZa barne).

**Energia Auditoria datozen berrikuntza-obretarako interesekoak diren Aginte Zentroen gainean**

Energia-auditoriaren bidez aztertu nahi da nola ustiatzen eta funtzionatzen duten argiteria-instalazioak, zer prestazio dituzten, bai eta osagaien egoera, energia-kontsumoak eta ustiapen-kostuak ere. Tresna lagungarria da argiteria publikoko instalazioak ongi kudeatzeko.

Auditoria honako aginte-zentrootan egin da:

- N 013: Landa  Doktorearen k. 2: 117 gune
- N 052: Urzainki kalea: 86 gune
- N 027: Oliveto kondearen plaza: 116 gune
- S 031: Pedro I.a kalea: 162 gune
- S 041: Serafín Olave: 164 gune
- S 042: Félix Huarte plaza: 167 gune

Auditoria Udaleko Bulego Estrategikoaren dirulaguntza jaso du.  Jarduketaren zenbatekoa 3.763,00 € izan da.

## 7.2.6 Kosertbatzio programatua

**KONTSERBAZIO PROGRAMATUA**

Zerbitzu honek egindako jarduketa guztiek oinarri dituzten neurrien xedea energia gutxiago kontsumitzea, argi-kutsadura murriztea zeruaren ikuspenean, eta argi gogaikarria murriztea etxe-inguruneetan, merkatuan eskura dagoen teknologiarik eraginkorrena erabiliz.

Era berean, behar diren neurriak ezarri dira argi apaingarriak edo kirol-argiak gaualdian itzaltzeko, jarduera murrizten edo desagertzen delako.

Erabilitako argi-mailak eta koloretako tenperaturak kasuan kasuko instalazioa egiten den hiriko lekuaren ezaugarrien arabera aukeratu dira, indarrean den araudiak ezarritako baldintza teknikoak beteta.

Argiteriako Zerbitzua, halaber, laguntza- eta dirulaguntza-deialdietan aurkeztu da aiptu helburuak lortzeko.

Argiteria publikoa mantentzeko kontratura bideratutako partida ekonomikoen baitan, hona hemen jarduketa nabarmenenak:

### VSAP ARGIEN ORDEZ LED TEKNOLOGIAKOAK JARRI DIRA GIPUZKOAKO ETORBIDEAN, DISCOSA BIRIBILGUNETIK NAVAS DE TOLOSA KALERA BITARTEKO ZATIAN.

Guztira, 250 W-eko 52 VSAP argi-gune kendu eta, haien ordez, LED teknologiakoak jarri dira, Salvi markakakoak, Clap M modelokoak, 92, 115, 128 eta 136 W-ekoak.

**Jarduketaren aurrekontu ekonomikoa:** 27.925,21 €.

### ARGITERIA UDALTZAINGOAREN BULEGOETAN SARTZEKO OINEZKO-ESPALOIAN JARTZEA

Lekuaren irisgarritasun- eta segurtasun-baldintzak hobetzeko asmoz, 4 argi-gune berri paratuko dira Udaltzaingoaren bulegoetan sartzeko espaloian, Erreginaren Aldapa kalean.

Obra zibilarekin batera, TED teknologiako 4 argi jarriko dira, bakoitza bere euskarriarekin. Argiak Simon Lighting Nath markakoak dira, 24 W-ekoak, Trinitarios aldeko igogailu berriaren ingurunean daudenen antzeko ezaugarrikoak.

**Jarduketaren zenbatekoa** 2.812,82 € da.

### BURGUEN PLAZAKO ARKUPEETAKO ARGITERIA SENDITU ETA BERRITZEA

Burguen plazako arkupeetako eta atarietako sarbideetako irisgarritasun- eta segurtasun-baldintzak hobetzeko asmoz, egungo proiektagailuak LED teknologiaren bidez berritu dira; gainera, proiektagailu gehigarri bat jarri da arg-mailak hobetze aldera.

Guztira, 5 LED proiektagailu jarri dira (ATP marka, Aire LED 25 modeloa) eta, gainera, kableak eta babesak berritu dira

**Jarduketaren zenbatekoa** 4.504,27 € izan da.

### MENDILLORRIKO PILOTALEKU IREKIKO ARGITERIA ALDATU DA

Lekuaren argiztapen-baldintzak hobetzeko asmoz, bereziki argi gogaikarriari dagokionez. Horrela, aisia-jarduerak egiten ahalko dira pilotalekuan arratsalde-gaueko ordutegian; gainera, gauaren gainerako orduetan, lekuaren segurtasuna bermatzeko asmoz, honako lan hauek egin dira:

-Erloju astronomiko bat jarri da, pilotalekua argitzen duten bi proiektagailuak pizteko ordutegia ilunabarretik 23:00etara arte izateko. Horrela, ez da piztuta egonen 24:00ak arte, eta ez da berriz piztuko 05:00etatik aitzina goiznabarrera arte, erregulatua zegoen bezala gauerdiko zirkuituari konektatua egotearen ondorioz.

-Proiektagailuen orientabidea berrikustea.

-Giro argi bat jartzea proiektagailuen euskarriaren beraren gainean eta 5 m-ko altueran, lekuak segurtasun-argiztapena izan dezan gaueko ordutegian. Lekuan piztua dagoen argi bakarra da, proiektagailuak itzalita dauden bitartean.

**Jarduketaren zenbatekoa** 1.852,73 € izan da.

### URDANOZ MULTZOKO PARKEA. IGOGAILUA AUZOAREKIN LOTZEN DUEN OINEZKO-BIDEAN ARGITERIA PARATZEA

Segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko asmoz, LED teknologiako 4 argi-gune berri jarri dira auzoko erdiguneko parkea zeharkatzen duen oinezko-bidean.

Obra zibilaren barnean, hodiak, zimenduak, arketak eta instalazio elektrikoa daude. ATP Metrópoli LLC LED 35 30W markako argiak jarri dira.

**Jarduketaren zenbatekoa** 4.230,20 € da.

### URDANOZ MULTZOKO BOLEIBOL-PISTA ETA PILOTALEKU TXIKIA ARGITZEA

Bizilagunek gaueko ordutegiak ere Urdanoz Multzoko kirol-instalazioak erabiltze aldera, 2 Carandini proiektagailu jarri dira 8 metroko euskarri berreskuratu baten ondoan, bai eta aginte-taula ere, funtzionamendu-ordutegia erregulatzeko. Obra zibila eta kableak daude barne.

**Jarduketak eragindako zenbatekoa:** 2.250 €.

### VSAP ARGIAK KENDU ETA LED MOLDEKOAK JARTZEA CONCEPCIÓN BENÍTEZ KALEAN

150 eta 250 W-eko 27 VSAP argi kendu eta, ahien ordez, LED teknologiakoak jarri dira, Salvi Lighting markakoak eta Clap M modelokoak, 70 eta 90 w-ekoak.

Bidenabar, harguneak saneatu eta fusible-etxeak aldatu dira.

**Jarduketa** 19.130 € izan da dirutan.

### ARGITERIA JITO ALAI PILOTALEKUAN JARTZEA

Alde Zaharreko bizilagunek Jito Alai pilotalekua arratsalde-gaueko ordutegian erabiltze aldera, LED teknologiako 5 proiektagailu jarri dira, Carandini markakoak, 89 W, 146 W (2) eta 205 W (2) potentziakoak, euskarri berreskuratu baten ondoan.

Barne dira obra zibila eta kableak.

**Jarduketaren zenbatekoa** 5.495,03 € izan da.

### VSAP ARGIEN ORDEZ LED TEKNOLOGIAKOAK PARATZEA PATXI LARRAINZAR IKASTETXEAREN INGURUAN ETA ARROTXAPEKO UDAL KIROLDEGIAN

250, 150 eta 100 w-teko VSAP lanparaz hornitutako 214 argi kendu eta, haien ordez, prestazio hobeak dituzten LED teknologiakoak jarri dira, eraginkorragoak, ezarpen-eremu zehatz bakoitzeko beharretara egokituak bai potentzietan, bai optiketan. Guztiak ere N062 aginte-zentroak elikatuak. Kaleotan jardun da: Pedro de Ursúa, Probintziak, Nazario Carriquiri, Joaquín Beunza, Agur Maria zeharkalea eta Jose Migel Barandiaran plaza.

Guztira, ATP Cónica markako 148 argi jarri dira oinezkoendako lekuetan eta, Salvi Lighting markako 63, ibilgailu motordunak dabiltzan bideetan.

**Jarduketaren aurrekontu ekonomikoa:** 173.104 €.

### NAZARIO CARRIQUIRI KALEKO ARKUPEA

2024an egindako jarduketa partziala osatze aldera, 7 VSAP proiektagailuren ordez LED teknologiakoak jarri dira, Ledvance Modelo Flood Light 10 W markakoak, instalazioaren uniformetasuna eta eraginkortasuna hobetuta eta argi-kutsadura murriztuta. Jarduketaren zenbatekoa: 929.62 €

### FRANCISCO JAVIER SÁENZ DE OIZA PASEALEKUA. ARGIAK JARTZEA, OBRAREN OSAGARRI

Francisco Sáenz de Oiza pasealekuari argi-uniformetasuna eman nahirik, urbanizazioari eragin dion jarduketa pribatu batek egindako instalazioaren osagarri, eraginkortasun energetikoa hobetzeko eta argi-kutsadura murrizteko, 9 VSAP argi kendu eta, haien ordez, LED teknologiako berriak jarri dira, Carandini markakoak et Century 24 Led 23 W modelokoak.

**Jarduketak eragindako zenbatekoa:** 7.640, 64 €.

### SAN JUAN DE LA CADENA IKASTETXEKO JOSTALEKUA. ARGITERIA BERRITZEA

Inguruko etxebizitzetarako instalazio eraginkorragoa eta ez hain kutsakorra izateko, bereziki eskaririk ez dagoen orduetan, argiteria publikoko azpiegituraren instalazioa bereizi, 400 w-eko 6 VSAP proiektagailu kendu eta LED teknologiakoak proiektagailu berriak jarri dira, Ledvance markakoak, Flood Light 50 W 3000 K (3 ale) eta 30 W (3 ale) modelokoak.

Jarduketaren osagarri, kable eta babes-fusible berriak jarri dira.

**Jarduketak eragindako zenbatekoa:** 1.094,94 €.

### VSAP LANPAREN ORDEZTE PROGRAMATUA EGUNGO ARGIETAN.

Luminarietako lanparak aldatzeko urteko programazioaren barnean, hainbat potentziatako VASAP Philips SON-T PIA Plus lanparak aldatu dira, eta, bide batez, argiak ere garbitu dira 6.027 argi-gunetan.

**Jarduketak eragindako zenbatekoa:** 301.500 €

## ATALA. BESTELAKO KONTSERBAZIO LANAK

Matxura handiak konpontzea: arketa hondatuak konpondu eta berreraikitzea, matxurak lurpeko instalazioetan, borne erreak, hodi butxatuak, aginte-zentroetako elementuak aldatzea, istripuek eraitsitako argi-guneak, etab.).

375.000 € bideratu dira aurten kontserbazio-lan horietara.

Atal honen barnean dago eremu publikoan gertaturiko istripuek instalazioetan eragin dituzten kalteen konponketa (A kalteak), eta horretara, 54.916 euro bideratu dira.

### FIESTAS DE SAN FERMÍN. TRABAJOS ESPECIALES

Udaleko Argiteria Publikoko Zerbitzuak euskarria ematen die energia elektrikoa behar eta eremu publikoan egiten diren ekitaldiei, Udaleko hainbat alorrek eskaturik. Euskarria, zehazki, argiteria publikoko azpiegituraren bidez eta behin-behineko hornidura kontratatuen bidez ematen zaie.

Honatx alor eskatzaileak: Kultura, Osasuna, Herritarren Segurtasuna, Berdintasuna, Turismoa eta Gazteria.

Halaber, Iruñeko Caritasek eskaturik, hainbat lan egin dira tonbola muntatzea ahalbidetzeko eta, halaber, entzierroaren ibilbideko galerietan eta zezen-plazako sarbidean, RTVEren azpiegitura muntatzeko.

**Atal honetan egindako lanen zenbatekoa** 26.400 € izan da.

### HARGUNEAK ETA TAULAK EREMU PUBLIKOKO EKITALDIETARAKO

Argiteria publikoa mantentzeko enpresa kontratistaren bidez, udal alorrek eskatutako lanak egin dira, hau da, hargune-lineak paratzea argiteriako aginte-zentroetatik erabilera-guneetaraino. Era berean, aginte- eta babes-taulak jarri dira.

Aipatu instalazioak aldi baterakoak izan daitezke (mupiak edo erlojuak) edo aldi baterakoak (izotz-pista, azokak eta standak).

Egindako lanei dagokien zenbatekoa eskatzaileak hartu du bere gain

### OINARRIZKO MANTENZE-LANAK

Barne dira instalazioak piztu eta itzaltzeko kontrola, eguneko eta gaueko ikuskapen-zerbitzuak, guardia-zerbitzua, telekudeaketa-zerbitzuak aginte-zentroetan, matxura arinak konpontzea, lanpara funditiuen konponketa kasuala, fluxua murrizteko tresnen funtzionamenduaren aldizkako kontrola, bitarteko materialak eta giza bitartekoak eskura izatea, eta argiteria publikoaren inbentarioa eguneratzea.

**1.027.650 € bideratu dira aurten atal horretara.**

### TXOSTENAK

Argiteria Publikoko Zerbitzuak udal alorrei ematen die laguntza teknikoa. Hona hemen esku-hartzerik nabarmenenak:

Proiektuak: Argiteria publikoari dagokion zatian, 6 urbanizazio-proiektu berriri edo hainbat aldaketari buruzko txostena egin da.

Instalazioen harrera: Argiteria publikoko 7 instalazio berriri buruzko txostena egin, edo berrikusi eta jaso dira
Abalak itzultzea: 4 obrari dagozkion abalak itzultzeari buruzko txostena egin da.

Ekitaldiak eremu publikoan: Mantentze-lanen kontrataren bidez, hornidura elektrikoa eskuratzeko 130 eskaerari buruzko txostena egin da eta laguntza teknikoa eman zaie, argiteria publikoko azpiegituraren bidez.

A kalteak: Hirugarrenek argiteria publikoko instalazioetan eragindako 31 istripu konpondu dira, horiei dagozkien kalteak 54.916€-an balioetsita.
B kalteak: 4 erreklamaziori buruzko txostena egin zaizkio Ondare Zerbitzuari, herritarrek eremu publikoan pairatutako kalte pertsonalen ondare-erantzukizunagatik.

Herritarren erreklamazioei dagozkien eskabideak. Herritarrek eskabideen bitartez egindako 29 erreklamaziori buruzko txostena egin da.

## 7.2.7 Ibilaguli parkeka zerbitua

Urtean zehar, honako esku-hartze hauek egin dira:

- IAT: 225
- Konponketa mekanikoak kanpo-lantegian: 55
- Txapa- eta pintura-konponketak: 25
- Esku-hartzeak Ibilgailu Parkeko tailerrean: 1.550 inguru (barne dira IAT berrikuspenak, mantentze-lanak, matxuren konponketak, zulatuak, ibilgailuak konpontzeko ateraldiak, etab.).
- Ibilgailuak bajan. 6
- Ibilgailuak altan: 11

Honatx aurten Ibilgailu parkean egindako erosketak:

- Aire girotuko makina
- Ibilgailuei egiten zaizkien esku-hartzen historikoa jasotzen duen tailer-aplikazioa
- Auto elektrikoetako kargatzailea jartzea
- Autoak igotzeko gailua
- Motorrak igotzeko gailua
- Altzariak bulegorako eta aldagelarako

Aurten, ibilgailuen parkea berritzen joan da, ahalik eta konponketa gehienak tailerrean egiten saiatzeko eta kanpora ez ateratzeko. Hala ere, konponketa batzuk ezin dira hemen egin, kanpoan baizik, dela konplexuak direlako, dela lan handia delako.

## 7.2.8 Altzerietako zerbitua

### ALTZARI BERRIAK JARTZEA

- Sanduzelaiko Osasun Etxeko parkean, jarlekuak erosi eta aldatzea. 4300 €
- Arrotxapeko Maiteminduen pasealekuan, jarlekuak erosi eta aldatzea. 6300 €
- Yamaguchi parkeko urmaeleko zaldainak aldatzea.
- Egonlekuetako zurezko zoladurak kendu eta, haien ordez, zur teknikoz egindako zola paratzea ur-jauziko iturrien ondoan. 51795 €
- Gaztelugibelen, jarlekuak erosi eta aldatzea. 34332 €
- Jolas eremua (23) Irantzuko monasterioaren kalean eta Jolas eremua (42) Premin de Iruña pasealekuan.
- Segurtasun-zorua aldatzea, bi eremuetan lixatua eta margotua. 35495.40 €
- Jolas eremua (55) Nafarroako Margarita plazan eta Jolas eremua (24) Gortari Doktorearen kalean. Saki-zabua eta jolas birakaria Margarita-n aldatzea eta zabuetako arkuak, malguki bat eta egiturazko elementu batzuk Gortari-n aldatzea; eta segurtasun-zorua aldatzea, bi eremuetan lixatua eta margotua. 35910.80 €
- Jolas eremua (72) Anelier pasealekuan Malguki handi baten ordez, multzo bat jartzea txikietarako, multzo nagusiko panelak aldatzea, eta segurtasun-zorua aldatzea, eremua lixatu eta margotzea. 41427.06 €
- Jolas eremua (27) Bartolomé de Carranza-n eta Jolas eremua (90) Protomedikatoa Malguki bat aldatzea, zabuak eta handia aldatzea, multzo nagusiko panelak aldatzea Carranza-n, eta segurtasun-zorua aldatzea, eremua lixatu eta margotzea. 44186.48 €
- Tomás Caballero parkeko zakurrendako eremuan, iturri berria jartzea.
- Donibaneko Ibarbidea parkeko zakurrendako eremuan, iturri berria jartzea.
- Ipar Etxabakoitz pasealekuko zakurrendako eremuan, iturri berria jartzea.
- Mendebaldeko zakurrendako eremuan, iturri berria jartzea.
- Iturria aldatzea egonlekuan, Ipar Etxabakoizko Teodoro Ochoa de Alda kalearen ondoan.
- Eremu osasungarrietako elementuak prest uztea. Makinak, makina-elementuak edo mahukatxoak aldatzea. 10890 €

### KONPONKETAK EGITEKO ESKU-HARTZEAK

- Jarlekuak konpontzeko 280 esku-hartze
- 113 esku-hartze hesietan, eskudeletan eta oinezkoak babesteko moduluetan.
- 70 esku-hartze pibote eta oztopo-zutoinetan (220 elementu baino gehiago jarri, konpondu edo kendu dira). Elementu horietako gehienak dira, kentzen hasi direlako eginkizuna betetzen ez duten lekuetan paratutako oztopo-zutoinak, galdaketaz eginak.
- 74 esku-hartze paperontzietan (115 aldatu, jarri edo birjarri dira; 40 bandalismoaren ondorioz).
- 21 esku-hartze bizikletak aparkatzeko euskarrietan.
- 64 esku-hartze beste altzari batzuetan (zakurrendako eremuak, gimnasioak, kirol-pistak, seinaleak, etab.).

### JARLEKUAK PARATZEA

- Iturramako San Joan Bosco plaza: 23 jarleku aldatzea.
- Iturramako Yamaguchi parkea: 93 jarlekua aldatzea.
- Orvina, Munduaren Parkea, 48 jarleku aldatzea
- Mendillorri, Campamento Mendia eta aintzira eremua, 53 jarleku aldatzea
- Iturrama, Félix Huarte plaza, 40 jarleku aldatzea
- Sanduzelai, Parkea (tabacalera), 18 jarleku aldatzea
- Etxabakoitz, Remiro de Goñi, 16 jarleku aldatzea
- Mendillorri, Eliako kontzejua, 38 jarleku aldatzea
- Azpilagaña, 23 jarleku aldatzea Luis Morondo-n eta Miguel Astrain-en

### JARLEKUAK MARGOTZEKO LANAK, 10ETIK GORAKO KOPURUAN

- Santa María la Real: 25 jarleku aldatu eta margotzea
- Erripagaña: Londres kalea, 14 jarleku margotzea
- Arantzadiko igerilekuak: 36 jarleku margotzea
- Taconerako parkea: jarleku guztiak margotzea
- Sanduzelai Aquavox: 11 jarleku margotzea
- Arrotxapea: Maiteminduen pasealekua, guztiak margotu dira.
- Orvina: Kanalea kalea, jarleku guztiak margotzea
- Alde Zaharra: Aduanako Zokoa, jarleku guztiak margotzea
- Media Luna: Juan de Huarte plaza, 10 jarleku margotzea
- Arrotxapea: Nazario Carriquiri, 12 jarleku margotzea
- Kosterapeko jaitsiera: jarleku guztiak margotzea
- Etxabakoitz, kirol-pistako jarlekuak margotzea

### HESIAK, BARANDAK, ESKUDELAK ETA ITURRIAK MARGOTZEKO ESKU-HARTZEAK

- Media Luna: begiratokiko eta urmaeleko baranda margotzea
- Trinitarios Kosterapea: baranda margotzea.
- Arrotxapea: Plazaola parkea, baranda margotzea.

- Taconera: begiratokiko baranda margotzea.
- Alde Zaharra: baranda margotzea Mañueta, San Frantzisko plaza, Sarasate pasealekua
- Donibane Pio XII.a: eraikin singularra, hesiak eta Taconerako baranda margotzea.
- Arrotxapea: Marcelo Celayeta lehoiaren hesia margotzea
- Iturrama: Yamaguchi parkea, hesiak margotzea
- Unibertsitateko errepidea: zubia margotzea
- Oinezkoak babesteko hesiak eta eskudela margotzea, 84 elementu
- Oxironezko ia iturri guztiak margotzea
- Iturri berriak paratu dira: Etxabakoitz zakurrendako eremua, Tomás Caballero zakurrendako eremua, Premin de Iruña, Vaguada, Mendillorriko Soto plazako iturria konpontzea

Ez dira jaso jarlekuak estutu eta doitzeko ohiko konponketak, esku-hartze parterik gabe moldatu daitezkeen esku-hartze txikiak, eta iturriak garbitzeko lanak, kutsatuak daudelako edo haien funtzionamendua konpontzea.

## 7.2.9 Aparkaleku emakida eta pasabideetako zerbitua

Aurten, hainbat eskaerari erantzun zaie:

- 232 titulartasun-aldaketa eta -erregularizazio baimendu dira aparkalekuetan; haietariko 34, Udalak zuzenean kudeatuak.
- Pasabide-lizentzien 73 titulartasun-aldaketa, -iraungipen eta -erregularizazio.

Además, se han realizado

- 12 txosten obra-lizentziekin edo irekiera-lizentziekin lotuak, emakidaren xede diren higiezinei edo etorkizuneko pasabide-lizentzia batek eragindakoei dagokiena.
- Pasabide-lizentziek eragindako zoladuren egiazko egoeren ikuskapenak, 26 errekerimendu eragin dituztenak. Pasabideei buruzko eguneratze- eta garapen-lana GISen.

Halaber, Oskiako Andre Maria aparkalekuko administrazio-erreskatea egin da eta, hartan, konponketa lanak egin dira 24.718,09 €-an, azaleko urbanizazioan, eta 38.937,91 €-an, eraikinaren barnealdean.

Era berean, emakida-hartzaileekin lan egin da hainbat kontutan, hala nola instalazioak ibilgailu elektrikoei buruz indarrean den araudira egokitzeko orduan, eta bereziki, autobus-geltokian diren ur-iragazpenak zuzentzeko beharrezkoan diren lanen garapenean.

# 7.3
# Osasuna

## 7.3.1 Osasunaren prebentzioa

### ELIKAGAI-IKUSKARITZA

2024ko urtarrilaren 1ean, Iruñeko industrien eta establezimenduen erroldaren arabera, honako hauek zeuden: ostalaritzako 988 establezimendu, 121 jangela kolektibo, 97 industria/lantegi/biltegizain eta 949 elikagai-establezimendu. 2024an, 2.827 ikuskapen-bisita egin dira kontrol ofizialaren barnean.

Mercairuñako handizkako merkatuaren osasun-kontrola egin da, handizkako 4 arrain-establezimendurekin eta 6 fruta- eta barazki-establezimendurekin, bai eta hiriko hornidura-azokakoetan ere; guztira, 82 postu. Landabengo merkatu txikiaren osasun-kontrola ere egin da; gaur egun, 47 elikagai-postu ditu

2024an, 483 espediente ireki dira ofizioz, elikagaien ikuskaritzari lotuta. Horietako 138tan zehapen-espedientea hastea proposatu da, eta 345 errekerimendu-txosten izapidetu dira gabeziak zuzentzeko.

Errekerimenduak honela daude banatuta: Errekerimenduetako 366 ostalaritza eta jantoki kolektiboei dagozkie; 94, txikizkako saltokiei; 4, biltegizainei, eta 19, fabrikatzaile eta ontziratzaileei. Zehapenak ostalaritzako 75 establezimenduri ezarri zaizkie; 49 txikizkariri eta 14 lantegi, biltegizain eta jantoki kolektibori.

**Errekerimenduak eta zehapen-espedienteak**

| | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Errekerimenduak | 486 | 306 | 346 | 306 | 275 | 457 | 483 |
| Zehapen-espedienteak | 87 | 204 | 96 | 52 | 74 | 103 | 138 |

Elikagaien Ikuskaritzak elikadurari lotutako 36 salaketa bideratu ditu, partikularrek eta poliziak esku-hartzeetan eginak, edo beste erakunde publiko batzuek abiatutakoak.

Salaketa horietatik, 4 intoxikazio posibleengatik izan ziren; 14, baldintza higieniko-sanitario eskasengatik; 7, intsektuak egoteagatik; 1, ur-mozketengatik; 4, etiketa okerragatik; 2, lizentziarik gabeko elikagaiak prestatzeagatik, eta 3, elikagaiak iraungiak zeudelako.

2024an, gainera, ostalaritzako eta elikadurako 148 jarduera ez-iraunkor kontrolatu dira. Sanferminetan, ostalaritzako eta elikadurako 86 postu eta instalazio bisitatu ziren, guztiak behin-behinekoak, eta 24 espediente ireki ziren; horietatik 20 zehapen-espedienteak izan ziren, eta 4, errekerimendukoak. Champions Burger ekitaldian, 2024ko urrian egindakoan, ostalaritzako 32 jarduera ez iraunkor ikuskatu ziren eta 32 zehapen-espediente abiatu ziren.

### OSASUN-ALERTEN ARRETA

2024an, osasun-alertako 28 egoeratan esku hartu zen, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak jakinarazitakoak. Egoera horiek elikagaietan edo farmazietan banatutako elikagaiei eragiten zieten, eta, ondorioz, haiekin lotutako 53 establezimendu ikuskatu ziren, eta bat, Eusko Jaurlaritzak abiarazia.

### ESPORTAZIO-ZIURTAGIRIAK

Iruñeko udal-barrutian kokatutako enpresetan prestatutako elikagaien esportazioari buruzko 28 ziurtagiri eman dira.

### LAGINAK HARTZEAS

Zerbitzuak, 2024an, guztira, 29 elikagai-lagin hartu ditu. Horietako 6 analisi mikrobiologikoak egiteko; 17, kutsagarrietarako; 3, alergenoetarako; 1 plagizida-lagin; 6 gehigarri-lagin, eta 1 badges-lagin.

Halaber, 3 lagin hartu dira ostalaritza-establezimenduetan izandako toxiinfekzioek eraginik..

### INSKRIPZIO-KONTROLA OSASUN-ERREGISTROAN

2024an, 177 ikuskapen-bisita egin eta haien akta jaso da osasun-erregistroa eguneratzeko.

## 7.3.2 Zoonosia

2024an, 411 txakur eta katu sartu dira Animaliak Artatzeko Zentroan, eta horien sarrera- eta jomuga-arrazoiak dagokien taulan daude zehaztuta.

| | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Zakurrak | 171 | 190 | 177 | 181 | 135 | 108 | 159 | 113 | 119 |
| Katuak | 35 | 37 | 82 | 62 | 54 | 81 | 95 | 147 | 292 |
| **biak** | **206** | **227** | **259** | **243** | **189** | **189** | **254** | **260** | **411** |

### AAZn sartutako animaliak, 2024an

| | Konfiskazioak | Bide publikoan bilduak | Jabeek emandakoak | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Zakurrak | 9 | 99 | 11 | 119 |
| Katuak | 0 | 290 | 2 | 292 |
| **biak** | **9** | **390** | **12** | **411** |

### AAZko animalien jomuga 2024an

| Helmuga | Jabeari itzuli zaio | Adopzioa | Sakrifizioa eta berezko heriotza | Harrera Etxeak | Kolonietara eraman dira atzera | Helmuga guztiak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Zakurrak | 68 | 37 | 3 | 0 | 0 | 135 |
| Katuak | 17 | 92 | 32 | 14 | 108 | 145 |
| **biak** | **85** | **129** | **25** | **14** | **108** | **280** |

### AHZn adoptatutako animaliak 2017tik 2024ra

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Zakurrak | 64 | 78 | 57 | 62 | 33 | 47 | 44 | 37 |
| Katuak | 24 | 47 | 58 | 51 | 54 | 62 | 84 | 92 |
| **biak** | **88** | **125** | **115** | **113** | **87** | **109** | **128** | **129** |

### Animaliek sortutako arazoek eragindako zehapen-espedienteak 2017tik 2024ra

| Zehapen-arrazoiak | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Zakurrak aske eramateagatik | 128 | 109 | 109 | 120 | 87 | 81 | 111 | 90 |
| Gorozkiak ez jasotzeagatik | 21 | 13 | 10 | 8 | 11 | 9 | 12 | 2 |
| Zakurrak egoera egokian ez edukitzeagatik | 6 | 3 | 6 | 2 | 2 | 3 | 2 | 0 |
| Txertatze eta identifikazioarekin lotutako | 8 | 9 | 8 | 3 | 4 | 11 | 4 | 11 |
| APP araudia | 64 | 50 | 47 | 31 | 31 | 14 | 19 | 12 |
| Zakurrekin lotutako bestelako zehapenak | 7 | 28 | 19 | 7 | 5 | 9 | 6 | 6 |
| Zakurra abandonatzeagatik | | | | | 2 | 3 | | 1 |
| Bestelako animaliekin lotutako | 1 | - | - | 1 | 2 | 6 | 2 | 5 |
| **Zergati guztiak** | **235** | **212** | **199** | **172** | **144** | **136** | **156** | **127** |

### Animaliek eragindako hozkada-kasuak 2017tik 2024ra

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Zakurrak | 39 | 42 | 45 | 37 | 34 | 45 | 65 | 63 |
| Katuak | 2 | 1 | - | - | | | | 2 |
| **biak** | **41** | **43** | **45** | **37** | **34** | **45** | **65** | **65** |

## ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN ANIMALIAK EDUKITZEKO LIZENTZIA-ESPEDIENTEAK

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia-espedienteak 2024 (zakurrak)

| | Lizentzia eskatuak | Emandako lizentziak | Berritutako lizentziak | Kopiak | Besterik |
|---|---|---|---|---|---|
| Zakurrak | 59 | 34 | 20 | 12 | 5 |
| Bestelako animaliak | - | - | - | - | - |
| **Guztira** | **59** | **34** | **20** | **12** | **5** |

## AAZN HARTUTAKO ANIMALIAK. JARDUKETA KLINIKOAK

| | Esterilizazioa | Txertaketak/Identifikazioa | Bestelako albaitaritza-arretak |
|---|---|---|---|
| Zakurrak | 18 | 66/29 | 34 |
| Bestelako animaliak | 164 | 235/203 | 90 |
| **Guztira** | **182** | **301/232** | **124** |

## CES/R- PROGRAMA: ESTERILIZATUTAKO, BIZKARROIAK HILDAKO ETA TXERTATUTAKO KATUAK

| | Esterilizatzea, txertatzea, bizkarroiak hiltzea | Bestelako albaitaritza-arretak |
|---|---|---|
| Emeak | 40 | 8 |
| Arrak | 46 | 6 |
| **Orotara** | **86** | **14** |

## ZABALKUNDEKO JARDUERAK

2024an, prestakuntza- eta informazio-jarduerak egin dira animaliak era arduratsuan edukitzeari buruz Animaliak Artatzeko Zentroan.

| | |
|---|---|
| Ikastetxeak eta institutuak | 4 |
| Bisita gidatuak | 7 |
| **Beste kolektibo batzuk** | **9** |

## USO SALAKETEN ARRETA

| Administrazio-espedienteak | 010 abisuak | Besterik | Guztira |
|---|---|---|---|
| 32 | 33 | 5 | 70 |

# 7.3.3 Ingurumen osasuna

## SALAKETAK

| Urtea | Kopurua, guztira | Salaketa kopurua | Eskaera kopurua | Sorrarazitako ikuskatze kop. | Kopurua |
|---|---|---|---|---|---|
| 2014 | 57 | 34 | 22 | 32 | 1 |
| 2015 | 50 | 28 | 22 | 26 | 0 |
| 2016 | 54 | 36 | 18 | 36 | 2 |
| 2017 | 51 | 30 | 21 | 37 | 3 |
| 2018 | 36 | 26 | 10 | 57 | 4 |
| 2019 | 43 | 32 | 11 | 70 | 0 |
| 2020 | 29 | 20 | 9 | 48 | 0 |
| 2021 | 36 | 28 | 8 | 26 | 4 |
| 2022 | 28 | 24 | 4 | 48 | 2 |
| 2023 | 31 | 25 | 6 | 47 | 0 |
| 2024 | 30 | 27 | 3 | 31 | 2 |

## OFIZIOZKO ZAINTZA

| Urte | Ikuskapen kopurua, guztira | Lagin kopurua, guztira |
|---|---|---|
| 2014 | 1772 | 1905 |
| 2015 | 1914 | 1790 |
| 2016 | 1904 | 1756 |
| 2017 | 1759 | 1761 |
| 2018 | 1941 | 1695 |
| 2019 | 1835 | 1500 |
| 2020 | 1555 | 801 |
| 2021 | 1384 | 957 |
| 2022 | 2634 | 1010 |
| 2023 | 2081 | 1107 |
| 2024 | 2230 | 1247 |

Hona hemen programaz programa egindako ikuskapen eta laginen kopurua:

- Ikuskapenak: igerilekuak (380); haurtzaindegiak (33); estetika-lokalak (935); merkataritza-establezimendu berriak (620); eta 1262 kasutan, jarraipena eman zaie espedienteei ikuskapenetan antzemandako gabeziengatik.
- Laginak: kontsumorako ura (996); ibaietako ura (10); igerilekuetako ura (241).

832 ur-lagin hartzea planifikatu zen, analisi kimikoa eta bakteriologikoa egiteko, 3/2023 Errege Dekretua 705 kontsumo-txorrotatan betetzen dela begiratze aldera. Txorrotak honako tokiotan daude kokaturik eta erroldaturik: bide publikoan (iturriak), derrigorrezko irakaskuntzako ikastetxe publiko eta pribatuetako jostaleku, jantoki eta sukaldeetan, udalaren haur eskoletako ikasgela eta sukaldeetan, udal kiroldegietan, Civivox zentroetan eta udal lantokietan, eta 792 egin ziren, plangintzaren % 98,3 beteta.

Planifikatutako laginen osagarri, beste 172 lagin hartu ziren, antzeman ziren ustezko anomalia bakteriologikoak baieztatzeko edo baztertzeko.

142 anomalia-abisu jaso eta 52 baieztatu ziren. Gabeziak zuzendu eta guztiak ongi zeudela egiaztatu zen.

Anomaliarik ohikoena bakterio aerobioen ezohiko kopurua izan da (>300/ml), normalean huraxe antzematen den txorrotaren erabilera txikiari edo etenari lotuta (kasuen % 76,7), eta ondoren, hainbat koliforme espezieren presentzia (kasuen % 20).

Kontsumorako uretan ustezko akats bakteriologikoak edo kimikoak dituzten txorroten ehunekoari dagokionez, 2008tik (horrelako datuak hartu ziren lehen urtea) 2016an izan du baliorik apalena. Orain arte, ehuneko handiena 2011n izan zen (% 10,07). 2024an, datu hori gainditu da, % 17,2 izan baita uretan ustezko akats bakteriologikoak edo kimikoak izan dituzten txorrota laginduen ehunekoa. Atzemandako anomaliak araudia 2023an aldatu izanak eragin ditu, murritzagoa baita parametro mikrobiologiko batzuetan, eta parametro kimiko berrien analisia behar da (metalak, batez ere); lehenago, eguneroko laginetan, ez baitziren aztertzen.

Arga, Elortz eta Sadar ibaietan 10 ur-lagin hartu ziren, udal-mugartearen hurrenez hurreneko sarrera eta irteeretan, Iruñeko hiriak bere uren osasun-kalitatean duen eragina zaintzeko.

2024an, igerilekuko instalazioetarako eta igerilekuetarako plangintzaren barnean, 4 ikuskapen eta 4 lagin-hartze egin dira igerileku ireki guztietan. Planifikatutako ikuskapenen % 100 egin da; 380 ikuskapen, guztira.

Lagin-hartzeei dagokienez, igerileku ireki guztietako laginak hartu ziren. Guztira, igerilekuko uraren 241 lagin-hartze egin ziren. Ikuskapenetan eta lagin-hartzeetan antzemandako anomalien ondorioz, 32 espediente ireki ziren. 32 espediente horietatik, 22tan zehapena ezarri da, osasun publikorako garrantzia duen urraketa bat gertatu baita osasun arloko araudian 2023an, jada, nabarmen handitu ziren, eta 2024an, ia bikoiztu egin dira 2023an hasitako zehapen-espedienteak (2024an, 22 zehapen-espediente hasi dira; 2023an, aldiz, 13).

Haurtzaindegiko eta haur-eskolako 33 lokal ikuskatu ziren, plangintzaren % 100 beteta. Ikuskapenetan aurkitutako gabezien ondorioz, 9 espediente ireki ziren. Haietariko 7 ireki dira, lokalen unean uneko funtzionamendu- eta mantentze-gabeziekin lotutako anomaliek eraginda; garrantzi txikikoak izan arren, osasun-arriskua ekartzen ahal diete erabiltzaileei, 3 urtetik beherako haurrei, alegia. Gainerako 2 espedienteak ireki dira araudiak ezarritakoa baino zaintzaile gutxiago ari direlako, eta haur bat txikiagoa delako araudiak ezarritako adina baino; bi gauza horiek garrantzitsuak dira haurren ongizaterako.

Estetika eta garbitasun pertsonaleko jarduerak dituzten establezimenduei dagokienez, halako jarduera egiteko udal-baimena duten 668 establezimendu erroldatuetako bakoitzari egin zitzaion ikuskapena; azkenean, 935 ikuskapen-bisita egin behar izan ziren. Ikuskapenen ondorioz, 66 espediente abiatu ziren, aurkitutako gabeziak zuzendu zitzatela eskatzeko, egindako ikuskapen guztien % 9,9.

### FUNTZIONAMENDUAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA DUTEN EDO TITULARRA ALDATU DUTEN MERKATARITZA-LOKALEN IKUSKAPENAK 2024an

Merkataritza-lokal berri guztiak ikuskatzea planifikatu zen, elikadurarekin zerikusia ez duten jarduera dutenak, 23/12/01etik 24/11/30era bitartean erantzukizunpeko adierazpena erregistratua edo titulartasun-aldaketa egindakoak (ikuskapenak erantzukizunpeko adierazpena edo titulartasun-aldaketa aurkeztu eta hilabete geroago egiteko planifikatzen dira). Horrelako lokalak 367 izan ziren. 2023an ezin izan ziren 101 lokal ikuskatu; beraz, 2024ko lokalei 2023an egiteko zeuden 101 lokal haiek gehitu zitzaizkien, hau da, 468 lokal, guztira

Plangintzaren % 79,3 bete zen, eta horretarako, 620 ikuskapen-bisita egin ziren guztira (371 lokal ikuskatu ziren). Ikuskatzeko dauden 97 lokalak 2025eko 1. hiruhilekoko plangintzan sartu dira.

Ikuskapenen ondorioz, 91 espediente abiatu ziren, aurkitutako gabeziak zuzendu zitzatela eskatzeko, establezimendu ikuskatu guztien % 24,5.

| Urte | 205 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Lokal berrikusien kopurua | 379 | 376 | 311 | 561 | 410 | 249 | 167 | 657 | 382 | 371 |
| Gabeziak dituzten lokalen kopurua | 46 | 52 | 49 | 91 | 65 | 49 | 40 | 127 | 84 | 91 |
| Ongi ez dauden lokalen % 1. ikuskapen-bisitan | 12,1 | 13,8 | 15,8 | 16,2 | 15,9 | 19,7 | 24 | 19.3 | 22.0 | 24,5 |

## 7.3.4 Ingurumen ingeniaritza

Zerbitzuaren jarduerak, funtsean, honakoak dira: salaketei erantzutea eta eragozpenak sor ditzaketen jarduerak ofizioz ikuskatzea, zaratari eta usainei buruzko ingurumen-legeria betetzen dela egiaztatzeko

### SALAKETAK

| Urte | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Salaketak | 199 | 133 | 145 | 106 | 110 | 122 | 114 | 139 |
| Ikuskapenak | 175 | 100 | 63 | 58 | 62 | 128 | 102 | 128 |

### KUTSADURA AKUSTIKOAK ERAGINDAKO SALAKETAK

| Urte | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Tabernak | 50 | 29 | 33 | 15 | 21 | 36 | 44 | 66 |
| Auzotarrak | 71 | 59 | 63 | 37 | 56 | 49 | 34 | 33 |
| Besterik | 44 | 30 | 38 | 39 | 19 | 21 | 25 | 22 |
| Kutsadura akustikoak | 165 | 118 | 134 | 91 | 96 | 106 | 103 | 121 |

2024an, 75 espediente abiarazi eta 50 zehapen irmo jarri dira zaratagatik; gainerako 25ak urtean zehar ebatziko dira.

### KUTSADURA ATMOSFERIKOAK ERAGINDAKO SALAKETAK

| Urte | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Kutsadura atmosferikoak eragindako | 19 | 15 | 11 | 15 | 14 | 16 | 11 | 18 |

### OFIZIOZKO IKUSKAPENAK

Udal-ekimenez egindako ikuskapenak hartzen ditu barne, jarduera-lizentzian edo indarreko legerian ezarritako baldintzen jarraipena egiteko, betiere zerbitzuaren eskumenekin bat.

| Urte | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ostalaritza ikuskapenak | 833 | 813 | 845 | 585 | 763 | 951 | 897 | 778 |
| Bestelako ikuskapenak (Merkataritza, industriala) | 150 | 151 | 117 | 71 | 74 | 124 | 76 | 71 |
| **Guztira** | **983** | **964** | **962** | **656** | **837** | **1075** | **973** | **849** |

## OSTALARITZA LOKALETAN ZARATAK ERAGINDAKO SALAKETEN BILAKAERA OFIZIOZKO IKUSKAPENEN ALDEAN

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Zaratek eragindako salaketak | 50 | 29 | 33 | 15 | 21 | 36 | 44 | 66 |
| Ofiziozko ikuskapenenak ostalaritzan | 833 | 813 | 845 | 585 | 763 | 951 | 897 | 778 |

Zaratari dagokionez, hona hemen 2024ri dagozkion ondorioak:

Maila beretan mantendu dira bizilagunen arteko salaketak, etxebizitzak direla medio; batez ere, musika ozenegi jartzeagatik.

Ostalaritza-lokaletako (tabernak, kafetegiak, taberna bereziak...) zaratak eragindako salaketak 44tik 66ra igo dira.

Gaueko zaratak etxebizitzetan eragiten du eragozpenik handiena; gehienbat, aisia-lokalek eragiten duten musika ozenaren ondorioz eta aldameneko etxebizitzetan egiten diren zaraten ondorioz.

## 7.3.5 Udal laborategia

Udal Laborategiko langileek Nafarroako Osasun Publikoaren Laborategietako instalazioetan betetzen dute bere eginkizuna 2019ko uztailaz geroztik; urte horretan Iruñeko Udalak hitzarmen bat sinatu zuen Nafarroako Gobernuko Osasun departamentuarekin, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko laborategiko instalazioak aldi baterako erabiltzeko.

### UREN KONTROLA

Kontrola egiten da, Ingurumen Osasuneko Ikuskaritzarekin hitzartutako laginketa-programarekin bat. Barne dira giza kontsumorako ura, igerilekuetakoa eta udalerria zeharkatzen duten ibaietako ura. Programa bete egin da, 2023ko abenduan 2024rako onartutako laginketa-egutegiarekin bat.

### HORNIDURA-URA

Hornidura-uren laginak aztertu ziren, bai lorategi, parke eta ikastetxeetako iturri publikoetakoak, bai ikastetxeetako jostaleku eta jantokiak urez hornitzeko guneetakoak, bai haurtzaindegietakoak, bai udal-eraikinetako lantokietakoak. 844 lagin zeuden programatuta (832, kontsumitzailearen txorrota egunero kontrolatzeko, eta 12, analisi osorako, hau da, barne hartuta metalen, anioien, herbiziden, trihalometanoen, beste konposatu organiko lurrunkorren eta erdi lurrunkorren analisiak, bai eta kutsaduraren adierazle osagarrien analisi mikrobiologikoen azterketak ere). 981 ur-lagin aztertu ziren, hau da, kontsumorako uraren bilketa/analisien programazioa bete zen.

### IGERILEKUETAKO URAK ETA HIDROMASAJE-ONTZIAK

245 lagin aztertu ziren, hau da, urte hasierako programazioan kalkulatutakoen % 87.

### IBAIETAKO URA

10 lagin hartzea aurreikusita zegoen Arga, Elortz eta Sadar ibaietako urak kontrolatzeko, eta guztiak egin dira.

| | Saiakuntzak Kimikoak/lagina | Saiakuntzak Mikrobiologikoak/lagina | Guztira Saiakuntzak/lagina |
|---|---|---|---|
| Sareko ura, eguneroko kontrola | 11 | 3 | 14 |
| Sareko ura, analisi osoa | 116 | 5 | 121 |
| Igerileku eta hidromasajeetako ura | 10 | 2 | 12 |
| Ibaietako ura | 7 | 3 | 10 |
| **Guztira** | **144** | **13** | **157** |

## 7.3.6 Higiene eta desinfekzio zerbitua

### DESINFEKZIOAK

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Desinfekzio partikularrak | 15 | 18 | 11 | 14 | 9 | 8 | 2 | 4 | 5 | 6 |
| S. Domingo eta Zabalguneko Merkt | 104 | 102 | 104 | 104 | 100 | 102 | 102 | 100 | 96 | 98 |
| Bide publikoa | 2.082 | 1.949 | 2.663 | 2.432 | 1.991 | 1.875 | 2.268 | 2.110 | 2.062 | 2.131 |
| Hauteslekuak | Datuak udal-egoitzetan daude sartuta | | | | 69 | 0 | o | 0 | 52 | 26 |
| Udal-egoitzak | | | | | 56 | 90 | 53 | 53 | 42 | 43 |

### INTSEKTUAK HILTZEA

| | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Intsektuak hiltzea (partikularrak) | 150 | 152 | 192 | 188 | 71 | 130 | 102 | 99 | 92 |
| Ikastetxeak eta haur-eskolak | 41 | 43 | 40 | 41 | 41 | 35 | 38 | 38 | 34 |
| Udal-egoitzak | 270 | 314 | 514 | 93 | 52 | 85 | 64 | 97 | 77 |
| Udaberriko kanpaina | Datuak udal-egoitzetan daude sartuta | | | 83 | 112 | 117 | 115 | 115 | 94 |
| Bide publikoa | | | | 318 | 389 | 286 | 279 | 279 | 348 |
| Bainu-etxeak eta komun publikoak | 169 | 55 | 15 | 14 | 36 | 12 | 13 | 13 | 2 |

### ARRATOIAK HILTZEA

2022an, estolderiako arratoiak kontrolatzeko urteko kanpainak udaberrian egin ziren, otsailaren 3tik maiatzaren 3ra, eta udazkenean, irailaren 21etik 2023ko urtarrilaren 5era.

| | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Estolderia: erregistroak | 1.146 | 1.394 | 3.008 | 3.014 | 3.050 | 3.078 | 3.106 | 3.138 | 3.138 |
| Estolderia: ikuskapenak | 896 | 3.942 | 3.282 | 3.763 | 3.865 | 3.217 | 3.868 | 2.633 | 3.251 |
| Bide publikoan eta udal-eraikinetan | 395 | 612 | 543 | 717 | 1.027 | 1.570 | 1.248 | 1.231 | 1.518 |
| Arratoiak hiltzea (partikularrak) | 417 | 78 | 74 | 146 | 49 | 97 | 59 | 70 | 97 |
| **Zerbitzuak, guztira** | **3.156** | **6.047** | **6.907** | **7.822** | **8.183** | **7.994** | **8.423** | **7.143** | **8.144** |

### LABEZOMORROEN KANPAINA

Urtero, eta udaberrian espeziearen arrautzak eklosionatzearekin batera, Desinfekzio Parkeak ofizioz hiltzen ditu intsektuak; oraingoan, Txantrea auzo osoan egin da, bai eta Bigarren Zabalguneko leku zehatzetan eta hiriko beste auzo batzuetan ere. Labezomorroak kontrolatzea du xede; zehazki, intsektizida botatzen da saneamendu-sisteman eta konpainia elektrikoetako eta argiteriako erregistroetan.

### TIGRE ELTXOA

2024an, espezie hori zaintzeko eta kontrolatzeko programari eman zaio segida Iruñean. Zaintza egite aldera, lekuko bana duten hamar arrautza-tranpa jarri dira Iruñeko udal-barrutian zehar, bai eta inguruetan ere. Tranpak 15 egunean behin berrikusi, lekukoak bildu eta berriak jartzen dira. Biltzen diren lekukoak kodetu eta Nekazaritza Elikagaien Kalitaterako Laborategira eramaten dira, aztertu ditzan. Laborategia Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko departamentu barruan dago.

Arrautza-tranpak jarri, berrikusi eta kentzeko sistema 2024ko martxoaren 20tik azaroaren2024ko abenduaren 26ra erabili zen.

### LIZTOR ASIARRA

2023an, zerbitzuak 66 habia kendu zituen. 2024an, 45 tranpa paratu dira Iruñean. 2024ko otsailaren 6tik 2024ko ekainaren 7ra, tranpak 5 aldiz berrikusi ziren eta, guztira, 817 ale harrapatu ziren.
2024ko maiatzaren 20tik, ziklo hasierako lehen habia primarioa atzeman zenetik, 2024ko azaroaren 11ra arte, guztira 56 habia atzeman ziren. Bigarren epealdian, 2024ko azaroaren 12tik 2025eko martxoaren 1era, guztira 12 habia antzeman ziren

## KOMUN PUBLIKOAK

Hiriak 10 komun tradizional ditu (obrakoak eta kudeaketaz arduratzen diren langileak dituztenak) eta berez garbitzen diren 31 komun, hiri osoan banatuak, urte guztian funtzionamenduan, ezinbesteak eragindako kasuetan izan ezik.

Komun tradizionaletan, zerbitzuak zenbat jendek erabiltzen dituen zenbatu zen udaberriko aste batean (ekainaren 5etik 11ra) eta udazkeneko aste batean (azaroaren 20tik 26ra). Datuak urtearen gainerakora aldatuz erabilerari buruzko kalkulu bat egin daiteke, taula honetan ageri den bezala.

| | Ekaina (10etik 16ra) | | Azaroa (18tik 24ra) | | Zenbatespena Urtean |
|---|---|---|---|---|---|
| | astea | Eguna | astea | eguna | |
| WC- sarasate | 11 | 3 | 3 | 3 | 14 |
| Gazteluko plaza | 116 | 5 | 5 | 5 | 121 |
| Gurutzeko plaza | 116 | 5 | 5 | 5 | 121 |
| Foruen plaza | 116 | 5 | 5 | 5 | 121 |
| Basotxoa | 116 | 5 | 5 | 5 | 121 |
| Antoniutti | 116 | 5 | 5 | 5 | 121 |
| Ziudadela | 116 | 5 | 5 | 5 | 121 |
| Media luna | 116 | 5 | 5 | 5 | 121 |
| Munduaren parkea | 116 | 5 | 5 | 5 | 121 |
| Landaben* | 10 | 2 | 2 | 2 | 12 |
| **GUZTIRA** | **2.409.112 Erabiltzaile urteko** | | | | |

(*) Landabengo komunak igandeetan bakarrik daude zabalik. Uztailean eta abuztuan izan ezik, itxita baitaude. Beraz, azaroko datuak 10 hilabetez hartzen da aintzat..

### GARBIKETA AUTOMATIKOKO KOMUNAK

**Erabilera kopurua**

| Aseo | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gazteluko plaza | 40.299 | 31.945 | 32.108 | 15.011 | 18.539 | 35.918 | 46.135 | 46.472 |
| Sanduzelai - Arga pasealekua* | SD | SD | 11.639 | 5.834 | 6.677 | 13.316 | 14.982 | 15.298 |
| Magdalenako zubia* | SD | SD | 7.457 | 3.327 | 4.178 | 7.935 | 9.076 | 9.308 |
| Runa parkea* | 12.975 | 18.896 | 17.566 | 8.513 | 8.166 | 16.820 | 17.211 | 19.868 |
| Maiteminduen parkea* | 9.099 | 10.123 | 9.686 | 5.692 | 5.387 | 10.519 | 11.935 | 10.319 |
| Mendillorribeiti | 7.366 | 7.608 | 9.093 | 3.668 | 4.455 | 9.504 | 10.105 | 10.976 |
| Mendillorrigoiti | 5.617 | 4.524 | 5.590 | 1.892 | 2.669 | 6.108 | 6.060 | 6.083 |
| Nazario Carriquiri k.* | S.D | 3.507 | 3.653 | 1.200 | 1.986 | 3.277 | 3.183 | 3.334 |
| Felisa Munárriz plaza | 5.833 | 5.987 | 6.639 | 3.325 | 2.597 | 6.477 | 7.466 | 9.758 |
| Sarasate pasealekua | 34.846 | 35.057 | 40.364 | 16.954 | 21.153 | 38.939 | 45.899 | 48.010 |
| La Olivako Monasterioaren k. | S.D | S.D | 17.378 | 7.779 | 6.563 | 16.058 | 18.567 | 20.168 |
| Ibarbidea | 9.041 | S.D | 7.273 | 3.075 | 2.891 | 5.274 | 9.363 | 11.095 |
| Gartzia Naiarakoaren pasealekua | S.D | 21.285 | 21.336 | 10.220 | 9.269 | 20.251 | 20.368 | 22.763 |
| Serafín Olave k. | 23.795 | 23.489 | 21.557 | 8.811 | 14.238 | 25.137 | 24.780 | 25.414 |
| Ilargi Enea parkea* | 7.698 | 5.188 | 7.669 | 2.936 | 2.890 | 5.581 | 6.990 | 6.617 |
| Karlos III.aren etorb. | 36.427 | 34.187 | 40.167 | 14.669 | 16.539 | 34.088 | 41.107 | 47.023 |
| San Roke k. | 5.609 | 6.419 | 7.249 | 3.903 | 3.855 | 6.022 | 6.067 | 6.887 |
| Martzilla monast. pl. | 4.327 | 7.307 | 5.583 | 2.525 | 2.344 | 5.583 | 5.483 | 5.735 |
| Viñaburu botikariaren k. | 2.874 | 2.844 | 2.441 | 1.201 | 1.348 | 2.611 | 2.926 | 3.119 |
| Manuel Turrillas plaza | 6.914 | 7.176 | 7.997 | 3.400 | 3.651 | 6.175 | 7.803 | 8.699 |
| Gares plaza | 5.846 | 5.709 | 7.194 | 3.317 | 3.241 | 5.778 | 7.324 | 7.294 |
| Erriberri k. | 7.408 | 6.485 | 7.642 | 3.482 | 2.552 | 6.171 | 6.928 | 6.543 |
| San Frantzisko plaza | 41.667 | 30.269 | 31.210 | 15.062 | 16.184 | 31.862 | 38.679 | 36.483 |
| Alfredo Landa parkea | 8.587 | S.D | 17.753 | 8.272 | 8.029 | 14.208 | 14.625 | 16.539 |
| Sandua pasealekua | 9.954 | 12.429 | 9.543 | 4.793 | 4.470 | 10.730 | 12.287 | 11.247 |
| Taxoare k. | 3.871 | 1.552 | 8.942 | 3.330 | 4.607 | 9.936 | 12.194 | 12.708 |
| Yamaguchi | - | - | - | - | - | - | 17.335 | 15.254 |
| Trinitarios | - | - | - | - | - | 10.989 | 12.029 | 14.075 |
| Donejakue bidea | - | - | - | - | - | 13.858 | 16.475 | 18.844 |
| Etxabakoitz | - | - | - | - | - | 5.793 | 5.971 | 7.212 |
| Iruñeko Orfeoia | - | - | - | - | - | | 7.158 | 6.983 |
| **Orotara** | **290.053** | **281.986** | **364.731** | **162.191** | **178.478** | **384.918** | **466.511** | **490.128** |

* Kanpoaldean pixaleku bikoitza duten komunak

DG: Daturik gabe.

Ikusten da erabilera kopuruak gora egin duela komun gehien-gehienetan. Erabilerarik gehien izan duen urtea da, datuak ditugunetik.

**Garbiketa automatikoko komunik erabilienak**

| HURRENKERA | KOMUNA | Erabiltzaileak eguneko | | % METATUA |
|---|---|---|---|---|
| 1 | Sarasate pasealekua | 132 | 9,79 | 67,76 |
| 2 | Karlos III.a | 129 | 9,59 | |
| 3 | Gazteluko plaza | 127 | 9,48 | |
| 4 | San Frantzisko | 100 | 7,44 | |
| 5 | Serafín Olave | 70 | 5,18 | |
| 6 | Gartzia Naiarakoa | 62 | 4,64 | |
| 7 | La Olivako monast.** | 55 | 4,11 | |
| 8 | Runa parkea | 54 | 4,05 | |
| 9 | Donejakue Bidearen parkea | 52 | 3,84 | |
| 10 | Alfredo Landa- Lezkairu | 45 | 3,37 | |
| 11 | Sanduzelai | 42 | 3,12 | |
| 12 | Yamaguchi-Planetarioa | 42 | 3,11 | |
| 13 | Trinitarios | 39 | 2,87 | 31,55 |
| 14 | Taxoare | 35 | 2,59 | |
| 15 | Sandua pasealekua | 31 | 2,29 | |
| 16 | Ibarbidea | 30 | 2,26 | |
| 17 | Mendillorribeiti ikastetxea | 30 | 2,24 | |
| 18 | Maiteminduen parkea | 28 | 2,11 | |
| 19 | Felisa Munárriz plaza | 27 | 1,99 | |
| 20 | Magdalenako zubia | 26 | 1,90 | |
| 21 | Azpilagaña/Turrillas plaza | 24 | 1,77 | |
| 22 | Gares plaza | 20 | 1,49 | |
| 23 | Etxabakoitz | 20 | 1,47 | |
| 24 | Iruñeko Orfeoia-NUP | 19 | 1,42 | |
| 25 | San Roke/Entzutegia | 19 | 1,40 | |
| 26 | Ilargi Enea parkea | 18 | 1,35 | |
| 27 | Erriberri | 18 | 1,33 | |
| 28 | Mendillorrigoiti, aintzira | 17 | 1,24 | |
| 29 | Martzilla mon. | 16 | 1,17 | |
| 30 | Karrikiri | 9 | 0,68 | |
| 31 | Viñaburu-Ospitaleak | 9 | 0,64 | |
| | | **1343** | **99,99** | **100** |

Ateratako datuak kontuan hartuta, erabileren % 67,76 garbiketa automatikoko 12tan egin da eta, guztira 31 komun auto-garbigarri daude (taulan gris ilunean adierazita).

## BAINU-ETXEA

Hiriak bainu-etxe bat du Eslava kaleko 9 zenbakian; ur beroz hornitutako instalazioak ditu, eta zortzi dutxa-kabina, sei bainugela (desgaitasunen bat duten pertsonek erabiltzeko egokitutako bi), hiru arropa-garbigailu eta hiru lehorgailu. Horrez gain, modu egokian erabiltzeko tresna guztiak ere badaude..

**Dutxen erabileren joera**

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gizarte-zerbitzuetako dutxa kopurua | 956 | 900 | 815 | 757 | 549 | 719 | 3.459 | 5.642 |
| Ordainpeko dutxak, guztira | 5.711 | 6.447 | 6.511 | 3.057 | 3.336 | 5.747 | 6.564 | 6.515 |
| Bainu kopurua | 19 | 6 | 16 | 0 | 0 | 0 | 0 | |

**Garbitze eta lehortze kopurua**

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gizarte-zerbitzuetako garbitze | 905 | 808 | 1.480 | 878 | 709 | 868 | 1737 | 2895 |
| Gizarte-zerbitzuetako lehorketa. | 905 | 808 | 1.480 | 878 | 709 | 865 | 1737 | 2653 |
| **GUZTIRA Gizarte Zerbitzuak** | **1.810** | **1.616** | **2.960** | **1.756** | **1.418** | **1.733** | **3.474** | **5.548** |
| Ordainpeko garbiketak, guztira | 754 | 734 | 494 | 332 | 388 | 341 | 302 | 263 |
| Ordainpeko lehorketak, guztira | 660 | 665 | 438 | 313 | 374 | 325 | 283 | 254 |
| **GUZTIRA ordainpeko zerbitzuak** | **1.414** | **1.399** | **932** | **645** | **762** | **666** | **666** | **517** |
| **OROTARA** | **3.224** | **3.015** | **3.892** | **2.401** | **2.180** | **2.399** | **4.059** | **6.065** |

### ARROPA-GARBIKETA

Desinfekzio Parkeak udal-zerbitzuetako langileen lan-arropa garbitu eta lehortzen du, halakorik eskatzen badute. Zehazki, arroparen oinarrizko garbiketa egiten da eta ez dago bermatua orban zailak kentzea (ez da tindategiko lanik egiten)..

| Año | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Arropa kontuz garbitzeko zerbitzua (aurrez desinfekzioa autoklabean) | 254 | 227 | 95 | 104 | 90 | 105 | 94 | 91 | 106 |
| Udal-arropa garbitzeko zerbitzuak | 605 | 626 | 500 | 475 | 413 | 465 | 451 | 482 | 458 |
| **Garbitze-zerbitzuak, guztira** | **859** | **853** | **595** | **579** | **503** | **570** | **545** | **573** | **564** |
| **Autoklabe-zerbitzuak, guztira** | **94** | **117** | **95** | **116** | **103** | **110** | **119** | **124** | **127** |

### XIRINGEN BILKETA

Gaur egun, garbiketa automatikoko komunak dira xiringak aurkitzeko aukerarik handieneko lekuak. Higiene Zerbitzuko langileek biltzen dituzte xiringak, prozeduraren arabera, aipatu komunak egunero berrikusten dituztenean.

| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Orotara** | 42 | 44 | 52 | 43 | 107 | 72 | 20 | 26 | 18 | 39 |

## 7.3.7 Udal hilerria

Ez da arazorik izan eskura dagoen eskaintzan, ez nitxoetan, ez gorpuzkin-kolunbarioetan, ez errauts-kolunbarioetan, ez lurreko hilobietan. Urtea amaitzean, 4.237 nitxo, 116 gorpuzkin-kolunbario eta 55 errauts-kolunbario daude libre, eta aurten ere ez da inor hobiratu lautik gorako altuera izan eta libre daudenak.

Urtean, 96 errauts-kolunbario berri jartzea kontratatu da; aurreikuspenen arabera, 2025eko lehen hiruhilekoan egonen dira eskuragarri.

### EHORZKETEN KONPARAZIO-TAULA

| Ehorzketa motak | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Horma-hilobiak | 427 | 435 | 420 | 363 | 466 | 364 | 383 | 317 | 330 |
| Lurra | 8 | 24 | 32 | 37 | 218 | 198 | 197 | 166 | 146 |
| Panteoia | 184 | 183 | 180 | 191 | 46 | 33 | 29 | 26 | 21 |
| Gorpu-errausketak | 2.078 | 2.033 | 2.171 | 2.162 | 2.402 | 2.072 | 2.182 | 2.445 | 2.583 |
| **Orotara** | **2.697** | **2.675** | **2.803** | **2.753** | **3.132** | **2.667** | **2.791** | **2.954** | **3.080** |

2024an errausketa gehiago egin dira 2023an baino, eta ehorzketa gutxiago panteoietan eta lurrean. Guztira, zerbitzu gehiago izan dira aurreko urtean baino.

### DESOBIRATZEEN KONPARAZIO-TAULA

| Desobiratze motak | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Beste hilerri bat | 19 | 25 | 16 | 17 | 7 | 15 | 9 | 5 | 4 |
| Hezurtegi komuna | 803 | 592 | 643 | 314 | 384 | 964 | 646 | 478 | 176 |
| Berrehorzketak | 136 | 126 | 126 | 202 | 182 | 200 | 218 | 220 | 176 |
| Gorpuzkien errausketa | 261 | 238 | 206 | 308 | 231 | 227 | 281 | 298 | 263 |
| **Orotara** | **1219** | **981** | **991** | **841** | **804** | **1.406** | **1.154** | **1.001** | **619** |

2024an, desobiratze gutxiago egin dira 2023an guztira egindakoak baino. Lau desobiratze motek behera egin dute.

## KONPARAZIO-TAULA: NITXORA ERAMATEA / ERRAUSKETA

| Ehorzketa mota | 2018 | % | 2019 | % | 2020 | % | 2021 | % | 2022 | % | 2023 | % | 2024 | % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Nitxoak | 420 | 14,98 | 363 | 13,18 | 466 | 15 | 364 | 13,7 | 383 | 13,7 | 317 | 10,7 | 330 | 10,7 |
| Gorpu-errausketak | 2.171 | 77,45 | 2.162 | 78,53 | 2.402 | 76,7 | 2.072 | 77,7 | 2.182 | 78.2 | 2.445 | 82,8 | 2.583 | 83,9 |
| Gainerakoak | 212 | 7,5 | 228 | 8,3 | 264 | 8,3 | 231 | 8,6 | 226 | 8,1 | 192 | 6,5 | 167 | 5,4 |
| **Ehorzketak, guztira** | **2.803** | | **2.753** | | **3.132** | | **2.667** | | **2.791** | | **2.954** | | **3.080** | |

## IRUÑEKO HILERRIAN EHORTZITAKO KANPOTARREN JATORRIA

| Año | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Iruñerriko herrietakoak | 538 | 442 | 519 | 575 | 571 | 602 | 627 | 663 | 709 |
| Nafarroako beste herri batzuetakoak | 555 | 543 | 542 | 521 | 571 | 457 | 485 | 583 | 569 |
| Beste probintzia batzuetakoak | 80 | 73 | 79 | 88 | 99 | 97 | 97 | 82 | 98 |
| **Total** | **1.173** | **1.058** | **1.140** | **1.184** | **1.241** | **1.156** | **1.209** | **1.328** | **1.376** |

# 08

# Berdintasuna, Ekintza Komunitarioa, Auzoak, Herritarren Partaidetza eta Euskara

# 8.1 Berdintasuna

Iruñeko Udalaren Osoko Bilkurak 2016ko apirilaren 7an onetsitako III. Berdintasun Planak jarraipena eman die aurreko planen baitan hasitako ekintzei, emakumeek eta gizonek bizitza publikoaren eta pribatuaren eremu guztietan aukera berdinak izanen dituzten hiri baten garapena sustatzeko.

Planean ezarrita daude emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politika publikoa garatzeko ardura duten udal-alor eta zinegotzigo guztiek bete beharreko jarraibideak. Horrenbestez, agiri estrategikoa da eta lan-esparruak eta helburuak ezarri ditu, horien bidez udaleko administraziorako eta udal-kudeaketarako alor guztiak inplikatzeko.

Planak **Nafarroako Gobernuaren ibilbidea udaleko berdintasun-alorren lana Planifikatzeko, Kudeatzeko eta Ebaluatzeko** agirian aurreikusitako lau esku-hartze esparruak bildu ditu, bai eta 15 ildo estrategiko ere. Esparru bakoitzean zehazten dira helburu orokorrak (HO), helburu zehatzak (HZ) eta proposatutako jarduketak. Urteko planen bidez garatzen da, batetik, udal-alorretan onetsitako aurrekontuen bitartez eta, bestetik, Planaren lau esparruetan jarduketak garatzen dituzten zeharkako proiektu komunen bitartez.

- Gobernantza eta berdintasunaren aldeko konpromiso politikoa
- Emakumeak ahalduntzea eta balio-aldaketa
- Zaintza-lanak eta erantzunkidetasuna bizitzaren jasangarritasunerako gakotzat aitortzea.
- Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitza hiri seguruan.

III. Planaren indarraldia 2022rako zegoen pentsatua baina haren aplikazioa 2024an ere mantendu da, 2025-2029ko indarraldia izanen duen IV. Plana onetsi arte.

### IRUÑEKO III. BERDINTASUN PLANA ETENGABE EBALUATZEKO PROZESUA

Iruñeko III. Berdintasun Planaren ebaluazioa etengabea da eta urteko programazioan egiten diren gauzatze-adierazleen jarraipena du oinarri. Ebaluazioa,halaber, urte bakoitzean behar beste doikuntza egiteko baliatzen da, bai eta hurrengo urterako behar diren erabakiak hartzeko ere. Ebaluazioa batutzailea da, urtez urte jarraipen tresnaren bidez eskuratzen den gero eta informazio gehiagoan oinarritua.

### IRUÑEKO III. BERDINTASUN PLANAREN GARAPENA 2024AN

2024an, finkatuak zeuden ekintzak mantendu dira, bai Berdintasuneko alorraren aldetik, bai udal-alorren aldetik beren urteko programazioen baitan.

## 8.1.1 Gobernantza eta berdintasunaren aldeko konpromiso politikoa

**Batzorde Politikoa**, udaleko talde politiko guztietako ordezkariek osatua, ez da eratu 2024an, eta biltzeko zain dago IV. Berdintasun Plana onesteko.

**Batzorde Teknikoa**, alor guztietako zuzendaritzek eta teknikariek (14 emakume eta 14 gizon) osatua, 4 aldiz bildu da 2024an: otsailaren 17an, ekainaren 20an, urriaren 16an eta abenduaren 19an. Bileretan informazioa eman da urteko Plan Operatiboaren inguruko gobernantza-lan bateratuen egoeraz, gauzapenaz eta jarraipenaz.

**Oinarrizko prestakuntza** eman zaio **berdintasunari** buruz udalbatzari eta Berdintasun Batzorde teknikoari berdintasuna udal politiketan txertatzearen inguruan eta aurrekontu-politiken bitartez (24 emakumeri eta 18 gizoni zuzendua. Berdintasuneko alorrak atzeman du zaila dela parte-hartze etengabea lortzea eta bi helburuak betetzea, hots, egokiro informatzea eta prestatzea denbora luzea erabili gabe).

**2025eko Berdintasun Plan Operatiboa** diseinatzeko, Batzorde Teknikoaren urriaren 16ko bileraren ondoren, lehen proposamena bidali zitzaien alorrei, alorrek egin beharreko ekintzak berresteko eta proposamen berriekin osatzeko. Bertsio finkatua, alor bakoitzeko 2025eko aurrekontuetan sartu beharreko berdintasun-helburuak ezartzeko ere balio izan zuena.

2024an aurrera egin da, I**ruñeko Udalaren Berdintasunerako IV. Planaren definizio operatiboan**, eta 2025eko lehen seihilekoan dago programatua haren onespena.

**Urteko Plan Operatiboaren jarraipenari** dagokionez, azaroaren 26an tresna eguneratua bidali zitzaien alorrei (Excel formatuko fitxa), dagokion erabilera-gidarekin eta fitxak betetzeko eta bidaltzeko jarraibideekin, bai eta 2024ko Plan Operatiboa ere. Harremanetan izan gara Batzorde Teknikoko kideekin, telefonoz eta posta elektronikoz (planoperativodeigualdad@enred.es), jarraipen-fitxak betetzean sortutako zalantzak argitzeko, bai eta informazio gehiago emateko ere, behar izan denean. Ekintzen 172 jarraipen-fitxa jaso dira, eta kontuan hartu dira jarraipeneko azken txostena egiteko.

Berdintasun Teknikariek, urtero bezala, **Nafarroako Toki Entitateetako Berdintasun Teknikarien Sarearen** bileretan parte hartu dute, ekintzak koordinatzeko, baterako lan-prozedurak hobetzeko, eta solaskidetza lanak egiteko Nafarroako

Berdintasunerako Institutuarekin (NABI), Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin (NUKF), etab. Bost bilera egin dira, 31 entitatek parte harturik eta, haien izenean, 30 emakume eta gizon bat bertaraturik.

**Berdintasun Ordenantzan** xedatutakoarekin bat eta III. Planaren 3. Ildo Estrategikoaren baitan (lan- eta administrazio-prozedurak, xede harturik berdintasun-printzipioa integratzea eta herritarrak zein udal-langileak asetzea udalak berdintasuna kudeatzeko moduari eta harekiko konpromisoari dagokienez) honako jarduketa hauek garatu dira, gaien arabera elkartuta:

### GENERO ERAGINAREN GAINEKO TXOSTENAK ARAUETAN ETA PLAN ESTRATEGIKOETAN

Berdintasun Unitateak plan eta arauen prestaketan parte hartu zuen,plan eta arauak diseinatzeko ardura duten alorrek eskaturik, eta testuari eta kasuan kasuko genero-eraginari buruzko txostenen inguruko gomendio-proposamenak egin ditu. 2024an, honako plan eta arauei buruzko aholkularitza egin da:

1. LGTBI Kontseiluaren erregelamendua.
2. Auzo Kontseiluen erregelamendua.
3. II. Zabalguneko HJPB
4. Turismoko Plan Estrategikoa
5. Ingurumen Hezkuntzako Plan Estrategikoa (prozesuan)
6. Mugikortasun Plana (prozesuan)
7. LGTBI Udal Plana
8. Etxebizitza Ordenantza (prozesuan)
9. 2024ko lan eskaintza publikoa

Haietan guztietan, aholkularitza eman da genero-ikuspegia honakoetan txertatzeko: desberdinkerien diagnostikoan, identifikazioan eta analisian, desberdinkeriak konpentsatzeko ekintzak edo neurriak zehazteko orduan, hizkera egokia erabiltzeko orduan, eta datuak sexuen arabera bereizita biltzeko bai jarraipenean bai ebaluazioan, eta emakumeen ikusgaitasunean, posizioan eta eragin-gaitasunean, eta beharretan, konprometitutako ekintza orotan.

Berdintasuneko alorrak adierazi zuen oso garrantzitsua dela aholkularitza prozeduraren hasieran eskatzea.

### BERDINTASUNA NOLA TXERTATU UDAL-AURREKONTUETAN

2021ean, Ogasunak gidatutako prozesu bat hasi zen, Berdintasunarekin lankidetzan, sei urtean garatzeko eta teknikariak trebatu eta aholkatzeko, berdintasuna aurrekontu-programa garrantzitsuetan txertatzeko, hirian berdintasuna lortzea eragite aldera.

2022an, 6 aurrekontu-programa aztertu ziren; 2023an, 11 programa, eta 2024an, honako alor eta/edo programek parte hartu zuten:

1. Plangintza Estrategikoa - Agenda 20230
2. Garapen Jasangarria
3. Kultur Aniztasuna
4. Parte-hartzea.
5. Sanferminetako programazioa.
6. Artxiboa.
7. Euskarazko Kultur Jardueren programazioa
8. Civivox.
9. Zurgintza eta Mantentze-lanetako Lantegi Eskolak
10. Merkataritza.
11. Gazteria.
12. Adinekoak.

Aurrekontuen eraginari buruzko txostena biltzen ditu alor bakoitzak III. Berdintasun Planarekin eta Berdintasun Ordenantzarekin dituen inplikazioa eta konpromisoa, eta aurreikusten du zer-nolako eragin onuragarria izanen duen urteko aurrekontu-plangintza guztiak.

Oinarri harturik bai alor bakoitzak berdintasunarekiko duen konpromisoari buruz genero-eraginaz egindako txostenak, bai 2025erako egin den aurrekontu-plangintzak berdintasunaz izanen duen eragin onuragarri aurreikusgarria, Ogasunak 2025eko udal-aurrekontuen proiektuaren genero-eraginari buruzko txosten bakarra egin zuen, Berdintasuneko alorrak horren aldeko txostena eginda.

### BERDINTASUNA UDAL-KONTRATAZIOAN

Honako alor hauetako zerbitzuen kontratuetan jaso da genero-berdintasunari buruzko gaiak kontuan hartzearen inguruko informazioa: Komunikazioa, Berdintasuna, Planeamendua eta birzatiketa eta urbanizazio proiektuak, Merkataritza eta Turismoa.

### BERDINTASUNA DIRULAGUNTZEN OINARRIETAN

Jasotako informazioaren arabera, honako alor hauetako dirulaguntzetan hartu da aintzat genero-ikuspegia txertatzea: Merkataritza, Kultura, Kirola, Hezkuntza, Berdintasuna, Herritarren Partaidetza eta Euskara.

## KOMUNIKAZIOA ETA HIZKUNTZA INKLUSIBO EZ-SEXISTA ERABILTZEA

Berdintasuneko alorrak bultzaturik, lantegi bat egin da hizkuntza administrazioan erabiltzeko moduari buruz eta berdintasuna eragiten duen komunikazioak dituen ondorioak baloratzeko. 5 alorretako langileek parte hartu zuten (22 emakume eta 6 gizon). Hizkuntzari buruzko prestakuntza funtsezko ardatzetako bat da datorren urterako; izan ere, komunikazio-ekintzek berdintasuna sortzeko duten garrantziaz aurrera egitea dago aurreikusia.

Honako alor hauei buruzko informazioa jaso da hizkuntza inklusibo ez-sexistaren erabileraren inguruan: Alkatetza, Ekintza Komunitarioa, Gizarte Ekintza, Giza Baliabideak, Merkataritza eta Turismoa, Bulego Estrategikoa, Komunikazioa eta Ingurumen Hezkuntza.

## DATU BANAKATUAK

**Iruñeko Hiri Behatokia** azterketak eta diagnostikoak egiteko tresna bat da, erabakiak hartzen eta ekintza estrategikoak zehazten laguntzeko eta aholkatzeko.

2023an, Berdintasun Unitateak eskatuta, Hiri Behatokiaren adierazle guztiak berrikusi eta sexuaren arabera bereizi ziren. Gainera, azterketatik eratorritako gomendioak helarazi zitzaizkion Behatokiari, datu guztiak bereizita biltzeko hobekuntzei zegokienez. .

2024an, ez da aurrera egin eta ez da jarduketarik zehaztu Behatokia genero-berdintasuna lortzearekin bat etortzea sustatzeko, ezta Behatokiak udal-alorrei ematen ahal dien eta beharrezkoa den euskarrian ere, dela genero-zeharkakotasunaren aplikazioan, dela desberdinkerien analisian; alorrek, izan ere, horrelakoak egin behar dituzte beren plangintza doitzeko eta jarduketen genero-eragin onuragarria aurreikusteko.

Gainera, sexuaren arabera bereizitako datuak aintzat hartu izanari buruzko informazioa jaso da honako ekimen hauei dagokienez: EGILE BERRIAK eta BERTSOPAPERAK literatur lehiaketak, sanferminetako nazioarteko kartel lehiaketa, Gazteria Unitatearen eta Gaztedia Etxeko programazioak, Gizarte Ekintzako alorrari lotutako jarduerak, Herritarren Partaidetzako bileren errelatoretzetan eta txostenetan, Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak egindako jarduera guztiak, eta era berean, langile-departamentuak, Iruñeko Turismo Bulegoak, San Bartolome Gotorlekuko Iruñeko Harresien interpretazio zentroak, Ultreiak, Jesus eta Maria erromes-aterpetxeak, Guardia Zentroak (Sanferminetako I.Z.), Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak, Zentro Komunitarioek egindako guztiak ere, bai eta hainbat ekitaldi jendetsu ere.

## GIZONEN ETA EMAKUMEEN PRESENTZIA OREKATUA

Informazioa jaso da honako alor hauetako jarduketetan sustatu egin dela gizonen eta emakumeen presentzia orekatua:

**Ekintza Komunitarioan** emakumeen eta gizonen arteko parte-hartze orekatua sustatu eta bultzatu zen, emakumeen parte-hartzea trabatzen duen hartan eraginez. Horretarako, genero-ikuspegia hartu zen kontuan Kudeaketa Batzordeen bileretan eta kolektiboen Batzarrean (hitz egiteko txanda orekatua, emakume parte-hartzaileak libre egotea kontuan hartzen duten ordutegiak, etab.). Gainera, ordutegirik aldekoenak hartu ziren kontuan, ahal zen bakoitzean, aurrez bertaratuei galdetuz edo haien bizitza-ordutegiak ezagutuz.

**Alkatetza:** Ekintzak planifikatu ziren, urte osoko azken kopuruan genero-parekotasuna lortzeko, Protokoloak antolaturiko Udaleko ekitaldi publikoak aurkeztu zituztenen artean. Etorkizunari begira, gauza bera lortzea litzateke xedea programatzen den ekitaldi bakoitzean.

**Komunikazio Zerbitzua,** halaber, ahotsa ematen saiatu zen emakumezko teknikari eta tarteko burutzei aurkezpen publikoetan, argazkietan eta bideo-albisteetan, e.a. Arreta berezia jarri zuen hizkuntza inklusibo ez-sexistaren erabileran hedabideendako deialdietan agertzen diren karguetan.

Emakumeak Udaleko kargu publikoetan ikusaraztea, izendapenen mendean dago. Legealdian, 11 zinegotzigo daude (berezien eta ordezkarien artean) eta 4 emakume dira buru, hau da, zuzendaritza politikoaren % 36,3.

2020an **bideo-albiste zerbitzu** berria hasi zen komunikabideentzat eta udal webgunearentzat. 2022an azterketa bat egin eta ikusi zen bideo-albisteen % 75en gizonak zirela ardatz, bai erakundearen barne iturrietan, bai Administrazioaz kanpoko elkarrizketatuen artean. Orduz geroztik, saiakera egiten da Alorrek emakumezkoen iturriak eman ditzaten, ordezkaritza orekatzeko.

2023an, azaroaren 27ra arte izandako 205 bideo-albisteetan ahotsen % 48,6 emakumezkoak izan ziren, eta % 51,3, gizonezkoenak, parekotasuna lortuta. Gainera, erakundeen ahotsak izan ziren 193 bideo-albisteen iturrietatik, 82 ( % 42,4) emakume politikari edo teknikarienak izan ziren. 2024an, parametroek okerrera egin zuten nabarmen. Izan ere, 361 ahotsetatik, % 401, bakarrik izan ziren emakumezkoenak (145), eta gizonezkoenak, aldiz, % 59,9 (216). Gainera, disimetria are gehiago handitzen da kontuan hartzen bada erakundeen emakumezko ahotsak (60) emakumezko ahots guztien (145) % 41,3 bakarrik izan zirela. Erakundeko emakumeen irudiaren pisuak behera egin zuen bideo-albisteetan.

Kultura: Zikloetako programen diseinuan emakumezko erreferenteen presentzia izan da xedea, emakumeek duten kultur ahalmena ikusarazteko. Horregatik, antolatu diren ziklo guztietan emakumeen presentzia parekatzea izan da xedea.

Zehazki, 2024ko euskarazko kultur jardueran nahiko orekatua egon da emakumeen eta gizonen presentzia (artistak, prestatzaileak eta dinamizatzaileak...). Guztira, 77 emakume kontratatu ziren eta 86 gizon. Programaz programa, honenbeste emakume eta honenbeste gizon kontratatu ziren: BertsAroa (%50 e. / %50 g.), Egile Berrien Lehiaketa (%100 e./ %0 g.), Irriziklo (%28,57 e./ %71,43 g.), Programazioa Nafar Ateneoarekin (%46,67 e./ %53,33 g.), Programazioa Karrikirirekin (%28,57 e./ %71,42 g.), Kantu eta Hitza (%33,33 e. / %66,67 g.), Hitzen Mintegia (%0 e./ %100 g.), Iruñaldia (%38,24 %e./

%61,76 g.), Antzerki Aroa (%58,82 e./% 41,18 g.), Antzerki testuen Lehiaketaren testu irabazlea ekoiztea (%100 e./ %0 g.), Bikoteka (%80 e./ %20 g.).

Sanferminetako programazioaren agertoki eta zikloetan, halaber, emakumezko interpreteen presentzia izan zen xedea, emakumeek ondutako sorkuntza artistikoa herritarrei erakusteko.

Hautaketa organoetan eta Pertsonen Kudeaketa Alorraren jardun-eremuaren baitan eratutako batzordeetan, sexuen arteko ordezkaritza eta osaera orekatua lortzea izan zen xedea.

Gazteria alorrean, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatu zen hainbat ekintzatan, hala nola kontratazioetan, epaimahaietan, Sanferminetako Gazte Gunean, Gazteriaren Mahaian...

**Herritarren Partaidetzako** langileek dinamizatutako partaidetza-organoetan erabili ziren metodologiek emakumeen presentzia erraztu zuten, bai eta haien ekarpena adieraztea ere. Zenbaitetan, hiri osorako edo auzoz auzoko partaidetza-prozesuak abiaraztean, emakumeendako deialdia areagotu eta zaindu zen (zenbait kasutan, adin jakin batzuetakoak), hasierako parekotasuna mantendu ahal izateko.

**Hirigintza-planeamenduaren** prestaketan, gizonezkoen eta emakumezkoen partaidetza lortzeko asmoz, emakume-elkarteak sartu ziren partaidetzan ziharduten eragileen artean eta, halaber, lan egin zen, partaidetza bereziki emakumeengana hurbiltzeko. Zehazki, aurten hainbat partaidetza-prozesu bideratu dira; nagusiki: Udal Plana Donapean aldatzea, Sanduzelaiko biribilgunea...

## BERDINTASUNA UDAL-JARDUERAN TXERTATZEA

Genero-ikuspegia jarduera zehatz hauetan txertatzeari buruzko informazioa jaso da:

Komunikazioak, urtero bezala, Berdintasuneko alorrak bultzatutako programen, jardueren eta ekimenen berri eman die herritarrei eta/edo komunikabideei. Hainbat euskarri erabili dira, hala nola prentsa-oharrak (90, 2024an; aurreko urtean baino% 35 gehiago eta 2022an baino % 61 gehiago), prentsa-deialdiak (10), sare sozialak, webgunea, mikro-espazioak irratian (Egunez egun), memoria, eguneroko prentsa idatziaren laburpena udal barneko erabilerarako, bideo-albisteak (7; 2023an, aldiz, 4), albiste horiek gero eta mupi digital gehiagotan zabaltzea (kopurua 20tik 52ra igo da).

Horrez gain, sanferminetako eraso sexistaren aurkako kanpainak zabaldu dira mupi digitaletan.

Halaber, bitartekari lanak egin dira eduki grafikoak eta publizitate-edukiak diseinatzeko LGTBi fobiaren kontrako Egunerako eta LGTBi jardunaldirako (ekaina), giza salerosketaren aurkako mahai ingururako (iraila), Urria Trans ekimenerako (urria) eta berdintasuneko alorraren mahai inguru baterako (azaroa).

Bulego estrategikoak Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasuna Iruñeko Hiri Agendan txertatzeko Gidari buruzko zabalkunde eta prestakuntza egin zituen.

Horrez gain, programak, deialdiak eta finantzazio-ildoak bilatu eta aztertu zituen Hiri Agendari eta udaleko gainerako plan sektorialei lotutako proiektuak garatzeko eta abian jartzeko, eta laguntza ere eman zuen proposamenak aurkezteko eta haien jarraipena egiteko.

Era berean, Hiri Agenda plan estrategiko gisa ezartzea, hiri-eredua, helburuak, lan-ildoak eta proiektu estrategikoak zehaztu dituena, genero-ikuspegi txertatuta eta emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko hiria garatzen lagunduta; eta genero-estrategia Europako proiektuen programazioan txertatzea.

Hirigintza Gerentzia lanean ari dira berdintasun-xedapenak Gerentziak lizitatzen dituen lurzoruen eta/edo eraikinen emakiden baldintzetan txertatzeko. Zer emakida mota den, sartu beharreko xedapenak aztertuko dira. Honakoak izan litezke: enpresa lizitatzaileek kontziliazio-planak txertatzea, eta emakidak prestakuntza-ekintzak baditu, genero-ikuspegiarekin trata daitezela.

Era berean, asmoa da planeamendua kudeatzearekin lotutako prozeduretan diharduten langileek behar bezalako prestakuntza izan dezatela berdintasunean, hura planeamenduan eta urbanizazioaren gauzapenean aplikatzeko.

Genero-ikuspegia Klima Ekintzarako Taldean txertatzea. Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak talde horren 3 edizio egin zituen klima-krisiari banaka eta taldeka aurre egiteko partaidetzan sakontzeko. Aurten, lankidetza hasi da Emakumeen Etxearekin, Klima Ekintzarako Taldearen bilerak bertan egiten baitira.

Taldean landu diren ohiko edukiez gain, genero-ikuspegia klima-krisiaren analisian txertatu da.

Zerbitzuak aintzat hartzen du genero-ikuspegia estereotipoak hausteko eta gizarte-ikuspegi inklusiboagoa sortzeko Ingurumen Hezkuntzako **material didaktikoak, buletinak**, etab. prestatzean.

Genero-ikuspegia ere hartu zen kontuan espezie exotiko inbaditzaileei buruz sentsibilizatzeko jardueretan eta erakusketa ibiltarian, **RUNA 2025 proiektuaren** baitan. Hainbat datu hartu ziren kontuan, hala nola sexuen arabera bereizitako partaidetza-datuak, hizkuntza eta irudi inklusiboen erabilera diseinu kontzeptualaren prozesuan eta ekintzen grafikoan; eta irizpide bat ere sartu zen, enpresa adjudikazio-hartzaileko taldeen orekaren aldekoa.

Giza Baliabideetako Alorreko Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak (LAPZ) **sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako prebentzio- eta jarduera-protokoloari** buruzko informazioa ematen jarraitu du, bai eta huraxe udal intraneten kontsultatzeko aukera eman ere Iruñeko Udalarekin edo Haur Eskolekin lan-harremana hasi duen langile orori.

2024an, Berdintasuneko alorrak **sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurrea hartu eta erantzuteko protokoloaren eguneratzea** bultzatu zen. Halaber, 2 prestakuntza-saio eman ziren, bata orokorra sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzkoa, eta bestea, kasu praktikoei buruzkoa eta haiei erantzuteko eta arreta egiteko moduari buruzkoa, Protokoloko Aholkularitza Konfidentziala eta Ikerketa Batzordea osatzen duten pertsonei zuzendua. Azalpenak indarkeria mota horren interpretazioarekin eta genero-analisiarekin lotu ziren, eta horri aurre egiteko moduarekin, oinarri harturik bai biktimen babesa, bai haien ahalduntzea. 3 emakumek eta 2 gizonek parte hartu zuten.

## IRUÑEKO UDALAREN BERDINTASUNERAKO BARNE PLANA

2022an, Zuzendaritza Batzordeak, Administrazioaren eta langileen ordezkaritzarekin batera, **Iruñeko Udalaren Berdintasunerako Barne Plana** onetsi zuen. Ekintza Plan Operatiboan dago jasota, berdintasunerako foru araudiarekin eta Iruñeko
Udalaren Berdintasunari buruzko Ordenantzarekin bat.

Urtean zehar, bi aldiz bildu da Planaren jarraipenaz arduratzen den organoa (Zuzendaritza Batzordea), 2024rako aurreikusitako ekintzak noraino garatu ziren ebaluatzeko, bai eta hurrengo urratsak lantzeko jarraibideak ezartzeko ere.

Urteko Plan Operatiboaren baitan aurreikusitako ekintzen artean, honako hauek burutu edo hasi ziren:

- Genero-eraginari buruzko txosten bat egin da, 2024ko Lan Eskaintza Publikoa onartzeari lotuta.
- Prebentzio arloko prestakuntza-eskaintza jakinaraztea, plantilla osoari irits dadila saiatuta.
- Prestakuntza-ekintzetan hizkuntza eta irudi inklusiboen erabileraren sustapena, bai eta edukietako genero-estereotipoen hausturaren sustapena ere. LAPZren prestakuntza hartu da kontuan. Baloratu da Berdintasuneko alorrak jarraibideen zerrenda bat egitea, prestatzaileei helarazteko, eta prestakuntza-edukiak berrikustean erabiltzeko.
- Emandako prestakuntzen erregistroa gordetzea, sexuaren arabera banatuta, bai prestakuntza ematen dutenena, bai parte-hartzaileena. LAPZek sustaturiko prestakuntzetan egina.
- Prestakuntzetan kontziliazio-premiak dituzten pertsonen parte-hartzea erraztea. Prestakuntza-saioetan 6 orduko formatua erabili ohi da; hau da, ez dator bat nahitaezko presentziarako ordutegiarekin, 9:00etatik 14:30era arte.
- Harrera Planean berdintasun arloko edukiak sartzea, Iruñeko Udalean sartzen diren pertsonak arloaz informatzeko eta sentsibilizatzeko, Udaleko Berdintasun Alorra eta berdintasunarekin lotuta egiten den lana ezagutarazteko.
- Berdintasuneko alorrak Barne Planaren Jarraipen Batzordeko kide gutxi batzuekin lan egin zen, plantillari zuzendutako Berdintasun Postontziaren edukia eta mugak proposatzeko. Postontzia Langileen Atarian sartuko da, plantilla guztiak eskura duen gune digitala baita.
- Lan baldintzetan dauden genero-desberdintasunak aztertzea. Arriskuen ebaluazioa ez da sexuaren arabera banatzen balorazio elementu gisa. Hartan sartuak daude, ordea, generoan jatorria duten arriskuak, eta sexuaren arabera banatutako datuak hartzen dira osasunaren ebaluazioan.
- Osotasun fisikorako eta psikikorako arriskurik ez duten lan giroak mantentzea, prebentzio planaren baitan.
- Laneko bajek lanpostuari dagokionez duten eragina aztertzea, datuak sexuaren arabera banatuta bai baja eragin duten istripuetan, baja eragin ez dutenetan eta gaixotasun profesionaletan. Enpresa behartua dago istripuak ikertzera, zerk eragin dituen jakiteko, berriz ere ez gertatzeko, behar diren neurriak ezarriz.
- Ugalketa osasuna, haurdunaldia eta edoskitzea prebenitzea, arriskua daragiten lanpostuak identifikatuz eta lanpostua egokitzeko mekanismoak ezarriz, ahal izanez gero, edo bestela, haurdunaldian arrisku-prestazioa Mutuaren bidez bermatzea. Haurdunaldirako arriskua duten lanpostuetan lan egiten duten langileei jarduera-protokoloaren berri ematea.
- Ekipamenduak, ergonomia, jantziak, babes-sistemak eta makineria emakumeendako eta gizonendako egokitzea. Prebentzio Zerbitzuak ez ditu materialak eta ekipamenduak erosten, baina egiaztatzen du irizpide tekniko batzuen arabera erosten direla; besteak beste, lanpostuen egokitzapen ergonomikoaren arabera.
- Lan Eskaintza Publiko bakoitzean sartuta dauden lanpostuen % 2 genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat gordetzea. Erreserba eraginkor hori 2020ko Lan Eskaintza Publikoen gainean egin da, eta haien deialdiak argitaratuko dira.
- Genero-indarkeriaren biktimei arreta eskaintzeko berariazko baliabideen barne-hedapena egitea.

## 8.1.2 Emakumeak ahalduntzea eta balio-aldaketa

**AHALDUNTZEAREN** arloan, eta **emakumeen autonomia ekonomikoa sustatze** aldera, Emakumeendako Udal Arreta Zerbitzuak (EUAZ) bere laguntza eta esku-hartze integraleko programa mantendu zuen zaurgarritasun berezian dauden emakumeendako, hots, Eman Aukera Zeure Buruari. 2024an, 41 emakume artatu ditu 64 haurrekin (datua 2024/12/16ra arte).

Gizarte Zerbitzuek ere hainbat jarduketa egin zituzten **emakumeen enplegagarritasuna hobetzeko,** hala nola Gizarte Enplegu Babestuko Programako postuen % 55etan gutxienez emakumeak kontratatzeko konpromisoa hartzea (zehazki, 92 emakume eta 88 gizon aritu dira); emakumeak lehenestea, langabetuak kontratatzeko proiektuan mantentze-lanak egiteko eta hiri-altzariak margotzeko; nahasmendu mentalak jotako pertsonek nekazaritza-lan osagarriak egitea.

Azkenean ez zen egin Gizarte Enplegu Babestuko programan ari diren langileendako orientabide- eta prestakuntza-ekintza, genero-ikuspegia kontuan hartzen duena. Baloratuko da 2025ean egin edo ez.

Eskola Lantegien 2024ko edizioan, ahalegin berezia egin zen emakume gazteak erakartzeko eta, ondorioz, emakume gehiagok eman zuten izena: izen-emate guztien % 23,5. Aurreko bi edizioetan, aldiz, % 13,7 eta % 11 izan ziren, hurrenez hurren. 7 emakume ari dira soldaduran; 6, zurgintzan; 5 lorezaintzan; 3, hargintzan; 2,igeltserotzan, eta bat, eraikinak mantentzeko lanetan. Emakumeak Lantegi Eskoletan sartzea ikusarazi, erakarri eta lehenesteko ekintza zehatzak egin ziren, Komunikazioko eta Berdintasuneko Alorrarekin koordinaturik.

2024an, Udaleko Gizarteratze eta Laneratze Taldeak (GLT) proposaturik, eraikinak eta aretoak garbitzeko oinarrizko lanak ikasteko prestakuntza-ikastaro bat egin zen, langabeen (emakumeak, lehentasunez) laneratzea hobetzeko asmoz, lan-sektore horretarako. Ikastaroan, 16 emakumek eta gizon batek parte hartu zuten.

Horrez gain, Udaleko Gizarteratze eta Laneratze Taldeak (GLT), AMEDNA-Nafarroako emakume enpresarien eta zuzendarien elkartearekin elkarlanean, **MENTORING Proiektua** mantendu zuen laneratzea sustatzeko (besteen edo bere kontura), enpresaburuek eta/edo zuzendariek emakume langabeekin coachinga edo mentoretza eginez. 2024an, jarduera atzeratu zen, hainbat prestakuntza data berean egitekoak zirelako, eta 2025ean egitea dago aurreikusia.

Nafarroako Foru Komunitateak, Iruñeko Udalak eta Nafarroako Enpresen eta Berrikuntzaren Europako Zentroak (CEIN) ekintzaileei eta enpresak sortzeari laguntzeko sinatutako lankidetza-hitzarmenaren baitan, emakumezkoen networkingera bideratutako jardunaldi bat egin zen, enpresaburuak ekintzaileekin kontaktuan jarriz partaidetzazko kirol-jarduera baten bidez, padel-txapelketa baten biez, alegia. Parte-hartzaileek prestakuntza-bideo bat jaso zuten, eduki teorikoz eta praktikoz betea, networkinga egiteko, eta Gida praktiko bat ere, beren elevator pitcha prestatzeko.

Hitzarmen beraren bidez, halaber, Iruña Ekintzaile programa gauzatu zen, Ekonomia Berdearekin lotutako esparruetan ekiteko interesa duten pertsonei aukerak eskaintzeko. Programan, hizkuntza eta irudi inklusiboak erabiltzen saiatu ziren, eta ekintzak antolatzaileen, irakasleen eta parte-hartzaileen (gehienak, emakumeak) artean adostutako formatu egokietan egiten (online, youtube eta aurrez aurrekoak).

**Ildo estrategiko berarekin bat, Herritarren Partaidetzan emakume erraztaileen enplegagarritasuna sustatu da partaidetzarako prestakuntza-ikastaroetan.**

**Partaidetza eta eragin politikorako** ildo estrategikorekin bat, **Emakumeen Udal Kontseiluak** bere jarduerari eutsi zion urtean zehar, Berdintasun Zinegotzigoak eta emakume-elkarteek, talde politikoek eta sindikatuek solaskidetza aktiboa mantentzeko asmoz.

**Iruñeko Emakumeen Etxea** Emakumeen Etxea elkartearekin batera kudeatutako udal-baliabide bat da, eta jarduerak egiten jarraitu zuen, hala nola ikastaroak, lantegiak, hitzaldiak eta prestakuntza-saioak, erakusketak, e.a., eta beste erakunde batzuek proposatutako jarduerak ere egin ziren bertan (izugarri handitu da Emakumeen Etxean egiteko profesionalek aurkeztutako jarduera kopurua), helburu orokorrei eutsita:

- Erreferentziazko gune feminista, intersekzionala eta belaunaldien artekoa sortzea, politikan eragiteko estrategia bateratuak gauzatu ahal izateko.

- Gune bat ematea emakumeen elkarteei eta kolektibo feministei beren jarduerak eta saioak egiteko, hiriko emakumeen ahalduntze indibiduala eta kolektiboa lortze aldera.

- Emakumeen elkarteen eta administrazioaren arteko elkarrizketa ahalbidetuko duten partaidetza-bitartekoak eta komunikazio-bideak eskaintzea, Iruñean berdintasunaren aldeko balio soziokultural eta politikoen aldaketa bultzatzeko.

- Hausnarketarako, eztabaidarako eta sorkuntzarako gune bat sortzea, diskriminazioak emakumeen bizitzan duen eragina azaleratzeko.

Era berean, lekua laga zitzaion Emakumeen Etxean Ipes Elkarteari, **Silvia Fernández Viguera Emakumeen Dokumentazio Zentroa-Liburutegia kudeatzeko.**

2024an, koordinazio-bilerak eta Jarraipen Batzordearen bilkurak egin ziren, informatika-materiala erosiz, etxeko mantentze-lanak eginez eta etxea koordinatzeko pertsona bat kontratatuz.

Emakumeen Etxean, halaber, **Feminismoen Eskola** ekimenaren edizio berria hasi zen urrian, 2 maila eskainita, eta 2025eko maiatzera arte iraunen du. **I. mailan** 22 emakume eta 3 gizon ari dira, eta **II. mailan**, 25 emakume. Prestakuntzaren helburuak dira feminismoa zer den jakitea, dela gizarte-mugimendu gisa, dela teoria filosofiko eta politiko gisa, eta gaurkotasuna duten eztabaidei heltzea, ikuspegi feministatik.

Ildo estrategiko horren beraren barnean, Berdintasuneko alorrak **dirulaguntza-deialdia** izapidetu zuen Iruñeko emakumeen elkarteei, kolektibo feministei eta irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateei zuzenduta, elkarteek aurrera egin

dezaten politikan eta gizartean eragiteko duten gaitasunean, egungo gizartean errealitateen nahiz genero-harremanen pertzepzioaren inguruan gogoetak eta aldaketak sustatuz, betiere helmuga gisa mantenduta bai indarkerien ezabaketa, bai erabakiak hartzeak, bai kulturen arteko lankidetza- eta elkarlan-sareak, bai eta elkarte feministen aurrerapen orokorra ere. 22 proiektu lagundu ziren diruz, guztira 154.213 euro bi esleipen-modalitatetan banatuta: 5.000 arteko kostua eta 14.000 eurora bitartekoa.

**Hezkuntzaren eta hezkidetzaren** ildo estrategikoan, Hezkuntzako Alorrak genero-berdintasunaren alde egin zuen irakurketa sustatzeko ekintzetan. Zehazki, Iruñeko Haur, lehen eta Bigarren hezkuntzako ikasleendako sustatzeko "Irakurriko dugu" programan. Izan ere, irakasleei aholkularitza ematen zaie ikasleendako tresna gisa balio dezaketen liburu edo kontakizunei buruz, hainbat gauza agerian jartzeko, hala nola gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, estereotipoak, emakumeen aurkako indarkeria, tratu txarrak eta umilazioak; era berean, gai horiekiko sentibera diren profesionalak aukeratzen dira eta edozein testu idatzi, hizkuntza inklusiboa eta ez-sexista erabilita.

Eskola-eremuan ere, baina haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeetako guraso elkarteei zuzenduta, dirulaguntzak eman ziren eskola-orduetatik kanpoko eskolaz kanpoko jarduerak antolatzeko eta egiteko, familia eta lana bateragarri egitea errazten dutenak, berdintasuna sustatzen dutenak lehenetsita.

**Haur eta Nerabeendako 2023-2027ko II.** Planaren garapenaren baitan, hainbat ekintza ezarri ziren, errespetuan, maitasunean, tratu onetan eta berdintasunean oinarritutako familia-bizitza sustatzeko:

- Genero-berdintasunari buruzko prestakuntza etengabea eskaintzea familiekin, haurrekin eta nerabeekin zuzenean lan egiten duten udal profesionalei.

- Jardunbide Egokien Jardunaldiak egitea, maskulinitatea erantzukizunetik eta berdintasunetik lantzeko.

- Aurrenerabeak eta nerabeak errespetuan eta berdintasunean oinarritutako harreman afektiboetan prestatzea, COworkids programaren “Enbaxada” eta “Nerabeen gauzak” programen bidez.

- Berdintasunerako hezkuntza-ikastaroak ematea gurasoendako.

**Gaztediaren Etxeak** bere **ikasketa-aholkularitza** mantendu zuen, proiektuetan laguntzeko eta/edo garatzeko, aukeraketa akademikoetan segregazio horizontala eragozte aldera, online eta aurrez aurreko kontsultak eginez, eta programazioan genero-ikuspegia aintzat hartuz. 2024an, Etxeko Aholkularitza Psikologikoak Aniztasun afektibo-sexuala eta Maitasun osasungarria eta tratu txarren prebentzioa izenburuko lantegiak eman zituen Egunero plan bat abuztuko arratsaldeetako programazioan, bai eta udazkeneko programazioan (Tratu ona nola landu pertsonen arteko harremanetan) eta negukoan ere (Maitasun osasungarria eta tratu txarren prebentzioa gazteengan).

**Kulturaren arloan, Civivoxeko programazioan** Zinemako emakume heroiak zikloaren bi edizio egin ziren, bata otsailetik maiatzera eta, bestea, 2024ko urritik 2025eko urtarrilera, filmak bi Civivoxetan (Iturrama eta Sanduzelai) emanik. Zikloak hainbat urte daramatza Civivox programan, eta publikoak eman dion harrera ona izugarri hazi da, emakumezkoen inguruko zinema gai agortezina baita. Harrera ona ere izan zuen Zinemako eta serietako emakume errebelde eta arriskutsuak. Alde guztietara joandako neska gaiztoak ikastaroaren edizio berriak.

Civivoxetako programazioan ere, Oh, Jainkosa maiteak!, zikloaren laugarren edizioan, hainbat emakume idazlek hitzaldiak eta topaketak eskaini zituzten, beren lana azaltzeko; horretarako, beren lanean eragin nabarmena izan duen beste emakume idazle batekin aritu dira hizketan alegiazko solasaldi batean. Zikloak, hain zuzen, emakumeek literaturaren historian duten garrantzia erakusten du, isilaraziak izan diren arren, bai eta emakume idazle egungoenetan duten eragina ere.

2023an bezala, **Femkultur** jaialdiaren hirugarren edizioa egin zen martxoan, Emakumeen Nazioarteko Egunaren ospakizunekin batera. Zikloan erreferentziazko bost emakume sortzaile aritu ziren. Erakutsi zuten nolakoa den beren lana sormen-prozesua, sorkuntza garaikidean duten esperientziari buruz hausnartu zuten, bere proposamen artistikoen eta sormenezko laborategien bidez. Jaialdiak muntako gaiak jorratu zituen, hala nola, emakumea kulturgintzan eta espazio publikoan aintzat hartzea, genero-rolak artean, berdintasuna ekoizpen artistikoan, edo emakume artisten, zuzendarien, komisarioen eta kudeatzaileen ahalduntze profesionala... Hainbat jarduera egin ziren, hala nola mahai inguru bat, lau lantegi, errezitaldi poetikoa musika elektronikoarekin, antzezlan bat, dantza garaikideko saio bat, zinema eta instalazio artistiko bat.

Berriz ere edizioak harrera bikaina izan zuen, bai ikusleen aldetik, bai parte hartu zuten emakume sortzaileen aldetik. Ikusi zen ekintza ona zela emakumearen irudia sortzaile gisa indartzeko ; horrenbestez, 2025eko martxoan eginen da berriro.

Urteko azken hiruhilekoan, **La risa lista** zikloaren edizio berria egin zen, emakumeek ondutako hainbat bakarrizketa eman baitziren, guztiak ere estatu mailako figuren eskutik. Publikoaren harrera bikaina izateaz gain, proposamenen kalitateak eta aniztasunak aberastu eta erakutsi zuen emakumezkoek komediaren munduan duten eginkizuna, zikloaren helburu nagusietako bat lortuta.

Kultur arloan ere, Mistoen Eraikinean, Nafarroako zortzi artista garaikideren talde erakusketa jarri zen ikusgai, M de MIXTAS”, emakumeen bizitza-esperientziaren gainean, zaintzaileak edo zainduak diren heinean, bai eta amatasunaren eta egoera psiko-afektiboen gainean ere. Ziudadelako Bolborategian “Correspondencia” proiektua jarri zen ikusgai, zortzi nafar artista garaikideren talde erakusketa komunikazioaren gainean, maitasunetik, zaintzatik eta Variopintas taldeko kideek partekatzen duten arte-sormenetik.

Euskarazko kultur programazioa osatzen duten zikloetan, genero-ikuspegia zeharka txertatu zen; gainera, honako jarduera honetan ikuspegia berariaz txertatu zuten: AMARAUN BertsoAroa barnean, DENBORAREN GIBELEAN, SULTANAREN AMETSA, TOPAKETA ALAINE AGIRREREKIN, ALARMA MOREAREN KONTZERTUA, eta JULIA FERNANDEZ ZABALETA PASTORALA.

Euskaraz ere, **Sartu eta Sortu** Programaren bidez, kultura, kirola eta beste arlo batzuetako gazte euskaldun sortzaileek beren lana eta sorkuntza esperientzia azaltzen diete DBHko 1. mailako ikasleei. Programaren bidez zuzenean erakutsi nahi da sormena (antzerki,a musika, literatura...) euskaraz ere lantzen dela eta erakargarriak ere badirela gizartearen eta kulturaren ikuspegitik; horrela, euskarak horretarako ere balio duela erakutsi nahi da gazteen artean eta hizkuntzaren erabilera ere egunerokoan bultzatu (ez soilik eskolan).

**IKTeen arloan,** 74 ikastaro, lantegi eta tutoretza eman dira **EMATICen**, 717 emakumek parte harturik. 720 prestakuntza-ordu eman dira. Udal-baliabide horren bidez, teknologien erabiltzeko eta eskuratzeko dagoen genero-arrakala digitala murrizten lagundu nahi da, eta, horrela, emakumeek gizartean, politikan eta lanean parte har dezaten erraztu, haien gizarteratzea eta laneratzea bultzatu, bai eta haien ahalduntze pertsonala eta kolektiboa sustatu ere. 3.291 emakumek egin dute Ematic, eta 1.237ri laguntza hau edo hura eman zaie.

**Kirol arloan,** eskolaume eta gazteendako areto-futboleko udal ligak (2024-2025) **balizko indarkeria kasuen aurrean jarduteko protokolo** bat du (hemen eskuragarri: https://www.pamplona.es/temas/deporte/deporte-escolar-y-juvenil).

Berdintasunaren eta kirolaren adierazlea eguneratu zen, aldi berean hainbat azpiadierazlek osatua, **Udal Kirol Zerbitzuaren berezko Adierazle Sistemaren** barnean. Adierazle horrek izaera dimentsio anitza du, eta udaleko kirol kudeaketaren hainbat esparru hartzen ditu barne, berdintasunaren eta kirolaren inguruko hausnarketarako datuak ateratzeko.

Esparru horiek honako hiru hauek dira, betiere Udaleko Kirol Unitatearen kudeaketari dagokionez:

> a) **Kontratuak:** kontratuetan genero-ikuspegia txertatzea (esleipen irizpideak, gauzatzeko baldintza bereziak, berariazko zehapenak, edo beste batzuk).
>
> b) **Diru-laguntzak: g**enero-ikuspegia diru-laguntzetan txertatzea (pertsona edo erakunde onuradunaren baldintzak eta betebeharrak, eskabideak baloratzeko irizpideak, edo beste batzuk).
>
> c) **Kirol partaidetza,** sexuaren arabera bereizita, udalaren kirol-jarduera jakin batzuetan.

Emakumeak ikusarazteari dagokionez, **Iruñeko Emakumeak Izendatu** taldeak, hots, ikertzaileek, kultur erakundeen ordezkariek eta historian nahiz zientzietan adituak diren unibertsitateko pertsonek osatuak, lanean jarraitu zuen 2024an.

2024an, hainbat proiektu eta proposamen identifikatu ziren, lan plan bat ezarrita, helburuak eta ekintzak bi ardatzetan daudela: Emakumeei buruzko ikerketak eta emakumeen presentzia hirian.

Emakumeek gremioetan eta lan-gatazketan duten presentziari buruzko ikerketa bat egin zen ("Entre el martillo y la rueca"), datorren urtean lanean jarraitzeko informazioa eman zuena, identifikatutako informazio hori eremu publikoan nola aitortu jakiteko. Era berean, hainbat aukera identifikatu ziren 2025ean garatuko den proiektuari eransteko: gremioetako emakumeen erakusketa, ikerketaren edizioa, emakume trokelatuak beren izena daramaten espazioetan, emakume kirolariak kirol espazioetan, hirian emakume erreferenteei buruzko horma-irudiak egiteko proiektua. Ahaleginak eginen dira hainbat udal alor proiektu mosaiko baten garapenean inplikatzeko, emakumeen errealitateen alderdi ezkutuak eta Iruñeko bizitza ekonomikoan eta sozialean izan duten parte-hartzea ikusarazteko eta aitortzeko. Ibilbide geolokalizatu batean jasoko da emakumeek hirian duten presentzia, horri buruzko prestakuntza jasoko duten gida turistikoek erabili ahal izateko.

Azkenik, aurreko edizioetan bezala, Hezkuntzako alorrak bultzatutak**o Iruña ezagutu** programaren helburuen artean honako hauek daude: emakumeek hirian duten eginkizuna ikusaraztea eta Iruñeko historian esanguratsuak izan diren emakumeen ekarpena nabarmentzea.

**Sexu-aniztasuna aitortzeko eta LGTBI+ herritarren eskubideak sustatzeko jarduerak**

Iruñeko Udala sexu- eta genero-aniztasuna aitortzeko eta babesteko ekimenak eta politikak ari da bultzatzen azken urteotan, bai eta LGTBI+ pertsonen eskubideak babesteko eta bultzatzeko ere. 2024an egindako jarduerak memoria honen II. puntuan daude zehaztuta.

## 8.1.3
## Zaintza-lanak eta erantzunkidetasuna bizitzaren jasangarritasunerako gakotzat aitortzea

2024ko apirilean, Iruñeko Udala Zaintzen aldeko Toki Itunari atxiki zitzaion, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bidez bultzatua, kontziliazio eta erantzunkidetasun kontzeptuez haratago jotzeko eta beste pauso bat emateko zaintzak banatu eta partekatzerantz, berdintasuneko proposamen politikoak hirian egun den egoera sozial eta kulturalera egokituta.

## 8.1.4
## Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitza hiri seguruan

Iruñeko Udalak, urtero bezala, bat egin zuen **Martxoaren 8ko** gizarte-aldarrikapenarekin (Emakumeen Nazioarteko Eguna), bere eginez Nafarroako Toki Entitateetako Berdintasun Teknikarien Sareak Manosfera ardatz zabaldutako mezua.

Egun osoan, udalaren sare sozialek X, Instagram, Facebook eta Threads) **"Isilarazi matxismoa"** minutu bateko bideoa eman zuten. Ikus-entzunezkoak ohartarazi nahi izan zeinen arriskutsua den sareetan gezurrezko mezuak edo desinformazioak zabaltzea emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriari buruz.

**Ekitaldi instituzionalean "**Isilarazi matxismoa" adierazpena irakurri zen. Horrez gain, gau hartan, udaletxeko fatxada morez argitu eta dei egin zitzaien herritarrei mugimendu feministek antolatutako mobilizazioan parte hartzera.

Martxoaren 6tik 28ra, emakumeen, nesken eta neskatoen egoera hainbat ikuspegitatik aztertzeko diseinatu ziren jarduerak egin ziren **Gaztediaren Etxean** eta **Civivox** sarean: zinematografiari buruzko lantegi bat eta emakume konpositoreen kontzertu bat, biak ere gazteendako; FEMKULTUR jaialdia eta Gineceo proiektuaren aurkezpena, hots, ibilbide historiko bat emakumezkoen filosofian zehar metal sinfonikoaren bidez.

Programazio hementxe dago kontsultagai: https://www.pamplona.es/8-de-marzo-dia-internacional-de-las-mujeres.

Era berean, martxoaren 8ko aldarrikapenen inguruan, lankidetza-ekimen berri bat jarri zen abian Iruñeko Udalaren eta hiriko adinekoen sare sozialen artean. Adineko emakumeek badute zer esana. Zehazki, ikus-entzunezko edukiak dira, sare sozialetarako pentsatuak, adineko emakumeek hainbat aspektutan eta lanbidetan duten eginkizunari balioa emateko, eta izan dituzten eta egun dituzten zailtasunak nabarmentzeko, eta zer laguntzarekin egiten dieten aurre.

Halaber, urtero bezala, eta berdintasun-teknikaria duten gainerako toki entitateekin eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin koordinaturik, azaroaren 25eko sentsibilizazio-kanpainaren kartela, goiburua (Ez da antzerkia, indarkeria bikarioa da) eta adierazpen instituzionala diseinatu ziren, Emakumeenganako indarkeriaren aurkako eguna baita, eta udaletxeko fatxada morez argiztatu zen. Era berean, horma-panel bat paratu zen, mezu aldarrikatzailez beterik.

**Gaztediaren Etxean** Escondida a plena vista jarduerak egin ziren, hau da, emakumearen publizitate-irudien sormenezko irudikapena lantzeko lantegia mugikorrarekin edo argazki-makinarekin. Halaber, Red flags en las relaciones de pareja lantegia, zenbaitetan inor ohartu gabe gertatzen diren indarkeria-adierazleak lantzeko.

2024an, aurrera egin zen **festaguneetan eta gaueko aisia-lokal pribatuetan eraso sexistei aurrea hartzeko eta jarduteko protokoloan** ezarritako esparruaren garapenean. Protokoloa 2023an eguneratu zen.. Zehazki, hainbat arlotan egin zen aurrera, hala nola protokoloaren aplikazio-eremua doitu eta zehazteko orduan, eta lokalak, jarduerak eta publikoak identifikatu eta antolatu ziren; halaber, ziurtapen-prozedura baten prestaketan, bai aisialdirako lokal egonkorren aldetik (tabernak, kafetegiak, pubak, diskotekak, etab.), bai unean uneko jardueren aldetik (jaialdiak, kontzertuak, unibertsitateko karpak, etab.); indarkeria sexistarik gabeko gune gisa ziurtatzeko inplikatuta dauden pertsonak eta prozedura zehaztu ziren; halaber, beharrezkoa den prestakuntza zehaztu zen, espazioen egitura hobetzeko prozedura (ispiluak, oztopoak kentzea bainuetara sartzeko guneetan, etab.) eta indarkeriarik gabeko aisialdi-eskaintza bat egiteko prozedura; eta ziurtagiria bi urtean behin berritzeko prozedura identifikatu zen.

Azaroan, **mahai inguru** bat egin zen aisia pribatuko inguruneetan indarkeriei aurre egiteko erantzun eta protokoloen gainean, izenburu honekin: **tabernak, diskotekak, jaialdiak, kontzertuak... indarkeria sexistarik gabe.**

**Sanferminetan**, Eraso sexistarik Gabe, Iruña aske kanpaina egin zen berriro, honakoak xede harturik:

- Aurrera egitea jaietan eraso sexistak ezabatzeko udal-konpromisoan, eta emakumeen kontrako inolako erasorik gertatzen ez den hiri bat eraikitzea;.

- Iruñearen jarrera erakustea (maila instituzionalean eta gizarteari begira) emakumeen kontrako indarkeriaren aurka.

- Egoera horiek lehentasunez salatzea.

- Emakumeek hiria espazio aske eta seguru gisa bizi dezatela ahalbidetzea.

- Ikusaraztea erantzun aktiboaren parte ez izateak berekin dakarrela indarkeriaren tolerantziaren parte pasiboa izatea, eta emakumeen aurkako indarkeria ez dela "fenomeno" bat eta ez dela saihestezina festa giroan.

Kanpaina hainbat hizkuntzatan burutua, kartel, mupi digital, sare, web eta bestelako euskarrien bidez zabaldu zen. Aurten, lehen aldiz, haurrendako Artista koadernoa banatu zen. Horrela, hainbat jardueraren bidez, gonbidapena egiten da denon artean Iruña berdinzale, aske eta aniztasunean aberatsa den bat marraztera, erantzunkidetasunaren aldeko mezuak zabalduta, jende guztiak berdintasunean parte hartzeko modukoa. ,

| 2024ko sanferminetako kanpainaren materialak | Nº |
|---|---|
| Kartelak | 2.000 |
| Imanak | 100 |
| Esku-pinak | 30.000 |
| Indarkerien gidak gaztelaniaz, euskaraz, ingelesez eta frantsesez. | 75.000 |
| Sakelako txartelak | 60.000 |
| Pegatinak | 160.000 |
| Haur-kodernoak | 5.000 |
| Billabesak [2] | 6 |
| Olanak | 1 |
| Esku erraldoiak [3] | 3 |

[2] Kanpaina 6 billabesatan sartu zen. Halaber, besteak beste, RENFE, AENA, TCC, Teletaxi San Fermín eta Iruñerriko Mankomunitatearekin aritu ginen lankidetzan kanpaina hedatzeko.

[3] Iruñeko Udalak hiru esku gorri handi-handi paratu zituen Bakearen plazan, Karlos III.a etorbidean eta Trinitariosko biribilgunean, Biurdana kalearen eta Gipuzkoako etorbidearen elkargunean.

Sanferminetan ere, komunikazio publikoan erantzun koordinatua emateko eta sexu-erasoetan herritarrek eman beharreko erantzunak antolatzeko, 2024ko Sanferminetan Iruñeko sexu-erasoei aurre egiteko protokoloa jarri zen abian. Ondoren, irailean, eguneratze-prozesu bat hasi zen, hainbat esparrutako langileek parte harturik: Segurtasuna eta Herritar Bizikidetza, Gizarte Ekintza, Alkatetza-Komunikazioa, Kultura eta Gizartea, Emakumeen Udal Kontseiluko Talde Iraunkorra indarkeriei heltzeko, bai eta hiriko mugimendu feministen ordezkariak ere. Prozesuaren helburua da egungo prozedura berrikustea protokoloan sakontzen jarraitzeko, eta eraso sexisten aurrean sanferminetan aktibatzen diren pertsonak, baliabideak, prozedurak eta erakundeen nahiz herritarren erantzuna zentzuz koordinatzeko.

Gainera, urtero bezala, Gazteluko plazan, sentsibilizaziorako eta sexu-erasoen prebentziorako informazio-gune bat jarri zen, honako helburuak buruan hartuta:

- Herritarrei eraso sexistak prebenitzeko kanpainaren berri ematea eta egindako sentsibilizazio-materialak banatzea.
- Emakumeek informazio eta arreta espezializatuko zerbitzuak eskuratzeko modua zentralizatzea eta erraztea, festagune eta aisialdi-guneetan erasorik gertatuz gero (salaketa polizialik behar izan gabe).
- Festagune eta aisialdi-guneetako eraso baten aurrean dauden arreta-baliabideei buruzko orientazioa ematea.
- Beharrezkoa izanez gero, arreta- eta laguntza-protokoloa gaitzea.
- Eraso sexistei (pairatutakoak edo ikusitakoak) buruzko informazio anonimoa biltzea, bai eta inguruneak haiei emandako erantzunari buruzkoa ere.
- Udalaren, kolektibo feministen eta emakume-elkarteen arteko lankidetza-dinamikak indartzea.

11.795 arreta eman ziren; 15.695 emakumeri eta 3.860 gizoni. Gainera, Emakumeendako Udal Arreta Zerbitzuak (EUAZ) erasoen sei biktima lagundu zituen.

**Informazio-gunea** auzoetan ere jarri zen, eta 1.500 arreta egin ziren.

Azkenik, jaiei dagokienez, **Komunikazio Zerbitzuak** hizkera ez-sexistaren irizpideekin berrikusi zituen tokiko, nazioko eta nazioarteko 400 bat enpresak eta profesionalek ingelesez eta euskaraz bete beharreko inprimakietako testua, jaietarako akreditazio-prozesuari ekiteko eta ikus-entzunezko ekoiztetxeei txupinazoa eta Gaixoa ni emititzeko eskaintzak aurkezteko.

**Emakumeen aurkako indarkeriei aurre egiteko Iruñeko Talde Iraunkorra** lan-talde egonkorra da, udal-langileez eta talde feministen ordezkariek osatua, Iruñean emakumeek aurre egiten dieten indarkeria-motei buruzko informazioa ezagutzeko. Era berean, sentsibilizazio-kanpainak diseinatzea, baliabideak hedatzea, herritarren erantzun protokoloak abian jartzea, etab. Berdintasuneko taldea murriztu denez, ezinezkoa izan da talde horri deialdirik egitea 2023ko ekainetik hona, teknikariak lan-karga handiari erantzun ezinik dabiltzalako.

**Emakumeendako Udal Arreta Zerbitzuak (EUAZ)** arreta integrala eta pertsonalizatua ematen jarraitu zuen genero-indarkeria pairatzen duten edo pairatzeko arriskuan dauden Iruñeko emakumeei; hainbat lan-taldetan eta batzordetan parte hartuz. Adibidez:

- Iruñeko talde iraunkorra emakumeen aurkako indarkeriei heltzeko.
- Emakumeen Udal Kontseilua
- Genero-indarkeriazko testuinguruetan bizi diren adingabeak artatzeko talde eragilea.
- Genero-indarkeriaren aurkako koordinazio-batzordea Nafarroako Probintzia Entzutegian.
- Nafarroako Foroa sexu-esplotazioa xede duen emakumeen salerosketaren kontra.

**Neska-mutilentzako indarkeriarik gabeko berdintasun- eta ikaskuntza-guneak indartzeari** dagokionez, Iruñeko Udaltzaingoko kideek genero-berdintasunari eta genero-indarkeriari buruzko hitzaldiak eman zituzten.

**Iruñeko udaltzainek** hainbat prestakuntza-ekintzatan parte hartu dute berdintasunaren eta genero-indarkeriaren arloan. Hona hemen, zehazki:

- Genero-indarkeriaren biktimendako polizia-arreta, salaketa eta salaketaren ondoko babesa. 3 ordu. Parte-hartzaileak: 2 emakume eta 4 gizon.
- Polizia judizialaren atestatuen, genero-indarkeriaren, sexu-erasoen eta bestelakoen instrukzio-ikastaroa. 88 ordu. Parte-hartzaileak: 2 emakume eta 4 gizon.

- SIRAJ datu-basea erabiltzeko prestakuntza. Parte-hartzaileak: 2 emakume eta 5 gizon.
- SIRAJ datu-basea erabiltzeko prestakuntza. Parte-hartzaileak: 2 emakume eta 4 gizon.
- VioGén sistemaren hasierako erabilerari buruzko prestakuntza. 6 ordu. Parte-hartzaileak: Emakume bat eta 2 gizon.

2024an, **indarkeria-testuinguruetan bizi diren adingabeei arreta emateko talde eragileak** lanean jarraitu zuen, genero-indarkeriako egoeretan adingabeei arreta koordinatua emateko, udaleko gizarte-zerbitzuen programen bidez (EUAZ, EAIA eta EIF, bai eta DUO eta PIF programen bidez ere). Aurten, 3 orduko ikastaro bat egin da Munduko medikuen bidez, emakumezkoen mutilazio genitalaren prebentzioaz.

Azkenik, **Emakumeen eta haurren Salerosketaren eta Sexu Esplotazioaren aurkako Nazioarteko Egunean** (irailak 23) adierazpen instituzional bat onartu eta berdintasunaren aldeko jardunaldi bat egin zen. Zehazki, gai horretan adituak diren hiriko bi elkarterekin koordinaturik egin zen, hirian sexu-esplotazioan bizi diren emakumeen egoera Iruñeko herritarrei ezagutarazteko. Jardunaldian, hizketaldia egin zen sexu-esplotaziotik biziraun duten emakumeekin, 33 emakumek eta 30 gizonek parte harturik.

## JAKINARAZITAKO EKINTZEN AZTERKETA KUANTITATIBOA

Iruñeko Berdintasunerako III. Planaren 2024ko azterketa kuantitatiboa egiteko, ekintzen **159 jarraipen-fitxaren** informazioa erabili da.

Zinegotzigo guztiek jarraipen-fitxak bete eta bidali zituzten hainbat alor, zuzendaritza eta zerbitzutatik. Zehazki Komunikazio Instituzionaleko eta Gardentasuneko Zuzendaritza, Ogasuneko eta Kontratazio Publiko Arduratsuko Alorra, Giza Baliabideetako, Ingurumeneko Hirigintza Planeamenduko eta Etxebizitzako Alorra, Plangintza Estrategikoa - Agenda 20230, Hiri Berroneratzea eta Etxebizitzen Birgaitzea, Kulturak eta Jaiak, Kirola, hezkuntza eta Haur Eskolak, Herritarren Segurtasuna, Ekintza Komunitarioa, Berdintasuna, Haurrak, Adinekoak, Euskara, Herritarren Partaidetza, Proiektu Estrategikoetako Alorra eta Mugikortasuna, Gizarte Zerbitzuak, Merkataritza eta Turismoa, eta Gazteria.

| Jarraipen-fitxa, huraxe bete duen Zinegotzigoaren arabera | Fitxa kop. |
|---|---|
| 1. Alkatetza | 19 |
| 2. Ogasuneko, Kontratazio Publiko Arduratsuko eta Giza Baliabideetako zinegotzi ordezkaria | 23 |
| 3. Gobernu estrategikoko, Hirigintzako, Etxebizitzako eta Agenda 20230eko zinegotzi ordezkaria | 17 |
| 4. Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko zinegotzi ordezkaria | 20 |
| 5. Segurtasuneko eta Herritar Bizikidetzako zinegotzi ordezkaria | 7 |
| 6. Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako zinegotzi ordezkaria | 42 |
| 7. Hiri Bizigarri eta Jasangarriko zinegotzi ordezkaria | 5 |
| 8. Gizarte Ekintzako zinegotzi ordezkaria | 11 |
| 9. Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiekzioko, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako zinegotzi ordezkaria | 15 |
| **Guztira** | **3** |

**Fichas de seguimiento por Concejalía que cumplimenta**

| | | 0 5 10 15 20 25 30 35 |
|---|---|---|
| Alcaldía | Dirección de Comunicación Institucional y Transparencia | 19 |
| Concejalía Delegada de Hacienda, Contratación Pública Responsable y Recursos humanos | Área de Hacienda y Contratación Pública Responsable | 1 |
| | Área de Recursos Humanos | 22 |
| Concejalía Delegada de Gobierno Estratégico, Urbanismo, Vivienda y Agenda 2030 | Area de Gobierno Estratégico, Urbanismo, Vivienda y Agenda 2030 / Medioambiente | 1 |
| | Área de Gobierno Estratégico, Urbanismo, Vivienda y Agenda 2030 / Planeamiento Urbanístico y Vivienda | 6 |
| | Área de Gobierno Estratégico, Urbanismo, Vivienda y Agenda 2030 / Planificación Estratégica - Agenda 2030 | 9 |
| | Área de Gobierno Estratégico, Urbanismo, Vivienda y Agenda 2030 / Regeneración Urbana y Rehabilitación de Viviendas | 1 |
| Condejalía Delegada de Cultura„ Fiestas, Educación y Deporte | Área de Cultura, Fiestas, Educación y Deporte / Cultura y Fiestas | 14 |
| | Área de Cultura, Fiestas, Educación y Deporte / Deporte | 3 |
| | Área de Cultura, Fiestas, Educación y Deporte / Educación y Escuelas Infantiles | 3 |
| Concejalía Delegada de Seguridad y Convivencia Ciudadana | Área de Seguridad y Convivencia Ciudadana / Seguridad Ciudadana | 7 |
| Concejalía Delegada de Igualdad, Acción Comunitaria, Barrios, Participación Ciudadana y Euskera | Area de Igualdad, Acción Comunitaria y Barrios / Acción Comunitaria | 3 |
| | Área de Igualdad, Acción Comunitaria y Barrios / Igualdad | 32 |
| | Área de Igualdad, Acción Comunitaria y Barrios / Infancia | 1 |
| | Área de Igualdad, Acción Comunitaria y Barrios / Personas Mayores | 1 |
| | Concejalía Especial de Participación y Euskera / Euskera | 2 |
| | Concejalía Especial de Participación y Euskera / Participación Ciudadana | 3 |
| Concejalía Delegada de Ciudad Habitable y Sostenible | Área de Proyectos Estratégicos y Movilidad | 5 |
| Concejalía Delegada de Acción Social | Área de Acción Social / Servicios Sociales | 5 |
| | Área de Acción Social | 6 |
| Concejalía Delegada de Promoción Económica, Proyección Europea, Juventud y Cooperación al Desarrollo | 9. Concejalía Delegada de Promoción Económica, Proyección Europea, Juventud y Cooperación al Dasarrollo | 6 |
| | g. Área de Promoción Económica, Proyección Europea, Innovación, Juventud y Cooperación al Desarrollo/Juventud | 9 |

Jakinarazitako ekintzen % 25 (39 159tatik) Berdintasuneko alorrak gidatu ditu.

III. **Planaren esku-hartze esparruekin** bat, ekintzen erdia baino gehiago (% 55,4) GOBERNANTZA esparruari dagozkio

**Esku-hartze esparru eta ildo estrategikoen** arabera, banaketa 3. grafikoan ageri da.

Aipatzekoa da ekintza-kopuru handiena (82) **LE03**ri dagokiola. **Berdintasun printzipioa txertatua duten lan- eta administrazio-prozedurak;** jarduketen artean daude garrantzi berezia duten plan, programa eta proiektu guztietan genero-ikuspegia txertatzea. Ondoren, **LE13**ri dagozkion ekintzak datoz. **Herritarrak emakumeen aurkako indarkerian prebenitu eta sentsibilizatzea** (15), **LE04. Autonomia Ekonomikoa eta LE05. Partaidetza eta Eragin Politikoa** (biak 11rekin).

Arestian adierazi den bezala, fitxak ekintzen jarraipenari dagozkio. Ekintzak gutxieneko gauzapen-unitateak dira; horrenbestez, **III. Planaren jarduera bati hainbat ekintza dagozkioke**. Horren haritik, baloratutako 159 ekintzak Planaren 37 jarduketatan sartzen dira. Bada, ekintzen jarduketen banaketa hurrengo orrialdeko taulan ageri da.

Berriz ere, ekintza kopuru handiena (57) genero-ikuspegia txertatzeko jarduketari dagokio (AC10) eta, ondotik, Berdintasunerako Barne Planaren baitan (22) garatutako ekintzak datoz.

Jarraipen-fitxan **ekintzaren denbora-izaerari** buruzko informazioa dago barne, hots, ohikoa izan daiteke (zerbitzu bat edo dirulaguntza bat, adibidez) edo unean unekoa (ikerlan bat, adibidez). Ekintzen % 75,5 ohikotzat jo dira alorrentzat eta, gainerako % 24,5, berriz, unean unekotzat.

**Ekintzak Berdintasunarekin duen loturari** dagokionez, 86 Berdintasunekoak berezkoak direla jo da, eta 73, zeharkakoak.

**Ekintzen xede-publikoari** dagokionez, % 48 herritarrei zuzenduta zeuden, eta % 19, udal-langileei. Beste publiko hartzaileen artean, honakoak adierazi ziren: Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxeak - Guraso Elkarteak eta Guraso Elkarteen Federazioak; Haur Hezkuntzatik Batxilergora bitarteko ikasleak; enpresak, enpresa-elkarteak, sindikatuak; 14-30 urteko gazteak; idazle gazteak eta helduak; gaixotasun metalak eraginda desgaitasuna duten 18-65 urteko herritarrak... Besteak beste.

**Ekintza-motaren** arabera, gehienak sarturik daude prestakuntza-ekintzen taldeetan, lantegietan, informazio- eta dibulgazio-saioetan (50) eta zeharkakoetan (51).

**Ekintzen abenduaren 31ko egoerari** dagokionez, % 82 amaituta zeuden (130 ekintza) eta % 14 garapenean (22 ekintza). Gainerako % 4tatik, 6 ez ziren 2024an hasi eta 1 atzeratu zen (MENTORING proiektua).

Azkenik, aipatu behar da baloratutako ekintzen % 86k **kanpo-kontratazioa** izan zutela, eta % 36k, berriz, esklusiboki baliabide propioekin egin zirela. Ez dago horri buruzko informaziorik 57 ekintzaren kasuan.

# LGTBI+

## SEXU- ETA GENERO-ANIZTASUNA AITORTZEKO ETA LGTBI+ HERRITARREN ESKUBIDEAK SUSTATZEKO JARDUERAK

Sexu eta Genero Aniztasunaren eta LGTBI+ Berdintasunaren I. Udal Plana Iruñeko Udaleko Tokiko Gobgernu batzarrak onetsi zuen 2024ko apirilaren 8an, eta 2024ko apirilaren 11ko osoko bilkurak berretsi. 2024an zehar, haren lau lan-esparrutan lan eginda.

Planean 2024ako aurreikusitako 6 ekintzetatik, hainbat ekintza aurreratu eta 24 ekintza hasi eta gauzatu dira; 4, Planean 2024rako zehaztutakoei dagokie, eta 20 ekintza aurreratu dira.

| Esparruak | Helburuak |
|---|---|
| 1 JA – Gobernantza, gaikuntza eta zeharkakotasuna | udal-administrazio inklusiboa bultzatzea eta bermatzea, Iruñeko herritarren eta LGTBI+ populazioaren sexu-aniztasunaren beharrak eta interesak jaso eta horiei erantzuteko. |
| 2 JA - Ahalduntzea, ikusgaitasuna eta parte-hartze soziala | Udal-administrazio inklusiboa bultzatzea eta bermatzea, Iruñeko herritarren eta LGTBI+ populazioaren sexu-aniztasunaren beharrak eta interesak jaso eta horiei erantzuteko. |
| 3 JA - Herritarren sentsibilizazioa LGTBI+ eskubideen eta sexu-aniztasunaren gainean | Aldaketa soziala sustatzea herritarrek sexu- eta genero-aniztasuna balio propiotzat har dezaten, baita LGTBI+ eskubideen errespetua eta sustapena ere. |
| 4 JA - LGTBIfobiarik gabeko hiria | Sexu-orientazioagatiko, genero-adierazpenagatiko eta sexu- eta genero-nortasunagatiko diskriminazioa eta indarkeriak ezabatzea, eta Iruñea hiri aske, seguru eta askotarikoa izateko baldintzak sortzea |

### PLANEAN 2024RAKO AURREIKUSITAKO EKINTZAK ESPARRUKA

**GOBERNANTZA, GAIKUNTZA ETA ZEHARKAKOTASUNA**

| Kop. | Ekintza | Egoera |
|---|---|---|
| 2E | baliabide ekonomikoak, giza baliabideak eta baliabide tekniko espezifikoak eta nahikoak bideratzea LGTBI+ politikak garatzeko | Hasia-Aribidean |
| 3E | plana zeharkakotasunez garatzeko behar diren barne eta kanpo koordinazio-mekanismoak ezartzea | Hasia-Aribidean |
| 13E | LGTBI+ eta SGA gaiei buruzko informazioa zabaltzea, Udalaren komunikazio-planaren barruan eta informazio-espazio eta kanalen bitartez. | Hasia-Garatua |

**LGTBIFOBIARIK GABEKO HIRIA**

| Kop. | Ekintza | Egoera |
|---|---|---|
| 101E | Udaltzaingo osoa SGAri eta LGTBIfobiari buruz sentsibilizatzea eta gaitzea. | Hasia-Garatua (59 udaltzain)-Aribidean |

## PLANEAN 2025-2028RAKO AURREIKUSITAKO EKINTZAK, 2024AN AURRERATUAK ETA EGINAK, ESPARRUKA

### GOBERNANTZA, GAIKUNTZA ETA ZEHARKAKOTASUNA

| Kop. | Ekintza | Egoera |
|---|---|---|
| 4E | LGTBI+ gaietako beste erakunde batzuekin harremanak sustatzea eta esperientziak trukatzea. | 2024an hasia |
| A15 | Udalaren LGTBI+ Batzordea sortzea, LGTBI pertsonek eta erakundeek parte hartzeko organo bezala, ordezkaritza-irizpide parekideak bermatuz | Aribidean |

### AHALDUNTZEA, IKUSGAITASUNA ETA PARTE-HARTZE SOZIALA

| Kop. | Ekintza | Egoera |
|---|---|---|
| 17E | Harrotu hornitzea bere zereginak gauzatzeko egokiak diren egitura fisikoz eta baliabide ekonomikoz, giza baliabidez eta baliabide teknikoz, baita koordinazio-mekanismoz ere. | 2024an hasia |
| 18E | Harroturi buruzko ezagutza zabaltzea bere zerbitzuak, programazioa eta jarduerak babestuz, indartuz eta komunikatuz, zenbait kanalen bidez. | Aribidean |
| 28E | Egun garrantzitsuetan ekitaldi instituzionalak egitea (apirilak 26, maiatzak 17,ekainak 28, beste batzuk). | 2024an hasia |
| 32E | LGTBI+ pertsonen osasuna sustatzeko eta beraientzako arriskutsuak diren jokabideak (GSG, ESE, GIB, cruisinga, ugalketa, osasun mentala, etab.) saihesteko informazio-kanpainak eta materialak sortzea, irisgarritasun unibertsaleko irizpideei jarraikiz | Aribidean |
| 36E | Hiriko LGTBI+ talde eta kolektiboen ekimenak babestea. | 2024an hasia |
| 38E | Hirian LGTBI+ programak antolatzen dituzten LGTBI+ kolektiboentzako eta erakundeentzako dirulaguntza-deialdi bat bermatzea, nahikoa eta egokitua. | Aribidean |

### HERRITARREN SENTSIBILIZAZIOA LGTBI+ ESKUBIDEEN ETA SEXU-ANIZTASUNAREN GAINEAN

| Kop. | Ekintza | Egoera |
|---|---|---|
| 42E | SGAri buruzko sentsibilizazio- eta ikusgarritasun-kanpainak sortzea herritar guztiei zuzendurik, desgaitasuna duten pertsonentzat irisgarriak direnak. | 2024an hasia |

### LGTBIFOBIARIK GABEKO HIRIA

| Kop. | Ekintza | Egoera |
|---|---|---|
| 90E | Espazio publikoetan pertsonek pairatutako erasoei eta hautematen duten segurtasunik ezari buruzko azterketa, LBT emakumeengan arreta berezia jarrita. | 2024an hasiaEn Aribidean |
| 95E | Mekanismoak sortzea espazio fisiko eta birtualetan SGAren eta LGTBI+ pertsonen eta kolektiboen aurkako gorrotozko diskurtsoei eta indarkeria sinbolikoei erantzuteko, ikusarazteko eta indargabetzeko. | 2024an hasiaEn Aribidean |
| 96E | LGTBIfobiaren gaineko informazio eta sentsibilizazio-kanpainak egitea herritar guztiei zuzenduta, irisgarritasun unibertsaleko irizpideei jarraikiz. | 2024an hasiaEn Aribidean |
| 99E | Prestatzea eta zabaltzea gorrotozko eta LGTBIfobiazko diskurtsoen aurrean egin behar denari buruzko tresnak. | 2024an hasiaEn Aribidean |
| 100E | SGA ikuspegia txertatzea salaketak kudeatzeko eta sailkatzeko prozeduretan. | 2024an hasiaEn Aribidean |
| 102E | Salaketen eta Gizarte Babes eta Laguntzako Unitateetako langile guztiak SGA gaietan prestatzea eta gaitzea. | 2024an hasiaEn Aribidean |
| 103E | Herritarrei eta tartean sartutako agenteei aldizka jakinaraztea erantzun- eta koordinazio-protokoloa, irisgarritasun unibertsaleko irizpideak betetzen dituzten formatuetan. | 2024an hasiaEn Aribidean |
| 104E | Protokoloa garatzeko koordinazio-batzorde iraunkorra aktibatzea eta indartzea. | 2024an hasiaEn Aribidean |
| 106E | Iruñeko gertakarien eta salaketen gaineko informazioa ematea LGTBIfobiaren aurkako behatokiaren sareei. | 2024an hasiaEn Aribidean |
| 107E | LGTBIfobiaren aurkako Behatokia eta horren jarduerak sustatzea. | 2024an hasiaEn Aribidean |
| 108E | Hiriko LGTBIfobiari buruzko txostenak urtero egitea eta argitaratzea | 2024an hasiaEn Aribidean |

**LGTBI+ pertsonen aurkako erasoen aurreko erantzuna koordinatzeko protokoloaren** baitan, 2024an hiriko LGTBI+ mugimenduko kolektiboen eta Udaleko hainbat alorren arteko lan bateratua mantendu da: Berdintasuna, Herritarren Segurtasuna (UPAS) eta Gizarte Zerbitzuak (EUAZ), LGTBI+ pertsonekin hiri askotarikoa eta askea eraikitzeko jarduketa-es-

parrua eta beharrezkoak diren baliabideak sortzeko. Pertsona guztiek esparru guztietan lekua izanen duten ingurunea sortzea da xedea. Hala ere, LGTBI Planik ez izateak jarduketa horien kokapena zaildu du.

Prozesu hori hiriak LGTBI+ politika publikoekin duen konpromisoaren parte da, LGTBI+ kolektiboak eta herritarrak kontuan hartuta, gizartea benetan eraldatzeko funtsezko eragileak baitira. Hirian LGTBIfobia desagerraraziko bada, indarkeria horiek ikusarazi behar dira eta gertatzen diren egiturazko indarkeriaren kulturan eta suposatzen duten eskubide-urraketen testuinguruan kokatu behar dira, eta hortik abiatuta indarkeria horiek ezabatzeko eta LGTBIfobiarik gabeko hiria bermatzeko behar diren mekanismoak sortu.

Mekanismo horietako bat **LGTBIfobiaren aurkako Behatokia** da, hots, homofobiaren, lesbofobiaren, bifobiaren eta transfobiaren aurkako behaketa-sistema iraunkor bat da Iruñean. Organo horrek hiriko eraso LGTBIfobikokoen gaineko ikuspegi orokorra jaso nahi du, Udalak egiten dituen prebentzio- eta sentsibilizazio-ekintzak bideratzeko.

2024an, 22 gorabehera erregistratu dira.

**Harrotuk**, Iruñeko Udaleko Sexu eta Genero Aniztasunari Arreta eta Informazioa emateko Zentro Publikoak, **LGTBI inguruan informatzeko eta haien parte-hartzea nahiz eskubideak sustatzeko** zerbitzua mantendu du. Urtean zehar, 34 jarduera egin dira, 728 pertsona artatuta, 344 emakume, 210 gizon, 73 pertsona ez-bitar eta 101 sailkatu gabe. 94 hizlari aritu dira eta zerbitzuaren 63 aurkezpen egin dira, 289 pertsonak parte hartuta.

Hori guztia, informaziorako, komunikaziorako eta trebakuntzarako jarduketak garatu eta dinamizatzeko, Sexu eta Genero Aniztasunarekin lotutako esparruetan. Zehazki:

- Baliabideak ematea LGTBI herritarrei eta gizarte-sareari laguntzeko.
- Sexu eta Genero Aniztasunean interesa duten elkarteak eta herritarrak oro har artatzea.
- LGTBI herritarren errealitateen gaineko hedapenean eta haien eskubideen sustapenean lan egitea, Udalarekin koordinatuta.
- Herritarren sentsibilizazioan lan egitea, adierazpen LGTBIfobiko oro identifikatu, prebenitu eta arbuiatzeko.

**Harrotuk programatan banatuta mantendu du hiruhilekoko programazioa:**

- Ahalduntze pertsonala,
- Ahalduntze kolektiboa,
- Gizarte- eta kultura-jarduerak
- Sentsibilizazioa eta oinarrizko prestakuntza, eta
- Boluntariotza.

Hiru hilean behin programatutako jarduerez gain, ekitaldiak ospakizun-egunotan egin dira:

**Maiatzaren 17an,** LGTBIfobiaren aurkako Egunean, adierazpen instituzionala egin eta bi olan handi jarri ziren Seminario Etxean.

**Ekainaren 28an,** Iruñeko Udaleko fatxada argitu zen, eskubideen aldarrikapenekin bat egiteko eta pertsona askok beren sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik pairatzen duten diskriminazioa salatzeko. Kontzertu bat egin zen, 150 pertsona inguru bertaratuta.

**Urrian** hainbat jarduera antolatu ziren, sexu- eta genero-identitateari buruzko gaiak lantzeko, Trans Despatologizazioaren Eguna ikusarazteko eta trans errealitateei buruzko eztabaida- eta azterketa-guneak sortzeko.

Azkenik, Berdintasuneko alorrak, aurreko urteetan bezala, **LGTBI kolektiboendako dirulaguntza** kudeatu du, herritarrei eta/edo LGTBI herritarrei zuzendutako proiektuak egiteko, haien parte-hartzea eta ahalduntzea sustatzeko, eta gizarte-eskubideak lortzearen alde lan egiteko. Horren bidez, 6 erakunderen proiektuak finantzatu ziren eta, guztira, 20.000 € jaso zituzten.

# 8.2
# Ekintza komunitarioa

**HELBURUAK**

- Iruñeko auzo guztietako sare komunitarioa ezagutzea eta harekin harremanetan egotea
- 11 Zentro Komunitarioen jardunaren jarraipena egitea: mantentze-lanak eta kudeaketa kolektiboekin batera egitea.
- Zentro Komunitarioei buruzko ordenantza garatzea.
- Haurtzaro-sareen lana babestea, bai eta sor daitezkeen sareena ere.
- Bizilagunen arteko sareak eta auzoetako bizitza sendotzeko balio duten ekimenen garapena sustatu eta erraztea.
- Bizikidetza eta dibertsitatearen inklusioa sustatzen dituzten dinamikak sortzea.

## 8.2.1
## Lan Ildoak

Iruñeko Udalak auzotarrentzat zabalik dauden lokalak ipintzen ditu auzoen eskura. Zentro komunitarioek elkarte-bizitza bultzatu eta herritarren parte-hartze aktiboa sustatzen dute.

Garatzen diren jarduerek irekiak izan behar dute, irabazi-asmorik gabekoak, eta belaunaldi arteko eta kultura arteko ikuspegi sustatzen dute, generoan eta inklusioan oinarritutako ikuspegia bultzaturik..

- Auzoko jarduerak
- Jolas-, kirol- edo musika-jarduerak, etab.
- Bertako pertsonen zein kolektiboen artean loturak sendotzea bultzatzen duen edozein jarduera.

**EGUNEROKO ZEREGINAK**

- Giltzen kudeaketa: giltzen maileguaren jarraipena egitea, sarbide-sistema berriaren jarraipena egitea eta hura hobetzea.
- Zentroen kudeaketa: erreserbak eta egutegiak, kolektibo erabiltzaileekin batera egitea, Kudeaketa Batzordeen barnean. Erabileren erreserbak.
- Mantentze-lanen gorabeheren kudeaketa, eta instalazioak egokitu eta hobetzeko lanak.
- Ekimenak abian jartzen laguntzea kolektiboei: informazioa, harremana udaleko beste alor batzuekin, etab.
- Gorabeheren kudeaketa eta bizikidetza arazoak.
- Garbiketaren jarraipena egitea: gorabeheren kudeaketa, behar bereziak, etab.
- Beste alor batzuekiko koordinazioa: Hiri Kontserbazioa, lorategiak, Gizarte Enplegua, Herritarren Partaidetza, Gizarte Ekintza..

**ZENTROEN KUDEAKETA**

2024an, lan-dinamika finkatu da Kudeaketa Batzordeen baitan, eta komunikazio arin eta etengabea sortu da zentro komunitarioak erabiltzen dituzten kolektiboekin.

Arrotxapean bakarrik ez da kudeaketa batzordea eratu, ez baitago entitate erabiltzaile egonkortzat hartzen den entitaterik hitzarmena sinatu dutenen artean; horrek zentroaren jarduna zaildu du eta, batez ere, gorabeheren kudeaketa. Aurten, ordea, komunikazio arinagoa izan da, kolektiboen artean kontakturako pertsonaren bat eduki baitute eguneroko kontuetarako.

2024an, San Joan Bosco Zentroa ekainetik sartu da zentro Komunitarioen sarean; beraz, Kulturako alorreko aretoa izateari utzi dio, eta berariazko prozesu bat egin behar izan da eskualdatze hori gauzatzeko:

- Aretoaren azterketa eta nola funtzionatzen duen jakitea
- Hobekuntzak eta inbertsioak gabeziak konpontzeko eta zentroa ZK kudeatzeko dinamikara egokitzea.
- Garbiketa-kudeaketa
- Bilerak kolektiboekin ZK gisa eskualdatzeko.

Batzordearen bilerak eta lan-bilkurak egin dira, kolektiboekin telefono, posta eta whatsapp bidez izandako harremanaz gain. Nabarmentzen da aurten etengabe handitu dela telefono, whatsapp eta posta bidezko kontaktua eta, ondorioz, aurrez aurreko bilera gutxiago egin behar izan dira.

- Azpilagañako ZK: Kudeaketa-batzordea maiatzean eta lan-bilerak ekain eta azaroan
- Buztintxuriko ZK: Kolektiboen batzarra otsail eta urrian; kudeaketa-batzordea apirilean
- Alde Zaharreko ZK: Kudeaketa-batzordea maiatzean, lan-bilera martxoan, gazte-berriemaileekin bisita azaroan
- Ermitagañako ZK: Batzordea ekainean, lan-bilera ekainean.
- Etxabakoizko ZK: Kudeaketa-batzordea maiatzean.
- Lezkairuko ZK: Lan-bilera ekainean.
- Mendillorriko ZK: Batzordea maiatzean, lan-bilera abenduan.

- Arrosadiko ZK: Kolektiboen batzarra azaroan, lan-bilera abenduan sukaldea erabiltzen duten taldeekin.
- Arrotxapeko ZK: Kolektiboen batzarra apirilean
- Sanduzelaiko ZK: Batzordea maiatzean eta lan-bilera apiril eta azaroan.
- Txantreako ZK: Kudeaketa-batzordea maiatzean.
- Iturramako ZK: lan-bilerak maiatz eta ekainean, Iturramako Adinekoen Sarearen hileko bileretan landutakoaz gainera

Honatx bileretan landutako gaiak:

- Zentro Komunitarioaren gai garrantzitsuak aztertzea: zentro komunitarioaren funtzionamendua, konponketak, erabilera-egutegia, sarbideak, giltzak, biltegiratzea, garbiketa, etab.
- Zentroak zer kolektibok erabiltzen dituzten jakitea, bai eta bizilagunen ekimenak ere.
- Batzordea osatzen duten pertsonak eguneratzea.
- Aretoen berrikuspena: altzariak eta obrak, margotze-lanak.
- Gorabeheren kudeaketa. Ekintza bandalikoak eta bizikidetza arazoak: halakoak kudeatzeko adostasuna.
- Proiektu komunitarioak: laguntza horma-irudi komunitariorako Buztintxuriko Buztingune ZK, Sanduzelaiko Gridillas ZK.
- Areto berrien kasuan: kudeaketa- eta funtzionamendu-eredua abian jartzea

## BERARIAZKO LANAK ZENTRO KOMUNITARIOAK EGOKITZEKO

**(beste udal alor batzuekiko koordinazioa dakar berarekin, bai eta kolektibo eta hornitzaileekin ere)**

- Azterlana egitea Hiri Ekologiarekin batera ZKn hondakinak bereizteko guneak paratze aldera.
- Areto guztietako altzariak berrikustea, haien hobekuntzarako: 2024ko inbertsio eta erosketetan diren beharren zerrenda egitea
- Koordinazioa Haurren Prebentzio Programarekin, Zentro Komunitarioetako aretoen erabileretarako, materialak eraman behar badira.
- Funtzionamendurako laguntza-materialak: eskabide-fitxak eta funtzionamendu-eskuliburua hobetzea.
- Aretoa bilatzea Lezkairun, ZKren kokalekua hobea izateko.
- Ekintza bandalikoen kudeaketa: koordinazioa aseguruekin eta koordinazioa kolektiboekin:
- Koordinazio ESPrekin:
    - Margotze-lanak ESPrekin: Plazara Alde Zaharreko ZK eta San Joan Bosco Iturramako ZK.
    - Obra-eskabide hobeak eta margotze-lanak.
- 2024ko inbertsioak
- Guztiak. Wifi linea egokitu eta jartzea elkarte eta kolektibo erabiltzaileentzat gutxienez Zentro Komunitario (auzoa) bakoitzeko areto batean
- Azpialagañako ZK: ikus-entzunezko aretoa egokitzea, altzariak, eta ispilu-gela egokitzea.
- Alde Zaharreko ZK - Plazara: Musika-aretoa intsonorizatzea, biniloak, erakusketa-gunea egokitzea, proiektagailua eta altzariak
- San Joan Bosco ZK. Margotze-lanak, bionboak, biniloak, irekiera-sistemaren aldaketa (ate automatikoa eta sarbidea), aretoen intsonorizazioa, aretoen eta altzarien banaketa.
- Mendillorriko ZK-Antzara: biniloak, binilozko zoruak, gortinak eta altzariak.
- Arrosadiko ZK: sukaldea hobetzea, armairuak, sukaldeko tresnak, etxetresna elektriko txikia, altzariak.
- Sanduzelaiko ZK:
    - Gridillas: fatxadako horma-irudiaren proiektua.
    - Karrikagune: aretoen sonorizazioa, argiak aldatzea, binilozko zorua
- Txantreako ZK:
    - Salestarrak: aretoen sonorizazioa, ekitaldi-aretoko audio-sistema hobetzea, proiektagailua.

## ZENTRO KOMUNITARIOEN ERABILERAK

Taula honetan auzoz auzo egindako erreserbak ageri dira. Kopuruak adierazten du eguneroko erreserben batura auzo bakoitzeko Zentro Komunitarioko areto eta gela guztietan 2024an, nahiz eta funtzionamenduaren logika ikasturtearena den.

| AUZOA | Erreserva Kop. | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Azpilagaña | 1694 | 6,49% |
| Buztintxuri | 1693 | 6,48% |
| Alde Zaharra | 4046 | 15,49% |
| Ermitagaña | 2751 | 10,53% |
| Etxabakoitz | 1254 | 4,80% |
| Lezkairu | 132 | 0,51% |
| Mendillorri | 1288 | 4,93% |
| Arrosadia | 2558 | 9,80% |
| Arrotxapea | 1581 | 6,05% |
| Sanduzelai | 2548 | 9,76% |
| SAN JOAN BOSCO | 1099 | 4,21% |
| SANTA MARÍA LA REAL | 1093 | 4,19% |
| Txantrea | 4376 | 16,76% |
| **Guztira** | **26113** | **100,00%** |

Joan den urtearen aldean, erreserbak guztira % 7,5 igo dira. Hori hein batean zor zaio San Joan Boscos aretoa Zentro Komunitarioen sarean sartu izanari eta, era berean, azterlanean Santa Mª la Real belaunaldiarteko aretoa sartu izanari.

**ERRESERBAK AUZOKA**




| | Erreserba Kop. |
|---|---|
| Egonkorrak | 24468 |
| Unekoak | 1645 |

Jardueren % 93,70 egonkorrak izan ziren ikasturtean; gainerakoak, berriz, unean unekoak, egun zehatzetarako eskatuak. Kalkulua egiteko, egonkortzat jo ditugu urtean jarraipena izan duten jarduerak eta 20 erreserba baino gehiago izan dutenak. Irizpide berarekin bat, erabilera egonkorreko taldeak 200 izan dira urtean. Beste 310 erabiltzailek gutxienez erreserba bat egin dute urtean.

Bestalde, erakunde erabiltzaileen % 35 inguruk kulturan eta prestakuntzan dihardute (musika, dantza, antzerkia, prestakuntza-ekintzak...); % 30ek auzo-, komunitate- eta gizarte-jardueretan, bai eta genero-berdintasunean eta eskubide sozialetan ere; % 20k dibertsitatea lantzen dute (kulturala, funtzionala, LGTBI); % 8k gorputz eta buru osasunarekin eta kirolarekin lotutakoak, eta % 7k haur eta nerabeendako jarduerak egiten dituzte.

## 8.2.2 Prebentzio Komunitarioa Haurtzaroan

**HAUR SAREAK**

2024an, teknikari komunitarioaren funtsezko lana izan da sareei laguntza teknikoa ematea, haien funtzionamendua errazteko.

Gainera, sareko baliabideen arteko barne loturako lana da, bai eta kanpo aukerekin lotzeko lana ere, hala udalarekin berarekin nola komunitatearekin:

- Lehendik zeuden sareak baina funtzionamendurik ez zutenak pizten laguntzea, bai eta sare berriak sortzen laguntza ere.
- Finkaturik dauden sareekin komunikazioa izatea aldizka, halaxe eskatu baitzuten prozesuaren jarraipena egiteko.
- Bilerak kudeatzeko tresnak prestatzea eta sareen eskura uztea.
- Sareen eskura dagoen materiala prestatzea: haur eta nerabeentzako udal-baliabideak, sarea aurkezteko dokumentua, eta sareen baliabide propioen gidak egiten hastea
- Haur sare gehienen bileretan, batzarretan eta/edo talde eragileetan parte hartzea.
- Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Alorraren edukiaren berri ematea.
- Zurekin hazten" Gurasotasun Positiboko Udal Programari buruzko informazioa ematea eta, harekiko esteka, hala badagokio. Guraso taldeen garapena.
- Haurren Eskubideen Eguna, azaroaren 20a, ospatzeko laguntza ekonomikoa.

**HAUR ETA GAZTEENDAKO PROIEKTUAK SUSTATZEA**

### A) DIRULAGUNTZA, 2024AN HAUR ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO URTEKO PROGRAMAK EGITEKO 106. NAO, 2024/05/23KOA).

2024ko maiatzaren 23an, 2024an haur eta gazteei zuzendutako urteko programak egiteko deialdia argitaratu zen, 150.000 euroz hornitua. 25 eskaera aurkeztu ziren eta 24 igaro ziren balorazio teknikoaren fasera, deialdiaren baldintzak betetzen baitzituzten.

24 eskaera horietatik, batek ez zuen gutxieneko puntuazioa lortu proiektuaren kalitate teknikoa irizpidean; horrenbestez, 23 erakundek jaso zuten dirulaguntza eta dirua hainbanatu zen, ez baitzen aski izan dirulaguntzaren partida.

### B) PROIEKTU KOMUNITARIOAK: HAUR ETA NERABEEN SUSTAPEN ETA PREBENTZIO KOMUNITARIORAKO KIROL PROGRAMAREN SUSTAPENA IRUÑEKO ALDE ZAHARREAN

2024ko irailaren 20an, Iruñeko Udalak eta Alde Zaharreko Klubak honako hitzarmen hau sinatu dute: **Iruñeko Udalaren eta Alde Zaharreko Klubaren arteko lankidetza-hitzarmena Haur eta Nerabeen Sustapen eta Prebentzio Komunitariorako kirol programa Iruñeko Alde Zaharrean sustatzeko.** Hitzarmenak auzo mailako lan-ereduaren esperientzia

pilotu baten oinarriak ezarri ditu. Horren bidez, haurren arteko prebentzio-lanari heltzen ahalko zaio, kirol-guneen gabeziari irtenbidea eman, eta sinergiak sortuko dira auzoko elkarte-sarearekin, sare komunitarioak sustatuta.

Hitzarmenaren barnean, Iruñeko Udalak Club Natación klubeko instalazioen erabilera erraztuko dio Alde Zaharreko Klubari (AZK), haien kostua ordainduz,Club Natación klubari hilero fakturatuta.

Eta Alde Zaharreko Klubak konpromisoa hartu du 2024-2025 kirol denboraldian, irailetik ekainera, haur eta gazteen sustapen eta prebentzio proiektua garatzeko, kirolaren bidez. Proiektua abian dago jada, eta hari buruzko informazioa hitzarmen honi erantsi zaio, bi aldeek ezarri dituzten jarraipen- eta ebaluazio-txostenak eta koordinazio-bilerak eginen direla. Horretarako, Iruñeko Udaleko Gizarteratze Teknikari bat arduratuko da horretaz eta laguntza emateaz.

#### HAUR MAHAIAREN ERREGELAMENDUAREN ALDAKETA

Egungo **Haurren Udal Mahaiaren Erregelamendua** 2010eko ekainaren 11ko Alkatetzaren Dekretuaren bidez onartu zen.

Kontuan harturik haurren eta nerabeen arloan nahiz partaidetzakoan izaniko arau-garapena, beharrezkotzat jotzen da indarrean dagoen Haurren Udal Mahaiaren Erregelamendua eguneratzea.

Horretarako, 2024ko irailaren 24an, prozesu hori hasi da, jendaurrean jarriz.

Urriaren 23an Haur Mahaiaren bilera egin zen, haurren eta bertaratu ziren zinegotzien ekarpenak jasota.

Urritik aurrera, erregelamenduaren zirriborroa idazten hasi ziren.

## 8.2.3 Koordinazioa beste alor eta erakunde batzuekin

**Partaidetzako alorra**

- Koordinazioa alorrarekin eta Dinamizazio Zerbitzuarekin, Partaidetzako Alorrak bultzatzen dituen ekimenetan parte hartzeko.
- Dinamizazio Zerbitzuaren laguntza, Zentro Komunitarioetako kolektiboekin bilerak egiteko.
- Zentro Komunitarioetako jardueren hedapena.
- Zentro Komunitarioak bilerak eta prozesuak egiteko erabiltzea.
- Dibertsitate Planaren garapena.

**Berdintasuneko Alorra**

- Emakumeen Etxeko eta Harrotu-ren jarduerak Zentro Komunitarioetan hedatzea.
- Berdintasun Planaren garapena.

**Ingurumeneko Museoa**

- Jarduerak Zentro Komunitarioetan zabaltzea

**Polizia komunitarioa**

- Polizia zure Civivoxean programa abian jartzeko laguntza, Txantreako ZKn, eta Santa Maria la Realeko ZKn.

**Proiektu Estrategikoetako eta Mugikortasuneko Alorra**

- Ilrisgarritasun Integralerako Plan Estrategikoan parte hartzea.
- Zentro Komunitarioak bilerak eta prozesuak egiteko erabiltzea.

**Gizarte Ekintzako Alorra**

- Zentro Komunitarioak hainbat beharretarako erabili baloratzea.
- Klima-aterpeak ZKetan.

**Gazteriako Alorra**

- Gazte Planaren garapena

## 8.2.4 Haurrak

Iruñeko Udalak Haur eta Nerabeendako 2023-2027 II. Plana ezartzen jarraitu du 2024an. Plana hiru ildo estrategikoetan dago egituratua: babesa, prebentzioa eta partaidetza, hiria haur eta nerabeen ikuspegitik birdiseinatzeko.

#### PREBENTZIOAREN EREDU KOMUNITARIOAREN BIRDISEINUA

2024an, Iruñeko haur eta nerabeen prebentzio eta sustapenerako eredu komunitarioa berrikusi eta hobetzeko prozesua jarri zen abian. Birdiseinuaren bidez, are gehiago babestu nahi dira haur eta nerabeen eskubideak, halako ikuspegi

integral eta parte-hartzailea bermatuta, haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko 12/2022 Foru Legeak ezarritako betetze aldera.

## JARDUERA NABARMENAK 2024AN

Iruñeko Udalak, Haurrendako Programaren bidez, hainbat jarduera garatu ditu 2024an haur eta nerabeen erabakimena eta partaidetza sustatzeko hirian. Honatx jarduera nagusietako batzuk:

- **Eskola-laguntza:** Iruñeko hamalau auzoetan antolaketa-ohiturak eta lan intelektuala sustatzeko gune motibatzailea
- **Laborategia:** sormena eta multijolasak: GJHen eta Haurren Eskubideen Konbentzioaren inguruko jarduera ludikoak eta sormenezkoak, Iruñeko hamalau auzoetan
- **Nerabeen gauzak: A**ukera libreko gunea jarduеretarako eta hausnarketarako, eta Izan zaitez zu-zeu programa ere garatu da.
- Haur-jolasak: 3-6 urteko haurrendako taldea.
- **Saskibaloia:** Kirola eta ohitura osasungarriak sustatzea, Nafarroako Saskibaloia Federazioarekin elkarlanean, Iruñeko hamalau auzoetan.
- **Xakea:** Pentsamendu estrategikoaren eta erabaki-hartzeen garapena
- Antzerkia: Jarduera Azpilagaña, Zabalgunea, Mendillorri eta Txantrea auzoetan.
- **Futbola:** Udalaren eta Osasuna fundazioaren arteko hitzarmenaren baitan, garapen fisikoa eta diziplina eta talde-lana balioak sustatu nahi dira Sanduzelain, Arrotxapean, Etxabakoitzen, Arrosadian eta Lezkairun.
- Dantzak: Mugitzeko trebetasunak, sormena eta autoestimua garatzea Sanduzelain eta Buztintxurin.
- **Euskal pilota:** Kirol tradizional hori ezagutu eta jokatzea Labrit pilotalekuan eta López pilotalekuan.
- 3D diseinua: Jarduera teknologikoa Ermitagañan eta Donibanen
- **Eskubaloia:** Jarduera Azpilagañako kiroldegian egin zen.
- **Mahai-tenisa:** Jarduera Sanduzelai eta Lezkairu auzoetan egin zen.
- **Minecraft Education Edition:** STEN hezkuntza-ekimena Txantrean eta Sanduzelain.
- **Ontzi-modelismoa:** Urtarriletik ekainera, Hego Buztintxuriko Zentro Komunitarioan, familiendako gune bat sortu zen belaontzi baten maketa egiteko.
- **0 km-ko askari osasungarriak**: Ohitura osasungarrien eta kontsumo jasangarrien sustapena.
- Hiri-kanpamentuak: Aste Santuan, udan eta Eguberrietan, prebentzio-ikuspegiarekin eta familia kontziliatzeko.
- **Multikirol jardunaldiak:** 2024ko urtarrilean, multikirol jardunaldiak egin ziren, Mendillorriko eta Txantreako ikastetxeekin elkarlanean.
- **Igerilekuak:** Doako jarduera ludikoak Arantzadin eta Sanduzelain.
- **EKO hiri-kanpamentua:** Ingurumen-hezkuntzako kanpamentua, 13-18 urteko nerabeendako.
- **Eguberrietako Karpa:** Doako 250 m²-ko espazio bat diseinatu zen, haur eta familiendako jarduerak eskainita.
-

| | | Niñas | Niños |
|---|---|---|---|
| Parte-hartzaileak jardueretan | Lehen hiruhilekoa | 430 | 492 |
| | Bigarren hiruhilekoa | 438 | 503 |
| | Laugarren hiruhilekoa | 463 | 348 |
| | Eguberrietako kanpamentuak | 51 | 41 |
| | Aste Santuko kanpamentuak | 66 | 58 |
| | Udako kanpamentuak | 250 | 294 |
| | Erasmus + | 29 | 22 |
| | Larunbatak at Piraguismoa | 21 | 21 |

## ERASMUS 2024

Iruñeko 11 ikastetxetako 19 gazte Bruselara eta Estrasburgora joan ziren Europa helmuga eta Erasmus+ programen bidez. Hautaketa apirilean hasi zen, 60 parte-hartzailerekin, prestakuntza, talde-lana eta Europako politikekin bat datozen proiektuak baren hartuta. Teknikariek lagunduta, gazteek Europako erakundeak bisitatu eta beren proposamenak azaldu zituzten. Itzuli zirenean, esperientzia gazteak sentsibilizatzeko jardunaldi batean partekatu zuten.

### HAUR ETA NERABEEN MAHAIA

Urrian, Haur eta Nerabeen V. Mahaia bildu zen, mahaia arautzen duen erregelamendua berrikusteko prozesua hasteko, eguneratu behar baita herritarren partaidetzako araudi berrira egokitzeko.

### GURASOTASUN POSITIBOA

259 gurasok parte hartu dute Haurrei Tratu Ona ematea sustatzeko sortu diren 37 taldeetako batean.

## 8.2.5 Adinekoak

Garatutako jardueren helburu nagusia da Iruñeko adinekoen autonomia sustatzea eta haien mendekotasunari aurrea hartzea; betiere, haien intereseko jarduerak antolatzen dira, motibagarriak eta eragingarriak izanen zaizkienak, eta zaintzaileen ongizatea sustatuko dutenak.

Era berean, adinekoen isolamendu eta bakardadea prebenitzea du xede, berdinen arteko aisia eta harremanak sustatuz, lotura horiek jarduerez haratago mantentzeko aukera izanen baitute.

### BERARIAZKO HELBURUAK

- Narriadura fisikoa, soziala eta kognitiboa prebenitzea eta geldiaraztea, pertsonaren autonomia sustatuz.
- Pertsonen arteko topagune bat eraikitzea, harreman sozialez, aisialdiaz eta kulturaz gozatzeko eta, horrela, haien bizi-kalitatea hobetzeko.
- Gaitasun kognitiboak mantendu eta garatzea, hainbat arlo lantzen dituzten jardueren bidez: errealitaterako orientazioa, oroimena, hizkuntza, kalkulua...
- Eguneroko jardueretarako trebakuntza funtzionala lantzea, pertsonen autonomia hobetze aldera.
- Gizarte-eremua garatzea, sozializazioa eta esperientzien trukea sustatuz.
- Talde-partaidetza aktiborako gune bat sortzea.
- Parte hartzaileengan hobekuntza emozionalerako ingurune bat sustatzea.
- Harremanak eta bizikidetza hobetzea.
- Gune bat sortzea, zahartze-prozesuaren berezko esperientziari buruz eta horren erronkei buruz.
- Bizimodu osasungarria sustatzea, jarduera fisikoko eta estimulazio kognitiboko ohiturak txertatuz pertsonaren egunerokoan.
- Teknologia berrien erabilera eta ezagutza sustatzea, haien bidez jarduera fisikoko edo estimulazio kognitiboko ariketak egin ahal izateko.
- Parte-hartzaileek interesgarritzat jotzen dituzten alderdiak zeharka lantzea. Adibidez, nola egin aurre bakardadeari, nola kudeatu gatazkak (jardueran gerta daitezkeenak edo kanpotik ekarri eta kontatzen dituztenak). Helburua da gune bat sortzea, kezkak partekatzeko eta ikasgelez haratago lagungarri izan daitezkeen eta laguntza-harremanak susta ditzaketen harremanak hasteko.
- Zaintzaileei laguntzea, beren eta zaintzen dituzten pertsonen ongizatea hobetzeko.

### HARTZAILEAK

Programa Iruñeko 65 urtetik gorakoendako da.

### HEDAPENA

Jarduerak modu unibertsalean hedatu dira komunikabideen (prentsa idatzia, bisuala...) eta sare sozialen bidez.

Gainera, berariaz eta zuzenean zabaldu da honako hauen artean:

- Gizarte-zerbitzuetako auzo-unitateak, autonomia-programa.
- Adinekoen elkarteak
- Adinekoen beste erakunde batzuk edo adinekoekin lan egiten dutenak
- Adinekoen inguruko sareak, hala nola Donibaneko Adinekoen Ituna
- 65 urtetik gorako pertsonendako udal apartamentuak, Iruñeko Udalarenak.
- Bai eta udal-programetan interesa erakutsi duten pertsonei ere.

## MARTXAN. JARDUERA FISIKOEN ETA MEMORIA-JARDUEREN PROGRAMA

Lizitazio bidez esleitutako kontratu baten bitartez gauzatzen da.

### 2023- 2024 IKASTURTEA

| Tokia | Ariketa fisikoko jarduerak | Memoria-jarduerak |
|---|---|---|
| **Alde Zaharra**<br>Plazara! zentro komunitarioa<br>Kale Nagusia 31 | Astelehen eta asteazkenetan<br>9:30-11 | Astearte eta ostegunetan<br>9:30-11:00 |
| **Rochapea**<br>c/Joaquin Beunza 31-33 | Astelehen eta asteazkenetan<br>9:30 a 11:00 | Astearte eta ostegunetan<br>9:30-11:00 |
| **Txantrea**<br>Salestarrak zentro komunitarioa<br>Iruñerria k. 24 | Astearte eta ostegunetan<br>9:30-11:00 | Astearte eta ostegunetan<br>9:30-11:00 |
| **Iturrama**<br>c/San Juan Bosco 15 | Astearte eta ostegunetan<br>9:30-11:00 | Astelehen eta asteazkenetan<br>9:30-11:00 |
| **Ermitagaña**<br>José María Iribarren kiroldegia | Astearte eta ostegunetan<br>9:30-11:00 | Astelehen eta asteazkenetan<br>9:30-11:00 |

### PARTE-HARTZAILEAK: 181

| | Alde Zaharra | | Arrotxapea | | Iturrama | | Ermitagaña | | Txantrea | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Memoria | J. Fisikoa | Memoria | J. Fisikoa | Memoria | J. Fisikoa | Memoria | J. Fisikoa | Memoria | J. Fisikoa | |
| Emakum. | 14 | 11 | 14 | 18 | 15 | 17 | 17 | 15 | 9 | 16 | **146** |
| Gizona | 5 | 5 | 4 | 3 | 2 | 3 | 4 | 5 | 2 | 2 | **36** |
| Guztira | 19 | 16 | 18 | 21 | 17 | 20 | 21 | 20 | 11 | 18 | **182** |

### CURSO 2024-2025

| | Alde Zaharra | | Arrotxapea | | Iturrama | | Ermitagaña | | Txantrea | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Memoria | J. Fisikoa | Memoria | J. Fisikoa | Memoria | J. Fisikoa | Memoria | J. Fisikoa | Memoria | J. Fisikoa | |
| Emakum. | 18 | 19 | 15 | 18 | 16 | 18 | 11 | 17 | 19 | 18 | **169** |
| Gizona | 4 | 4 | 8 | 5 | 7 | 5 | 10 | 6 | 4 | 5 | **58** |
| Guztira | 22 | 23 | 23 | 23 | 23 | 23 | 21 | 23 | 23 | 18 | **227** |

## ZAHARTZE AKTIBORAKO ESPARRU-AKORDIO JARDUERAK

Programa hau jarduera fisikoko eta arlo kognitiboko esparruetan dago kokatua, bai eta arrakala digitalaren eta zaintzaileen arloetan ere. Zahartze aktiboa lantzeko jarduerak egiten dira, jarduera fisikoa egitea sustatuko dutenak, hala nola bisita gidatuak hirian barna, ibilaldiak... Egokiak jendea ezagutzeko eta elkarren arteko harremanak egiteko Era berean, estimulazio kognitiboa sustatuko duten eta harremanak egiteko balioko duten jarduerak antolatuko dira, hala nola hitzaldi-solasaldiak, zine-foruma eta beste adinekoendako intereseko gaiez. Jarduera fisikoa eta kognitiboa egiten da zeharka beste gai batzuekiko interesa erakutsi dezaketen pertsonentzat. Egutegi bat egiten da askotariko jarduerak jasotzeko

Programazioa kontratu txiki baten bidez gauzatzen da, 3 entitateri eskaintza eskaturik. Gurutze Gorria erakundea aukeratu zen, eta huraxe da lehen entitatea esparru-akordioko zerrendan jarduerak egiteko. Lizitazioa hainbat arrazoi direla medio atzeratu da; horrenbestez, urteko lehen seihilekoan ezin izan da esparru-akordioko jarduerarik bat ere egin.

Profil sozio-sanitarioa edo soziala duten langileek zuzentzen dituzte jarduerak, helburua baita parte-hartzaileen elkarreragina eta parte-hartzea sustatzea; hala ere, une jakin batzuetan, arloan aditua den pertsona baten laguntza ere jasotzen da

Izen-ematea, berriz, doakoa da. Edukiera mugatua zegoela eta, jarduerak 20 lagunekoak izan dira.

Ondoren, egin diren jarduera guztien egutegia dator:

### 1 SORTA: AISIAKO ETA DENBORA LIBREKO IKASTAROAK

| | |
|---|---|
| Urtarril-martxo hiruhilekoa | 0 |
| Apiril-ekain hiruhilekoa | 0 |
| Urri-abendu hiruhilekoa | 5 |
| Guztira | **5** |

| | Parte-hartzaileak, guztira | % |
|---|---|---|
| Emakumeak | 54 | 69.23% |
| Gizona | 24 | 30.77% |
| Guztira | **78** | **100%** |

## 2 SORTA: ARRAKALA DIGITALEKO JARDUERAK

Adinekoendako jarduera esparru-akordioaren 2. sortaren barnean, jarduera bloke bat zegoen jasoa eten digitala hausteko. Honatx helburuak, besteak beste:

- Internetek, sare sozialek, etab. Eskaintzen dituzten aukera guztiak erabiltzen jakitea.
- Informazio eskuratzea (bidaiak, osasuna, hedabideak, Iruñeko Udalaren baliabideak, aisia eta denbora librea, etab.).
- Gailu mugikorrek eskaintzen dituzten oinarrizko aukera erabilgarriak ezagutzera ematea.
- Ordenagailuaren oinarrizko alderdiak erabiltzen ikastea, hala nola,
- testu-prozesatzaileak, posta elektronikoa edota Interneteko nabigatzailea.
- Bestelako gizarte- eta kultura-trebetasunak eskuratzea,
- tresna horiek zabal erabili ahal izateko.
- Autonomia eta komunikazio-gaitasuna hobetzea.
- Ikasteko gaitasunean konfiantza berreskuratzea.
- Administrazio Publikoekiko sarbidea eta izapide telematikoak erraztea.
- Aldaketak eragitea, jarrera positiboa agertzeko IKTeak erabiltzeko.
- Gailu mugikorren erabileran izan litezkeen beldur edo erreparo funsgabeak ezabatzea.

Lantegietan, bi gai ziren ardatz: alfabetatze eta eguneratze teknologikoa, eta oinarrizko kudeaketak administrazioarekin. Ikastaroak antolatu ziren, baina ez ziren egin, ez baitzuen inork izenik eman.

Honatx 2024ko parte-hartzaile kopurua:

| | |
|---|---|
| Urtarril-martxo hiruhilekoa | 0 |
| Apiril-ekain hiruhilekoa | 0 |
| Urri-abendu hiruhilekoa | 0 |
| Guztira | **0** |

## 3 SORTA: ZAINTZEN DUTENAK ZAINDUZ. ZAINTZAILEEI LAGUNTZEKO LANTEGIAK

**Esparru emozional, afektibo eta sozialean** dago kokatua. Adinekoen zaintzaile ez profesionalei aholkularitza, prestakuntza eta informazioa bultzatzeko jardunaldiak.

**Helburu** nagusia zaintzaileei laguntza ematea da Hona hemen berariazko helburuak

- Zaintzaileak bizi duen gainzamari aurrea hartzea eta hartan esku hartzea.
- Autozaintza kudeatzen ikastea.
- Estresa kudeatzea
- Egoera onartzea
- Gaixotasuna ulertzea
- Zaintzaileei laguntzeko talde autogestionatu baterako oinarriak sortzea.
- Eguneroko zaintza-lanak errazteko teknikak ikastea.

Programa hau diseinatu da informazioa eta aholkularitza sustatzeko, bai eta zaintzaileendako talde esku-hartze psiko-hezigarriak ere.

- Emozioen maneiua eta estresaren kudeaketa
- Horrek dakarren denbora kudeatzea
- Zaintzen antolaketa kudeatzea: Nola antola gaitezke?
- Zaintzen beharrak dakartzan familia-gatazken kudeaketa
- Zaintzaileei laguntza ematea
- Inor zaindu behar denean edo gaixotasunaren aurrean, nola aurre egin egoera horiei.
- Gogoeta egitea besteekiko komunikazioaz eta zaintzen dugun pertsonarekikoaz.
- Erlaxazio-teknikak

Bizipenetan eta partaidetzan oinarritutako lantegiak dira, taldekideen zailtasunak eta esperientziak lantzeko. Hainbat estrategia saiatzen dira zaintza-egoerei hobeki aurre egiteko.

Programa zaintzaileentzat da, bai eta adinekoen eta/edo mendekoen senideentzat ere.

Ikastaroak 15 lagunekoak izan dira.

10 orduko iraupena izan du, 2 orduko 5 saiotan banaturik asteko.

Izen-ematea 010 (948420100) telefonoaren bidez egin da, dei-hurrenkeraren arabera, Iruñean erroldatutakoek lehentasuna zutela. Doako lantegiak izan dira.

Guztira, 2 lantegi egin dira, arratsaldean, 16:30etik 18:30era, bertaratu direnen iritziz hori ordutegia ona zelako. Gainera, honako lantegi hauek egin dira:

Datak: urriaren 16tik azaroaren 13ra, Zabalgunean.
Datak: azaroaren 7tik abenduaren 12ra Ermitagaña

Jende gutxiagok eman du izena eskainitako lekuak baino. Ondoren, parte-hartzaile kopurua dago zehaztua.

| | Zabalgunea | Ermitagaña | Guztira |
|---|---|---|---|
| Emakumeak | 7 | 3 | **10** |
| Gizona | 5 | 2 | **7** |
| Guztira | **12** | **5** | **17** |

Lantegiko saioak diseinatu dira informazioa eta aholkularitza sustatzeko, zaintzaileendako talde esku-hartze psiko-hezigarrien bidez.

Honatx saioen edukia:

**1. saioa:** Norbera zaintzea besteak zaintzeko
**2. saioa:** Tratu ona eta laguntza emozionala
**3. saioa:** Zaintza erosoa
**4. saioa:** Baliabide komunitarioak
**5. saioa:** Zaintzen laguntzeko baliabide digitalak

Lantegiak ontzat jo dira zinez.

## ADINEKOEI LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA ETA EMOZIONALA EMATEKO PROGRAMAK

### TELEFONO BIDEZKO LAGUNTZA ESPEZIALIZATUA

**Helburuak:**

Covid 19ak eragindako ondorioak zirela eta, Iruñeko Udalak programa bat antolatu zuen, egoera orokorrari telefono bidez laguntza espezializatua emanez erantzuteko. Iruñeko Udalak, gaur egun, adinekoen bizitza emozionalaren kalitatea hobetzen lagundu nahi du, doako zerbitzu kualifikatua jarriz haien eskura, egoera emozionalaren hobekuntza eragite aldera.

Berariazko helburua:

Laguntza psikologikoa eta emozionala eskaintzea, behar bezalako estrategiak eta tresnak jartzeko adinekoen eskura, estres emozionalak jotako egoera zailean daudenei laguntzeko.

**Langileak**

Programa gauzatzeko, hitzarmena sinatu da Itxaropenaren Telefonoarekin. Entitatea arduratzen da zuzeneko esku-hartzea egiteaz. Laguntza psikologikoa emateko taldeak prozesu guztiak gainbegiratu eta kasu guztien jarraipena eginen du.

**Hartzaileak:**

Programa laguntza emozionala behar duten 65 urtetik gorakoentzat da, Iruñekoentzat lehentasunez..

Honelako ezaugarriak dituzten pertsonak izanen dira:

- Iruñeko 65 urtetik gorako pertsonak
- Ondoez emozional eta psikologikoa duten pertsonak:
    - Estresa
    - Antsietatea
    - Loezina
    - Tristezia
    - Beldurrak, paralizazioak, isolamenduak ... eragindako jokaera anomaloak.
    - Dolu-prozesuak
    - ...
- Patologia psikiatriko diagnostikaturik gabeko pertsonak
- Telefonoz solasean aritzeko gauza diren pertsonak

**Programaren egitura:**

Programaren erabiltzaileak Adinekoen Sareko berariazko baliabideren batek edo erakunde espezializaturen batek bidali behar ditu programara, betiere erabiltzaileak berak baimendurik.

Esku-hartzearen bidez dei batzuk eginen dira, 5 inguru, pertsona bakoitzaren arazoetan banaka sakontzeko eta lantzeko.

Honatx 2024ko erabiltzaile kopurua:

| | |
|---|---|
| Emakume erabiltzaileak | 12 |
| Gizon erabiltzaileak | 6 |
| Guztira | **18** |

Hona hemen ezaugarririk artatuenak

- Isolamendua eta bakardadea
- Gizarte-sare txikia
- Seme-alabekiko gatazkek eragindako ondoez emozionala
- Tristezia
- Osasun-arazo fisikoen eragindako ondoez emozionala.

### LAGUNTZA EMOZIONALEKO LANTEGIAK

Askotariko lantegiak dira hainbat gai lantzeko, hala nola ongizate emozionala, estresaren kudeaketa, bizi-ohitura osasungarriak, antsietatearen prebentzioa, loezina, depresioa...

Talde moldean gehiago eta herritarrentzat oro irekiago lan egiteko asmoz, egoera ezberdinei erantzuteko lau gai zehatz lantzeko lantegiak proposatu dira:

→ **NORBERAREN ONGIZATEA LANTZEA**

- Hobetzen ahal dut neure buruaren zaintza? Nola zaindu neure burua?
- Nola egin aurre pentsamendu mugatzaileei?
- Nola eginarazi nire harreman sozialak osasungarri eta positibo?
- Nire esperientziatik, zer ekarpen egin diezaioket gizarteari? Nola egin dezaket?

→ **PERTSONMEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA HOBETZEA**

- Badakit nola komunikatzen naizen?
- Nire burua ulertarazten dut eta besteak ulertzen ditut?
- Zer transmititzen dut nire hitzik gabeko hizkuntzaren bidez?
- Nola hobetzen ahal dut nire komunikazioa?

→ **ESTRESA KUDEATZEA**

- ¿Nola eragiten diote gure pentsamenduek gure estresari? Zer egin haiei aurre egiteko?
- Nola kontrolatzen ahal dut estresa? Erlaxazio-teknikak
- Zer egiten dut gorputzez bai baina buruz erlaxatzen ez naizenean?
- Hobeki antola naiteke? Denboraren kudeaketa
- Nola lortzen ahal dut oreka mentala? Zer ohitura izan behar ditut bizimodu osasungarri bat eramateko?

→ **DEPRESIOA ULERTZEA**

- Zama neurrigabe sentitzen duzu? Zure ustez, nekez jasaten dituzu egoera batzuk?
- Nola aurrea hartu depresioari?
- Nire pentsamenduek kalte egiten ahal didate? Nola maneiatu ditzaket?
- Eragiten dio nire egungo egoerak nire ingurune sozialari? Nola kudeatu dezaket?

Izen-ematea Itxaropenaren telefonoaren bidez egin da, dei-hurrenkeraren arabera, Iruñean erroldatutakoek lehentasuna zutela. Doakoak izan dira eta udal-aretoetan egin dira. 2024an, honako lantegi hauek egin dira:

**Norberaren ongizateal:**
- Otsaila. Ermitagaña. 2024ko otsailaren 6a, 13a, 20a eta 27a
- Apirila. Alde Zaharra. 2024ko apirilaren 9a, 16a, 23a eta 30a
- Ekaina. Iturrama 2024ko Ekainaren 4a, 11, 18a eta 25a
- Urria. Iturrama 2024ko urriaren 4a, 11, 18a eta 25a

**Pertsonen arteko komunikazioa hobetzea**
- Urtarrila. Txantrea. 2024ko urtarrilaren 9a, 16a, 23a eta 30a
- Martxoa. Arrosadia. 2024ko martxoaren 5a, 12a, 19a eta 26a
- Apirila. Azpilagaña. 2024ko apirilaren 4a, 11, 18a eta 25a
- Urria. Sta. María la Real. 2024ko urriaren 7a, 14a, 21a eta 28a

**Zure buru osasuna zaintzen**
- Urtarrila. Arrotxapea. 2024ko urtarrilaren 11, 18a eta 25a, eta otsailaren 1a
- Martxoa. Sta. María la Real. 2024ko martxoaren 7a, 14a eta 21a
- Maiatza. Donibane. 2024ko maiatzaren 7a, 14a, 21a eta 28a
- Azaroa. Ermitagaña. 2024ko azaroaren 4a, 11, 18a eta 25a

**Literatura eta buru osasuna**
- Otsaila. Zabalgunea. 2024ko otsailaren 8a, 15a, 22a eta 29a
- Maiatza. Sanduzelai. 2024ko maiatzaren 9a, 16a, 23a eta 30a.
- Ekaina. Txantrea. 2024ko ekainaren 3a, 10a, 17a eta 24a
- Azaroa. Azpilagaña. 2024ko azaroaren 7a, 14a, 21a eta 28a

Ikastaroak 20 lagunekoak izan dira, batez beste. Ez da talde handiagorik eskaini nahi izan, xedea baita jendeak parte hartzeko lantegiak izatea, nork bere bizipenak azal ditzan; eta nekez lor daiteke halakorik talde handiagoetan.

Hedapena honakoen bidez egin da:

- Prentsa-oharra hedabideei eta Udalaren sare sozialak
- Informazioa e-mail bidez bidaltzea: Adinekoen elkarteak, Auzo Unitateak, Osasun Etxeak, liburu-dendak, egiten diren jarduerak ezagutzeko interesa agertu duten pertsonak, partaidetzako informazio-buletina, etab.
- Izena emateko epea hasi eta ia lehen orduetan bete dira lantegiak; beraz, ondorengo lantegietan ez zen paperean hedapenik egin. SMS mezua bidali zitzaien aurreko lantegietan itxaron zerrendan geldititutako pertsonei.

Parte-hartzaileen balorazioa oso ona izan da. Izan ere, pertsona batzuek lantegi batean baino gehiagotan eman dute izena. Talde dinamika oso interesgarriak sortu dira.

Behar handiagoa zutela atzeman zaien pertsona batzuk Laguntza Emozionaleko Programara bideratu ditugu.

Programak oso harrera eta atxikimendu ona izan du parte-hartzaileen artean:

| Parte-hartzaile kopurua 2024ko lantegietan | | Gizonak | Hombres |
|---|---|---|---|
| Otsaila. Ermitagaña. otsailak 6, 13, 20 eta 27 | 18 | 2 | 2 |
| Apirila. Alde Zaharra. apirilak 9, 16, 23 eta 30 | 10 | 1 | 1 |
| Ekaina. Iturrama Ekainak 4, 11, 18 eta 25 | 11 | 1 | 1 |
| Urria. Iturrama Urriak 4, 11, 18 eta 25 | 18 | 2 | 2 |
| Urtarrila. Txantrea. urtarrilak 9, 16, 23 eta 30 | 18 | 2 | 2 |
| Martxoa. Arrosadia. Martxoak 5, 12, 19 eta 26 | 12 | 0 | 0 |
| Apirila. Azpilagaña. apirilak 4, 11, 18 eta 25 | 8 | 0 | 0 |
| Urria. Sta. María la Real. Urriak 7, 14, 21 eta 28 | 12 | 2 | 2 |
| Urtarrila. Arrotxapea. Urtarrilak 11, 18 eta 25, eta otsailak 1 | 13 | 5 | 5 |
| Martxoa. Sta. María la Real. Otsailak 29, eta martxoak 7, 14 eta 21 | 18 | 2 | 2 |
| Maiatza. Donibane. maiatzak 7, 14, 21 eta 28 | 14 | 3 | 3 |
| Azaroa. Ermitagaña. 2024ko azaroaren 4a, 11, 18a eta 25a | 16 | 5 | 5 |
| Otsaila. Zabalgunea. otsailak 8, 15, 22 eta 29 | 20 | 0 | 0 |
| Maiatza. Sanduzelai. Maiatzak 9, 16, 23 eta 30 | 6 | 1 | 1 |
| Ekaina. Txantrea. Ekainak 3, 10, 17 eta 24 | 7 | 0 | 0 |
| Azaroa. Azpilagaña. 2024ko azaroaren 7a, 14a, 21a eta 28a | 10 | 1 | 1 |
| Guztira | 290 | **265 (91,38%)** | **25 (8.62%)** |

## IGO ETA JAITSI

Proiektua 2017an jarri zen abian, mugikortasun urria duten edo oztopo arkitektonikoek eraginik kalera atera ezinik dabiltzan pertsonak karrikara atera ahal izateko. Baina 2023an sinatu dute Iruñeko Udalak eta Nafarroako DYAk hitzarmena, zerbitzua astean hiru egunetan eskaintzeko, Udalak 20.000 euro emanez.

Zerbitzua Osasun Etxe eta Auzo Unitateetan hedatu da, prentsa-oharra ere eginda.

Zerbitzuaren erabiltzaileek ordua adosten dute, hau da, zer ordutan nahi duten laguntza kalera jaisteko eta, ordu zehatz bat ere finkatzen dute, etxera berriz ere igotzeko laguntza jasotze aldera. Zerbitzuaren bidez, pertsona ongi molda daiteke bere egunerokotasunean eta egin beharrekoak egin ditzake, etxean dituen oztopo arkitektonikoek (igogailurik gabeko etxeak, eskailerak) ohiko bizimodua egitea galarazi gabe.

Horrenbestez, pertsona horien bizi-kalitatea sendotzea dugu xede, naturaltasunez bizi daitezen beren ingurune sozialean, auzoan, auzokideekin batera. Ona da ere haien harremanak eta autoestimua hobetzeko. Beraz, etxetik ateratzeko laguntza behar edo nahi badute, izanen dute nork lagundua, horretarako beharrezkoak diren bitartekoak erabiliz.

**Presidenta: Concejala:** Zaloa Basabe. Concejala delegada del Área de Igualdad, Acción Comunitaria, Participación

Honatx 2024ko datuak:

| Emakumeak | Gizonak | Guztira |
|---|---|---|
| 261 | 40 | 301 |

## SUIZIDIOA PREBENITZEKO LAN TALDEA

2023ko azaroan hitzarmena sinatu zen Besarkada eta Itxaropenaren telefonoa elkarteekin, udal mailan suizidioaren prebentzioaren inguruko lan talde bat eratzen hasteko.

Lan taldeko kideak hainbat alorretako langileak izan dira (ekintza komunitarioa, adinekoak, haurrak, udaltzainak, etab.).

Gaia lantzen hasi zenez geroztik, ontzat jo zen diagnostiko bat egitea suizidioa Iruñean zertan den jakiteko, jarduketa guztiak ahalik eta hobekien egokitze aldera. Gonbidapen bidezko lizitazio-prozesua eginik, Besarkada erakundea arduratuko da.

Diagnostikoa bi zatitan eginen da: alde kuantitatiboa 2024rako, eta kualitatiboa, berriz, 2025erako.

Beharrezkotzat jo zen, gainera, Iruñeko Udala Suizidioari Aurrea hartzeko Erakundeen arteko Batzordean sartzea. Bileretan, udaltzaingoaren ordezkari bat eta Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako, Herritarren partaidetzako eta Euskarako alorreko teknikari bat aritu ziren. Lehen bilera ekainean izan zen, eta hiruhilekoan behin egiten dira.

## ADINEKOEN UDAL KONTSEILUA

Apirilaren 18a Adinekoen Udal Kontseiluko kide berriak bildu ziren, osaera bat baitator Kontseiluaren erregelamendu berrian ezarritakoarekin:

### Herritara eta Euskara

| Buruordea |
|---|
| Isabel Diez Diaz |
| **Idazkaria.** |
| Técnica de Dinamización para la participación |
| **Elkarteetako kideak** |
| Orvina 1200 |
| Padre Ciriano |
| Asociación Jubilados el Salvador |
| Sancho el mayor |
| Asociación Amigos de los Castillos de Navarra |
| Lacarra |
| Pico de Orhi |
| **Ciudadanía activa** |
| 1. Maria Isabel Diez Diaz |
| 2. Bernardo Doñoro |
| 3. Jose Maria Roig Aldasoro |
| 4. Jaime Javier Malon Ferrer |
| **Alorreko zuzendaria** |
| Elian Peña |

| Zinegotzi bat udal-talde bakoitzeko |
|---|
| PSN |
| UPN |
| PP |
| EH BILDU |
| GEROA BAI |
| CONTIGO ZUREKIN |
| **Adinekoen Udal Kontseiluaren berezko sektoreari lotutako erakundeen bi kide** |
| NG |
| Geriatria elkartea |
| **Udal-teknikariak** |
| Adinekoendako teknikari komunitarioa |
| **Langile-batzordearen azken hauteskundeetan boto gehien lortu dituzten erakunde sindikal bakoitzaren ordezkari bat.** |
| CCOO |
| UGT |

Kontseilua honela egon zen osatua:

| | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|
| Pertsona kopurua Adinekoen Udal Kontseiluan | 15 | 10 |

## ADINEKOEN SAREAK

Adinekoen sareak duela bi urte sortu ziren, adinekoak beren ingurune hurbilean eta era komunitarioan artatzeko. Adinekoen sareak, horrenbestez, Iruñeko Udalak auzoko erakunde, elkarte eta taldeekin ezarri duen lankidetza da, adinekoen beharrak elkarrekin antzemateko eta asetzeko.

Iruñean, gaur egun, adinekoendako 7 sare daude: Iturrama, Sta. María la Real, Txantrea, Arrosadia, Zabalgunea, Alde Zaharra eta Azpilagaña. Azken hori apirilean hasi zen. Ermitagañan, hainbat bilera egin dira, baina erabaki gabe zer forma eman nahi dioten.

Auzo bakoitzak bere osaera du, baina oro har, adinekoen sareak honela daude osatuta:

- Iruñeko Udala (adinekoendako teknikari komunitarioa, sarearen dinamizatzailea, polizia komunitarioa, kirol errezeta soziala, iruinlariak, auzo unitatea)
- Adinekoen erakundeak
- Auzo elkarteak
- Farmaziak
- Osasun etxeak
- Merkatari elkarteak
- Solera Asistencial

Sare bilerak hilean behin egin ohi dira eta hizpide da zer jarduera antolatu hilez hil edo zer-nolako jarduera osagarri antolatu, hala nola egoera kalteberak atzemateko kanpaina...

Hilero, ahal duten neurrian, erakundeek beren jarduera batzuk Adinekoen Sareetara ekartzen eta programatzen dituzte, jendeak bere auzoan zer-nolako jarduerak egiten diren jakin dezan. Honatx jarduerarik errepikatuenetako batzuk: Ibilaldi osasungarriak.

Honatx aurtengo jarduera garrantzitsuenetako batzuk:

- Jarduerak Civivoxekin elkarlanean: Jarduera bat egin zen Arrosadiko historiari buruz, eta jardunaldiak ere Gizarte Foroak belaunaldien artean antolatutako jarduerei buruz.
- Belaunaldien arteko jarduerak
- Iturrama, Arrosadia eta Zabalgunea auzoetako mapaketa egitea
- Arratsalde-pasa auzoetako jaien baitan: Txantrea eta Alde Zaharra
- Ikasturte amaieraren ospakizuna Iturraman 75 pertsona bertaratu ziren: 51 emakume eta 24 gizon
- Goiz-pasa Alde Zaharra-70 pertsona: 45 emakume eta 25 gizon
- Iturrama: 18 emakume, gehien-gehienak 70-85 urtekoak. Elkarlana TS irakasgaiarekin taldeka
- Harrera adinekoen nazioarteko egunean
- Partaidetza adinekoen egoera Iruñean diagnostikoaren eguneratzean
- Arratsalde-pasa Txantrean, 60 lagun inguru: 48 emakume eta 12 gizon.
- Zatoz zure istorioa kontatzera-Arrosadia 21 emakume eta 5 gizon
- Koordinazioa Nafarroako Gobernuko Inklusio Digitalerako Planarekin: mugikorraren oinarrizko erabilerari buruzko ikastaro bat antolatu zen Azpilagañan

### 5.1. DONIBANEKO ADINEKOEN ITUNA

Aurreko urteetan bezala, aurten ere Donibaneko Adinekoaren Itunean parte hartu dugu nabarmen. Ituna hilero biltzen da.

5 urteko ibilbidearen ondotik, finkatu egin da eta auzoko adinekoen beharrei erantzun die.

### BETI NORBAITEKIN: BAKARDADE PROGRAMA

Beti norbaitekin la Caixa Fundazioaren eta Nafarroako Kutxa Fundazioaren estatu mailako programa da bakardadean daudenei edo bakardadea sentitzen dutenei laguntzeko. Erakunde kudeatzailea Pauma da.

2020ko irailetik hona, Iruñeko Donibane, Iturrama eta Txantrea auzoetan egiten du lana.

2024an, 178 lagun artatu dituzte: 150 emakume eta 28 gizon.

### ETXABAKOITZ

Aurten, hitzarmen berria sinatu da Etxabakoizko Adinekoen Toki Elkartearekin, erakunde horrekin jarduerak lankidetzan antolatzeko, bereziki Etxabakoizko adinekoei zuzendua. Jarduerak auzoko liburutegiko behe solairuan dagoen aretoan egiten dira.

### NAFARROAKO GOBERNUAREN DIRULAGUNTZA

Dirulaguntza eskatu da Nafarroako Gobernuak toki entitateendako ateratzen duen deialdian, jubiloteka-programak garatzeko eta adinekoen sareak sustatzeko, 65 urtetik gorakoen eskubideen babesa eta erabilera bermatze aldera, eta era berean, izan litezkeen egoera zaurgarriak eta babesgabeak eta/edo nahi ez den bakardade kasuak atzemate aldera.

Guztira, 8000 € eman dira.

### IRUÑEKO UDALAREN PARTAIDETZA DIRULAGUNTZA

Herritarren Partaidetzako Deialdia. Dirulaguntzak, norgehiagokako araubidean. D epigrafea: Herritarren partaidetza eta adinekoen ahalduntze soziala sustatzen dituzten jarduketak.

NAOn argitaratu aurretik, zabalkundea egin zen prentsa-oharraren bidez eta aurrez aurreko nahiz online solasaldi bat. Honatx bertaratuak:

- Aurrez aurreko bilera: 43 pertsona (32 emakume eta 11 gizon)
- Online bilera: 28 pertsona (18 emakume eta 10 gizon)

Dirulaguntzak baloratzeko batzordean parte hartu dugu. Guztira, 28 proiektu aurkeztu, eta 90.000 euro banatu ziren.

| Kop. | Elkartea | Kopurua |
|---|---|---|
| D1 | NAFARROAKO PARKINSON ELKARTEA | 522,23 € |
| D2 | GURE LAN BERRI | 1.469,01 € |
| D3 | CLUB CORONARIO PAMPLONA | 6.438,72 € |
| D4 | ASAMINA-AMIGOS DE LOS CASTILLOS CULTURA Y ARTE ELKARTEA- | 1.064,18 € |
| D5 | CAMINANTES EL ROBLE-LE CHAINE ELKARTEA | 983,99 € |
| D6 | PICO DE ORHY PROBINTZIA ELKARTEA | 8.785,82 € |
| D7 | ASOCIACION CULTURAL CIRIANO ELKARTEA | 9.307,29 € |
| D8 | ORVINA 1200 ERRETIRATUEN ETA PENTSIODUNEN KLUBA | 683,67 € |
| D9 | GURE SAKALDI ELKARTEA | 965,13 € |
| D10 | AUZOTEGI ERRETIRATU-PENTSIODUNEN ELKARTEA | 3.758,51 € |
| D11 | SANCHO EL MAYOR ADINEKOEN ELKARTEA | 754,39 € |
| D12 | YOAR ERRETIRATU-PENTSIODUNEN ELKARTEA | 10.842,01 € |
| D13 | IRUBIDE ERRETIRATUEN KLUBA ELKARTEA | 5.247,73 € |
| D14 | ARTELAN ARTISAUTZA LANTEGIA ELKARTEA | 1.434,98 € |
| D15 | GRUPO DE MANUALIDADES TREBOL ELKARTEA | 1.004,49 € |
| D16 | AITONAK MENDIGOIZALE KLUBA ELKARTEA | 3.383,44 € |
| D17 | PROFESIONALES SOLIDARIOS FUNDAZIOA | 1.508,78 € |
| D18 | 'EL SALVADOR' ERRETIRATUEN ELKARTEA | 9.071,55 € |
| D19 | ARROTXAPEA KIROL ETA KULTUR ELKARTEA | 1.244,75 € |
| D20 | EL BALUARTE ELKARTEA | 3.443,78 € |
| D21 | DONIBANEKO ADINEKOEN ALDEKO ITUNA | 3.160,00 € |
| D22 | SAN FRANCISCO ERRETIRATU ETA PENTSIODUNEN ELKARTEA | 1.073,88 € |
| D23 | SAN PEDRO ERRETIRATUEN ELKARTEA | 747,83 € |
| D24 | LARRABIDE-GOROABE ERRETIRATUEN ELKARTEA | 1.156,19 € |
| D25 | SANDUZELAIKO ERRETIRATU ETA PENTSIODUNEN ELKARTEA - ERYMEN | 2.213,97 € |
| D26 | ERMITAGAÑAKO ETA MENDEBALDEKO ERRETIRATU ETA PENTSIODUNEN ELKARTEA - ERYMEN | 5.812,82 € |
| D27 | NAVARRA POR SEVILLANAS ELKARTEA | 2.883,08 € |
| D28 | ETXEKIDE ELKARTEA | 1.037,78 € |
| | **Guztira** | **90.000 €** |

## HEDAPENAK

Harremanetan jarraitu dugu adinekoen erakundeekin. Horietako anitzek erreferentetzat gaituzte egin beharreko edozein gaitarako, zer jarduera antolatzen ditugun jakiteko, etab.

Haien interesekoa izan daitekeen informazioa helarazten zaie, eta zalantzak argitu eta beharrei erantzuten zaie. Informazio interesgarria duten mezu elektronikoak bidaltzen zaizkie (ikastaroak, jarduerak, dirulaguntzak...), deitu egiten zaie pertsona bati eragiten dion zerbait zehatzagoa denean, hainbat zalantza argitzen zaizkie edo beste alorrekin harremanetan jartzen ditugu.

Informazio hori pertsonei banaka ere helarazten zaie.

Gaur egun, datu-baseak 328 e-mail ditu.

### 10.1. . WEB-ESPAZIOA ETA HEDAPENA

Frogatua dagoen bezala, adinekoengana hobekien iristen den kanaletako bat irratia eta prentsa idatzia dira. Horregatik, Komunikazioarekin koordinatu gara, komunikazioa hedabide horien bitartez areagotzeko.

Webgunea elikatzen jarraitzen dugu: **www.pamplona.es/mayores**

Gainera, hainbat kanal erabiltzen ari gara: posta elektronikoa, SMSak, prentsa idatzia, irratia, webgunea, flyerren banaketa eta kartelak toki interesgarrietan, hala nola liburutegietan, civivoxetan, auzo-unitateetan, osasun etxeetan...

## UNEAN UNEKO JARDUERAK

### EDADISMO JARDUNALDIAK

Maiatzaren 16an, edadismoari buruzko jardunaldi bat egin zen, Nuria Garrok (Siempre acompañados programa), Ainhoa Guelbenzuk eta Donibaneko Adinekoen aldeko itunak parte harturik. Jardunaldietan, guztira, 50 lagun bertaratu ziren: 43 emakume eta 7 gizon.

### ENTZUMEN-ARAZOEI BURUZKO HEZKUNTZA-KANPAINA

Kanpaina Espainiako Udalerri eta Probintzien Federazioaren proposamena izan zen, Audikarekin batera, hezkuntza arloko prestakuntza-ekimen bat egiteko, Zaindu zure entzumen-osasuna izenekoa. Osasunaren esparruan garatzen da eta bereziki dago zuzendua 55 urtetik gorakoendako. Entzumen-osasunaren garrantziari buruzko informazio emateaz gain, xedea da hartaz kontzientziatu eta sentsibilizatzea, gizarte-arazoei (isolamendua, komunikaziorik eza...), fisikoei (nekea, estresa, zoraboak...), psikologikoak (depresioa, suminkortasuna, mesfidantza...) eta kognitiboei (dementzia, alzehimerra...) aurrera hartze aldera.

Azaroaren 11n egin zen Gurutzeko plazan, eta 150 lagun inguru bertaratu ziren.

### HITZALDIA UHARTEN.

Hitzaldia Uharten Adinekoen Sareei buruz hainbat hiritan: Gipuzkoako Matia Fundazioa, Bartzelonako Radars, Donibaneko Adinekoen aldeko Ituna eta Iruñeko Adinekoen Sareak.

Adinekoen Sareetan diren esperientziak kontatzea izan zuen saioak helburu, Udal hartan Adinekoen Sare bat egin nahi delako.

Goizeko jardunaldian Udaleko profesionalak aritu ziren eta, arratsaldekora, 40 lagun joan ziren, hots, 10 gizon eta 30 emakume.

### URRIAK 1, ADINEKOEN NAZIOARTEKO EGUNA

Hitzaldi bat antolatu zen Adinekoen Nazioarteko Egunaren karira, Tercer Tiempo Konfederazioarekin, Mayores frente a la Crisis erakundearekin eta Alde Zaharreko Adinekoak taldearekin batera Kondestablen, Patxi Vera Donázar arartekoak emanik.

62 lagun inguru bertaratu ziren: 25 emakume eta 35 gizon.

Horrez gain, bi ekitaldi egin ziren aldi berean Iturramako eta Zabalguneko Sareetan, kontzertua eman baitzen Convive Leire zentroan, eta belaunaldi arteko giza-liburutegi bat eta ekitaldi publiko bat, Iturraman.

### ADINEKOEN EGOERA IRUÑEAN DIAGNOSTIKOAREN EGUNERATZEA

Iruñeko Adinekoen I. Plana egin baino lehen, 2020an gai berari buruz egindako diagnostikoko datuak eguneratu nahi izan ziren.

Gonbidapenaren bidez lizitazio-prozesuaren ondotik, Arteé Activa-k eta Alorrak adinekoen diagnostiko orokorra eta auzoetako diagnostikoak eguneratu ziren. Zehazki, berrikuspen bibliografikoa, eta analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa egin ziren, 90 pertsona inguruk parte harturik.

## 8.2.6 Kultur aniztasuna

Iruñeko Udalaren erroldako datuen arabera, 2024ko a1ean, hiriko biztanleriaren % 23,68 atzerrian jaio da, Iruñeko 211.554 biztanleetatik 50.099 biztanle, hain zuzen ere. Kultur eta jatorri arloko dibertsitate horrek bultzaturik, lan egiten da Iruñeak bidea egin dezan kulturen baterako existentziatik kulturen arteko bizikidetzara pasatzeko eta, horretarako, kulturen arteko ikuspegia sustatzen da zeharkako elementu gisa eta kultur aberastasuna balio positibo gisa ikusarazten da, herritarren arteko harremanak sendotuz, haien jatorria edozein delarik ere, eta Iruñean bizi diren pertsona guztien garapen pertsonala, soziala eta herritarra ahalbidetuz.

Hori dela eta, Iruñeko Udaleko Kultur Aniztasunari eta Herritartasun Inklusiboari buruzko Planak datozen urteotarako ildo estrategikoak, ekintzak eta jarduerak ezarri ditu aipatu helburuak lortzeko.

**Iruñeko Udaleko Kultur Aniztasunari eta Herritartasun Inklusiboari buruzko I. Plana (2023-2026). Onespena.**

2021. urtearen bigarren erdian, partaidetzan oinarritutako diagnostiko-prozesua burutu eta gero, Kultur Aniztasunerako Plan bat ondu zen, Iruñeak egun dituen erronka berriei erantzuteko: aniztasuna hiriari berez datxekion ezaugarria baita, eta aniztasun hori oinarri hartzea, garapenerako, gizartearen kohesiorako, ekitaterako eta bizikidetzarako. Iruñeko herritarrei dago zuzendua, oro har. 4 ardatz estrategiko bildu ditu eta 150 ekintza baino gehiago. Ekintzak urtero zehazten dira Plan Operatiboen bidez.

2024ko Plan Operatiboak ezartzea, inplikatutako Alorrek egin beharreko ekintzak biltzeko.

**Kulturen arteko Bizikidetzarako eta Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako figura teknikoa ezartzea (Iruñeko Tecir teknikaria)**

Komunitatean esku hartzeko figura da, Nafarroako Gobernuak prestatu duen Nafarroako Kulturen arteko Bizikidetzaren 2021-2026 aldiko Estrategiaren inguruan garatutako plangintzarekin bat..

**Atxikimendua Europako Kontseiluko Kulturen arteko Hirien Espainiako sareari**

Iruñeko Udaleko Kultur Aniztasunari eta Herritartasun Inklusiboari buruzko Planean aurreikusitako ekintza baita, Udala RECI sareari atxiki zaio, Europako Kontseiluak bultzatua, Cities kultura arteko Europako programaren baitan. Espainiako lurraldeko 20 hiri eta udalerri baino gehiago dira kide, kultur aniztasuna kudeatzeko politiken diseinuan esperientziak eta irizpideak trukatzeko.

**Kultur Aniztasunaren Foroa**

Kultur Aniztasunaren Foroa herritarrek parte hartzeko organo gisa indartzea: kultur aniztasunaren ordezkaritza Udalaren partaidetza-esparruetan eta -organoetan indartzea; kasu honetan, kultur aniztasunaren foroen bitartez. Foroaren koordinazioa, antolaketa, programazioa, kudeaketa eta hartan parte hartzea sustatzea. Aniztasunaren foroa Udalaren eta kultur aniztasuneko elkarteen arteko zuzeneko elkarrizketarako gunea da.

2024an, 3 foro egin ziren: martxoaren 6an, ekainaren 19an eta urriaren 28an.

**Elkarteak, kolektiboak eta, oro har, herritarrak kultur aniztasunaren eta kulturarteko gaitasunen arloan lagundu, prestatu eta sentsibilizatzea**

Adibidez, Herritarren Partaidetzako Alorrak (SIRP, SDPC, Boluntariotza Bulegoa) eta beste udal alor batzuek, hala nola Gazteriak (Gaztediaren Etxea) edo Berdintasuneko Alorrak (Harrotu eta Emakumeen Etxea), eskaintzen dituzten baliabideekin koordinaturik egiten den lana; kultur aniztasunaren arloan berariaz prestatzeko ikastaroen programazioa; eta kultur aniztasuneko elkarteekin eta elkarteentzat eta herritarrentzat oro har egiten diren ekintzen koordinazioa.

- Partaidetzarako informazio eta baliabide zerbitzua: informazioa ematen zaie elkarteei eta herritartasun aktiboari partaidetza arloan, deialdi, areto lagapen, eta beste gai batzuetan. Liburutegi espezializatua dago barne, bai eta lege aholkularitzarako zerbitzu bat ere.
- Herritarren Partaidetza Dinamizatzeko Zerbitzua: proposamenak bildu eta bideratzea, dirulaguntzei buruzko argibidea eta aholkularitza, laguntza pertsonalizatua

**Alorren arteko koordinazioa, udal langileak kultur gaitasunetan prestatzea, bai eta gorroto-diskurtsoen prebentzioan eta arrazakeriaren nahiz xenofobiaren aurkako borrokan ere, Iruñeko herritarrendako arreta hobetzeko, oinarri harturik kulturarteko ikuspegia.**

Urteko prestakuntza-eskaintza programatu eta haren egutegia finkatzea udal langileentzat, udal alorren errealitate eta beharretara egokitua hainbat arlotan, hala nola harreran, zerbitzuan, garatzen diren ekintzen kulturarteko ikuspegian, aurreiritzietan, kultur aniztasunaren kudeaketa positiboan eta gorroto-diskurtsoen eta bazterkeriaren aurkako borrokan.. Koordinazioa hobetzea eta alorren arteko lana indartzea, kultur aniztasunaren esparruan lanaren zeharkakotasuna bermatzeko.

**Kultur aniztasunean diharduten elkarte eta taldeen parte-hartzea indartzea Herritarren partaidetzako dirulaguntza garatzea**

Kultur aniztasunaren berariazko epigrafea, kultur aniztasuneko elkarteen parte-hartzea sustatzeko eta Iruñeko kultur aniztasunaren aberastasuna ikusarazteko. Deialdia egiteko, zabaltzeko, justifikatzeko... eginkizunak.

2024an, 50.000 euro erabili dira aurkeztutako 16 proiektutarako.

**Hirian dagoen kultur aniztasuna modu positiboan eta festa giroan ikusaraztea**,

Cgizarte-ehunarekin batera hainbat ekitaldi antolatuz eta askotariko kultur eta festa giroko agenda programatuz.

Migratzaileei eta kultur aniztasunari dagozkien nazioarteko egunak ospatzea: Martxoak 21 (arraza-diskriminazioa ezabatzeko nazioarteko eguna), maiatzak 21 (kultur aniztasunaren mundu eguna), eta abenduak 18 (migratzailearen eguna).

**Kulturen kalejira**

Berariazko ekitaldi bat da kultur aniztasunaren inguruan sanferminetako programazioaren barnean, uztailaren 14an egiten dena, hirian dauden kultura guztien balioa nabarmentzeko eta ikusarazteko. Ekitaldia garatuko bada, lan handia egin behar da aurrez, elkarte-ehunarekin -kultur aniztasunaren ehunarekin, bereziki- koordinaturik eta elkarteek ere parte hartuta.

2024an, kultur aniztasunaren esparruko 43 taldek parte hartu zuten..

**Kultur Aniztasunaren Astearen ospakizuna**

Iruñeko Kultur Aniztasunaren I. Astearen ospakizuna, askotariko programazioaren bidez, jai eta gozamen giroko eta ezagutza nahiz gogoeta motako ekitaldiak buruturik, gizartea sentsibilizatzeko, bai kultur aniztasunak duen garrantziaz, bai aberastasun kolektiboari egiten dion ekarpenaz.

**Informazio-materiala prestatzea pertsonen eta administrazioaren arteko harremana hobetzeko**

Gida bat prestatzea, elkartea eratzeko eman behar diren pausoak azaltzeko eta elkartea sortzeko administrazio-izapideak errazte aldera eskura dituzten baliabideak jakiteko, hainbat hizkuntzatara itzulita, Iruñeko hizkuntza-aniztasunerako irisgarria izan dadin.

# 8.3 Herritaren partaidetza

## 8.3.1 Partaidetzaren sustapena politika publikoetan

### AUZO-EZTABAIDAGUNEAK

Iruñeko Udala, Herritarren Partaidetza sustatzeko apustuarekin bat, Auzo Eztabaidaguneak garatzen jarraitzen du, herritarrek parte hartzeko guneak baitira.

Auzo Eztabaidaguneak Udalaren eta auzo bakoitzeko komunitatearen arteko topagunea dira, eta Auzoko Zinegotzia da buru. Irekiak daude interesa duten pertsona, talde edo erakunde guztientzat, bai eta auzoan ardurak dituzten teknikarientzat ere, hala udalekoentzat nola udalez gaindikoentzat. 2024an, 14 Eztabaidagune egin dira, Udalak mugatutako auzo-barrutiei dagozkienak.

Honatx Auzo Eztabaidagunearen egitura orokorra:

- Udalak argibideak eta kontuak ematea.
- Auzoko proiektu komunitarioen gaineko informazioa.
- Udalak ekarpenak entzun eta jasotzen ditu.

Txanda horretan, saioa zuzenean ematen den youtube kanaleko txataren jarraipena egin zen: Parte hartu Iruña youtubeko kanala da eta bertako galderarik nabarmenenak eztabaidagunera eraman ziren. Ondoren, saioaren bideoa youtubeko kanal horretan gelditu zen eskuragai.

Nahi duenak, galdera bidali dezake aurreko astean **foros@pamplona.es** helbidera edo decide.pamplona.es partaidetza-atariaren bidez eta Eztabaidagunean erantzuten da.

Ordu eta erdiko iraupena izaten du, eta gehienez 2 ordu.

Eztabaidaguneak entzuteko zailtasunak dituzten pertsonendako daude egokituak, entzumen-irisgarritasuna ahalbidetzeko: zeinu-hizkuntzako interpreteak, azpitituluak eta begizta-maileguak.

Eztabaidaguneak irauten duen bitartean kontziliazio zerbitzua dago: haurrendako ludoteka, hain zuzen. Zerbitzua profesionaltasun eta hezkidetza irizpideekin egiten da.

Auzo Eztabaidaguneen txanda honetan, 675 pertsonak parte hartu dute, sexuei begira aski orekaturik, % 47,5 emakumeak izan baitira, eta % 52,5, gizonak.

Eztabaidaguneetan, bestalde, 170 galdera eta iradokizun egin dira. Gizonek % 58 egin dizute, eta emakumeek, % 42.
Decide.Pamplona atariaren bidez, 82 ekarpen jaso dira; gizonek % 55 egin dituzte, eta emakumeek, % 45.
Bestalde, foros@pamplona.es helbidearen bitartez, 80 ekarpen jaso dira, erdiak emakumeek eta beste erdiak gizonek eginak.

Parte hartu Iruña youtubeko kanalaren txataren bidez, zuzeneko emankizunean, 8 parte-hartzen izan dira.
Kontziliaziorako ludoteka-zerbitzua 6 haurrek erabili dute; kasuen % 83tan emakume bat izan da haien arduraduna.
Eztabaidagune guztiak eman dira, entzumen-irisgarritasunerako egokituak, zeinu-interpretearekin eta azpidatziekin; dena den, ez da eskatu hobeki entzuteko begizta-zerbitzua.

64 lagunek eman dute izena Herritar Aktiboen Erroldan informazioa jasotzeko eta beren interesekoak direnez aukeratu dituzten gaietara deituak, lurralde edo sektorekako gaien arabera.

Mintzagai izandako kontuen artean, 32 proiektu komunitario eta 35 udal-proiektu azaldu dira eta, jasotako ekarpenei emandako erantzunekin batera, argi gelditu da gune horiek duten interes handia komunikazio-bideak ezartzeko udalaren, hiriko herritar antolatuen eta ez-antolatuen, eta udal-teknikarien artean, Iruñeko auzoak hobetze aldera.
Alkateak publikoaren artean parte hartu du eztabaidaguneen % 65tan, alkatetzaren agendako aukera eman dion bakoitzean.

### AUZO-KONTSEILUAK

Auzo Kontseiluak lurraldeko partaidetza-organoak dira, eta hiriaren zati jakin eta zedarritu batean jarduten dute, hala nola auzo batean edo gehiagotan, eremu batean edo barruti batean. Eremu horietako bakoitzak Auzoko zinegotzi ordezkari bat du, Alkateak izendatua.

Auzo Kontseiluen eskumenak informazioa bildu eta ematea, Udalaren galderei erantzutea eta proposamenak egitea dira nagusiki, eta beraz, Kontseiluak egoki jotzen dituen azterketa, proposamen eta iradokizunak egin ahal izanen ditu jarrera bateratuak bilatzeko, bai Kontseiluaren beraren ekimenez, bai beste udal organo batzuek eskatuta.

Auzo Kontseiluaren eginkizuna helburuak lortzeko beharrezkoak diren lanak koordinatu, antolatu eta bultzatzea da, eta Auzo Foroak bere esku utzi ditzakeen eskumenez gain, honako hauek ere izanen ditu:

**a)** Informazioa bildu eta ematea. Auzoari zuzenean eragiten dion orori buruzko informazioa biltzea, gero informazio hori herritarren kolektiboei eta bizilagunei emateko.

**b)** Udalaren galderei erantzutea. Udalak auzoko herritarren eta erakundeen iritzia galdetuko dio auzoari eragiten dioten erabaki garrantzitsuak hartzeko orduan nagusiki, hala nola hirigintza planak egitean eta zuzkidura esanguratsuen inguruko erabakiak hartzeko orduan.

**c)** Herritarren partaidetzarekin Udaleko dagokion organo eskudunak aurrez erabaki eta onetsitako gaiak kudeatzea, betiere beren inguruneari erreferentzia esklusiboa egiten badiote, hala nola lurraldeko udal ekipamenduen funtzionamenduan laguntzea eta inplikatzea, eta gune soziokultural eta komunitarioen jarduerak programatzen parte hartzea.

Organo horiek sortzeko, bai eta organoak arautzeko araudirako ere, partaidetza-prozesua egin zen, Kontsulta Publikoa eginez hasita eta, gero, Entzutegi Publikoaren barnean, prozesu bat egin zen Sanduzelai auzoan, lehen auzoa izan baitzen bere Auzo Kontseiluaren sorrera eskatzen eta horretan lan egiten.

## SANDUZELAIKO AUZO-KONTSEILUA

Auzo-eztabaidaguneak deitzeko moduarekin bat, auzotarrei dei orokorra egin ondoren, hasierako saioa egin zen. Sanduzelaiko Civivoxean egindako saio horretan, Auzo-kontseilua eta hura sortzeko saio parte-hartzaileak aurkeztu zitzaizkien auzotarrei. Aurkezpen-saioa martxoaren 21ean egin zen.

Hortik aurrera, lantalde bat eratu zen auzoko eragileen mapaketa egiteko, auzoan horrelako organo batek izan zezakeen potentziala eta aniztasuna aztertzeko eta erregelamendu-proposamen bat elkarrekin sortzeko. Lan-saioak apirilaren 11n eta 18an eta maiatzaren 2an, 9an, 16an eta 23an egin ziren, 18:30etik 20:15era, Sanduzelaiko Civivoxean.

Bestalde, genero-eraginari buruzko txostena egin eta bi bilera egin dira Berdintasuneko Alorrarekin, gaiaren gainean. Eta lehen aldiz udal-arau batean, irisgarritasun-eraginari buruzko txostena egin zen.

Partaidetza politikoa Herritarren Aferen Batzordearen bidez egituratu zen eta talde politikoek beren proposamenak idatzita aurkeztu zituzten.

Herritarren, teknikarien eta politikarien partaidetzaren ondotik, itzulketa egin zitzaien prozesuan arituak ziren pertsonei eta behar ziren administrazio-izapideak eta txostenak egin ziren, 2024ko azaroaren 7ko osoko bilkuran hasiera batez onesteko. Jendaurrean 30 egun baliodunetan jarri eta gero, eta informazio-saioren bat eginik interesa agertu zuten auzo batzuetan, urtarrilaren 17an epea amaitu zen alegaziorik jaso gabe; horrenbestez, behin betiko oniritzia eman zitzaion otsailaren 6ko osoko bilkuran eta 2025eko martxoaren 7ko NAOn argitaratu zen.

## INFORMAZIOA ARROTXAPEKO KONTSEILURAKO PROZESUA HASTEKO

Auzoko bertako eragile erreferentzialek dagokion zinegotziari eskabidea egin izanaren ondorioz, informazio-saio bat egin zen Auzo Kontseiluaren helburuak eta eginkizunak azaltzeko. Beraz, partaidetza-prozesu bat garatzea erabaki zen Arrotxapeko Auzo Kontseilua 2025ean eratzeko, behin ideia dagokion Auzo Eztabaidagunean berresten denean, 2025eko urtarrilean egitekoa baita.

## KONTSEILUAK ETA SEKTORE-FOROAK

2024an, sektorez sektoreko kontseilu eta foro hauek jardun zuten:

- Emakumeen Kontseilua
- Adinekoen Udal Kontseilua
- Gazteriaren Mahaia (Gazteriaren Udal Mahaia)
- Kultur Aniztasunaren Foroa
- Sanferminetako mahaia (Foroa eta Lan Taldeak)
- Merkataritza Mahaia

## ERREGELAMENDU BERRIAK

2024An, partaidetza-organo berriak sortzeko prozesuak abiarazi ditugu:

- LGTBI+
- Irisgarritasun Integrala
- Haur eta Nerabeen Mahaia berritzea

## PARTAIDETZA PROZESUAK

2024an zehar, partaidetzako alorrak honako alor eta gaiei lotutako partaidetza prozesuetan parte hartu zuen hein handiagoan edo txikiagoan::

- • **Gobernu Estrategikoa, Hirigintza, Etxebizitza eta 2030 Agenda**
    - Sanduzelai auzoa eraldatzeko partaidetza-prozesua (biribilgunea)
    - Santa Ana plaza
    - RUNA

- **Proiektuak, Mugikortasuna, Hiri Kontserbazioa eta Osasuna**
  - Energia-komunitateak:
    Ermitagaña-Mendebaldea: "Ermen"
    Arrosadia-Santa María la Real-Azpilagaña-Lezkairu: "Ilargienea"
    Donibane-Iturrama
    Txantrea
    Alde Zaharra
  - Hiri Baratzeak - Komunitarioak
    Santa Mª la Real.

- **Sustapen Ekonomikoa, Europar Proiekzioa, Berrikuntza, Gazteria eta Garapenerako Lankidetza**
  - PSTD SF365

- **Berdintasuna, Ekintza Komunitarioa, Auzoak, Herritarren Partaidetza eta Euskara**
  - Adinekoen Sareak
  - Haurren Sareak

- **Kultura, Jaiak, Hezkuntza eta Kirola**
- **Gizarte Ekintza**

## SANDUZELAI AUZOA ERALDATZEKO PROZESUA

Herritarren partaidetza-prozesua Sanduzelai auzoa eraldatzeko, espazio publiko jasangarriagoa eta irisgarriagoa sortze aldera. Prozesua Nafarroa etorbidearen egungo egoeratik eta Sanduzelaiko etorbidearekin duen bidegurutzetik abiatzen da, trafiko dentsitate handiko lekua baita, eta bidegurutzeak hainbat arazo eragiten ditu bizitza komunitarioan; bizilagunen bizi-kalitatea hobetzea da xedea ingurunea erakargarriagoa egiteko, eguneroko trafiko handia kontuan harturik.

Proiektu-lehiaketarekin batera, prozesua garatu zen auzotarrak engaiatzeko asmoz, proposamenek auzoan diren beharrak eta xedeak jaso zitzaten. Horretarako, eztabaida-guneak sortu ziren, iritziak eta iradokizunak biltzeko. Informazio hori erabakiak hartzeko txostenean erabili zen.

Genero-ikuspegi intersekzionala erabili da. Ikuspegi horrekin bat, hainbat identitatek (generoa, adina, jatorria, desgaitasuna, etab.) eragiten diote pertsonen bizitzari, eta auzoaren beharrei era integralean eta ekitatiboan ekiteko aukera ematen du. Gainera, hirigintza ekologikoan inspiratzen da, naturaren eta komunitatearen integrazioa sustatuz, hiri irisgarriagoak eta erresilienteagoak sortzeko.

Proiektua bi fasetan antolatu zen: lehena, diagnostikoa eta sentsibilizazioa eta, haren baitan, hitzaldiak, eztabaidak, esplorazio-martxak eta mapaketa komunitario bat egin ziren; bigarrena, ekarpena jasotzekoa, lau eztabaida-lantegi eta bi erakusketa egin ziren. Ikuspegi horri esker, prozesua inklusiboa eta irisgarria izan zen, komunitatearen dibertsitatea islatuta eta Administrazio Publikoarekin lankidetza estuan arituta, irtenbide berritzaileak eta eraginkorrak garatzeko.
Diagnostikoaren eta sentsibilizazioaren fasean, halako martxa komunitario bat egin zen (Jane Jacobs martxa), eta hainbat auzotarrek hitz egin zuten solaskide gisa; halaber, eguneroko bizitzaren mapaketa egin zen, espazio publikoa esploratzeko bi martxa gatazkak identifikatze aldera, auzoaren historiari buruzko hitzaldi bat hirigintzaren ikuspegia eta auzotarren aldarrikapenak aurrez aurre jarrita, eta pechakucha moldeko hitzaldi bat, espazio publikoa eraldatzeko hainbat proiektu azaltzeko. Aldi berean, hainbat informazio-kanal digital jarri ziren abian.

Proposamenak eta iradokizunak biltzeko fasean, lau saio fokalizatu egin ziren, xede diren herritarren profilen araberakoak, lehiaketan aurre-aukeratutako hiru proposamenen gainean eztabaidatzeko, eta haiek komunitatearen beharrei erantzuten ote zieten baloratzeko eta hobekuntzak proposatzeko. Horrez gain, bi erakusketa egin ziren, bata finkoa eta bestea ibiltaria, hiri proposamenei buruzko informazioa emateko, eta galdetegiak banatu ziren proposamenak baloratzeko bai erakusketetan bai digitalki.

Ekarpen guztiak indar-ideien matrize batetik abiatuta bildu ziren; sintesia taldeei helarazi zitzaizkien, beren proposamenak hobetu eta zehaztu zitzaten, komunitatearen beharrak kontuan harturik. Prozesuan 244 pertsonak parte hartu dute: 118 gizonek, 115 emakumek eta 11 ez-bitarrek

## SANTA ANA PLAZAREN KO-DISEINUA

Auzokideek eta Alde Zaharreko kolektiboek elkarrekin plazarako eredu egokia eta etorkizuneko erabilerak diseinatzeko eta adosteko parte-hartze prozesua, eta hobekuntza eta iradokizunak biltzeko Santa Ana plaza berrurbanizatzeko ideien lehiaketaren ondoren, prozesuan parte hartu duten eta etorkizunean erabiliko dutenen artean adostutako eta bat egindako egikaritze-proiektu bat erdiesteko.

Honatx prozesuaren helburuak:

- Plaza eredua eta etorkizuneko erabilerak zehaztea, arkitektoen lehiaketarako plegua idazteko orduan.
- Berrurbanizatzeko ideien lehiaketan hautatutako proposamenei hobekuntzak eta iradokizunak ekartzea.
- Erdiestea parte hartzaile guztiek eta etorkizunean Santa Ana plaza erabiliko dutenek egikaritze-proiektuaren inguruan bat egin eta adostea.

Prozesuaren planteamendu metodologikoaren barnean, honakoak egin dira: koordinazio-bilerak, herritarrei irekitako 3 partaidetza-lantegi, 4 talde elkarrizketa funtsezko eragileei, ekarpenak online egiteko gunea (decide.pamplona) eta prozesua hedatzeko hainbat ekintza.

2024ko maiatzaren 16an, lehen partaidetza-lantegia egin zen eta, azkena, ekainaren 13an. 90 partaidetza izan ziren lantegietan, eta elkarrizketa sakonetan, 36. Aipatutako lantegietan, 49 emakumek eta 41 gizonek parte hartu zuten.

Partaidetza-prozesuaren lehen zatiaren azken txostena 2024ko abuztuan eman zuen OREKARIk.

## RUNA 2025

Partaidetza-prozesua, Hiri-azpiegitura Berdeko eta Hiri-drainatze Jasangarriko Planak sortzeko.

Hiriko azpiegitura berdeak hiriaren erresilientzia hobetzen du agertoki klimatiko berrien aurrean, biodibertsitatea sartzen du hirian eta onurak ekartzen dizkigu hirietan bizi garen pertsonoi. Hiri-drainatze jasangarriak euri-ura tratatzen du ibai-ingurunera isuri aurretik. Bi azpiegiturek, konbinatuta, onurak bultzatzen dituzte hiri-bilbean.

Hiri-azpiegitura Berdeko eta Hiri-drainatze Jasangarriko Planak Azpiegitura Berdearen eta Hiri Drainatzearen Eredua definituko du, egungo egoeraren azterketatik abiatuta, ezarritako helburuak lortzeko. Gainera, ibai-korridorea mantentzeko protokoloak ezarriko ditu, 25 memoria baloratu eginen dira eta etorkizuneko esku-hartzeak plangintzarekin bat datozela bermatuko duen ordenantza-eredu bat proposatuko da.

Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren (MITECO) Biodibertsitate Fundazioaren laguntza du, Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (PRTR) Next Generation EU esparruan.

Hona hemen prozesuaren eta planaren helburuak:

- Biodibertsitatea sustatzea
- Zerbitzu ekosistemikoak areagotzea
- Prozesu eta fluxu ekologiko eta hidrologikoak integratzea
- Bero-uharteak arintzea, klima-aldaketa geldiaraztea eta erresilientzia areagotzea
- Erabilera publikoa sustatzea
- Oinezkoendako ibilbideendako eta garraiobide aktiboendako azalera handitzea
- Osasuna, ongizate kolektiboa eta bizigarritasuna bultzatzea
- Naturaren/biodibertsitatearen eta gizartearen arteko harremanari buruz sentsibilizatzea
- Enplegu berdea sustatzea
- Azpiegitura berdea eta drainatze jasangarria gutxienez % 5 handitzea Iruñean
- Euri-ura jatorrian tratatzea

## ILUNDAINGO ERROTAREN IBAI-ERRESERBAREN PROIEKTUAREN AURKEZPEN-JARDUNALDIA

Urriaren 17an**, Ilundaingo Errotaren Ibai-erreserbaren proiektuaren aurkezpen-jardunaldia** egin zen.

Ilundaingo errotaren ibai-erreserbaren proiektua RUNA 2025 proiektuaren B8 ekintza da, Iruñeko ibaien ingurunean hiri-birnaturalizazioa egiteko. Jarduketaren helburua da ingurumena berroneratzea garai bateko nekazaritza-jarduerak Ilundaindarren errotaren ondare-multzoaren inguruko eremua eraldatu eta andeatu zuen gunean. Garai hartan egin ziren betelanek gaur egun lurzatiaren uholde-arriskua eragozten dute, eta mugatu egiten dute ekosistema-gune gisa duen ahalmena.

Proposamenak uholde-azalera zabal bat lehengoratuko du ibairako eta ibai-dinamiketarako. Harri-lubetak eta betegarriak kenduta, uraldietan ura sartzea ahalbidetuko duen topografia berri bat eratuko da. Hainbat motatako inguruneak izanen dituen gune bat egokitu nahi da, baso-landare autoktonoak landatzeko, eta horrela, ibaiarendako eta bertako faunarendako ibai-habitata berroneratu eta handitzeko.

Berroneratze esku-hartze horrekin batera, herritarrak oinez ibiltzeko moduko espazioak egokituko dira, eta, horiekin batera, eremuaren potentzial ekologikoa eta ondare arkitektonikoa interpretatzeko aukera ematen duten elementuak. Ilundaindarren errotaren hondakinak XVI. mendekoak direnez, errota sendotzea eta estaltzea proposatzen da, haren kontserbazioa ziurtatzeko. Era berean, errotaren hornidurako ubidearen aztarna proiektuan txertatuz babestu nahi da, interes arkitektonikoa duten hormak sendotuta.

## ENERGIA-KOMUNITATEEN PROZESUAK

### KEMENDI EK (MENDILLORRI)

Ekimena auzoan aurkezteko saioa (hasiera, beraz) 2021eko azaroaren bukaeran izan zen. Handik urtebetera, Kemendi auzoan aurkeztu zen. Instalazio fotovoltaikoaren lehen jarduera funtzionamenduan ari da eta, 2024ko apirilaren 1az geroztik, bazkideak autokontsumitzen ari dira. Bigarren instalazioa amaitua dago eta Banatzailearekin (Iberdrola) eta Merkaturatzaileekin prozesua noiz formalizatuko zain daude, prozesua bururaino eramateko eta bigarren instalazioaren autokontsumoa martxan jartzeko. Egoera hori arintzen saiatze aldera, bilera bat egin zen Nafarroako Gobernuko Industria departamentuan, eta bertan, Iberdrola, Kemendi eta Agentzia Energetikoa izan ziren. Bilerari buruzko txosten bat eta hobekuntza-proposamenak daude, izapideen ebazpen-prozesua errazteari buruzkoak, autokontsumo kolektiboa martxan jartzeko.

| Asociación | Caldereria 11 | Geltoki |
|---|---|---|
| Enero | 8,5 | 5,5 |
| Febrero | 32 | 26,5 |
| Marzo | 108 | 30 |
| Abril | 56,5 | 35 |
| Mayo | 59 | 18,5 |
| Junio | 32 | 34 |

| | | |
|---|---|---|
| Julio | 9,5 | 0 |
| Agosto | 1 | 7 |
| Septiembre | 154 | 25 |
| Octubre | 107,5 | 76 |
| Noviembre | 133,5 | 53,5 |
| Diciembre | 31,5 | 22 |
| **Total** | **733,00** | **333,00** |

### ARROTXAE EK (ARROTXAPEA)

2023ko urtarrilean ekin zion prozesuari, aurkezpen-solasaldiren bidez. Elkartea gisa eratu ziren eta bazkideak hartu dituzte (100 pertsona inguru). Abenduan, instalazio fotovoltaikoaren eraikuntza bukatu zen Patxi Larrainzar ikastetxean, eta energia-komunitatearen eskuetan lagatzea falta da. Era berean, auto elektriko partekatua abian jartzeko proiektua ari dira garatzen.

### ERMEN EK (ERMITAGAÑA - MENDEBALDEA)

2023ko apirilaren 27an ekin zion, informazio-solasaldiaren bidez. Estatuak egin dituzte eta Elkartea ere eratu dute. Aurtengo urtarrilean bildu gara ERMENekin haien prozesuan aurrera egiten saiatzeko, geldia baitzegoen. Bilera hartatik, lan-plan berria atera zen, hots, ERMEN auzoetan ikusarazteko ekimena solasaldien bidez; gero, ateraldia egitea auzoan eta pertsonak erakartzea energia-komunitatea osatzeko eta autokontsumoan parte hartzeko. Solasaldiak bukatu eta, apirilaren hasieran, ekimena auzoan aurkeztu zen eta, horrekin batera, bazkideak hartzeko saialdia. Bi gauza dude egiteko: instalazioa energia-komunitateari laga, eta Iberdrolari eta merkaturatzaileei autokontsumo kolektiborako eskaera egitea.

### ILARGIENEA EK (ARROSADIA, MENDEBALDEA, SANTA MARÍA LA REAL ETA LEZKAIRU)

2024ko martxoan hasi martxoan ekin zion prozesuari eta Elkarte gisa dago erregistratua. Aurtengo otsailean elkartu ginen, ekimena pixka bat ahuldu zelako, komunikazio hutsen bat izan zelako eta, halaber, irteerari eta bazkideak lortzeari buruzko itxaropenak bete ez zirelako. Talde eragileko kide batzuk (orain elkartekoak) proiekturik urruntzen joan dira aldi baterako edo erabat. Bulkada berreskuratu da eta energia-komunitateak berak bere etorkizuna noiz erabakiko zain gaude, ea komunitaterako eta autokontsumo kolektiborako bazkideak lortzeko kanpaina egiten den edo ez. Egina dago lagako litzaiekeen instalazio fotovoltaikoa Arrosadiko kiroldegiko teilatuan, eta lagapena formalizatzea falta da, eta bazkideak lortu eta gero, gestioak egitea Iberdrolarekin eta merkaturatzaileekin autokontsumoa bururatzeko.

### EK DONIBANE - ITURRAMA

Prozesua 2024ko irailean hasi zen. Aurkezpena eta solasaldi irekiak egin eta gero, talde eragilea osatu zen. Taldea bere kasa ari da gaur egun lanean, Arankoak lagundurik, Energia Komunitatearen izena, estatutuak, forma juridikoa, jardueren edukia, negozio-plana eta beste zehazteko. Ondoren, auzora ateratzeko eta pertsona interesatuak hartzeko prozesua eginen da eta, era berean, instalazioaren lagapena eta lehen instalazioaren autokontsumoa egiteko kudeaketa.

### EK TXANTREA

Prozesua 2024ko irailean hasi zen. Aurkezpena eta solasaldi irekiak egin eta gero, talde eragilea osatu zen. Taldea bere kasa ari da gaur egun lanean, Arankoak lagundurik, Energia Komunitatearen izena, estatutuak, forma juridikoa, jardueren edukia, negozio-plana eta beste zehazteko. Ondoren, auzora ateratzeko eta pertsona interesatuak hartzeko prozesua eginen da eta, era berean, instalazioaren lagapena eta lehen instalazioaren autokontsumoa egiteko kudeaketa.

### EK TXANTREA

Prozesua 2024ko abenduan hasi zen.

### ENERGIA KOMUNITATEAK KOORDINATZEKO BATZORDEA

Energia Agentzia, Dinamizazio eta Partaidetzak laguntzen dituen energia-komunitateak koordinatzeko taldea finkatu da, bai eta Kemendi, Arrotxae, Ermen eta Ilargienea energia-komunitateena ere. Dagoeneko hiru bilera egin ditugu esperientziak eta zailtasuna trukatzeko, kontaktuak egiteko eta energia-komunitateekin lotutako gaiak lantzeko. Halaber, komunitateen eraketa, garapena, kudeaketa, dirulaguntzak, etab. Berariazko lan-taldeak egiten ari dira kudeaketarako, klima-ekintzarako eta energiarako.

### ENERGIA-KOMUNITATEEN PROZESUAK

Uneotan, 6 hiri-baratze daude Iruñean, eta baratze komunitarioetarako bi gune (Etxabakoitz eta Arantzadi). Ideia hiri-baratzeak herritarrek eskatuta sortzea da, Udalak emanen duen bultzadaz gainera.

2024an, Santa María la Realen (Mitxoleta) sortzeko prozesuari heldu zaio.

Elkartea 2024ko uztailetik dago eratua, partaidetza-prozesuaren ondotik. Lizitazio-saiakera bat egin zen lurra 2024ko aurrekontuen kontura prestatzeko, baina ez ezin izan zen formalizatu.

### HERRI-KONTSULTAK

2024an, honako Herri Kontsulta hauek garatu edo jarri dira abian:

- Sanferminetako kartela.
- Sanferminetako txupinazoa
- Erripagaña

## 8.3.2
## Herritartasun aktiboa, gizarte ehuna eta komunitatea babestu eta indartzea

### HERRITARTASUN AKTIBORAKO ETA GIZARTE ETA KOMUNITATE EHUNERAKO ERREGISTROAK

- Herritar erakundeen udal errolda Errolda Herritarren Partaidetzako Erregelamenduan dago arautua. 2024an, 51 elkarte berri inskribatu dira. Guztira, 816 dira.
- Herritartasun aktiborako erregistroa Errolda Herritarren Partaidetzako Erregelamenduan dago arautua. 2024ko abenduaren 31n, 285 pertsona zeuden inskribatuta; haietariko 57, 2024an zehar inskribatuak.
- Iruñategi – QGIS

### ZENTRO

ZENTRO. Elkarlaneko gunea Kondestable Jauregiko bigarren solairuan dago, eta informazioa, baliabideak eta prestakuntza eskaini nahi dizkie hiriko herritar zein elkarte orori hirian banakako nahiz taldekako partaidetza garatzeko.

**Arreta, informazioa eta orientabidea**

2024ko urtarriletik abendura arte, 12.340 arreta izan dira guztira. Aurreko urtean, berriz, 11.158 izan ziren; beraz, igoera nabarmena izan da azken urteotan. Arreten % 73 (8.969) emakumeei egin zaizkie; % 27 (3.371), berriz, gizonei.

Proiektagailuen eta eramangarrien lagapenak behera egin du, aurreko urtearekin alderatuta eta 346 izan dira (2023an, berriz, 481 lagapen izan ziren).

2024a amaitzean, 313 elkarte, kolektibo eta herritar aktibo erregistratuak zeuden erregistroan.

2023an, 285 erabiltzaile zeuden erregistratuak elkarte, kolektibo eta herritar aktiboen artean; beraz, erregistroaren zazpigarren lan-urtean, 28 erakunde erabiltzaile gehiago daude.

Inprimagailuaren erabilera kopuruari dagokionez, guztira 61.982 fotokopia egin dira (2023an, berriz, 53.164 fotokopia izan ziren). Bestalde, 11 kutxatila-lagapen iraunkor daude eta unean uneko 615 lagapen egin dira.
Aurten, 707 areto erabili dira ZENTROn, iaz baino gutxixeago. Aurten, berriz ere behera egin du aretoen lagapenak, guztira 707 izan baitira; beraz, 200etik gora erabilera gutxiago izan dira (2023an, 976 izan ziren, guztira). Oraindik ere espazio-eskaria handia da; hortaz, beharren arabera, Zentroko espazioak erabili dira, hala nola aholkularitza juridikoa, bilera-gela edo liburutegia.

Ikastaroak hiruhilekoan behingo formatutan daude banatuta. Aurten, ikastaroak hiru hiruhilekotan egin dira, hots, txanda bat urtarriletik martxora; beste bat, apiriletik ekainera, eta azkena, irailetik abendura. Aurre-izena emateko epea 2024ko urtarrila izan da lehen hiruhilekorako; martxoa, bigarren hiruhilekorako, eta irail bukaera eta urri hasiera, azken hiruhilekorako. Datuek jasotzen dituzte ikastaroekin lotutako informazio-kontsultak, izen-emateak, ziurtagiriak egin eta bidaltzea, eta prestatzaileen poltsarako izaniko kontsultak.

Datu generiko bat ematearren, guztira 1.763 aurre-inskripzioa egin dira; 1.185ek gizonek egin dituzte, eta, 1.201, berriz, emakumeek.

20 partaidetza-prozesuri eman zaie laguntza teknikoa..

### ARETOEN LAGAPENA

Partaidetzako alorrak kudeatutako aretoen lagapena, atezaintzan enkargatutako orduen arabera:

### LIBURUTEGIA ETA DOKUMENTAZIO-ZENTROA

Gaur egun, funtsa 2.786 dokumentuz osatua dago, Zentron kokaturiko funtsak kontuan hartuta. Zentroko liburutegirako egindako erosketen bidez, 286 aletan igo da. Halaber, aldizkarietarako 5 harpidetza egin dira Zentroko liburutegirako.

2024an, 1.491 liburu **mailegatu** ziren. 2024an, gainera, 1.000 **arreta eta iradokizun** izan ziren. Arreta kopuru horretako 1.000 emakumeek eginak, eta 756, gizonek.

**Komunikazioa**

Partaidetzako alorrak profilak ditu Twitterren, Facebooken, Youtuben eta Flickerren, gaztelaniaz eta euskaraz, bai eta **http://participa.pamplona.es** webgunea ere.

Aurten, 162 argitalpen sartu eta bannerrak eguneratzeko lanak egin dira, Alorraren beharrekin bat; menua eta sliderrak aldatu dira, hobekuntzak informazioan, aldaketak webaren menuan.

Participa.pamplona.es webak informazio-weba izaten jarraitu du. Alorraren programen eta zerbitzuen berri emateko. Aurten, webak ez ditu estatistika-datuak, ordainpekoa baita egun horretarako instalatua dagoen pluginga.

Elkarteen webgunearen bidez, Iruñeko Elkarteen Erregistroan izena emanik dagoen elkarte orok doan izan dezake bere webgunea. 2024an, webgunean **98 elkarte daude ostatatuta.**

Decide.pamplona Iruñeko Udalaren partaidetzarako plataforma digitala da hiri demokratikoagoa eraikitzeko. Plataforman aldez aurretik erregistratu diren 16 urtetik gorako pertsonek parte har dezakete. 2024ko abenduaren 31n, 6 partaidetza-prozesu berri irekiak zeuden plataforman.

Decide.pamplona plataformaren eguneroko kudeaketarako, parte hartzeko prozesu eta organoetan aurrez zehaztutako zereginak egin dira; guztira, 826 eguneratze egin dira, eta irudiak plataforman argitaratzen jarraitu da IMGURen bidez; aurten, halaber, plataforma Udaleko beste alor batzuekin batera kudeatzen jarraitu da, hala nola Gizarte Ekintzako eta Bulego Estrategikoko Alorrarekin eta Agenda 21ekin, eta Zerbitzuak laguntza teknikoa eman die.

Herritarren partaidetzarako organoak sortzeko, bai eta osagai berriak zituzten partaidetza-prozesuetarako ere, Decide.pamplona BETA plataforma erabili da, argitalpenak tasteatzeko.

Zentroko buletina telematikoki banatzen zaie 4.230 pertsonari. Informazio buletina hilero bidaltzen da, alorreko hainbat gairekin eta elkarteentzat eta herritar aktiboentzat interesgarriak diren gaiekin.

Urtean zehar, datu-basea eguneratzen joan da, Alorreko programetan parte hartzen joan diren pertsonen datuekin, baldin eta informazioa jasotzeko baimena eman badute.

Prozesu horretan, kontaktu errepikatuen iragazketa bat egin da, honako banaketa-zerrenda hauek artean:

- “participa.pamplona.es” webean erregistratutako pertsonak.
- Iruñeko Udalaren Elkarte Erregistroa.
- Iruñategi mapaketa.
- Altak SIRP zerbitzua.
- Kultur Aniztasunaren Foroa
- Herritarrek Parte hartzeko Foroa.

Gaur egun, datu-base horretan 4.230 kontaktu inguru daude.

### LEGE AHOLKULARITZA

Aholkularitza Juridikoak arreta, aholkularitza, orientazioa eta bitartekaritza eskaintzen ditu herritarren parte-hartzearen eta ahalduntzearen eremuan, bai banaka, bai elkarteen bidez.

Guztira, honako gaiei hauei dagozkien 985 kontsulta jaso dira: 294 (%30) kudeaketa gaiekin lotuta (zuzendaritza batzordeen erregistroa, estatutuen aldaketak, etab.; 230 (%23) giza baliabideen eta boluntariotza gaiekin lotuta; 169 (%17) fiskalitateari eta kontabilitateari buruz; 186 %17) proiektu eta dirulaguntzei buruz; 68 (%7) datuen babesari buruz; eta 38 (%4) elkarteak eratzeari buruz.

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA DINAMIZATZEKO ZERBITZUA

Herritarren Partaidetza Dinamizatzeko Zerbitzuaren xedea da herritarren parte-hartzea sustatzea, Udalaren zerbitzu, organo, prozesu, mekanismo eta kanal parte-hartzaileen bidez.

Zerbitzuak 12.228 jarduera egin ditu maila instituzionalean 7.578, aurreko urtean). Gehienbat (%80,24), egindako jarduketek ardatz dituzte Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako, Herritarren partaidetzako eta Euskarako Alorretik abiatzen diren zereginak eta beharrak.

2024an, zerbitzuaren eginkizun asko finkatzen joan dira, eta halaber, handitzen joan dira bai kopuruz bai zehaztapenean; beraz, gero eta gehiago da erreferentzia instituzionala eta soziala.

Beti egon dira aldaketak zerbitzuan eta, joan den urte hau hasieratik etorri zen gobernu taldearen aldaketak markatua, aldaketa erabaki baitzuen zuzendaritzan eta sartua zegoen alorrean. Orain, Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako, Herritarren Partaidetzako eta Euskarako Alorraren barnean dago.

Azken urte honetan, hainbat prozesu abiarazi dira, hala nola Santa María la Realeko hiri-baratza, Sanduzelai eraldatzeko proiektu-lehiaketa, Santa Ana Plaza, Etxabakoizko UGPS, Iruña Marka tailerrak, eta beste. Prozesuok bat datoz partaidetzako alorrak ezarritako lan-ildoarekin. Zerbitzuak, halaber, Udaleko beste alor batzuei laguntzen die irekitzen diren prozesuetan. Zerbitzuarendako garrantziagatik, nabarmenenak energia-komunitateak izan dira, hala nola Arrosadikoa, Azpilagañakoa, Santa María la Realekoa eta Lezkairukoa, eta gero, uda ondoren, Iturrama-Donibanekoa eta txantreakoa. Aurrekoek ez bezala, komunitate horiek auzo bat baino hegiago biltzen dute, Txantreak izan ezik; hori dela-eta dira ezberdinak eta ildo berri bat dakarte komunitateetan. Zerbitzuak eginkizun berbera izaten jarraitu du, desberdintasunen bat gorabehera; beraz, komunitateak abian jartzeko prestakuntza-saioak lagundu eta dinamizatu ditu, eta erreferentziazko langileak izaten segitu du, talde eragileko beste teknikari batzuekin batera.

Zerbitzuak eginkizun erabakigarria izan duen organoei dagokienez, auzo-eztabaidaguneak aipatu behar dira, Zerbitzuaren lanaren ardatza izan baitziren urteko lehen sei hilean. Foroetan, zerbitzua gakoa izan da proiektu komunitarioak koordinatzeko eta auzoan aurkezteko, proiektu horiek dinamizatzeko, bai eta geroko emaitzan ere, errelatoretza moduan. Aurten, ia era esperimentalean jarri zen abian organo bat, Sanduzelaiko Auzo Kontseilua, non zerbitzuko langileek leku

garrantzitsua izan baitzuten, hainbat lan eginez, herritarren partaidetzako teknikariarekin batera, hala nola saioak eta partaidetza-dinamikak diseinatzea eta, haietatik ateratako dokumentazioa, errelatoretza moduan. Beste organo batzuen bezala; adibidez, Kultur Aniztasunaren Foroa, Adinekoen Kontseilua, etab. Organoei buruz esandakoaz gain, garrantzitsua da hitz egitea zerbitzuak adinekoen sareetan izan duen eginkizuna, haien gidaritzan segitzen baitu, eta zerbitzuak ditu dinamizatzen, jarduerak programatzen, sareko erakundeak koordinatzen, kohesionatzen, eta gainera, adinekoen teknikariekiko lotura da. Berdin gertatzen da haurren sareetan; izan ere, hein handiagoan edo txikiagoan, auzo bakoitzaren idiosinkrasiaren arabera, zerbitzuak hainbat lan egiten ditu, baina guztiek dakarte berekin dinamizazioa, koordinazioa, eta auzoko baliabideen zerbitzuan aritzea, baliabide bat bihurtu arte. Hiriko auzo guztietan errepikatzen diren proiektu guztietan gertatzen den bezala, zerbitzuak koordinazioaren eta ezagutza zabal eta partekatuaren balioa dakar; izan ere, zerbitzuko teknikariek (bost lagunek osatua) auzo guztiak hartzen dituzte barne, kohesio-lan hori eta ezagutzak bateratzeko lan hori eginez.

Deskribatutako organo, prozesu, etab. Guztietan aritzeaz gain, beste behin ere Kulturen kalejira antolatzera bideratu zuen zerbitzuak beren ahalegin berezia urteko bigarren seihilekoan. 2024an, Macedonia Kulturen Kalejira de las Culturas izena eman zitzaion. Kalejira garatze aldera, uztailaren 14an desfilatzen duten elkarte eta talde guztiekin aurrez aurreko bilerak diseinatu eta dinamizatzeaz gain, askotariko lanak egin ziren, hala nola dokumentazioa biltzea, hainbat dei izena emateko, jantziei buruzko xehetasunak, biltegi-lana, etab., eta halaber, logistika guztia antolatu, materialak prestatu, eskaleta prestatu eta beste.

Zerbitzuaren lan horrek zentzua eta esparrua ematen dizkio bere helburu nagusiari, pleguak hitzez hitz dakarren bezala: Zerbitzuaren helburua da Udalak herritarren partaidetzarako Alorren bidez edo herritarren partaidetza eta/edo ekintza komunitarioaren arloan garatzen dituen espazioak, mekanismoak eta moduak sustatzea eta dinamizatzea.

Urte osoan, baina udako hilabeteetan bereziki, zerbitzuak txosten batzuk egin zituen, partaidetzako alorrak eskaturik.

Bada, txosten horien edukia balio handiko tresna da auzo bakoitzean prozesuak eta organoak diseinatzeko, hala nola Auzo Eztabaidaguneak, non zinegotzigoek auzoaren “argazki” laburbildu bat baitute eskura. Haietan deskribatzen zaizkie, alorrez alor eta gaiz gai antolaturik, zer ekipamendu dituen, bertan diren sare komunitarioak, eskari historikoak, topagune fisikoak, etab. Txostenak egiteko, zerbitzuak baliabide ugari erabili ditu, guztiak ere Iruñeko Udalean eta Alor guztietan 2017tik hona egin diren ia prozesu, organo, mahai, etab. guztietan parte hartuz eta dinamizatuz, haietan hartutako eskarmentua ahaztu gabe. Horri esker, Udalak, gaur egun, Iruñeko auzo bakoitzari buruzko historiko bat du eta, haren bidez, erantzun hobea eta handiagoa ematen ahal die herritarren eskariei.

2024. urtean, harreman egin ziren zerbitzura eskean iritsitako gizarte-sareko erakundeekin. Gehienetan laguntza eskatu dute zubi lana egiteko edota informazio zehatza eskatu dute nola edo norengana jo jakiteko Udaleko alorretan, elkarte edo kolektibo gisa zituzten beharren berri emateko. Horrek agerian jartzen du gizarte-sareak baduela ibilbide instituzionalean laguntza eta babesa emanen dien zerbitzu baten beharra; beraz, horrek zerbitzuaren zentzua eta helburua indartzen ditu.

Zerbitzuak, bestalde, bere proiektuetan ere jarraitu zuen lanean; adibidez, Iruñategi eta Liburu Partekatuak proiektuetan.

Zerbitzuak, halaber, QGIS tresnaren bidez segitu zuen lantzen Iruñategi proiektua. Tresna hori bulego estrategikoko alorrak eskaini zuen.

Laburbilduz, esan daiteke Zerbitzua, 2024an zehar, balio anitzeko talde malgu eta eskarmentuduna izan zela, gaitasun handikoa egokitzapenerako eta ezagutza tekniko handikoa. Hori guztia lagungarria eta bultzagarria izan da txosten honetan zehatz-mehatz azaldu diren prozesu eta zerbitzu ugarietan.

## PARTAIDETZARAKO PRESTAKUNTZA

Prestakuntza, topaketa eta gogoetarako guneak sortu beharrak eraginda sortu da Partaidetzarako prestakuntza, herritarrak partaidetzarako ahaldundu ahal izan daitezen.

Oro har, herritarrei dago zuzendua, eta bereziki, Iruñeko gizarte zibilaren erakundeei.

**Helburuak**

- herritarrak partaidetzarako ahalduntzea
- Prestakuntza-plan etengabea lantzea herritarren erakundeetarako
- Topaguneak eta sare-lana sustatzea gizarte-sarerako
- Partaidetzazko ekimen eta poriektu berriak bultzatu eta babestea.

Iruñeko Udalak doako 38 ikastaro sustatu ditu herritarren partaidetza bultzatzeko eta hiriaren eguneroko erabakietan beren kasa edo elkarteen bidez parte hartzeko interesa duten pertsonak prestatzeko.

Prestakuntza hiru hiruhilekotan garatzen da urtarriletik abendura, udako hilabeteetan izan ezik, Zentroko aretoetan batez ere, Kondestablen kokatua, eta 18 urtetik gorakoentzat da; nagusiki, Iruñean erroldatuak daudenendako.

Eskaintzen diren ikastaroak lau ataletan daude egituratuta:

1 / Herritar Aktiboak: parte hartzeko trebetasunak
2 / Asoziazionismoa
3 / Herritarren eta komunitateen sareak
4 / Herritarren partaidetzarako metodologiak eta tresnak

Ikastaro bakoitza epe jakin batzuetan garatzen da eta bere iraupena du. Jarduera batzuek ordutegi trinkoa dute, 12 ordukoa bi egunetan, eta beste batzuk, berriz, bizpahiru ordukoak dira. Halaber, 15 orduko ikastaroak eskaintzen dira, hau da, bi ordu eta erdi sei egunean. Bestalde, oinarrizko ikastaroak (taldeak errazteko bitartekoa) urte osoan dirau, 12 ordu ematen baitira 10 asteburutan.

Interesdunek participa.pamplona.es. Udal-webean dute eskura ikastaroei buruzko eskaintza osoa, bai eta haien deskribapena eta ordutegiak ere. Parte hartuko badute, izena eman behar dute jarduera bakoitza hasi baino bi aste lehenagora arte, participa.pamplona.es. webean eskura dagoen formularioaren bidez.

Ikastaroetan, guztira, 1.763 pertsonak eman zuten izena (1.463 emakume eta 280 gizon), beste identitate batzuetako 20 pertsonaz gainera, baina ikastaroetan ezin lekurik egin jasotako izen-emate guztiei; horregatik, aukeraketa egiten da. Azkenean, 758 pertsona prestatu ziren eskolan; 129 gizon eta 617 emakume, hain zuzen. Adinari begira, bana beste, izena emandako gehienak 40-49 urte artekoak dira.

## DEIALDIA HERRITARREN ERAKUNDEEI ETA KOLEKTIBOEI DIRULAGUNTZA EMATEKO, PARTAIDETZAREN ESPARRUAN.

Deialdiak laguntza eta lankidetzarako tresna bat izan nahi du, udal eremutik irabazi asmorik gabeko elkarte eta beste erakunde batzuei babesa emateko, herritarren partaidetzaren bidez gizarte ehunaren garapena sustatzen duten proiektu, jarduera eta prestakuntzen garapenean. Herritarren partaidetza elkarteek edo irabazi-asmorik gabeko entitateek sustatutako ekimenak dira, elkartekideen edo boluntarioen inplikazio aktiboa sustatzeko, garapen pertsonala, taldekoa eta komunitarioa sustatuz, inguruko arazo ekonomikoei, ingurumenekoei eta sozialei erantzuna emanez eta bizi-baldintzak hobetuz.

106 elkartek deialdiak banatzeko zituen 500.000 euroak jaso dituzte.

Laguntzak lau epigrafetan zeuden banatuta, finantzatu beharreko jardueraren eta aurkezten diren entitateen arabera:

A epigrafiak 90.000 euro banatu zituen auzoetako festak, jai herrikoiak zein unean uneko izaera komunitarioko gizarte eta kultur ekitaldiak antolatzeko, betiere auzo batean egiten badira, herritar guztiendako irekita badaude eta auzo-elkarteek, festen koordinatzaileek eta nortasun juridikoa duten kultura-elkarteek egiten badituzte. 19 elkarteri eman zaie laguntza hori.

| Elkartea | Dirulaguntza |
|---|---|
| ITURRAMAKO KULTUR EKIMENA-INICIATIVA CULTURAL FUENTE DEL HIERRO-ITURRAMA | 2.989,02 € |
| ZABALSANCHE ELKARTEA | 808,82 € |
| DONIBANEKO AUZO ELKARTEA | 4.046,77 € |
| KASKALLUETA KULTUR ETA AISIA ELKARTEA | 474,39 € |
| LEZKAIRU KULTUR ELKARTEA | 3.043,35 € |
| ERMITALDEA | 3.027,61 € |
| BUZTINTXURIKO ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KONPARTSA | 1.059,83 € |
| ALDE ZAHARREKO JAI BATZORDEA ELKARTEA | 14.529,63 € |
| ARROSADIKO KULTUR KOORDINAKUNDEAREN FEDERAZIOA | 2.227,74 € |
| DONIBANEKO JAI BATZORDEA ELKARTEA | 10.856,69 € |
| AMIGOS CABALGATA DE REYES GIZARTE ETA KULTUR ELKARTEA | 349,55 € |
| MENDILLORRIKO JAI BATZORDEA ELKARTEA | 7.784,15 € |
| TXANTREAKO JAI BATZORDEA | 11.063,91 € |
| SANDUZELAIKO GURE AUZOA S KULT.KOORD. | 6.593,91 € |
| AZPILAGAÑAKO JAI BATZORDEA ELKARTEA | 9.802,04 € |
| BUZTINTXURIKO AUZO ELKARTEA | 4.377,26 € |
| BUZTINTXUREANDO TXURI HAUR ETA GAZTE ELKARTEA | 4.934,85 € |
| CLUB DEPORTIVO IRRINTZI | 996,52 € |
| ITURRAMAKO ATARIANDIA ELKARTEA ASOCIACIÓN | 1.033,96 € |
| **Orotara** | **90.000,00 €** |

B epigrafea, 270.000 euroz hornitua, herritarren parte-hartzea eta gizarte-ehunak sarean lan egitea sustatzen dituzten elkarteetara iritsi da.

| Elkartea | Dirulaguntza |
|---|---|
| ARROTXAPEKO MENDIALDEA AUZO ELKARTEA | 2.457,92 € |
| EUNATE NAFARROAKO GORREN SENIDEEN ETA ADISKIDEEN ELKARTEA | 2.411,99 € |
| SARAY NAFARROAKO BULARREKO MINBIZIA ELKARTEA | 4.767,07 € |
| DESGAITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONEN NAFARROAKO ELKARTEA (ACODIFNA) | 4.362,42 € |
| NAFARROAKO AUTISMO ELKARTEA | 2.608,84 € |
| NAFARROA RETINA ELKARTEA | 3.652,37 € |

| Elkartea | Dirulaguntza |
|---|---|
| AZPILAGAÑAKO AUZO ELKARTEA | 5.149,22 € |
| GARUNEKO PARALISIA DUTEN PERTSONEI LAGUNTZEKO NAFARROAKO ELKARTEA (ASPACE) | 13.150,13 € |
| SANDUZELAIKO BERDINTASUNAREN ALDEKO BATZORDEA ELKARTEA | 3.936,57 € |
| ALZEHIMERRA DUTEN PERTSONEN SENIDEEN NAFARROAKO ELKARTEA | 1.956,63 € |
| FIBROSI KISTIKOAREN AURKAKO NAFARROAKO ELKARTEA | 2.036,77 € |
| ENCAJERAS DE NAVARRA ELKARTEA SAN FERMÍN TALDEA | 3.995,84 € |
| DONIBANEKO AUZO ELKARTEA | 12.291,54 € |
| KASKALLUETA KULTUR ETA AISIA ELKARTEA | 707,24 € |
| PROFESIONAL SOLIDARIOEN FUNDAZIOA | 1.791,65 € |
| FIBROMIALGIAREN ETA NEKE KRONIKOAREN SINDROMEAREN NAFARROAKO ELKARTEA | 3.806,46 € |
| ERMITAGAÑAKO AUZO ELKARTEA | 15.000,00 € |
| DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEEN NAFARROAKO ELKARTEA | 2.990,79 € |
| ESKLEROSI ANIZKOITZAREN NAFARROAKO ELKARTEA | 2.476,11 € |
| IRACHE NAFARROAKO KONTSUMITZAILEEN ELKARTEA | 1.749,47 € |
| ADSIS FUNDAZIOA | 6.235,12 € |
| GOIZARGI, DOLUAN DIREN FAMILIEN ETA LAGUNEN ELKARTEA | 9.929,60 € |
| NAFARROAKO TORTURATUEN SAREA | 944,07 € |
| FIBROMIALGIAREN ETA NEKE KRONIKOAREN NAFARROAKO ELKARTEA | 3.782,81 € |
| ERMITALDEA | 1.021,52 € |
| GILTZURRUN GAIXOTASUNEN KONTRAKO ELKARTEA - ALCER | 1.312,57 € |
| NUEVO AMANECER RESPIRANDO NAFARROAKO AMIANTO ELKARTEA (A.N.A.N.A.R.) | 146,75 € |
| SEI ELKARTEA-GIZARTE- ETA HEZKUNTZA-ZERBITZUA | 10.758,40 € |
| DESGAITASUN INTELEKTUALA EDO NAHASMENDUA DUTEN PERTSONEN ALDEKO NAFARROAKO ELKARTEA - ANFAS | 11.250,61 € |
| DESGAITASUN FISIKOA ETA ORGANIKOA DUTEN PERTSONEN NAFARROAKO ELKARTEEN FEDERAZIOA | 6.228,60 € |
| SARE ELKARTEA | 12.000,65 € |
| NAFARROAKO DIABETIKOEN ELKARTEA (ANADI) | 6.181,64 € |
| GELTOKI SOCIEDAD MICROCOOPERATIVA | 11.316,36 € |
| HIRU-HEALTH INDEPENDENT RESEARCH UNITED | 664,56 € |
| GAZTELAN FUNDAZIOA | 2.092,67 € |
| NUEVO DIÁLOGO ELKARTEA | 1.593,84 € |
| MUNDUKO MEDIKUAK ELKARTEA | 8.746,10 € |
| PLENA INCLUSIÓN NAVARRA | 6.977,88 € |
| AZ EKIMENA ALDE-ZAHARRA ELKARTEA | 15.000,00 € |
| ATENA FUNDAZIOA | 7.331,79 € |
| TXANTREAKO JAI BATZORDEA | 1.516,39 € |
| SANDUZELAIKO GURE AUZOA KULT.KOORD. | 4.875,27 € |
| TXANTREA MENDI TALDEA | 4.391,65 € |
| BUZTINTXUREANDO TXURI HAUR ETA GAZTE ELKARTEA | 7.989,56 € |
| HIESAREN AURKAKO NAFARROAKO BATZORDE HERRITARRA. | 9.285,91 € |
| ARAKADIA ANTROPOLOGIA ELKARTEA | 993,70 € |
| TEKNOLOGIA HEDATZEKO NAFARROAKO ELKARTEA | 4.565,47 € |
| OSASUN MENTALERAKO NAFARROAKO ELKARTEA | 13.854,23 € |
| NAFARROAKO DANTZARIEN BILTZARRA | 4.869,64 € |
| VOLUNTARIOS DE NAVARRA GAZTE ELKARTEA | 1.078,18 € |
| MEJORANA ELKARTEA | 1.765,43 € |
| Orotara | **270.000,00 €** |

C epigrafea kultur aniztasuna bultzatzen duten jarduerei zegoen eskainia. 16 elkartek lortu dute dirulaguntza, eta 50.000 banatu dira.

| Elkartea | Dirulaguntza |
| --- | --- |
| VOSTOK ELKARTEA | 1.955,12 € |
| GAZTELA ETA LEONGO ETXEA NAFARROAN | 4.754,20 € |
| CASA REGIONAL DE LA COMUNIDAD VALENCIANA ELKARTEA | 619,86 € |
| CASA DE CANTABRIA EN NAVARRA ELKARTEA | 2.376,11 € |
| CASA DE ARAGÓN EN NAVARRA ELKARTEA | 2.218,69 € |
| FORU KOMINITATEAN DIREN ETXE ERREGIONALEN FEDERAZIOA | 3.752,70 € |
| POLINIAKO ADISKIDEEN NAFARROAKO ELKARTEA | 723,16 € |
| GURATXURI: BUZTINTXURIKO FAMILIEN ELKARTEA | 10.330,91 € |
| LAR GALLEGO | 1.799,39 € |
| HOGAR EXTREMEÑO DE NAVARRA | 1.836,53 € |
| REBELDEZ PAMPLONA EN CONSTITUCIÓN KULTUR ELKARTEA | 1.095,30 € |
| FENIX ERREFUXIATUARI ETA ETORKIZNEI LAGUNTZEKO ELKARTEA | 4.247,29 € |
| DUNIA MUSSO ELKARTEA | 3.500,80 € |
| BUZTINTXUREANDO TXURI HAUR ETA GAZTE ELKARTEA | 7.834,27 € |
| MORENADA CENTRAL COMUNIDAD COCANI DE ESPAÑA BOLIVIA ELKARTEA | 622,55 € |
| NIDO GAUCHO ELKARTEA | 2.333,12 € |
| **Orotara** | **50.000,00 €** |

Azkenik, D epigrafea, 90.000 euroz hornitua herritarren parte-hartzea eta adinekoen herritartasun aktiboa sustatzen dituzten jarduketetarako. 28 entitatetara iritsi da.

| Elkartea | Dirulaguntza |
| --- | --- |
| NAFARROAKO PARKINSON ELKARTEA | 522,23 € |
| GURE LAN BERRI | 1.469,01 € |
| CLUB CORONARIO PAMPLONA | 6.438,72 € |
| AMIGOS DE LOS CASTILLOS CULTURA Y ARTE DE NAVARRA ELKARTEA - ASAMINA | 1.064,18 € |
| EL ROBLE-LE CHAINE IBILTARIEN ELKARTEA | 983,99 € |
| PICO DE ORHY PROBINTZIA ELKARTEA | 8.785,82 € |
| CIRIANO KULTUR ELKARTEA | 9.307,29 € |
| ORVINA 1200 ERRETIRATUEN ETA PENTSIODUNEN KLUBA | 683,67 € |
| GURE SAKALDI ELKARTEA | 965,13 € |
| AUZOTEGI ERRETIRATUEN ETA PENTSIODUNEN ELKARTEA | 3.758,51 € |
| SANCHO EL MAYOR NAFARROAKO ADINEKOEN ELKARTEA | 754,39 € |
| YOAR ERRETIRATUEN ETA PENTSIODUNEN ELKARTEA | 10.842,01 € |
| IRUBIDE ERRETIRATUEN KLUBA ELKARTEA | 5.247,73 € |
| ARTELAN ARTISAUTZA-LANTEGIA ELKARTEA | 1.434,98 € |
| TRÉBOL ESKULAN TALDEA ELKARTEA | 1.004,49 € |
| AITONAK MENDIZALE KLUBA ELKARTEA | 3.383,44 € |
| PROFESIONAL SOLIDARIOEN FUNDAZIOA | 1.508,78 € |
| EL SALVADOR ERRETIRATUEN ELKARTEA | 9.071,55 € |
| ARROTXAPEA KIROL ETA KULTUR ELKARTEA | 1.244,75 € |
| EL BALUARTE ELKARTEA | 3.443,78 € |
| DONIBANEKO ADINEKOEN ALDEKO ITUNA | 3.160,00 € |
| SAN FRANCISCO ERRETIRATU ETA PENTSIODUNEN ELKARTEA | 1.073,88 € |
| SAN PEDRO ERRETIRATUEN ELKARTEA | 747,83 € |
| LARRABIDE-GOROABE ERRETIRATUEN ELKARTEA | 1.156,19 € |
| SANDUZELAIKO ERRETIRATU ETA PENTSIODUNEN ELKARTEA | 2.213,97 € |
| ERYMEN ERMITAGAÑAKO ETA MENDEBALDEKO ERRETIRATU ETA PENTSIODUNEN ELKARTEA | 5.812,82 € |
| NAFARROAKO POR SEVILLANAS ELKARTEA | 2.883,08 € |
| ETXEKIDE ELKARTEA | 1.037,78 € |
| **Total** | **90.000,00 €** |

Irabazi-asmorik gabeko elkarte edo entitate bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu zezakeen epigrafe bakoitzeko, baina proposamenak hainbat epigrafetan aurkeztu zitezkeen.

# 09

# Sustapen Ekonomikoa, Europar Proiekzioa, Berrikuntza, Gazteria eta Garapenerako Lankidetza



Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

# 9.1
# Merkataritza

## 9.1.1
## Merkataritza dinamizatzeko eta animatzeko kanpakiak

### 2024KO STOCK AZOKA

XVIII. Iruña Stock Azoka otsailaren 29an, martxoaren 1 eta 2an egin zen, Iruñeko merkatari-elkarteekin elkarlanean antolatua, eta 67 saltokik parte hartu zuten. Edizio horretan, azoka merkataritza-aretoetan beraietan egin zen, hala barnealdean nola kanpoaldean. Merkataritzako alorrak komunikazio-kanpainan ere lagundu zuen (kartelaren diseinua, prentsa-oharra, informazioaren eta irudia sare sozialen eta MUPIen bidez zabaltzea).

### LIBURUAREN ETA LOREAREN EGUNA

Liburuaren Eguna 2024ko apirilaren 23an egin zen, liburuaren mundu egunean, Karlos III.aren eta Orreaga etorbideen arteko elkargunean. Horretarako, merkataritzako alorrak hitzarmena onartu zuen Diego de Haro Nafarroako liburu-denda elkartearekin. Lehen aldiz, argitaletxeen ordezkaririk izan zen. 17 liburu-dendak eta argitaletxe batek parte hartu zuten. Halaber, 14 idazle bertaratu ziren, une honetan edo hartan jendeari liburuak sinatzeko. Ekitaldiaren osagarri, loreak saltzen zaizkie prezio sinbolikoan liburu bat erosten dutenei. Salmenta "COCEMFE" gizarte-erakundeak egiten du, postuan boluntarioak arituz, eta biltzen den diruaren baliokidea liburu sortatan ematen zaio aipatu erakundeari bere erabiltzaileen artean bana ditzan. Herritarrek erantzuna on-ona eman diote ideia horri eta, zenbaitetan, finkatutako prezioaren gainetik ematen dute.

18 liburu-denda eta argitaletxe parte-hartzaileek beren poza agertu dute bai giroagatik, bai salmentengatik, jaieguna izanik ere. Liburu-saltzaileek, egun horretan egin ohi dutenez, % 10eko deskontua egin zuten salmenta guztietan.

### TOKI PRODUKTUAREN SANFERMINETAKO GUNEA

Ekainaren 29tik uztailaren 14ra arte, gune bat moldatu zen Sarasate pasealekuan, tokiko eta kalitatezko gastronomia-eskaintza egiteko estatuko nahiz nazioarteko jendeari, jaiek iraun bitartean. Goizeko 11:00etatik gaueko 11:00k arte egon zen zabalik. Horretarako, hitzarmena sinatu zen tokiko produktu artisauaren ekoizpenean eta sustapenean erreferentziazkoak diren Nafarroako erakundeokin: Nafarroako Artisau Elikagaien Elkartea, INTIA, Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseilua (NNPEK) eta BIZILUR elkartea.

### HIRU BURGUEN ERDI AROKO AZOKA

Beste behin ere, 2024ko irailaren 6an, 7an eta 8an egin zen, Batasunaren Pribilegioa 1423ko irailaren 8an sinatu izanaren urtemugaren ospakizunaren karira. Iruñeko Udalak erakunde bat behar du ekitaldi osoa antolatzeko eta koordinatzeko (postuak paratu eta apaintzea, produktu sorta zabala aurkeztea, bai elikagaiak, bai bestelakoak).

Merkataritza ez-egonkorrari buruzko ordenantzaren 7. artikuluarekin bat, lizitazio publikoa erabili zen eremu publikoa horretarako okupatzeko lizentzia emate aldera. Toki Produktuaren Elkartea, parte hartu zuen bakarra, aukeratu zen. Guztira, 100 postu ezarri ziren Iruñeko Alde Zaharreko hainbat kale eta plazatan (Merkatari kalea, Udaletxeko plaza, kale Berria, Kontseiluko plaza, San Frantzisko plaza, Eslava kalea eta kale Nagusia). Jendetza handia hurbildu zen, eta denetariko produktuak zeuden salgai, Erdi Aroko giroa berregiteak dakarren erakarpenarekin batera, dela postuetan, dela artisau parte-hartzaileen artean, bai eta jarduketa osagarrietan ere.

### TOKIKO PRODUKTUAREN IX. ASTEA

2024ko urriko 7tik 13ra, tokiko produktuari eskainitako astearen bederatzigarren edizioa egin da. Ekitaldi nagusia tokiko produktuen merkatua izan da, Gazteluko plazan kokatua eta, horren osagarri, jende guztiarendako jarduera ugari egin dira (dastaketak, zinema...), guztiak ere tokiko produktuei lotutakoak. Haien artean tokiko produktuari buruzko pintura-lehiaketa da nabarmentzekoa, Foru Komunitateko hainbat pintura-eskolatako ikasleek parte hartuta.

Hainbat arlotako lau entitatek dihardute tokiko produktua marka sustatzen. Laurek ere lankidetza-hitzarmena sinatua dute Iruñeko Udalarekin. Honakoak dira: Nafarroako Artisau Elikagaien Elkartea, Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren Kontseilua (NNPEK), Intia-Reyno Gourmet eta Iruñeko Alde Zaharreko Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzuen Elkartea. Entitateok arduratzen dira Gazteluko plazan paratzen diren postuak eta espezialitateak ekartzeaz, eta programazio osagarria egiteaz, horrela ekoizleen eta azken kontsumitzailearen arteko kontaktua sustatuta

## 9.1.2 Gabonetako Kanpania 2024-2025

### EGUBERRIETAKO ARGIAK: HIRIAREN ERDIGUNEA ETA AUZOAK

2024-2025eko argiztapen-kontratua Iluminaciones Ximénez.S.A. Enpresari luzatu zitzaion. Beste bi aldiz luzatzeko aukera badago. Aurtengo proposamena hasierako ildo artistikoari jarraiki zaio, muntako apaingarriak jarrita, guztiak ere bereziak eta dotoreak.

Aurten, Eguberrietako argiak hiriko auzo guztietara zabaltzeko borondate politikoa egon da; horretarako, kontratu luzatua aldatu eta % 34,39 handitu zen.

Guztira, hiriko 80 karrika argitu dira: 54, Alde Zaharrean eta Zabalguneetan, eta 26, auzoetako 26. Guztira, 439.882,69 euro baliatu ziren.

### EGUBERRIETAKO APAINKETA-EGITURA ARGITSUAK

Altuerako eguberri-argien osagarri, lurreko eguberri-egiturak jarri dira, photocall motakoak, 3 - 6 metro artekoak, gehienak udal jabetzakoak. Honatx kokalekuak:

**12 (udalarenak, Mercairuñan gordeak)**

1. Luis Morondo. Plaza, eliza ondoan- Arkua
2. Hego Etxabakoitz. Arkua (2024an Remiro de Goñi atzealdean kokatua)
3. Europako plaza- Tramontana- haur etxola
4. Karlos III.a Entzierroaren monumentua Tous hartza.
5. Karlos III.a Goian (Adolfo Dominguez, fruta-denda). Bola.
6. Manuel de Falla. Plaza. Arrosadia. Arkua
7. Lopez pilotalekua. Iturrama Pinu handia
8. Plaza Via Veneto. Abejeras. Izarra.
9. Fermin de Aoiz. Txantrea. Elur-oreina
10. Urzainki kalea. Arrotxapea. Plaza. Arkua+pinua+elur-oreina
11. Sanduzelaiko plaza. Sanduzelai. Pinguinoa.
12. Gazteluko plaza. Opari-kutxa. B planaren definizio-espazioa zehazteke Sarasate pasealekuan edo aldaketa San Frantzisko plazarekin, Eguberrietako Azoka gazteluko plazan egiten bada.

**6 (Ximenez)**

1. San Frantzisko plaza. Opari-kutxa.
2. Mariano Arigita pasealekua (Aintzane taberna/Benjamin Tuterakoa). Hartza
3. Madril kalea. Erripagaña - Pinguinoa/Elurrezko panpina.
4. Egulbatiko jaurerria. Mendillorri. Arkua.
5. Erraldoien plaza. Buztintxuri. Pinguinoa/Elurrezko panpina..
6. Katalunia etorbidea. Lezkairu. Haur etxola

Bandalismoa egin ohi da elementu horien kontra. Beraz, azaro hori saihesteko edo ahalik eta gehien gutxitzeko, aurten kartel-etiketak paratu ziren apaingarri bakoitzaren ondoan. Apaingarriak jarri, desmuntatu eta mantentzeko lanak kontratu txiki baten bidez kontratatu ziren Electricidad Oficialdegui-rekin, hau da, Iluminación Ximénez-ek azpikontratatutako enpresarekin altuerako argiak jartzeko. 15.367 euroko kostua izan du.

### APAINGARRIAK SALTOKIEN ATARIETAN

235 apaingarri txiki paratu ziren hiri osoko saltokietako atarietan. Apaingarriak Iruñeko Udalaren jabetzakoak dira. Merkatari-elkarteak Mercairuñako nabean bildu eta beren saltokien artean banatu zituzten. Aspaceko langileak kontratatu ziren saltokiei arreta egiteko eta apaingarriak banatzeko.

Aurtengo edizioan, kono argitsuak erosi dira kontratu txikiaren bidez eta Next 35 Funtsen kontura; guztiak Zabalguneko Merkatarien Elkarteari mailegatu zitzaizkion. Gastua 16.468,1 eurokoa izan zen.

### EGUBERRIETAKO ARGIAK PIZTEKO EKITALDIA UDALETXEKO PLAZAN. ARGILUNA. AZAROAK 29.

Azaroaren 29an (ostirala), San Saturniko egunerako antolatutako ekitaldien ondotik, 17:45ean hasi zen Eguberriei ongietorria emateko eta argiak pizteko ekitaldia, Udaletxeko plazan. Eguberrietako argiak hiri osoan era sinkronizatuan pizteari ARGILUNA esan zitzaion eta emanaldi txiki bat sortu zen, hots, bertako artista berri bat + ekitaldi horretarako propio konposatutako piezaren interpretazioa, Hiriko kulturgintzako artistek eta profesionalek sortua eta interpretatua.

Asmoa da formatu bera errepikatzea datozen urteotan, ARGILUNA ekitaldia hiriko beste tradizio bat izan dadin.

2024Ko ARGILUNAren irekiera ANNE LUKIN kantari iruindarrak egin zuen eta, haren kontzertu txikiaren ondotik, ARGILUNA pieza jo zen, IGNACIO GARCÍA musikari iruindarrak konposatua.

ARGILUNA Ignacio García musikari iruindarrak konposatua dago, Iruñeko kulturgintzarekin konprometituak dauden bertako instrumentistek jo dezaten. 2024ko ARGILUNAn Hutsun Txalaparta, Igor Martinez (txistua), Ainhoa Bandrés (txeloa), Aingeru Otxotorena (perkusioa), Koki Salas Gomez (saxofoia) eta Amaya Arboniés (biolina) izan dira. ARGILUNAren ustiapen-eskubideak Iruñeko Udalarenak dira.

Konposizioak argiak pizteko ekitaldiarekin eta ikuskizunaren argiztapenaren diseinuarekin sinkronizatu zuen musika; horrenbestez, ikuskizun intimista, hibridoa eta irisgarria izan da jende guztiarentzat. Iruñeko udaletxeko balkoietan egin zen, San Domingo merkatuko erreferentea den ZENTRALeko taldeak diseinatua, ekoiztua eta antolatua.

ARGILUNArekin, hiriko merkataritza-ardatzetako argiak piztu ziren. Alde Zaharra, Zabalgunea, Donibane, Ermitagaña. Mendebaldea, Sanduzelai, Arrotxapea, Iturrama, Mendillorri, Txantrea, Arrosadia, Azpilagaña, Lezkairu, Santa María la Real, Buztintxuri, Etxabakoitz eta Erripagaña. Argiztapenean baziren aireko piezak, photocallak eta apaingarri argitsuak kaleetarako, eta apaingarriak ere Iruñeko saltokietarako. Ekitaldiaren kostua 26.107,58 euro izan zen.

3.000tik gora lagun bertaratu ziren, jendeari asko gustatu zitzaion. Ekitaldiak ahalmen handia baitauka. Hurrengo edizioetarako egina dago jada inbertsioa ekitaldiaren diseinuan eta konposizioan.

## SEMINARIO ETXEKO FATXADAREN APAINKETA

Para completar la decoración luminosa del espacio singular de la Plaza Consistorial y Ayuntamiento se decoraron las Udaletxeko eta Udaletxe plazako espazio bereziaren apainketa argitsuaren osagarri, diseinu berritzaile bat erabili zen Seminario Etxea udal-eraikinaren hiru fatxadak argitzeko. 17 apaingarri biribil paratu ziren.

Diametroan 2, 1,5 eta 1 metro duten egiturak dira, Eguberrietako zein Iruñeko elementuz osatuak:

- Handienak, 2na metroko 4 pieza: Iruñeko Udaleko armarria, Errege Magoak, Olentzero eta Bizarzuri.
- 1,5 metroko diametroko 5 pieza: Gazteluko plaza, San Fermin, Zaldikoa, Dantzaria eta Caravinagre.
- Iruñeko erraldoien 8 pieza, bana piezako.

Piezen inguruan, zerrenda argitsuak paratu ziren. Ispiluak ere jarri ziren (pvc) gainerako argiak, kalea eta bertako jendea islatzeko, Eguberriak kalean daude kanpainarekin bat, eta apaingarri begetalak ere paratu ziren.

Irudiak, ispiluak eta argiak datozen Eguberrietan ere erabiltzen ahalko dira.

Next Generation funtsetako 5 ACT 2022 neurriarekin ordaindu dira; 17.385 euro, hain zuzen ere. Piezak SEMINARIO ETXEA apaintzeko berrerabiltzen ahalko dira, 2025ean.

## IZOTZ GAINEKO PATINAJE-PISTA. SARASATE PASEALEKUA

Jende guztiarendako entretenimendu osasungarri bat eskaintzeko asmoz, eta jendearen herri-iruditerian sartua dagoena, izotz gaineko patinaje-pista baten instalazioa eta ustiapena atera dira lizitaziora, Sarasate pasealekuan paratzeko. Kontratazioa bide publikoa okupatzeko espediente baten bitartez egin da. Udalak, horrenbestez, ez du dirurik bideratu jarduera horretara eta haren errentagarritasuna enpresa adjudikaziodunaren arrisku eta menturara gelditu da.

Aurten, kokalekua aldatu da, iaz Gazteluko plazan baitzegoen, baina Zinegotzigoak erabakirik, plaza Eguberrietako Azokarako soilik erabili da.

Sarasate pasealekuan jarri zen, Foruen monumentuaren ondoan eta, horretarako, argi-hartune berria paratu zen 6.502,58 euroan.

Pistak 285 metro koadro zituen (30m. x 9,5m.), ia % 30 txikiagoa aurreko urtekoa baino; hala ere, patinatzaile % 12 gutxiago soilik izan dira.

Guztira, 19.079 patinatzaile aritu dira. Baina, kalkuluen arabera, 101.118 lagun guztira, laguntzaileak eta ikusleak barne. Espazioan oso ekosistema atsegina sortu zen estetikoki, girotua, eta aproposa jendearen arteko elkarrekintzarako.
Nabarmendu behar da deskontu sorta zabala izan dela talde bereziendako, eta ikastetxeetarako eskaintza, unitate didaktikoa barne.

Izotz gaineko patinaje-pista 2024ko azaroaren 29an ireki (arratsaldean) eta 2025eko urtarrilaren 6an itxi zen, ordutegi zabalean: 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 22:00etara.

## EGUBERRIETAKO AZOKA

Aurten, Eguberrietako Azoka Gazteluko plazara itzuli da, artisauek kokaleku hori baitute gogoko eta hiriaren erdigune nagusia. Era berean, lizitaziorako deialdia egin zen azoka egiteko, eremu publikoaren kontzesiorako, eta Nafarroako Artisau Elikagaien Egileen Elkartea aurkeztu zen bakarrik, hots, urtez urte azoka egiten ari den erakundea.

Azokan, guztira, 29 etxola jarri ziren eta, haietan, 1.374 produktu artisau ezberdin erakutsi eta saldu ziren (286 elikagai eta 1.088 bestelakoak); haietariko 1.224 Nafarroakoak ziren, eta 150, beste erkidego batzuetakoak.

Gainera, ohikoa izaten ari denez, Merkataritza Zerbitzuak Setem-Bidezko Merkataritza GKEri laga dio etxola bat, eta beste bi erakunderekin partekatu zuen: SOS Himalaya Fundazioarekin eta AFINA elkartearekin, hain zuzen ere.

Honatx egunak eta ordutegiak: Abenduaren 14tik (larunbata) 2025eko urtarrilaren 6ra arte. Goizetan, 10:30etik 14:00etara eta, arratsaldean, 17:00etatik 20:30era.

Txurro-postu bat ere jarri zen.

Merkataritza Zerbitzuak, bestalde, etxola bat alokatu eta Alde Zaharreko Merkatarien Elkarteari laga zion, merkataritza sustatzeko kanpaina bat egi zezaten. Kanpainako ardatzetako bat Comercios centenarios de Pamplona liburuaren 205 aleren zozketa izan zen.

Azkenik, plazaren iparraldea n, 30 x 10 metroko karpa handi bat p1aratu zen, haurrendako jarduerak egiteko. Komunitate Ekintzako Alorra arduratu zen gunea kudeatzeaz.

Jendetza handia izan da Eguberrietako Azokan, 60.000 lagun baino gehiago.

## TXIKIPAMP. ANIMAZIO ETA DINAMIZAZIO GUNEA AUTOBUS-GELTOKI ZAHARREAN

Bigarren urtez jarraian, autobus-geltoki zaharrean, haurrendako animazio eta dinamizazio jarduera entretenigarriak egin dira haurrak erakartzeko eta haien bidez, herritarrak Iruñeko erdigunera etortzea eragiteko, bai eta hedaduraz tokiko merkataritza dinamizatzeko ere. Iruñeko Udalaren iritziz, hura aukera izan zitekeen familiak erakartzeko eta, horrela, periferiako beste merkataritza-formatu batzuetara ez ihes egiteko.

Aurten, 1. Nasan, 2023ko formula errepikatu zen, hots, jolas-eremu bat (ohe elastikoak, tren txikia eta tunel puzgarria, eta joko tradizional birziklatuak), eta emanaldiak beste eremu batean, askotariko 10 ikuskizun egin baitziren haur eta familiendako (magoa, ipuin-kontalaria, antzerkia, gabon kantak, musika, musika-lantegia, dantza, eremu gorritxoa). Udalak enpresa bat kontratatu zuen gunea kudeatzeko eta programazioaren jarraipena egiteko, (NOEMÍ ESAIN- MUGI MISO), eta beste bat jokoak jartzeko (NAVAR PRODUCCIONES). Sistema horrek (kontratu txikiak) oso ongi funtzionatu du. Gainera, espazioa eginkizunetarako egokitze aldera, honako kontzeptu hauek kontratatu ziren faktura kontra; eszenatokiaren alokairua, photocall eszenatokia, puxika apaingarriak, kanpo-komunikaziorako kanpainarako olana, komunikazio-kanpainako hesiak, eta edukiera kontrolatzeko langileak. ASPACEren lankidetza izan da, geltokia mantentzeko enpresa, eta Herritarren segurtasuneko alorrak hesiak eraman ditu, eta Kulturako alorrak, berriz, ikusleendako aulkiak.

Egun eta orduotan egon da irekia: Abenduak 20, 21, 23,24,26,27,28,30 eta 31. Urtarrilak 2,3 eta 4. 11:00Etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, Abenduaren 24an eta 31n, goizean baizik ez. Ikuskizunak 18:00etan.

Balantzea oso ona izan da. 22.627 lagun bertaratu baitira, hau da, aurreko Eguberrietan baino % 19,85 gehiago. Programaren kostua 47.278,28 eurokoa izan da.

## AUZOETAKO MERKATARITZA SUSTAPEN, ANIMAZIO ETA DINAMIZAZIOA

Lehen aldiz, Iruñeko auzoek musika-emanaldiz osatutako programazioa izan dute, bertako taldeekin egina, auzotako MERKATARITZA ARDATZETAKO merkataritza-jarduera sustatzeko, 2024-205eko Eguberrietan: Donibane, Ermitagaña, Mendebaldea, Sanduzelai, Arrotxapea, Iturrama, Mendillorri, Txantrea, Arrosadia, Azpilagaña, Lezkairu, Santa María La Real, Buztintxuri, Etxabakoitz, Erripagaña, Zabalgunea eta Alde Zaharra. Programazioa auzo bakoitzeko merkatarien elkarteekin batera zehaztu da, eta Iruñeko Udaleko Merkataritza Zerbitzuaren on-ikusiarekin.

Merkataritza Zerbitzuak zenbateko txikiagoko laguntza teknikorako kontratuak proposatu ditu (gastu txikia) jarduera diseinatu, kudeatu eta gauzatzeko.

Honatx jarraibideak:

- Programazioetan sartu dira Udaleko Kultura Zerbitzuak taldeen katalogoaren bidez emandako taldeak. Merkataritza Zerbitzua arduratu da artista edo talde bakoitza kontratatzeaz, Kultura Zerbitzuak zehaztutako baldintzetan.
- Programazioa izan duten merkataritza-kaleak hiria argitzeko proiektuak zehaztutakoak dira.
- Emanaldiak 2024ko abenduaren 20tik 2024ko urtarrilaren 6ra arte egin dira.
- Programazioa eta emanaldi-ibilbideak merkatarien elkarteekin landu dira.

Kostua 45.794,34 euro izan da, eta emanaldiak, 81.

Horrez gain, bi zaldiko-maldiko jarri dira: bata, Iturrama auzoko Félix Huarte plazan eta, bestea, Arrotxapea auzoko Maiteminduen pasealekuan. Eta turismo-tren txiki bat aritu da Donibane, Ermitagaña eta Mendebaldea auzoetan barrena. Atrakzioak doakoak izan dira herritarrentzat. Merkataritza zerbitzuari 16.170 euroko gastua eragin dio.

## KOMUNIKLAZIO KANPAINA: EGUBERRIAK KALEAN DIRA

Merkataritza Zerbitzuak bete-betean parte hartu du Iruñeko Udalaren Eguberrietako jarduerei buruzko komunikazio-planean. Site bat ere egin da, informazio eguneratu guztia bilduta, eguneroko programazioa auzoz auzo aurkitzeko; halaber, publizitatea jarri da mupi eta markesinetan, prentsan, telebistan. Eta online ere bai. Irrati-deiak. Olanak autobus-geltoki zaharrean eta foiletoak auzoz auzo.
Merkatarien Elkarteak, bestalde, sustapen-poltsak eskatu dizkigute bezeroen artean banatzeko, aurreko edizioetan bezala, bai eta opari-papera ere. Materialok bat etorri behar dute komunikazio-kanpainaren irudiarekin. Paperezko 50.000 poltsa enkargatu zitzaizkion Bolsas El Carmen enpresari, Eguberriak kalean dira mezua idatzita. Azkenean, 50.400 eman zizkiguten, eta haietariko 39.852 577 establezimenduren artean banatu ziren. Komunikazio-kanpainara 35.799,29 euro bideratu ziren.

## 9.1.3 Laguntza ekintzaleei eta enpresei

### HITZARMENA NAFARROAKO GOBERNUAREKIN ETA NAFARROAKO ENPRESEN ETA BERRIKUNTZAREN ZENTROAREKIN (CEIN)

Iruñeko Udalak lankidetza-hitzarmena sinatzen du urtero, hirian ekintzailetza bultzatu eta sustatzeko. Iruñean duen bulegoan ekintzaileei arreta ematea agindu zitzaion CEINi eta, horrez gain, hirian enpresak sortzera eta ETEak garatzera eta prestakuntza sustatzera bideratutako programak eta ekintzak kudeatzea.

2024an, hitzarmena 137.530 euroan egin zen, honako ekintza hauek gauzatzeko:

a. a) Iruñea erdigunean egoitza bat eskaintzea, bitarteko egokiz hornituak hala espazioan nola langileetan eta orduetan, Iruñeko ekintzaileei arreta-zerbitzu zuzena eta zaindua emateko, bai eta Nafarroako gainerakoei ere. Egoitza CEINek Noainen duenaren osagarria izanen da.

b. Iruña ekintzaile programa gauzatzea Programak Ekonomia Berdearen barnean negozio-ideiak aurkitu eta garatzeko gogoa duen jendea lagundu eta prestatu nahi du.

c. Emakumeak aldaketan programa gauzatzea, beren gaitasunak hobetzeko tresnak izan ditzaten, hirian emakumezkoen ekintzailetzaren sarea garatzeko eta parte-hartzaileen artean networkinga sortzeko aukera izateko

d. Iruñeko Udaletik bideratzen dituzten ekintzaileak artatzea..

2024an, mentoring saioak, prestakuntza-saioak, training-saioak, proiektuen araberako aholkularitza-saioak, prestakuntza eta beste ekintza batzuk egin ziren, hala nola ekintzailetza sustatzeko jardunaldiak, emakumezkoen talentua eta gidaritza, eta CEIN startup day.

### LEKUKO PROIEKTUA, BELAUNALDI-TXANDAKETA MERKATARITZAN

Iruñeko Merkataritzarako 2017-2021eko Plan Estrategikoaren arabera (onetsitako azkena), % 11,7 galdu da hiriko merkataritza-masa, z011tik 2016ra; nagusiki, ekipamendu pertsonalaren (% 23) eta etxe-ekipamenduaren (% 16) sektoreetan.

Nafarroako Txikizkako Merkataritza Bultzatzeko 2022-2025eko Planaren 3.3 ildo estrategikoak dio Ekitzailetzaren eta belaunaldi-txandaketaren sustapena dela lehentasunetako bat; eta barne hartutako neurrietako bat da belaunaldi-txandakatzea erraztea (txanda har dezakeen jendea bilatzea, txandaketarik gabeko enpresen bankua, negozio-orientabidea aldatzea, etab.). Neurri hori lehentasun gorenekotzat jotzen da.

Egoera ikusirik, behar-beharrezko da alerta goiztiarreko sistema bat sortzea, Iruñeko saltoki txikien egoera banan-banan monitorizatzeko aukera emanen duena, belaunaldien arteko errelebo-prozesuak aurreratzeko, merkatariari eskualdatze-prozesuan laguntzeko eta hirian historikoak diren saltokien nahi gabeko itxierak txikiagotzeko.

Lekuko deritzon proiektuak 3 osagai ditu:

a. Alerta goiztiarreko tresnaren diseinua
b. Lekuko prestakuntza-ikasgela
c. Aholkularitza eskualdaketetan, ekintzailea laguntzea

Proiektua bateragarria izateaz gain, beste erakunde batzuek sustaturiko beste ekimen batzuk osatu eta indartzen ditu.

## 9.1.4 Merkataritza laguntzako beste jarduera batzuk

### AUTOBUS-GELTOKI ZAHARREKO NASEN ERABILERA-LAGAPENAK

Merkataritza Zerbitzuak geltoki zaharreko nasak erabiltzeko baimenak kudeatzen ditu, udal-webean argitaratutako erabilera-irizpideen arabera. 2024an, guztira, 27 jarduera baimendu ziren, urte osoan banatuak.

### BIDE PUBLIKOAREN OKUPAZIOARI BURUZKO TXOSTENAK

Merkataritza Zerbitzuak hiriko merkataritza inplikatzen duten jarduera guztiei buruzko txosten teknikoak egiten ditu, bide publikoaren okupazioari dagozkionak, Herritarren Segurtasuneko Alorrak eskaturik. 2024an, guztira, 29 txosten egin dira.

### EREMU PUBLIKOAN JARDUERAK EGITEKO APLIKAZIOAREN KUDEAKETA

2024an, kaleko ekitaldi guztietako jarduera guztiak antolatu eta muntatzeko (merkatuak, azokak, Eguberriko argiak jartzea, etab.), Herritarren Segurtasuneko alorraren eremu publikorako aplikazioarekin lan egiten da. Tresnak ekitaldiei buruzko informazio guztia jasotzen du eta, haren bidez, Udaltzaingorako interesekoak diren datu guztiak sartzen dira: Okupatuko diren espazioak, materialak, produktuak, zamaketa-lanetarako ibilgailuetako matrikulak, ordutegiak....

**GELTOKI ESPAZIOA**

GELTOKI espazioaren luzapena kudeatu da, eta administrazio-emakidako pleguan aurreikusia dagoen bezala, espazio horretako esleipen-hartzaileak 2024. urteko jarduera-txostena aurkeztu du eta hura espedientean sartu da.

## 9.1.5 Merkataritzen mahai

Merkataritzaren Mahai Teknikoa lan-talde bat da eta hiriko merkatarien elkarteetako nahiz Udaleko Merkataritzako Alorreko teknikariek osatua dago. Aholku-emailea da, eta Merkataritza eta Turismoko Alorreko jardueren garapenari buruzko informazioa emateko sortu zen, bai eta horri buruzko iradokizunak jasotzeko eta kontsultak ebazteko ere.

Merkataritzaren Mahai Politikoan enpresa-elkarteak, Merkataritza Ganbera eta udaleko talde politikoak dira kide. Informazio ematea du xede udal-alorraren jarduera eguneratzeko. Halaber, mahaian dauden erakundeen ekarpenak eta proposamenak biltzen ditu.

2024an, Merkataritzaren Mahai Teknikoak 3 saio egin zituen, eta Merkataritzaren Mahai Politikoak, bat.

## 9.1.6 Markataritzako Next Generarion

Next Generation EU edo Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa programa Europar Batasunak sortutako inbertsio-plan bat da, koronabirusaren krisiaren ondoren ekonomia suspertzeko. Europako Kontseiluak onetsi zuen 2020ko ekainaren 21ean.

Laguntza horiek estatu kide bakoitzak garatutako Berreskuratze Planen bidez bideratzen dira, eta beharrezko berrikuntzak eta inbertsio-proiektuak barne hartzen dituzte. Espainian, Espainiako Gobernuaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren bidez bideratzen dira; plan hori Europako Batzordeak ere onetsi du. Plan horren bidez, Espainiak 140.000 milioi euro inguru jasoko dituela aurreikusten da, susperraldi ekonomikoan inbertitzeko eta, zehazki, trantsizio digital eta ekologikoan.

Merkataritza arloan, honakoa izan da Planaren gauzapena, 2024an:

**SUBPROYECTO ACT -010000-2022-97**

1. **Udal-aretoak birgaitu dira merkataritza-ardatz turistikoetako bezeroei zerbitzuak emateko. 150.000 euro.**
Mercaderes kaleko 11ko aretoa berritu da, coworking gunea edo topagunea izateko merkatarien elkarteen artean, zerbitzu berriak abian jartzea aztertzeko, belaunaldi-txandaketa bereziki nabarmenduta (LEKUKO proiektua).

2. **Areto hutsei buruzko neurriak merkataritza-ardatz turistikoetan. 20.000 euro.**
Erakusleiho hutsak edertzeko neurriak Iruñeko kale Nagusian eta inguruetan. APYCESek egina. Neurriaren bidez, hiri-espazioen balio-galera eragotzi nahi da eta irudiaren egiten zaion kaltea.

3. **Merkataritza-ardatz turistikoetako espaloiak eta sarbideak berrurbanizatzea.**
Iturrama auzoko Fuente del Hierro kalea atsegin egiteko esku-hartzea, Donejakue Bideak hirian duen turismo-ardatz gisa baitago identifikatua.

4. **Merkataritza-ardatz turistikoetako merkataritza-seinale digitalak eta irisgarriak. CS eta SF. 40.000 euro.**
Merkataritza-seinaleak diseinatu eta paratzea merkataritzako, turismoko eta hiriko edukiak zabaltze aldera, hiriko hainbat tokitako mupietan edo pantaila digitaletan. Lehentasuna ematea tokiko merkataritza txikiari.

5. **Hiri-apainketa merkataritza-eremu turistikoetan. CS eta SF ardatzak - 30.000 eurok**
Apaingarriak paratzea fatxada, erakusleiho eta sarbideetan eta kanpo- nahiz barne-argiztapena merkataritza- eta turismo-kanpainetan.

   Seminario etxeko fatxadaren kanpo-apainketa eta kono argitsuak Iruñeko saltokietan.

6. **CS eta SF merkataritza-ardatz turistiko edertzea eta altzariak eta argiak paratzea. 80.000 euro.**
Iturrama auzoko Fuente del Hierro kalea atsegin bihurtzeko proiektuaren 2. fasea.

7. **Digitalizazioa. Wifi-sarea CS eta SF merkataritza-ardatz turistikoetan jartzea - 10.000 euro.**
Wifia publiko eta doakoa eskuratzeko guneak berritzea Iruñeko Turismo Bulegoaren inguruetan eta Udaletxe plazan, Gazteluko plazan, Errekoleten kioskoan eta kale Nagusian.

8. **Marketin-sistema adimentsua jartzea funtzionamenduan. 100.000 euro**
Irtenbide teknologiko bat garatzea (smart data) fluxua eta edukierak kontrolatzeko eta tokiko merkataritzak sustaturiko marketin-kanpainak abiarazteko. Nodo-sistema, batez ere mupi edo pantaila digitaletan paratuak.

9. **Dinamizazioa errealitate zabalduaren bidez 50.000 euro**
Errealitate zabalduaren aplikazio bat ezartzea, bere kudeaketa- eta mantentze-panela eta guzti, turisten, bisitarien eta bertakoen arreta erakartzeko hiri-merkataritzaren eta tokiko produktuaren alde, hiria bisitatzen duten bitartean gehiago kontsumitze aldera. App mugikorra, web-aplikazioa, eduki-kudeatzailea 3 D moldeko berreraikuntzak sortuta.

10. **Turistendako merkataritza-ibilbideak. (Liburua: Comercios centenarios, Carlos Albillok idatzia). 25.000 euro**
Iruñeko ehun urtetik gorako saltokien eta bilketa, liburu bat editatuta eta argitaratuta, hiriko ondare material eta immaterial horren balioa nabarmentzeko.

**11 eta 12. Saltokiak prestatu eta sentsibilizatzea hondakinak murrizteko. Aholkularitza-zerbitzua hiri-saltokien eraginkortasun energetikoa hobetzeko. 5.000+15.000 euro..**
Hondakinak murrizteari eta eraginkortasun energetikoari buruzko komunikazio-kanpaina eta, era berean, horrek saltokien kudeaketa eta lehiakortasuna hobetzeko duen eraginaz. Hiriko saltokiei laguntza pertsonalizatua ematea.

## MS-010000-2022-221 AZPIPROIEKTUA

**1. Marketin-sistema adimentsua jartzea funtzionamenduan. 200.000 euro.**
Irtenbide teknologiko bat garatzea (smart data) fluxua eta edukierak kontrolatzeko eta tokiko merkataritzak sustaturiko marketin-kanpainak abiarazteko. Nodo-sistema, batez ere mupi edo pantaila digitaletan paratuak.

**2. Tresna digitala, merkataritza ardatzen hiri-behatokiaren txostenetarako. 15.000 euro**
GEOIRUÑA-MERKATARITZAREN BISOREA tresnan hobekuntzak egitea.

**3. Areto hutsei buruzko neurriak merkataritza-ardatz turistikoetan 100.000 euro. Ardatzak edertu eta apaintzeko neurriak.** Mercaderes 11ko aretoa.

**4. Espaloiak berrurbanizatu eta/edo zabaltzea, eta sarbideak hobetzea hiriko merkataritza-ardatzetan. 300.000 euro.**
Iturramako Bulebarrean jardutea.

**5. Hiri-altzariak eta goi-dentsitateko merkataritza-ardatzak edertzeko beste ekintza batzuk. 100.000 euro.**
Argiztapena hobetzea, 92 LED gune berri jarriz Amaya kalean, Bigarren zabalguneko merkataritza-kalea baita.

**6. Azterketa egitea, saltokietarako energia-komunitate bat sortu eta abian jartzeko. 15.000 euro.**
Simulatzaile digital bat abian jartzea energia-komunitateak kudeatzeko.

**7. Elikadura-xahuketa murriztu eta aprobetxatzea bultzatzeko ekimenak. 10.000 euro.**
Elikadura-xahuketa aprobetxatzeko gidak argitaratu eta zabaltzea saltoki eta herritarrentzat.

**8. Saltokiak kudeatzeko prestakuntza. 10.000 euro.**
Aurrez aurreko prestakuntza eta online jarraipena Iruñeko merkatariendako kudeaketaz eta lehiakortasunaz.

**9. Merkataritzan negozioak eskualdatzen laguntzeko zerbitzua, ekintzaletza berria. 30.000 euro.**
Belaunaldi-txandaketa fasean dauden saltokien mapaketa egitea eta lehen aholkularitza ematea pauso hori emateko. LEKUKO proiektua abian jartzea.

**10. Irisgarritasun unibertsala hobetzeko gailuak jartzea: merkataritza-seinaletika digital irisgarria. 100.000 euro.**
Merkataritza-seinaleak diseinatu eta paratzea merkataritzako, turismoko eta hiriko edukiak zabaltze aldera, hiriko hainbat tokitako mupietan edo pantaila digitaletan. Lehentasuna ematea tokiko merkataritza txikiari.

## COMIRUÑA MERKATUAK KUDEATZEN DITUEN UDAL-ENPRESA PUBLIKOAK 2024AN GAUZATU DITUEN NEXT GENERATION EU MERKATARITZA-PROIEKTUAK

**1. Seinaletika eta pantaila digitalak udal-merkatuetan (San Domingo eta Ermitagaña)- 30.000 euro**
Merkataritza-seinaletika digitala diseinatu eta paratzea, merkatuetan merkataritza- eta turismo-edukiak hedatzeko.

**2. Ermitagaña merkatuko galeriako aretoak edertzeko lanak. 25.000 euro.**
Argiztapen-proiektu berria

**3. Obrak eta espazioen ekipamendua udal-merkatuetan dinamizazioa-jarduerak garatzeko. 75.000 euro.**
Udal-merkatuetan sukaldaritza-ikasgelak jartzea.

**4. San Domingoko merkatuan entrega-gune adimentsua jartzea 90.000 euro.**
Entrega-gune adimentsuan armairuak jartzea edo delivery tenperatura eta paketeria lehorra.

**5. Labea San Domingoko merkatuan. 48.400 euro.**
Bi labe jartzea (haragi-eratorriak eta janari prestatuaren eratorriak).

**6. Ermitagañako merkatua argitzea eraginkortasun energetikoa hobetzeko. 8.000 euro.**
**Argi-instalazioa hobetzea, LED lanparak erabiliz.**

**7. Tokiko merkataritzaren aldeko komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpaina goi-dentsitateko eremuetan. 70.000 euro.**
Komunikazio- eta sentsibilizazio-edukien diseinua online eta offline hedabideetan sartzeko Halaber, bertakoentzat eta hiria bisitatzen dutenentzat.

**8. Udal-merkatuen marketin-plana. 40.000 euro.**
Marketin-plan bat egitea udal-merkatuetarako. Planaren ekintzak gauzatzea, hala nola informazio-foiletoak inprimatzea eta udal-egutegiak banatzea.

## 9.1.7 Merkataritzako laguntza-deialdia 2025

2024ko ekainaren 27an, deialdi publikoa onetsi zen Merkatarien Elkarteei laguntzak emateko, 2023ko urriaren 1etik 2024ko irailaren 30era bitartean merkataritza sustatzeko eta dinamizatzeko jarduerak egiteko. Iruñeko Hiri Agenda-Estrategia 2030en helburu estrategikoen parte da, eta haren 2. dimentsio estrategikoan, Iruñea sozialki inklusiboa izenekoan, L6 jarduera-ildoa dago sartua. Iruñea, hurbileko merkataritza eta zerbitzuekin. Era berean, 100.000 euroko gastua baimendu zen, 2024ko udal aurrekontuko 11/43110/479000 partidakoa.

Hona hemen zenbat diru jaso duen onuradun bakoitzaren jarduera bakoitzak, dirulaguntza-ildoen arabera, eta behar diren doikuntzak aplikatu:

| Elkarte onuraduna | Laguntza, guztira |
|---|---|
| alde zaharra elkartea | 15.688,16 € |
| zabalguneko elkartea merkataritza-eremua | 7.582,66 € |
| iturrama elkartea | 2.499,58 € |
| la rotxa elkartea | 2.380,73 € |
| donibane, ermitagaña eta mendebaldea elkartea | 5.695,88 € |
| azpilicueta elkartea | 10.587,03 € |
| harakinen gremioa elkartea | 1.200,00 € |
| san domingoko merkatua elkartea | 14.560,00 € |
| txantrea elkartea | 3.660,00 € |
| sanduzelai elkartea | 2.836,23 € |
| nafarroako belar-saltzaile eta dietetika elkartea | 1.440,40 € |
| nafarroako merkatari elkartea | 2.000,00 € |

## 9.1.8 Comdur Interreg mugaz gaindiko proiektua

Iruñeko Udala Europako COMDUR proiektuan parte hartzera gonbidatu zuten 2021ean. Proiektua Interreg VI-A Espainia-Frantzia-Andorra mugaz gaindiko lankidetzarako Europako programaren baitan dago (POCTEFA 2021-2027)

COMDUR, Merkataritza jasangarria da merkataritza jasangarriko proiektuaren izena, eta POCTEFA barnean sartu zen. Iruñeko Udalak bat egin du, hiriko eta parte hartzen duten gainerako eskualdeetako saltokiei ekonomia zirkularreko prozesuak txertatzen laguntzeko, elikadura-xahuketa eragozte aldera, lehiakortasuna hobetze aldera eta jasangarritasuna balio bereizgarria izate aldera.

POCTEFA 2021-2027 programak hainbat sektoretako proiektuak kofinantzatzen ditu, hala nola berrikuntza, ingurumena, prestakuntza, lan-merkatua, kultura eta turismoa, besteak beste, profil osagarriak dituzten eta Espainiako, Frantziako eta Andorrako mugaz gaindiko lurraldearen garapen jasangarria sustatzen duten erakundeen artean.
Europar Batasunak proiektuak finantzatzeko partida bat du, eta Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren bidez (EGEF), 227 milioi eman dizkio Espainia-Frantzia-Andorra 2021-2027 Lurralde Lankidetzarako Programari. Programaren EGEF kofinantzaketaren gehieneko tasa bere proiektuen gastu hautagarriaren % 65 da, eta lehen deialdi hori 95,4 milioi euroz dago hornitua.

2024ko urtarrilaren 2an, elkartea osatzeko mugaz gaindiko akordioa sinatu zen, eta 2024ko otsailaren 26an, EGEF laguntza eman zitzaion EFA110/01 MERKATARITZA JASANGARRIA proiektuari, COMDUR akronimoarekin. Erakunde gidaria Gipuzkoako Merkataritza Federazioa da. Proiektuaren azken data 2026ko ekainaren 30a da; horrenbestez, proiektuak 2 urte, 5 hilabete eta 29 egun iraunen du guztira.

Honatx bazkideak: Gipuzkoako Merkataritza Federazioa (% 20,35), Zaragoza esencial (% 12,86), Bartzelonako Udala (% 17,37), Toulouse-Haute Garonee CCI (% 15,63), FEDE Toulouse (% 5,13), Mendebaldeko Pyrennees CCI (% 16,32) eta Iruñeko Udala (% 12,32).

COMDURren helburu nagusia da lehiakortasuna eta berrikuntza hobetzea lurralde bazkideetako txikizkako merkataritza sektorean, merkataritzako ETEei eta haien laguntza-egiturei (ganberak, merkataritza arloko elkarteak, udaletakoak) lagunduz, ekonomia zirkularra negozioan txertatua dagoen enpresa-ereduetarantz jo dezaten. Proiektuak sektorearekiko ikuspegi pertsonalizatu, eskalagarri eta mentorizatu baten bidez lortu nahi du hori, ETE bakoitzaren heldutasun mailara eta azpisektorera egokituta; adibidez, tamaina handikoetan, hau da, altzarien sektorean, berrerabilpenak garrantzi handia hartuko du, eta elikaduran, berriz, hondakinen kudeaketa egokia izanen da funtsezkoa.

COMDURek merkataritza sektorea konbentzitu nahi du, ikus dezaten ekonomia zirkularrak lekua duen negozio ereduen garapena estrategikoa dela sektorearen biziraupenerako eta lehiakortasunerako, ingurumenerako beharraz gain. Ekonomia zirkularra joera da gizartean, kontsumitzaileek huraxe gero eta gehiago betetzea eskatuko dute, eta legediak neurriak ezarriko ditu. Proiektuak sektorea prestatzen lagunduko du, dagoeneko gertatzen ari diren aldaketetarako. Merkataritza digitalizatzea ardatz izan zuen CORE proiektuan ez bezala, COMDUR merkataritzako enpresa-jardueren zirkulartasuna du ardatz. Merkataritzako ETEentzako ekonomia zirkularreko ibilbide pertsonalizatuen helburua izanen da hondakinak murriztea, berrerabilpena eta birziklapena sustatzea, eta era berean, material jakin batzuk erabiltzea, 0 km-ko produktuak sustatzea eta produktuen bizitza-zikloan balioa sortzea, enpresen ingurumen-aztarna murriztuta.

Proiektua amaitzean espero da lurralde bazkideetako merkataritza-sektorearen zati bat eraldaketa zirkularreko prozesuan murgilduta egotea, lehiakorragoak izan daitezen.
Mugaz gaindiko lankidetza funtsezkoa da, elkarren menpekotasun ekonomikoa eta komertziala dagoelako.

2024an zehar, Donostian eta Tolosan (Frantzia), bai eta online ere, aurrez aurreko hainbat lan-jardunaldi egin ondoren, COMDUR proiektuaren barneko ekintza nagusiak zehaztu ziren, eta horietatik Iruñeko Udala arduratu da COMDUR proiektuaren komunikazio-plana diseinatu eta gauzatzeko kontratazioaz .

2024an, bi lizitazio-prozesu jarri ziren abian, kontratazio sinplifikatua-laguntza teknikoa prozedura, 50.000 euroko gehieneko zenbatekoarekin; lehena 2024ko uztailean, eman gabe gelditu zena, eta bigarrena, 2024ko irailean, eta EFFECTIA INNOVATION SOLUTIONS izan da esleipenduna. Kontratua Tokiko Gobernu Batzarrean onartu zen 2025/01/23an, 38.000 euroan.

## 9.1.9 Smart Iruña LAB

Iruñeko Udalak Smart Iruña Lab-en hirugarren edizioa abiarazi du 2024an. Ekimena 2018an hasi zen eta bizi-kalitatea hobetzea du helburu, ezagutzaren, berrikuntzaren eta teknologiaren erabilera adimentsua erabiliz. Programak lankidetza publiko-pribatua bilatzen du hiri adimendunaren ereduari (Smart city) lotutako esparruetan proiektu pilotuak identifikatzeko, etorkizunerako diseinatzen ari den hiri motan lankidetzan ari daitezen.

2024ko edizioan erabaki da Iruña lau teknologia-proiektu pilotuen laboratategia izanen dela hiri modernoagoa eta jasangarriagoa egiteko. Lehenak balioko du adimen artifizialeko kamera eta algoritmoetan oinarritutako edukierak monitorizatzeko; bigarrenak sentsore akustiko adimentsuak jarriko ditu, soinu-presioa neurtzeko eta jatorrizko iturriak eta haien inpaktua detektatzeko diseinatuak; hirugarrenak ekoizpen elektrikorako mikrogeneradoreak diseinatu eta instalatuko ditu; eta laugarrenak kable elektrikoak monitorizatzeko sistema bat ezarri nahi du lineen osotasuna ziurtatzeko.

Smart Iruña Lab proiektuaren bidea Iruña 2030 Hiri Agendaren barruan kokatzen da, ekonomia zirkularra eta ingurumen-jasangarritasuna bultzatuko dituen Iruñearen alde egitea baitu xede. Hiri irisgarria, energiaren ikuspuntutik efizientea, mugikortasun jasangarriaren eta ekitate sozialaren alde lan egiten duena, eta osasuna, hezkuntza eta ingurumenaren eremu erabakigarrien alde egiten duena.

# 9.2
# Turismoa

Alorraren jarduerak bi ardatz izan ditu 2024an: batetik, Iruña SF365 proiektuaren garapena Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Planen deialdian, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren baitan eta, bestetik, Next Generation funtsak. Turismo Zerbitzuak, hala ere, Turismoko Plan Estrategikoak (2017-2019) zehaztutako lerroak garatzen jarraitu du.

Ekainean, plan estrategiko berria onetsi da, zerbitzuaren 2024-2029 urteetako jardueraren garapena markatzeko.

## 9.2.1
## Gobernantza

### LAGUNTZAK

**LAGUNTZAK TURISMO SEKTOREKO ELKARTEEI**

Helburua da turismoa dinamizatu eta sustatzeko ekintzak garatu dituzten turismo-elkarteei laguntzea, turismo arloko produktuak gara ditzaten. Sei elkarteri eman zaie laguntza: Restaurantes del Reyno elkarteari, Hotel elkarteari, AHTNi, Restaurantes de Navarra elkarteari, APARTURNAri eta ANAPEHi. Guztira, 50.000 euro.

### HITZARMENAK

**HITZARMENA IRUÑEKO TURISMO BULEGOA KUDEATZEKO.**

Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren arteko lankidetza-hitzarmena luzatu da turismo-bulegoa kudeatzeko. Hitzarmena 2025eko abenduaren 31ra arte izanen da luzagarria. Nafarroako Gobernuak, zehazki, 80.700 euro eman ditu hitzarmeneko ekintzak 2024an garatzeko. 2024ko azaroaren 28an, Jarraipen Batzordea bildu da.

**IRUÑEKO UDALARI EMAN BEHARREKO DIRULAGUNTZA ARAUTZEKO HITZARMENA, IRUÑA SF365 HELMUGAKO JASANGARRITASUN TURISTIKOKO PLANA GAUZATZE ALDERA, EUROPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION EU FUNTSEK FINANTZATUA.**

2024ko azaroaren 28an, Jarraipen Batzordea bildu da. Iruñeko Udalak, zehazki, Nafarroako Gobernuak abian jarritako Nafarroako Turismo Guneak Kudeatzeko Unitateen koordinazio teknikorako bileretan hartu du parte.

**IRUÑEKO UDALAREN ETA IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAREN ARTEKO FINANTZAZIO-HITZARMENA, PERGOLA-MARKESINA BAT JARTZEKO, GELTOKIKO PLAZAREN INGURUAN KOKATUA DAGOEN GERALEKUAN TAXIAREN ERABILTZAILEAK BABESTE ALDERA**

Hitzarmenaren bidez, pergola motako markesina baten instalazioa finantzatuko dute batera, Geltokiko plazan, trenaren erabiltzaileak euritik babesteko, taxien zain dauden bitartean. Akordioaren arabera, alde bakoitzak erdia ordainduko du: hau da, Iruñeko Udalak eta Iruñerriko Mankomunitateak. Udalak 47.775,63 euro emanen ditu.

**LANKIDETZA-HITZARMENA, IRUÑEKO UDALAREN ETA RENFE VIAJEROS SOCIEDAD MERCANTIL ESTATAL, S.A.ren ARTEKOA, RENFE VIAJEROSko TREN BIDEZKO GARRAIO ZERBITZUAK ETA IRUÑEKO TURISMOA BATERA SUSTATZEKO**

Lankidetza-hitzarmen bat sinatu da Renfe Viajeros-ekin ,

helburua baita batera sustatzea Renfe Viajerosko tren bidezko garraio zerbitzuak eta Iruña hiria, turismo- eta negozio-helmuga gisa.

Akordioan hitzartutako baldintzak AHTri eta Distantzia Luzeko trenei soilik dagozkie; ez, ordea, Renfe Viajerosko gainerako zerbitzuei eta/edo produktuei, eta hitzarmenetik kanpo berariaz gelditzen dira Hurbileko, Distantzia Erdiko eta Avlo zerbitzuak, salbu espresuki hitzartzen bada, betiere zehaztuta haren irismena eta mugak; hala bada, akordio honen kasuan kasuko eranskinean jasoko da.

Nolanahi ere, Merkataritza Akordio honetan aurreikusitako ekintzak eta bi aldeek beren esparruan agiri erantsien bidez hitzartzen eta sinatzen ahal dituzten beste batzuek elkarren arteko orekarantz jo beharko dute bi aldeen prestazioetan.

Hitzarmenak 2026ko abenduaren 31ra arte iraunen du.

**IRUÑEKO UDALAREN ETA DONEJAKUE BIDEAREN ADISKIDEEN ELKARTEAREN (DONEJAKUE ERMANDADEA PADERBORNEN) ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, IRAIZOZ TXALETA ERAIKINA LAGATZEKO DONEJAKUE BIDEKO ERROMES-ATERPETXEA IZAN DADIN: PADERBORN ETXEA (ESPEDIENTEA: 2021/29 ESPEDIENTEA).**

Hitzarmena indarrean dago eta 5 urteko iraupena du, 2026ko maiatzaren 28ra arte. Horrekin bat, Iraizoz Txaleta erromes-aterpetxe gisa kudeatzen da.

### BESTE PROIEKTU BATZUK

#### DTI HELMUGA

Informazio eta Teknologia Turistikoak Kudeatzeko Estatu Sozietateak (SEGITTUR) koordinaturik, Turismoko Estatu Idazkaritzaren mendean, Iruñeak Turismo Helmuga Adimentsua ezaugarria eskuratu du, 2022an atxikia, DTI diagnostikoaren prozesuaren eta ekintza-planaren ondorioz. Ebaluazioak adierazi du Iruñeko Udalak % 42,5en betetzen dituela (2022) metodologiaren betebeharrak.

2023an, Segitur enpresak zehaztutako ekintza-plana gauzatzen hasi da, HELMUGAKO JASANGARRITASUN PLANean (PSTD) jasotako jarduketen bidez.

Aurten ere, DTI Sareak Turismo Helmuga Adimentsuen Sarea (DTI Sarea) kudeatzeko organoen Funtzionamendu Erregelamendu berria onetsi du, eta hartan nahitaez bete beharreko baldintza bat ezarri da 4. mailarantz aurrera jo nahi duten 3. mailako helmugentzat (Udalaren helburua), hots, Jarraipen Batzorde bat izatea (Smart Office bat), turismoarekin zuzenean edo zeharka lotuta dauden alor guztiek parte hartuta.

2024ko maiatzaren 22an, aipatu jarraipen batzordea eratu da. Batzordea koordinazio-organoa da turismoarekin zuzenean edo zeharka lotuta dauden Iruñeko Udaleko alor guztien artean. Tresna horren bidez bultzatzen da Iruñeak Turismo Helmuga Adimentsurantz jotzea, alorren arteko barne-komunikazioa, koordinazioa eta lankidetza sustatuz.

#### DONEJAKUE BIDE FRANTSESEKO HIRI-ADIMENEKO SISTEMA. ESPEDIENTEA: TUR-Camino2022-07

2024an, hainbat atzerapen gertatu dira; horrenbestez, ezinezkoa da proiektuaren gauzapen- eta justifikazio-epea betetzea 2024ko irailaren 30ean. Horrela, gauzapen-epea luzatzeko eskatu da. Erantzuna urriaren 1ean jaso da, eta epea 2025eko martxoaren 31ra arte luzatu da.

2024an zehar, proiektuaren lizitazioak prestatu dira.

## 9.2.2 Helmuga Egituratzea

### TURISMO BULEGOA, ULTREIA DONEJAKUE BIDEAREN INTERPRETAZIO ZENTROA, SAN BARTOLOME GOTORLEKUA ETA ESPACIO SANFERMIN ESPAZIOA

Arreta eta sustapen turistikoko zerbitzuak Turismo Bulegoa du, bai eta hiru egoitza espezializatu ere: Ultreia, Donejakue Bidearen Interpretazio Zentroa; espacio SanFermin Espazioa eta gotorlekuen interpretazio zentroa.

Zerbitzuak bi xede ditu: lehenik eta behin, jarduerak eta produktu turistikoak jakinarazi eta sustatzea, bai eta Iruñeko Udaleko Turismo Zerbitzuak, Nafarroako Gobernuko Turismo Departamentuak eta hiriko turismo-sektoreak garatutako programak ere; eta, bigarrenik, hiriaren komunikazio- eta sustapen-tresnak kudeatzea, hiriaren irudia eta kontakizun turistikoa finkatze aldera.

### DONEJAKUE BIDEAREN INTERPRETAZIO ZENTROA - ULTREIA

Ultreia, Iruñeko Alde Zaharraren erdigunean kokatua, DONEJAKUE BIDEAREN ZENTROA da, eta hiriaren historia eta Iruñeak Donejakue Bidearekin duen harremana aurkezten dizkigu baliabide interaktiboen eta ikus-entzunezkoen bitartez. Irisgarritasun unibertsala izateko zentroa da; beraz, publiko guztietara dago egokitua.

### SAN BARTOLOME GOTORLEKUA, IRUÑEKO GOTORLEKUEN INTERPRETAZIO ZENTROA

Iruñeko Udalak San Bartolome gotorlekua du, hau da, Iruñeko Gotorlekuen Interpretazio Zentroa. Oinarrizko gunetzat jotzen da Iruñeko produktu turistikoa egituratzeko eta, zehatzago, Iruña harresiak dira produktua dinamizatzeko. Iruñeko gotorlekuei buruzko erakusketa dauka eta Iruñeko Harresiak ibilbidearen abialekua da, bai eta Iruñeko blokeoa ihesjokoaren hasiera ere.

### SANFERMIN! ESPAZIOA

San FermIN Espazioa! Espazioa San Domingo aldapan dago, entzierroaren ibilbidearen hasieran. Sanferminei buruzko esperientziagunea da: murgiltzeko espazio bat , non irudiekin, soinuekin eta beste baliabide batzuekin jolasten baita, festan erabat murgiltzeko esperientzia sortze aldera.

Kontratua 392.203,48 euroan esleitu zaio 2024ko urtarrilaren 1ean Dinamic Imizcoz Servicios Culturales SLU enpresari, 2024ko aurrekontuari lotuta.

## BESTE HELMUGA BATZUEKIKO SINERGIAK INDARTZEA

### DONEJAKUE BIDEKO UDALERRIEN ELKARTEA

Iruñeak parte hartzen du Donejakue Bideko Udalerrien Elkarteak bultzatutako bileretan. Iruñea 2018az geroztik da elkarteko kide.

### AHOGOZATU ESPAINIA

Iruñeko Udalak elkartean parte hartzen du. Elkartearen helburua Espainiako gastronomia-produktua sustatzea da. Aurten, ez du parte hartzerik izan sare horrek proposatutako jarduerетan.

### VERA CRUZ BIDEAREN ELKARTEA

Vera Cruz bideak ia 900 km ditu. Orreagan hasten da, hau da, Frantziako Donejakue Bidearen abialekuan. Nafarroa atzean utzi eta gero, Aragoin sartu, Gaztela-Mantxa eta Valentzia gurutzatu, eta Caravaca de la Cruzen bukatzen da bidea, Murtziako Eskualdean.

Iruña ez da bertaratu elkarteak bultzatutako jarduketetan.

### SPAIN CONVENTION BUREAU

Spain Convention Bureau (SCB) toki-entitateen sare bat da eta, gaur egun, 65 biltzar-helmuga daude sarturik. 1984an eratu zen, Espainiako Udalerri eta Probintzien Federazioaren baitan, atal espezializatu gisa, Biltzar Hirien Espainiako Atala izenarekin. 2024ko maiatzaren 23an, Iruña batzar orokorrera joan zen, Sevillara.

## APARKALEKU SEGURU ETA KONTSIGNA BERRIA KALE NAGUSIKO 14AN

| Erabiltzaileak | 64 |
|---|---|
| Bonuak | 165 |

## 9.2.3 Helmuga adimena

## TURISMOAREN BEHATOKIA

Bisitariak artatzeko zentroetan arreta jaso duten bisitariei bildutako datuen arabera, aurreko urteotan izan den antzeko jarduera darakutsate. Sanfermin Espazioa! Gunearen bisitari kopurua nabarmendu behar da, soilik 6 hilabeteko jardueran 40.000 bisitari baino gehiago izan baititu. Beraz, Nafarroako turismo-gunerik bisitatuenetako bat da, Nafarroako Gobernuaren 2024ko turismo-abaguneari buruzko urteko txosteneko datuen arabera.

Turismo Bulegora iritsitako bisitari gehienak Madril, Bartzelona eta Nafarroatik etorri dira. Nazioarteari dagokionez, Frantziatik eta, gero, Herbeheretatik. Ultreia zentroan, berriz, nazioarteko turismoaren gorakada da nabarmentzekoa; estatukoak, aldiz, behera jo du nabarmen.

| TURISMO BULEGOA | 2024 | 2023 | Diferencia |
|---|---|---|---|
| Bisitari nazionalak, guztira | 51.675 | 54.302 | - 2.627 |
| Nazioarteko bisitariak, guztira | 38.118 | 35.432 | 2.686 |
| **Bisitariak, guztira** | **89.793** | **89.734** | **59** |

| DONEJAKUE BIDEAREN INTERPRETAZIO ZENTROA - ULTREIA | 2024 | 2023 | Diferencia |
|---|---|---|---|
| Bisitari nazionalak, guztira | 2.351 | 3.357 | -1.006 |
| Nazioarteko bisitariak, guztira | 3.690 | 3.479 | 211 |
| **Bisitariak, guztira** | **6.041** | **6.836** | **-795** |

| SAN BARTOLOME GOTORLEKUA | 2024 | 2023 | Diferencia |
|---|---|---|---|
| Bisitari nazionalak, guztira | 4.746 | 7.460 | -2.714 |
| Nazioarteko bisitariak, guztira | 2.523 | 2.882 | -359 |
| **Bisitariak, guztira** | **7.269** | **10.342** | **-3.073** |

| SANFERMIN! ESPAZIOA | 2024 | 2023 | Diferencia |
|---|---|---|---|
| Bisitari nazionalak, guztira | 32.041 | | |
| Nazioarteko bisitariak, guztira | 54.302 | | |
| Bisitariak, guztira | 40.146 | | |

### JESÚS ETA MARÍAREN TURISMO-ATERPETXEA

2023ko irailaren 18an, Jesús eta María udal aretoaren administrazio-emakida gauzatu da, Donejakue Bideko turismo-aterpetxe gisa kudeatu eta ustiatzeko, partaidetza irabazi-asmorik gabeko enplegu-zentro berezien, gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezien edota gizarteratze- eta laneratze-enpresen eskuetan utzita.

2024an, 17.514 erromes hartu ditu, guztira; haietariko 4.084 espainiarrak, eta 13.430, beste herrialde batzuetakoak. Espainia ondotik, Italia eta Frantzia dira nabarmentzekoak. Erromes kopurua 2023koaren oso antzekoa da. Apiril, maiatz eta irailean izan dira erromesik gehien.

### PADERBORNEKO ERROMES-ATERPETXEA

2023. urtean, aterpetxea zabalik egon da maiatzetik urrira bitarte, eta 3.112 erromesek hartu dute ostatu; hau da, 2023an baino gutxixeagok, 3.648 lagunek eman baitzuten gaua. Gehienak alemanak, eta gero, frantziarrak, espainiarrak eta italiarrak.

### AUTOKARABANA-EREMUA

2023an, 11.064 eragiketa izan dira Trinitariosko autokarabanendako eremuan. Mugimendurik handiena apiriletik irailera arte; bereziki, abuztu eta uztailean.

### TRENAREN PARKEA

2023-2024 denboraldian, Trenbidearen Adiskideen Nafarroako Elkarteak hainbat jarduera egin ditu.

Trinitariosko Trenbidearen eta Bide Berdearen Interpretazio Zentroak (Trenaren Parkea esaten zaiona) ibilbide bat eskaintzen die bisitariei barrutian dagoen zirkuituan barna bagoietan eta hainbat lokomotoretan, zenbait garaitako ibilgailuen erreprodukzioak direnak.

Parkea Trenbidearen Adiskideen Nafarroako Elkarteari esleitu zitzaion 2021eko urrian eta 2022ko ekainaren 18an ireki zen, lurzoru publikoaren kontzesio demanialean ezarritako baldintza eta epeekin bat.

2023Ko urriaren 1az geroztik, eta 2024ko irailaren 30era arte, Trenaren Parkeak 10.227 bisitari hartu ditu.

## 9.2.4 Productu turistikoak

### MICE

Turismo zerbitzuak aholkularitza-lanak egiten ditu Iruñerako biltzar-hautagaitzak aurkeztu nahi dituzten entitateendako edota hirian egitekoak liratekeen biltzarretarako. Horrez gain, zerbitzu sorta bat eskaintzen du, hala nola turistendako materialaren banaketa, PIC deskontu-txartela, deskontuan RENFEn eta bisita gidatuak hirian.
2024an, honakoak izan dira:

| | |
|---|---|
| Eskaerak | 39 |
| Bisita gidatuak | 14 |
| RENFE deskontuak | 12 |
| PIC | 9 |

Lankidetzan aritu da Iruñeko Udalak antolatutako PARJAP biltzarrarekin; maiatzaren 8tik 10era, Baluarte Biltzar Jauregian, biltzarra eta azalpen-saioak eginen dira.

Azkenean, MICE merkatua sustatzeko ekintza hauek egin dira:

**SUSTAPEN TEKNIKARIEN ALDERANTZIZKO JARDUNALDIA:**
urriaren 14an Iruñean egina, Spain Convention Bureau (SCB) erakundearekin eta Errioxarekin elkarlanean. Prestakuntza-bidaiaren helburua da Espainiak munduan dituen turismo-bulegoetako langileek Iruña helmuga ezagutu dezatela gure hiriaren sustapena egiteko. Jardunaldian 15 teknikarik parte hartu zuten.

**OSASUN TURISMOA. OSASUN-KLUSTERREAN PARTE HARTZEA**
Iruña osasuna arloko kluster-mahaian da partaide, klusterra bera sortu zenetik. 2024an, Iruñeak sustapen-bidaia bat lagundu du Best Doctors Insurance enpresako agentzia latinoamerikarrentzat eta Miamikoentzat, azaroaren 17tik 21era.

**DINAMIZAZIO-JARDUERAK**
2024 Uda
Honako jarduera hauek eskaini dira:
Familiendako jarduerak: eskaini diren jarduerek San Bartolome Gotorlekua dute ardatz, gune horren inguruan egina dagoen kontratuaren barnean daude kudeatuak.
Adeitasunezko bisita gidatuak Iruñeko hoteletan
ostatu hartutako turistendako, uztailean eta abuztuan

**SUSTAPEN-JARDUERAK**
FITUR 2024
Madrilgo FITUR azokaren hasieran, Iruña Pilotaren Munduko Hiriburua - Iruhbi Pilota proiektua aurkeztu zen, Nafarroako standaren barnean, Nafarroako Gobernuak denbora tarte bat utzi baitzion ekimena ezagutzera emateko. Proiektuak Iruñeko eta Nafarroa osoko garapen turistikoa eta ekonomikoa du xede, pilota oinarri harturik.

## 9.2.5
## Babesletzak

### NAVARTUR

NAVARTUR Summit Gastronomia Turismoaren Nazioarteko Biltzarrari esker, Iruña Gastronomia Turismoaren munduko hiriburua izan zen 2 egunez (otsailak 24 eta 25). 9 herrialdetako 20 adituk eztabaidagai izan dute nola txertatu jasangarritasuna gastronomia-turismoan, hala ekonomiari begira, nola gizarte eta kultur arloari zein ingurumenari begira.

### DONEJAKUE BIDEKO JARDUNALDIAK

Donejakue Bideko adiskideen elkarteak Donejakue Bidez sustaturiko jardunaldiak zirela eta, Udalak eltzegintza-lantegi bat babestu zuen.

### DONEJAKUE BIDEAREN EGUNA

Iruñeko Udalak eta Donejakue Bidearen Adiskideen Elkarteak ibilaldia antolatu du Bideak hirian egiten duen ibilbidean barna, bai eta arratsaldeko kontzertua ere, maiatzean egin diren Donejakue Bideko XXXV. Jardunaldiak ixteko. Motxila pertsonalizatuak eskaini ziren.

### NAFARROA, ZINEMA-LURRALDEA

Nafarroa, Zinema Lurraldea film laburren lehiaketa 2013an sortu zen. Hura proiektu berritzailea izan zen, Nafarroako turismoa zinemagintzaren bidez sustatzeko.
Kultur arloa eta lurraldearen sustapena uztarturik, eragile, instituzio eta erakundeak erantsi zaizkio ekimenari, hala publikoak nola pribatuak, eta bakoitzak bere ñabardurak, ideiak eta ikuspegia ekarri ditu, elkarlanean oinarritua dagoen eta garapen-ahalmen handia duen proiektu hau aberasteko.

## 9.2.6
## Irubhi

2024an ere, Iruña Pilotaren Munduko Hiriburua proiektuari eman zaio bultzada, tresna egokia baita euskal pilotak duen indar bultzagarria aprobetxatzeko eta, horrela, turismo-proiektu berri bat sortzeko. Azken urtean, proiektuaren inguruko jardueren artean, POCTEFA IRUHBI proiektua 2024ko urtarrilean hasi izana da nabarmentzekoa. Iruñeko Udalak gidaturik, egitasmoak euskal pilotaren inguruan mugaz bi aldeetan dagoen ondarea ustiatu nahi du turismoaren ikuspegitik. 2024an hainbat gauza landu dira, hala nola jardunbide egokien katalogoaren prestaketa, euskal pilotaren mugaz gaindiko sarea sortzeko lehen urratsak, eta proiektuaren komunikazio- eta kudeaketa-zerbitzuen kontratazioa. Euskal pilotaren inguruan ere bestelako mugarririk izan da urtean, hots, Euskal Pilotaren Interpretazio Zentroa diseinatzeko ideia-lehiaketa, zentro hori izanen baita pilotaren inguruko produktu turistikoa eraikitzeko balioetako bat. Lehiaketa abuztuan abiarazi eta azaroan ebatzi zen; 5 proiektu aukeratu ziren, hartan parte hartutako 36 arkitektura-estudioen artean.

## 9.2.7
## iruña sf365 helmugako jasangarritasun turistikoko plana (PSTD)

Iruñeak 5.492.500 euroko laguntza du eskura, hiru urtetan "Iruña SF365" Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Plana hedatu eta garatzen erabiltzeko. Plan horrek 13 jarduketatan egituratzen diren lau gai ditu ardatz: trantsizio berde eta jasangarria, energia-eraginkortasuna hobetzea, trantsizio digitala eta lehiakortasuna. Honatx 2024an garatu diren proiektuak:

### PARTAIDETZA-PLAN PAREKIDEA

2024an zehar, PSTDren partaidetza-plana mantendu da. Talde eragilea hilean behin biltzen da udalaren turismo-jarduketa kontrolatzeko eta haren jarraipena egiteko. Honatx taldekideak: Iruñeko Udala, Nafarroako Gobernua, Iruñerriko Mankomunitatea, ENICDO, ANAPEH, AEHN, Iruñeko hotelen elkartea, Alde zaharreko merkatarien elkartea eta APARTURNA.

### TURISMO PLAN ESTRATEGIKOA 2023-2029

Maiatzean onetsirik, aipatu agirian hiriko turismo-estrategia eta marketin-estrategia bildu dira. Txostenari genero-eraginari buruz egin beharreko txostena erantsi zaio.

### TURISMO-JASANGARRITASUNA HOBETZEKO EKINTZA PLANA: BIOSPHERE JASANGARRITASUN ZIURTAGIRIA

2024ko abenduan, Iruñeko Udalak Biosphere ziurtagiria jaso du Fiturren, jasangarritasunarekin duen konpromisoa aitortzeko. Ezaugarri horrek aintzat hartzen ditu Turismo Arduratsuaren Institutuaren metodologiari jarraitzen dioten helmugak, Nazio Batuetako eta Agenda 2030eko Garapen Jasangarriko 17 Helburuak baloratze aldera. Haien bidez, helmugaren gaineko azterlana egiten da, aurrez zehaztutako adierazleak oinarri harturik eta, informazio horren bitartez, jarduera eta erronka sorta bat proposatzen du bide jasangarriagoan aurrera egiteko, harik eta ziurtagiria lortu arte.

## SEKTOREA BERRITZEKO PLAN BAT ZEHAZTEA

FI GROUP enpresak lagundurik, diagnostiko bat egin eta estrategia bat zehaztu da, turismoaren sektorean berrikuntza ezartzeko. Horrez gain, prestakuntza-lantegi bat eta banakako mentoretzak garatu dira sektoreko enpresetarako.

## MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUN TURISTIKORAKO PLANA

SUMA URBAN SUSTAINABILITY CONSULTANTS enpresari eman zaio hirian irisgarritasun eta mugikortasun turistikoa hobetzeko estrategia aztertu eta garatzeko enkargua.

## SANFERMINETAKO ARTXIBO DIGITAL BATEN GARAPENA

2024ko irailean, artxiboak tratatzeko lan bat hasi zen Udaleko hainbat alorretako elementuen argazki- eta ikus-entzunezko funtsen gainean, guztiak ere turismo-jarduerari lotutakoak, interes turistikoko udal-artxibo bat sortze aldera. SEVERIANO SERVICIO MÓVIL S.A.U. Enpresari eman zaio lan hori egiten ardura.

## SANFERMINETAKO ESPERIENTZIA ZENTROA MUSEO BIHURTURIK

Bi urtez obrak egin eta gero, 2024ko ekainaren 11n, Espacio SanFermIN! Espazioa izeneko zentro berria zabaldu zen. 9 hilabetez, Arena Comunicación Audiovisual – Ostiz Sistemas Audiovisuales – Enrique Kahle Arquitectura aldi baterako enpresen batasunak esperientzia zentroa diseinatu, prestatu, hornitu, instalatu eta abian hartzeko lanak egin zituen. Zentroa Arrotxapeko Portaleko guardia-gorputz zaharrean dago.

## HIRIKO EKITALDI HANDI JASANGARRI ETA SEGURUEN NAZIOARTEKO BILTZARRA: SF365 LAB

Inernational Urban Fest 365 esaten zaio Hiriko Jai eta Ekitaldi handien Nazioarteko I. Biltzarrari. Bertan, ekitaldi handiak, jaiak eta munta handiko ekitaldiak egiten diren hiriek aurre egin beharreko erronkak aztertuko dira, dela parte-hartzaile kopuruari begira, nola estatuko eta nazioarteko hedabideetan duten inpaktu eta oihartzunari begira eta, hortaz, ekitaldi horiek horrelakoak egiten dituzten hirien irudi publikoan duten eragina. Kongresuaren esparruan, halaber, ekitaldi horien hiri-eraginei eta jasangarritasun aplikatuaren arloko esperientzia onei buruzko jardunbide egokiak aztertu ziren. Baluarte Jauregian egin zen, ekainaren 17an eta 18an, 220 lagun izena emanda zeudela.

## MICE JASANGARRIA PLAN ESTRATEGIKOA

2024an, MICE sektorearen plan estrategiko bat garatu zen, Deloitte Consulting enpresak laguntza teknikoa emanik. Lehen agiri horren ondotik, enpresak behin betiko plana prestatu beharko du. Azken fasean, planean zehaztutako neurriak gauzatu beharko dira.

## MICE JASANGARRIA: SF24 KARBONO AZTARNAREN NEURKETA

Sanfermin jaien karbono aztarna kalkulatu eta egiaztatu da, 2024an. Azterlanak bederatzi egun horietako berotegi efektuko gasen isuriak aztertuko ditu, baina baita aurreko eta ondorengo egunetan eszenatoki eta instalazioen muntatze- eta desmuntatze-lanetan, garbiketan eta hiria leheneratzekoetan sortzen direnak ere. Azterlana 2023an ere egin zen, eta emaitzak alderatzeko aukera ematen du, zer neurri zuzentzaile hartu baloratze aldera.

## KULTUR PRODUKTUKO KLUB BATEN GARAPENA

Produktu-klubak kultur jarduerak eta ondare materialari eta immaterialari lotutakoak bultzatu nahi ditu, sanferminak sustatzeari utzi gabe, urtaroen gainetik dagoen eta esperientzian sorkuntzan oinarritutako kalitatezko produktu bat eskainiz, merkatuak dibertsifikatuz, helmugaren ospe ona hobetze aldera. Magnus Gestión y Sistemas SL ari da hori gauzatzen.

## MARKETIN DIGITALEKO PLANA

2024an, marketin digitaleko plan bat garatzeko kontratua egin da, planaren bidez hobetu nahi baita Iruña markak turismo-helmuga gisa online dituen presentzia eta posizionamendua. Kontratua bost sortaz dago osatua Iruña marka sortzeko, Iruñeko Marketin Digitaleko Plana diseinatu eta gauzatzeko, turismo-web bat diseinatzeko, salmenta-plataforma bat kudeatzeko, eta argazki eta bideoen multimedia-banku bat sortzeko.

2024an, hiriaren marka eta marka turistikoa garatu dira, bai eta Pamplona-Iruña tipografia ere, eta sarrerak saltzeko plataforma berri bat sortu zen, bai eta multimedia-banku bat ere. Marketin digital turistikorako estrategia zehaztu da. Estrategia, zehazki, 2024ko abenduan hasi da, Pamplona-Iruña eta Eguberrietako kanpaina aurkeztuz.

# 9.3 Gazteria

## 9.3.1 gazteendako dirulaguntzak eta laguntzak

### DEIALDIA: EKINTZAILE GAZTEENDAKO DIRULAGUNTZAK

Dirulaguntza deialdia 60.000 euroz dago hornitua. 27 eskaera aurkeztu dira, hau da, 2023an baino % 38,64 gutxiago (44 eskaera izan baitziren). Hein batean zor zaio JEZn alta hartzeko epealdia aldatu izanari deialdian aurkezteko. Guztira, 28 enplegu sortu dira (14 gizon: % 50; 14 emakume: % 54).

Jarduera motari dagokionez, honakoak lagundu dira diruz: mandatu-zerbitzuak, jantzigintza, komunikazio-garapena, argazkia, tatuaje-estudioa, ile-apaindegia eta estetika, berrikuntzak, apainketa. etab.

### DEIALDIA: DIRULAGUNTZAK, HAUR ETA GAZTEENDAKO JARDUERAK EGITEKO

Hirugarren urtez jarraian, Iruñeko Udalak laguntzetarako deialdia egin du Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiekzioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako nahiz Berdintasuneko, Ekintza Komunitarioko, Auzoetako, Herritarren partaidetzako eta Euskarako alorren bidez, urtean zehar haur eta gazteendako jardueren urteko programak egiteko, hiriko haur eta gazteen bizi-baldintzak eta -kalitatea hobetzeko xedez. Deialdia Iruñeko irabazi-asmorik gabeko entitateei dago zuzendua eta 150.000 euroko kreditua dauka. Laguntzen xedea da erabiltzaileen parte-hartze aktiboa bultzatzen saiatzea beren ingurunerik hurbilenean, ezagutza, harremana eta bizikidetza sustatzen dituzten aisialdiko eta denbora libreko jardueren bidez; haur, nerabe eta gazteen inplikazio aktiboa sustatze aldera eta adierazpen-jarreren eta -gaitasunen garapena bultzatze aldera, bai eta sormena, autonomia, gizarte-konpromisoa edota elkartasuna ere.

Diruz lagunduko diren programak Iruñean garatu behar dira, 0-30 urteko haur eta gazteak xede harturik. Deialdian aurkeztu daitezkeen programak helburu hauetako edozeinen inguruan zedarrituko dira: hausnarketa eta sentsibilizazio-jarrerak sortzen dituzten jarduerak sustatzea hainbat balio kontuan hartuta, hala nola elkartasuna, adiskidetasuna, konpromisoa eta antzekoak. Balioak sustatzea, hala nola genero-berdintasuna, gizarte-lankidetza, errespetua, elkartasuna, elkarbizitza, gizatasun kritikoa eta kulturartekotasuna; hartzaileen parte-hartzea sustatzea, hiriko kultur, aisialdi eta denbora libreko guneetan; garapen komunitarioa eta beste kolektibo, entitate eta programa batzuekin sarean lan egitea sustatzea, auzoetako kaleetan elkarrekin egiteko jardueren bidez; jarduera irekiak metodologia partizipatiboetan oinarrituak sustatzea, xede hartuta prebentzio- eta sustapen-baliabideak finkatzea, haien ingurunearen eta komunitatearen barruan; aisialdiko eta jolaserako jarduera alternatiboak sustatzea; elkartegintza eta boluntariotza sustatzea; haurrek eta gazteek bizi-ohitura osasungarriak eskuratu ditzaten erraztea; desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea ahalbidetuko duten jarduerak sustatzea; 2030 Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuak lor daitezen sustatzea.

Edizio honetan 25 eskabide aurkeztu dira, guztira. Erakunde onuradunen artean zenbateko guztia banatu da, 150.000 €, alegia.

Hauek dira dirulaguntza jaso duten entitateak: San Juan Xar Txiki elkartea, Vª Tropa Eskaut eskaut taldea, Nafarroako Alegría Autismo Fundazioa, Dendari Izar Eskaut Taldea, Nafarroako Eskautak, Mugimendu Eskaut Katolikoa, Mikael Eskaut Taldea eskaut taldea, Guratxuri, Club Isaba gazte elkartea, Anfas, Sierra de Alaiz kluba, Jóvenes para Cristo elkartea, Hazialdea elkartea, Adardunak Haur animaziorako elkartea, Garaiz gazte elkartea, Baracea eskaut taldea, Sanduzelaiko Umetxea elkartea, Albatros kluba, Chácena gazte elkartea, Nafarroako Autismo Elkartea, Batean federazioa, Yoar Gazte elkartea, Nafarroako Eskaut Katolikoen Federazioa eta Siñar Zubi federazioa.

Proiektuak beranduenez 20234ko abenduaren 31rako gauzatu beharko dira.

### DEIALDIA: ENTSEGU-BONUAK IZENEKO DIRULAGUNTZA MUSIKA-BANDAK SUSTATZEKO

Iruñeko Udalak, Gazteria Unitatearen bitartez, urteak daramatza lan-ildo bat garatzen, Iruñeko gazteen musika-taldeei ekintza batzuen bidez laguntzeko. Ekintzetako bat da entsegu-areto musikalen erabilera erraztea gazteen musika-taldeei, horrelako zerbitzua eskaintzen duten Iruñeko eta Iruñerriko enpresetan entsegu-orduak diruz lagunduz. Guztira, 12.000 € bideratu dira 2024. urterako.

2024ko urtarrilaz geroztik, 5 musika-banda gaztek eskatu dute dirulaguntza eta, guztira, 3.600 € eman dira.

## 9.3.2 Programak

### LITERATURA LEHIAKETA

Udalak gazteendako antolatzen duen literatura lehiaketara 173 lan aurkeztu dira, 2023ko edizioan baino % 12,50 gutxiago. Horietatik 88 poesian (64 gaztelaniaz eta 24 euskaraz): 46, 14 eta 16 urte bitarteko kategorian, eta 42, 17 eta 18 urte bitarteko kategorian; narrazioari dagokionez, 85 lan aurkeztu dira (68 gaztelaniaz eta 17 euskaraz); horietatik 57, 14 eta 16 urte bitarteko kategorian, eta 28, 17 eta 18 urte bitartekoan.

2019ko edizioaz geroztik, lan sarituak webgune honetan argitaratzen dira **(https://letrajoven.pamplona.es/ ; https://letrajoven.pamplona.es/eu/ ).**

Lehiaketa 6.800 €-z hornitua dago, berdin banaturik gaztelaniazko eta euskarazko sarien artean. Guztira, 6.200 € eman dira.

## GAZTEENDAKO BERRIEMAILEAK

Gaztediaren Etxeko Gazteendako Informazio Bulegoaren mendeko Korrespontsalien Programa 1996/1997ko ikasturtetik aurrera egin da etenik gabe. Gaztediaren Etxeak eta Gazteria Unitateak abian jarri dute elkarrekin, ikasturte hasieran beti egiten duten bezala, gazte-informazioa sustatzeko programa hau ikastetxeetan, ikastetxe nagusietan, eta gazteendako, gazte-elkarteendako eta beste gaztegune batzuendako profesionaltasun-ziurtagiriak eskaintzen dituzten erakundeetan.

2023/2024ko ikasturtean izandako parte-hartzeari dagokionez, 37 ikastetxek parte hartu dute, eta guztira 74 berriemaile hautatu dira (76 ikastetxe 2022/2023 ikasturtean; % 2,63 gutxiago). 68 berriemaile saritu dira beren lana ongi egiteagatik, guztira 20.700 € emanda; eta 5 ikastetxe, beren berriemaileen lana era aktiboagoan babestegatik. Guztira, 700 € eman zaizkie txarteletan liburuekin edo eskola-materialarekin trukatzeko.

## MUSIKA-TALDEEN SUSTAPENA

### taldeen poltsa

Programak talde eta bakarlari gazteei lagundu nahi die, ekitaldi, prestakuntza, truke eta gisakoetan jotzeko aukera izan dezaten. Helburua da hiriko musika-banda gazteak sustatzea eta aukera ematea kontzertuak egin ditzaten Iruñeko elkarte eta kolektiboek antolatutako hainbat gunetan, bai eta udal-programazioan ere.

2021ean, musika arloko gazte-taldeen poltsa kudeatzeko baldintzak arautu ziren.

Gaur egun, 17 talde daude zerrendan izena emanik, hau da, 2023an baino 1 talde gehiago
Poltsako hainbat talde aritu dira hainbat ekitalditan: Hagoan Lezkairuko jaietan; Nakama Planet, DJ María López, Dúo Dídyma eta Erel eta Kuñi 2024ko sanferminetako gazte-eremuan.

### txankletak udako programa.

Iruñeko Udalak Txankletak 2024: Aktibatu zure uda programazioa antolatzen du udako hilabeteetan. Aktibatu zure uda Jarduerak eta txangoak eskaintzen dira 14 urtetik 30era bitarteko gazteendako. Guztira, aurten, 7 jarduera eta 4 txango programatu dira.

2.109 txartel trukagarri editatu dira jardueretan aritzeko, programari atxikitako espazioetan. Parte-hartzaileek 5na euro ordaindu dute bonua erosteko, salbu zinema (1 €), eguneko ateraldia eta joan-etorriak (15 €), eta musika sortzeko lantegiak, parte-hartzaileei doan eskaini zaizkielako.

Guztira, 1.095 gaztek parte hartu dute: 714 emakumek eta 381 gizonek. Hona hemen jarduerak banan-banan:

| Jarduera | Emakumeak | % Emakumeak | Gizonak | % Gizonak | Bonuak, guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Irunberriko arroilan nabigatzen | 25 | 73,53% | 9 | 26,47% | 34 |
| Irrisarri Land | 29 | 58,00% | 21 | 42,00% | 50 |
| Surfa | 25 | 62,50% | 15 | 37,50% | 40 |
| Sendaviva | 32 | 72,73% | 12 | 27,27% | 44 |
| Piraguismoa | 87 | 69,60% | 38 | 30,40% | 125 |
| Ibilbideak zaldi gainean | 93 | 74,40% | 32 | 25,60% | 125 |
| Jauziak, kirola eta akrobaziak | 87 | 69,60% | 38 | 30,40% | 125 |
| Laser tag | 74 | 59,20% | 51 | 40,80% | 125 |
| Jolas birtualak | 70 | 56,00% | 55 | 44,00% | 125 |
| Musika konposatzeko lantegiak | 9 | 56,25% | 7 | 43,75% | 16 |
| Zinema* | 183 | 63,99% | 103 | 36,01% | 1.300 |
| **OROTARA** | **714** | **65,07%** | **381** | **34,93%** | **2.109** |

Zinema*: Pertsona bakoitzak 1 - 5 bonu eros ditzake.

## SANFERMINETAKO GAZTE-EREMUA

Sanferminak ospatze aldera, gazteei zuzendutako programazioa diseinatu da; aurre-nerabeei eta nerabeei zuzendua, hain zuzen (12-17 urte), berariazko jardueren alternatiba bat eskaintzeko, biztanleria-tarte horren ezaugarri eta beharrekin bat. Aurreko urteetan bezala, programazioa uztailaren 7tik 14ra izaten da eta, horrenbestez, sanfermin osoak hartzen ditu (hilaren 6a izan ezik, egun hori berezia baita). 2023an bezala, aurten ere, Gazte Eremuaren antolaketa eta dinamizazioa kontratatu dira, Viajes Divertis 2007 SL enpresa izan da esleipenduna, eta koordinazio etengabean aritu da Gazteria Unitatearekin. Eremua bere jatorrizko kokalekura itzuli da, Foruen plazara, hain zuzen ere.

Aurreko edizioetan jasotako balorazioak hartu dira kontuan programazioa diseinatzeko. Programazioak musika, dantza, lantegiak, puzgarriak, kontzertuak eta DJak biltzen ditu. Gazte askok parte hartzen dute horiek dinamizatzen.

Edizio honetako ordutegia 19:00etatik 22:30era bitartekoa izan da, jarduerak egunero su-artifizialak baino lehen bukatuta. Ordutegi hori on eta egokitzat jotzen baita adin horretarako.

Gainera, 'Gozatu burua galdu gabe' kanpainari eman zaio jarraipena, 2022an hasitakoari; mezu horrek norberaren erantzukizuna azpimarratu nahi du jaiak modu osasuntsu eta arduratsuan bizitzeko orduan, alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoa saihestuz eta harreman afektibo-sexualak izateko beharrezkoa den segurtasuna azpimarratuz.

Hainbat euskarri erabili dira kanpaina zabaltzeko, hala nola informazio-flyerrak, eranskailuak, eskumuturrekoak eta buru erraldoi puzgarri bat, egunero gazte-eremuko jarduera-ordutegian kokatua egon zena. Horrez gain, gune seguru edo informazio etxola bat jarri da, prebentzioan ari diren elkarteek arreta emanda (Antox, Nafarroako IHESaren aurkako Batzordea, Ehgam, Secretariado Gitano eta P.I.C.A).

Aurten, guztira, 38.823 gaztek parte hartu dute Gazte Eremuan, honela banatuta:

| Eguna | Emakumeak | % Emakumeak | Gizonak | % Gizonak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Uztailak 7 | 5.832 | 60,00% | 3.888 | 40,00% | 9.720 |
| Uztailak 8 | 4.656 | 55,00% | 3.809 | 45,00% | 8.465 |
| Uztailak 9 | 2.451 | 58,01% | 1.774 | 41,99% | 4.225 |
| Uztailak 10 | 2.159 | 68,00% | 1.016 | 32,00% | 3.175 |
| Uztailak 11 | 2.200 | 61,01% | 1.406 | 38,99% | 3.606 |
| Uztailak 12 | 1.841 | 65,01% | 991 | 34,99% | 2.832 |
| Uztailak 13 | 1.512 | 40,00% | 2.268 | 60,00% | 3.780 |
| Uztailak 14 | 1.782 | 59,01% | 1.238 | 40,99% | 3.020 |
| OROTARA | **22.433** | **42,37%** | **16.390** | **30,36%** | **38.823** |

## ZINEMARAKO TXARTELAK

Urtean zehar zinemara joateko bi txartel-kanpaina egin ziren: bata, Txankletak programaren barruan (1.300 sarrera) eta bestea, Gabonetan (1.500 sarrera), espainieraz azpidatzitako jatorrizko bertsioak barne harturik. Guztira, 2.800 txartel eskaini zitzaizkien Iruñeko 14-30 urteko gazteei, zinema-sarrerekin trukatzeko. Txartel trukatuei dagokienez, udako zinema-kanpainan, 946 trukatu dira, eta Gabonetakoan, 1.061.

## IRUÑA GAZTEA KULTURA BONUA

Toki-erakundeek gazteei begira garatu behar dituzte politikak, beste alor batzuekin zeharkako proiektuak eta programak antolatuz, bizitza-proiektuak sortzeko aukera bermatze aldera, kultura funtsezko zutabea baita gizarte kritiko eta informatua sortzeko. Hori dela eta, Iruñeko Udalak Gazteria Unitatearen bidez, "Iruña gaztea kultura-bonua" abiatzeko lanean aritu da. Honatx helburuak:

- Gazteek kulturarako sarbidea izan dezaten sustatzea.
- Kultur aisialdiko aukera irisgarriak eskaintzea, baiu prezioan bai lurralde-hurbiltasunean.
- Hirian bertan kultur jarduerak sustatzea, udalerrian lehendik dauden baliabideei balioa emanez.
- Tokiko ekonomia eta kontsumoa suspertzea kulturgintzan eta sorkuntza sektorean, bai eta merkataritza txikian ere.
- Gazteek kulturarekin duten lotura indartzea, kultur esperientzien bidez eta produktuak eskuratuz, hala nola liburuak.
- Esperientzia positiboak eskaintzea, gazteek probatzeko eta esperimentatzeko aukera izan dezaten, interes pertsonalak bilatze aldera.

2.500 deskontu-bonu eskaini dira kultur jardueretan, hala nola zineman, antzerkian, liburuetan, musikan, etab., 14-30 urte bitarteko gazteentzat. Horietatik 1.038 bonu trukatu dira, honela banakatuta:

| Kultur jarduera | Uds. |
|---|---|
| Zinema | 461 |
| Antzerkia | 211 |
| Liburu-dendak | 357 |
| **Guztira** | **1.038** |

## 9.3.3 beste lan-ildo batzuk

### GENERO-IKUSPEGIA DUEN AURREKONTUA

2021eko urrian, aurrekontu publikoak genero-ikuspegiarekin lantzeko talde pilotu bat hasi zen. 2022an, taldeak lanari berreldu, lan egiteko modua aldatu zen, aurrez aurreko saioak eginez. Horrelako saioak 2023an eta 2024an ere egin dira, gainerako udal alorretara zabalduta.

Gazteriako teknikariek hasierako prestakuntzan eta ondorengo lanaren garapenean parte hartu dute. Zehazki, udalaren aurrekontu-fitxa berria izanen denaren zirriborroa egiten aritu dira, aurrez landutako fitxak egokituz. Horretarako, gazteriari eta berdintasunari buruzko datuak eta legeria aztertu behar izan dira.

Berdintasun Alorra izan da lanaren gidaria, Ogasunarekin batera, eta prozesu osoan LIKaDI enpresak eman du aholkularitza.

### GAZTERIAREN MAHAIA

2020an, gazteek parte hartzeko foro honi berreldu zitzaion. Hiriko gazte-elkarteek hartzen dute parte, bai eta gazteriarekin lotutako beste erakunde batzuek ere. Mahaiaren araudi zaharra Iruñeko Udalaren herritarren partaidetzarako erregelamendu berrira egokitzeko lanaren ondotik, 2021. urtearen hasieran Mahaiaren erregelamendu onetsi zen.

Erregelamenduak ezarri bezalaxe, karguak Udalbatza aldatzearekin batera berritzen dira lau urtean behin, herritarren eta erakundeen ordezkarien txandaketa bermatzeko. 2023aren amaieran Udalbatzan izandako aldaketen ondorioz, gobernu talde berriak Gazteriaren Mahai berriko kideak izendatzeko prozesua jarri du abian Gazteriaren Mahai berriko kideak izendatzeko, eta Udalbatzaren hurrengo aldaketara arte indarrean egonen dena.

Kide horiek izendatzeko, Gazteria Unitateak harreman-prozesu bat hasi du Erregelamenduan berariaz adierazita dauden eremu bakoitzeko erakundeekin, partaidetza-organo horretan izanen dituzten ordezkariak izenda ditzaten. Prozesu hori egin ondoren, eratze-bilera azaroaren 20an egin zen. Bertan, bozketa bidez, lehendakariordea aukeratu zen, eta Batzorde Iraunkorra osatzea onartu zen, Mahaiaren helburuak lortzeko beharrezkoak diren lanak koordinatu, antolatu eta bultzatzeko.

### III. IRUÑA GAZTEA PLANA

Iruñeko Udalak III. Iruña Gaztea Planaren prestaketa bultzatzen jarraitu du. Iruña Gaztea III. Plana gidatu zuten sei printzipio gidariei jarraikiz (zeharkakotasuna, berdintasuna, parte-hartzea eta gizarte inklusioa, jasangarritasuna, berrikuntza eta sormena, eta elkartasuna), zeinak aldi berean funtsezko bost ardatzetan eratuak baitaude (gazte emantzipatuak; gazte konprometituak; gazte parte-hartzaileak; gazte jasangarriak eta gazte aktiboak), hainbat ekintza garatu jarraitu dugu, hala udal-alorrak lantzen ari zirenak, nola aurrez partaidetzan oinarriturik egindako lanean proposatutako ekintza berriak.

### SEXU-OSASUNAREN ALDEKO KANPAINA

2018az geroztik, Gazteria Unitateak lan-ildo bat darama sexualitatea gazteekin eta gazteentzat lantzeko. Aurten egindako ekintzen artean sexu-osasunaren aldeko kanpaina da nabarmentzekoa Elkarren zaintza gozagarri izenburupean, sanferminetan burutua Ihesaren aurkako Batzordearekin batera. Kanpaina barnean, sentsibilizazio-ekintzak egiten dira, bai eta prebentzio eta hezkuntza arloko materialaren banaketa ere.

### SANFERMINETAKO MAHAIA

Aurten, Kulturako alorrak programatu dituen Sanferminetako Mahai guztietan parte hartu da unean-unean. Kolektiboekin, ordezkari politikoekin eta beste erakunde batzuekin hainbat gairen inguruan gogoeta egitea da aipatu mahaien helburua, hala nola programazioaz, lagapen-espazioez edota interes orokorreko beste kontu batzuez.

### EGUBERRIETAKO MAHAIA

Aurten, Iruñeko Udaleko Kultur Unitateak organo aholku-emaile berri bat sortu du Eguberrietako jarduerak antolatzeko, kultur programazioari, merkataritzari eta eszena-guneei lotuta dauden taldeei ahotsa emateko. Mahaia gutxienez hiru aldiz bilduko da urtean eta 40 kide ditu, hots, merkatarien elkarteak, kultur erakundeak, Eguberrietako ekitaldiak eta jaialdiak antolatzen dituzten elkarteak, bai eta udal teknikariak eta Iruñeko Udalean ordezkaritza duten talde politikoetako zinegotziak ere. Gazteria Unitateko teknikariek mahai eratzeko saioan parte hartu dute, abenduan.

### SUIZIDIOA PREBENITZEKO MAHAIA

2023aren amaieran, Iruñeko Udalak, maite duten pertsona batek bere buruaz beste egitean kaltetutakoen Besarkada-–Abrazo elkartearekin eta Itxaropenaren Telefonoarekin batera, suizidioa prebenitzeko lehen Mahaia eratu zuen, hirian suizidioaren gaiari komunitate-ikuspegitik heltzeko lanerako eta hausnarketarako gune bat.

Gobernuaren aldaketarekin, gune horri berreldu zaio, baina lan-ildo berriak ezarrita. Horrela, suizidioa Iruñean zertan den jakiteko argibidea emanen duen diagnostiko bat garatzen ari da, Besarkada-Abrazo elkartearekin batera. Diagnostikoaren bidez, udal mailan gaiaz dauden beharrak jaso nahi dira. Horretarako, lau talde kualitatibo garatu dira hainbat udal-profesionalekin batera. Beren buruaz beste egiteko borondatea agertu ahal izan duten pertsonekin zuzenean edo zeharka kontaktua eduki ahal izan duten pertsonak aukeratu dira edota babesgabetasun-faktore jakin batzuekin lan

egin dezaketelako. Gazteriako alorrak taldeetako batean parte hartu du, Gaztediaren Etxeko aholkulari psikologikoarekin batera.

**RUBIKEN KUBOAREN LEHIAKETA NAZIONALA**

Gaztediaren esparruko lan-ildoetako bat gazte-jarduerak eta -proiektuak babestea da, eta, horri dagokionez, martxoan Gaztediaren Etxean egindako Iruña Open Rubik Txapelketa babestu da. Txapelketa ofiziala da eta 64 lehiakidek parte hartu dute 18 modalitate arautuetatik 8tan. Programak izandako harrera ona kontuan hartuta, txapelketa antolatzen duten gazteekin elkarlanean jarraitzea aurreikusi da, huraxe Gaztediaren Etxean hartuz eta ekitaldia antolatzeko prozesuan lagunduz.

**EUROPAKO SPEEDCUBING TXAPELKETA**

Aurten, Europako Speedcubing Txapelketa jokatu da Iruñean, uztailaren 25etik 28ra, Navarra Arenan. Hori dela eta, Iruñeko Udalak lankidetza-hitzarmena sinatu zuen 2023ko otsailean Espainiako Speedcubing Elkartearekin, ekitaldiaren garapenean izandako beharrei erantzute aldera.

Europako Txapelketa bi urtean behin egiten den lehiaketa ofiziala da, eta Munduko Kuboaren Elkartearen (WCA) eta Rubik 's konpainiaren babesa du antolakuntzan eta ekonomian. Ekitaldiak barne hartu ditu WCAk arautzen dituen 17 speedcubing modalitateak, hau da, Rubiken kubo klasikoa, ehunka pieza dituzten kuboak, edo formaz aldatzen direnak, edo itsu-itsuan moldatzekoak. Modalitate horiek guztiak lehiaketako 4 egunetan zehar egin dira, eta 4 sailkapen txanda ere izan dira kategoria bakoitzean.

Guztira, 60 nazionalitateko 1.250 lagunek parte hartu dute. Podiumak Europako herrialdeetarako baziren ere, beste herrialde batzuetako lehiakideak ere aritu dira, hala nola Estatu Batuetako, Australiako, Txinako, Argentinako, Bangladesheko, Zeelanda Berriko, Txileko, Boliviako, Brasilgo, Indiako eta beste herrialde batzuetakoak. Nolanahi ere, Espainiako parte-hartzaileak ugarienak izan dira txapelketan, eta ondoren frantziarrak, poloniarrak eta britainiarrak. Lehiaketan, Europako hogei bat herrialdetako jokalari aritu dira.

**INTI IBILBIDEA**

Onetsi den Iruña Gaztea III. Planean, Gazteek atzerriko jardueretan parte har dezaten bultzatzea izenekoaren ildoa sartu da. Horregatik, Iruñeko bi gaztek Inti Ibilbideak antolatutako espedizio horretan parte hartzea jarduera ildo horren barnean legoke, atzerrian prestakuntza esperientziak eta esperientzia ludikoak eragitea xede harturik. Ildo horren bidez, gazteei kultura- eta mugikortasun-esperientziak bizitzeko aukera emanen dieten ekintzak bultzatu nahi dira, ekintza jasangarriak eta egungo munduan diren beste errealitate sozial, kultural, historiko eta gizatiar batzuk ezagutzeko eta haiekin harremanetan jartzeko interesa eta gogoa pizten ahalko dutenak.

Arlo horretan, irabazi-asmorik gabeko Inti Ibilbideak 2014tik honat garatzen du Inti Espedizioa jarduera, hots, mundu osoko gazteendako kultur eta gizarte programa bat da, parte-hartzaileen arteko kultura-trukea sustatzera bideratua, eta gazteak espedizioaren ingurune eta testuinguru sozialean aberastea xede harturik. Hainbat esperientziaren bidez, eta abenturaren eta bizikidetzaren bitartez, parte-hartzaileek errealitatearen gaineko ikuspegi globala eta kritikoa garatzen dute, eta bertan ere esku hartzen dute, hainbat kolektibo eta erakunderekin lankidetzan arituz, bisitatzen dituzten helmugetako boluntariotza-jardueren bidez.

2024ko espedizioak proiektuaren hamargarren urtemuga ospatu du Aztarnak hondarrean, hamargarren abentura izenburupean, eta Kanarietan eta Marokon ibili da, uztailaren 21etik abuztuaren 17ra. Helburua izan da 2014an abiarazitako bidea ixteko eta abentura berriak irekitzeko balio dezakeen istorio bat kontatzea, Inti Ibilbidearen lehen helmugara itzuliz, hau da, Marokora, bai eta Kanariar Uharteetara ere. Lurralde horiek urteotan bisitatu diren hiru kontinenteen sinkretismoa adierazten baitute: Europa, Afrika eta Amerika.

Ibilbideak Amazigh herriaren aztarnei jarraitu die, hau da, Afrika iparraldeko herririk garrantzitsuenetako bati. Espedizioak lotura handia izan du ingurumenaren gaineko kontzientziazioarekin eta bidean aurkitutako kulturak errespetatzearekin. Parte-hartzaileek, gainera, boluntariotza- eta lankidetza-lanak egin dituzte, beren harri koskorra jartzeko, 2023ko irailean gertaturiko lurrikararen ondotik. Hasieran emandako guztia itzultzeko modu txiki bat.

Iruñeko Udalak bi leku gorde ditu hiriko bi gaztek parte har dezaten. Lekuak bi pertsonari eman zaizkie, biek ere baldintzak betetzen baitzituzten, hau da, Iruñean erroldatuta egotea, espedizioaren hasieran 18-25 urte izatea, gaztelaniaz hitz egitea eta programarekin benetako konpromisoa izatea. Gainera, biek ere puntuaziorik onenarekin gainditu dute Ruta Inti elkarteak -ekimenaren arduradunak- ezarritako hautapen prozesua.

Bilera bat egin da elkartearekin, 2025eko espediziorako lankidetza berritze aldera. Helmuga Peru izanen da eta, dagoeneko, bi lekuak hartuko dituzten bi pertsona ezagutzeko hautapen-prozesua egin da. Biak ere Udalak ordainduko ditu 2024ko baldintza beretan.

## 9.3.4 Ekitaldiak eta jarduerak

**ENPLEGU AZOKAK**

2024an, Gazteria Unitateak enplegu azoka batean parte hartu du: Ikaslearen eta Enpleguaren Aretoan, martxoaren 7an eta 8an, Baluarten.

Iruñeko Udala, gainera, Gazteria Unitatearen bitartez, Navarra Jobs enplegu eta talentu azokaren laguntzailea izan da, maiatzaren 15ean, Baluarten egina.

## NIFF - ZINEMALDIA

NIFF zinemaldia 2019an sortu zen ikus-entzunezko sortzaileen balioa nabarmentzeko eta zinema soziala erdigunean jartzeko. Hori guztia ahaztu gabe kezka- eta interes-iturri diren gaiak, hala nola ingurumena eta planeta, dibertsitatea, adinekoak, feminismoa, gazteria edota gizarteratzea. Zinemaldi soziala baita, publiko guztiendako da irisgarria; hori dela eta, doakoak dira NIZZ zinemaldiaren baitan egiten diren saio, topaketa, proiekzio, mahai inguru eta ekitaldi guztiak. Bost urteko ibilbidearen ondorioz, erreferentziazko zinemaldia da bai Iruñean, bai estatuan, bai nazioartean. 2023az geroztik, gainera, Gora sarietarako zinemaldi kalifikatzailea ere bada.

Zinemaldiak zinemagile gazteen alde egiten jarraitzen du. Hori dela eta, Gazteria Unitateak ekitaldia babesten lagundu du; zehazki, irailaren 19tik 21era bitarte burutu zen Iruñean. Aurten, New Generation izeneko atala finkatu da, hau da, bost finalistaren film laburrak barne hartzen dituen saila. Lan horiek pantaila handian egon dira ikusgai zinemaldiaren barnean. Haien zuzendariek mentoretza-sari bana jaso dute Nafarroako Egoitzako zinemagileendako. Egoitza hori zinema-sorkuntzarako laborategi bat da, eta NIFF zinemaldiak akordioa egina du harekin.

Horrez gain, 14-30 urteko gazteendako lantegi bat egin da Gaztediaren Etxean 2024ko Eguberrietan, eta parte-hartzaileei erakutsi zaie nola egin mugikor edo beste tresna batzuen bidez hiru minutuko film laburrak. Guztira, 26 pertsonak parte hartu dute: 16 emakumek eta 10 gizonek.

Egiten diren film labur horiek Nafarroako Zinemaldiko CortoJoven atalean aurkeztuko dira, eta finalistak 2025eko irailean eginen den NIFF zinemaldiaren VII. edizioaren saio batean emanen dira.

## UDAKO EUROPAR IKASTAROAK

Abuztuaren 26an, 27an eta 28an, Udako Europar Ikastaroen seigarren edizioa egin da Iruñean, Europa Berritua izenburupean. Informazioa emateaz gain, ikastaroen xedea eztabaida sortzea da Europar Batasunari bere osoan eragiten dizkioten gaurkotasuneko gaien inguruan. Ekimenaren xede nagusia da Iruña erreferentziazko eztabaidagune bat bihurtzea EBri buruz eta haren berehalako etorkizunari buruz. Diario de Navarra Fundazioa eta Equipo Europa dira ikastaroen antolatzaileak; azken hori Espainiako gazte europazaleen elkarterik handiena da, 3.700etik gora bazkide baititu.

2024ko Europako hauteskundeen emaitzak, Europar Batasuna handitzea edota adimen artifizialaren arauketa izan dira, besteak beste, seigarren edizioan jorratu diren gai nagusietako batzuk. Honatx gonbidatuetako batzuk: Serhii Pohoreltsev, Ukrainak Espainian duen enbaxadorea; Enrique Barón, Europako Legebiltzarreko lehendakari ohia; Joaquín Almunia, Europako Batzordeko lehendakariorde ohia; Judith Arnal, Espainiako Bankuko kontseilaria edo Fabian Huttner, Bundes-Bankek Espainian duen ordezkaria.

Iruñeko Udalak interesekotzat jo du ekimena antolatzen eta sustatzen laguntzea eta, horretarako, publizitate-babesletza bat kontratatu du, Iruña nazioarteko ikastaro batzuen erdigune gisa sustatze aldera. Azken buruan, hiriaren irudia kanpoaldean zabaltzeko koordinazioa eta gainbegirada egin da, Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiekzioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako alorraren eskumenen baitan.

## InVISIBLES

InVISIBLES Emma Larretaren proiektua da. Izan ere, genero-indarkeriaren biktima da eta eszena-arteei lotutakoa izanik, muturreko esperientzia mingarri hori baliatu du ikusizko proiektu bat ontzeko. Hartan, Emmak berak esperientzia guztia aurkeztu eta garatzen du publikoaren aurrean.

Lehenik, Ama-das izeneko dokumentalaren sekuentzia bat erakusten da, genero-indarkeriaren biktimak eta Emma bera direla protagonista. Gero, protagonistaren testigantza bera aurkeztu eta, bukatzeko, lantegi moldeko solasaldi irekia egiten da. Asmoa da genero-indarkeria -gaitz larri hori- azaltzea, helburu argi eta zuzena lortzeko: publikoarengan eragitea gogoeta-guneak erdiesteko eta gizartea eta gure emozioak egoera horien aurrean ez lokartzeko. Proiekzioa eta lantegia azaroan antolatu dira Gaztediaren Etxean, hainbat programazioren barnean, genero-indarkeriaren inguruan gazte jendearekin hausnartzeko.

## ATRAPADANCE

Aurten ere egin da Iruñean (urriaren 14tik 19ra)"Festival Atrapa-2" jaialdia, hau da, Nafarroako Hiri Arte eta Kulturaren Jaialdia, "Va de Kultura" elkarteak antolatua. Jaialdiak hiri-kulturari eta -arteari eman nahi die balioa, publiko mota guztiengana hurbilduz. Errotik jartzen dute dena zalantzan, hiri-kulturarekin eta -artearekin zerikusia duen guztia arakatzeko asmoz. Jaialdiaren barruan, Atrapadance jaialdia antolatu da Iruñeko Basotxoan, hiri-dantzan dagoen aberastasun handia, estilo guztiak eta kalitatea erakusteko: komertziala, hip hopa, krump, k-popa, dance hall edo twerk. Aurten, gainera, Breaking eta Vogue estiloak landu dira bereziki, eta ardatz izan dira baita Atrapadancetik kanpo ere.

Azken urteotan, gero eta gazte iruindar gehiago ari da parte hartzen estilo horietako dantza-taldeetan. Gaztediaren Etxean, gaur egun badira 30 talde egonkor baino gehiago, 5-10 lagunek osatuak, eta batez beste, 5 orduz aritzen dira astean entseguak egiten. Gainera, hiruhilekoan behingo programazioetan, hainbat estilo ikasteko ikastaroak eskaintzen dira (K-popa, afrodance edo dancehall), 20-25 gaztek parte hartuta ikastaro bakoitzean, bai eta irakasle aditu banak ere. Gaztediaren Etxean ari diren talde guztiek eta irakasleek gonbidapena jaso dute Atrapadance jaialdian parte hartzera; urriaren 19ko erakustaldietan, hain zuzen ere.

Hori dela eta, Udalak interesekotzat jo du jaialdiarekin lankidetzan aritzea Alorraren helburuak lortze aldera, gazteei dagokien atalean: hots, gazteen artean kultur sorkuntza sustatzea, bai eta topaketak ere, sareak ehuntzeko, Iruña gaztea III. Planaren 4. ardatzean (Gazteria Aktiboa) jasotakoarekin bat.

### LAU HAIZETARA

Lau Haizetara, Batera Aske kooperatibak ondua, dibertsitate funtzionala duten gazteen beharretan sakontzeko pentsatua dagoen ekimena da, kultura nola eskuratu jorratze aldera. Entretenimendurako eta heziketarako gune segurua eskaini nahi dute dibertsitate funtzionala eta/edo intelektuala duten gazteendako. Izan ere, artearen eta hezkuntza-berrikuntzaren bidez, ongizatea, gozamena eta sozializazioa sustatzen baitira. Proposamenaren barnean bada lantegietan ikasitakoa erakusteko sormen-saio bat eta mahai inguru bat senideendako, dibertsitate funtzionala duten gazte iruindarren eta senideen behar nagusiez aritzeko, aisiarako aukerei eta kultura eskuratzeari dagokienez. Bi orduko saio bat egin da azaroan, mugimendua eta sormena izenekoa, eta beste hiru saio ere azaro eta abenduan, osatua dagoen taldearekin. Guztiak ere larunbatetan egin dira Gaztediaren Etxean.

### NAFARROAKO GAZTERIAREN INSTITUTUA

Gaztediaren Etxeko kudeaketa-taldeak eta udal-teknikarien taldeak Nafarroako Gazteriaren Institutuaren prestakuntza-jardueretan, koordinazio-bileretan eta lan teknikoko mahai berariazkoetan parte hartzen dute.

Halaber, Gazteria Unitateak Nafarroako Gazteriaren Institutuaren bi dirulaguntza hauetan hartu du parte: Toki-erakundeendako dirulaguntza, Gazteendako Programak garatzeko 2024 eta Toki entitateetako gazte informazio zerbitzuak laguntzeko dirulaguntza, langileendako eta ekipamendua erosteko, 2024.

### UNITATEAREN EBAZPENAK

Unitateak, 2024an, 88 ebazpen eman ditu, guztira. Haietatik, 10 Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiei dagozkie; 15, Alkatetzaren Ebazpenei; 20, egungo zinegotzigo ordezkariaren ebazpenei, eta, azkenik, 43, Zuzendaritzako ebazpenei. Ebazpenen izaerari dagokionez, haietariko 12 kontratuak izan dira; 15, dirulaguntzei eta lehiaketei dagozkie; 56, fakturazioak izan dira eta, azkenik, 5, kontzeptu honi edo hari dagozkie.

## IRUÑEKO GAZTERIA ETXEA

| | 2023 | 2024 | Aldaketa | Portzentajea |
|---|---|---|---|---|
| | | Erabiltzaileak | | |
| zerbitzuak, guztira | 74.140 | 73.644 | -496 | -0,67 % |
| | | Jarduera kop. | | |
| | 74.140 | 73.644 | -496 | -0,67 % |

Cómputo global de personas usuarias de la Casa de la Juventud



| Informazio Zerbituak | Erabiltzaileak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | 2023 | | 2024 | | Aldaketa |
| | Total | % sexuaren arabera | Total | % sexuaren arabera | |
| Gazteendako Informazio Bulegoa | 8.119 | H: 3.277 (40%)<br>M: 4.842 (60%) | 9.437 | H: 3.699 (39%)<br>M: 5.738 (61%) | +16 % |
| Aholkularitza Juridikoa | 889 | H: 436 (49%)<br>M: 453 (51%) | 868 | H: 425 (49%)<br>M: 443 (51%) | -2 % |
| Gazte Elkartegintzari buruzko aholkularitza | 443 | -<br>- | 464 | -<br>- | +5 % |
| Gazte-ekintzaileetzarako aholkularitza | 145 | H: 71 (49%)<br>M: 74 (51%) | 147 | H: 74 (50,34%)<br>M: 73 (49,66%) | +1 % |
| Aholkularitza Psikologikoa | 303 | H: 136 (45%)<br>M: 167 (55%) | 427 | H: 218 (51%)<br>M: 209 (49%) | +41 % |
| Ikasketen, irtenbide profesionalen, aisiaren eta denbora librearen inguruko aholkularitza | 360 | H: 172 (48%)<br>M: 188 (52%) | 374 | H: 205 (55%)<br>M: 169 (45%) | +4 % |
| Bidaiategia | 64 | -<br>- | 57 | H: 22 (39%)<br>M: 35 (61%) | -11 % |
| Boluntarioendako Argibide Bulegoa. | 487 | -<br>- | 494 | H: 193 (39%)<br>M: 301 (61%) | +1 % |
| Hau zure etxea da bisita gidatuak | 340 | - | 312 | H: 120 (38%)<br>M: 192 (62%) | -8 % |
| **Totales** | **11.150** | | **12.580** | | **+13 %** |

| ARETOEN LAGAPENA | Erabiltzaileak | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2023 | 2024 | | Aldaketa |
| Aretoak lagatzea, eskaera iraunkorrak | 29.850 | 22.724 | | -24 % |
| Aretoak lagatzea, noizbehinkako eskaerak | 9.684 | 10.126 | | +5 % |
| Ikasketa-gela | 8.412 | 11.546 | H: 4.770 (41%)<br>M: 6.776 (59%) | +37 % |
| **GUZTIRA** | **47.946** | **44.396** | | **-7 %** |

| Cesión de espacios | Erabiltzaileak | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2023 | 2024 | | Aldaketa |
| Ikastaroetako parte-hartzaileak | 1.473 | 1.785 | H: 301 (17%)<br>M: 1.484 (83%) | +21 % |
| Informatika-lantegi irekiak | 397 | 454 | H: 323 (71%)<br>M: 131 (29%) | +14 % |
| **GUZTIRA** | **1.870** | **2.239** | H: 624 (28%)<br>M: 1.615 (72%) | **+20 %** |

| Gizarte eta Kultura | Erabiltzaileak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | 2023 | | 2024 | | Aldaketa |
| | Total | % sexuaren arabera | Total | % sexuaren arabera | |
| Kultur jarduerak | 4.351 | H: 1.695 (39%)<br>M: 2.656 (61%) | 3.740 | H: 1.359 (36%)<br>M: 2.381 (64%) | -14% |
| Erakusketak | 1.109 | - | 1.364 | H: 658 (48%)<br>M: 706 (52%) | 23% |
| Aisia larunbatak | 1.046 | H: 586 (56%)<br>M: 460 (44%) | 1.240 | H: 759 (61%)<br>M: 481 (39%) | 19% |
| Gazte-taldeen jarduerak: Antolatu zure ekitaldia | 1.558 | H: 738 (47%)<br>M: 820 (53%) | 2.448 | H: 1.234 (50,40%)<br>M: 1.214 (49,59%) | 57% |
| Kafehartzen kafetegia dinamizatzeko jarduerak | 882 | H: 562 (64 %)<br>M: 320 (36%) | 1.070 | H: 575 (54%)<br>M: 495 (46%) | 21% |
| Beste jarduera batzuk | 1.086 | H: 498 (46%)<br>M: 588 (54%) | 1.402 | H: 666 (48%)<br>M: 736 (52%) | 29% |
| **Totales** | **10.032** | | **11.264** | **H: 5.251 (47%)**<br>**M: 6.013 (53%)** | **12%** |

| Jarduerak | Jarduera Kopurua | | |
|---|---|---|---|
| | 2023 | 2024 | Aldaketa |
| Cursos de ocio y tiempo libre | 94 | 108 | +15 % |
| Talleres gratuitos de informática | 40 | 42 | +5 % |
| Actos del Servicio de programación | 128 | 126 | -2 % |
| Exposiciones | 10 | 10 | - |
| Sábados de ocio | 10 | 10 | - |
| Actividades de grupos juveniles “Monta tu evento” | 33 | 43 | +30 % |
| Actividades dinamización cafetería “Cafeteando” | 126 | 148 | +17 % |
| Otras actividades | 21 | 37 | +76 % |
| **Total** | **462** | **524** | **+13 %** |



21% Cursos de ocio y tiempo libre
8% Talleres gratuitos de informática
24% Actos de Servicio de Programación
2% Exposiciones
2% Sesiones de sábados de ocio
8% Cafeteando
28% Actos de asociaciones juveniles "Monta tu evento"
21% Otras actividades

| Zibergunea | Erabiltzaileak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | 2023 | | 2024 | | Aldaketa |
| | Total | % sexuaren arabera | Total | % sexuaren arabera | |
| Ciberaula e Iruña Gaztemaker | 3.142 | H: 2.795 (89 %)<br>M: 347 (11 %) | 3.165 | H: 2.777 (88%)<br>M: 388 (12%) | +1 % |
| **Totales** | **3.142** | | **3.165** | | **+1 %** |



17% Servicios de información
60% Cesión de espacios
3% Programación formativa
15% Eventos socioculturales
5% Ciberaula / Iruña Gaztemaker

# 9.4 Garapenerako lankidetza

Iruñeko Udalak **Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programa** bat du 1996az geroztik, herrialde pobreenetako edo Hegoko Herrialdeetako komunitateei laguntze aldera.

Urtero, Udalak diru-partida bat bideratzen du programa horretara, eta 2024an, 1.677.904,18 eurokoa izan zen, hau da, aurrekontu guztiaren **% 0,63.** Horrek esan nahi du ez zela lortu Nazio Batuen Erakundeak garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzara bideratzea gomendatzen duen gutxieneko ehunekoa. Ehuneko horretara iristeko konpromisoa Udalaren Lankidetzarako 2022-2025eko II. Plan Zuzentzailean dago jasoa, bai eta Udala gobernatzen duten alderdien programetan ere, Nazio Batuen ebazpenarekin bat, Udalak bere egindakoa. Horrenbestez, 7,93 euroko ekarpena egin zen urteko Iruñeko biztanle bakoitzeko.

Txosten honen oinarrian dago Iruñeko Udalak garapenerako lankidetzarako eta nazioarteko elkartasunerako eragile aktibo gisa duen eginkizunaren berri emateko beharra. Horretarako, 2024an garatutako lan-ildoak biltzen saiatu gara eta, era berean, programaren inguruko gogoeta batzuk ematen, hau da, aurrerapausoak eta gabeziak, haren jarduna bideratu eta hobetzeko balioko dutelakoan.

## DIRULAGUNTZA-DEIALDIEN ETA LANKIDETZA-HITZARMENEN LABURPENA

### 1. GGKEentzako dirulaguntza-deialdia, unean uneko sentsibilizazio-jarduerak egiteko

- Deialdiaren oinarriak: RPC 12-JUN-24 (1/PC)
- Ebazpena: RPC 15-OCT-24 (1/PC)
- **Aurkeztutako proiektuak: 5. Finantzatutako proiektuak: 4**
- Finantzatutako proiektuen zerrenda:

| Kodea | ONGD | Proiektua | Dirulaguntza |
|---|---|---|---|
| 24-01APS | ZABALDI ELKARTASUNAREN ETXEA | Lurraren defentsa, desplazamendu behartuen eta lurraren okupazioaren aurrean | 2.000 € |
| 24-02APS | FUNDACIÓN AGUA DE COCO | MUSIKARA PROJET, Madagaskarreko musika eta dantza | 2.000 € |
| 24-04APS | MADRE CORAJE | Zure kamisetaren bidaia sentitzen | 2.000 € |
| 24-05APS | FUNDACION IÑAKI OCHOA DE OLZA-SOS HIMALAYA | 15 URTEZ BIDE BERRIAK URRATZEN NEPALEN | 2.000 € |
| **Guztira** | **4 proiektu finantzatu dira** | | **8.000 €** |

### 2. CGGKEentzako dirulaguntza-deialdia, garapenaren aldeko sentsibilizazio- eta hezkuntza-proiektuak gauzatzeko

- Deialdiaren oinarriak: RPC 14-ABR-24 (1/PC)
- Ebazpena: RPC 24-SEP-24 (1/PC)
- Funtsak handitzeko ebazpena: RPC 18-SEP-24 (6/PC)
- Aurkeztutako proiektuak: 13. Finantzatutako proiektuak: 9
- Finantzatutako proiektuen zerrenda:

| Kodea | ONGD | Proiektua | Dirulaguntza |
|---|---|---|---|
| 24-01 PAM | FUNDACIÓN TAU FUNDAZIOA | Saharaz hegoaldean. Afrika ezinbestekoa. 24 edizioa | 8.000,00 € |
| 24-02 PAM | ONAY | Denok gara herritartasun globala II. fasea | 10.000,00 € |
| 24-04 PAM | ZABALDI ELKARTUNASAREN ETXEA | Lurraren defentsa baliabideen arpilatzearen aurrean | 10.000,00 € |
| 24-05 PAM | MEDICOS DEL MUNDO | CRISIS (IN) VISIBLES / KRISI IKUS (EZ)INAK | 8.500,00 € |
| 24-06 PAM | ASOCIACIÓN REAS NAVARRA | Ekonomia solidarioari buruzko XVII. jardunaldiak | 9.945,46 € |
| 24-09 PAM | MEDICUS MUNDI NAM | GAZTEAK ETA HEZKUNTZA EZ FORMALA 2024 | 10.000,00 € |
| 24-10 PAM | SETEM NAFARROA | BALIO GURPILA, gizartea eraldatzeko hezkuntza kritikoa II | 10.000,00 € |
| 24-11 PAM | FUNDACIÓN RODE | Eginkizuna: edateko ura, eskubide unibertsala. Ur eskasiaren ondorioak Bolis Kostan | 8.500,00 € |
| 24-12 PAM | FUNDACIÓN PROCLADE YANAPAI | Klima-krisiak, Giza Eskubideetatik | 8,440,42 € |
| **Guztira** | **9 proiektu finantzatu dira** | | **83.385,88€** |

### 3. Garapenaren eta Herritartasun Globalaren aldeko hezkuntza-proiektuak egiteko dirulaguntza-deialdia GGKEentzako

- Deialdiaren oinarriak: RPC 11-ABR-24 (2/PC)
- Ebazpena: RSD 19-OCT-24 (4SD)
- **Aurkeztutako proiektuak: 3; Finantzatutako proiektuak: 2**
- Finantzatutako proiektuen zerrenda:

| Kodea | ONGD | Proiektua | Dirulaguntza |
|---|---|---|---|
| 24-01EDCG | MUGARIK GABE NAFARROA ELKARTEA | Tejiendo solidaridad - Auzotik mundura | 30.000 € |
| 24-03EDCG | Navarra Nuevo Futuro elkartea | Gazteal+Sociales. Experiencias Solidarias 2024-2027 | 30.000 € |
| **Guztira** | **2 proiektu finantzatu dira** | | **60.000 €** |

### 4. Lankidetza-hitzarmena Nafarroako GGKEen Koordinakundearekin (GGKEK)

- Ebazpenak: RPC 25-OCT-24 (1/PC) onespena eta RPC 15-NOV-24 (1/PC) ordainketa
- Onartutako hitzarmenen zerrenda::

| GGKE | Proiektua | Dirulaguntza |
|---|---|---|
| Nafarroako GGKEen koordinakundea | Informazioa eta koordinazioa 2024 | 36.000 € |
| **Guztira: 1 proiektu finantzatu da** | | **36.000 €** |

### 5. Dirulaguntza-deialdia, Hegoaldeko Herrialdeetako Toki-erakundeekin Lankidetza proiektuak gauzatzeko

- Deialdiaren oinarriak: RPC 3-JUN-24 (1/PC)
- Ebazpenak: RPC 09-OCT-24 (1/PC) eta RPC 04-NOV-24 (1/PC)
- A modalitatea: 2024ko deialdian aurkeztutako proiektuak: 3. Finantzatutako proiektuak: 1
- B modalitatea: 2024ko deialdian jarraipena duten proiektuak: 2. Finantzatutako proiektuak 1

| Kodea | ONGD | Proiektua | Helmuga | Dirulaguntza |
|---|---|---|---|---|
| **A modalitatea: Proiektu berriak:** | | | | |
| 24-01 ESUR SAH | ATTSF | Tokiko ura baliatzeko sistema bat diseinatu eta abian jartzea Auserd-eko wilayan, errefuxiatu sahararren kanpamenduetan | SÁHARA | 60.000 € |
| **B modalitatea: Jarraitasun-proiektuak** | | | | |
| 24-02 ESUR BOL | MEDICUS MUNDI NAM | Elikagaien bidez kutsatzen diren gaixotasunak artatzea Llallaguan (Bolivia). | BOLIVIA | 60.000 € |
| **Total** | **Guztira: 2 proiektu finantzatu dira** | | | **120.000 €** |

### 6. Dirulaguntzak emateko urteko deialdia, Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetza proiektuak gauzatze aldera

- Deialdiaren oinarriak: RPC 5-JUL-2024 (1/PC)
- Ebazpenak: RAL 19-NOV-24 (2/PC) eta RPC 16-DIC-24 (1PC)
- Aurkeztutako proiektuak: 38. Finantzatutako proiektuak: 34
- Finantzatutako proiektuen zerrenda:

| Kodea | ONGD | Izenburua | Herrialdea | Dirulaguntza |
|---|---|---|---|---|
| 24-01ELS | ASOCIACIO CATALANA D`ENGINYERIA SENSE FRONTERES ELKARTEA | Ekonomia eta ekoizpen arloko krisiak kaltetutako nekazari-familien elikadura-segurtasuna hobetzea, emakume antolatuak ardatz harturik, El Salvadorko Panchimalco udalerrian. | | 30.829,45 € |
| 24-02MAU | UNICEF-COMITÉ ESPAÑOL FUNDAZIOA | Erakundeak eta komunitateak indartzen, Mauritaniako malnutrizioari erantzun egokia ematea sustatzeko, komunikazio-osagai berritzaileen bidez. | Mauritania | 28.548,60 |
| 24-03ELS | FELIPE RINALDI FUNDAZIOA | Berdintasunean bizitzen ikasten, ikastetxe eta komunitateendako eredu berria Sonsonate Departamentuan. III. Fasea, finkapena eta handitzea. | El Salvador | 30.829,45 € |
| 24-04NIG | REMAR ESPAÑA | Aurrerapenerako ahalduntzea: Enplegagarritasuna, ekintzailetza eta elikadura-segurtasuna berdintasunean bultzatzen Gueliel herrixkan, Niger. | Nigeria | 31.772,13 € |
| 24-05SEN | NAVARRA NUEVO FUTURO ELKARTEA | Kaleko haurrak gizarteratzea eta babes komunitarioko bitartekoak sendotzea. | Senegal | 32.452,05 € |

| Kodea | ONGD | Izenburua | Herrialdea | Dirulaguntza |
|---|---|---|---|---|
| 24-06IND | ALBOAN FUNDAZIOA | Emakume errefuxiatuak Sri Lankan, India hegoaldean: enplegurako eta tokian gizarteratzeko hezkuntza, beregainak izateko eta ahalduntzeko, II. Fasea. | India | 29.206,85 € |
| 24-07ELS | ONAY | Tacuba osasuntsu eta segurua | El Salvador | 30.829,45 € |
| 24-09CHA | ESPAÑA CON ACNUR ELKARTEA | Edateko ura eta saneamendua Txaden errefuxiatuak dauden Sudango herritarrentzat | Chad | 29.206,85 € |
| 24-10SAH | MGLTE (MUGARIK GABEKO LANGILE ETA TEKNIKARIEN ELKARTEA) | Ura, elikagaiak eta saneamendua eskuratzeko logistika Saharako errefuxiatuendako. | Sáhara | 32.452,05 € |
| 24-11COL | PROYECTO ACI SOLIDARIO (PROACIS) FUNDAZIOA | Emakume, haur, gazte eta desgaitasuna duten pertsonendako laguntza integrala. FSRM. | Colombia | 27.901,07 € |
| 24-12GUA | MUGARIK GABE ELKARTEA | Ura eta berdintasunezko parte-hartzea garapenerako | Guatemala | 30.829,45 € |
| 24-13ELS | EL SALVADOR ELKARTASUNA KOLEKTIBOA | Osasuna, ura eta ingurumena berdintasunez eskuratzea, eta generoan oinarritutako indarkeriari aurrea hartzea. | | 30.829,45 € |
| 24-14BOL | TAU FUNDAZIOA | Industria eta merkataritza sendotzea COMULASIn | Bolivia | 32.452,05 € |
| 24-15COL | NAZIOARTEKO BAKE BRIGADAK | Bakerako aurrerapenak aldeztea: Kolonbian giza eskubideen alde ari diren pertsonen, erakundeen eta komunitateen lan-guneak babestea | | 29.206,81 € |
| 24-16BOL | MANOS UNIDAS | Nekazaritza- eta fruta-ekoizpeneko sistemak hobetzea, familien elikadura-segurtasuna bermatzeko eta Ckara Ckara barrutiko nekazarien garapen ekonomikoa sustatzeko, Cotagaita udalerrian (II. Fasea). | Bolivia | 32.452,05 € |
| 24-17ARG | SETEM NAFARROA | Emakume berriak, indarkeriarik gabe | Argentina | 28.836,34 € |
| 24-18MOZ | MADRE CORAJE FUNDAZIOA | Partaidetzazko hezkuntza: Inklusioa, neskatoen ahalduntzea eta gizarte eraldakuntza Chilaulenen. | Mozambique | 30.829,45 € |
| 24-19RWA | VITA ET PAX IN CRISTO CURIA GENERAL ERAKUNDEA | Malnutrizioaren aurkako borroka | Ruanda | 30.829,45 € |
| 24-20CAM | BENITO MENNI FUNDAZIOA | Yaundéko eta inguruetako kaleetan (Kamerun) bizi den jendearen buru osasuna hobetzea. | Camerún | 28.523,11 € |
| 24-22MEX | EMAKUMEAK SAREAN ELKARTEA | Indarkeriarik gabeko emakume berriak, Chiapas, Mexiko | | 30.829,45 € |
| 24-23NIC | INFANCIA SIN FRONTERAS ELKARTEA | Haur osasunerako zerbitzuak | Nicaragua | 30.784,83 € |
| 24-24BEN | JUAN CIUDAD FUNDAZIOA | Porgako Saint Jean de Dieu ospitalearen eraginpeko eremuetako landaguneetan bizi den jendearen osasun eskubidea bermatzen, Atacorako departamentuan (Benin), emakume eta haurrengan arreta berezita jarrita. | Benín | 23.256,32 € |
| 24-25BOL | FABRE FUNDAZIOA | Edateko ura eskuratzea jende guztiarentzat, era ekitatibo eta jasangarrian, Madrecita komunitatean. | Bolivia | 30.829,45 € |
| 24-27SEN | GKE GARAPENERAKO LAGUNTZA | Ekitatea eta garapena Ndokh-en | Senegal | 28.569,23 € |
| 24-28TAN | ESPAINIAKO GURUTZE GORRIA | Jaio aurreko osasun eskubidea bermatzea, bai eta amen eta haurrena ere, nutrizio-maila egokiak barne, Uvinza DCko barrutian (Kigoma, Tanzania). | Tanzania | 32.452,05 € |
| 24-29CON | PROCLADE YANAPAI FUNDAZIOA | Edate ura ateratzeko putzu bat egitea Kasumbalesan (Kongoko E.D.) | R.D. Congo | 30.829,45 € |
| 24-30PER | INTERES SOZIALEKO IKASKUNTZEN ETA JARDUEREN FUNDAZIOA | Ur segurua Pichihuarako. | Perú | 30.829,45 € |
| 24-32TAN | INT. SOLID. COMP. MARÍA FUNDAZIOA | Lehen Hezkuntzako eskola egitea, ekipamendua eta irakasleen nahiz gurasoen trebakuntza, Bangulo-llala, Tanzania. | | 32.451,12 € |
| 24-33RWA | MEDICUS MUNDI NAM | Osasun integrala eta generoa. 1. urtea. | Ruanda | 31.442,04 € |
| 24-34DOM | ASAMBLEA COOPERACIÓN POR LA PAZ | Migranteen eta aberrigabeen giza eskubideak sendotzea, bereziki emakumeak eta haurrak lagunduz, Dominkar Errepublika-Haiti mugan. | República Dominicana | 29.206,85 € |
| 24-35ELS | GARABIDE KULTUR ELKARTEA | Náhuat sehaskak sendotu eta hedatzea. | El Salvador | 29.206,85 € |
| 24-36MAD | AGUA DE COCO FUNDAZIOA | Gizarte eta hezkuntza arloko arreta lan-esplotazioan erortzeko arriskuan dauden adingabeei, bereziki Antsohamadiroko neskatoengan eraginez. 2024-2025 ikasturtea. | Madagascar | 32.452,05 € |
| 24-37UGA | ARUA ELKARTASUNA ELKARTEA | Langeti proiektu integratua. | Uganda | 32.452,05 € |
| 24-38TPO | SODEPAZ | Preso politiko palestinarren eskubideak bermatzea, arreta berezia emakume preso ohiengan. | Palestina | 29.206,85 € |
| **GUZTIRA** | **34 PROIEKTU** | | | **1.033.614,13€** |

## 7. Dirulaguntza-deialdia larrialdiko giza jarduketetarako

- Deialdiaren oinarriak: RPC 16-JUL-2024 (1/PC)
- Ebazpenak: RPC 18-SEP-24 (1/PC), RPC 18-SEP-24 (2/PC), RPC 18-SEP-24 (3/PC), RPC 18-SEP-24 (4/PC), RPC 18-SEP-24 (5/PC), RPC 21-NOV-24 (1/PC).
- **Aurkeztutako proiektuak: 11. Finantzatutako proiektuak: 8**
- Finantzatutako proiektuen zerrenda:

| Kodea | ONGD | Proiektua | Helmuga | |
|---|---|---|---|---|
| 24-01AHE TPO | FUNDACION TAU FUNDAZIOA | Etxe kalteberak birgaitzea | TPO | 15.000 € |
| 24-02AHE SAH | MUGARIK GABEKO LANGILE ETA TEKNIKARIEN ELKARTEA | Ura eskuratzeko ibilgailuak | Sahara | 15.000 € |
| 24-03AHE SAH | RASDen LAGUNEN NAFARROAKO ELKARTEA | Haurrendako esnea haur sahararrendako | Sahara | 15.000 € |
| 24-04AHE CHA | ESPAÑA CON ACNUR ELKARTEA | Sudan larrialdia: Txaden errefuxiatua dagoen jendea artatzea | Txad | 15.000 € |
| 24-06AHE ELS | EL SALVADOR ELKARTASUNA KOLEKTIBOA | Larrialdia zikloi tropikalagatik | El Salvador | 15.000 € |
| 24-08AHE PER | MADRE CORAJE FUNDAZIOA | Erresilientzia komunitarioa sendotzea, lur-irristatzeak direla-eta, Lonya Grandeko El Porvenir auzoan, Amazonas | Peru | 15.000 € |
| 24-09AHE TPO | MUNDUKO MEDIKUAK ELKARTEA | Giza laguntza Gazan | TPO | 15.000 € |
| 24-10AHE LIB | UNICEF | Giza erantzuna Libanon. | Líbano | 15.000 € |
| | **Guztira: 8 proiektu finantzatu dira** | | | **120.000 €** |

## 8. Partaidetza Nafarroako lankidetzarako toki funtsean (NUKF)

**Nafarroako Toki Funtsa Garapenerako Lankidetzarako (NUKF). 2024. urtea**

| GGKE | Proiektuaren izena | Herrialdea |
|---|---|---|
| Acnur | Edateko ura eta saneamendua Txaden errefuxiatuak dauden Sudango herritarrentzat | Txad |
| Arcores | Haurren lehen hezkuntza sustatzea Bamoiko landa-eskolan | Sierra Leona |
| Manos Unidas | Elikadura-burujabetza, natur baliabideen gobernantza jasangarriaren bidez, genero-ikuspegia kontuan harturik, Ndiob komunitatean. | Senegal |
| VIC Fundazioa (Vedruna Intercontinental Comunion) | Vedrunako osasun etxeko ekipamendua hobetzea. | Kongoko Errepublika |
| UNICEF - Nafarroako Batzordea | Bermatzea bai saneamendu-azpiegituretarako sarbidea, bai ezagutzak ingurumen-jasangarritasunean, Bissau Gineako eskola eta komunitateetan. | Bissau Ginea |
| Rode Fundazioa | Edateko ur-hornidura eguzki-energiaren bidez hobetzea Pitiké eta Kablaké garatzeko. | Boli Kosta |
| Corazonistas Fundazioa | Hezkuntza-azpiegitura egitea S. Antoine d'Ankiranomena ikastetxean, Madagaskarren. | Madagaskar |
| FABRE Fundazioa | Eskubideak sustatzea, edateko ura modu unibertsal, ekitatibo eta jasangarrian eskuratuz Totaicito landa-komunitate indigenan, San Pedroko udalerri indigenan. | Bolivia |
| Alboan fundazioa | Sexu-.indarkeriatik biziraun duten, GIG/IHESarekikn bizi diren eta barne desplazatuak dauden Kongoko emakume eta neskatoei arreta psiko-medikoa ematen laguntzea. | Kongoko Errepublika |
| Alboan fundazioa | Edateko uraren hornikuntza eta saneamendua hobetzea Kipushi meatzaritza-gunean, Kongoko Errepublika Demokratikoa. | Kongoko Errepublika |
| Medicus Mundi | Klima Aldaketara egokitzea, Mocomocon. | Bolivia |
| Proclade Yanapay | Komun publikoak egitea Badarako barrutian | Kongoko E. D. |
| | **Guztira: 11 proiektu finantzatu dira** | **44.000 €** |

**HITZARMENA SAHARAK NAFARROAN DUEN ORDEZKARITZAREKIN:**

| GGKE | Proiektuaren izena | Herrialdea |
|---|---|---|
| Mugarik gabeko langile eta teknikarien elkartea | Ura, elikagaiak eta saneamendua eskuratzeko logistika Saharako errefuxiatuendako. | Sahara |

## 9. PMCIDen berezko jarduketak

| Erakundea | Proiektua | Dirulaguntza |
|---|---|---|
| Progr. Municipal de Cooperación Internacional al Desarrollo | SUMINISTROS SERIGRAFICOS KIMA Empleo Social - Bolsas Área | 271,69 € |
| Progr. Municipal de Cooperación Internacional al Desarrollo Coordinadora de ONGD de Navarra | Material Salón Estudiante 2024 | 296,45 € |
| Progr. Municipal de Cooperación Internacional al Desarrollo Setem | Productos comercio justo | 3.900,00 € |
| Progr. Municipal de Cooperación Internacional al Desarrollo Adsis | Cestas comercio justo | 3.898,75 € |
| Progr. Municipal de Cooperación Internacional al Desarrollo FUNDACION OXFAM INTERMON | Cestas comercio justo | 3.874,25 € |
| Progr. Municipal de Cooperación Internacional al Desarrollo Setem | Productos comercio justo | 1.641,74 € |
| Progr. Municipal de Cooperación Internacional al Desarrollo Setem | Juegos de Ekilikua | 175,50 € |
| Área Cooperación al Desarrollo | Convocatoria Técnico/a Desarrollo Listas contratación temporal BON Nº 116 de 06-JUN-2024 | 473,77 € |
| **Total** | **8 actuaciones realizadas** | **14.532,15 €** |

(RAL 19-NOV-24 ebazpena (2/AL) II. Kapituluko 12.00 0 €-ko funtsak
II. Kapitulura transferitzeko, puntu honek aipagai duena.

**2024ko aurrekontua: Aurrekontuaren betetze-maila, proiektuen eta ildoen arabera.**

| LAN-ILDOA | Nº | 2024ko betetze-maila | Ehunekoa (%) |
|---|---|---|---|
| **SENTSIBILIZAZIOA** | 16 | **187.385,88** | **12,33%** |
| Dirulaguntza-deialdia Unean uneko jarduketak (APS) | 4 | 8.000,00 | 0,52% |
| Dirulaguntza-deialdia Urteko proiektuak | 9 | 83.385,88 | 5.49% |
| Dirulaguntza-deialdia Garapenerako eta herritartasun globalerako hezkuntza estrategiako proiektuak (2024-27 eta jarraipenekoak) | 2 | 60.000,00 | 3.95% |
| Lankidetza-hitzarmena Informazioa eta koordinazioa | 1 | 36.000,00 | 2,37% |
| **TOKI GAREPENA** | **37** | **1.197.614,12** | **78,81%** |
| Dirulaguntza-deialdia Urteko proiektuak | 34 | 1.033.614,12 | 68,02% |
| Dirulaguntza-deialdia Hegoko toki entitateetarako | 2 | 120.000,00 | 7,90% |
| Garapenerako Lankidetzarako Toki Funtsa (NUKF) | 1 | 44.000,00 | 2,89% |
| **GIZA LARRIALDIETARAKO LAGUNTZA** | **8** | **120.000,00** | **7,90%** |
| Dirulaguntza-deialdia: Giza Larrialdia | 8 | 120.000,00 | 7,90% |
| **PMCIDen KUDEAKETA-JARDUKETAK** | **8** | **14.532,15** | **0,95%** |
| Kima hornidura serigrafikoak - Gizarte Enplegua - Bolsas Área | 1 | 271,69 | 0,02% |
| Materiala Ikaslearen Aretoa 2024 | 1 | 296,45 | 0,02% |
| Bidezko merkataritzako produktuak | 1 | 3.900,00 | 0,25% |
| Bidezko merkataritzako saskiak | 1 | 3.898,75 | 0,25% |
| Bidezko merkataritzako saskiak | 1 | 3.874,25 | 0,25% |
| Bidezko merkataritzako produktuak | 1 | 1.641,74 | 0,11% |
| Ekilikua jolasak | 1 | 175,50 | 0,01% |
| Deialdia: garapen-teknikaria 116. NAO, 2024ko ekainaren 6koa | 1 | 473,77 | 0,03% |
| **GUZTIZKO PARTZIALA, JARDUKETAK (PMCD)** | **69** | **1.519.532,15** | **90,59%** |
| **GUZTIZKO PARTZIALA, FUNTZIONAMENDUA (PMCID)** | | **157.904,18** | **9,41%** |
| **TOTAL EJECUTADO** | | **1.677.436,33** | **100%** |

AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA

# 10

# Gizarte Ekintzako

MEMORIA ANUAL

Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

## 10.1 Oinarrizko osasun laguntza

### UNIDADES DE BARRIO: USUARIOS

2024an, Iruñeko auzo-unitateek 58.516 artatze egin zituzten.

Artatzeak era programatuan nahiz lehen baheketa-artatze gisa egin ziren.

| Artatze kopurua | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 43.113 | 46.075 | 49.320 | 56.694 | 59.062 | 58.516 |

**ERANTZUNDAKO HITZORDUAK, AUZO UNITATEEN ARABERA ETA AUZO BAKOITZAK IRUÑEKO GUZTIZKOAN ADIERAZTEN DUENAREN ARABERA**

| Auzo unitatea | 2020 | % | 2021 | % | 2022 | % | 2023 | % | 2024 | % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Buztintxuri | 2.623 | 5,69% | 2.820 | 5,72% | 3.197 | 5,63% | 3.328 | 5,63% | 3.594 | 6,14% |
| Alde Zaharra | 3.932 | 8,53% | 4.016 | 8,14% | 4.800 | 8,46% | 4.947 | 8,38% | 4.753 | 8,12% |
| Txantrea | 5.310 | 11,52% | 5.428 | 11,01% | 6.193 | 11,00% | 6.846 | 11,59% | 6.807 | 11,63% |
| Etxabakoitz | 2.226 | 4,83% | 2.608 | 5,29% | 3.101 | 5,47% | 2.855 | 4,83% | 2.882 | 4,93% |
| Zabalgunea | 3.395 | 7,37% | 3.101 | 6,29% | 3.614 | 6,37% | 3.814 | 6,46% | 3.785 | 6,47% |
| Ermitagaña | 2.099 | 4,56% | 2.172 | 4,40% | 2.782 | 4,90% | 2.851 | 4,83% | 2.770 | 4,73% |
| Iturrama | 2.644 | 5,74% | 2.926 | 5,93% | 3.560 | 6,27% | 3.523 | 5,96% | 3.587 | 6,13% |
| Lezkairu | 1.379 | 2,99% | 2.482 | 5,03% | 2.876 | 5,07% | 2.735 | 4,63% | 2.839 | 4,85% |
| Mendillorri | 1.947 | 4,23% | 1.940 | 3,93% | 2.056 | 3,63% | 2.256 | 3,82% | 2.297 | 3,93% |
| Arrosadia | 4.947 | 10,74% | 5.868 | 11,90% | 6.685 | 11,77% | 6.925 | 11,72% | 7.214 | 12,33% |
| Arrotxapea | 7.623 | 16,54% | 7.673 | 15,56% | 8.224 | 14,50% | 9.339* | 15,81% | 8.468 | 14,47% |
| Sanduzelai | 4.131 | 8,97% | 4.400 | 8,92% | 4.966 | 8,75% | 4.955 | 8,39% | 4.862 | 8,31% |
| Donibane | 3.819 | 8,29% | 3.888 | 7,88% | 4.640 | 8,18% | 4.688 | 7,94% | 4.658 | 7,96% |
| **Orotara** | **46.075** | **100%** | **49.320** | **100%** | **56.694** | **100%** | **59.062** | **100%** | **58.516** | **100%** |

*2023. urtean "auna proiektua, inklusiorako ibilbide integratuak" gauzatu zen", errenta bermatua-bizitzeko gutxieneko diru-sarrera

jaso eta arrotxapeko auzoan erroldatuta dauden pertsonekin garatua.

### AUZO UNITATEAK. PROGRAMAK

Auzo-unitateek oinarrizko osasun laguntzako lau programak eskuratzea eskaintzen diete herritarrei, baita Nafarroako Gobernuaren titulartasuneko prestazioak ere.

#### 1. HARRERA ETA GIZARTE-ORIENTAZIOKO PROGRAMA

Herritar guztiei zuzenduta, haien eskariak jasotzea du xede. Herritarren arazoei lehen erantzuna eskaintzen die, gizarte-babeserako sistemetako prestazioak eskuratzeko bide emanez eta, behar izanez gero, lehen mailako arretako edo laguntza espezializatuko gainerako programetarako sarbidea emanez.

#### 2. NORBERAREN AUTONOMIA SUSTATZEKO ETA MENDEKOTASUN-EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ARTA EMATEKO PROGRAMA

Udalak hainbat baliabide eskaintzen ditu, helburu hauek gogoan hartuta: norberaren autonomia sustatzea, mendekotasunezko egoerei aurrea hartzea, eta laguntza ematea bere kabuz moldatzeko arazoak dituzten pertsonei eta mendekotasunean daudenei edo egoteko arriskua dutenei, betiere beren ohiko ingurunean. Behar izanez gero, gainera, etxetik kanpoko baliabide ordezkoak eskuratzeko aukera ematen du, banakako, taldekako eta izaera komunitarioko artaren bidez. Programa honetako langileek Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia (PAGNA) eta Etxez Etxeko Laguntzako Udal Zerbitzuaren (EELZ) prestazioak kudeatzen dituzte.

**MENDEKOTASUNARI LOTUTAKO PRESTAZIOAK, AUZO UNITATEETAN KUDEATUAK**

mendekotasuna

| auzo unitateak | Mendekotasunaren balorazioa | | | | API | | | | Lag. Ek. Zaintzak eta familia-ingurunea | | | | POA (Pertsonarengan Oinarritutako Arreta) | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 21 | 22 | 23 | 24 | 21 | 22 | 23 | 24 | 21 | 22 | 23 | 24 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| Buztintxuri | 4 | 50 | 13 | 13 | 14 | 48 | 37 | 39 | 4 | 5 | 1 | 1 | 6 | 2 | 0 | 4 |
| Alde Zaharra | 154 | 47 | 49 | 57 | 186 | 68 | 42 | 41 | 35 | 16 | 5 | 13 | 18 | 8 | 10 | 2 |
| Txantrea | 49 | 128 | 104 | 146 | 52 | 171 | 124 | 159 | 11 | 26 | 22 | 31 | 3 | 11 | 15 | 20 |

mendekotasuna

| auzo unitateak | Mendekotasunaren balorazioa | | | | API | | | | Lag. Ek. Zaintzak eta familia-ingurunea | | | | POA (Pertsonarengan Oinarritutako Arreta) | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Zabalgunea | 17 | 201 | 174 | 146 | 13 | 241 | 204 | 155 | | 35 | 21 | 16 | | 23 | 13 | 9 |
| Ermitagaña | 173 | 69 | 51 | 60 | 201 | 87 | 92 | 79 | 24 | 15 | 10 | 19 | 21 | 7 | 11 | 5 |
| Etxabakoitz | 73 | 16 | 35 | 39 | 80 | 22 | 37 | 30 | 10 | 3 | 10 | 10 | 36 | 2 | 6 | 2 |
| Iturrama | 212 | 176 | 194 | 197 | 231 | 272 | 219 | 182 | 25 | 19 | 24 | 28 | 29 | 21 | 18 | 13 |
| Lezkairu | 25 | 18 | 12 | 30 | 25 | 31 | 25 | 34 | 5 | 6 | 7 | 11 | 3 | 3 | 8 | 4 |
| Mendillorri | 38 | 42 | 54 | 64 | 30 | 46 | 49 | 33 | 3 | 7 | 14 | 9 | 5 | 3 | 1 | 1 |
| Arrosadia | 104 | 107 | 71 | 71 | 105 | 122 | 92 | 91 | 21 | 27 | 18 | 16 | 11 | 8 | 5 | 7 |
| Arrotxapea | 141 | 156 | 114 | 113 | 185 | 212 | 152 | 122 | 24 | 17 | 24 | 19 | 16 | 14 | 18 | 12 |
| Sanduzelai | 99 | 81 | 86 | 106 | 95 | 105 | 97 | 80 | 13 | 17 | 18 | 21 | 8 | 5 | 4 | 8 |
| Donibane | 278 | 286 | 198 | 157 | 313 | 343 | 271 | 185 | 49 | 73 | 32 | 34 | 38 | 42 | 33 | 36 |
| **Iruña** | **1367** | **1377** | **1155** | **1199** | **1530** | **1768** | **1441** | **1230** | **224** | **266** | **206** | **228** | **171** | **149** | **142** | **123** |

**Etxez etxeko laguntza-zerbitzua (EELZ)**

EELZk zuzeneko arta etxean bertan eskaintzen dio zerbitzuaren hartzaileari, gehienez bi orduz egunero. 2024an, zerbitzu horretako prestazioren bat erabiltzen duten pertsonen 1.222 espedienterekin lan egin da (zuzeneko arreta lanerako, familia, elikadura, arropa-garbiketa eta/edo laguntza teknikoak ematea).

Guztira, zuzeneko arreta pertsonaleko 144.421 ordu eskaini zaizkie 900 erabiltzaileri. Gainera, 139.643 bazkari eta 54.206 afari ere eman zaizkie 702 pertsonari, beren beharretara egokitutako menuekin. Azkenik, arropa garbitzeko 609 zerbitzu egin zaizkie 14 erabiltzaileri eta laguntza teknikoak eman zaizkie aldi baterako EELZren 69 erabiltzaileri.

**Adinekoendako udal-apartamentuak**

Adinekoendako udal-apartamentuei dagokienez, 2024an auzo-unitateek udal-apartamentuen 460espediente eskatu eta baloratu dituzte (23 emakume eta 17 gizon). 9 balorazio-berrikuspen eskatu dira.
2024an, banakako 140 apartamentu eta 4 apartamentu bikoitz daude okupatuta. Haietan, 147 pertsona daude, 123 bakarrik bizi dira eta 24, berriz, bikotekidearekin.

147 egoiliarretatik 93 emakumeak dira (% 63,2) , eta % 54, gizonak (% 36,8). Adinari dagokionez, egoiliarren batez besteko adina 77,8 urtekoa da. Udal-apartamentuetan, batez besteko egonaldia 9,9 urtekoa da.
2024an, 35 apartamentu ditugu birgaituak, hobekuntzak egin baitira egokitzapenean.

Oraindik ere apartamentu bat dago birgaitzeko..

## 3. HAURREI ETA FAMILIEI LAGUNTZEKO programa

Haurren eskubideak bermatzea du xedetzat programa honek, eta haien garapen pertsonala ahalbidetzen duen ingurunea bermatzea; horretarako, prebentzio, sustapen, babes, laguntza pertsonal, familiar eta sozialeko neurriak erabiltzen ditu, eta, babesgabetasun-egoerak daudenean, baita familiako esku-hartzea ere, baina adingabeen instituzionalizazioa saihesten da betiere. 3.074 adingabe artatu dira eta haietariko 1.481 neskatoak dira, eta 1.593, mutikoak.

Programan 642 adingabe (343 mutil eta 299 neska) artatu dira lehendabizikoz 2024an. Aurten, 674 adingaberekin amaitu da esku-hartzea (346 mutil eta 328 neska).

| | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|
| Artatutako familiak | 1.379 | 1.453 | 1.653 | 1.733 | 1.802 |
| Artatutako adingabeak | 2.306 | 2.539 | 2.883 | 2.977 | 3.074 |

**ADINGABE ARTATUAK GUZTIRA AUZO UNITATEKO ETA LARRITASUN MAILAREN ARABERA**

| | Arriskurik gabe baina laguntzaren bat behar dute | Babesgabetasun arinerako arriskua | Babesgabetasun moderatuko arriskua | Babesgabetasun larriako | Babesgabetasun oso larriako arriskua | Balorazio-prozesuan | Total |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Buztintxuri | 38 | 78 | 44 | 7 | 1 | 78 | 246 |
| Alde Zaharra | 5 | 52 | 42 | 6 | 1 | 65 | 171 |
| Txantrea | 92 | 214 | 42 | 20 | 15 | 87 | 470 |
| Zabalgunea | 11 | 36 | 23 | 3 | 4 | 46 | 123 |
| Ermitagaña | 21 | 114 | 13 | 6 | 1 | 2 | 157 |
| Etxabakoitz | 16 | 42 | 25 | 11 | 5 | 16 | 115 |
| Iturrama | 65 | 28 | 15 | 1 | 3 | 15 | 127 |
| Lezkairu | 104 | 10 | 22 | 8 | 13 | 10 | 167 |
| Mendillorri | 39 | 52 | 28 | 14 | 2 | 23 | 158 |

| | Arriskurik gabe baina laguntzaren bat behar dute | Babesgabetasun arinerako arriskua | Babesgabetasun moderatuko arriskua | Babesgabetasun larriako | Babesgabetasun oso larriako arriskua | Balorazio-prozesuan | Total |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Arrosadia | 47 | 134 | 74 | 3 | 9 | 102 | 369 |
| Arrotxapea | 65 | 189 | 95 | 36 | 28 | 78 | 491 |
| Sanduzelai | 77 | 102 | 62 | 6 | 4 | 18 | 269 |
| Donibane | 64 | 42 | 32 | 6 | 4 | 63 | 211 |
| **Iruña** | **644** | **1.093** | **517** | **127** | **90** | **603** | **3.074** |

**- Familietan esku hartzeko programa (FEHZ).** Haurren Programan berariazko baliabide hau dago; lehiaketa publiko bidez kudeatzen da, eta, babesgabetasun-faktoreak daudenean, adingabearen etxean bertan esku hartzean datza. 2024an, 102 familiarengan esku hartu zen; guztira, 187 adingabe izan ziren (102 mutil eta 85 neska).

| | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Artatutako familiak | 94 | 88 | 110 | 104 | 103 | 102 |

Artatutako 102 kasuetatik, 75tan esku-hartzea aurreko urteetan hasia zen (11, auzo-unitateen bidez eta, gainerakoak, EAIA-ren bidez) eta 27, berriz, 2024an abiarazi dira.

## 4. GIZARTERATZE-PROGRAMA

Helburua da bazterturik gelditzeko arriskuan edo bazterturik dauden pertsonen gizarteratze-bidea sustatzea; hartara, banakako gizarteratze-ibilbideak diseinatzen dira, eta pertsona horiek gizarte- eta hezkuntza-laguntza jasotzen dute. Kasu horretan, gizarte-laneko eta gizarteratze-teknikariek esku hartzen ahal dute, eta, zenbait kasutan, psikologoek ere bai.

| gizarteratze-programa | familia-unitateak | | | | erabiltzaileak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
| Buztintxuri | 240 | 269 | 259 | 237 | 296 | 314 | 291 | 269 |
| Alde Zaharra | 115 | 147 | 163 | 172 | 132 | 164 | 191 | 198 |
| Etxabakoitz | 95 | 113 | 109 | 114 | 102 | 128 | 129 | 138 |
| Zabalgunea | 117 | 146 | 178 | 165 | 141 | 161 | 189 | 178 |
| Ermitagaña | 98 | 113 | 154 | 119 | 117 | 132 | 174 | 128 |
| Iturrama | 150 | 161 | 178 | 190 | 181 | 189 | 204 | 226 |
| Lezkairu | 100 | 105 | 65 | 122 | 136 | 128 | 72 | 132 |
| Mendillorri | 75 | 83 | 74 | 79 | 109 | 123 | 94 | 95 |
| Arrosadia | 400 | 435 | 443 | 458 | 531 | 558 | 542 | 557 |
| Arrotxapea | 361 | 446 | 427 | 342 | 496 | 634 | 492 | 417 |
| Sanduzelai | 197 | 256 | 232 | 228 | 247 | 297 | 265 | 268 |
| Donibane | 149 | 165 | 195 | 206 | 157 | 182 | 222 | 242 |
| Txantrea | 350 | 370 | 392 | 348 | 476 | 465 | 487 | 454 |
| **GUZTIRA** | **2447** | **2809** | **2869** | **2780** | **3121** | **3475** | **3352** | **3302** |

| gizarteratze-programa | gizarte- zein hezkuntza-laguntza duten familia-unitateak | | | | esku-hartze psikologikoa duten pertsonak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
| Buztintxuri | 76 | 55 | 48 | 38 | 10 | 7 | 5 | 14 |
| Casco Viejo | 69 | 78 | 75 | 89 | 5 | 5 | 6 | 7 |
| Etxabakoitz | 47 | 26 | 43 | 33 | 3 | 6 | 6 | 5 |
| Ensanche | 53 | 60 | 55 | 55 | 3 | 5 | 7 | 7 |
| Ermitagaña | 52 | 51 | 52 | 36 | 4 | 2 | 2 | 3 |
| Iturrama | 64 | 67 | 38 | 37 | 5 | 8 | 10 | 7 |
| Lezkairu | 44 | 45 | 43 | 33 | 2 | 13 | 7 | 4 |
| Mendillorri | 50 | 56 | 59 | 50 | 4 | 6 | 3 | 4 |
| Milagrosa | 85 | 98 | 105 | 133 | 9 | 7 | 10 | 13 |
| Rotxapea | 107 | 113 | 100 | 88 | 5 | 6 | 6 | 6 |
| San Jorge | 95 | 101 | 107 | 99 | 5 | 6 | 7 | 9 |
| San Juan | 65 | 90 | 88 | 86 | 4 | 7 | 7 | 7 |
| Txantrea | 57 | 65 | 77 | 98 | 8 | 10 | 11 | 10 |
| **GUZTIRA** | **864** | **905** | **890** | **875** | **67** | **88** | **87** | **96** |

Bestalde, 2024an zehar, prestakuntza-ekintzak Iruñeko hainbat auzotan egin dira, eskura dagoen eskaintza nabarmen handituta. Horretarako, aspaldian erabiltzen ez ziren udal-aretoak berrireki eta baliatu behar izan dira, baliabideak optimizatuta eta hiriko hainbat eremutan prestakuntzarako sarbidea hobetuta.

Prestakuntza-ekintzen kontratu teknikoaren barnean (Koine), Iruñeko Udaleko Gizarte Ekintzako Alorreko programen erabiltzaileei emandako prestakuntza-ekintzez gain, garrantzi handiko hainbat proiektu ere gauzatu dira:

**Konekta I proiektua**

Iruñeko Udalak jarri zuen abian Nafar Lansarerekin lankidetzan eta sei hilabeteko iraupena izan zuen (2024ko apiriletik irailera). Errenta bermatua edo bizitzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzen duten 30 urtetik beherako gazteen prestakuntza- eta lan-gaikuntza izan zuen helburu.

Programak esku-hartze trinkoa egin zuen hartan sartzeko baldintzak betetzen zituzten 87 gazterekin, 717 hautagairen artean aukeratuak. Honatx zenbait datu esanguratsu:

- Parte-hartzaileen adina, bana beste: 24,6 urte.
- Sexuaren araberako banaketa: % 60 emakumeak eta; % 40, gizonak.
- Jatorria: % 38 espainiarrak eta % 62 beste herrialde batzuetakoak.
- Familia motak: % 43 familia gurasobakarrak.
- Emaitzak:
- Parte-hartzaileen % 50ek (43 lagun) prestakuntza-ekintzaren bat hasi zuten.
- % 29 (25 lagun) enplegu batean sartu ziren.

**Konekta II proiektua**

2024ko urrian, Iruñeko Udalak eta Nafarroako Gobernuak, Nafar Lansarareren bidez, Konekta programaren edizio berria abiarazi zuten. Oraingo honetan, langabezian luze zirauten 30 urtetik gorako 120 pertsonaren gaikuntza izan zen helburua.

Programak urtebeteko iraupena du, 2025eko urrira arte, hain zuzen ere.

**Migrazio Politiken hitzarmena**

2024ko abuztuan, Iruñeko Udalak eta Nafarroako Gobernuak lankidetza-hitzarmena sinatu zuten Intro proiektua abian jartzeko. Proiektuaren helburua da egoera zaurgarrian diren migratzaileei prestakuntza eta lan aurreko trebakuntza eskaintzea.

Hitzarmenak 50.000 €-ko finantzazioa aurreikusi du hainbat ekintza egiteko, parte-hartzaileek gaztelaniaz hobeki jakiteko eta oinarrizko trebetasunak eskuratzeko.

Hasierako aurreikuspena Iruñeko Udalaren ohiko prestakuntza- eta lan-baliabideetatik kanpo dauden 50 migratzaile inguru artatzea izan bazen ere, azken emaitzek luze eta zabal gainditu zituzten aurreikuspenak. Izan ere, q88 pertsonari 1.363,3 prestakuntza-ordu eman zitzaizkien.

2024an zehar, hainbat prestakuntza-ekintza egin dira prestakuntza-ekintzen kontratu teknikoaren barnean (Koine) Iruñeko Udalaren Gizarte Ekintzako Alorreko programen erabiltzaileendako:

**Etxe Bat:**

Programa pilotu bat da, Hosuing Led metodologian oinarritua, Iruñeko Etxegabetasuna egoerei erantzuteko, etxebizitza esku-hartzearen ardatza izanik.

Iruñeko Udala egiaztatzen ari da gero eta jende gehiago dagoela etxegabetasun egoeran, izan adingabeak dituzten familiak, izan luzaroan etxerik izan ez duten pertsonak (gizonak nahiz emakumeak), hala nola migrante gazteak; beraz, ezinbestekoa da pertsona horiek artatzeko baliabideak handitzea, baliabide berritzaileak dakartzan programa pilotu bat ezarriz, horrelako egoera mota guztiei estaldura emateko eta pertsona horiei kaletik ateratzeko irtenbide sendo bat emateko, bai eta berriro egoera berera ez itzultzeko ere.

**Zenbatekoa: 140.460**

| Programa | Deskribapena | parte-hartzaileak | hasiera-amaiera | Orduak |
|---|---|---|---|---|
| GIZARTERATZE-PROGRAMA | gaztelaniazko elkarrizketa taldea sanduzelai | 5 emakume<br>9 gizon | 22/01/2024 - 17/06/2024 | 36,23 |
| | hiri-baratzeak | 2 emakume<br>5 gizon | 09/01/2024 - 31/12/2024 | 103,5 |
| | prestakuntza prebentzioan eta pantailen erabilera | 40 emakume<br>15 gizon | 19/03/2024 - 21/03/2024 | 9,2 |
| | gaztelaniaz lezkairu-garapen kognitiborako baliabideak | 14 emakume<br>10 gizon | 03/01/2024 - 27/06/2024 | 172,5 |
| | gaztelaniazn eta komunitatean murgiltzea | 12 gizon | 08/01/2024-28/06/2024 | 137,99 |
| | gaztelanian murgiltzea | 16 gizon | 22/07/2024 - 11/09/2024 | 55,2 |
| | lantegia: genero ikuspegia duen zeharkako prestakuntza gizarte trebetasunetan, emozioen kudeaketan eta gizarteratze komunitarioan gazte migranteekin | 15 gizon | 05/08/2024 - 23/08/2024 | 27,6 |
| | gaztelaniazko elkarrizketa taldea sanduzelai | 5 emakume<br>9 gizon | 30/09/2024-16/12/2024 | 20,67 |
| | garapen kognitiborako baliabideak | 12 gizon | 25/09/2024 - 26/12/2024 | 93,15 |
| **Orotara** | | | | **656,04** |
| EISOL | oinarrizko gaitasun digitalak | 7 emakume<br>5 gizon | 22/01/2024 - 02/02/2024 | 46 |
| | enplegu-bilaketa aktiboa | 6 emakume<br>5 gizon | 19/02/2024 - 08/03/204 | 69 |
| | enplegu-bilaketa aktiborako gaitasunak | 5 emakume<br>7 gizon | 13/05/2024 - 31/05/2024 | 69 |
| | zeharkako gaitasunak garbiketa sektorean | 11 emakume | 11/10/2024 - 08/11/2024 | 21,84 |
| | oinarrizko gaitasun digitalak | 12 emakume<br>2 gizon | 15/11/2024 - 18/11/2024 | 10,9 |
| | enplegu-bilaketa aktiborako gaitasunak garbiketak | 12 emakume<br>2 gizon | 19/11/2024 - 21/11/2024 | 16,38 |
| | enplegu-bilaketa aktiborako gaitasunak | 4 emakume<br>2 gizon | 9/09/2024-27/9/2024 | 69 |
| | afam- | 10 emakume<br>1 gizon | 01/10/2024-08/11/2024 | 36,8 |
| **Orotara** | | | | **335,45** |
| BESTE PROGRAMA BATZUK | haserrea komunitatean kudeatzea u.b. etxabakoitz | 8 emakume | 25/11/2024-20/12/2024 | 40,25 |
| | jolasaz gozatzen gure seme-alabekin haurtzaroko programa | 2 emakume<br>6 gizon | 11/06/2024-20/06/2024 | 6,9 |
| | enplegu-bilaketa aktiborako gaitasunak gizarte enplegua | 2 emakume<br>4 gizon | 12/06/2024 - 12/06/2024 | 4,6 |
| | nire etxea, zure etxea. etxebizitza programa | 17 | 06/05/2024 - 24/05/2024 | 13,8 |
| | koine 2 programa | 6 emakume | 9/12/2024 -20/12/2024 | 13,8 |
| | bidea arakatzen u.b. etxabakoitz | 5 emakume<br>2 gizon | 08/04/2024 - JUNIO | 81,65 |
| **Orotara** | | | | **161** |

2024an, prestakuntza-ekintza gehiago egin dira oinarrizko laguntzako auzo-unitateetan eta ez hain zentralizatuak Arrotxapeko Errotazar Zentroko lokaletan.

## ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

Iruñeko Udaleko enplegurako prestakuntza-programek antolatutako ekintzen ardatz nagusia da zailtasun erantsiren bat duten pertsonen laneratzea sustatzea. Pertsona horien gizarteratze eta laneratzea lortuko da, lan-merkatuan baloratzen diren gaitasun profesionalak, pertsonalak eta sozialak garatuz eta lanbide-kualifikazioa erdietsiz.

2024an, 776 pertsonak parte hartu dute Iruñeko Udaleko enplegurako prestakuntza-programan. Ekintzen ardatz nagusia da zailtasun erantsiren bat duten pertsonen laneratzea sustatzea Iruñean, gizarteratzea eta laneratzea lor dezaten, lan-merkatuan baloratzen diren gaitasun profesionalak, pertsonalak eta sozialak garatuz eta lanbide kualifikazioa erdietsiz.

| Programa 2024 | Parte-hartzaileen kopurua |
|---|---|
| LANTEGI-ESKOLA: Hargintza eta Biltegiaren kudeaketa | 25 |
| | 18 |
| LANTEGI-ESKOLA: Igeltserotza | 22 |
| LANTEGI-ESKOLA: Zur-arotzeria | 23 |
| LANTEGI-ESKOLA: Eraikinen mantentze-lanak | 28 |
| LANTEGI-ESKOLA: Basogintza eta Lorezaintza | 18 |
| LANTEGI-ESKOLA: Soldadura | 359 |
| GLT-GLBZ | 26 |
| Interes orokorreko eta sozialeko obrak | 40 |
| Langabeendako prestakuntza okupazionala | 217 |
| SNE_NL hitzarmena: KONEKTA 1-2 Orientabide Programa | **776** |
| **OROTARA** | |

| Programa | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|
| Lantegi-eskolak eta PEPIak | 100 | 100 | 102 | 102 | 134 |
| GLT-GLBZ | 429 | 504 | 533 | 430 | 359 |
| SNE-NLk finantzaturiko prestakuntza-ikastaroak eta espetxeetako lantegiak | 173 | 191 | 15 | 15 | - |
| MRR- CNAIk finantzatutako prestakuntza-ikastaroa | | | | | 40 |
| Konekta I, SNE-NLk finantzatutako Orientabide Programa | | | | | 87 |
| Konekta 2, SNE-NLk finantzatutako Orientabide Programa | | | | | 130 |
| Interes orokorreko eta sozialeko obrak | 13 | 17 | 17 | 15 | 26 |
| Onuradunak, guztira | 737 | 812 | 667 | 562 | 776 |

*Parte-hartzaileak urtean zehar jasotzen dira; ez, postuak.

## GIZARTERATZE- ETA LANERATZE-TALDEA (GLT)

GLTk 2011z geroztik garatzen du bere jarduera Iruñean Gizarteratze eta Laneratze Taldeetarako (GLT) jasotako edukiarekin bat Gizarte Zerbitzuen Arloan.

Urteen joanean, bilakatu da, baina beti gizarte-zerbitzuetan artatzen duten jendearen enplegugarritasuna eta/edo laneratzea handitzeko helburuarekin.

2024an, bere horretan iraun dute ordura arte garatutako lan-ildoek, helburuei eta lan-metodologiari dagokienez.
Hori bai, bigarren seihilekoan, akordioa egin zen Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren artean eta, horrekin bat, Nafarroako Gobernuak lehen aldiz finantzatu zuen GLT osatzen duten langileen parte bat.

2024an, Gizarte eta Laneratze Taldeak, guztira, 359 espedientetan esku hartu zuen.

| DATUEN LABURPEN TAULA 2024 | |
|---|---|
| 2024an jasotako proposamenak | 244 |
| Altak 2024an. 2023an eta 2024an jasotako proposamenetatik izandako altak | 141 |
| Itzulketak 2024an. 2022an eta 2023an jasotako proposamenetatik izandako itzulketak | 109 |
| Bajak 2024an. 2022an eta 2023an jasotako proposamenetatik izandako bajak | 167 |
| **Artatutako pertsonak 2024an** | **359** |

| ESPEDIENTE AKTIBOAK 2024an, SEXUAREN ARABERA | % | Nº |
|---|---|---|
| Emakumeak | 66,02 % | 237 |
| Gizonak | 33,98 % | 122 |
| **orotara** | **100%** | **359** |

| ESPEDIENTE AKTIBOAK 2024an, JATORRI HERRIALDEAREN ARABERA | % | Nº |
|---|---|---|
| Bertakoak | 20 % | 72 |
| Beste herrialde batzuetatik datozen pertsonak | 80 % | 287 |
| **orotara** | | **359** |

## PRESTAKUNTZA-EKINTZAK

Arestian esan dugun bezala, urtean zehar hainbat prestakuntza-jarduera egin dira taldeak artatutako pertsonen gaitasun pertsonalak eta enplegagarritasuna hobetzeko: Bi prestakuntza mota daude, edukiaren arabera:

**- Laneratu aurreko prestakuntza-ekintzak:** oinarrizko gaitasun digitalak eta enplegua bilatzeko teknikak (BAE). 2024an zehar, zortzi prestakuntza-ekintza antolatu dira

**- Prestakuntza-ekintza okupazionalak:** migrazio-politiken hitzarmenaren bidez antolatuak. Haien barnean ditugu:

Mendekoak Instituzioetan artatzeko prestakuntza, 370 ordukoa, ondoren akreditazio bat lortzera bideratua,bide ez-formalaren bidez lanbide-gaitasunak aitortuz.

Huraxe amaitu eta gero, 34 pertsonak egin zituzten lanaz bestelako praktikak hainbat zentrotan.

Oinarrizko garbiketa lanak eraikin eta lokaletan: Garbiketen CP1 gaitasun-unitateen arabera eman dira edukiak, lanbide-gaitasunak prestakuntza-bide ez formalaren bidez ziurtatu ahal izan ditzaten.

### Beste ekintza batzuk:

**PERTSONAK AUKERATZEA, GIZARTE ETA OSASUN ARRETAKO IKASTAROETAN PARTE HARTZERA BIDERATZEKO, INSTITUZIOETAN 2024an, EISOL** koordinazioan aritu zen RODOIA entitatearekin, EISOLen 8 erabiltzailek mendekoendako gizarte- eta osasun-arretako ikastaro batean parte-har zezaten sustatzeko, instituzioetan, prestakuntza ez-formalaren bidez. Aipatu prestakuntza 2024ko maiatzetik azarora egin zen.

**PERTSONAK AUKERATZEA, GIZARTE ETA OSASUN ARRETAKO IKASTAROETAN PARTE HARTZERA BIDERATZEKO, INSTITUZIOETAN 2024an, EISOL** lankidetzan hasi zen Core Fundazioarekin, bi entitateen artean sinergiak sortzeko, Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileen parte-hartzea sustatu eta errazte aldera Core Fundazioak antolatutako ikastaroetan, eta alderantziz.

**PRESTAKUNTZA** Afan, 116 ordu. 2024an, prestakuntza horren 11. edizioa egin zen. Iruñeko Udalak eta Altzehimerra duten pertsonen senideen Nafarroako Elkarteak (AFAN) sinatutako hitzarmena da prestakuntza jatorria. Lankidetza elkarri on egiteko egiten da. Batetik, sektorean lan egiteko prest dauden pertsona prestatu eta espezializatuen zorro bat izateko aukera ematen dio Gizarte eta Lan Arloko Bitartekaritza Zerbitzuari (GLBZ) eta, AFANi, berriz, eskaintzen kudeaketaz ez arduratzeko aukera, ez baita berez bere eginkizuna eta, horrela, udal baliabidera bideratzen ditu. Prestakuntza 11 lagunek bukatu zuten.

## LANERATZEAK

| ESKAINTZAK/LANPOSTUAK Gizarte Enplegu Babestua | Laneratze | Kop. (%) |
|---|---|---|
| Eskaintzak | 17 | 14 |
| **ESKAINTZAK/LANPOSTUAK etxe-familia zerbitzurako 2024** | | |
| Mendekoen zaintza orduka | 52 | 20 (38,5%) |
| Barne langileen lanpostuak | 31 | 8 (26%) |
| Etxe-zerbitzua | 5 | 2 (40%) |
| **GUZTIRA** | **88** | **30 (34%)** |
| **ESKAINTZAK/LANPOSTUAK EIS 2024** | | |
| Eskaintzak | 70 | 70 |
| Lanpostu eskainiak | 130 | 73 (56,1%) |
| **ESKAINTZAK/LANPOSTUAK Hautestontziak garbitzea 2024** | | |
| Lanpostu eskainiak | 4 | 4 (100%) |
| **ESKAINTZA: KOMUN PUBLIKOAK GARBITU ETA SARRERA KONTROLATZEA SAN FERMIN 2024** | | |
| Eskaintzak | 1 | 1 |
| Lanpostu eskainiak | 20 | 20 (100%) |
| **BESTE ESKAINTZA BATZUK** | | |
| Hainbat eskaintza | 2 | 0 |
| **OROTARA** | | |
| **Lanpostu eskainiak** | **264** | **144 (54,5%)** |

Atal horren barnean Gizarte eta Lan Arloko Bitartekaritza Zerbitzua (GLBZ) azpimarratu behar da. Aipatu zerbitzuak hautatze-prozesu gehienak egin ditu GLTren erabiltzaileak kontratatzeko.

**NAFARROAKO GOBERNUAREN TITULARTASUNEKO PRESTAZIOAK ESKURATZEA:** Kotizazio gabeko erretiro- eta baliaezintasun-pentsioa; errenta bermatua, gizarteratzeko laguntza ekonomiko bereziak eta desgaitasuna duten pertsonendako prestazio ekonomikoa.

- **Kotizazio gabeko erretiro-pentsioa.** 2024an, PNCJko 203 eskaera izapidetu ziren.
- **Kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioa.** 2024an, PNCIko 45 eskaera izapidetu ziren.
- **Errenta bermatua 2024an,** errenta bermaturako 7.167 eskaera gauzatu ziren hirian.
- **Laguntza ekonomiko bereziak.** 2024an, 540 eskaera gauzatu ziren hirian.
- **Desgaitasuna duten pertsonendako prestazio ekonomikoa 2024an,** 15 eskaera izapidetu ziren.

## 10.2 Zerbitzu espezializatuak

### GIZARTERATZE ETA LANERATZEKO IBILBIDEETAKO ENPLEGU-PROGRAMAK

#### 1. GIZARTE-ENPLEGU BABESTUA

Programak 211 pertsonako taldea du 2024an, kontratatutako peoien eta programan laguntzeko teknikarien artean: lantaldeetako arduradunak eta ofizialak eta talde teknikoa. Talde horrek hamaika lantaldetan lan egiten du: obrak, soldadura, pintura, garbiketak, zerbitzu orokorrak eta atezaintza, ibai-parkea mantentzeko lanak, lorategiak eta mintegia, joskintza eta jantzigintza, tapizgintza, udal-jantokia, elikagaiak banatzeko gunea, eta koadernaketa eta serigrafia. Programak udal-arloetarako eta bertze administrazio publiko batzuetarako lan egiten du, eta, zehazkiago, irabazi-asmorik gabeko erakunde/elkarteetarako.

Programa udal-dinamikan finkaturik dago, bai gizarte-bazterketa egoeran dauden hiriko pertsonak kontratatzeari dagokionez, bai eskatutako zeregin eta lanei dagokienez. 2024. urtean zehar, programa honen bidez, Udaleko gizarte-zerbitzuetatik datozen 180 pertsonak lan-kontratua lortu dute.

**Egindako zenbait lan:**

- 2024an, **etxebizitzak birgaitzeko obren lantaldeak** adinekoendako hiru udal-apartamentu bere osoan zaharberritzeko lanetan esku hartu zuen, bai eta gizarte-larrialdirako udal-etxebizitzetan (Jarauta kaleko 6 etxebizitza birgaitu zituzten) eta udal-aretoak eta -zentroak berritu eta konpontzeko lanetan ere.

- **Garbiketako lantaldeak** ohiko garbiketak egin zituen egonkorki esleituak dituen udal-aretoetan, eta garbiketa bereziak noizbehinka etxebizitza eta pisu berrituetan, haien entrega egin aurretik.

- 2023an **pinturakoak**, besteak beste, adinekoendako 7 udal-apartamentutan lan egin zuen eta, era berean, 25 udal-etxebizitzetan, 5 udal-ikastetxeetan eta bestelako udal-areto eta -bulegoetan.

- **Koadernaketa eta serigrafiako lantaldea** Udal Artxiboan aritu da (aktak eta prentsa), laneko 361 jantzi eta beste elementu batzuk inprimatzen eta serigrafiatzen, eta, horretaz gainera, txartelak, liburuxkak, triptikoak eta kartelak maketatzen, inprimatzen eta tolesten, eta sublimazio bidezko inprimatzean. 3.716 poltsa, 246 poltsa estanpatu eta 263 packaging-zorro.

- **Tapizgintzako lantaldeak** aulkiak eta besaulkiak tapizatu, besaulkietarako zorroak egin, kuxinak egin eta ibilgailuetako eserlekuak tapizatu ditu. Gortinak egin dira hainbat udal-zentrotarako.

- **On Egin udal-jantokiko** taldeak 23.578 gosari, 25.237 bazkari eta 23.583 afari banatu ditu.

- **Elikagaiak banatzeko** guneak hilero banatzen dizkie elikagai-bankuetatik datozen elikagai-sortak gizarte-bazterketan diren familiei. 3.725 sorta banatu ditu urtean zehar, bana beste 300 familia artatuz hileko eta guztira urtean 3.725 familia artatuz (10.977 pertsona)..

- **Jantzigintzako lantaldeak l**aneko arropa egin eta konpondu du gizarte-enpleguko programarako eta beste departamentu batzuetarako. Poltsak, motxilak, lerde-zapiak, zorroak, etab. egin eta konpondu dira, eta lan bereziak protokolo eta alkatetzako alorreko oihalkietan (banderak, jantziak, zapiak, etab.).

- **Garbiketako eta lorategiak nahiz ibai-parkea mantentzeko lantaldea** batez ere aritu da esleituak dituen eremuak garbitzen eta mantentzen: Arga ibaiaren pasealekua Iruñeari dagokion tartean eta Arantzadiko parkearen zati bat. Era berean, modu osagarrian, lanak egin dituzte mintegietan, bai eta landare apaingarrien nahiz baratze-landareen ekoizpenean ere, hiri-baratzetarako.

#### 2. 2. LANGABEAK INTERES OROKORREKO ETA SOZIALEKO OBRETARAKO KONTRATATZEKO DEIALDIA

Laneratze-ibilbideetako enplegu-programetako ekintzen barruan, Udalak langabetuak kontratatzeko deialdian parte hartu du, interes orokorreko eta sozialeko obrak egiteko, Nafar Lansare – Nafarroako Enplegu Zerbitzuak bultzatuta. Langabezian dauden pertsonak lehentasunezko kolektibo gisa definitutako taldeetatik kontratatzen dira 6 hilabetez. 2024an, hiru proiektu aurkeztu ziren deialdian:

- **Gaixotasun mentalak jotako pertsonak kontratatzeko programa.** Programa Elkarkide erakundearekin egiten da lankidetzan, eta gaixotasun mentalak eraginik % 33tik gorako desgaitasun-aitorpena duten 9 pertsona kontratatu dira 6 hilabetez, nekazaritza-lanak egiteko eta hiri-altzariak mantentzeko eta margotzeko. Proiektuaren barnean emakume bat ere kontratatu da, gizarteratze-teknikaria, parte-hartzaileei hezkuntza-laguntza emateko, eta pintura-ofizial bat, hiri-altzariak margotzeko lanak antolatu eta gainbegiratzeko.

- **Langabeak kontratatzeko programa, Alde zaharreko Auzo Unitatea berritzeko.** Programaren bidez, 8 lagun kontratatu dira (arkitekto tekniko 1, obra-arduradun 1, 3 igeltserotza-ofizial eta 3 peoi), guztiak ere lehentasunezko taldeetakoak, langabeziak bereziki jotakoak. Errenta Bermatua jasotzen dutenak eta/edo 55 urtetik gorakoak.

- **Langabeak BIRZIKLETATU proiekturako kontratatzeko programa, bizikletak eta beste mugikortasun-elementu batzuk konpontze aldera.** Haren bidez, 7 lagun kontratatu dira (jarduera-monitore 1 eta 6 peoi), guztiak ere lehentasunezko taldeetakoak, langabeziak bereziki jotakoak: Errenta Bermatua jasotzen dutenak eta/edo 55 urtetik gorakoak.

## 3. EMAKUMEENDAKO UDAL ARRETA ZERBITZUA

2024an, Emakumeendako Udal Arreta Zerbitzuak (EUAZ) 633 emakume artatu ditu; horietatik 260k aurten lehen aldiz jo dute zerbitzura, eta 367k aurreko urteetan irekitako espedientea zeukaten.

2023aren aldean, emakume artatuen kopuruak egonkor iraun du, % 0,78ko beheranzko txiki batekin. Espediente zaharrek goranzko joerari eutsi diote, azken urteotan bezala, nahiz eta aurten iaz baino nabarmen gutxiago igo diren (% 3,34, 2024an. Eta 2023an, aldiz, % 14,60). Espediente berriak, aldiz, % 6,14 jaitsi dira, 2023koen aldean, 2020an izandako kopurua berdinduta.

EUAZko langileek 2.291 pertsona artatu dituzte, guztira. Hau da, iaz baino % 2,09 gehiago. Honelako jarduketak egin dira: 1.235 gizarte-arretak izan dira; 713, arreta psikologikoak, eta 343, arreta juridikoak.

### ZERBITZURA ZER ARAZAORENGATIK JOTZEN DUTEN

| Tipologia | Emakumeak | % |
|---|---|---|
| Emakumeen kontrako indarkeria | 208 | 70,75 |
| Hauste-prozesuetako zailtasunak | 16 | 5,44 |
| Zailtasunak guraso-ahala eta zaintza gauzatzeko orduan | 20 | 6,80 |
| Gizarte-zailtasuneko egoera | 18 | 6,12 |
| Besterik | 16 | 5,44 |
| Desorekak harreman afektiboetan | 14 | 4,76 |
| Daturik gabe | 2 | 0,68 |
| **Diagnostikoak, guztira** | **294** | |
| **Espedienteak, guztira** | **260** | |

**- Eman Aukera Zeure Buruari programa (EAZB).** Emakumeendako Udal Arreta Zerbitzuak (EAUZ) berariazko baliabide hori du, lehiaketa publiko bidez kudeatua, eta gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartze bat egiten du EAUZen artatutako arazoren bat duten emakumeekin eta haien seme-alabekin, arazo hori gizarte-zailtasun bereziko egoera baten ondorioz larritua dagoenean. Programaren barnean dago ostatua ematea aldi baterako udal-apartamentu batean. 10 apartamentu ditu eskura. 2024an, 107 pertsona artatu dituzte, 43 emakume eta haien 64 seme-alabak (26 neska eta 38 mutil), haietariko 14 adinez nagusiak.

## 4. HAUR ETA NERABEENDAKO LAGUNTZA-TALDEAK (HNLT)

Talde profesional honen helburua da ikertzea, balioestea eta esku hartzea babesgabetasun-arriskua duten adingabeak dituzten familietan, betiere babesgabetasun horrek ez badu eskatzen familiatik bereiztea. 2024an, 159 familiarengan eta 303 adingaberengan esku hartu zen. Familia horietatik 37k babesgabetasun larria dute; 21ek, oso larria; 57k, moderatua, 28 balorazio-fasean zeuden abenduaren 31n, eta 13 baloratu gabe. Azpimarratu behar da urtean zehar HNLTra bideratu ziren hiru kasuk ez zutela babesgabetasunik eta, berriz ere, EIFra bidali ziren.

Babesgabetasunaren tipologiari dagokionez, aurreko urteetan bezala, motarik arruntenak arduragabekeria (110 kasutan agertu da), tratu txar psikologikoa (66 kasutan) eta jokamoldea kontrolatzeko ezintasuna (57 kasutan) dira.

## 5. LANTEGI-ESKOLAK, ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZAKO PROGRAMA INTEGRATUAK ETA GUK FINANTZATUTAKO ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMAK

Lantegi Eskolak programa mistoak dira, prestakuntzakoak eta enplegukoak. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak finantzatuak, eta Iruñeko Udalak eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak sustatuak eta finantzatuak. Ikasleek, txandakako prestakuntza-kontratu baten bidez, prestakuntza teoriko-praktikoa jasotzen dute, eta zeharkako arlo batzuetan trebatzen dira, hala nola funtsezko gaitasunetan, gizarte-prestakuntzan eta prestakuntza pertsonalean, enplegu-bilaketa aktiboan, etab.

| IZENA | ESPEZIALITATEA | PROFILA | LEKU |
|---|---|---|---|
| Landaben Prestakuntza Zentroa | Hargintza eta biltegiratzea | 16-30 urte bitarteko gazteak | 17 |
| | Igeltserotza | 16-30 urte bitarteko gazteak | 17 |
| | Zur-arotzeria | 16-30 urte bitarteko gazteak | 17 |
| | Eraikinen mantentze-lanak | 16-30 urte bitarteko gazteak | 17 |
| Arantzadi Prestakuntza Zentroa | Basogintza eta Lorezaintza | 16-30 urte bitarteko gazteak | 17 |
| | Soldadura | 16-30 urte bitarteko gazteak | 17 |

## 6. AZTERKETA LARRIA PAIRATZEN DUTEN PERTSONAK ARTATZEKO PROGRAMAK

### ETXERIK GABEKO PERTSONAK ARTATZEKO ZENTROA

2024an, etxerik gabeko pertsonak artatzeko zentroak 2.401 pertsona artatu zituen (ibiltariak, erroldatuak, eta arreta kalean). Horietatik 281 emakumeak ziren (% 11,70), eta 2.120, gizonak (% 88,30).

| Pobrezia eta Gizarte Kohesioa Programa | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ibiltariak | 1.508 | 1.689 | 801 | 1.204 | 1319 | 1.725 | **2.171** |
| Erroldatuak | 51 | 48 | 60 | 63 | 77 | 74 | **74** |
| Arreta kalean | 182 | 200 | 145 | 151 | 390 | 386 | **456** |
| Hotz-bolada* | 293 | 422 | 308 | 339 | 1269 | 857 | **362** |
| Autobus-txartelak | 720 | 848 | 684 | 524 | 408 | 1197 | **1342** |

* Hotz-boladak barne biltzen du kasuan kasuko urteko azarotik hurrengo urteko martxora bitarteko kanpaina.

### «ON EGIN» UDAL-JANTOKIA

Iruñeko Udalaren udal-jantokiak (Carmen kalea, 25) 757 pertsona artatu zituen 2024an. Haietariko 571 helduak ziren (% 75,43) eta 186, berriz, adingabeak (% 24,57).

2024an, 81.781 zerbitzu eskaini ziren; 201,63 zerbitzu batez beste egunero (gosariak, bazkariak eta afariak). 16.214 gosari, 19.273 bazkari eta 18.390 afari, hain zuzen ere.

## 7. PRESTAZIO ETA HITZARMEN SINATUETARAKO BESTE UDAL-DEIALDI BATZUK

### IRABAZI-ASMORIK GABEKO ERAKUNDE ETA ELKARTEENDAKO DIRULAGUNTZAK

- **Gizarte Ekintzako berariazko proiektuak.** Iruñeko Udalak gizarte-ekintzako jarduerak garatzen dituzten 57 proiektu lagundu ditu diruz: 35, desgaitasunari eta mendekotasunari buruzkoak, eta 22, gizarteratzeari buruzkoak. Deialdiak 340.000 euroko aurrekontua du (202.000 desgaitasuna/mendekotasunerako, eta 138.000, gizarteratzerako).

### HITZARMENAK ETA KONTRATUAK

- **Nafarroako Elikagai Bankua fundazioa.** Haren jarduna finantzatzen da, zehazki laguntza emanez elikagaiak doan bildu, gorde eta banatzeko, egoera sozio-ekonomiko larrian edo gizarte-bazterketan zein pobrezian dauden Iruñeko herritarren artean. 40.000 euroz dago hornitua.

- **Desgaitasuna duten pertsonen Ordezkarien Nafarroako Batzordea – CERMIN.** CERMIN erreferentziazko gizarte-eragilea da Nafarroan, desgaitasunaren eta haien senideen gizarte-mugimenduaren ordezkaritzazko ekintzari begira. Osaera: 12 elkarte, 3 federazio, eta 50 desgaitasun-erakunde biltzen ditu. Iruñeko Udalak dirulaguntza izenduna ematen dio, hitzarmenean bildutakoarekin bat. Zehazki, 15.000 euroko dirulaguntza eman zitzaion desgaitasunaren gaineko informazio-, aholkularitza-, prestakuntza-, sentsibilizazio- eta koordinazio-programari, bai eta desgaituen eta haien familien elkarte-mugimenduaren jarduerak eta zerbitzuak jakinarazteko proiektuari ere.

- **Secretariado Gitano Fundazioa. 3**0.000 euroko dirulaguntza eman zitzaion ijito familiekin egin beharreko esku-hartze proiektu bati, familia-nukleo batzuek duten gizarte- eta familia-arazo larria modu globalean geldiarazteko, eta bizikidetza eta gizarteratzeko zailtasunak eta haien adingabeen defizit sozialeko egoerak arintzen saiatzeko. Aurten, jarraipena eman zaio 2021ean Magdalena auzoan hasitako proiektuari Txantreako auzo-unitatearekin batera. Bi emakume-talderekin lan egin dute (ijitoak eta ez ijitoak) eta, hainbat lantegi ludiko eta prestakuntza-lantegiren bidez, hainbat gai landu dira zeharkakotasunez, hala nola hazkuntza, hazkuntza pertsonala, autozaintza eta familia kanpoko aisia. Halaber, uda partean, aisia jarduerak jarri dira abian Magdalena, Buztintxuri eta Lezkairuko auzoetako adingabeendako.

**BANAKAKO ETA LEHIAKETA BIDEZKO UDAL-DIRULAGUNTZAK**

| Prestaciones | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Gizarte-larrialdiko egoeran dauden familiak | 699.888,40 | 1.195.903,49 | 872.808,84 | 744.986,1 | 753.063,43 | 902.227,37 |
| Eskola-jantokiak | 649.434,83 | 473.767,04 | 397.935,93 | 557.189,33 | 634.163,25 | 734.803.3 |
| Alokairuak: Etxebizitzaren aldeko programa | 314.935,49 | 405.954.92 | 377.849,44 | 339.286,37 | 250.818,88 | 215.241,43 |
| Adingabeen arreta (0-12) | 20.831,27 | 10.695,38 | 16.171,44 | 14.754,5 | 23.813 | 20.656,9 |
| Gizarte-ekintzako erakundeetarako dirulaguntzak | 290.000 | 290.000 | 338.945 | 340.000 | 340.000 | 340.000 |
| Taxi bonua | 184.368,76 | 107.514,70 | 153.910,02 | 185.063,4 | 190.570,56 | 264.265.64 |
| **Orotara** | **2.204.458,75** | **2.077.880,61** | **2.159.641,67** | **2.181.279,70** | **2.192.429,12** | **2.477.194,64** |

Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

MEMORIA ANUAL 2024